

*«Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak, LXIX*

EUSKAL DIALEKTOLOGIA:  
LEHENA ETA ORAINA

Irantzu Epelde  
(arg.)

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Bilbao Bilbo  
2011



EUSKAL DIALEKTOLOGIA:  
LEHENA ETA ORAINA

Irantzu Epelde  
(arg.)



EUSKAL DIALEKTOLOGIA:  
LEHENA ETA ORAINA

Irantzu Epelde  
(arg.)

erman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Liburu hau Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren  
FFI2008-01844 dirulaguntzari esker argitaratu da.

- © Irantzu Epelde (arg.)
- © Egileak
- © «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegia / «Julio Urkixo» Basque Philology Seminar
- © Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-587-7

Depósito legal / Lege gordailua: BI - 3.293-2011

Fotocomposición / Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbao)

## AURKIBIDEA

IRANTZU EPELDE, Hitzaurrea . . . . .	ix
BEÑAT OYHARÇABAL, JASONE SALABERRIA eta IRANTZU EPELDE, NORANTZ datu- basea: aurkezpena eta aditz komunztadurako datuak . . . . .	1
BEATRIZ FERNÁNDEZ, Goi- eta behe-datiboak eta Datibo-Komunztaduraren Mu- rriztapena: Ipar-ekialdeko hizkerak eta euskara estandarra . . . . .	37
ORREAGA IBARRA, Egungo gazte mintzairaren hainbat ezaugarri . . . . .	65
IÑAKI CAMINO, Ekialdeko euskararen iraganaz . . . . .	87
JOSEBA A. LAKARRA, Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz . . . . .	155
Egileak . . . . .	243





## HITZAURREA

Duela hamabost urte, 1996an, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko zenbait hizkuntzalari eta irakasle elkartu ziren dialektologia ikerketak bultzatzeko asmoz. Lehen pausoa Nafarroako hizkerak aztertzea izan zuen ikerketa taldeak sortu berritan, ikusten zutelako herrialde horretako hizkeren aberastasuna, hizkera horien inguruan zegoen ezjakintasuna, eta hizkera horietako zenbaitek zuen galtzeko arriskua. Ikerketa aldi hark eman zituen fruituak, eta horren lekuko dira Iñaki Caminoren ardurapean argitaratu zuten *Nafarroako hizkerak* liburua (Bilbo: UEU, 1998) eta bi urte geroago Koldo Zuazoren ardurapean plazaratu zuten *Dialektologia gaiak* (Victoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2000).

Besteren artean ezagutu behar zaie, ikertalde haren inguruan bildu zirenei, dialektologialarien lanak jendarteratzeko egin duten ahalegin berezia. Azken urte hauetan, orain arteko lanaren emaitzak erakutsi nahirik, hainbat jardunaldi eta mintegi antolatu dituzte han eta hemen, UEU-ren eta EHU-k Donostian antolatu ohi dituen Udako Ikastaroen babesean batzuk, zenbait elkarteren eta udalen laguntzari esker beste batzuk. Ildo bereetik jarraitu du taldeak ondorengo urteetan ere, arreta berezia jarriz tokian tokiko alor lanaren bitartez ia batere ikertu gabeko euskal hizkerak biltzen, deskribatzen eta aztertzen. Urteak aurrera joan ahala, gainera, beste eremu batzuetako hizkerei ere egin diete lekua, abiaburua Nafarroa izan bazuten ere.

2005 inguruan, euskalkien jatorria eta iragana ikertzen hasi ziren ikerketa taldeko kide batzuk. Gauza ezaguna da orain arte dialektologia historikoa ez dela asko landu euskal hizkuntzalaritzan, salbuespenak salbuespen (Mitzelena 1981, adibidez)<sup>1</sup>. Ordea, begibistakoa zen hizkuntza baten historia ezagutzeko dialektoen mendez mendekako bilakaera ikertzeak egin zezakeen ekarpena, dialektologialariak ongi ohartuak ziren bezala. Ikerlerro honen inguruko hipotesi eta galdera berriak gorpuztuz joan ziren, eta ez aspaldi hiru urteko ikerketa proiektu batean gauzatu, Koldo Zuazoren zuzendaritzapean, 2009ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31 arteko aldian: *Origen y evolución de los dialectos vascos* (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren babesarekin; FFI2008-01844). Egitasmo horren babesean antolatu genuen, hain zuzen ere, *Euskalkien jatorria eta bilakaera* Elkargunea Donostiako XXX. Uda Ikastaroetan, 2011ko ekainaren 30ean eta uztailearen 1ean, eta egitasmo horrexen babesean argitaratu da eskuetan daukazun liburua hau ere.

---

<sup>1</sup> Mitxelena, Koldo. 1981. "Lengua común y dialectos vascos". *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*, 15: 291-313.

Hain zuzen alderdi diakronikoari erreparatuz egin dituzte liburuaren egileetako bik beraien txostenak, udako Elkargunean emandako hitzaldiei jarraipena emanez: alde batetik, ekialdeko euskararen iragana ikertu du Iñaki Caminok artikuluetako batean, eta, bestetik, euskal dialektologia diakronikoaren inguruko gogoetak eskaintzen dizkigu Joseba Lakarrak liburuaren azken orrialdeak hartzen dituen txostenean.

Gainerako egileek hizkuntzaren aldakortasun sinkronikoan oinarritu dituzte beraien lanak: lehenik, Baionako IKER zentroko taldeak gramatika aldakortasuna iker-tzeko sortu berri duten lanabes bat aurkezten du, Iparraldeko euskaldunen pertsona komunztadurako jokabideen azterketa xehearekin batera. Bigarrenik, mikro-aldakortasun sintaktikoaren esparruko txosten bat eskaintzen digu Beatriz Fernándezek, batez ere egitura inakusatibo datibodunen azterketa ekarriz, baina iragankorrei ere tartea eginez. Hirugarrenik, azken urteetan Nafarroako hiztun gazteen lagunarteko hizkera arduraga-bea xeheki aztertzen ibili ondoren, hizketa molde berezi horren ezaugarri nagusien berri ematen digu Orreaga Ibarrek bere txostenean.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi nizkieke liburu honetako txostengileei egin dituzten lanengatik eta liburuak argia ikusi bitartean eskaini duten guztiagatik. Eskerrak ASJU-ren argitaratzaileei ere, eta bereziki Joseba Lakarrari, hasieratik eman diguten laguntza handiagatik. Lan hau Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren FFI2008-01844 ikerketa proiektuaren barruan argitaratu da. Eskerrik zintzoenak denei, gure hasierako egitasmoa aurrera ateratzen laguntzeagatik.

*I. Epelde*

# NORANTZ DATU-BASEA: AURKEZPENA ETA ADITZ KOMUNZTADURAKO DATUAK

Beñat Oyharçabal, Jasone Salaberria eta Irantzu Epelde

IKER, Baiona

## Laburpena

*Lan honetan Baionako IKER laborategian 2009-2011 bitartean gauzatu den NORANTZ datu-basearen aurkezpena dakargu, bidenabar haren bidez iker daitekeen gramatika puntu bat —pertsona komunztadura anizkuna— testuinguru adierazgarrietan aztertuz. Datu-basearen helburua da Iparraldeko egungo euskal biztun arrunten gramatika jokabide nagusiak biltzea, eskualde horretako euskara biziaren, edo, hobeki adierazteko, honen oinarrian diren gramatikazko joeren irudi bat izateko. Lanaren lehen partean, datu-basearen aurkezpen orokorra dakargu, eta hau sortzeko izan diren arrazoiak eta erabili den metodologia azaltzen, datu-basearen mugak erakustearekin batera. Bigarren partean, gramatika ezaugarri abstraktu bati begiratu diogu: pertsona komunztadura anizkuna Iparraldeko egungo biztunetan zenbateraino gauzatzen den aztertu dugu, euskararen morfojoskeraren ezaugarri nabarmena delako, eta euskararen historian euskalkien arabera molde desberdinetan gauzatu dena.*

## Abstract

*The NORANTZ data-base is a corpus of oral interviews which aims to study dialect grammar and variation in the Northern Basque Country. The data-base is the result of our project Norantz: contact des langues et variation linguistique. Création d'un observatoire des nouveaux parlers basques, carried out in Bayonne between 2009 and 2011. In this paper, NORANTZ characteristics and methodology are described. Thanks to NORANTZ, a number of Basque dialect syntax aspects which were partially known or fully ignored have been researched: agreement based on grammatical person, for instance. Moreover, the geographical distribution of these aspects has been sometimes considerably broadened and traditional explanations have been replaced by new ones based on a better knowledge of the data. The study of dialect grammar has revealed as an important source for a better understanding of many cross-linguistic principles, and opens up new ways to test their validity.*

*We focused on three age groups in our data-base: youngs (–30), middle-aged (40-60) and octogenarians (+70) from the traditional provinces of Lapurdi, Low Navarre and Zuberoa (France). All of the informants (60) have Basque as their first and home language, but the older ones received education only in French and use French in formal*

(and often informal) situations, in oral and in written communication. The data come from recorded individual interviews held in Basque and from specific questionnaires and word lists (944 items in French).

Language variation can mark stable class differences or stable sex differences in communities, but it can also indicate instability and change. When it marks change, the primary social correlate is age (Chambers 2002), and the change reveals itself prototypically in a pattern whereby some minor variant in the speech of the oldest generation occurs with greater frequency in the middle generation and with still greater frequency in the youngest generation. If the incoming variant truly represents a linguistic change (Labov 1994, Trudgill 1974), as opposed to an ephemeral innovation as for some slang expressions or an age-graded change, it will be marked by increasing frequency down the age scale, as it occurs with the youngest generation in this community.

## 1. Sarrera

NORANTZ deiturapean biltzen da Ipar Euskal Herriko gaurko lekukotasun mintzatuekin Baionako IKER zentroan osatu dugun ahozko corpora.<sup>1</sup> Proiektuaren helburu nagusia da gure garaiko hiztunen azaleko gramatika-egazutzen irudi bat ematea, ondoko urteetan oinarri bertuko beste irudiak berdin eginik, denboran aldatetak nola doazen ikusi ahal izateko.

Begien bistakoa da Iparraldeko gizartean hizkuntzek duten tokiगतिक, atertzetik ez duen zirimola baten erdian bizi dela horko euskara aspaldi honetan, eta ateka gaizto horretatik bizirik ateratzekotan pentsatzekoa da nabaritutako direla hartan egoera honen ondorioak. Zer gisaz eta zein gramatika ataletan? Hori da, hain zuzen, alde zuzenetik nekez esan daitekeena, eta NORANTZek ikusgarriago eta ulergarriago egin nahi lukeena.

Ikuspegi honetatik egindako ikerketen beharra sumatu da euskal dialektologian, azken hamarkadetakoa aldateta soziologiko eta soziolinguistiko nabarmenek hizkuntzaren egitura ekar ditzaketan balizko berrikuntzak bildu eta aztertzeko. Baita egonkor iraun duten gramatika atalak zein diren ikusteko ere. Aldaketa soziolinguistiko horien bilakaera kontuan hartzea erabakigarria gertatzen da hizkuntzaren barruko dinamikak ulertzeko. Gauza ezaguna da hizkuntzak, gizarte ekoizpenak diren aldetik, beti aldatuz doazela eta haien ezaugarrietako bat dela denboran etengabe aldatetak izatea (Weinreich 1953), nahiz aldateta horiek maiz ez diren hiztunen borondatez gertatzen.

---

<sup>1</sup> Proiektuaren izenburu ofiziala hau da: «Projet *Norantz*: Contact de langues et variation linguistique: création d'un observatoire des nouveaux parlers basques» eta finantzatu duten erakundeak honako hauek izan dira: Akitaniako Eskualde Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra eta Euskararen Erakunde Publikoa. Iraupena: 2008ko irailaren 1etik 2011ko abuztuaren 31ra. Web interfazea helbide honetan aurki daiteke: [www.norantz.org](http://www.norantz.org). Ondoko proiektu hauekin loturik ere egin da lan hau: Ministerio de Ciencia e Innovación (FFI2008-01844), Frantziako ANReko ACOBA proiektua (ANR-2010-BLAN-1911-01) eta Fédération Typologie et Universaux Linguistiques (TUL) federazioko *Évolution des structures morphosyntaxiques. Vers une typologie intégrative* proiektua. Bestalde, lanaren lehen idatzaldiari ohar zuzen eta egokiak egin dizkiote Iñaki Caminok eta Koldo Zuazok. Eskerrak eman nahi dizkiegu bici, ekarri diguten laguntzagatik.

Euskararen kasuan, euskalki tradizionalak eta euskara estandarra landu izan dira azken hamarkadetan, baina euskararen errealitate soziolinguistikoa izugarri aldatu da azken hogeita hamar urteetan, ez bakarrik tokien arabera hiztunen kopuruetan gertatu diren gorabeherengatik, baita bestalde euskara gorde dutenen artean ere euskararen transmisioa ez delako orain arteko baldintzetan egin. Horrez gain, hizkuntzaren tinkotasun soziala ikaragarri ahuldu da Euskal Herriko toki askotan, Iparraldean bereziki (Coyos 2008, 2009a, b, 2010a, b; Legarra & Baxok 2005). Zenbat eta bakana eta urriago izan gizartean hizkuntzaren erabilguneak, orduan eta handiagoak eta ugariagoak izaten dira hizkuntza aldaketak eta hizkuntza ukimenaren ondorioak. Hiztun guztiak elebidun izateak eta gizarte ingurumen nagusiki erdaldun batean bizitzeak ere nahitaezko eragina du hizkuntzaren bilakaeran.

Kanpoko eraginei erantsi behar zaizkie euskarak azken hamarkadetako aldaketa eta jende mugimenduengatik izan dituen barne dinamika berriak:

Gauza da mendeetan zehar iraun duen bizimodua goitik behera aldatu dela azkenaldian, 1960tik hona gehienbat. Gaur egungo komunikabide eta garraioibideei esker, erraz eta maiz joan ohi gara edozein alderditara, eta gaur egungo hedabideei esker, geure etxetik irten gabe entzun dezakegu edozein alderditako euskaldunen solasa. Zalantzarik gabe, euskara batzea eta berdintzea ekarri du aldakuntza giroak. (Zuazo 2008: 14-15)

Euskararen errealitate linguistikoak gaur egun zer nolako itxura hartu duen ikusteko, eskura ditugu azken soziolinguistika inkestako datuak (Eusko Jaurlaritza, 2008), eta begiratu bat ematea nahikoa, egoeraren larriaz jabetzeko: 2006an, Eusko Jaurlaritzaren inkesta egin zen urtean, Iparraldeko biztanleen % 22,5 ziren elebidunak,<sup>2</sup> % 8,6 elebidun hartzaileak eta % 68,9 erdaldun elebakarrak. Hona hemen datuak, eremuka antolatuta:

### 1. taula

Elebidunen eta elebakarren kopuruak Iparraldean (2006)

	Iparraldea	%	BAM	%	Lapurdi BAM gabe	%	NB eta Zuberoa	%
Elebidunak	51.800	22,5	8.800	8,8	24.700	25,6	18.200	55,5
Elebidun hartzaileak	19.800	8,6	5.400	5,4	10.900	11,3	3.500	10,7
Elebakarrak	158.600	68,9	86.600	85,8	60.900	63,1	11.100	33,8

Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Biztanleetan ia % 70 erdaldun elebakar izateak ikaragarri aldatu du Iparraldeko paisaia linguistikoa orain urte batzuetatik hona. Beherakada nabarmena gertatu da, gainera, ez denbora luzean: hamabost urtean % 34,1etik % 22,5era jaitsi da euskal-

<sup>2</sup> Elebidunen herena 65 urtetik gorakoa da.

dunen kopurua (1991-2006 epean). Ez du aspaldi Iparraldeko hiztun gehienak hizkuntzaz —eta asko baita senez ere— frantsestu zirela. Nahikoa egoera berria da,<sup>3</sup> bilakaera aldia handizka hartzen badugu: 19. eta 20. mendeetan zehar Frantzia barruan kokatuaz joan da Iparraldea, batez ere administrazioaren eta eskolaren bitartez. Gainera, gogoan eduki behar da historian zehar izan direla Iparraldearen eta Frantziaren arteko lotura sendotu duten gertakariak, horien artean gerrak.

Ematen du hizkuntza baten galtze bidean funtzio informaletan galdu beharko lukeela nekezen (lagunartean, familian; Fishman 2001), baina besterik erakusten du errealitateak. Nola joan da gutxitzen euskararen presentzia funtzio informaletatik? Urteagak (2006: 15), INSEE-k 1999an transmisioaz egindako ikerketa batean oinarrituz, dio beherakada handia izan zela 1955 inguruan jaio zirenen artean (% 20k ikasara zietaen euskara seme-alabei), aurreko belaunaldiaren aldean (1920an jaiotakoan, hots, aurrekoen gurasoen % 40k ikasara zietaen euskara haurrei). Ohargarria da bi mundu gerren artean eta ondotik jaiotakoek zaindu dutela gutxiena euskararen transmisioa. Gertakari historikoek, politikoek eta gizartezkoek, ezinbestean, baldintzatu egiten dute herri baten bilakaera soziolinguistikoa, hiztunen jarrekar barne. Iparraldeko hainbat etxetan ez da arraroa aitama euskaldunetako familietan seme-alabek euskararik ez jakitea edo arrotua izatea. Ez da NORANTZEN ikergaia eta bazterrean utzi ditugu *language shift* edo herdoiltze kasuen azterketa berezituak (Thomason 2001), baina, Iparraldeko paisaia linguistikoaren parte diren neurrian, ezinbestean agertzen dira gure ikerketan honelako profila duten hiztunak:

When people start using the former second language as their primary language (or eventually often as their only language), the result may be different from the majority variety of that language, or the original target of second language acquisition. In immigration contexts we then speak of ethnolects, in postcolonial contexts of new varieties. (Backus 2008: 237)

Bada kontuan hartzeko beste puntu bat ere: ikastolak, gau-eskolek, hedabideek eta bestelako mugimenduek euskara batua ekarri dute euskaltegi, ikastetxe eta komunikabideetara, Iparraldeko batua.<sup>4</sup> Gaurko hiztun euskaldunek, bakoitzak izan duen ibilbidearen arabera, kontaktu gehiago edo gutxiago izan dute euskara estandarrarekin, eta kontaktu horren bizitasunak zuzeneko lotura du euskalkia gehiago, gutxiago, estandarrarekin nahasiago edo batere ez erabiltzearekin. Gainera, nahiz indar handiak egin diren euskara suspertzeko, oro har azken 20 urteetan galtzeak aurrera egin du, eta ondorioz atrizio kasuak areagotu egin dira. NORANTZ hizkuntzaren erabilera mota desberdin horiek kontuan hartuz eginga izan da, eta egungo hiztunek euskara baliatzean eta beren jakitate abstraktuan dituzten egitura gramatikalen eta fonetikoaren bilduma bat eskaintzen du.

Aurkezpen honetan, Iparraldeko egoera soziolinguistikoa laburki gogoratu ondoan (§1), NORANTZ datu-basearen deskribapena eta haren eratzeko erabili den metodolo-

<sup>3</sup> NORANTZEN parte hartu duen informatzaile zaharrenak 86 urte ditu eta hendaia da. Aita 1885ean jaioa zuen eta Hendaia euskaldun batean hazi zen (1974an hil zen). Bizpahiru belaunalditan gertatu da beherakada.

<sup>4</sup> Euskal irratiek pisu handia dute Ipar Euskal Herriko euskalgintzan. Gure Irratia-n eta Irulegiko Irratia-n gehienik Lapurdi-Baxenabarreko euskararen izaten dira emankizunak, eta Xiberoko Botza-n, zubereraz.

gia aurkeztuko ditugu (§2), baita azalduko ere hura egiterakoan agertu zaizkigun arazo batzuk, edo datuak baliatzerakoan gogoan edukitzekoak diren puntu batzuk. Ondotik, datu-baseko datuak baliatuak, gramatika ezaugarri zehatz bati dagozkion erantzunak aurkeztuko ditugu, hiztunek aditzen pertsona komunztadura gauzatzen dutenetz aztertuz (§3). Azkenik, ondorioak aurkeztuko ditugu lanaren bukaeran (§4).

## 2. Deskribapena eta metodologia

Gaur egungo hiztunen gramatiketan ager daitezkeen fenomenoen berri izateko, soziolinguistikoki ezaugarri desberdinak dituzten hiztun motak kontuan hartu behar dira. Desberdintasun horretako eragilerik handienak hiru hauek dira: adina, bizitokiaren ingurumena (euskararen gizarte presentzia, Baiona-Angelu-Miarritze hirigunetik kanpo, hiri txikiagoetan eta baserrialdean handiago izanez), eta euskarak eskolaztean izan duen tokia (murgiltze sistema edo ez, Iparraldean).

### 2.1. Hiztunak


Xede horretan, datu-basea hornitzeko, 59 hiztun aukeratu dira, irizpide horien arabera (adina, bizitokia, euskarak eskolatzeko izan duen tokia) 10 azpimultzotan banatuak. Erabakigarria da informatzaileen aukeraketa (Lanza 2008). NORANTZEN, garrantzizkoa da gogoan izatea ez direla hiztun ‘idealak’ bereziki bilatu, baizik eta, irizpide soziologikoei jarraikiz, hiztun arruntak, hots, euskaraz komunikatzeko oinarritzko gaitasuna dutenak. Ezaugarri desberdineko hiztunak hautatzeak hizkuntzaren gaitasunaren aldetik ere profil soziolinguistiko diferenteko hiztunekin lan egitea ekarri du, eta hain zuzen hori zen helburua. Bi lekukorekin gertatu zaigu gutxieneko gramatika gaitasunik ez izatea galdetegiko parte guztiei erantzun ahal izateko, eta hori dela-eta bi informatzaile horien datuak publiko ez egitea erabaki dugu. Taula honetan bildu ditugu elkarrizketatu ditugun hiztunen profil soziolinguistikoak (kontuan izan 40 urtetik gorako hiztunik ez dela murgiltze sistemako eskolatan ibili denik):

### 2. taula

Hiztunen tipologia hiru eragileren arabera

Hiztun tipoak				
adina	hirialdea		hirixkak eta baserrialdea	
	+ murgiltze	- murgiltze	+ murgiltze	- murgiltze
+ 70	—	8	—	7
40-60	—	5	—	7
-35	8	2 <sup>5</sup>	11	11

<sup>5</sup> Zaila da ikastolan ibili gabeko hiztun gazterik hirian aurkitzea. Horregatik dira bi bakarrik gure lekukoetan.



1. mapa Inkesta guneak

Sexua ez da irizpide gisa formalki jarri, baina kontuan hartu da, eta gutxi gorabehera erdiak emakumezkoak eta beste erdiak gizonezkoak izan dira. Ohiko euskalkiak ere ez dira irizpide gisa agertzen, lekuko guztiek ez baitute euskalki bat. Halere, Iparraldeko euskalki nagusi guztietako (zuberera, behe-nafarrera, lapurtera) hiztunak kontuan hartu dira. Euskalkia dutenen kasuan, informazio hori eskaintzen da datu-basean, hiztun bakoitzaren profilarik eskaini zaion tartean.

Hiztunen metadatuak biltzeko ez dugu software berezirik erabili, baina datu soziolinguistiko esanguratsuenak biltzeko fitxa bat prestatu genuen eta beraiekin batera bete, besteren artean eskolatzeari, ama hizkuntzari eta hizkuntza gaitasunari buruzko datuekin (ik. eranskina). Lekukoen profilak eskura daude datu-basean bertan, hiztunei eskainitako atalean.

## 2.2. Galdetegia

Hiztun horien gramatika ezagutza biltzeko, eta haien artean dauden aldaerak agerian emateko, elizitazio molde berak erabili behar dira. Horregatik, galdera berberak egin zaizkie hiztunei, ahoz, galdera guztiei banaka erantzuteko eskatuz, eta erantzunak grabatuz. Grabazioak IKERen egoitzan, lekukoen etxean edo lan-tokian egin dira Microtrack II grabagailu digitala eta AKG B29L mikrofonoa era-



biliz. Jatorrizko soinu artxiboak ukitu gabe artxibatu dira ordenagailu zentral batean, eta tratatu ondoko soinu artxiboekin eta segurtasun kopiekin prozedura bera segitu da.

Galdetegiak gramatikako atal handienak estaltzen dituzten perpausak biltzen ditu, eta galdera bakoitzak datu zehatz bat bilatzen du. Datuak lortzeko bide nagusi gisa itzulpena baliatu da, hots, perpausak euskarara itzul zitzaten eskatu zaie hiztunei. Elizitabide horrek tradizio luzea du hizkuntzalaritzako lanetan, baina, dakigun bezala, ez ditu alde onak bakarrik, eta uneoro datuak zein teknikaren bidez bilduak izan diren gogoan izan behar du ikertzaileak, itzulpena desegokia izan daitekeen gai batzuetan bereziki (erlatiboak edo baldintza perpausak, adibidez). Itzulpenaren osagarri, guk «ezagutza galdera» deitu duguna ere erabili dugu, hiztunek beraien erantzunetan erabili ez zuten formaren edo egituraren baten berri ba ote zuten jakiteko.<sup>6</sup> Guztira 35 galdera izan dira halakoak galdetegian, eta horiei dagozkien erantzunak oharrei eskainitako sailaren bitartez bakarrik eskura daitezke.

Galdetegiak 568 galdera ditu morfosintaxiari dagozkionak, eta 178, fonologiari dagozkionak. Lehenbiziko sailean gramatika arrunteko gai nagusietako oinarritzko datuak biltzen dira, eta bigarrenean, berriz, euskarak ez dituen frantses fonemen trasterari buruzkoak (maileguetan), baita, euskarak bai, baina frantsesak ez dituen zenbait fonema edo oposaketari buruzkoak ere (dardarkari edo txistukarietan).

Morfosintaxiko galdetegiak morfologia funtzionaleko datuak bilatzen ditu oroz gainetik, hondarkien eta adizkera jokatuena gainekoak bereziki:

### 3. taula

#### Galdetegia

A. IZENAREN MORFOLOGIA	
A.1. Hondarkiak	74 galdera
A.2. Erakusleak	7 galdera
B. ADITZAREN MORFOLOGIA	
B.1. Solaskiderik gabekoak	56 galdera
B.2. Solaskideen artekoak	32 galdera
B.3. Ahalera	29 galdera
B.4. Irrealisekoak	18 galdera
B.5. Trinkoak	5 galdera
B.6. Partizipioen aspektu morfema	8 galdera
B.7. Alokutiboa	11 galdera

<sup>6</sup> Eman dezagun, aditz morfologiako galdera baten kasua: *Je veux que Beñat vienne avec l'ami de Maialen* (B11). Eta jo dezagun lekukoak honela itzuli duela: *Nahi dut Beñat Maialenen lagunarekin jitea*. Halako kasu baten aurrean, forma jokatu gabeaz gain forma jokatu ere ba ote duen jakiteko, euskarazko proposamen hau egin diogu (27. ezagutza galdera). *Nahi duzu denak jin giten / etor gaiten?* (E27). Ahalegindu gara ezagutza galderak tokiko euskararen arabera ematen, horrek arazorik sor ez zezan. Praktikan, 35 baino gehiago izan dira honelako galderak, lekukoaren erantzunaren arabera sarri egin izan baititugu halakoak, galdetegian ez bazetozen ere.

C. JOSKERA	
C.1. Izenordainen gauzatzea	54 galdera
C.2. Determinatzailearen gauzatzea	17 galdera
C.3. Mailakatzaileak	7 galdera
C.4. Kuantifikatzaileen numero aditz-komuntadura	20 galdera
C.5. Banaketariak	4 galdera
C.6. Galdegaia	16 galdera
C.7. Galdera perpausak	11 galdera
C.8. Harridura perpausak	4 galdera
C.9. Aditzaren numero komuntadura	8 galdera
C.10. Mendeko perpausak	173 galdera
C.11. Inpertsionalak	9 galdera
D. MORFOFONOLOGIA	5 galdera
E. AHOSKERA	
F.1. Frantsesetikako maileguak > euskarak ez dituen fonemak	79 galdera
F.2. Frantsesaren eraginez gal daitezkeen oposaketak	99 galdera

Galdetegi honetako 746 galderen bitartez lortu diren erantzunak (44.000 pasatxo) erabiltzailearen esku jarri dira sarean, eta horietako bakoitzean klik eginez entzun daitezke. Kontuan hartu behar da euskarazko corpusa dela NORANTZ, eta beraz corpus elebarkarren ezaugarriak eta mugak ditu. Tarteka bada perpaus elebidunen bat edo beste, hiztun batzuen erantzunetan badirelako frantseserako lerratzeak. Bere horretan argitaratu ditugu halakoak, hiztun horien solasaren ezaugarria direlakoan. Luzetasun desberdinetakoak izan daitezke lerratze horiek: batzuetan hitzaren mailakoak dira (ad. *force\**a ‘indarra’, *restaurant\*ilat* ‘jate txera’), beste batzuetan sintagmaren mailakoak (ad. *haurrak igorri ditut à l’instituteur\** ‘haurrak irakaslearengana igorri ditut’). Ez da alde aurretik pentsatu honelako perpaus elebidunak elizitzatzeko galderarik. Besterik gabe transkripzioan delako hitza edo sintagma frantsesa dela seinalatzeko marka bat (izartxo) erabili dugu, eta frantses ortografiaren arabera idatzi.

### 2.3. Kontuan hartu beharrekoak

Corpus batean oinarritutako ikerketa proiektua da NORANTZ. Corpusa eraikitzen hasterako, bi gauza hartu behar dira kontuan: bata, nolako datuak atera eta erabili nahi ditugun, eta bigarrena, nolako azterketak egin ahal izango diren gero datu horiekin, behin corpusa osatua eta bururatua dagoenean. Horiek erabakitzea eta zehaztea izaten da lehenbiziko zailtasuna honelako ikerketetan, eta mugak ongi finkatzea. Garbi esan behar dugu NORANTZEN helburua ez dela izan erkidego oso baten mintzoa biltzea, baizik eta, aurreko atalean azaldu dugun hiztun tipologiaren arabera (§2. taula) eta hizkuntzaren erabilera mota desberdinak kontuan edukiz, egungo hiztunek euskara baliatzean beren jakitate abstraktuan dituzten egitura gramatikalen eta fonetikoaren bilduma bat egitea, eta datu-base batean antolatuta Interneten eskaintzea. Jarraian azalduko ditugu datuak biltzean eta sareratzeko prestatzean sortu zaizkigun arazo batzuk edo datuak baliatzerakoan gogoan edukitzekoak diren puntu batzuk.

Ahozko corpusa da NORANTZ, eta beraz grabazioetan oinarritutakoa. Grabatutako datuak lortzea eta erabiltzea eginkizun konplexua da berez. Baliabideak eta denbora eskatzen ditu. Esperientziak ere zenbat laguntzen duen jakingo du alor lanean ibili den edonork. Ibiliaren ibiliaz joaten dira hobetzen inkestagileen grabatze lanak:

The best way to approach all the tasks involved in recording is as a learning process, where one does not learn everything at once, but rather improves one's understanding over time by trial and error. (Clemente 2008: 190)

Guk ere, arazo teknikoengatik errepikatu egin behar izan dugu galdera bat baino gehiago, are galdetegiko parte oso batzuk zenbaitetan. Halakoetan grabagailua izan da gehienetan arazo iturria, gutxi batzuetan mikrofonoa. Kanpoko zarata grabazioan agertzea saihesteko edo gutxienez apaltzeko, paparreko grabagailua erabiltzeari utzi eta aho-belarrietakora pasatu ginen aski goiz. Emaidza hobea lortu dugu, alde handiarekin. Baldintza akustikoak ez dira beti idealak izan, baina hiztunaren erosotasuna bilatu da beste gauza guztien gainetik; horregatik, grabazio asko lekukoaren etxean egin dira, sukaldean gehienetan. Inoiz, baita lantokian ere. Elkarrizketak egiten hasi aurretik, tartea hartu da elkarrizketatuari zehazki esplikatzeko zer egin behar zuen, eta esan zaio behar zuen astia patxadaz hartzeko ariketa bere kasa burutzeko.

Arazo teknikoez beste, eduki dugun zailtasun handiena metodologikoa izan da. Galdetegi itxia erabiltzeak (ik. 3. taula) eta bereziki itzulpenean oinarritutako elizitabidea hautatzeak nahikoa egoera artifizialean eginarazi dizkigu elkarrizketak. Ariketa luze baten aurrean jartzen genituen informatzaileak, guk galdetuz, haiek bat-batean erantzun behar baitzuten. Galde-erantzunen pasarteak ez dira inondik ere hizketa libre naturalaren erakusgarri onak, eta halakoen lagin batzuk izateko bestelako bat-bateko jardunak ere grabatu ditugu informatzaileekin. Galdetegiaren bidez lortutako materialaren osagarri gisa eskainiko ditugu testu libre horiek sarean.

Galdetegiaren luzetasunak ere zaildu egin du bilketa, eta beharrezkoa ikusi genuen behin betiko grabazioekin hasi aurretik proba piloak egitea, besteren artean diseinatu genuen galdetegiaren ote zitekeen ikusteko. Aditzaren morfologiako parte handienarekin eta joskerako atal batzuekin egin ziren proba piloak, 2009ko udaberrian, adin guztietako 16 lekukorekin.<sup>7</sup> Piloetan hainbat ariketa mota erabili genituen, adibidez joskerako atalean mendeko perpausetan perpaus nagusia frantsez uzteko eta mendeko perpausa bakarrik itzultzeko eskatuz, edo galderak egiteko powerpointa erabiliz... Probatutako bitartekoen alderdi txarrak eta onak kontuan hartuz erabaki zen protokoloa eta datu-biltzeko prozedura. Protokolo hori 2009ko maiatzaren 15ean Baionan egin zen mintegi batean eztabaidatu eta finkatu genuen. Euskal Herriko Unibertsitateko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta IKEReko 25 hizkuntzalarik hartu zuten parte mintegi hartan.<sup>8</sup> Galdetegi luzea eta itzulpe-

<sup>7</sup> Egitasmoak ezin izango zuen eduki duen bilakaera eduki hamasei adiskide hauen laguntzarik gabe: Pette Etxekopar, Magi Bimboire, Elisabeth Aguer, Marie Dubroca, Marie Lagand, Hodei Bimboire, Maurice Bortheiri, Etienne Landarretche, Amets Arzallus, Jeronimo Azkue, Florian Bouffaut, Abel Linaizoro, Céline Mounole, Maider Bedaxagar, Pantxika Irigarai, Maitena Duhalde eta Jean-Louis Oçafraïn.

<sup>8</sup> Eskerrik zintzoenak hasieratik bidelagun izan ditugun irakasleei, bereziki proiektua abiatzen ari girela mugikortasun programa bati esker gutartean izan genituen Lourdes Oñederra, Javi Ormazabal eta Myriam Uribe-Etxebarriari ekarri ditugun laguntza handiagatik.

nean oinarritutakoa dela kontuan hartuz, hiru partetan zatitzea erabaki zen, eta parte bakoitzean morfologiazko, joskerazko eta fonologiazko zatiak tartekatu genituen. El-karrizketatuari erraztasunak eskaintzea bilatu genuen galdetegia hirutan zatitzearekin, lekukoarentzat astunegia ez izatea, baina alderdi on horrek alderdi txar bat ere badauela ikusi dugu gero, datuen tratamendua eta bilduma zaildu egin dituelako zatika-tze horrek.

Metodologiari dagokion beste arazo aipagarri bat izan da, erantzunetan, zatika itzultzea edo itzulpenaren zatikako lanari dagokiona. Izan ere, bereziki perpaus lu-zeenetan, lekuko batzuei nekeza egin zaie perpausa osorik prozesatzea, eta halakoe-tan parteka joan izan dira itzuli beharrekoa moldatzen. Batzuetan huts garbiak era-gin ditu jokabide honek. Adibidez, B89 galderari —(*Peio a repris des forces*). *Avec un peu d'aide, il peut se lever du lit*— honela erantzun zion MAILA lekuko gazteak: *Peiok* (sic) *arra azkartü düzü. Lagüngoamiñi batekila ahal düzü ohetik jeikitzen* 'Peiok (sic) berriz bizkortu da. Laguntza pixka batekin ohetik jaiki daiteke'. Ildo beretik, B112 galdera (*Avant les paysans ne pouvaient pas travailler le dimanche*) honela itzuli du XALEZ lekukoak: *Lehenau laborariek etzuten igandetan lanian artzen al* 'lehenago laborariek (sic) ez zuten igandetan lanean aritzen ahal'. Badirudi holako kasuetan, ez beti menturaz, baina batzuetan behintzat, subjektuaren kasuaren eta adizkeraren arteko komunztadurarik eza itzulpena zatika egiteak sortu duela. Konplexutasunaren aldetik, bereziki nabarmendu behar dira galdetegiko atal hauek: izenaren morfolog-ian, erakusleei dagokiena; aditzaren morfologian, solaskideen arteko adizkiei dago-kiena; joskeran, bereziki perpaus erlatiboak, baldintzazkoak eta konparaziozkoak.

Elizitabide gisa itzulpena erabiltzeak sortzen duen efektuaz ere ohartu gara hiztun batzuen erantzunetan. Adibidez, hitzez hitzeko itzulpenak egin dituztenetan, norma-lean erabiltzen ez dituzten formak emanaz. Esaterako, honela euskaratu du JOSA le-kuko gazteak C131 perpausa: *Ze erraten al duzu zozokeri bezala!* (*Qu'est ce que vous pouvez dire comme bêtises!*). Bat-bateko solasaldi librean, hots, egoera normaletan, ez du horrelako harridura perpausik erabiltzen lekuko honek.

Kontu metodologikoez gain, izan dira interakzioan sortu diren bestelako arazo batzuk ere, interpretazio desberdin batzuk iturrian zituztenak (ikus, adibidez, 18. oin-oharra). Halakoak elkarrizketetan gertatu ahala moldatzen saiatu gara, baina horiek ere aintzat hartu ditugu. Oso kontuan izan behar da galdera bakoitzarekin gramatika puntu jakin bat bilatzen genuela, eta batzuetan delako galderaren bitartez ez dugula neurtu ahal izan bilatzen genuen hura, hiztunak beste bide bat aukeratu duelako.

Bestalde, galdera baten eremutik kanpo ere aurkitzen dira gramatika egitura jaki-nei buruzko datuak. Adibidez, ergatiboari dagozkion galderetan hiztun guztiek mar-katu dute ergatiboa, bai singularrean eta bai pluralean, baina gero galdetegian zehar besterik gertatzen da itzulgaian bestelako konplexutasunen bat dagoenean (arreta konplexutasun horretan jartzen dutelako). Eman dezagun, C35 galderan (*Peio n'a pas confiance en lui*), bi lekuko gaztek ez dute ergatiborik markatu (XILAK eta PEOLOK); ergatiboari dagozkion galderetan, berriz, bai.

Goian aipatu ditugunak bezalako metodologia arazo asko inkestak egin ahala agertu dira, horregatik dute alde zureko test pilotoei duten inportantzia, galde-tegiaren behin betiko bertsioa finkatzeko eta lanaren gida fidagarri bat ziurtatzeko. Gure kasuan, ez dugunez adin bereko hiztunekin lan egin, galdetegia diseinatzer-

koan alde aurretik ikusten genuen galderak adinaren arabera egokitzeko beharra. Izan ere, galdera batzuk izan daitezke, erreferentzia kulturalen aldetik, adin talde barentzat egokiak baina beste barentzat erabat desegokiak. Maileguak hartzen baditugu, adibidez, beharrezkoa zen hots edo hots bilkura bakoitzeko kasu bat baino gehiago sartzea galdetegian: adineko batzuek ezin izan dituzte fonologia ataleko *club* (F29), *surf* (F30), *pub* (F31), *rapport* (F52) eta horrelako mailegu berriak euskaratu, ez dutelako ezagutu halakorik. Alderantziz, gazteek nekez itzuli ahal izan dituzte garai bateko bizimoduari eta bereziki baserri munduari lotutako zenbait mailegu: *zinguerie* (F14), *luzerne* (F15), *sergent* (F37)...

NORANTZ osoki ahozko datuetan oinarritua denez eta sarean kontsultagai dagonez, alde aurretik informatzaile bakoitzari baimena eskatu zaio bere boza Interneten jartzeko, betiere anonimotasuna gordez. Baimen-agiria idatzizkoa da eta leku koen sinadura darama. Prozedura etikoak Frantziako jokabide estandarren arabera erabaki dira (Baude 2006). Badira datu-basean erantzunak duda eta nekezia handiekin eman dituzten hiztunen datuak, huts garbiak ere bai, eta horiek bere horretan argitaratu ditugu, baita forma asmatuak eman dituztenetan ere (ikus, adibidez, B73 galderari XILA gazteak emandako erantzuna<sup>9</sup>). Saiatu gara ahal zela 'spelling errors' direlakoak saihesten, erantzuna berriz errepikatze eskatuz, baina ez gara oso sistematikoak izan honetan.

Datuak transkribatzeko ere baimena eskatu zaio informatzaile bakoitzari. Izan ere, ahozko datuek badute zailtasun handi bat idatzizkoen aldean: transkripzioa eskatzen dute. NORANTZEN, transkripzio ortografikoa erabili da, ez estandarra, ez fonetikoa. Estandarra baztertuz, iruditu zaigu fidelkiago ematen genuela lekukoak emandako erantzunaren berri, eta arrazoi horregatik beragatik gorde dugu, transkribatzerakoan, hiztun bakoitzaren barne aldakortasuna: adibidez, C214 galderan *bañon* 'baina' dio ALAZI lekuko gazteak, bustidurarekin; hurrengo galderan, C215ean, berriz, *bainon*, bustidurarik gabe. Ordea, salbuespena egin dugu aditzaren morfologian, forma jokatuetan morfemak osorik ematerakoan edo gehienez ere parentesiak baliatuz, anbigutasuna saihesteko asmotan: adibidez, ABE lekuko gazteak *gomitatu itugu* esan du A10 galderari dagokion erantzunean, baina (*h*)*itugu* 'haugu' bai baita Iparraldeko formatan, (*d*)*itugu* transkribatzea hobetsi dugu, berak hitz hasierako kontsonantea ahoskatzen ez badu ere.

Transkripzioa baliabide praktikoa da hizkuntza azterketa zehatzak egiterakoan, biderik lasterrena da behar ditugun datuak elkarren segidan ikusi eta ordenatu ahal izateko, audio artxiboa baino egokiagoa azterketa unerako. Turell eta Moyer-ek diote datuen interpretaziorako eta analisirako lehen urratsa transkripzioa dela (2008: 194), eta izatez hala da. Horrenbestez, transkripzio oharrak gure helburuen arabera eginak izan dira, bereziki datuaren fidagarritasunaz argibidea ekartzeko. Bi transkribatzailearen artean egin dira corpuseko transkripzio guztiak, eta irizpideak oro har berak izan badira ere, ez datoz beti guztiz bat. Izan badira bi transkripzioren arteko batasuna neurtzeko metodoak (Rietveld & van Hout 1993), baina guk geure 44.000 pasa erantzunetan ez dugu zehatz-mehatz kontrolatu batasun hori. Ideia nagusia izan da

<sup>9</sup> B73. *Mes amis veulent que vous me connaissiez*. «Ene lagunak nahi likezü eni ezagütü züidan». Beste adibide argi bat, tarteko adin multzoko (40-60) euskaldun garbi batena: B72. BERLA: *Beñat veut que je vous vois*. «Beñatek nahi du zu ikus dezadan».

transkribatzailearen araberrako aldakortasuna minimora ekartzea, eta horretarako hiztunkako berrikusketa eta orrazketa osoak egin dira datu-basea soinu hornitu ondoren.

### 3. Datu-baseko ezaugarri baten azterketa: pertsona komunztaduraren gauzapena komunztadura anitzeko adizkeretan

Asko ziren NORANTZ datu-basearen aurkezpen honetan erakusten ahal ziren datu interesgarriak. Adin taldeak konparatuz, bereziki argi da aldaketa batzuk bi-dean direla, batzuetan doi-doia abiatuak direnak, eta beste batzuetan aurreratua-goak. Egin ditugun ahozko aurkezpenetan, euskararen barneko konbergentzia aldaketa batzuk erakutsi ditugu, hala nola ezetzaren pean diren perpau osagarrietan *-enik* atzizkia baliatzea (Iparraldean horrelako ingurumenetan ohikoa den *-ela* atzizkiaren ondoan), edo *-gan* eta *-gandik* bezalako morfemak erabiltzea (*baitan* eta *-ganik*-en ondoan). Argi da, bestalde, ez direla konbergentzia fenomeno hauek beti euskara batuak ekarriak, eta Hegoaldeko euskalkien eraginak bestela ere ageri direla. Adibidez, objektu zuzen biziduna datiboan markatzen dute gazteen taldeko hiztun batzuek erantzun batzuetan (absolutiboan egin orde, oro har Iparraldeko euskalkiek orain arte egin duten bezala<sup>10</sup>); halaber, mendebaleko hurbiltze adlatiboaren morfema sartzen hasia bada, ez da forma arautuan (*-rantz*) egiten gehienetan, mugaz beste aldekoengandik berriki entzun duten forman baizik (*-runtz*). Beste aldaketa batzuk ere, dibergentziak hauek, berdin erakutsi ditugu, frantsesarekiko kontaktuak ekarriak batzuetan, berez sortuak besteetan. Lehenbizikoen adibide gisa, IZEN + *egin* bezalako aditz lokuzioen forma kausatiboak aipa daitezke; haietan, frantsesaren eraginez iduriz, argumentu arazia (*causee* delakoa) osagarri absolutibo gisa tratatzen dute lekuko gehienek (*irri eginarazi nauzu esanez*, beraz). Bigarrenen ere gisa, gazteen taldeko zenbait hiztunek erabiltzen duten *beri* izenordain indartu datiboa aipa daiteke. Izenordain hori, itxura guttien arabera, murgiltze sisteman ibili diren gazteen tokiko berrikuntza da, segurenik *bere* izenordain genitiboaren analogiaz sortua (*hari* eta *berari* izenordainen ondoan).

Aipatu aldaera mota horien datuak azaldu behar izan bagenu, luzeegi joango zitzagun aurkezpen hau, eta egokiago iruditu zaigu beraz bestelako datu mota bati so egitea. Horrela, NORANTZ datu-baseak eskaintzen dituen datuez irudi bat emateko, euskararen ezaugarri morfosintaktiko abstraktu bat aukeratu dugu, hiztunek komunztadura anitzeko adizkeretan pertsona komunztadura gauzatzen duten ala ez ikertuz. Jakina den bezala, euskarak puntu horretan batasuna eta aniztasuna erakusten du, euskalki guztietan pertsona komunztadura jokarazten baita komunztadura anitzeko adizkeretan, jokabide horiek modu desberdinetan gauzatzen badira ere. Bestalde, egungo joskera lanek garrantzi handia ematen diote komunztaduraren morfo-

<sup>10</sup> Yrizarrek *nuzu* & *daazu* 'nauzu & didazu', *zitut* & *dauzut* 'zaitut & dizut' bezalako pareak bildu zituen Baigorri (Yrizar 1999: 64 eta 89). Lehenago, Bonapartek ere Baigorri bi paradigmak aukerakoak zirela seinatu zuen hemeretzigarren mendearen erdialdean, eta holako adibide batzuk jaso zituen (Bizkaiko Foru Aldundiko Bonaparteren ondareko 101. eskuizkribua). Iñaki Camino lankideari zor diogu ohar hau.

logiari perpausaren egitura sintaktikoarekin dukeen loturagatik (Artiagoitia 2000). Gisa horretan barnagoko aldaketa batzuen adierazbide ere izan daitezke aditzaren jo-kaeran gerta daitezkeen aldaketak. Uste dugu, beraz, bide egokia eskaintzen duela aditz komunztadurak euskararen funtzio morfologiaren atal inportante bat egungo Iparraldeko hitzunetan nola agertzen den ikusteko.

Pertsona jokabidea aditz mota guztietan molde bertsuan agertzen den arren, badakigu hari zuzenean ez dagozkion beste zenbait faktorek eragina izan dezaketela hartan, hala nola aditz laguntzailearen hautapenak, eta baita aspektu-aldietako eta zenbait modutako kontuek ere. Alabaina, elementu hauek ere adizkeraren morfologiako osagaiak diren neurrian, komunztadurako morfemekin konbinatu behar dute, eta konbinatze horren ondorio dira aditz paradigmatikak. Funtsean, literatura euskalkietako eta euskara estandarreko ez-oraineko adizkeretan ikus daiteke hori, orduan DS ergatiboarekiko komunztadura morfema, oraineko formetan atzizki dena, aurrizki izaten baita. Nahiz lotura hori aski garbia den NORANTZek eskaintzen dituen aldaketako datuen arabera —hala iruditzen zaigu bederen—, ikergaia mugatzeko eta korapilo trinkoegietan ez sartzeko, aurkezpen honetan ez dugu hortik bideratuko gure azterketa, komunztadurari berari bakarrik begiratuko baitiugu hemen.

Arrazoi horregatik beragatik, ez dugu aztertuko nola gauzatzen dituzten hitzunek komunztadurako morfemak, eta bereziki adizkeretan hartzen duten tokia. Badakigu, aspaldi aldaketa leku izaten direla puntu horiek euskararen, ezen gure eskuetara heldu lehenbiziko euskal gramatiketan beretan agertzen zaizkigu gisa horretako aldaeren lekukotasunak.<sup>11</sup> Xehetasun handiegitan sarraraziko gintuen holako gorabeherei behatzeak, eta gainerako puntuak baztertuz, puntu bati bakarrik so egin diogu: pertsonari dagokion komunztadura markatua den edo ez.

Komunztadura anizkuna da euskaraz, eta morfosintaxiaren arabera antolatua. Datuak ere, halaber, elementu horiei jarraikiz aztertuko ditugu. Halere, komunztadura markatze guztiek ez dute neurri berean aldaketa leku izateko aukera, eta hauek bereziki interesekoak dira guretzat hemen. Horregatik, subjektu absolutiboarekiko komunztadura bazterrean utziko dugu, ez baitugu uste hartan direla jokabide berriak agertzekoak. Halaber, arrazoi beragatik, objektua 3. pertsonakoa duten adizkera iragangaitzetako pertsona komunztadura datuak ere (*du*, *dezadan*, *nuen*, *nezan*...) ez ditugu ikertuko. Ondoko komunztadura markatzeak kontuan hartuko ditugu, beraz:

- Solaskideen arteko harreman zuzena adierazten duten adizkeretako DS ergatiboarekiko pertsona komunztadura;<sup>12</sup>
- DS datiboarekiko pertsona komunztadura (ZER-NORI-NORK eta NOR-NORI adizkeretan);
- Objektu zuzenarekiko pertsona komunztadura (objektua 1. edo 2. pertsona duten NOR-NORK adizkeretan).

<sup>11</sup> Horrela, Allières (1985), Urteren gramatika zaharra ikertuz, euskal aditzaren polimorfismoaz aritu zen. Larramendiren gramatika (1729) aurkitzen da polimorfismo horren adibide garbirik.

<sup>12</sup> Solaskideen arteko adizkerak hauek dira: baretik, objektua eta subjektua 1. eta 2. pertsonak dituzten NOR-NORK adizkerak; bestetik, zeharkako objektua eta subjektua 1. eta 2. pertsonak dituzten ZER-NORI-NORK adizkera ditransitiboak.

### 3.1. Pertsona komunztadura ergatiboa

Solaskideen harremana zuzenean adierazten duten adizkera monotrantsitibo eta ditrantsitiboetan, ergatiboaren komunztadura egiten den edo ez erakustera eman dezaket 34 elizitazio perpaus dira datu-basean. Beraz, 2.006 erantzun (34 × 59) bil zitezkeen datu hori eman zezaketenak. Ez dago esan beharrik erantzun guztiak ez direla horrelakoak izan: 1644 erantzun halakoak gertatu dira, eta 362 erantzun eman dira komunztadura ergatiboa egiten den edo ez ikusteko biderik ematen ez dutenak.

1.644 erantzun horien artean 18 dira ergatiboaren komunztadura erakusten ez dutenak. Oso gutxi dira, beraz, inkestaren baldintzak kontuan hartuz gero, bereziki. Gisa horretan zaila da hiztunetan bereizi diren adinaren araberrako taldeen artean bereizkuntzarik egitea, eta esan daiteke gaurko Iparraldeko hiztunek komunztadura ergatiboa atxikitzen dutela aditzaren jorkaeran, gazteek ere bai.

Ondorio hauek zehazkiago agertzeko, adizkera datibodunak eta datiborik gabeak bereziki ditugu hemen. Lehenik, solaskideen arteko ZER-NORI-NORK saileko formak ikusiko ditugu, hau da [-pA\_+pD\_+pE] ezaugarria duten elizitazio perpaussei dagozkien erantzunak.<sup>13</sup> Gero, NOR-NORK sailekoak aurkeztuko ditugu, hots [-pA\_+pE] ezaugarria dutenak.<sup>14</sup>

#### 3.1.1. Komunztadura ergatiboa adizkera ditrantsitiboetan

Datu-baseak 18 elizitazio perpaus ditu [-pA\_+pD\_+pE] ezaugarria dutenak, hots, argumentu datiboa eta ergatiboa 1. eta 2. pertsonakoak dituzten adizkera ditrantsitiboak. Perpausak egitura horretan aise ager daitezkeen aditzak erabili dira horretarako: *apporter, donner, raconter, offrir, dire quelque chose à quelqu'un...* Hauek dira hiztunei euskaraz esateko eskatu zaien elizitazio perpausak (irakurlearen lagungarri, elizitazio perpausaren ondotik erantzun gisa ager zitezkeen adizkera bat euskara batuan ematen dugu):

B78 — *Je vous ai apporté les papiers* de la voiture ce matin. ‘... *ekarri dizkizut.*’

B79 — *Vous m’avez donné le livre* de mon frère. ‘... *eman didazu.*’

B80 — En ce temps là, *je vous donnais un baiser* tous les jours. ‘... *ematen nizun.*’

B81 — Il y a bien longtemps, *vous me racontiez des histoires* tous les soirs. ‘... *kontatzen zenizkidan.*’

B82 — Maialen veut *que je vous porte le livre* à la maison. ‘... *ekar diezazudan.*’

B83 — Peio souhaite que *vous me donniez l’argent* ce matin. ‘... *eman diezazadazun.*’

<sup>13</sup> Datu-basean 1. eta 2. pertsona duten formek [+p] ezaugarria dute eta 3. pertsonakoek [-p]. Ezaugarri horiei kasuaren araberrako zehaztasuna lotzen zaie, alegia A (absolutiboa), D (datiboa) edo E (ergatiboa). Beraz, [+pA] ezaugarriak 1. edo 2. pertsonako komunztadura absolutiboa adierazten du, eta [-pE] ezaugarriak, berriz, 3. pertsonako komunztadura ergatiboa. Bestalde, adizkera berean agertzen diren ezaugarriak beheko marraren ( ) bidez markatzen dira. Horrela, [+pA\_+pE] ezaugarria duten adizkerak, 1. eta 2. pertsonako indize absolutiboa eta ergatiboa dituzten NOR-NORK adizkerak dira; [-pA\_+pD] ezaugarria dutenak, berriz, hirugarren pertsonako komunztadura absolutiboa eta 1. edo 2. pertsonako komunztadura datiboa dituzten NOR-NORI adizkerak dira.

<sup>14</sup> Kontuan har bedi elizitazio perpausen araberrako ezaugarriak direla. Badaiteke ezaugarri horri dagozkien erantzunetan ez agertzea, edo, alderantziz, beste ezaugarri bat duen elizitazio perpaus baten erantzunetan agertzea. Hauek ez ditugu kontuan hartzen hemen, datu-basearen antolamendutik ez urruntzeko.



- B84 — L'an dernier, vous vouliez que je vous vende ma voiture. '... *sal niezazun*.'
- B85 — Avant, Peio ne voulait pas que vous me racontiez des mensonges. '... *gezurrik erran zeniezadan*.'
- B86 — Maialen préférerait que vous me portiez des biscuits de la maison. '... *ekar diezazkidazun/zeniezazkidan*.'
- B87 — Donnez-moi ce livre! '... *emaidazu*.'
- B88 — Racontez-moi des histoires! '... *konta iezazkidazu*.'
- B114 — Moi également, je peux vous donner un peu d'argent. '... *eman diezazuket*' edo '... *ematen ahal dizut*.'
- B115 — Vous avez ma permission. Vous pouvez me dire la vérité sans crainte. '... *erran diezadakezu*' edo '... *erraten ahal didazu*.'
- B116 — J'avais assez d'argent. Je pouvais vous en donner un peu. '... *eman niezazukeen*' edo '... *ematen ahal nizun*.'
- B128 — Si à ce moment-là vous m'aviez parlé à moi, je vous aurais donné un peu d'argent. '... *emanen nizun*.'
- B130 — Si ce jour là je vous avais offert de l'or, à moi aussi vous m'auriez parlé d'une autre manière. '... *eskaini banizu*.'
- B132 — Si à vous aussi je vous parlais tous les jours, vous me diriez la vérité. '... *erran zeniezadake*' edo '... *erranen zenidake*.'
- B133 — Si je vous payais le voyage, vous iriez en Amérique. '... *paga baniezazu*, ...' edo '... *pagatzen/pagatuko banizu*...'

Zerrenda horri behatuz, ikus daiteke aditz laguntzaile desberdinak (aditz nagusi aspektudunak edo aditzoina eskatzen dutenak) eta aldi desberdinak bidera ditzaketen elizitazio perpausak direla: orainaldikoak (B78, B79, B82, B83, B86, B87, B88, B114, B115), iraganaldikoak (B84, B85, B116, B128), eta alegialdikoak (B130, B131, B132, B133); edo modu markaturik gabekoak (B78, B79, B80, B81), subjuntibokoak (B82, B83, B84, B85, B86), ahalerakoak (B110, B111, B114, B115, B116), aginterazkoak (B87, B88), baldintza irrealakoak (B130, B132, B133). Beraz, hiztunek baliatzen dituzten paradigma desberdinetan kontrolatzen ahal dira komunztadura ergatiboari dagozkion datuak. I taulan ikus daitezke galderaka eta hiztun multzoka datu-baseak eskaintzen dituen datuak.

Taulari behatuz, irakurleak ikus dezake oso manera erregularrean egiten dutela hiztunek komunztadura ergatiboa aditz ditransitiboetan. Datua ezin ikusizkoa egin duten erantzunak, pentsa daitekeen bezala, elizitazio perpausak subjuntiboa bideratzen dutelarik agertzen dira (B82, B83, B84, B85, B86). Alabaina, hiztun anitzek, gazteen taldean bereziki, forma jokatu gabea (aditz-izena) erabilirik erantzun dute orduan. Neurri ttipiago batean, hala gertatzen da aginterazko elizitazio perpausetan ere (B87, B88), hauetan ere forma jokatu gabeak erabili baitituzte gazteen taldeko hiztun zenbaitek.

Orotara adizkera ditransitibo jokatu duten 887 erantzunetan (1062-175) 7 kasutan agertzen da komunztadura ergatiboa egiten ez duen adizkera, % 1 baino gutxiago, hots. Huts baten ondorioa izan daiteke. Adibidez, adina duten taldeko LOUSEN hiztunak, '*Maialenek nai luke zuk bixkotxak ekar ditzan, zuk eni*' erantzun du (B86), seguraz ere huts eginik bere erantzunean. Halaber, iduri luke hala gertatu dela aspaldian hirian bizi izanik eta bere hurreko euskara zerbait herdoildua izanik, euskara batuko formak ere batzuetan erabiltzen dituen Koba hiztunaren kasuan (40-60 urteko hiztunen taldekoa). '*(Vous avez ma permission.) Vous*

## I taula

Pertsona komunztadura ergatiboa [-pA\_+pD\_+pE] aditz ditrantsitiboetan

	KMZ ergatiboa bai				KMZ ergatiboa ez				Ezin jakin				OROT.
	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	
B78	15	12	32	59	0	0	0	0	0	0	0	0	59
B79	14	11	32	57	0	0	0	0	0	1	1	2	59
B80	15	12	31	58	0	0	1	1	0	0	0	0	59
B81	15	12	32	59	0	0	0	0	0	0	0	0	59
B82	12	8	15	35	0	0	0	0	3	4	17	24	59
B83	13	6	9	28	0	0	1	1	2	6	22	30	59
B84	11	6	8	25	0	0	0	0	4	6	24	34	59
B85	9	3	8	21	0	0	0	0	6	8	24	38	59
B86	10	5	11	26	1	0	1	2	3	7	21	31	59
B87	15	11	28	54	0	0	0	0	0	1	4	5	59
B88	15	11	22	48	0	0	0	0	0	1	10	11	59
B114	15	12	32	59	0	0	0	0	0	0	0	0	59
B115	15	11	32	58	0	1	0	1	0	0	0	0	59
B116	15	12	32	59	0	0	0	0	0	0	0	0	59
B128	15	12	32	59	0	0	0	0	0	0	0	0	59
B130	15	11	32	58	0	1	0	1	0	0	0	0	59
B132	15	12	31	58	0	0	1	1	0	0	0	0	59
B133	15	12	32	59	0	0	0	0	0	0	0	0	59
Orot.	249	180	1	880	1	2	4	7	18	34	123	175	1.062

*pouvez me dire la vérité* elizitazio perpausa (B115) iraganaldia erabilirik eman du euskaraz (*Bazenuen ene baimena.*) *Egia erraiten al zidaten* esanez, eta DS ergatiboarekiko komunztadura markatu gabe. Beste batzuetan, adizkera segurtatu gabeak dituzten hiztunetan, komunztadura ager daiteke, baina ingurumen morfologiko ohiz kanpoko batean. Horrela, *Peio souhaite que vous me donniez l'argent ce matin* elizitazio perpausa, (B83) *Peiok nahi dizü zük eman deizian sosa goiz untan* eman du euskaraz XILA gazteen taldeko lekukoak. Nahiz, itxuraz bederen, 'deizian' adizkera horrek -zü komunztadurako morfema baduen, adizkera jokatuaren osamoldea ez da guztiz argia. Dena den, gorago esan bezala, guztiz bazterrekoak dira komunztadura ergatiborik gabeko formak paradigma ditrantsitiboetan, eta bat edo beste haietatik kenduz edo haiei gaineratuz, deus funtsezkorik ez da aldatzen ikuspegi orokorrean.

Orain, ikus dezagun komunztadura ergatiboa markatua ote den NOR-NORK saileko solaskideen arteko paradigmatan.

## 3.1.2. Pertsona komunztadura ergatiboa aditz monotrantsitiboetan

Datu-baseak 16 elizitazio perpaus ditu [+pA\_+pE] ezaugarria dutenak, hots, subjektua eta objektu zuzena 1. eta 2. pertsonakoak dituzten adizkera monotrantsitiboak

ekar ditzaketenak. Hona 944 (16x59) erantzun ekartzen ahal zituzten elizitazio perpausen zerrenda (ondoan xedatua den erantzuna, euskara batuan emanik):

- B68 — Je vous vois. ‘*Ikusten zaitut*’.  
 B69 — Vous me connaissez. ‘*Ezagutzen nauzu*’.  
 B70 — Avant, je vous voyais tous les jours. ‘... *ikusten zintudan*’.  
 B71 — En ce temps là, vous me connaissiez bien. ‘... *ezagutzen ninduzun*’.  
 B72 — Beñat veut que je vous voie. ‘... *ikus zaitzadan*’.  
 B73 — Mes amis veulent que vous me connaissiez. ‘... *ezagut nazazun*’.  
 B74 — Avant, vous préférez que je vous voie tous les jours. ‘... *ikus zintzadan*’.  
 B75 — En ce temps là, je voulais que vous me voyiez tous les jours. ‘... *ikus nintzazun*’.  
 B76 — Je voudrais que vous m’invitez au restaurant. ‘... *gomita nezazun/nintzazun*’.  
 B77 — Emmenez-moi au restaurant! ‘*Eraman nazazu ...*’.  
 B106 — (Ne bougez plus.) Maintenant je peux vous voir. ‘... *ikus zaitzaket*’ edo ‘*ikusten ahal zaitut*’.  
 B110 — De là où j’étais, je pouvais vous voir, mais pas facilement. ‘... *ikus zintzakedan*’ edo ‘*ikusten ahal zintudan*’.  
 B111 — De là où vous étiez, vous pouviez nous voir tous. ‘... *ikus gintzakezun*’ edo ‘*ikusten ahal gintuzun*’.  
 B129 — Si hier j’avais apporté les livres, vous m’auriez invité au restaurant. ‘... *gomitatu ninduzun*’ edo ‘... *gomitatu nindukezun*’.  
 B131 — Si demain vous veniez jusqu’à Cambo à pied, après je vous inviterais au restaurant. ‘... *gomita zintzaket*’ edo ‘... *gomitatu zintuzket*’.  
 B134 — Si demain vous m’invitez à un tel restaurant, je vous parlerais autrement. ‘... *gomita banintzazu*’ edo ‘... *gomitatzen baninduzu*’.

Ikus daitekeen bezala, elizitazio perpaus horietan ere batzuek modu berezia dute: subjuntiboa (B72, B73, B74, B75, B76), agintera (B77), ahalezkoa (B106, B110, B111), besteek, ez (B68, B69, B70, B71); bestalde, aldiak ere aldatzen dira, orainaldiko (B68, B69, B72, B77, B106), iraganaldiko (B70, B71, B74, B75, B110, B111) edo alegialdiko (B76, B129, B131, B134) adizkerak xedatuak baitira.

II taulak erakusten ditu datu-basean bildu diren erantzunen datuak. Han ikus daiteke aditz trantsitiboetan ditugun ondorioak aditz ditransitiboetan aurkitu ditugunen arabera: direla: hauetan ere hiztunek komunztadura ergatiboa errespetatzen dute. Erantzun bilduetan (944), 757k adizkera jokatu dute (944-187), eta hauen artean 11 dira komunztadura ergatiboa egiten ez dutenak, hots, % 1,5era ez dira heltzen (11/757).

Komunztadurarik eza paradigma batzuetako komunztadura jokoak menderatzen ez dituzten zenbait hiztun bakarrekin baizik ez da gertatzen, eta erregularitasunik gabe. Adibide gisa, XILA gazteen taldeko hiztunak B75 elizitazio perpausari (*En ce temps là, je voulais que vous me voyiez tous les jours*) ematen dion erantzuna har daiteke: *Denbo hoietan nik nahi nizün zük ikhus nezan egün oz*. Ikus daiteke hiztunak ez duela ergatiboaren indizea sartu aditzean eta objektuarekiko komunztadura baizik ez duela egiten (*nezan*). Ohartzekoa da jokabide hori bera erabiltzen dutela alegialdian eta iraganaldian beste bi hiztunek: MOBA hiztunak (40-60 urtekoen taldekoa) B76 elizitazio perpausari (*je voudrais que vous m’invitez au restaurant*) *Nahi nuke zuk komita nezan ostatura* erantzun du, eta MAILA hiztunak (gazteen taldekoa) *Nahi*

## II taula

## Pertsona komunztadura ergatiboa aditz trantsitiboetan

	KMZ ergatiboa bai				KMZ ergatiboa ez				Ezin jakin				OROT.
	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	
B68	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B69	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B70	15	12	31	58	ø	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	59
B71	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B72	10	4	7	21	ø	1	ø	1	5	7	25	37	59
B73	7	3	8	18	1	ø	1	2	7	9	23	39	59
B74	8	3	6	17	1	1	1	3	6	8	25	39	59
B75	9	6	7	22	ø	ø	1	1	6	6	24	36	59
B76	15	5	11	31	ø	1	1	2	ø	6	20	26	59
B77	15	11	27	53	ø	ø	ø	ø	ø	1	5	6	59
B106	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B110	15	12	31	58	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	59
B111	15	11	32	58	ø	ø	ø	ø	ø	1	ø	1	59
B129	14	12	32	58	ø	ø	ø	ø	1	ø	ø	1	59
B131	15	12	31	58	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	59
B134	15	11	32	58	ø	ø	ø	ø	ø	1	ø	1	59
Orot.	213	150	383	746	2	3	6	11	25	39	123	187	944

*nikezū restaurant\*ilat khümit nezen.* Horiek ikusiz, badaiteke morfologia mailako nahasbide baten ondorioz gertatzea komunztadurarik eza (-*za-* aditzerroa eta *zu* pertsona morfema bateraturik edo).

Ordea, esan dezagun berriz ere guztiz bakartuak direla horrelako datuak erantzunetan, eta elizitazio bideak kontuan hartuz (bat-bateko itzulpena, zerrenda efektuak eta akidurak sorraraz ditzakeen nahasmenduekin) gehiegikeria litzateke zenbait hitzunek komunztadura ergatiboa galtzen ari dutela, edo aukerakoa dutela, datu horietatik ateratzea. Badirudi arazoa hitzun batzuek morfologiako konplexutasuna zenbait paradigmatan kudeatzeko duten zailtasunagatik gertatzen dela.

### 3.2. Pertsona komunztadura datiboa

Gauza ezaguna da pertsona komunztadura datiboa aukerakoa izaten dela Iparraldeko ohiko euskalkietan, nahiz aukera hori ez den beti molde berean agertzen. Aditz ditransitiboetakoa eta NOR-NORI aditzetakoa, adibidez, (*dizut vs natzaiztu*), ez dira maila berean ezartzekoak. Bestalde, NOR-NORI adizkeren artean ere, bereiztekoak dira, alde batetik, subjektu absolutiboa 1. edo 2. pertsonakoa izan dezaketenak (*mintzatu natzaiztu*), eta 3. pertsonakoa ohi edo behar dutenak (*iduritzen zait*). Pertsona komunztadura datiboari dagokion aurkezpen honetan, ondoko bereizketa egingo dugu, beraz:<sup>15</sup>

<sup>15</sup> Konbinatzeko posibilitate teoriko guztien artean bat falta da, [+pA\_-pD] ezaugarriari dagokiona. Holako elizitazio perpausik ez zen sartu NORANTZEN galdetegian, haietan komunztadura jokoak [+pA\_+pD] ezaugarria dutenetan bezalatsu egiten direlakoan.

- Aditz ditransitiboak: [-pA\_+pD\_+pE] ezaugarria dutenak (18 perpaus) edo [-pA\_+pD\_-pE] ezaugarria dutenak (2 perpaus);<sup>16</sup>
- [+pA\_+pD] ezaugarria dutenak (15 perpaus) edo [-pA\_+pD] ezaugarria dutenak (2 perpaus);
- [-pA\_-pD] ezaugarria dutenak (16 perpaus).<sup>17</sup>

Datu-baseko emaitzak aurkezteko, lehenik ikusiko ditugu adizkera ditransitiboak.

### 3.2.1. Perpaus ditransitiboetako pertsona komunztadura datiboa

20 elizitazio perpaus ditransitibo dira orotara datu-basean zeharkako objektua 1. edo 2. pertsonakoa dutenak: 18 ergatibo [+pE] ezaugarria dutenak, eta 2 perpaus [-pE] ezaugarria dutenak. Erantzunak, beraz, 1.180 (20 × 59) dira datu-basean. Hona galderen zerrenda, ondoan galdera bakoitzaren ezaugarrien arabera euskara baituan eman daitekeen adizkera dutela.

- B78 — Je vous ai apporté les papiers de la voiture ce matin. ‘... *ekarri dizkizut*’.
- B79 — Vous m’avez donné le livre de mon frère. ‘... *eman didazu*’.
- B80 — En ce temps là, je vous donnais un baiser tous les jours. ‘... *ematen nizun*’.
- B81 — Il y a bien longtemps, vous me racontiez des histoires tous les soirs. ‘... *kontatzen zenizkidan*’.
- B82 — Maialen veut que je vous porte le livre à la maison. ‘... *ekar diezazudan*’.
- B83 — Peio souhaite que vous me donniez l’argent ce matin. ‘... *eman diezazadazun*’.
- B84 — L’an dernier, vous vouliez que je vous vende ma voiture. ‘*sal niezazun*’.
- B85 — Avant, Peio ne voulait pas que vous me racontiez des mensonges. ‘*konta zeniezadan gezurrik*’.
- B86 — Maialen préférerait que vous me portiez des biscuits de la maison. ‘... *ekar diezazkidazun*’ edo ... ‘*ekar zeniezazkidan*’.
- B87 — Donnez-moi ce livre! ‘*Emaidazu ...*’ edo ‘*Eman iezazkidazu...*’.
- B88 — Racontez-moi des histoires! ‘*Konta iezazkidazu...*’.
- B114 — Moi également, je peux vous donner un peu d’argent. ‘... *eman diezazuket*’ edo ‘*ematen ahal dizut*’.
- B115 — Vous avez ma permission. Vous pouvez me dire la vérité sans crainte. ‘... *erran diezadakezu*’ edo ‘*erraten ahal didazu*’.
- B116 — J’avais assez d’argent. Je pouvais vous en donner un peu. ‘... *eman niezazukeen*’ edo ‘*ematen ahal nizun*’.
- B117 — Ne mangez pas trop. Cela pourrait vous faire du mal. ‘... *kalte egin ahal liezazuke*’ edo ‘... *kalte egiten ahal(ko) lizuke*’.

<sup>16</sup> Aditz ditransitiboen komunztadura jokoak aztertzeo [-pA\_+pD\_+pE] ezaugarria duten adizkerak bereziki sartu dira elizitazio perpausetan. Halere, bi perpaus dira, adizkera ditransitibo elizitatuz, argumentu ergatiboa 3. pertsonakoa dutenak eta datiboa 1. edo 2. pertsonakoa (B117, B159), eta hauek ere kontuan hartu dira datiboaren pertsona komunztaduraren tauletan. Ordea, [-pA\_-pD\_-pE/+pE] ezaugarria duten elizitazio perpausak (18 datu-basean), hots, datiboa 3. pertsonakoa dutenak, ez ditugu hengo tauletan sartu, tauletako kopuruak gehiegi ez hantzeko.

<sup>17</sup> Dakigun bezala, hirugarren pertsonako datibo komunztadura markatua da euskaraz. Beraz, [-pD] ezaugarria ere balia daiteke pertsona komunztadura datiboa egiten denetz ikusteko. NORANTZ datu-basean, sail berezia osatzen dute [-pA\_-pD] ezaugarria xedatzen duten elizitazio perpausak.

B128 — Si à ce moment-là vous m'aviez parlé à moi, je vous aurais donné un peu d'argent. '... emanen nizun' edo '... eman nizukeen'.

B130 — Si ce jour là je vous avais offert de l'or, à moi aussi vous m'auriez parlé d'une autre manière. '... eman banizu'.

B132 — Si à vous aussi je vous parlais tous les jours, vous me diriez la vérité. '... erran niezazuke' edo '... erranen nizuke'.

B133 — Si je vous payais le voyage, vous iriez en Amérique. '... paga baniezazu' edo '... pagatzen/pagatuko banizu'.

B159 — Beñat m'avait menti. '... erran zidan'.

Hemen ere, ikus daiteke aldi eta modu ezberdinetako adizkerak elizituak direla. Nahiz, jakina den bezala, aditz ditransitiboetan datiboaren pertsona komunztadura modu eta toki desberdinetan ager daitekeen, oro har aski aise ikus daiteke adizkeran egiten den edo ez. Alde horretatik, ondorioak nahiko adierazgarriak dira beraz, III taulan ikus daitekeen bezala.

### III taula

Pertsona komunztadura datiboa aditz ditransitiboetan

	KMZ datiboa bai				KMZ datiboa ez				Ezin jakin				OROT.
	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	
B78	14	11	30	55	1	1	2	4	0	0	0	0	59
B79	15	11	30	56	0	0	1	1	0	1	1	2	59
B80	15	11	29	55	0	1	3	4	0	0	0	0	59
B81	12	10	26	48	3	2	6	11	0	0	0	0	59
B82	6	6	4	16	6	2	11	19	3	4	17	24	59
B83	8	5	5	18	5	1	4	10	2	6	23	31	59
B84	5	3	2	10	6	3	6	15	4	6	24	34	59
B85	6	4	3	13	4	0	3	7	5	8	26	39	59
B86	5	2	3	10	7	3	9	19	3	7	20	30	59
B87	11	9	24	44	4	2	4	10	0	1	4	5	59
B88	11	8	21	40	4	3	3	10	0	1	8	9	59
B114	15	11	32	58	0	1	0	1	0	0	0	0	59
B115	8	10	26	44	7	2	6	15	0	0	0	0	59
B116	15	12	32	59	0	0	0	0	0	0	5	5	59
B117	14	12	26	52	1	0	1	2	0	1	6	7	59
B128	14	11	32	57	0	1	0	1	1	0	0	1	59
B130	14	8	27	49	1	4	5	10	0	0	0	0	59
B132	5	8	25	38	10	4	7	21	0	0	0	0	59
B133	12	11	28	51	3	1	4	8	0	0	0	0	59
B159	15	12	28	55	0	0	2	2	0	0	2	2	59
Orot.	220	175	433	828	62	31	77	172	18	34	130	182	1.180

Taula horrek erakusten du bildu diren 1.180 erantzunetan, 998 (1180-182) direla adizkera jokatuak dutenak. Hauek ditugu kontuan hartu behar pertsona komunzta-

dura datiboa aditzean egiten ote den ikusteko. Hauetan 828 alditan agertzen da aditzean datiboari dagokion pertsona, hots, parte handi batean horrelako kontestuetan hitzunek pertsona komunztadura datiboa jokarazten dute.<sup>18</sup> Adin taldeak kontuan hartuz gero, pentsa daitekeen bezala, +70 urte dituztenen artean agertzen da maiztasun txikienarekin komunztadura. Euskalki konbergentziaren ondorio gisa har daiteke datiboaren pertsona komunztaduraren indartze hau. Hona adin taldeen araberako pertsona komunztadura datiboaren taula:

- +70 urtekoen taldean: 191/252 (% 75).
- 40-60 urtekoen taldean: 151/182 (% 83).
- -30 urtekoen taldean: 433/510 (% 85).

Esan behar da, hemengo kasu batzuetan ere, aditz morfologia segurtatu gabea duten gazteen taldeko zenbait hitzuntetan, ez dela beti erraza adizkeretako pertsona osagai morfologikoak zehazki identifikatzea. Eman dezagun B80 elizitazio perpausean (*En ce temps là, je vous donnais un baiser tous les jours*), XILA lekukoak *Denboa hortan emaiten teitzün pott bat egün oz* erantzuna eman du. Argi da erantzun horretan hitzunik bigarren pertsonari dagokion komunztadura egin duela, baina ez dirudi hala egin duenik lehen pertsonarekin. Ordea, ez da hain garbi erantzunean pertsona indizea zein kasuri dagokion. Hitzun gazte horrek elizitazio perpausetako izenordainen erreferentzia modu finkoan atxikitzen ohi baitu bere erantzunetan (solasaldietako interpretazio deiktikorik egin gabe), kontsideratu da ihardespren horretako adizkeran 2. pertsonaren indizea komunztadura datiboari dagokiola frantseseko perpausean bezala. Bistan dena, elizitazio perpausa deiktikoki interpretatu duela suposatuz gero, alderantzizko ondorioa atera behar litzateke (2. pertsonako indizearen bidez komunztadura ergatiboa markatuz, ez datiboa). Gisa oroz, holako kasuak franko marginalak dira paradigma arruntetako adizkeretan.

Paradigma markatuetan, berriz, hitzunek adizkerak emateko zailtasunagatik, komunztadura datiboa bera ere hunkia izan daiteke. Horrela, ohar gaitezke erabilera gutxiagoko paradigma markatuetan, subjuntiboari dagozkionetan adibidez, maizago agertzen dela pertsona komunztadurarik eza. Adierazgarria da adizkera horietan agertzen baitira pertsona komunztadura datiborik gabeko adizkerak komunztaduradunak baino kopuru handiagoan (B82, B84, B86). Gainera, kasu horietan ikus daiteke erlatiboki gazteen taldean zaharren taldean baino gehiagotan gertatzen dela komunztadurarik eza (oro har kontrako emaitzak ditugularik, gorago esan bezala). Morfologiako arazo horien lekuko dira zenbait erantzunetan agertzen diren forma ohigabeak. Adibidez, B132 elizitazio perpausa itzulirik (*Si à vous aussi je vous parlais tous les jours, vous me diriez la vérité*), PIEPA lekukoak (+70 urtekoen taldeko hitzun zuberotarra) haxe ihardesten du: *Zük ere erran neikezadazüt egia, zuri elhesta banendi egün ooz*. Apodosiaren adizkera laguntzaile ditransitiboan (*neikezadazüt*) ohi ez bezalako

<sup>18</sup> Hemen ere elizitazio perpausen interpretazio desberdinak egin dituzte hitzunek, batzuek pertsonari frantseseko perpauseko erreferentzia bera atxikiz, besteek aldiz bestelako interpretazioa emanez inkestagileak frantsesez esaten zion perpausari. Adibidez, B78 perpausean (*je vous ai apporté les papiers de la voiture ce matin*) MADON lekukoak *goizian ekarriak ditutzu otomobillen paperak* erantzuterakoan, kontsideratu da pertsona komunztadura ergatiboa egin duela ('je' izenordaina 'zu' bihurtuz, elizitazioa deiktikoki interpretatuz), eta pertsona komunztadura datiboa, berriz, ez duela egin.

toki batean agerrarazten du komunztadura ergatiboaren pertsona indizea (-*zū*), aurizki bezala datiboaren pertsona indizea (*n-*) ematen baitu (eta gero atzizki bezala bi aldiz errepikaturik: -*da-...-t*). Holako jokoak (indize datiboa aditz aurizki bihurtzea) ezagunak dira euskal aditzak denboran eta espazioan hartu dituen itxuretan, baina ez dira ohikoak hiztun horren euskalkian, eta beste erantzunetan hiztun berak ergatiboa agerrarazten du beti ez-oraineko adizkera ditransitiboetako aurizki gisa, ez datiboa. Gazteen taldean paradigmaren kudeatzeko zailtasuna aditz laguntzailearen hautaketan agertzen da bereziki. Adibidez, B86 elizitazio perpausa (*‘Maialen préférerait que vous me portiez des biscuits de la maison’*) honela erantzuten dute gazteen taldeko AKAN eta EHEN lekukoek:

AKAN: *Maialenek naiago luke zuek etxeko bixkotsak ekartzea... ekar zenizkidatela... ez dakit.*

EHEN: *Maialen naioko luke bixkotsak etxetik ekar zenidatzula.*

Bi gazte horiek ikastoletako ikasle ohiak izanik euskara batuaren paradigmaren eragina agertzen da haien erantzunetan. Haatik, aspekturik gabeko aditz lexikala aukeraturik ere (*ekar*), ez dute ohiko eta euskara estandarreko aditz laguntzailearen (*\*ezan*) forma bat erabiltzen.<sup>19</sup> Ez da argi, haien kasuan, ezinbestean emanikako forma den eman dutena, ala halako sinkretismo bat sortu den bi aditz laguntzaileen artean.

### 3.2.2. [+pA\_+pD] edo [-pA\_+pD] ezaugarriak dituzten NOR-NORI perpausak

Dudarik batere gabe, hau bezalako aurkezpen orokor batean erabiltzeko arazo gehienik ematen duten formak dira sail honetako erantzunak. 15 elizitazio perpaus dagozkie datu-basean. Gehien-gehienak (13) ‘parler’ aditza erabiliz eratu dira, *mintzatu* aditzaren bidez, euskaraz [+pA\_+pD] ezaugarria duten adizkerak bideratzeko gisan. Beste laurak ‘approcher’ mugimendu aditzaren bidez moldatu dira. Hona, beraz, sail honetako elizitazio perpausak (ondoan ematen ditugun euskara batuko adizkerak erakusten dute ohigabeko adizkerak direla gaurko euskarari):

B29 — *Que les enfants s’approchent de moi!* ‘... *hurbil bekizkit*’ edo ‘*hurbil dakizkidala*’.

B58 — *Vous vous êtes approché de moi.* ‘... *hurbildu zatzaizkit*’.

B59 — *Avant, je vous parlais tous les jours.* ‘... *mintzatzzen / elestatzen nintzaizun*’.

B60 — *En ce temps là, vous me parliez souvent de ces sujets.* ‘... *mintzatzzen / elestatzen zintzaizkidan*’.

B61 — *J’ai dû vous parler trop vite.* ‘... *mintzatu natzaizuké*’.

B62 — *Vous aviez dû me parler trop vite.* ‘... *mintzatu zintzaizkidake*’.

B63 — *Beñat veut que je vous parle à vous.* ‘... *mintza nakizun*’.

B64 — *Je voulais que vous me parliez à moi.* ‘... *mintza zenkizkidan*’.

B65 — *Maddi souhaiterait que vous vous approchiez de moi.* ‘... *hurbil zakizkidan*’ edo ‘... *hurbil zenkizkidan*’.

B66 — *Parlez-moi plus gentiment!* ‘... *mintza zakizkit*’.

B67 — *Approchez-vous de moi!* ‘... *hurbil zakizkit*’.

<sup>19</sup> Inkestaren baldintzen ondorioa izan daiteke EHENEK perpaus matrizeko subjektuan ergatiboa ez markatzea (ez du iduri topikalizazio kasu markarik gabeko bati dagokiola: *Maialen*). Hiztun horrek normalean ergatiboa markatzen du.



B103— (Le téléphone est réparé.) Peio peut me parler tous les jours. ‘... *mintza dakidake*’ edo ‘... *mintzatzen ahal zait*’.

B128 — Si à ce moment-là vous m’aviez parlé à moi, je vous aurais donné un peu d’argent. ‘... *mintzatu bazintzaizkit*’.

B130 — Si ce jour là je vous avais offert de l’or, à moi aussi vous m’auriez parlé d’une autre manière. ‘... *mintzatuko zintzaizkidan*’ edo ‘... *mintzatu zintzaizkidakeen*’.

B132 — Si à vous aussi je vous parlais tous les jours, vous me diriez la vérité. ‘... *mintza banenkizu*’ edo ‘... *mintzatzen / mintzatuko banintzaizu*’.

B134 — Si demain vous m’invitiez à un tel restaurant, je vous parlerais autrement. ‘... *mintza nenkizuke*’ edo ‘... *mintzatuko nintzaizuke*’.

Gainerako adizkeretan bezala, hemen ere modu eta aldi desberdinetako formak ager zitezkeen erantzunetan. IV taulan ikus daiteke zein izaritan pertsona komunztadura datiboa agertu den erantzunetako adizkeretan.

Berehala ikus daiteke erantzunetan erdiak (502/1.003) ez direla xedatua zen moldea erabiliz eratu. Kasu garbiena ‘approcher’ aditza zeukaten elizitazio perpausetan (B29, B58, B65, B67) agertzen da. Haietan hitzun gehientsuenek ez dute osagai datiborik erabili erantzunetan, haren ordezkuzko kasu bat edo mediatiboa enplegatu baitute. Horrela, lau elizitazio perpaus hauetako 236 erantzunetan 215 kasutan perpausak ez dute pertsona komunztadura datiboa egiten den ikusteko paradarik ematen. Neurri batean, adierazgarria da, halere, gelditzen diren 21 perpausetan bihi

#### IV taula

Pertsona komunztadura datiboa [+pD] diren NOR-NORI aditzetan

	KMZ Ddatiboa bai				KMZ datiboa ez				Ezin jakin				OROT.
	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	
B29	0	0	0	0	4	1	2	7	11	11	30	52	59
B57	1	1	5	7	14	10	17	41	0	1	10	11	59
B58	0	0	0	0	4	0	1	5	11	12	31	54	59
B59	5	5	7	17	3	1	2	6	7	6	23	36	59
B60	7	6	4	17	5	4	9	18	3	2	19	24	59
B61	8	4	4	16	5	2	10	17	2	6	18	26	59
B62	5	5	11	21	8	5	9	22	2	2	12	16	59
B63	0	0	1	1	13	10	8	31	2	2	23	27	59
B64	0	2	1	3	12	5	8	25	3	5	23	31	59
B65	0	0	0	0	0	1	0	1	15	11	32	58	59
B66	4	4	7	17	10	5	9	24	1	3	16	20	59
B67	0	0	0	0	6	0	2	8	9	12	30	51	59
B103	9	8	7	24	3	1	1	5	3	3	24	30	59
B128	1	0	0	1	11	5	13	29	3	7	19	29	59
B130	1	1	1	3	14	7	13	34	0	4	18	22	59
B132	0	0	3	3	12	4	9	25	3	8	20	31	59
B134	6	7	15	28	9	4	4	17	0	1	13	14	59
Orot.	48	58	87	193	123	65	120	308	84	81	337	502	1.003

batean ere komunztadura datiborik ez dela egin ikustea.<sup>20</sup> ‘Parler’ aditza duten elizitazio perpausetako erantzunak desberdinak dira, baina paradigma gutxiago erabilietan franko nahasiak, eta, gure ustez, ez beti nahi bezain fidagarriak. Paradigma arruntetan gauzak nahikoa argi dira: orduan, gehienetan, *mintzatu* (edo *elestatu*) aditza erabili dute hitzun gehienek, subjektua absolutiboan izanik, eta beste argumentua datiboan (ikus, adibidez, B57). Ordea, paradigma markatuetara pasatzean, hitzun batzuek *hitz egin* bezalako NORK-NORI aditz bat erabiltzen dute, edo ‘*mintzatu*’ atxikiz ere, haren erregimena aldatzen dute. Bestalde, guztiz segurtatu gabea baitute hitzun askok komunztadura egitura hau, arraz zaila da erantzunetan adizkeren kasu morfologia jakitea. Har ditzagun bi adibide, nahiko desberdinak.

Ikus dezagun, lehenik, zaharren taldeko BELU hitzunak (orain Euskal Herrian hirian bizi, eta luzaz Euskal Herritik kanpo bizi izana) ‘*mintzatu*’ aditza jokaturik eman dituen erantzunak:

B57: *Zuri mintzo naiz.*

B59: *Leeno egun guziez mintzatzen nauzun.*

B60: *Denbora betan gauza hoitaz usu mintzatzen zinautan.*

B61: *Fiteei mintzatu nitzauzu.*

B63: *Beñatek nahi du zuri mintza nain.*

B64: *Nahi nuen eni mintzo zindain.*

B66: *Goxokio mintza zite eni!*

B128: *Orduan eni mintzatu bazine, emanen nautzuen diru pitta bat.*

B130: *Egun hartan urrea ofreitu banautzun, eni ere beste gisalat mintzatuko zinen.*

B132: *Zuri ere egun guziez mintzatzen bainintz, egia jakin nezake.*

B134: *Bihar holako ostaturat gomitatzen baininduzun, beste gisalat mintzo nitazke.*

Ikus daitekeenez, hitzun horrek ‘*mintzatu*’ aditza NOR aditz gisa erabiltzen du. Gehienetan ez du komunztadura datiborik egiten, baina iraganaldian (B59, B60), haatik, bai (baita behin orainaldian ere, B61). Iraganaldiko bi kasuetan adizkerak erabide ditransitiboan itxura du: *nauzun*, *zinautan* (konpara B128 eta B130 perpausetako bestalde agertzen diren adizkera ditransitiboekin). Perpaus horietan hitzunak ez du subjektuari dagokion izenordaina erabili perpausetan, baina halere badirudi NOR-NORI eta ZER-NORI-NORK paradigmetakoa adizkera horiek bateratu direla haren gramatikan (bestalde, euskal aditzetan ezaguna den fenomeno). Ondorioz, ez bide da arazorik, B59 eta B60 erantzunetako adizkerak NOR-NORI adizkera gisa aztertzeke.

Orain, ikus dezagun gazteen taldeko AIBA lekukoak ‘*mintzatu*’ aditza era jokatuan erabiliz eman dituen erantzunak:

B57: *Zuri mintzo naiz.*

B59: *Leen beti zuri mintzo nitzauzun.*

B60: *Denbora artan neri ortaz añitz mintzo zinen.*

B61: *Sobera fite mintzatu bear nintzen.*

B62: *Sobera fite mintzatu bearko zinen.*

B103: *Peio mintzatzen aal da enekin egunero.*

B128: *Denbora artan neri mintzatu baldin bazinen, diru pixka bat emango nizun.*

B130: *Egun artan urrea oparitu baldin banizun, neri ere beste manera batez mintzatu zinen.*

<sup>20</sup> Ohartzekoa da, bestalde, datiboa erabiltzen duten 21 kasuetan, hamalau +70 urteko taldekoen artean agertzen direla.

B132: *Zuri ere egunero mintzo baldin badizut, egia errango didazu.*

B134: *Biar olako ostatu batetara gomidatzen baldin banauzu, beste manera batez mintzatuko dizut.*

AIBAk *mintzatu* aditza NOR-NORI aditz gisa erabili du erantzun gehienetan, datiboaren komunztadura jokarazirik hiru kasutan bakarrik (B59, B132, B134). Lehenbizikoan (B59), argiki adizkera *ni-zuri* forma bati dagokio, baina ez du iduri hala denik B132 eta B134 erantzunetan. Itxura guztien arabera, hauetan ‘*mintzatu*’ aditza NORK-NORI aditz gisa erabilia da, nekez *dizut* bezalako forma bat NOR-NORI aditz gisa azter baitaiteke (NOR absolutiboaren pertsona marka atzizki gisa agerturik adizkeran).<sup>21</sup> Ikus daitekeenez, ‘*mintzatu*’ aditzaren erregimena ez da beti NOR aditz batena hitzun horrentzat, eta badaiteke komunztadura datiboa agertzea-ekin aditzaren erregimenaren aldaketa errazago izatea.

Hemen aipatu bi fenomenoak (aditz paradigma batzuen bateratzea, eta ‘*mintzatu*’ aditzaren erregimenaren egongaitzasuna zenbait hitzuntetan) bakartuak izan balira, aise izango zen NOR-NORI gisa konta zitezkeen adizkerak besteetatik bereiztea. Ordea, maiz gertatzen baitira fenomeno horiek, kasuistika nahasgarri batean ez sartzeko, taulak eratzerakoan irizpide bakarra erabili dugu, ‘*mintzatu*’ aditzaren erregimen aldaketak kontuan hartu gabe (izenordainak ergatiboa markatzen ez bazuen behintzat). Horregatik, komunztadura datiboa kontatu dugunaldi guztietan ez da segurua *mintzatu* aditza NOR-NORI aditz gisa dela. Seguruenik, komunztadura figura hau taulan agertzen den baino txikiagoa da komunztadura datiboa erakusten duten adizkera horietan, batzuk NORK-NORI aditz gisa erabiliak baitira. Zenbaketak horrela egini ere, ikus daiteke aise nagusitzen direla adizkera horietan komunztadura datiborik gabeko formak. Komunztadura dutenak % 36 dira (169/465) eta komunztadurarik gabekoak % 64 (296/465).

### 3.2.3. [-pA\_-pD] ezaugarria duten NOR-NORI perpausak

Ezaguna da absolutiboa hirugarren pertsonakoa duten NOR-NORI adizkerak aiseago erabiltzen dituztela hitzunek. Bestalde, badira aditzak datiboaren komunztadura bideratzea eskatzen dutenak, hauek gehienetan argumentu absolutiboa 3. pertsonakoa eskatzen baitute. Horrelako aditzen komunztadura datiboa kontrolatzeko bidea eskaintzen du NORANTZ datu-baseak, 16 elizitazio perpaus egin baitira ‘*arriver quelque chose à quelqu’un*’ eta ‘*quelque chose tomber des mains de quelqu’un*’ bezalako aditz sintagmez baliaturik, hots, euskaraz komunztadura datiboa eskatzen ohi duten aditzekin. Hona elizitazio perpaus horien zerrenda:<sup>22</sup>

B20 — Les fleurs lui sont tombées des mains. ‘... *erori zaizkio*’.

B21 — Les livres leur sont tombés des mains. ‘... *erori zaizkie*’.

B22 — Les fleurs lui étaient tombées des mains. ‘... *erori zitzaizkion*’.

<sup>21</sup> Erantzunak hala erakusten ez badu ere, elizitazio perpausako aditz sintagmak modalki markatuak dira: baldintza irrealako protasia (aspektu bukatugabea) B132 perpausuan, baldintza irrealako apodosis B134 perpausuan. Ez da argi horrek eraginik izan duen ‘*mintzatu*’ aditzari besteetan ez bezalako erregimena emateko hauetan.

<sup>22</sup> B20 eta B21 perpausak eta B153 eta B154 perpausak elkarren antzekoak dira oso. Datu-basean, halere, xede desberdina dute perpaus hauek, bigarren pareta adizkera alokutiboen erabilera ikusteko erabili baita. Ez da harritzekoa, beraz, komunztadura datiboari dagokionaz ondorioak franko hurbilak baitira.

- B23 — Les livres leur étaient tombés des mains. ‘... *erori zitzaizkien*’.  
 B24 — A Maddi aussi, cela a dû lui arriver. ‘... *gertatu zaioke*’.  
 B25 — A Maddi aussi, cela avait dû lui arriver. ‘... *gertatu zitzaiokeen*’.  
 B26 — Beñat ne veut pas que la clé lui tombe des mains. ‘... *eror dakion*’.  
 B27 — Beñat ne voulait pas que la clé lui tombe des mains. ‘... *eror zekion*’.  
 B28 — Beñat ne voudrait pas qu’il arrive quelque chose à Peio. ‘... *gerta dakion*’  
 edo ‘... *gerta lekion*’.  
 B104 — (Que Peio fasse attention.) Une telle chose peut lui arriver à lui aussi!  
 ‘... *gerta dakioke*’ edo ‘... *gertatzen ahal zaió*’.  
 B119 — Si un tel accident était arrivé à Peio hier, son père aurait dit quelque  
 chose à Maddi. ‘... *gertatu balitzaio*’.  
 B121 — Si à ce moment là Peio lui avait dit la vérité, cela aurait paru bizarre à  
 Beñat. ‘... *gertatuko zitzaion*’ edo ‘... *gertatu zitzaiokeen*’.  
 B123 — Si un jour un tel malheur lui arrivait, Peio demanderait de l’aide à  
 Maddi. ‘... *gerta balekio*’ edo ‘... *gertatzen balitzaio*’.  
 B125 — Si Peio racontait une telle histoire à Beñat, le livre lui tomberait des  
 mains. ‘... *eror lekioké*’ edo ‘... *eroriko litzaioke*’.  
 B153 — Les papiers lui sont tombés des mains. ‘... *erori zaizkio*’.  
 B154 — Les papiers leurs sont tombés des mains. ‘... *erori zaizkie*’.

Aurreko kasuetan bezala, perpaus hauek ere aldi eta modu desberdinetako eran-  
 tunak biltzeko gisan eratuak dira: orainaldia (B20, B21, B24, B26, B28, B104,  
 B153, B154), iraganaldia (B22, B23, B25, B119, B121), subjuntiboa (B26, B27,  
 B28), ahalezkoa (B104), alegialdia (B119, B121, B123, B125)...  
 Orain ikus dezagun ondorioak erakusten dituen taula.

### V taula

Pertsona komunztadura datiboa [-pA\_ -pD] NOR-NORI aditzetan

	KMZ datiboa bai				KMZ datiboa ez				Ezin interpreta				OROT.
	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	
B20	15	9	27	51	0	3	5	8	0	0	0	0	59
B21	15	10	27	52	0	2	5	7	0	0	0	0	59
B22	15	11	26	52	0	1	6	7	0	0	0	0	59
B23	15	11	27	53	0	1	5	6	0	0	0	0	59
B24	15	12	32	58	0	0	1	1	0	0	0	0	59
B25	15	11	30	56	0	1	2	3	0	0	0	0	59
B26	12	4	4	20	0	6	8	14	3	2	20	25	59
B27	9	5	4	18	2	5	7	14	4	2	21	27	59
B28	7	0	4	11	5	8	9	22	3	4	19	26	59
B104	12	12	26	50	3	0	6	9	0	0	0	0	59
B119	9	5	15	29	4	6	14	24	2	1	3	6	59
B121	5	5	19	29	0	4	3	7	10	3	10	23	59
B123	13	8	24	45	1	3	7	11	1	1	1	3	59
B125	10	7	25	42	5	4	6	15	0	1	1	2	59
B153	15	11	29	55	0	1	3	4	0	0	0	0	59
B154	15	10	29	54	0	2	3	5	0	0	0	0	59
B21	15	10	27	52	0	2	5	7	0	0	0	0	59
Orot.	197	131	347	675	20	47	90	157	23	14	75	112	944

Ikus daitekeenez, komunztadura datiboa franko erregularra da paradigma ez-mar-  
katuetan, ez hainbeste haatik, subjuntibokoetan (B26, B27, B28) eta alegialdieta-  
koetan (B119, B121, adibidez). Horrek indartzen du lehenago ikusi dugun datu bat:  
datiboaren komunztadura ahultzen da hiztunek nekez menderatzen dituzten para-  
digmatan. Zenbakiak orokorrean harturik, komunztadura egiten da aski erregulariki:  
674/832 (% 81). Subjuntiboko perpausetan, berriz, erdietan baizik ez da agertzen  
komunztadura datiboa: 49/99. Alegialdietako eta subjuntiboko perpausak kentzen  
badira, komunztadura datiboaren erregularitasuna handitzen da, % 90ekoa baita  
(481/531). Adin taldeen artean ez da halako desorekarik ikusten puntu horretan, se-  
guraz ere, gazteen taldean, gehienek forma jokatugabea eman baitute perpaus subjun-  
tiboetan. Baina kontsideratzen bada zein taldetan agertzen diren komunztadura egi-  
ten duten adizkerak, ikus daiteke erdiak gutxienez edo gehiago +70 urtekoek eman  
dituztela, alta hiztunen laurdenak baizik ez direlarik.

Hona hemen komunztadura datiboa duten [-pA\_-pD] adizkera subjuntiboak  
adin taldeen arabera:

- +70 (15 hiztun): 28.
- 40-60 (12 hiztun): 20.
- -30 (32 hiztun): 12.

Argi da, beraz, gazteen taldean gutxi agertzen direla datu-basean [-pA\_-pD] adiz-  
kera subjuntiboak. Bestalde, agertzen direnean, ez da argi zenbat hiztunek kontrola-  
tzen duten forma. Ikus ditzagun gazteen taldean komunztadura datiboa erakusten  
duten hamabi erantzunak:

B26 — Beñat ne veut pas que la clé lui tombe des mains.

- *Beñatek eztizü nahi giltza eskütik ior zakion* (MAAL)
- *Beñatek ez du nai gakoa eskuetatik erori zaion* (SEAI)
- *Beñatek ez du nai giltza eskutik eror diezaion* (XAAN)
- *Beñatek eztü nahi giltza eor dakion eskietaik* (NAMAU)

B27 — Beñat ne voulait pas que la clé lui tombe des mains.

- *Beñatek etzizün nahi giltza eskütik ior lekion* (MAAL)
- *Beñatek etzuen nai giltza eskuetatik eror ziezaion* (XAAN)
- *Beñatek etzin nahi giltza ior zakion eskietaik* (NAMAU)
- *Beñatek etzuen nai gakoa eskietaik eror zitzaikon* (KAU)

B28 — Beñat ne voudrait pas qu'il arrive quelque chose à Peio.

- *Beñatek elikezü nahi Peioi zerbait agit lekion* (MAAL)
- *Beñatek ez luke nai Peiori zerbait gerta diezaion* (XAAN)
- *Beñatek elüke nahi zerbait agi dakion Peioi* (NAMAU)
- *Beñatek eztu nai Peiori gauza bat gerta zatzaion* (IBAI)

Aldiei dagozkien gorabeheretan sartu gabe, ageri da erantzunetan zenbait hiztu-  
nek paradigma hori nekez menderatzen dutela. Kasu garbiena XAAN hiztunarena  
da. Hiztun horrek berantean ikasia du euskara eta iduriz zaila zaio komunztadura da-  
tiboan agertzean \**edin* laguntzailearen adizkiak erabiltzea. Alabaina, goragoko zerren-  
dan ikus daitekeenez, *eror diezaion* (B27) eta *eror ziezaion* (B28) agertzen dira haren  
erantzunetan, hots \**ezan* laguntzailearen formak (datiborik gabeko NOR adizkeretan

\**edin* erabiltzen du). Beste hiztun batzuen erantzunek ere (SEAI B26, IBAI B28, adibidez), paradigma horrekin agertzen diren arazoak erakusten dituzte.

Dena den, gogoan atxiki bedi gazteen taldean bereziki erantzun gehienak adizki jokatu gabe baten bidez eman direla, ez baita harritzeko gisa horretan paradigma markatu gisa gelditzen baitira orduan NOR-NORI adizkera subjuntibo hauek.

### 3.3. Objektu zuzenaren pertsona komunztadura

NORANTZ datu-baseak 17 elizitazio perpaus ditu objektu zuzenaren pertsona komunztadura xedatzen dutenak. Dakigun bezala, objektu zuzenaren pertsona komunztadura ez da aukerakoa euskarari, baina gerta daiteke batzuetan, Hegoaldeko euskalkien eraginez seguraz ere, objektu zuzen hori absolutiboan agertzeko ordez datiboan agertzea (orduan aditzean komunztadura datiboa izanik). Aldaketa hori, hain zuzen, objektu zuzena pertsona denean gertatzen da. Beraz, bi elementu ditugu ikusteko hemen: objektu zuzenarekiko komunztadura egiten ote duten hiztunek, eta, egiten dutenean, absolutiboan ala datiboan egiten duten.

Lehenik ekar dezagun elizitazio perpausen zerrenda; erabilera trantsitiboa eta objektutzat pertsonak aise hartzen dituzten aditzen inguruan sortuak dira: '*voir, connaître, emmener, inviter*':

B68 — Je vous vois. '*Ikusten zaitut*'.

B69 — Vous me connaissez. '*Ezagutzen nauzu*'.

B70 — Avant, je vous voyais tous les jours. '*... ikusten zintudan*'.

B71 — En ce temps là, vous me connaissiez bien. '*... ezagutzen ninduzun*'.

B72 — Béfiat veut que je vous voie. '*... ikus zaitzadan*'.

B73 — Mes amis veulent que vous me connaissiez. '*... ezagut nazazun*'.

B74 — Avant, vous préféreriez que je vous voie tous les jours. '*... ikus zintzadan*'.

B75 — En ce temps là, je voulais que vous me voyiez tous les jours. '*... ikus nintzazun*'.

B76 — Je voudrais que vous m'invitiez au restaurant. '*... gomita nazazun*' edo '*... gomita nintzazun*'.

B77 — Emmenez-moi au restaurant! '*Eraman nazazu...*'.

B106 — (Ne bougez plus.) Maintenant je peux vous voir. '*... ikus zaitzaket*' edo '*... ikusten ahal zaitut*'.

B110 — De là où j'étais, je pouvais vous voir, mais pas facilement. '*... ikus zintzakedan*' edo '*... ikusten ahal zintudan*'.

B111 — De là où vous étiez, vous pouviez nous voir tous. '*... ikus nintzakezun*' edo '*... ikusten ahal ninduzun*'.

B129 — Si hier j'avais apporté les livres, vous m'auriez invité au restaurant. '*... gomitatuko ninduzun*' edo '*... gomitatu nindukezun*'.

B131 — Si demain vous veniez jusqu'à Cambô à pied, après je vous inviterais au restaurant. '*... gomita zintzaket*' edo '*... gomitatuko zintuzket*'.

B134 — Si demain vous m'invitiez à un tel restaurant, je vous parlerais autrement. '*... gomita banintzazu*' edo '*... gomitatzen/gomitatuko baninduzu*'.

B157 — Béfiat m'a vu. '*... ikusi nau*'.<sup>23</sup>

<sup>23</sup> Galdera hau forma alokutiboen saileko elizitazio perpaus gisa baliatu da.

**VI taula**

**Objektu zuzenaren pertsona komunztadura**

	Bai objektua absolutiboa		Bai objektu datiboa		Ez objektu absolutiboa		Ez objektu datiboa		Ezin jakin			OROT					
	+70	40-60	-30	orot	+70	40-60	-30	orot	+70	40-60	-30		orot				
B68	15	12	32	59	0	0	0	0	0	0	0	59					
B69	15	12	30	57	0	0	0	0	0	0	0	59					
B70	15	9	27	51	0	1	4	5	0	0	1	59					
B71	14	10	22	46	0	2	7	9	0	0	1	59					
B72	10	4	7	21	0	0	0	0	0	0	2	59					
B73	7	3	8	18	1	0	0	1	0	0	7	59					
B74	6	4	5	15	0	0	0	0	0	0	23	59					
B75	10	6	7	23	0	0	0	0	0	0	26	59					
B76	14	6	11	31	0	0	0	0	0	0	24	59					
B77	15	11	26	52	0	0	0	0	0	0	21	59					
B106	15	11	32	58	0	1	0	1	0	0	5	59					
B110	15	10	28	53	0	2	4	6	0	0	0	59					
B111	15	11	25	51	0	0	0	0	0	0	0	59					
B129	15	11	23	49	0	1	3	3	0	0	0	59					
B131	15	11	26	52	0	1	5	6	0	0	0	59					
B134	15	10	27	52	0	1	4	5	0	0	1	59					
B157	15	11	31	57	0	1	0	1	0	0	0	59					
Orot	227	152	367	746	0	10	38	48	1	2	8	11	26	40	127	193	1.003

Aurrekoetan bezala aldi eta modu desberdinetako perpausak sartu ditugu: orainaldia (B68, B69, B72, B76, B77, B157); iraganaldia (B70, B71, B73, B74, B75, B110, B129); alegialdia (B76, B129, 131, B134), subjuntiboa (B72, B73, B74, B75), agintera (B77), ahalera (B106, B110, B111).

Erantzunetan, lehen aipatu bi fenomenoei behatzea komeni da: objektuari dagokion pertsona komunztadura jokarazten den, eta objektua zer kasutan agertzen den. VI taulan ikus daitezke objektuaren komunztadura markatzen duten erantzunen kopuruak.

Oro har objektu zuzenaren pertsona komunztadura atxikitzen da. Adizkera jokatua duten 810 erantzunetan, objektuarekin pertsona komunztadurarik erakusten ez duten aditzak 15 dira, alegia % 2 (16/810). Emaiza horren arabera, objektu zuzenaren pertsona komunztadura franko indartsua da.

Hurbilagotik behaturik, haatik, badaiteke puntu horretan aldaketa edo ahultze baten lehen seinaleak agertzen hasiak izatea. Alabaina, adinekoen taldean, behin bakarrik gertatzen da komunztadura araua haustea (PIEGE, B74: *Leeno, nai zinuén nik zu ikus nezan egun guziz*), eta bi aldiz, 40-60 urtekoen taldean (KADO, B70: *Leen ikusten zituen egunero*;<sup>24</sup> BERLA, B72: *Beñatek nai du zu ikus dezadan*). Beraz, komunztadura urratze gehienak (13/16) gazteen taldean gertatzen dira. Urratze horiek azken kasu honetan 8 aldiz agertzen dira objektua absolutiboan izanik, eta 5 aldiz datiboan izanik. Horiek hola, ezin dugu ahaztu bazterreko gertakariekin ari garela, gazteen taldean ere adizkera jokaturik eman diren 418 erantzunetan komunztadura hori egiten ez dutenek doi-doi % 3 gainditzen dute (13/418); gutxi dira, beraz.

Objektuaren komunztadura absolutiboa da gehienetan, eta horrek esan nahi du paradigma monotrantsitiboetako adizkerak baliatzen direla, objektuari dagokion pertsona indizea aurrizkia izanik. Halere, puntu honetako aldaketa garbiki agertzen hasia da, Hegoaldeko euskalkiek ekarria seguraz ere. Adinekoen taldean, objektuaren indizea absolutiboa da beti adizkeran, salbuespenik gabe; baina, 40-60 urtekoen taldean, adizkera jokatua duten 164 erantzunetatik 10 kasutan agertzen da indize datiboa, absolutiboaren ordeztasun (%6), bi hiztunetan (RAZI, KOBA) bereziki.<sup>25</sup> Guztiz adierazgarria da orduan euskara batuko formak agertzen baitira bereziki, konbergentzia fenomeno baten ondorioa izan daitekeelako hipotesia indartuz; 7 erantzunetan ikus daiteke hori:

- B70: *ikusten nizun* (KOBA)
- B71: *ezagutzen zenidan* (RAZI)
- B106: *ikusten aal dizuet* (KOBA)
- B110: *ikusten al nizun* (KOBA, MOBA)
- B129: *komidatuko zenidan* (RAZI)
- B131: *komitatuko nizuke* (RAZI)
- B134: *konbidatu bazenidan* (RAZI)

<sup>24</sup> Ez du iduri kasu honetan 'zituen' 'zi(n)tu(d)an' baten gauzpen fonetikoia den, baina duda gelditzen da halere.

<sup>25</sup> Morfoloikoki komunztadura hibridoak dituzten adizkerak ez ditugu objektu datiboduntzat hartu. Adibidez, PIMUS B73: *Ene lañinek nabi dizie zük ezagüt nekadazün*, non lehen pertsona, biak, aurrizki (*n-*, objektu absolutiboak bezala) eta atzizki (*-da*, objektu datiboak bezala) den, komunztadura absolutiboduna dela kontsideratu dugu. Ikus, halaber, MOBA B69: *ezagutzen nautazu*.



Gazteen taldean are gehiago hedatzen da kontua. Alabaina, 43 erantzunetan agertzen da objektu zuzena datiboan, hau da, % 10etan gutxi gorabehera (43/418). Datiboaren alderako lerratze hori talde horretan, ez-oraineko paradigmotan bereziki agertzen da: B70 (×4), B72 (×7), B110 (×4), B111 (×3), B129 (×9), B131 (×5), B134 (×4), orainaldian ere batzuetan aurkitzen bada ere, adibidez EHENek, B69an: *ezagutzen didazu*. Dena dela, datibatzea aditz komunztaduratik kanpo ere gertatzen da zenbaitetan (5 aldiz), aditz morfologia segurtatugabea duten hiztunetan oroz gainetik:

- B69: *Eni ezagützen düzie* (PEOLO)
- B71: *Ongi ezagutzen zinuen niri* (LAUSA)
- B73: *Ene lagünak nahi likezü eni ezagütü züdan* (XILA)
- B74: *Leen nahiago zünin zui ikhus nezan egün oz* (XILA)
- B134: *Bihar eni khümitatzen badüzü holako ostatilat* (PEOLO)

Zerrendatze horrek ez du irakurlea engainatu behar: holako erantzunak, edo objektua absolutiboan izanik diren araberakoak, gazteen taldean ere, bazterrekoak dira, lehen esan dugun bezala, mota horretako adizkerak dituzten erantzunetan % 3 edo.

#### 4. Hondar hitza, bilduma gisa

Artikulu honen helburua NORANTZ datu-basearen aurkezpena egitea izan da, bidenabar haren bidez iker zitekeen gramatika puntu bat —persona komunztadura— testuinguru adierazgarrietan aztertuz. Iparraldeko egoera soziolinguistikoaren ezauzgarri nagusiak gogoratu ondoan, datu-basea sortzeko izan diren arrazoiak eta haren moldatzeko erabili den metodologia azaldu ditugu, baita datu-basearen mugak nabarmendu, eta datuak biltzerakoan, baliatzerakoan eta aztertzerakoan kontuan hartu beharreko oztopo batzuk agerian eman ere. Datu-basearen helburua da Iparraldeko egungo euskal hiztun arruntan gramatika jokabide nagusiak biltzea, halako irudi bat izateko, euskararen gizarte egoera guztiz gaizki den eskualde horretako egun orozko euskara biziaz, edo, hobeki adierazteko, honen oinarrian diren gramatikazko joera desberdinez. Hiztunak aukeratzeko moldatu dugun hiztun tipologia, adina, bizilekua eta euskarazko eskolatzea (Iparraldeko eskola ingurumenean, gazteen taldean bakarrik balia zitekeena) irizpidetzat harturik osatu dugu, orotara 59 hiztun galdezkatu. Inkestak egin eta, uste dugu irizpide hauek egiazki baliagarri direla: adina eta euskarazko eskolabidea oroz gainetik, ezen, euskararen galtzea herri txikienetara hedatzearekin, badirudi bizilekua gero eta faktore ahulagoa dela. Hiztunen sexua zehaztu baita datu-basean, sexua ere irizpide gisa baliatzeko bidea eskaintzen du datu-baseak, baina ez dugu uste eraginik duen elementua denik.

Galdetegi osoak 568 galderaren bidez morfologia funtzionaleko atal gehienak esaltzen ditu, puntu bakoitza azalean bederen hunkiz (ikus 3. taula gorago). Galdera gehienetan (702) frantsesez esandako perpaus bat euskaraz adierazteko eskatu zaio hiztunari, buruz buruan ahoz egin galdeketa batean, galdera bakoitzak gramatikako ezaugarri zehatz bat xedatzen zuelarik, eta erantzuna grabaturik. Fonologiari dagokionez, frantsesarekiko kontaktutik sor daitezkeen eraginak gogoan edukiz 178 galdera egin dira. Datuak elizitzeko teknikari dagokionez, bat-bateko itzulpena baliatzea

izan da gure aukera nagusia. Ohigabekoa da elizitabide hau euskalaritzan, eta ez dugu gordeko proiektua hasi aurretik, inkesta pilotoak egin arte bereziki, zalantzak ere izan genituela egingarri ote zen gisa horretako inkesta lana, holako lanetan batere ohitura-rik ez duten hiztunekin bereziki. Ezen, euskaldun arruntak dira galdekatu izan diren hiztunak, askotan euskaraz osoki alfabetatu gabeak, eta itzulpen zereginetan sekula ez ibiliak. Galdekatu diren hiztun guztiak gai ziren euskaraz normalki eguneroko solasetan komunikatzeko, eta euskaraz egin dira elkarrizketa guztiak. Halere, erantzunak entzutean ohar daitekeen bezala, hiztun guztiak ez dute erraztasun edo gaitasun bera, eta nabari da zenbait galderatan batzuen nekezia. Argi da inkestabide horrek badi-tuela bere mugak eta makurrak, partez behintzat seinالاتu ditugunak; kontuan hartu beharko ditu datu haietaz baliatu nahiko duen ikertzaileak, datu-baseak joerak bereziki erakusteko balio duela gogoan atxikiz.

Datu-basea anitz fenomenoren erakusgarri da: oso nabarmena da, adibidez, murgiltze sisteman eskolatu diren gazteen kasuan bereziki, euskara estandarren eragina, izan dadin euskara batuari dagokiona, edo gaur egun bereziki indarrik gehienarekin agertzen den mintzamoldeari dagokiona. Konbergentzia fenomeno horien ondoan, beste batzuk badira, berezko bilakaera baten ondorio bide direnak. Adibidez, *beri* ize-nordain datibo indartua, murgiltze sisteman ibili gazteen artean agertzen hasia dena, eta, itxura guztien arabera, tokiko berrikuntza bati dagokiona. Beste kasu anitzetan zail da adin taldeen artean ageri den bilakaera berezkoa, edo konbergentziak, edo biek, ekarria den jakitea, hala nola perpaus osagarri subjuntiboetan aditz jokatu-gabeak gazteen taldean zaharren taldean baino gehiago erabiliak izatea.

Toki eskasez, ez ditugu datu horiek ekarri artikulu honetara, eta gramatika ezaugarri abstraktuago bati so egin diogu, datu-baseak holako datuak ere aztertzeko balio zuenetz ikusteko: pertsona komunztadura anizkuna Iparraldeko egungo hiztunetan zenbateraino gauzatzen den behatu nahi izan dugu bereziki, euskararen morfojoske-raren ezaugarri nabarmena delako eta euskararen historian euskalkien arabera molde desberdinetan gauzatu dena. Datuak aski garbiak dira gure ustez: aditz iragankorretan, bai monotrantsitiboetan eta bai ditrantsitiboetan, pertsona komunztadura anizkuna obratzen dute hiztunek, hala komunztadura ergatiboa nola absolutiboa, eta baita, neurri apalago batean komunztadura datiboa ere. Komunztadura ergatiboaren kasuan oso huts gutxi aurkitu dugu. Agertzen diren hutsek berek ere ez dute hainbeste komunztadurarik eza erakusten, bai gehiago, gure ustetan, zenbait paradigma-tako adizkerak osatzeko hiztun batzuek duten zailtasuna. Partez naturaltasunik gabeko elizitabideak esplikatu dezake nekezia hori, baina, datuak orokorrean ikusirik, iruditzen zaigu zerbait sakonago ere badela (beste lan batean ikertzekoa duguna).

Objektu zuzenaren pertsona komunztaduraren datuak ere, aurrekoen itxuran agertzen zaizkigu, gauzak doi bat korapilatzen badira ere, hiztun gazte zenbaitek, batzuetan objektu zuzena aditzean datibatzeak duten joeragatik (ikus bereziki B129 galdera). Beste ikerketa sakonago bat egin beharko da, holakoetan, datibatzea aditz paradigma batzuen menderatzeko nekeziaren ondorioa den (badirudi erraztasun gutxiena duten lekukoetan bereziki agertzen dela), edo argumentua bera den datibo gisa tratatzen jakiteko. Edozein gisaz, komunztadura absolutiboa edo datiboa erabiliz, oso modu erregularran egiten da objektu zuzenarekiko komunztadura, hutsen kopuruak % 1,5eko marra ez baitu gainditzen, hots, inkesta baldintzak kontuan izanik, gure ustez, deuse-tan adierazgarria ez den proportzio bat.

Komunztadura datiboaren datuak nahasiago dira, eta aditz motak eta komunztadura motak bereizi behar dira. Aditz ditransitiboekin bi fenomeno, elkarren aurkakoak, gurutzatzen dira: lehena Iparraldeko ohiko euskalki gehienek ezaugarri bati dagokio: aditz ditransitiboetako komunztadura datiboa ez da nahitaezkoa haietan; bigarrena, euskara batuaren arau bati dagokio: zeharkako objektuarekiko komunztadura datiboa nahitaezkoa da. Ondorioa da aditz horietan aditz komunztadura maizago egiten dela gazteen taldean (%85) adinekoen taldean (%75) baino. NOR-NORI saileko aditzen ondorioak guztiz bestelakoak dira. NORANTZek datuak biltzeko ‘approcher’ eta ‘parler’ aditzak baliatu ditu eta bi aditz horiekin datu desberdinak bildu. Lehenbiziko aditzarekin hitzun gehien-gehienek baztertu dute datiboa erabiltzea (lokatiibo biziduna markatzeko), eta beraz ondorioz ezin atera daiteke komunztadura datiboari begira. ‘Parler’ aditzaz baliatzen diren elizitazio perpausen erantzunetan, berriz, datiboa erabili dute anitz hitzunek. Haatik, aditz ditransitiboetan ez bezala, holakoetan komunztadura datiborik gabeko jokabidea nagusitzen da adin talde guztietan. Bestalde, ‘mintzatu’ aditza erabili duten anitz hitzunek, bi argumentuekiko komunztadura erakusteko, aditzaren erregimena aldatu dute, edo NOR-NORI aditz gisa jokaturik, edo NOR-NORK aditz gisa trataturik. Azkenean guztiz datu nahasiak (eta kasuka harturik fidagarritasun gutxikoak) gelditzen dira, ikerketa berezia merezi luketenak. Hondarrean, datibo esperientzialaria duten NOR-NORI aditzetako komunztadura datuak aurkeztu ditugu. Hitzunek ongi menderatzen dituzten paradigmekin erregularri gauzatzen dute komunztadura datiboa (% 90). Haatik, alegialdietako eta subjuntiboko formetan zailtasunak dituzte hitzun askok komunztadura paradigma egokietan gauzatzeko, gazteen taldean bereziki, baina ez haien artean bakarrik.

Ez dugu uste inork ustekabekorik aurkituko duen eskaini ditugun datu orokorretan. Orogen buru, ohiko euskalkietan diren joera batzuk baiestera heldu dira aurkeztu ditugun datuak. Haatik, NORANTZeko datuak erabilirik oinarri empiriko sendo bat ematen zaio Iparraldeko euskaldunen pertsona komunztadurako jokabideen azterketari, barneko joerak eta aldaguneak ikusteko aukera emanez. Esperantza dugu holako kasua erabilirik, erakutsi dugula, egungo hizkerak eta aldaketak aztertzen dituzten ikertzaileentzat, baita euskararen irakaskintzaz arduratzen direnentzat ere, tresna baliosa izan daitekeela NORANTZ datu-basea.

**1. eranskina**

## Lekukoaren fitxa

**Kodea:**

Sorteguna:

Sexua:  emaztea  gizona

Ofizioa:

Adina:  -30  40-60  +70

-30 Bizitoki nagusia gaztetan:

Hiria edo kantonamendua:

 hiria  hirixka  baserria

-30 Bizitoki nagusia adin betean:

 E. Herria E. Herritik kanpo

Hiria edo kantonamendua:

 hiria  hirixka  baserria

+40 Bizitoki nagusia gaztetan:

Hiria edo kantonamendua:

 hiria  hirixka

+40 Bizitoki nagusia adin betean:

 E. Herria E. Herritik kanpo

Hiria edo kantonamendua:

 hiria  hirixka

Eskola maila:

 16 urte arte 16-20 urte arte +20

Ama euskalduna:

 bai ez

Aita euskalduna:

 bai ez

Bizilaguna euskalduna:

 bai ez

Haurrak euskaldunak:

 bai ez

Lehen mintzaira:

 euskara erdara biak

Etxeko mintzaira gaztean:

 euskara erdara biak

Etxeko mintzaira adin betean:

 euskara erdara biak

Laneko mintzaira:

 euskara erdara biak

Euskara eskolako hizkuntza:

 ez bai gai bezala murgiltze sisteman

Euskara katiximako hizkuntza:

 ez bai

Euskara deusetarik ikasia:

 ez bai

Zer adinetan?

Euskara berreskuratua:

 ez bai

Zer adinetan?

Badakizu irakurtzen euskaraz?

 ez bai

Usaia baduzu irakurtzeko?

 ez bai

- Idazten euskaraz?  ez  bai
- Usaia baduzu idazteko?  ez  bai
- Hizkuntza horiek ba ote dakizkizu?  Espainola  Gaskoina  Ingelesa  besterik
- Usaia baduzu irratia euskaraz entzuteko?  ez  bai
- Usaia baduzu ETB ikusteko?  ez  bai

## Erreferentziak

- Allières, Jacques, 1985, *Statut et limites du polimorfisme morphologique. Le verbe basque dans la Grammaire cantabrique basque de Pierre d'Urte (1712)*, in J. L. Melena (arg.): 899-919.
- Artiagoitia, Xabier, 2000, *Hatsarreak eta parametroak lantzen*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU-Arabako Foru Aldundia.
- Backus, Ad., 2008, *Data Banks and Corpora*, in Wei & Moyer (arg.): 232-248.
- Baude, O. et al., 2006, *Corpus oraux. Guide des bonnes pratiques*. Paris: CNRS éditions.
- Clemente, Ignasi, 2008, *Recording Audio and Video*, in Wei & Moyer (arg.): 177-191.
- Coyos, Jean-Baptiste, 2008, «Hizkuntza-politika Ipar Euskal Herrian: nondik nora? Ibilbidearen azterketa», *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 67, 79-102.
- Coyos, Jean-Baptiste, 2009a, «Errealitate soziolinguistikoaren deskribapena eta irudikatzea. Hiru aldagairekiko modelook», *ASJU* XLIII, 193-204.
- Coyos, Jean-Baptiste, 2009b, «Euskara eta legeria Ipar Euskal Herrian: Gizarte elebidun bate-rantz aukerak eta mugak», *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 41-55.
- Coyos, Jean-Baptiste, 2010a, «Frantziako estatua eta eskualdetako hizkuntzak: 1990-2010», *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 76, 87-99.
- Coyos, Jean-Baptiste, 2010b, «État des lieux de l'enseignement scolaire du basque en France», *Les langues modernes, Revue de l'APLV* 4, 32-37.
- Eusko Jaurlaritz, 2008, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Iparraldea*. 2006. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fishman, J. A., 2001, *Can Threatened Languages be saved? Reversing language shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Multilingual Matters. England: Clevedon.
- Lanza, Elizabeth, 2008, *Selecting Individuals, Groups, and Sites*, in Wei & Moyer (arg.): 73-87.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada*. Salamanca: A. J. Villagorde. Berrargit. Faksimile edizioa. Donostia: Hordago, 1979.
- Legarra, Jose María & Baxok, Erramun, 2005, «Language policy and planning of the status of Basque, II: Navarre and the Northern Basque Country», *International Journal of the Sociology of Language* 174, 25-38.
- Melena, Jose L. (arg.), 1985, *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
- Rietveld, T. & R. van Hout, 1993, *Statistical Techniques for the Study of Language and Language Behaviour*. London: Mouton de Gruyter.
- Thomason, Sarah G., 2001, *Language Contact. An introduction*. Edinburgo: Edinburgh University Press.
- Turell, María Teresa & Melissa Moyer, 2008, *Transcription*, in Wei & Moyer (arg.): 192-213.
- Urteaga, Eguzki, 2006, *La langue basque dans tous ses états. Sociolinguistique du Pays Basque*. Paris: L'Harmattan.

- Wei, Li & Melissa Moyer, 2008, *The Blackwell guide to research methods in Bilingualism and Multilingualism*. Blackwell.
- Weinreich, U., 1953, *Languages in Contact: Findings and Problems*. New York.
- Yrizar, P., 1999, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*. Iruñea: Euskaltzaindia & Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zuazo, Koldo, 2008, *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

# GOI- ETA BEHE-DATIBOAK ETA DATIBO-KOMUNZTADURAREN MURRIZTAPENA: IPAR-EKIALDEKO HIZKERAK ETA EUSKARA ESTANDARRA<sup>1</sup>

Beatriz Fernández

UPV/EHU

## Laburpena

*Lan honetan, bi datibo mota nagusi daudela erakutsiko dugu: goi-datiboak (esperimentatzaileak, datibo hunkituak eta jabe datiboak) eta behe-datiboak (nagusiki, baina ez bakarrik, helburu datiboak). Lanean zehar, egitura inakusatibo datibodunak arakatu ditugu batez ere, eta iragankorrak ez ditugu zeharbidez baino aztertuko. Bi datibo moten arteko bereizketa datibo komunztaduran oinarrituko dugu. Euskarak, hiru komunztadurako hizkuntza izan arren, zenbait egituratan hautazko komunztadura erakusten du. Alabaina, hautazko komunztadura ez da behe-datiboekin baino aurkitzen, goi-datiboek ezinbestean zaintzen baitute komunztadura. Bestalde, murriztapen bera erakusten dute Ipar-ekialdeko hizkerek, komunztadura galtzeko joera erakusten dutenek. Datiboen euskal kartografiak erakusten duen bereizketa hau Datibo-Komunztaduraren Murriztapenak sortarazten duela proposatuko dugu lan honetan: i) goi-datiboek ezinbestean zaintzen dute komunztadura, eta ii) behe-datiboek hautazko komunztadura erakusten dute.*

---

<sup>1</sup> Lan honek ez luke orain argirik ikusiko lehenago Jon Ortiz de Urbina eta Josu Landarekin batera datibo komunztadura galera aztertu ez banu. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiet bie elkarrekin egindako lanengatik. Bestalde, Ibon Sarasolak eta Pablo Albizuk lan honen hasierako idatzaldia xehe-tasunez zuzendu eta iruzkindu dute eta nire esker ona adierazi nahi diet horregatik. Baita Arantzazu Elordieta, Irantzu Epelde, Mélanie Jouitteau, Richard S. Kayne, Beñat Oihartzabal, Milan Rezac eta Esther Torregori ere lan honetan darabiltzadan gaien inguruan egin dizkidaten iruzkin eta iradokizunengatik. Gontzal Agoteri ere eskerrak eman nahi dizkiet bere datuen inguruko argibideengatik. Gainerakoan, Wedisyn sarearen *2<sup>nd</sup> Workshop on syntactic variation* (Univ. de Barcelona, 2011ko martxoa) jardunaldiko entzuleekin ere zorretan nago nire hitzaldiaren osteko solasaldiarengatik. Azkenik, esker bereziak merezi dituzte Irantzu Epeldek eta Koldo Zuazok *Euskalkien jatorria eta bilakaera* elkargunera gonbidatzeagatik (UPV/EHUren XXX Donostiako Uda Ikastaroak, 2011ko uztaila), eta orain ASJUko ale honetan parte hartzeko aukera emateagatik. Esan gabe doa lanean zehar egon litekeen edozein oker edo erraturen erantzukizuna nirea baino ez dela. Lan hau ondoko instituzioen eta ikerketa proiektuen laguntzari esker egin ahal izan dut: Ministerio de Ciencia e Innovaciónen FFI2008-00240/FILO eta FFI2011-26906; Agence Nationale de la Recherche ANR-07-CORP-033, eta Eusko Jaurlaritzaren HM-2009-1-25 eta IT4-14-10.

## Abstract

*In this paper, I propose the presence of two basic dative types for Basque: high (experiencers, affected datives and possessors) and low (mainly, but not exclusively, goal datives). I focus on bivalent unaccusative configurations, although the distinction can be extended to the ditransitive ones. The main diagnostic for the distinction comes from verbal agreement. Though Basque is a three-way agreement language and datives, in general, trigger obligatory agreement in a consistent way, there are particular instances where dative agreement seems to be optional. However, this optionality is only available for low datives. Thus, high datives show agreement without exception. Moreover, dialectal data from the North-Eastern varieties of Basque, which tend to drop dative agreement, show the same restriction. The distinction in the Basque cartography of datives is related to what I will call Dative-Agreement Constraint: i) high datives show obligatory agreement without exception, and ii) low datives show optional agreement. Two more data areas will be mentioned in favor of the distinction: adnominal datives and datives in derived nominalizations.*

## 0. Atarikoak

Lan honetan, *goi-* eta *behe-datiboen* arteko aurkakotasuna aztertuko dugu, bereziki datibo komunztadura galerari erreparatuz. Oraingo honetan, nagusiki predikatu inakusatibo datibodunak arakatuko ditugu eta iragankor datibodunak ez ditugu zeharbidez baino ikusiko. Lanean zehar, bi datibo mota hauen ezaugarri sintaktiko nagusiak laburbiltzen saiatuko gara (batez ere, hitz hurrenkera eta hierarkia sintaktikoak) eta datibo komunztadura galerari dagokionez aurkakotasun argi bat erakutsiko dugu: *goi-*datiboek halabeharrez zaintzen dute datibo komunztadura eta, aldiz, *behe-*datiboek, ez. Datibo komunztadura galera edo datibo komunztaduraren hautazkotasuna sortzen da orduan, *behe-*datibo horiek komunztadura egiten ez dutenean. Hautazkotasun hori ipar-ekialdeko hizkeretan jasotzen da. Gainerakoan, datibo komunztaduraren hautazkotasunaren erakusgarriak ere baditugu euskara estandarrean ere. Ez da, itxura guztiaren arabera, ipar-ekialdeko hizkeretako hautazkotasun bera, baina *goi-* eta *behe-*datiboen banaketa antzematen da hemen ere komunztadurari dagokionez: *behe-*datiboek baino ez dute hautazkotasunerako joera. Banaketa hori *Datibo-Komunztaduraren Murriztapena* deritzogunaren bitartez adieraziko dugu lanean.

## 1. Bi datibo mota eta Datibo-Komunztaduraren Murriztapena

Lehen atal honetan eztabaidatuko dugu *goi-* eta *behe-*datiboak Determinatzaile sintagmak (DS) ala Postposizio sintagmak (PS) diren, eta horretarako irizpide nagusi batez baliatuko gara, hots, datibo komunztaduraz. Bi datibo mota horietan, datiboaren eta absolutiboaren arteko hierarkia sintaktikoak ere zein diren erakutsiko dugu. Atalaren amaieran, Datibo-Komunztadura Murriztapena proposatuko dugu.

### 1.1. Datiboak, datibo komunztadura eta datibo komunztadura galera

Laurogeita hamarreko hamarkadan zehar hasi zen euskal ikertzaileen artean datiboei buruzko eztabaida, nahiz eta laurogeiko hamarkadan badiren Hualde (1986)



edo Ortiz de Urbina (1989) bezalako lan esanguratsuak. Orduetik hona luzatu den eztabaidan egile gehienek datibo komunztaduraren irizpidea erabili dute erabakitzekeo datibo sintagma DSak ala PSak diren. Kontuan izan euskaraz komunztadura eragiten duten sintagma bakarrak DSak direla, ergatibo eta absolutibo sintagma, alegia. Aldiz, PSek ez dute komunztadurarik eragiten. Hortaz, datibo sintagma ez zatekotan, DSak izan beharko lirateke eta ez PSak.

Euskaraz datibo komunztadura dago, eta horren ondorioz, perpaus batean datibo sintagma bat badago, orduan nahitaezkoa da laguntzailean datibo komunztadura agertzea (a). Horregatik, ziur aski, ipar-ekialdeko hizkeretan gertatzen den *datibo komunztadura galerak* berebiziko garrantzia hartzen du eztabaidan, hizkera eremu horretan, perpaus jakin batean datibo sintagma bat agertzeak ez baitu halabarrez esan nahi datibo komunztadura eragingo duenik laguntzailean (b).

- (1) a. Nik zuri liburua eman dizut/\*dut.  
 b. Ez uste... baitezpada gorrieri emango dudala ene botza. (Larz *Idazl* II, 227)<sup>2</sup>

Datibo komunztadura galera adierazten du (b) perpausak: *gorrieri* datibo sintagma ageri da perpausan, baina adizkiak ez du harekiko datibo komunztadurarik zaintzen. Perpausa, alabaina, gramatikala da ipar-ekialdeko hizkeren eremuan.

Gertakari honetatik lezio ederra ikas dezakegu hizkeren sintaxiaz ez ezik, hizkuntzaren sintaxiaz ere, datibo komunztadura galera ez baita edonolako datiborekin gertatzen, datibo jakin batzuekin baino, eta horrek berebiziko garrantzia du, oro har, datiboen izaeraz eztabaidatzen ari garela. Izan ere, gure ustez, bi datibo mota daude gutxienez, hots, *goi-* eta *behe-datiboak*, eta halaxe proposatu eta erakutsiko dugu lan honetan, bereziki predikatu inakusatibo datibodunetara begira. Kontuan izan behar da *goi-* eta *behe-datiboak* diogunean, datiboen jatorriko gune sintaktikoez ari garela.

Predikatu inakusatibo datibodunetan, bi argumentu hautatzen dira, bata absolutiboa eta bestea datiboa, eta berau *goi-* edo *behe-datiboa* izan daiteke. *Goi-datiboak* dira, adibidez, predikatu psikologikoetan hautatzen diren esperimantatzaileak —ikus xehetasunetarako, Artiagoitia (2000), Etxepare (2003), Fernández (2007), Rezac (2008, 2009) Albizu (2009, 2011) eta Fernández & Ortiz de Urbina (2010) beste batzuen artean—. *Ahantzi* predikatu psikologikoetako bat da eta *diszipuluei* datibo argumentuak esperimantatzaile theta-rola du. *Goi-datiboa* da.

- (2) Bada, dizipuluei ahantzi zitzaienten ogien hartzea, eta bat bakharra baizik etzuten untzian berekin. (Dv Mc 8, 14)

*Goi-datiboak* DSak dira eta hitz hurrenkerari dagokionez, aurretik doaz hitz-katean absolutiboak baino, hau da, datibo-absolutibo hurrenkera ez-markatua dutela pentsa daiteke.<sup>3</sup> Horrek ez du esan nahi bestelako hurrenkeraz ere azal ezin daitezkeenik, baina, kasu horietan, hurrenkera markatua dela esango dugu.

<sup>2</sup> Mitxelena eta Sarasolaren (1989-2005) *Orotariko Euskal Hiztegiaren* irizpideei jarraituko diegu klasikoaren aipamen laburtua ematerakoan.

<sup>3</sup> *Goi-datiboak* absolutiboen aurretik doazela diogunean, absolutiboen ezkerretara daudela esan nahi dugu. *Aurretik joan* diogu ingelesezko *precede* aditza euskaratzeko.

Goi-datibo hauek absolutiboaren aurretik joateaz gain, hierarkia sintaktikoan ere absolutiboak eurak baino *gorago* daude. Horregatik deritzegu, hain zuzen, goi-datiboak, perpausaren *kartografian* gorago ageri direlako absolutiboak baino. Oso intuitiboki adierazten duguna teknikoki ere adieraz daiteke esanez (Barss eta Lasnik 1986) datiboa absolutiboaren aurretik doala eta absolutiboa o-komandatzen duela.<sup>4</sup>

Aldiz, behe-datiboak PSak dira —Rezac (2008, 2009) Albizu (2009, 2011)— jatorrian bederen, geroago argituko dugun bezala. Hitz hurrenkera ez-markatuari begiratuz gero, absolutiboaren beraren atzetik lerratzen dira perpausaren, eta hierarkia sintaktikoan ere, behe-rago daude absolutiboak baino. Edo bestela esanda, behe-datiboko egituretan, absolutiboa datiboaren aurretik doa eta datiboa o-komandatzen du. Behe-datibo bat da *jarraiki* bezalako aditzena:

- (3) a. Jesus kurutzefikatuari jarraiki zaizkonak... (Leon *Imit* II, 12, 1)  
 b. Jesusen urratsar jarraiki diren bertze guziak! (Leon *Imit* I, 18, 2)

Egile beraren, Leonen, bi datibo dira adibideetakoak. Ikusten denez, (a) adibideak datibo komunztadura zaintzen du aditz laguntzailean (*zaizkonak*); (b) adibideko *diren* adizkiak, berriz, ez. Ikusten denez, datibo komunztadura galerarako aukera ematen duen datiboa, behe-datibo bat da. (2) perpausako goi-datiboak, berriz, datibo komunztadura zaindu beste aukerarik ez du.

## 1.2. Goi-datiboak, behe-datiboak eta hierarkia sintaktikoak

Datiboak absolutiboa o-komandatzen duela diogunean (edo datiboa hierarkikoki gorago dagoela diogunean), askotariko gertakariak ditugu kontuan —baita, jakina, alderantzizkoa diogunean ere—. Gertakari horietatik batzuk lehenago aipatu dugun Barss eta Lasniken (1986) lanean jasotzen dira, eta bertatik abiatuz, Montoyak (1998) eta bereziki Elordietak (2001) datiboaren eta absolutiboaren arteko o-komando harremanak arakatu dituzte predikatu iragankor datibodunetan —*eman* bezalakoetan adibidez—. Bi euskalariiek erakutsi dutenez, *eman* bezalako aditzekin, datiboak absolutiboa o-komandatzen du eta ez, alderantziz. Ikus dezagun gertakari horietatik bat, adibide gisa, datiboa absolutiboa baino gorago dagoela erakusteko. Anaforaren uztartzea izango da gure mintzagaia.<sup>5</sup> Elordietaren adibideez eta azalpenaz baliatuko gara horretarako:

- (4) a. Nik Mireni<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> burua erakutsi nion argazkietan  
 b. \*Nik bere<sub>i</sub> buruari Mireni<sub>i</sub> erakutsi nion argazkietan  
 c. \*Nik Miren bere<sub>i</sub> buruari erakutsi nion argazkietan

Adibide hauetatik lehenean (a), *Mireni* da *bere burua* anafora bihurkariaren aitzindaria, eta biak dira, beraz, erreferentziakideak; adibide berean, *Mireni* datiboa *bere burua* absolutiboaren aurretik doa eta bera o-komandatzen du. Hortaz, uztar-

<sup>4</sup> O(sagai)-komando egitura harremanaren hastapenak ikus daitezke Artiagoitiaren (2000: 88-90) lanean.

<sup>5</sup> Uztardura teoriaren sarrera baterako, ikus Artiagoitia (2000: 283-332). Osagarri bikoitzeko egituretarako, ikus lan bereko 320-325 orrialdeak.

duraren A hatsarreak dioen bezala, aitzindariak anafora uztartzen du egokiro eta per-pausa gramatikala da. Aldiz, (b) perpausean aitzindariak ez du anafora bere eremu hurbilean uztartzen, eta ondorioz, ez-gramatikala da. (c) adibidea, *nahasketaz* (ingelesez, *scrambling*)<sup>6</sup> sortu du Elordietak, eta horregatik ageri da *Miren* absolutibo argumentua, aitzindaria dena, anafora bera baino lehenago. Hala ere, hori nahikoa ez eta adibidea ez-gramatikala da *bere buruari* anafora uztarturik ez dagoelako (Elordietak 2001: 80-82).

Halako gertakariak, predikatu inakusatibo datibodunetan ere jaso eta aztertu izan dira euskalaritzan eta egileek bi egitura (datibo-absolutiboa eta absolutibo-datiboa) eta bi datibo mota (goi- eta behe-datiboak) ditugula ebatzi dute —Oihartzabal (1992), Zabala (1995), Artiagoitia (2000), Fernández (2007, 2011a,b), Rezac (2008, 2009), Albizu (2009, 2011) eta Fernández eta Ortiz de Urbina (2010)—. Ikus, esate baterako, *gustatu* predikatu psikologikoa erakusten duten ondoko adibideak:

- (5) a. Mireni bere burua gustatzen zaio  
 b. \*Bere buruari Miren gustatzen zaio  
 c. \*Miren bere buruari gustatzen zaio

Elordietaren adibideak bezalakoxeak dira hauek: (a) *Mireni* aitzindariak *bere burua* o-komandatzen du; ez, aldiz, (b) adibidean. (c) adibidea ere oso badaezpadakoa da, edo besterik gabe, ez-gramatikala. Ikusten denez, beraz, *gustatu* predikatu psikologikoa hautatzen duen datiboa goi-datiboa da. Oso bestelako hierarkia erakusten dute mugimenduzko aditzetako absolutibo eta datiboek (Oihartzabal 1992: 331):

- (6) a. Haurrak elkarri hurbildu zaizkio  
 b. \*Elkar hurrei hurbildu zaie  
 c. \*Hurrei elkar hurbildu zaie<sup>7</sup>

Lehen adibidean (a), absolutiboa datiboaren aurretik doa; absolutibo hori, gainera, *elkarri* anafora elkarkariaren aitzindaria da eta bera o-komandatzen du. Hortaz, anafora egokiro uztarturik dago eta perpausa gramatikala da. Bigarrena (b), berriz, ez-gramatikala da, aitzindaria ez doalako anaforaren aurretik eta, orobat, ez duelako bera o-komandatzen. Azken adibidean (c), aitzindaria aurretik ageri arren, anafora ez dago uztarturik eta berriro ere, perpausa okerra da. *Hurbildu* bezalako aditzetan, datiboa behe-datiboa da.<sup>8</sup>

<sup>6</sup> *Berrantolaketa* hitza darabil Artiagoitiak (2000: 323) nahasketaren ordez.

<sup>7</sup> Ikus Artiagoitia (2000: 407).

<sup>8</sup> Pablo Albizuk (buruz buru) ohartarazi digunez oso kontuz aztertu beharrekoak dira honelako datuak, lehenago beste egile batzuek adierazi duten bezala, adibidez Artiagoitiak (2000: 410-412) edo Albizuk berak bere azken lanetan (2009, 2011). Artiagoitiak dio ez dirudiela aditz bakoitzaren hautua denik jokoan dagoena, zeren *joan* edo *hurbildu* bezalako aditzek ere onartzen baitituzte datibo-absolutibo hurrenkera eta goian adierazi berri dugunaren kontrako o-komando harremana ere. Hori erakusteko, Artiagoitiak ondoko adibide hau dakar *hurbildu* aditzari dagokionez: *Joni eta Mireni bata bestearen txakurra hurbildu zaie*. Arrazoa dute, beraz, bai Artiagoitiak bai Albizuk datu hauek tentuz hartzerakoan eta arazo orokor bat dagoela diotenean. Guk, zoritxarrez, ez dugu arazo hori argituko, baina Artiagoitiaren adibide honetan, ez dakigu *hurbildu* aditza izanagatik ere, ez ote dugun datibo-absolutibo hurrenkera bideratzen duen jabe datibo bat eta ez helburu soil bat. Hala balitz, orduan datiboaren izaerak berak (eta ez horrenbeste aditzak) baldintzatu litzake hurrenkera bat ala bestea eta dagokion o-komando harremana.

### 1.3. Goi-datiboak eta behe-datiboak: DSak eta PSak

Goi- eta behe-datiboen arteko ezberdintasunak aurkako hierarkia sintaktikoekin ez ezik, datiboen kategoria estatusarekin ere zerikusi estua dauka. Izan ere, goi-dati-boak DSak dira eta behe-datiboek, aldiz, PSak dirudite, jatorrian, bederen (ikus, diferentziak diferentzia, Rezac 2008, 2009, Albizu 2009, 2011, Etxepare 2010a,b eta Etxepare eta Oihartzabal 2010). Honek berebiziko garrantzia dauka egitura datibodunak zein nolakoak diren erabakitzerakoan. Kontuan hartu behar da hausnarketa honen guztiaren abiaburuan ingeleseko *osagarri bikoitzeko egiturak* (a) daudela, eta egitura horiek osagarri preposiziodunak erakusten dituzten egiturekin (b) harremanetan daudela. Ondoko adibideetan ikus daitezke bata zein bestea:

- (7) a. John gave Mary a book  
John eman zion Mary bat liburu  
*'Johnek Maryri liburu bat eman zion'*
- b. John gave a book to Mary  
John eman zion bat liburu p Mary  
*'Johnek Maryri liburu bat eman zion'*

Bi perpausok esanahi bera izan arren, oso diferenteak dira egiturari dagokionez. (a) perpausoko osagarri bikoitzeko egituraren, *Mary* eta *a book* 'liburu bat' biak dira DSak; (b) egitura preposiziodunean, berriz, *to Mary* PS bat da. Literaturan, egile batzuek (b) egituratik *eratorritako* egituratzat jotzen dute (a). Gainerakoan, (a) perpausuan *Mary* helburua, *a book* 'liburu bat' gaia baino gorago dago sintaktikoki eta berau o-komandatzen du (euskal goi-datiboekin ikusi dugun hierarkia bera); aldiz, (b) perpausuan, alderantzizkoa da *a book* 'liburu bat' DSren eta *to Mary* PSren arteko hierarkia (behe-datiboek aipatu duguna).

Bada, Elordietak (2001) eta beste askok (Fernández 1997, Montoya 1998, Artiagoitia 2000, Oihartzabal 2007a,b) datiboen DS kategoria estatusa defendatu izan dute euskaraz, eta osagarri bikoitzeko egituratzat jo dute (7a) adibidearen euskal kidekoa (*Jonek Mireni liburua eman dio*). Orobat, euskalari hauek adierazi dute (7b) egituraren parekorik ez dagoela euskaraz. Aldiz, beste egile batzuek euskara ingelesa bezalakoxea dela aldarrikatu dute: *Mireni* eratorritako DSatzat hartu dute, hau da, jatorrian PS izan arren, eratorpen sintaktikoan DS bihurtu dena. Egile hauek ez dute, jakina, ukatzen osagarri bikoitzeko egiturak direnik *Jonek Mireni liburua eman dio* bezalakoak, baina ingelesez bezala, PSDun egitura batetik datozela defendatu izan dute (Albizu 1997, 1998, 2001, Albizu eta Fernández 2006, Ormazabal eta Romero 1998, 2001, 2007, Ormazabal 2000, Arregi 2003, Arregi eta Ormazabal 2003).

Lan honetan, lehenago predikatu iragankor datibodunetz (*eman*) egin den eztabaida predikatu inakusatibo datibodunen eremura eraman nahi izan dugu, lehenago egin ditugun beste lan batzuen ildo beretik (Fernández 2007, 2011a,b,c Fernández eta Ortiz de Urbina 2010). Batez ere, goi- eta behe-datiboen banaketa eta kategoria estatusa aztertuko dugu, eta horretarako irizpide nagusi bat izango dugu mintzagai, hots, datibo komunztadura galera. Gertakari honi dagokionez, lan interesgarriak egin dira azken urteotan ipar-ekialdeko hizkeretako testigantzak aztertuz, hizkera haueetan jasotzen baita gertakaria. Hala, Etxepare eta Oihartzabalen zenbait hitzalditan (2008a,b,c) eta idatzizko lanetan (2008d, 2010), ekarpen teoriko esanguratsua egin

da gertakariak —ikus, baita Etxepare (2010a,b) ere—. Bestalde, geuk bakarka zein elkarlanean egindakoetan —Fernández eta Landa (2008) eta Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2010)—, ikuspuntu orokorrago bat erabili dugu gertakariak —berziki Fernández (2011a,b,c) lanetan—, eta datibo komunztadura galeraren gaiak datiboen izaeraz oro har eztabaidatzeko bidea eman digu. Datibo komunztadura galera alde batera utzita, predikatu inakusatiboetako datiboen izaeraz ere eztabaidatu dute aspaldion beste hizkuntzalari batzuek ere. Rezacek (2008, 2009), adibidez, mugimenduzko aditzetako datiboak PSak direla defendatu izan du, eta jabe datiboen analisira zabaldu nahi izan du haren proposamena Albizuk (2009, 2011).

Oraingo honetan, ipar-ekialdeko hizkeretako datibo komunztadura galera ez ezik, euskara estandarrean eta gainerako hizkeretan dagoen datibo komunztaduraren hautazkotasuna ere izango dugu mintzagai zenbait egiturari begira. Nahiz eta ez dirudien gertakari bat bera denik estandarrean dagoen datibo komunztaduraren hautazkotasunak, ipar-ekialdeko hizkeretakoaren antzeko mugak ditu egitura batzuei dagokienez, behintzat: goi-datiboek inoiz ere ez dute hautazkotasunik erakusten, eta izatekotan, behe-datiboak dira hautazkotasun hori erakusten dutenak.<sup>9</sup>

#### 1.4. Datibo-Komunztaduraren Murriztapena

Datibo komunztaduraren gaira itzuliz, nabarmendu beharreko alderdia da behe-datiboek datibo komunztadura gal dezaketela eta goi-datiboek, berriz, inoiz ere ez. Horrek Datibo-Komunztaduraren Murriztapena proposatzera garamatza:

- (8) *Datibo-Komunztaduraren Murriztapena*
- a. Goi-datiboek ezinbesteko datibo komunztadura dute
  - b. Behe-datiboek hautazko datibo komunztadura dute

Murriztapen honek zenbait ñabardura behar ditu eta sinplea dirudien arren, datiboen izaerari buruzko eztabaida benetan sakona eskatzen du. Adibidez, predikatu inakusatibo datibodunetan, inongo lausorik gabea dirudi datibo esperimenezkoen eta helburu datiboen arteko banaketak: goi-datiboak dira lehenak (*Joni* komikiak gustatzen zaizkio) eta behe-datiboak azkenak (*Jon Aneri* hurbildu zaio). Alabaina, predikatu iragankor datibodunetan (Jonek *Garaziri* marrazkia eman dio), *Garaziri* goi-datibotzat hartu beharko genuke, absolutiboaren aurretik joateaz gain,

<sup>9</sup> Lehenago egin ditugun lanetan (Fernández 2011a,b), datibo komunztaduraren irizpidez gain, beste irizpide bi erabili ditugu, Fernández eta Sarasola (2010) lanean oinarrituz: izen ondoko datiboak izenburuen sintaxian (*Marinelei abisua* EZ *Eliç* 26 adibidez) eta datiboen agerpena eratorritako nominalizazioetan (*Jesusen aguerquera Apostolui* Lard 472) —ikus baita Albizu (2009, 2011), zeinak irizpide bakartzat hartzen dituen—. Egitura batean zein bestean ager daitezkeen datibo bakarrak behe-datiboak dira; goi-datiboak ageriz gero, egiturak ez-gramatikalak dira (\**ategina umeei*; \**goxokien ahanztura umeei*). Bi irizpide hauek indartu egiten dute datibo komunztaduraren irizpideak zehazten duen bidea, hots, goi- eta behe-datiboak ditugula euskaraz. Irizpide hauekin batera, bestelakoak ere erabili izan dira literaturan datiboen kategoria estatusaz eztabaidatzeko eta datiboak DSak direla erabakitzeko, baina ez dira esanguratsuak bi datibo mota bereizteko (Fernández 2011a,b): i) datiboak postposizioak ez bezala ezin agertzea *-ko* erlazio hizkiarekin (Goenaga 1978, de Rijk 1988, Elordieta 2001, Oihartzabal 2007b); ii) nahasitako datibo osagarriaren zilegiztapena hutsune bizkarrietako egituretan —ikus berziki Elordieta (2001), eta Oihartzabal (2007b) berrikusketa kritiko baterako—, eta iii) datibo argumentuaren A'-ateratzea (Elordieta 2001).

hierarkian gorago dagoelako absolutiboa baino, eta aldi berean, DS delako. Hala ere, hau da, hain zuzen, datibo komunztadura gal dezakeen helburu datibo prototipiko bat —ikus (1a) adibidea—. *Garazi* iragaite edo transferentzia predikatu baten helburua da, eta halakoak oso sarri aurki daitezke datibo komunztadurarik gabe. *Garaziri* goi-datibotzat joz gero, beraz, ez genuke espero izango hautazko komunztadura izaterik (hautazkoa den hizkera eremu geografikoan edo hautazkoa den egituretan).

Azalbide bat Ormazabal eta Romerorena (1998, 2001, 2007; Ormazabal 2000) edo Albizurena (1997, 1998, 2001) izan liteke. Egile hauen aspaldiko intuizioa da *Garaziri* bezalako datiboak ('Jonek *Garaziri* marrazkia eman dio' perpausean) DSak izan arren, PSak direla jatorrian eta eratorpen sintaktikoaren bitartez bihurtzen direla DSak. Bakerdar teoriari (1988) lotzen zaizkio egile hauek, beste hainbat hizkuntzatarako proposatu dena euskarara ekarriz. Hizkuntzalariok behin baino gehiagotan defendatu izan dute euskal datiboek predikatu iragankor datibodunetan erakusten duten jokabide nolabait bikoitza (DS eta PS) halaxe azal daitekeela. Guk, euskarari begira, beti izan ditugu zalantzak predikatu hauei dagokienez, eta oraindik ere baditugu, baina momentuz, behintzat, ez dugu azalbide hoberik aurkitzen. Jo dezagun behin-behinean, beraz, haien intuizioa zuzena dela, eta eratorritako DS datibodun batzuk jatorrian PSak direla. Jatorrian PSak izateak azal lezake, beharbada, datibo komunztaduraren hautazkotasuna zenbait kasutan.<sup>10</sup>

Beste azalbide bat Elordietarena (2001) eta bere ildoko egileena da —Oihartzabalena (2007a,b) adibidez—, gorago esan dugun bezala. Gogoratu Elordietak *Garaziri* bezalako datiboak DSak zirela zioela, nahiz eta jatorrian PSak zirela onartzen ez zuen. Elordietak zerabiltzan irizpideetako bat datibo komunztadura zen, hain zuzen, eta bere lanean ipar-ekialdeko hizkeretako datibo komunztadura galera aipagai zuen arren (Elordietak 2001: 58, 13 oin-oharra), hautazkotasunaren baldintzak hobe ezagutu bitartean, analisia hego-mendebaldeko hizkeretara mugatu behar zela iradokitzen zuen.

Jakina, Elordietaren lanaz geroztik, datibo komunztadura galera askozaz ere hobeto ezagutzen dugu eta azalpen teorikorako garaia heldu dela dirudi. Dударik gabe, ahalegin berezia egin dute horretan Etxeparek eta Oihartzabalek (2008a,b,c,d, 2009, 2010) gaiari buruzko lanetan. Egile hauen proposamen teorikoa konplexua da eta zaila da laburbiltzen, baina komeni da, bederen, aipatzea zein den bere lekua orain arte jaso ditugun analisi nagusi bien artean (Ormazabal-Romero vs. Elordietak).

Etxepare eta Oihartzabalen analisiak bi estrategia jasotzen ditu ipar-ekialdeko hizkeretarako: batetik, P estrategia eta bestetik, mintzagai izan berri dugun osagarri bikoitzeko egiturarena vs. egitura PSdunarena. P estrategiari dagokionez, egile hauen ustez, datiboetatik batzuek, bereziki *leku datiboa* deritzotenen ibilbide hesitugabea (ingelesez, *unbounded path*) adierazten dute. Leku datibo hauek beste hizkeretako postposizioen ordezkioak dira, adibidez, *balkoin bat*, *bideari emaiten duena* (Etcheb *Obrak* 130) perpausekoa leku datibo horietako bat da, eta hego-mendebaldean duen

<sup>10</sup> Eta datibo hauek izen ondoko datibo gisa zein eratorritako nominalizazioetan erakusten duten jokabidea (ikus baita 9 oin-oharra ere). Dena den, kontuan izan, datibo komunztadura alde batera utzirik, PSena bezalako jokabide hori nahikoa bazter-jokabidea dela, aipatu berri ditugun bi irizpideak izenburuen sintaxira mugatzen direlako eta ez daudelako hizkuntzan orokorturik, ingelesez, adibidez, dau den bezala.

ordainak adlatiboa erakusten du, hau da, *balkoi bat, bidera ematen duena* (ikus adibidez, Etxepare eta Oihartzabal 2008d). Bigarren estrategiari dagokionez, hau da, osagarri bikoitzeko egiturari eta egitura PSdunari dagokienez, goian aipatu ditugun bi hipotesien arteko erdibidea hartzen dute Etxeparek eta Oihartzabalek, halakorik esan badaiteke. Hizkuntzalari hauen iritziz, datibo komunztaduradun egiturak osagarri bikoitzeko egiturak dira eta datibo komunztaduragabeak egitura PSdunak. Neurri batean, beraz, Ormazabal-Romerorekin bat egiten dute, ipar-ekialdeko hizkeretan, bederen, bi egiturak eskura daudela diotenean. Hala, Ormazabal-Romerorekin ez ezik, beste hizkuntza batzuetarako proposatu den hipotesiarekin bat datoz (ikus Romero 1997, Anagnostopoulou 2003, Cuervo 2003 beste askoren artean). Dena den, Ormazabal-Romerok ez bezala, ez dute uste osagarri bikoitzeko egiturak egitura PSdunetatik eratorritzen direnik, eta alderdi horretatik, bereizi egiten dira hipotesi horretatik. Printzipioz, beregainak diren bi egituratzat jotzen dituzte osagarri bikoitzekoa eta PSduna, beste egile batzuek egin duten bezala (ikus adibidez Oehrle 1976, Harley 2002 edo Levin eta Rappaport 2008). Ildo honetan, beraz, Elordietaren hipotesiarekin ere uztartu daiteke haiena: datibo komunztaduradunak DSak dira eta ez eratorpenez, hau da, jatorrian ez dira PSak —komunztaduragabeez ez du ezer adierazten Elordietak—.

Datibo komunztadura alde batera utziz, bestalde, gure aspaldi honetako lanetan (Fernández 2011a,b) erabili ditugun beste irizpide biak ere (izen ondoko datiboak eta datiboak eratorritako nominalizazioetan),<sup>11</sup> euren muga eta guzti, esanguratsuak dira goi- eta behe-datiboak bereizterakoan predikatu inakusatibo datibodunetan, eta behe-datiboena bezalakoxe jokabidea dute gure adibideko *Garaziri* bezalako helburu datiboek. Ezin ditugu, beraz, gertakari hauek guztiak kontuan hartu gabe utzi. Horregatik, *Garaziri* behe-datibotzat joko dugu tipologia honetan, jatorrian bederen PS dela ebatziz, nahiz eta eratorpenean zehar goi-datiboen jokabide sintaktikoa bereganatuko duen (Albizu 1997, 1998, 2001, 2009, 2011, Albizu eta Fernández 2006, Ormazabal eta Romero 1998, 2001, 2007, Ormazabal 2000, Arregi 2003, Arregi eta Ormazabal 2003, Rezac 2008). Murriztapenak, beraz, beharrezkoak ditu ondoko ñabardurak edo berformulazioa:

- (9) *Datibo-Komunztaduraren Murriztapena*  
 a. Goi-datiboek ezinbesteko datibo komunztadura dute  
 b. Behe-datiboek (jatorriko PSek) hautazko datibo komunztadura dute

Ez dugu momentuz eztabaida luzatu nahi. Berriro ere diogu hipotesi gisa darabilgula murriztapen hau, eta geroak esango duela norainoko helmena duen. Bada, ikus ditzagun orain datibo komunztadura galeraren lekukotasunak, datuak argigarriak baitira beti hipotesi baten babesean.

## 2. Ipar-ekialdeko hizkerak

Lehen ataleko jardunak datiboen inguruko eztabaida teorikoa argitzen lagundu digu eta orain datibo komunztadura galera erakusten duten ipar-ekialdeko

<sup>11</sup> Ikus 9 eta 10 oin-oharrak ere.

hizkeren lekukotasunak aztertuko ditugu. Atal honetan, gure idatzizko bi lan izango ditugu abiapuntuan: Fernández eta Landa (2008) eta Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2010). Bi lan horietan erakutsitako datuak idatzizko lan klasikoetatik jaso ditugu Landaren (2008) *Corsintax* arakatzaille sintaktikoari esker. Egileak batez ere (baina ez bakarrik) Arbelbide, Duvoisin, Joanategi —xix. mendeko— eta Larzabal eta Leon —xx. mendeko— idazle lapurtarrenak dira, datibo komunztadura galera erakusten duten egileetako batzuk, hain zuzen. Mitxelena eta Sarasolaren (1989-2005) *Orotariko Euskal Hiztegia* ere erabili dugu tarteka corpus gisa. Bestalde, Etxepare eta Oihartzabalek (2008a,b,c,d, 2010) batez ere Larzabalen lanetatik jaso dituzte euren datuak eta abiarazia dute fenomenoari buruzko landa-lana ere, beharrezkoa den urratsa fenomenoaren gaur-gaurko irudia izan nahi badugu. Dena den, ez dugu uste, printzipioz behintzat, testuez baliatuz egin dugun datibo tipologia hau funtsean aldatuko denik balizko datu berrien argitara. Izatekotan, hurbilketa teorikoa izango da datuak beste modu batera interpretazera eramango gaituena.

## 2.1. Goi-datiboen ezinbesteko komunztadura

Ipar-ekialdeko hizkeren lekukotasunak aztertzen direnean, datibo komunztadura galerak beste, seguru asko, galera horren muga argiak harritzen gaitu: hizkera horietan badira datibo batzuk datibo komunztadura beti eta salbuespenik gabe zaintzen dutenak. Ideia hau bereziki azpimarratu nahi izan genuen Fernández eta Landa (2008) lanean eta datu berriez indartu genuen Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2010) lanean. Datiboetatik batzuek datibo komunztadura ezinbestean zaintzen dutelako ideia Etxepare eta Oihartzabalen (2008a,b,c,d, 2010) lanetan ageri da eta emaitzetan bat gatoz batzuk eta besteak.

Goi-datiboak dira komunztadura beti egiten dutenak, eta goi-datibo horien artean, hasierako aurkezpenean aipatu ditugun datibo esperimantatzaileez gain, beste bi datibo mota aipatu behar ditugu: batetik jabe datiboak eta bestetik Fernández (2011d) lanean *jabe hunkituak* (ingelesez, *affected datives*) deitu ditugunak —2.1.2 atalean emango ditugu deitura honen inguruko xehetasunak—.

### 2.1.1. Esperimantatzaileak

Aditz psikologikoak *ahantzi*, *gaitzitu*, *gertatu*, *gogoratu*, *damutu*, *dolutu* eta *iruditu* bezalakoak dira —ikus Etxepare (2003) eta Fernández eta Ortiz de Urbina (2010) sarrera orokor baterako—. Prozesu psikologikoak adierazten dituzte eta prozesu horiek jasaten dituen argumentuari esperimantatzailea deritzo, dagoeneko esan dugun bezala. Esperimantatzailea datibo kasuaren bitartez marka daiteke euskaraz, adibidez orain aipatu berri ditugun aditz horiekin guztiekin batera, eta hala eginez gero, *estimulua* deritzona absolutibo kasuaz markatzen da. Datibo esperimantatzaile hauen kasuan goi-datiboez hitz egin dezakegu zalantzarik gabe, zeren absolutiboa baino lehenago lerratzen baitira eta bera o-komandatzen baitute. Datibo hauek DSak dira, eta guk dakigula, bederen, ez dago euskalaritzan hauek bezalakoak jatorrian PSak direla esan duen egilerik.



Goi-datiboak direla erakusteko ipar-ekialdeko testigantzak jaso ditzakegu beste behin. Adibide batzuk baino ez ditugu emango, printzipioz ezer gutxi gaineratu behar baitiogu gure lehengo lanetan esandakoari.

Hona zenbait adibide:

- (10) a. Bihar ez ote zaio euskal populu ttipiari dolutuko gaur anglesak hemendik kasaturik? (Larz *Idazl* IV, 379)
- b. Ez, hori etzaio gaitzituko eskualdun irakurtzaileari. (Jnn *SBen* 140)
- c. Ene sotana ikustearekin Aleli-ri gogoratu zitzaion batzuetan entzuten den erran zaharra: “Erregeak eta Apezak dituguno, beti gerla izanen dugu!” eta bota zuen niri buruz: “Hau apeza duk!”. (Larz *Idazl* VII 87)
- d. Lanik egin gabe irabaztea da neri gustatzen zaidana. (Larz *Idazl* IV, 177)
- e. Ez argulutan sar zure obra onen gatik, bertzelakoak baitira Jainkoaren jujamenduak eta gizonenak, maiz gizoner laket zaiotena Jainkoari higuin baitzaio. (Leon *Imit* I, 7, 3)

Idea nagusi bat da hemen azpimarratu nahi duguna: predikatu psikologikoekin batera ageri diren datibo esperimentatzaileek komunztadura egiten dute beti eta salbuespenik gabe. Ondorioz, ez dugu espero aurkitzea halako datiboen inongo agerpenik komunztadurarik gabe.

### 2.1.2. *Datibo hunkituak*

Gure lehenagoko lan batzuetan, adibidez Fernández eta Ortiz de Urbina (2010) lanean, interes datiboak edo datibo etikoak deitu diegu, predikatuak berak hautatzen ez baditu ere, argumentu egiturara nolabait gaineratzen diren datiboetako batzuei. Orain datibo hunkituak deituko diegu, Fernández (2011d) lanean egin dugun bezala, Jouitteau eta Rezacek (2007) darabilten *affected datives* deiturari jarraituz.<sup>12</sup> Izenak izen, goi-datiboak dira hemen ere gure jomuga, hau da, esperimentatzaileak bezalako argumentuak eta ez etikoak bezalako *goragoko* datiboak.<sup>13</sup>

<sup>12</sup> Deitura hau darabilgu, gaztelaniaz edo frantsesez etikoak deituran biltzen diren datiboek bestelakoak diruditelako —ikus Fernández (2011d) xehetasunetarako eta Albizu eta Huidobro (2011) euskal datibo etikoen inguruko eztabaidarako—. Dena den, Jouitteau eta Rezacek (2007) *hunkitutako datiboak* deiturarekin batera, *esperimentatzaile* deitura ere aipatzen dute (hau da, *affected datives/experiencers*). Guk, gure aldetik, *esperimentatzaile* deitura erabili dugu predikatuak berak hautatzen dituen argumentuetarako, eta *hunkituak* deitura gorde dugu argumentu egiturara gaineratzen diren argumentuetarako —Albizuk buruz buru adierazi digunez, deitura diferentzia hori ez da beharrezkoa eta nahasgarria ere izan daiteke, baina guk momentuz eutsiko diogu—. Izatez, hunkitua izatea ez da theta-rol bat, esperimentatzailea den bezala. Jabe datiboak, adibidez, hunkituak dira, Etxeparek (2003: 420-421) euskararako erakutsi duen bezala. Osagarri bikoitzeko egituretarako ere erabili izan da gaia, eta PS osagarriko egituretan ez bezala, helburua hunkitua izan behar dela esan izan da —ikus adibidez, Romero (1997: 169-172) eztabaida orokor baterako edo Etxepare eta Oihartzabal (2009) euskararako—. Sintaxi teorian aspalditik (Larson 1988) gaur egun arte (Pylkkänen 2002/2008) jasotzen den gaia da hunkigarritasunarena (ingelesez, *affectedness*). Gure asmoa orain ez da gai honen inguruan eztabaidatzea, halako datiboetarako deitura bat aurkitzea baino. Izenak ez du, ustez, izana baldintzatuko. Hunkigarritasunaren inguruko eztabaida jarraitu nahi duenak Fernández (2011e) irakur dezake.

<sup>13</sup> *Goragoko* datiboak diogu, ustez, datibo etikoak Inflexio sintagma bera, alegia, perpausa bera baino gorago gaineratzen direlako —ikus Albizu & Huidobro (2011) euskararako—.

Datibo hunkitu hauek jabe datiboekin dituzten harreman estuak ez ditugu oraingoan gogorarazi baino egingo.<sup>14</sup> Ondoko atalean helduko gara jabe datiboen aipamenera, eta orduan erakutsiko dugu harreman hori. Oraingoan *haizu izan*, *zilegi izan* edota *berdin izan* bezalako predikatuak ekarri nahi genituzke gogora. Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2010) lanean ere mintzagai izan genituen era honetako predikatuak. Halakoetan ageri diren datiboak beti dira komunztaduradunak, Larzabalen *berdin izan* predikatuaren agerraldi guztiak, adibidez:

- (11) a. Hau edo hura izan dadiela Nafarroan manatzale, hemengo jendeari berdin zaio: Berdin lana egin beharko baitu, bizia jalitzeko! (Larz *Idazl* IV, 88)  
 b. Eni berdin lakiket! (Larz *Idazl* I, 345)

Komunztadurari dagokionez, ez dago salbuespenik halako egituretan ez Larzabalen lanetan ez gainerakoetan. Bestalde, interesgarria da ikustea datibo hunkitu hauek nolabait gaineratutako datiboak izan arren, esperimentatzaileena bezalako jokabide sintaktikoa dutela, eta kontrol egituretan, perpaus nagusiko datibo hunkitu horrek kontrolatzen duela perpaus jokatugabearen PRO subjektua:

- (12) Zeruan ez bada ez neskatxik eta ez zurrutako molderik, berdin zait neri zerurat edo debruetarat joan. (Larz *Idazl* III, 71)

Antzera gertatzen da *haizu izan* egituretan, perpaus nagusiko datiboa nominalizazioaren subjektua izan baitaiteke:

- (13) a. Ez ote zaio haizu hemengo erretorari gauaz bere etxean lo egitea, mandilen bisitarik ukan gabe? (Larz *Idazl* IV, 142)  
 b. Ez ote zaio haizu hemengo gobernadoreari Mitikilen gaindi ibiltzea, mandilen eskuetan erori gabe? (Larz *Idazl* IV, 142)

Hauek bezalako predikatuetan, beraz, datiboak ez du komunztadura inoiz urratzen, eta perpaus jokatugabeetako subjektua kontrolatu ahal izateak hierarkian absolutiboa baino gorago dagoela erakusten du beste behin.

### 2.1.3. Jabe datiboak

Jabe datiboek datibo mota beregaina osatzen dute euren ezaugarri sintaktikoak tarteko (Albizu 2009, 2011,<sup>15</sup> Fernández 2011c,d) eta ezinbestean komunztadura egiten dutela erakutsi dugu gure lehenagoko lanetan (Fernández eta Landa 2008, Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa 2010, Fernández 2011a,b). Jabe datiboen ar-

<sup>14</sup> Jo Fernández eta Landa (2008), Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2010), Fernández eta Ortiz de Urbina (2010) eta Fernández (2011d) lanetara xehetasunetarako.

<sup>15</sup> Jabe datiboak jatorrian PSak direla aldarrikatzen du Albizuk (2009, 2011), Bakerren (1988) in-korporazioaren teoria abiaburu harturik. Izan ere, jabearen igoera PS batetik eratoritzen du Bakerrek, osagarri bikoitzeko egiturak bezalaxe. Bakerrek txitxeberaren datuak darabiltza, besteak beste, horretarako —txitxebera bantu familiako hizkuntza bat da, Malawiko hizkuntza ofiziala—. Txitxeberaz jabearen igoera egitura, morfema *aplikatibo* bat erakusten duen egitura da, osagarri bikoitzekoa bezalakoxea. Gu ez gatoz bat Albizurekin honi dagokionez, baina beste baterako utziko dugu eztabaida (ikus adibidez Fernández 2011a,b, eta bereziki Fernández 2011d).

tean, jabetza ezinbesterenduzkoa erakusten duten adibideak dira corpusean aurkitzen diren gehienak, Larzabalen ondokoak, esate baterako:

- (14) a. Gure oilarri aztaparrak berriz ere haunditu zaizkoten. (Larz *Idazl* II, 354)  
 b. Neguan hainitz jenderi eskuak zartatzen zaizkote hotzarekin. (Larz *Idazl* V, 17)  
 c. Bainan zuri ere, anderea, larru eder hori zimurtuko zaizu noizbait. (Larz *Idazl* IV, 166)  
 d. Bestalde, urteekin, gizon gehienari sortzen zaiote sort-herri-mina, iduri balu bezala zahartasuna hobekienik goxatzen duela hurreko orroitzapen ezkiez loratu lurrak. (Larz *Idazl* VI, 147)

Adibideetako datibo guztiak bizidunak dira, eta (a) adibide bakarra izan ezik, guztiak gizakiak (b-e).<sup>16</sup> Gainerakoan, jabetza adierazten duten absolutiboek kasu gehienetan gorputz atalak adierazten dituzte (a-c) edo bestela (d) jabearekin jabetza ezinbesterenduzkoan dauden bestelako gaiak, *sort-herri-mina* bezalako sentimendua adibidez. Beste lan batean (Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa 2010), azpimarratu dugunez, jabe datiboak ageri diren perpausetako aditzek —gure oraingo adibideetako *handitu*, *zartatu*, *zimurtu* edo *sortu* bezalakoek— berez ez dute euren argumentu egitura datiborik, baina datibo hori gaineratu egiten zaie eratorpen sintaktikoan. Horregatik da, hain zuzen, ez-muineko datiboa. Horretaz gain, jabea eta jabetza lotzen dituen harremana jabetza ezinbesterenduzkoa denez, halako datiboak jabe datiboak direla esan dezakegu ia ziurtasun osoz. Dena den, kontuan izan jabe datiboak printzipioz hunkituak direla (Etxepare 2003).<sup>17</sup> Horregatik, jabetza besterengarria denean, zailagoa da erabakitzea jabe datiboa ote dugun edo besterik gabe datibo hunkitu bat, absolutiboarekin nahitaez jabetza harremanik ez duena. Ikus ondoko adibide hau:

- (15) Bonetako xingola urratu zaio dantzari huni, eta behar ginioke josi. (Larz *Idazl* II, 237)

Printzipioz *bonetako xingola* eta *boneta* bera dantzariarenak izan daitezke, baina dantzari horren lagun batenak ere izan litezke. Hala izanez gero, *dantzari huni* ez da jabe datiboa, xingola urratzeak hunkitzen duena baino. Nolanahi ere, jabe datiboak izan, datibo hunkituak izan, ez dago diferentziarik datibo komunztadura zaintzeari dagokionez, eta ezta, jabe datiboen kasuan ziur aski, jabetza ezinbesterenduzkoaren edo besterengarriaren artean ere.<sup>18</sup> Oso litekeena da iritzi berekoak izatea Etxepare eta Oihartzabal (2008d) eta Etxepare (2010a), jabe datiboak erakusten dituzten adibideetatik komunztaduradunak bakarrik jotzen baitituzte gramatikaltzat, jabetza ezinbesterenduzkoa izan zein besterengarria izan. Interes datiboak, edo nahiago bada,

<sup>16</sup> Honetatik ez da jarraitzen jabe datibo guztiak bizidunak/gizakiak izan behar direnik, nahiz eta horretarako joera duten, adibideetan ikus daitekeen bezala.

<sup>17</sup> Ikus baita 12 oin-oharra ere.

<sup>18</sup> Ez du horrek esan nahi bestelakoan ere diferentzia sintaktikorik egongo ez denik —ikus adibidez Etxepare (2003: 419-420)—. Guk lan honetan darabiltzagun irizpideei dagokienez, bederen, ez dago ezberdintasunik.

datibo hunkituak direla eta, antzekoak dira euren emaitzak, komunztadurarik gabeak ez-gramatikaltzat jotzen baitituzte.<sup>19</sup> Garrantzitsua deritzogu egile batzuk eta besteak alderdi honetan bat etortzeari.

Gainerakoan, nahiz eta hemen predikatu inakusatiboak diren gure aztergai nagusia, predikatu iragankorrek ere jabe datiboak erakutsiz gero, ez dugu espero datibo komunztadura urratzerik:

- (16) Bele zahar batzu hasiak dituk huna biltzen... badakik... gorputz zauritueri, belek lehenik begiak zizkiotek errotik ateratzen eta hesteak ipurtzulotik. (Larz *Idazl* IV, 403)

Joanategiren adibideak dakartzagu ondoren, lehenago erakutsitakoa berresteko bidea ematen digutenak. Jabetza ezinbesterenduzkoa adierazten duten datiboak emango ditugu lehenik, predikatu inakusatiboekin batera.

- (17) a. Eta orduan, jauzi zitzaizkon nigarrak san Polikarperi. (Jnn *SBi* 156)  
b. Oraino ongi konbertitua etzen emakume bati, hil zitzaion bere haurra, sortu-eta zenbeit egunen buruan. (Jnn *SBi* 166)

Jabetza besterengarria adierazten du ondokoak:

- (18) Eliza baten egiten hari zirelarik itsas bazterrean, hargin bati erori zitzaion bere phalota urerat, giderra eskuan baratzen zitzaiolarik. (Jnn *SBen* 19)

Eta predikatu iragankorrak jasotzen dira azken adibide hauetan:

- (19) a. Ordu berean, Jainko Jaunak argitu ziozkaten arimako begiak artzain on hekiei. (Jnn *SBi* 13)  
b. Jesus Jaunari berari ere hautsi zion bihotza haren ikusteak. (Jnn *SBi* 23)

Idazle batenak izan beste batenak izan, bat egiten dute jabe datibo guztiek komunztadurari dagokionez: ezinbestean zaintzen dute komunztadura. Hori ez da bakarrik gertatzen jabetza ezinbesterenduzkoa denean, besterengarria denean ere jokabide bera antzematen da. Are gehiago, predikatu inakusatiboen eta iragankorren artean ere, ez dago ezberdintasunik.

#### 2.1.4. *Goi-datiboak* adjektibo / aditzondoa + izan *gisako predikatu konplexuetan*

Atal berezi bat eskaini nahi diegu predikatu konplexuei, ipar-ekialdeko testigantzetan ez ezik, euskara estandarreko predikatu konplexuak ere aztertuko ditugulako ondoren. Berez, predikatu konplexuetako batzuk —*laket izan*, *higuin izan*— ageri dira esperimentatzaileez dagoeneko eman ditugun adibideetako batean (10e). *Atsegin izan* edo *gaitzi izan* ezagunak gainera litezke. Alabaina, nolabait lexikaliza-

<sup>19</sup> Hauexek dira jabe datiboak biltzen dituzten euren adibideak: a) *Aitari eskua hunki diot/\*dut*; b) *Mahaiari banka kendu diot/\*dut*, eta c) *Piarresi muntra ebatsi diot/\*dut*. Baldin eta jabetza ezinbesterenduzkoa izateak eraginik balu komunztaduran, orduan (a,b) vs. (c) asimetria egotea espero liteke. Interes datiboetako edo datibo hunkituei dagokienez, *Mireni esneak gaindi egin diot/\*du* adibidea dakarte bi lanetan. Ikus baita Etxepare eta Oihartzabal (2008a,b,c) ere.

turiko predikatu konplexu hauezaz guztiez gain, badira eredu bertsuaz sortutako antzeko predikatuak, hots, adjektibo (edo izen)/adberbioaz eta *izan* aditz arinaz osaturik daudenak.

- (20) a. Amodioari deus ez zaio pizu, ez nekagarri; dezaken baino gehiagori da lo-tzen; ez dezakelako aitzakiarik ez du nehoiz, oro eginkizun baitauzka eta egingai. (Leon *Imit* III, 5, 4)
- b. Hitz hoiien erraitea aski zaio aditzen dituenari eta errepikatzea atsegin zaio maite duenari. (Leon *Imit* III, 34, 1)
- c. Eta lan hori zonbat ere baitzait niri gaitzago, hanbatez da zure beso azkarrarentzat errexago. (Leon *Imit* III, 29, 2)
- d. Maiz jendeek laudagarri daukatena, niri osoki gaizki zait. (Leon *Imit* III, 46, 4)

Halako egituretan, datiboa nolabait gaineratu dela dirudi eta datibo hunkituen tankera hartzen zaio. Esperimentatzaile theta-rola garbiri erakusten du kasu batzuetan. Halako datiboek ezinbesteko komunztadura erakusten dutela dirudi.

Dударik gabe azterketa beregaina merezi dute halako predikatu konplexuek eta eztabaidagarria da goi-datiboak ote diren halakoetan ageri direnak eta ez behe-dati-boak. Esate baterako, Rezacek (2008: 7 oin-oharra) behe-datibotzat hartuko lituzkeelakoan gaude, ez baititu *atsegin izan* eta *leial izan* bereizten, guk bereiziko genituzkeen bezala. Rezacek *Pertsona Kasuaren Muga (Person Case Constraint* ingelesez) darabil aztergai eta ohartarazten duenez, gaiari buruzko literaturan (Anagnostopoulou 2003 adibidez) esan izan da euskaraz inakusatibo datibodunek ez dutela halako murriztapenik. Jakina, Rezacek dioenez, inakusatibo datibodunen artean bi sail bereiziz gero, hots, datibo-absolutiboa eta absolutibo-datiboa, orduan berehala ohartuko gara *Pertsona Kasuaren Muga* erakusten duten adibide inakusatibo guztiak absolutibo-datibo sailekoak direla, adibidez, *berandu joan natzaio* bezalakoak. Salbuespen bakarra aurkitu du Rezacek honi dagokionez, *atsegin izan*, hain zuzen, baina itxurazko salbuespena baino ez da. Izan ere, *gustatu* ez bezala, zeinak murriztapena jasaten duen (*\*gustatzen natzaio*), *atsegin izan* predikatuak ez du murriztapena jasaten (*atsegin natzaio*) (Etxepare 2003). Gainerakoan, *gustatu* bezalakoxea da, kasuari, komunztadurari eta esanahiari dagokienez. Rezacen iritziz, beraz, datiboaz markatutako esperimentatzailea da adjektiboak hautatzen duena, eta hortaz, behe-datiboa dena, eta absolutiboa, berriz, *izan* aditzak berak hautatzen duena, absolutibo-datibo konfigurazioa itxuratuz. *Atsegin* bezalako adjektibotzat hartzen ditu ondoren *zordun*, *leial* edota *nazkagarri*. Xehetasun gehiago aurkituko ditu irakurleak Rezacen (2009) lanean. Ikusten denez, gurearen kontrako hipotesia da Rezacena: behe-datibotzat jotzen ditu, guk goi-datibotzat hartzen ditugunak. Ziur aski *Pertsona Kasuaren Muga*ren zein komunztaduraren eremuetatik aparteko irizpideak beharko ditugu, oinarritzko egitura eta eratorritakoa zein ote diren erabakitzeko.

Orain labur aurkezten dugun gaira itzuliko gara 2.2.1 atalean, antzeko predikatuetan, bestelako jokabidea erakusten duten datiboak ikustearren eta hemen mintzagai izan ditugunei buruzko eztabaidarekin jarraitzeko.

## 2.2. Behe-datiboen hautazko komunztadura

Orain arte ikusi ditugun adibide guztiak ipar-ekialdeko hizkera eremukoak dira eta goi-datiboen ezinbesteko komunztadura erakusten dute. Jakina, hizkera eremu horretakoak ez diren irakurleei ez zaizkie harrigarriak irudituko, printzipioz edozein datiborekiko komunztadura zaintzea espero dutelako. Baina kontuan hartu behar da komunztadura hautazkoa duten hizkeretako testigantzak direla hauek, eta hautazkotasuna dagoen eremu horretan bertan antzeman daitekeela, hain zuzen ere, murriztapena. Atal honetan, bada, hautazko komunztaduraren lekukotasunak erakutsiko ditugu, baina oraingo honetan, hizkeretako datuak, euskara estandarrean dauden beste lekukotasun batzuekin konparatuko ditugu.

### 2.2.1. Behe-datibo mota batzuk

Lan honen hasieran erakutsi dugu hautazko komunztadura duten datiboen artean *eman* bezalako aditz iragankor datibodunen helburu datiboak daudela sarri askotan.<sup>20</sup> *Eman* aditzarekin batera aipa genitzake *erakatsi*, *erakutsi*, *erran*, *eskaini*, *galdatau*, *iharduki* eta *egin* bezalakoak —ikus Ortiz de Urbina (1995), Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2010) edo Etxepare eta Oihartzabal (2008a,b,c) beste batzuen artean—. Larzabalen (1b) adibidea errepikaturik ikus daiteke (21b) gisa, egile beraren (21a) adibide komunztaduradun batekin batera:

- (21) a. Kartak emaiten dizkio Ganixi. “Inbido!” (Larz *Idazl* I, 335)  
 b. Ez uste... baitezpada gorrieri emango dudala ene botza. (Larz *Idazl* II, 227)

Ondoko adibideak ere komunztaduraduna eta komunztaduragabea dira, hurrenez hurren.

- (22) a. Eta gure Aita loriosak eskerrak eman ziozkan Jainkoari, bere komentuko haurride guziekin. (Jnn *SBen* 57)  
 b. Etzen hargatik bere etxean sartu; ordean, salduri bere ontasun guziak, eman zuen dirua erromesei. (Jnn *SBi* 92)

Adibide hauetakoak bezalako datiboek helburu theta-rola izateaz gain, bizidun/gizakiak izaten dira (*Ganixi*, *gorrieri*, *Jainkoari*, *erromesei*). Helburu datiboak ager daitezke, orobat, mugimenduzko aditzekin, baina *joan* aditzarekin adibidez oso urriak dira hautazko datibo komunztaduraren agerraldiak.<sup>21</sup> Hona hemen Arbelbiderenak:

<sup>20</sup> Lan honetan goi- eta behe-datiboen aurkakotasunari begiratu diogu ezinbesteko eta hautazko komunztadura azaltzeko. Komunztaduraren hautazkotasunean bestelako faktoreek ere eragiten dute, nahiz eta guk ez ditugun hemen aztertuko. Adibidez, komunztadura hautazkotasunaren eta datibo esplizitua- ren arteko harremanetarako, ikus Lafon (1951), Euskaltzaindia (1985) edo Ortiz de Urbina (1995); erreferentziasunerako, berriz, Etxepare eta Oihartzabal (2008d) edo Etxepare (2010a).

<sup>21</sup> Ziur aski, mugimenduzko aditzen helburua baino gehiago, sarri askotan hunkitua den datiboa adierazten delako aditz honen bitartez. Adibidez Leonek *doa(z)ko* formez adierazten duena: *Gorputza badut maite, gorputzari doazkon zerak zaizkit maiz gogoratzen* (Leon *Imit* III, 48,6). Larzabalek ere *dohako*, *dohakio*, *dohakote* bezalakoak alde batera, komunztaduraz ematen ditu datibo hunkituak diruditenak (*Nik*, *gure ofizioari*, *goxamena baino larderia*, *hobeki joaki zaiola*, *iduritzen zait*. Larz *Idazl* IV) eta komunztadurarik gabe, berriz, mugimendu aditzen helburu bizidunak (*Banoa Calvori* Larz *Idazl* IV).

- (23) a. Aita Zuki berari joan zitzaion. (Arb *Bok* 181)  
 b. Aita Zuki berari doha. (Arb *Bok* 181)

Xehetasun handiko deskribapenak egin dira lehenagoko lan batzuetan datibo komunztadura galeraz, eta interesa duen irakurleak lan horietara jo dezake berriro (Etxepare eta Oihartzabal 2008a,b,c,d, 2009, 2010, Etxepare 2010a,b, Fernández eta Landa 2008, Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa 2010). Hemen, deskribapen horietan, diferentziak diferentzia, zehaztu diren datibo moten erakusgarri batzuk baino ez ditugu gogora ekarriko, ondoko 2.2.2. atalean, predikatu konplexuetako datiboetara jotzeko. Guztiak dira, izatez, behe-datiboak:

*I. Aspektu datiboak (ari izan, bermatu, eman, hasi, jo, lotu):*

- (24) a. Azkenean, lothu zitzaion bideari, harturik berekin bere emaztea. (Lg I 237)  
 b. Eta bi gazteak lothu ziren bideari. (Zerb *IxtS* 61)

*II. Datibo/postposizio alternantziadun aditzen datiboak (fidatu, ohartu, urrikaldu):*

- (25) a. Ene beharretan eziñ bertze nihori fida nakioke zuri baizen. (Ch III 59)  
 b. Etzieztela fida amodioari! (ChantP 198)

*III. Datibo osagarri bitxiak (beginatu, behatu, jarraiki, jazarri):*

- (26) a. Gaixtaginak zitzaizkon / Jesusi jazarri. (Zby RIEV 1908: 208)  
 b. Zueri zer-nahi gisetarat jazarriko dena Niri jazarriko da! (Zerb *IxtS* Io 15, 20)

Goi-datiboetan erakutsi duguna ez bezalako jokabidea daukate datibo hauek guztiek: datibo komunztadura ez dute nahitaez zaintzen eta horrek ez du ez-gramatikaltasunik sortzen. Behe-datiboak dira, beraz, hauek guztiak.

Deskribapenez haratagoko ekarpen teorikoa egin dute Etxeparek eta Oihartzabalek (2008a,b,c,d, 2009 eta 2010) behe-datibo hauen komunztadura galerari dagokionez, 1.4 atalean dagoeneko esan dugun bezala. Gogoratu leku datiboak Ptzat hartzen dituztela egile hauek, datibo hori bestelako postposizioekin parekatuz, adlatiboekin adibidez. Ptzat hartzen dituzten leku datiboen artean, besteak beste, mugimenduzko aditzetako helburuak daude. Adibidez, *bidera abiatu da* eta *bideari abiatu da* perpausetan, adlatiboa dugu batetik eta bestetik leku datiboa. Etxeparek eta Oihartzabalek (2009) azaltzen dutenez, adlatiboa aukeratuz gero, *abiatu* predikatuak gaia leku fisiko batera, hots, bidera daraman mugimendua adierazten du; datiboarekin, aldiz, predikatu berak mugimendua adierazten du, baina bidea, kasu honetan, ez da helmuga, unean-unean ibiltzen den espazio tarte baina. Ibilbide hesitugabea<sup>22</sup> adierazten du leku datiboak. *Abiatu* bezalako mugimenduzko aditze-

<sup>22</sup> Etxepare eta Oihartzabal (2008d) lanean ibilbide hesitugabea deritzote; (2009) lanean, berriz, ibilbide *mugatugabea*.

kin ez ezik, jarrera aldaketa aditzekin (*Ederrak idekitzen du gogoa egiari* Soeg 150), konparaketa aditzekin (*Nor da jainkoari konpara daitekenik* Etcheb FE 134), lotura aditzekin (*Iragana josi nahi zuen zetorrenari* Larz *Idazl* VII 128) eta egoera aditzekin (*Fida zaitzteze eni*) ageri da leku datibo hau. Goian aipatu dugun *fidatu* aditza ageri da hemen, ikusten denez. Etxeparek eta Oihartzabalek diote *fidatu* bezalako aditz estatiboek egoera psikologikoak adierazten dituztela, eta datiboak egoera psikologiko horren jomuga. Ondoren aipatuko ditugun *erne egon* edo *aiher egonlizan* predikatu konplexuak ere *fidatu* bezalakoak lirakeke honi dagokionez, egile hauen iritziz. Gainerakoan, atelikoak diren aspektu aditzetara (*ari izan, bermatu...*) eta iharduera aditzetara (*iharduki, jo, pentsatu*) ere zabaltzen dute euren analisia. Ikusten denez, Ptzat hartzen diren datiboen analisiak askotariko aditzak biltzen eta azaltzen ditu.

### 2.2.2. Behe-datiboak aiher egon gisako predikatu konplexuetan

Predikatu konplexuen berri laburra eman dugu 2.1.4 atalean, eta orain ere predikatu konplexuekin segitu nahi dugu lanean. Predikatu horietako batzuk *egon* aditz arinaz osaturik daude eta berarekin batera beste osagai bat erakusten dute: *aiher egon, beha egon, erne egon, so egon* bezalakoez ari gara. Halakoetan, datibo osagarri bat egoten da, eta normalean ez du komunztadurarik eragiten aditz laguntzailean. Adibidez, Leonek komunztadurarik gabe ematen ditu halako datibo guztiak:<sup>23</sup>

- (27) a. Etsaiek inguratua zira, eskuin eta ezker zuri aiher daude. (Leon *Imit* III, 35, 1)
- b. Gudukatzeari erne zaude beraz, garaitu nahi baduzu. (Leon *Imit* III, 19, 4)
- c. Hola deusek ezin inharrosia da eta den bezala dagoke, hoinbertze gertakarien erdian niri so dagola, xedea laño. (Leon *Imit* III, 33, 1)

Alabaina, batzuetan, bietara aurki daiteke predikatu bera, hots, datibo komunztadurarik gabe zein komunztadurarekin, Joanategiren adibide hauetan bezala:

- (28) a. Apezpiku sainduak erran zioten orduan: “Zuen haur benedizionezko huni aingeruak egotu zaizko begira atseginekin eta amodiorekin, bere so-regunean”. (Jnn *SBi* 69)
- b. Odilon ere eman zen haste-hastetik eta hain gogo onez berthutearen praktikatzen, non, handik lau urtheren buruko, fraiderik hoberenak begira baitzagozin haren su sainduari. (Jnn *SBi* 52)

Etxepare eta Oihartzabalen (2009) ustez, 2.2.1 atalaren amaieran esan dugun bezala, egoera psikologikoak adierazten dituzten predikatu estatiboak dira hauetatik batzuk (*aiher egon, erne egon*), bederen, eta datiboak egoera psikologiko horren jomuga

<sup>23</sup> Bere garrantzia izan lezake honek, 2.1.4 atalean ikusi dugunez, *adjektiboladitzzondoa eta izan* gisako predikatuen kasuan, hain zuzen, kontrako jokabidea erakusten baitu Leonek: datibo gehien-gehienek komunztadura egiten dute. Oso litekeena da, beraz, *izan* eta *egon* aditz arinen artean diferentziak egotea, eta ez bakar-bakarrik predikatu konplexuarekin batera ageri diren datiboen artean. Itzuliko gara berehala gai honetara.



adierazten du. Bi egileek (27b) bezalako adibideak dakartzate, hots, nominalizazio-dunak (*gudukatzeari erne*), eta ez dakigu euren hipotesia zabalduko ote luketen bes-telako kasuetara, (27a,c) bezalakoetara adibidez. Ez dakigu, ezta, nola azalduko ote luketen ipar-ekialdeko hizkeretatik kanpo, predikatu konplexu berberetan aurki dai-tezkeen antzeko egitura komunztaduradun eta komunztadurarik gabeak:

- (29) a. Jon (zuri)<sup>24</sup> begira egon zaizu  
b. Jon zuri begira egon da

- (30) a. Jon berriari adi egon zaio  
b. Jon berriari adi egon da

Ikusten denez, estandarrean eta baita hego-mendebaldeko hizkeretan ere datibo komunztaduraren hautazkotasuna dago, eta ikusi ditugun bestelako adibideetan ez bezala, komunztadurarik ez agertzeak ez du ez-gramatikaltasunik sortzen. Adibidez, *ez uste... baitetzpada gorrieri emango dudala ene botza* perpausa ez-gramatikala da ipar-ekialdeko hizkeretatik kanpo; zeresanik *ez, bideari abiatu da* bezalako leku da-tiboak biltzen dituzten perpausak. Lehen egitura PSduna dela pentsa genezake eta bere ordain komunztaduraduna osagarri bikoitzeko egitura —bi egituren arteko ha-rremanen inguruko eztabaida alde batera utziz—. Bigarren kasuan, leku datiboare-nean, ibilbide hesitugabea adierazten duen P bat dugula esan genezake, Etxepare eta Oihartzabalen hipotesia geure eginez. Aldiz, predikatu konplexuak ageri diren *Jon zuri begira egon da* bezalako perpausak gramatikalak dira, oro har, euskaraz eta ge-roago erakutsiko dugunez, ñabardurak ñabardura, ez dute hizkera murriztapenik. Kasu hauetan, bestalde, komunztaduragabezia ezin diogu egotzi ez egitura PSduna-ren eta osagarri bikoitzeko egituraren arteko txandakatzeari, ez, ustez, ibilbide hesitu-gabea adierazten duen P bat izateari. Kontua da, beraz, erabakitzea kasu hauetan zeri zor zaion datibo komunztaduraren hautazkotasuna.

Guk lehenago ere esan izan dugu halakoetan dagoen hautazkotasuna ez dela, itxura guztien arabera, datibo komunztadura galera aldagai sintaktikoaren ondorioz-koa (edo ez halabarrez). Hemen, badirudi hizkuntzan orokorturik dagoen meka-nismo baten ondorioz sortzen dela hautazko komunztadura, beharbada ipar-ekial-deko hizkeretako hautazko datibo komunztaduratik bereizi behar dena. Izan ere, intuitiboki uler dadin, bi gune sintaktikotan irudikatzen dugu datiboa halakoetan: a) *adi, begira* eta abar buru duten predikatu sintagma baten barruan, edo b) sintagma horretatik kanpo atera eta Inflexioaren eremuraino, gora eramana. Lehen kasuan, da-tiboak ez du komunztadurarik eragingo adizkian; bigarren kasuan, berriz, bai. Hor-taz, datiboaren *igoerak* dakar komunztadura eragitea, eta datiboaren igoerarik ezak komunztadurarik ez eragitea. Igoera jasan dezaketen datiboak direnez, *igoera dati-boak* deitu diegu halakoei.

Azken xehetasunetaraino heltzea zaila da, baina predikazioa *izan* aditzari esker osatzen denean ere aurki daiteke hautazkotasuna ipar-ekialdeko hizkeren eremuan, adibidez, *aiher egon ez ezik, aiher izan* ere badago, edo *fidel, leial egon ez ezik, fidel*,

<sup>24</sup> Hiztunek askozaz ere naturalagoak deritzete halako egiturei ageriko pertsona izenordainik ez da-goenean. Inoiz arakatu beharko ditugu ageriko pertsona izenordainaren eta datibo komunztaduraren ar-teko harremanak. Momentuz ez dugu gaia hemen erabiliko.

*leial izan* ere badaude, eta jokabidea, oro har, antzekoa da komunztadurari dagokionez.

- (31) a. Muthiko txarrak aiher baitzitzaizkon azkarki, gibeledo beribilaren jabea ohartzen niz ari dela bereari athe guzien hesten gakoz. (JE *Ber* 21)  
 b. Bertzeer aiher da, edo bederen ez ikusiarena egiten deie. (JE *Bur* 55)

Jakina, adibide hauetan datibo komunztadura hautazkotasunik badago, printzipioz pentsatzekoa da *aiher*, *fidel*, *leial* bezalako adjektiboek hautatzen dituzten datiboak, 2.1.4 atalean ikusi ditugunak ez bezalakoak direla. Atal horretako (20a,c) adibideak, (32)-n ikus daitezke errepikaturik, aurrez aurre izan ditzagun.

- (32) a. Amodioari deus ez zaio pizu, ez nekagarri; dezaken baino gehiagori da lo-tzen; ez dezakelako aitzakiarik ez du nehoiz, oro eginkizun baitauzka eta egingai. (Leon *Imit* III, 5, 4)  
 b. Eta lan hori zonbat ere baitzait niri gaitzago, hanbatez da zure beso azkarrentzat errexago. (Leon *Imit* III, 29, 2)

Benetan diferenteak dira *pizu*, *nekagarri*, *gaitz* batetik eta bestetik *aiher*, *fidel* edo *leial*? Komunztaduraren irizpidez gain, bestela ere nolako jokabide sintaktikoa duten aztertu beharko genuke galderari erantzuteko.<sup>25</sup> Gogoratu hizkuntzalari batzuen iritziz, ez dagoela printzipioz diferentziarik *atsegin* eta *leial* adjektiboen artean, Pertsona Kasuaren Mugak erakusten duenez —ikus Rezacen (2008) aipamena 2.2.1. atalean—. Eztabaida, beraz, egon badago. Guk ez ditugu hemen pare bat berezitasun sintaktiko posible baino aipatuko, batez ere irakurleari erakusteko zein izan litekeen adjektibo goi- eta behe-datibodunen jokabide berezitua, baldin eta diferente jokatuko balute. Adibidez, *aiher*, *fidel*, *leial*, bietara eman daitezke, hots, *egon* zein *izan* aditz arinekin, baina *pizu*, *nekagarri*, *gaitz* eta abar bakarrik aurki daitezke *izan* aditz arinarekin batera. Kontuan hartu behar dugu euskaraz, oro har, *izaki mailako predikatuetako* kopula *izan* dela eta *egoera mailako predikatuetakoa*,<sup>26</sup> printzipioz, *egon*. Hortaz, oso litekeena da banaketa honetatik joaz, diferentzia esanguratsu bat edo beste aurkitzea adjektibo hauen artean. Esaterako, *egoera mailako predikatuekin* eta *egon* kopularekin ez dugu goi-datiborik aurkitzea espero.

Bestalde, bi datiboko egitura batzuetan, bi goi-datibo batera agertuz gero, perpaus ez-gramatikal bat izatea espero dugu; goi- eta behe-datiboak biltzen dituzten itxura bereko egiturak, berriz, gramatikalak izan daitezkeela uste dugu, oso mugako kasuak izan arren.

- (33) a. \*\*\*Niri entrenamendua [ e Joni atsegina iruditzen zait]<sup>27</sup>  
 b. Niri Jon [ hizkuntzalari leiala] iruditzen zait

<sup>25</sup> Eta argumentazio zirkularretan ez erortzeko: goi-datiboak dira komunztadura zaintzen dutelako, eta komunztadura zaintzen dutenez, goi-datiboak dira; edo alderantziz, behe-datiboak dira komunztadurarik zaintzen ez dutelako, eta komunztadurarik zaintzen ez dutenez, behe-datiboak dira.

<sup>26</sup> *Individual level predicates* eta *stage level predicates*, hurrenez hurren, ingelesez. Izaki mailako predikatuek ditugunean, subjektutik predikatzen den ezaugarria berezkoa du izakiak eta bere izate osoan zehar egia da, adibidez: *Jon ederra da* (orain eta beti). *Jon haserre dago* diogunean, aldiz, Jonek ez du zertan haserre egon behar ez bihar, ez etzi eta abar. *Haserre* egoera mailako predikatua da.

<sup>27</sup> Albizuk antzeko beste perpaus bat eskaini digu, bere ustez gramatikala dena: *Niri Mikel Joni atsegin iruditzen zait*, baina gure ustez, bestea bezain ez-gramatikala da. Zalantzak sortzen dizkigu, ordea,

(33a) adibidean, *niri* esperimentatzailea da *iruditu* predikatuaren goi-datiboa; *Joni* agertzeak perpaus okerra sortzen du, *atsegin* predikatuak jaso dezakeen datibo bakarra *niri* esperimentatzailearen erreferentziakidea izan behar delako nahitaez. Konparatu (33a) adibide okerra, *niri entrenamendua atsegina iruditzen zait* perpaus gramatikalarekin. Albizuk iradoki digunez, gainera, kasurik gabeko gune batean dagoen DS da *Joni* eta horrek ez-gramatikaltasuna sortzen du. Aldiz, (33b) adibidea gramatikala da. Bi datibo diferente biltzen ditu, bata *niri* goi-datiboa eta bestea *hizkuntzari* behe-datiboa, edo nahiago bada, bata DS eta PS bestea.<sup>28</sup>

Hauek xehetasunez aztertu beharreko eremu sintaktikoak baino ez dira, adjektibo-en jokabidea ulertzeko eta datibo komunztaduraren gaia testuinguru orokorrago batean kokatzeko. Eremu hauetako datuak hizkera jakinetan ez ezik, hizkuntzan ere nolakoak diren ikusi beharko litzateke, ez baitago halako predikatuari buruzko azterketa zehatz eta sakonik.

Hizkeretara itzuliz, ez dirudi estandarrean eta hego-mendebaldeko hizkeretan, *izan*-dun predikatu konplexuetan datibo komunztadura hautazkoa denik, *egon* aditz arinarekin sortuak diren predikatu konplexuetan ez bezala, (29) eta (30) adibideetan ikusi dugunaren haritik. Dena den, adi egon beharra dago, guk ezusteko bat edo beste hartu dugulako:

- (34) a. Liburuari fidelagoak izan dira. (Gotzon Argote, *Berria* 2011-02-17)<sup>29</sup>  
 b. Liburuari fidelagoak izan zaizkio

Ezustekoa diogu ez berez datibo komunztadurarik aurkitu ez dugulako printzipioz espero ez dugun datibo motarekin, hots, behe-datiboarekin, ezpada datibo komunztadurarik eza espero ez dugun hizkeran, estandarrean, aurkitu dugulako.

### 3. Euskara estandarreko beste lekukotasun batzuk

Predikatu konplexuen azterketak ipar-ekialdeko hizkeretara begira ez ezik, gainerako hizkeretara begira ere jarri gaitu, eta ikusi dugunez, *egon* aditz arinaz osatzen

---

bere ordain postposiziodunak: *Niri Mikel Jonekin atsegin iruditzen zait*. Albizuren ustea okerretara interpretatu ez badugu, behintzat, *atsegin izan*-ek bi aukerak eskaintzen ditu bere iritziz. Gure ustez, aldiz, lehena bederen ez-gramatikala da. Rezacen hipotesia, bestalde, zuzena balitz, oso litekeena da perpaus hori bere ustez gramatikala izatea.

<sup>28</sup> Orobat, erabaki beharko da zein estatus ote duten ondoko predikazioetako datiboek ere: *Jatia gizonari beharrezko da* (Gèze 1873: 26) edo *Herio terrible bovi, izigarri da mundu guzietan handier, eta xipier, iustoei, eta iniustoei* (Tt *Onsa* 147) (Fernández eta Landa 2008). Halako perpausak ez dira gramatikalak ipar-ekialdeko hizkeren eremutik aparte. Ikusi beharko litzateke, beraz, nolako iritziak dituzten ipar-ekialdeko hiztunek (33) eta (34) bezalako egiturez, *beharrezko*, *izigarri* eta antzeko komunztadura hautazkotasuna erakusten duten adjektiboekin batera. Albizuk ohartarazten didanez, ez dirudi esanahi aldetik, behintzat, *atsegin*, *pizu* eta abarretatik asko bereizten direnik. Baldin eta *atsegin* eta abarren parekoak balira, orduan, birpentsatu beharko litzateke azken predikatu hauetako datiboak benetan goi-datiboak diren ala ez. Eztabaida, ikusten denez, bat bera da.

<sup>29</sup> Gontzal Agotek Joel eta Ethan Coen anaien *True Grit* western filmaren inguruan egindago kritika. Gotzon Agoteri eskerrak eman nahi dizkiogu bere hizkeraren nondik norakoez eman dizkigun xehetasunengatik. Halako agerraldiek zerikusia izan dezakete egilearen idiolektorekin edo idazteko baliabide estilistikoekin, ez, aldiz, euskalki eremu jakin batekin. Irantzu Epelderren iritziz, gaztelaniaren kalko zuzena izan liteke hau (*Han sido más fieles al libro*).

direnak, bederen, hizkuntzan orokorturik dagoen mekanismo bati esker sortzen dira dirudi. Gure lanari amaiera emateko, datibo komunztaduraren hautazkotasuna erakusten duten beste lekukotasun batzuk aipatu nahi genituzke labur. Lekukotasun horiek euskara estandarretik jasoko ditugu, lanean zehar aztertu ditugun adibide gehien-gehienak ez bezala. Lekukotasun hauek garrantzitsuak dira iruditzen zaigu bi arrazoi nagusirengatik: batetik datibo komunztadura estandarrean ere hautazkoa izan daitekeela erakusten dutelako, eta bestetik hautazkotasunak ipar-ekialdeko hizkeretan eta estandarrean izari diferentekak dituen arren, muga bat bera duelako: goi-datiboek ez dute datibo komunztadura inola ere galtzerik eta behe-datiboak dira hautazkotasunari bidea ematen diotenak.

### 3.1. Datiboak *ari izan* eta beste aspektu perifrasi batzuetan

Estandarrean dagoen datibo komunztadura hautazkotasuna *ari izan* eta *hasi* edo *ibili* aditzeko aspektu perifrasi batzuetan aurki daiteke (Ortiz de Urbina 2003a: 288). Hualde eta Ortiz de Urbina (1987) lanaz geroztik *ari* aditzat hartzen da, beste perifrasi batzuetan ageri diren *egon* edo *ibili* aditzak bezala.<sup>30</sup> *Ari* aditzak *-(i)zen* formako perpaus jokatuagabe bat hautatzen du eta perpaus jokatuagabe horretako aditzak, bere aldetik, datibo bat izan dezake. Bada, kasu horietan, datibo komunztadura hautazkoa da —ikus Ortiz de Urbina (2003) ez ezik, Rezac (2009) ere—.

- (35) a. Jon amari berria ematen ari zaio  
b. Jon amari berria ematen ari da

- (36) a. Jon Garaziri hurbiltzen ari zaio  
b. Jon Garaziri hurbiltzen ari da

Antzeko lekukotasunak erakusten dizkigute *ibili* eta *hasi* aditzetako egiturek<sup>31</sup> (ikus Ortiz de Urbina 2003: 292, *ibili* aditzerako):

- (37) a. Jon jendeari laguntza eskatzen ibili/hasi zaio  
b. Jon jendeari laguntza eskatzen ibili/hasi da

Berregituraketa hauetan ageri diren datiboak mendeko perpaus jokatuagabean dagoen aditzaren helburu datiboak dira, batean iragaite aditzen, hots, *eman* eta *eskatu* aditzen helburuak eta bestetik mugimendu aditz batena, *hurbildu* aditzarena. Kasu guztietan, beraz, datiboak behe-datiboak dira, eta horiek dira, hain zuzen ere, hau-

<sup>30</sup> *Ari izan* berregituraketa gisa aztertu duten lanetarako, ikus baita Laka (2004, 2006) beste batzuen artean.

<sup>31</sup> *Egon* aditzak ere antzeko jokabidea duelakoan gaude, baina xehetasunez aztertu beharra dago. Adibidez, zalantzak ditugu *Aholkua Mikeli ematen dagokio* (Ortiz de Urbina 2003a: 291) perpausaren gramatikaltasunaz —adibidearen iturria ez da aipatzen—; aldiz, gramatikalak eta ohikoak dira Axularren *Galdez nagotzue* bezalakoak (Ortiz de Urbina 2003a: 291). Sarasolak buruz buru diosku oso arrotza egiten zaiola lehen adibidea eta ez duela uste literatur tradizioan halakorik dagoenik; bigarren adibidearen testigantzak, berriz, erraz aurki daitezke literaturan, bere iritziz. Gainerakoan, ez genuke esango Axularrena bezalako aukera lagun arteko hizkerakoa denik (vs. Ortiz de Urbina). Aipatu ditugun aditzez gain, *aritu* aditzak ere antzeko komunztadura hautazkotasuna du (Ortiz de Urbina 2003: 288).

tazkotasun horretarako aukera ematen diguten datibo bakarrak. Izan ere, egitura berberetan goi-datiboak izanez gero, orduan ez-gramatikalak dira datibo komunztadura zaintzen ez duten perpauusak, hala nola, esperimentatzaileak edo datibo hunkituak erakusten dituzten ondokoak, (35) eta (36), hurrenez hurren:

- (38) a. Joni etorria damutzen hasi zaio  
b. \*Joni etorria damutzen hasi da

- (39) a. Joni hori gogor egiten hasi zaio  
b. \*Joni hori gogor egiten hasi da

Jabe datiboak izanez gero, gauza bera gertatzen da: datibo komunztaduradunak gramatikalak dira eta datibo komunztadurarik gabeak, aldiz, okerrak.

- (40) a. Joni aurpegia argitzen ari zaio  
b. \*Joni aurpegia argitzen ari da

- (41) a. Mendizaleari hatzamarrak izozten hasi zaizkio  
b. \*Mendizaleari hatzamarrak izozten hasi dira

Lan honen mugak soberan gaudituko genituzke, egitura honetan ageri den datibo komunztaduraren hautazkotasuna teorikoki azaldu nahi bagenu, eta bide horretan ere pausuak egin behar ditugu azalpen oso bat eman aurretik. Hemen, lan osoan zehar bezala, goi- eta behe-datiboen aurkakotasuna da beste behin azpimarratu nahi duguna, kasu honetan datuak ipar-ekialdeko hizkeretakoak izan beharrean, estandarrekoak izan arren. Albizuk ohartarazten digunez, eztabaidaren ildo nagusia datiboaren jatorriko gunea zein den erabakitzean datza, eta horri dagokionez, kontrakokoak dirudite Ortiz de Urbina hipotesiak (2003: 287-289 orrialdeak bereziki) eta Rezacenak (2009): lehenak *ari-ri* egozten dio datiboaren jatorria; bigarrenak, berriz, mendeko predikatuari berari. Hipotesi zuzena bata izan, bestea izan, ezinbesteko komunztadura erakusten duten datiboetarako lekua izan beharko du, eta ez soilik hautazko komunztaduradun behe-datiboetarako.

#### 4. Datuak tauletan laburbildurik

Lehen taula honetan laburbildurik ageri dira orain arte eman ditugun datibo mota guztiak, ezker-zutabeko eremuei dagokienez, hots, ipar-ekialdeko hizkeren hautazko komunztadurari dagokionez eta estandarraren barruko hautazkotasunari dagokionez:

1. taula

Eremua	Goi-datiboak			Behe-datiboak
	Esperimentatzaileak	Datibo hunkituak	Jabe datiboak	Helburuak eta beste
Ipar-ekialdeko hizkerak	*	*	*	√
Euskara estandarra	*	*	*	√

Bigarren taulak, predikatu konplexuei dagozkien datuak jasotzen ditu eremu berberetan:

## 2. taula

Eremua	Goi-datiboak	Behe-datiboak	
	<i>-(r)i neka<sup>garri</sup> (izan)</i>	<i>-(r)i leial (izan)</i>	<i>-(r)i begira (egon)</i>
Ipar-ekialdeko hizkerak	*	√	√
Euskara estandarra	*	√/*	√

## 5. Ondorioak

Lan honetan erakutsi dugunez, datibo komunztadura galerak aukera ematen digu goi- eta behe-datiboak bereizteko. Goi-datiboek halabeharrez egiten dute komunztadura baita behe-datiboek komunztadura egiten ez duten hizkera eremuan ere, hots, ipar-ekialdeko hizkeretan. Gainerakoan, *adjektibo/aditzondo*a + *egon* gisako predikatu konplexuetan zein *ari izan* bezalako aspektu perifrasieta ere, hautazko datibo komunztadura dago euskara estandarrean. Halako egituretan, goi- eta behe-datiboaren arteko aurkakotasun bera antzematen da, goi-datiboek ez baitute hautazko komunztadurarik. Datibo-Komunztaduraren Murriztapenak sortzen du aurkakotasuna.

## Aipamenak

- Albizu, Pablo, 1997, *The Syntax of Person Agreement*. doktorego tesia, University of Southern California.
- , 1998, «Generalized Person-Case Constraint: A Case for a Syntax-Driven Inflectional Morphology», in M. Uribe-Etxebarria & A. Mendikoetxea (arg.), *Theoretical Issues on the Morphology-Syntax Interface*. ASJUren gehigarriak XL. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU. 1-33.
- , 2001, «Datibo sintagmen izaera sintaktikoaren inguruan», in B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta komunztaduraren gainean. On case and agreement*. Bilbo: UPV/EHU. 49-63.
- , 2009, «Construcciones inacusativas con dativos posesivos y dativos de interés en vasco: un análisis derivacionalista», *Seminario de Lingüística teórica*. Madrid: CSIC.
- , 2011, «Microvariación en las construcciones inacusativas de dativo posesivo del euskera», *Wedisy's Second Workshop on Syntactic Variation*. Universitat de Barcelona. Otsailak, 17-18.
- & Beatriz Fernández, 2006, «Licit and illicit ERG-DAT pairings», in B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. Bilbo: UPV/EHU. 69-96.
- & Susana Huidobro, 2011, «Ethical datives in Basque», eskuizkribua, UPV/EHU & Stony Brook.
- Anagnostopoulou, Elena, 2003, *The syntax of ditransitives. Evidence from clitics*. Berlin eta New York: Mouton de Gruyter.
- Arregi, Eurídice, 2003, «On Dative Alternations in Basque», eskuizkribua, UPV/EHU.

- & Javier Ormazabal, 2003, «Aditz ditransitiboen barne-egitura», in J. M. Makazaga & B. Oihartzabal (arg.), *Euskal gramatikari buruzko eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak*. Iker-14 (I). Bilbo: Euskaltzaindia. 119-136.
- Artiagoitia, Xabier, 2000, *Hatsarreak eta parametroak lantzen*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU eta Arabako Foru Aldundia.
- Baker, Mark, 1988, *Incorporation: A theory of grammatical function changing*. Chicago: University of Chicago Press.
- Barss, A. & H. Lasnik, 1986, «A note on anaphora and double objects». *Linguistic Inquiry* 17. 347-354.
- Cuervo, María Cristina, 2003, *Datives at large*. doktorego tesia, Cambridge (Mass.): MIT.
- Eldordieta, Arantzazu, 2001, *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT.
- Etxepare, Ricardo, 2003, «Valency and argument structure in the Basque Verb», in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 363-425.
- , 2010a, «Contact and change in a restrictive theory of parameters», *Linguistic variation in the Minimalist Framework*, UAB, urtarrilak 14-15.
- , 2010b, «Tracking variation in datives in north eastern Basque dialects», *4<sup>th</sup> European Dialect Syntax Meeting. Variation in datives: a micro-comparative perspective*. Donostia, ekainak 21-23.
- & Beñat Oihartzabal, 2008a, «Dative structures in standard and north-eastern Basque», *Licensing conditions at the interface. International Encounter at the Summer Courses of the University of the Basque Country*. XXVI Uda-ikastaroak, Donostia, ekainak 23-24.
- & —, 2008b, «Locational datives and dative agreement in the Eastern Dialects of Basque», *European Dialect Syntax Meeting III*, Venezia, irailak 18-21.
- & —, 2008c, «Leku-datiboa ekialdeko zenbait hizkeratan», *Aldaketak, aldaerak, bariazioak euskarari eta euskal testugintzan*, IKER, Baiona, abenduak 12-13.
- & —, 2008d, «Bi datibo egitura ifar-ekialdeko zenbait hizkeratan», *Lapurdum* [inprimatzen].
- & —, 2009, «Datiboa ipar-ekialdeko zenbait hizkeratan», IKER, apirilak 25.
- & —, 2010, «Datives and adpositions in North-Eastern Basque», in Beatriz Fernández & Ricardo Etxepare (arg.), *Variation in datives: a micro-comparative perspective*. Oxford University Press [prestatzen].
- Euskaltzaindia, 1985, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Birrarg.: Euskaltzaindia. 1991].
- Fernández, Beatriz, 1997, *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*. Bilbo: UPV/EHU.
- , 2007, «High and low datives in Basque bivalent constructions», eskuizkribua, Rutgers.
- , 2011a, «High and low. The Basque cartography of datives and the Dative/Agreement Constraint», eskuizkribua, UPV/EHU.
- , 2011b, «Evidencia dialectal y pan-dialectal a favor de la distinción entre dativos altos y bajos», *Wedisy's Second Workshop on Syntactic Variation*. Universitat de Barcelona, otsailak 17-18.
- , 2011c, «Sintaxiak euskalkietatik ikas dezakeenaz: datiboen euskal kartografia adibide», *Euskalkien jatorria eta bilakaera*. UPV/EHUko XXX. Uda Ikastaroak. XXIII Europar Ikastaroak. Donostia, ekainak 30-uztailak 1.
- , 2011d, «Goi-datiboak eta are goragokoak: jabe datiboak eta datibo hunkituak vs. datibo etikoak», *Gogoia* [inprimatzen].
- , 2011e, «Datibo ez-muinekoak: jabe datiboen sintaxiaz», eskuizkribua, UPV/EHU.
- & Josu Landa, 2008, «Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat: Corsintax», *Lapurdum* [inprimatzen].

- & Jon Ortiz de Urbina, 2010, *Datiboa biztegian*. Bilbo: UPV/EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.
- , — & Josu Landa, 2009, «Datibo komuntaduraren gakoetz», in R. Etxepare, R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre*. *ASJU* XLIII: 1-2. 352-380.
- & Ibon Sarasola, 2010, «*Marinelei abisua*: izen ondoko datibo sintagmak izenburuen sintaxian», *Lapurdum* [inprimatzen].
- Gèze, Louis, 1873, *Éléments de grammaire basque. Dialecte souletin. Suivis d'un vocabulaire basque-français & français-basque*. Baiona: Imprimerie de Veuve Lamaignère [Birrarg.: 1979. Donostia: Hordago.]
- Harley, Heidi, 2002, «Possession and the double object construction», *Yearbook of Linguistic Variation* 2. 29-68. Amsterdam: John Benjamins.
- Hualde, José Ignacio, 1986, «Case-assignment in Basque». *ASJU* XXII. 313-330.
- & Jon Ortiz de Urbina, 1987, «Restructuring with ARI». *ASJU* XXI, 425-452.
- Jouitteau, Mélanie & Milan Rezac, 2007, «The French ethical dative, 13 syntactic tests.» *Bucharest Working Papers in Linguistics*, IX (1). 97-108.
- Lafon, René, 1951, «La langue de Bernard Dechepare». *Boletín de la Sociedad Vascongada de los Amigos del País* 7, 309-338.
- Laka, Itziar, 2004, «Ari progresiboaz: euskararen kasu markak», in Pablo Albizu & Beatriz Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. UPV/EHU & Arabako Foru Aldundia. 113-132.
- , 2006, «Deriving split ergativity in the progressive: The case of Basque», in Alana Johns, Diane Massam & Juvenal Ndayiragije (ed.), *Ergativity: Emerging issues*. Dordrecht: Springer. 173-196.
- Larson, Richard, K., 1988, «On the double object constructions», *Linguistic Inquiry* 19. 335-391.
- Levin, Beth & Malka Rappaport, 2008, «The English dative alternation: The case for verb sensitivity», *Journal of Linguistics* 44. 129-167.
- Montoya, Estibaliz, 1998, «Objektu bikoitzeko egiturak euskaraz», eskuizkribua, UPV/EHU.
- Oehrle, Richard T., 1976, *The grammatical status of the English dative alternation*. doktorego tesia. Cambridge (Mass.): MIT.
- Ormazabal, Javier, 2000, «A conspiracy theory of case and agreement», in R. Martin *et alia* (arg.), *Step by step. Essays on minimalist syntax in honor of Howard Lasnik*. Cambridge (Mass.): MIT Press. 235-260.
- & Juan Romero, 1998, «On the syntactic nature of the me-lui and the Person-Case Constraint». *ASJU* XXXII-2. 415-433.
- & —, 2001, «A brief description of some agreement restrictions», in B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta Komuntaduraren gainean/On Case and Agreement*. Bilbo: UPV/EHU. 215-240.
- & —, 2007, «The object agreement constraint». *NLLT* 25. 315-347.
- Oihartzabal, Beñat, 2002, «Structural case and inherent case marking: Ergaccusativity in Basque», in J. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic theory and Basque syntax*. *ASJU*ren gehigarriak XXVII. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 309-324.
- , 2007a, «Argument Structure Building: Applicative Heads in Basque», *Workshop on Argument Structure and Syntactic Relations*, 2007/05/23-25, IKER, CNRS.
- , 2007b, «Basque ditransitives», eskuizkribua, IKER, CNRS.
- Ortiz de Urbina, Jon, 1995, «Datibo komuntaduraren gainean», in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, *ASJU*ren Gehigarriak XXVIII. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 579-588.
- , 1989, *Parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- , 2003. «Periphrastic constructions», in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. 284-300.



- Pylkkänen, Liina, 2002/2008, *Introducing arguments*. Cambridge/London: the MIT Press.
- Rezac, Milan, 2008, «The syntax of eccentric agreement: the Person Case Constraint and Absolute Displacement», *NLLT* 26. 61-106.
- , 2009, «Person restrictions in Basque intransitives». *Lapurdum* [inprimatzen].
- , 2011, *Phi-features and the modular architecture of language*. Studies in Language and Linguistic Theory vol. 81. Dordrecht: Springer.
- Romero, Juan, 1997, *Construcciones de doble objeto y gramática universal*. doktorego tesia, Universidad Autónoma de Madrid.
- Zabala, Igone, 1995, «Infinitivos, tiempo y ergatividad». *V. Colóquio de Gramática generativa*. A Coruña.

### Klasikoen gordailua (KG)

<http://klasikoak.armiarma.com/>

### Erabilitako corpora

- <http://weblingua.ametza.com/cgi-bin/corsintax/dat-kmz.pl>
- Arb: ARBELBIDE, Jean Pierre  
—*Bok: Bokazionea edo Jainkoaren deia*. Lille, 1887.
- Jnn: JOANATEGI, Bazilio  
—*SBen: San Benoaten bizitzea*. Inazio Mujika Iraolaren edizioa. (1887) Donostia, 1996.  
—*SBi: Sainduen Bizitzea. Leben zatia*. Baiona, 1890.
- Dv: DUVOISIN, Jean Pierre  
—*Bibliako ohiko laburdurak: Bible Saindua*. (1858). Bilbo, 1973 (faksimilea).
- Leon: LEON, Leon  
—*Imit: Jesu-Kristoren imitazionea*. Turnhout, 1929.
- Larz: LARZABAL, Piarres  
—*Idazl: Piarres Larzabalen idazlanak* (7 liburuki). Piarres Xarritonen edizioa (1930-1988). Donostia, 1991-1998.



# EGUNGO GAZTE MINTZAIRAREN HAINBAT EZAUGARRI

Orreaga Ibarra Murillo

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## Laburpena

*Artikulu honetan egungo euskararen gazte mintzairaren ezaugarri garrantzitsu batzuk laburbiltzen dira. Lehenik egungo euskararen egoera aztertzen da, batasunak sortutako ondorioetan azpimarratuz; gero, lagunarteko hizkera era sakonean aztertzen da. Testu honetan gazteen alor lexikoaren ezaugarriak ditugu helburu nagusitzat, bai eta euskara-erdararen arteko kode aldaketa eta honek betetzen dituen hainbat funtzio pragmatiko. Azkenik, gazteek beren hizkeraren inguruko iritziak eta jarrenak dira aztergai.*

## Abstract

*In this article we present the main features of the current way of speaking of Basque youngsters with special attention to colloquial language. Firstly, we analyze the present-day evolution of the Basque language and the changes resulting from the unification of this language: dialect levelling, and standardization. Secondly, it also discusses two dialectal features of difference in the language spoken by young people. Moreover, we analyze the current lexical creativity, the Basque-Spanish code-switching and some pragmatic functions involved. Finally, we highlight some opinions and attitudes of young people about their own speech.*

## 1. Gazteen hizkera definitzen

Euskararen bilakaeran badugu hiztun talde handi bat, euskara usu erabiltzen duena, azken urteotan ugaldu den taldea, gazteak. Jakina denez, euskara komunikatzeko hizkuntza bihurtu da hainbat tokitan, euskal eremuan euskaldunak gero eta gehiago dira eta gero eta euskaldun gehiago daude, batez ere umeei eta gazteei esker, eskoletan eta komunikabideetan ere euskararen erabilpena zabaldu da. Hori dela eta, gazte askok euskara erabiltzen dute ohiko jardunetan.

Gazteek euskara erabiltzen dute, baina, nolako euskara egiten dute? Zein ezaugarri ditu? Gaur egun, gazteen hizkerari buruzko topikoetako bat honako hau da: hiztegi-urritasun ikaragarria omen dauka eta gazteek mintzagai dituzten gaiak klixiez, esamolde edo esaeraz, interjekzio edo tik fatikoz eta beharrezkoak ez diren makuluhitez eta errepikapenez beterik omen daude. Hau da, mota guztietako gazteek hitzak errepikatu, eta birao asko erran ohi dituzte.

Hori dela eta, gazteen euskara nolakoa den definitzen saiatuko gara artikulutxo honetan. Lehenik erran gazteen mintzaira fenomeno linguistiko multzo bat dela, hauetako anitz lexiko arlokoak, gazteriaren mintzamoldea ezaugarritzen dutenak, taldearen edo adinaren arteko elkartasuna erakusteko helburuz. Giza talde hauek ikasleak edota hirietakoak izan ohi dira, 14-25 urte bitartean daudenak; izan ere, argot horrek hiria izaten du sorburu. Nolanahi dela ere, ez da mailakatzeko bertikala aztergai, baizik eta horizontala, egoera komunikatiboaren arabera sortzen dena, eta egoera horrek bapatekotasun komunikatiboa du ezaugarri bereizletzat.

Eta gazteek darabilten hizketa modu guzietarik guri interesatzen zaiguna da gazteek aisaldian eta lagunekin egiten duten erabilera. Eta mintzaira honek lagunarteko hizketan du bere isla egokiena eta horretarako, egokia behar du izan.

Azken batean, erregistro bat definitu nahi dugu, hizketa maila bat, egoeraren arabera erabilera zehatz bat, komunikazioaren inguruabarrek zehazten dutena. Alegia, egoera desberdinekin loturiko aldaera dugu hau, beraz, formaltasunaz ari gara. Gazte hizkera erregistro bat da, hizketamodu bat, egoera komunikatiboaren arabera aldatzen dena, testuinguruak definitzen duena, gazteekin eta gazteen artean sortzen da, beraz, aldaera diafasikoa da.

Gazte hizkerak, alta, soziolekto gisa ere identifikatzen dute batzuek, aldaera dias-tratikoa eta mailakatzeko bertikala erakusten duen heinean; izan ere, hor gazteen adinak markatzen du aldaera hori.

Lehenik erranen dugu estilo anitzen konbinazioa dela hau; nolabaiteko erregistro horretan ahozko estilo unibertsalaren ezaugarriak agertzen baitira, zalantzarik gabe.

Oro har, erran dezakegu gazte-hizkerak hizkuntza estandarretik bereizi nahi duela. Horretarako, gazteek hiru alderen aurka egiten dute: eskola-araua, estilo jasoa eta helduen kultura. Zenbait aldetan gazte-hizkera kontraste-hizkuntza gisa ulertzen da, helduen kulturaren eta “haur kultura”ren aurkako kulturaren barnean. Bai gurasoek, bai gizarte ofizialak, bazterketa-jarreratzat jotzen dute. Hala eta guztiz ere, gero eta heldu gehiago saiatzen dira beren burua “gazteagotzen”, gazte-hizkeratik hartutako adierazpenak erabiliz.

Jakina denez, munduko hizkuntza guztien gazte-hizkeran jada zehaztu diren prozedura batzuk erabiltzen dira: metaforizazioa, atzerriko hizkuntzen mailegua, delinkuentziatik, prostituziotik eta drogaren arlotik datorren hiztegiaren erabilera, eta disfemismoen eta zakarkerien baliabidea (hau da, erdi- eta goi-klaseek baztertutako kodeak).

Taldeko nortasuna da gaztea ezaugarritzen duena, taldearen antzera mintzatu nahi du gazteak, eta ez irakasle, guraso edo aitaxi eta amatxiren antzera. Bertzaldetik, gazte-hizkeraren bertze ezaugarri nabarmen bat da aldaketa azkarra eta etengabeko aldaketak.

Gazte hizkera nahiz eta iraupen laburrekoa dela uste den, pentsatzen dugu gaur egungo gazteen zenbait ezaugarri hizkuntzaren fisonomia zehaztuko dutela etorkizunean. Izan ere, egun ez da arraroa helduei mota honetako esamolde eta item lexikoak entzutea: *hau rollo bat da, mobida izugarria, aluzinatua zegoen; 20 kilo kostatu zitzaion; ze pasada!, ze muermo!* Berez, kalean erabiltzen diren esamolde haiek etxetan eta helduen mintzamoldean sartzen ari dira etengabe. Bertzaldetik, erran behar da gaur egun gazte izatea modan dagoela, eta egunero ateratzen dira hainbat komu-

nikabidetan; hori dela eta gazteen lexiko pila bat, hasieran droga munduan sortu zen, eta gero orokortu dira ahozko hiztegi arruntean.

Ezaugarri horiek sistema linguistikoaren edozein mailatan koka daitezke: hiztegi-ian, morfologian, sintaxian, fonetikan/fonologian, hizkeraren prosodian eta erritmoan, arau pragmatikoetan, testu-egituraketan (errate baterako, diskurtsoaren adierazgailuen erabilera), keinuetan eta adierazpen mimikoan.

Aztertutako gazte-hizkera lagunarteko erregistroaren barnean sortzen da: hori bezekoa da eta inolako plangintzarik gabe egiten da. Ezaugarri propio batzuk ditu, zenbait faktoreri lotuta daudenak, hala nola jatorria, bizileku duen herria, gizarte-maila, sexua, arraza, adina, ideologia eta abar. Horiek guztiak linguistikoki zehaztutako idiolektoak eta soziolektoak —edo elkartasun soziolinguistikoak, Hudsonen hitzetan (1981)—, komunikazio-elkartrukeetan berez islatzen direnak, sortzen laguntzen dute.

Bertzaldetik, gazteek erabiltzen dituzten ezaugarriak, alegia, laburtzapenak, bi hizkuntzen arteko kode aldaketa etab. hizketa erkidegoaren identitatearen markatzaile gisa ikusten dira, alegia, soziolekto gisa.

Artikulu honetan bi ezaugarri aztertuko ditugu, lexikoaren alorrekoak eta kode txandaketa; izan, badira hizkuntzaren interferentziatik etorritako bertze fenomeno batzuk: kalkoak, interferentziak, erdal markadoreen erabilpena...baina, oraingoan horiek bazterrean utziko ditugu.

## 2. Lagunarteko hizkeraren hainbat ezaugarri

Lagunarteko hizkera ia beti hizkuntza idatzi jasoaren ikuspuntutik aztertu denez, askotan haren zehaztugabetasuna, hiztegi-urritasuna eta narraskeria formala aipatu dira. Horiek guztiak gutxiesgarriak dira eta horien bidez, bertzeak bertze, bide batez adierazten zen aztergai edo erreferentziatzko eredu-hartzea desegokia eta ez gomendagarria zela.

Dena den, egoera komunikatibo egokietan erabiltzen baldin bada, alegia, ardatz diafasikoari lotuta baldin badago, ikusten dugu adierazkortasun handia ematen diola hizkuntzari, bereziki areagotze edo biziagotze handia lortzen baita.

Gazteek egokitzen dute hizketamodu hori norekin ari diren, eta guraso edo irakasleekin ari badira, ez dute berdin egiten. Horrek erran nahi du argot hori erabiltzen dela egoera komunikatiboen arabera, eta ez, hiztunaren “ezaugarri pertsonalen” arabera. Egia da, hainbat gaztek ez dakitela erregistro hori egokitzen eta horren ondorioz, hiztun ez kultotzat jo dezakegula.

Vigara Tauste (2002) eta bertze batzuen azterketetatik abiatuta, jada uste da lagunarteko hizkera ahozko eta mintzatu gisa azter daitekeela eta aztertu behar dela (eta ez hizkuntza estandarren desbiderapen txar huts gisa) eta honen berezitasun ia guztiak koherentziaz justifikatu eta azal daitezke.

Lagunarteko hizkeran agertzen dira gazte hizkeraren ezaugarri garrantzitsuenak, alegia, hizketa arduragabeko eta hurbilean. Lagunarteko erregistroaren ezaugarriak ondorengoak dira:

— Solaskideen arteko *berdintasun erlazioa*, bai gizarte mailakoa, bai funtzionala (egoera batean betetzen duten zeregina; adibidez, ospitale bateko gela berean

dauden irakasle bat eta igeltsero laguntzaile bat gaixoak dira funtzionalki). Berdinen arteko erlazioak edo, botere nahiz elkartasunaren arteko erlazioak lagunartekotasunari laguntzen dio.

- *Hurbiltasuneko bizi erlazioa*: elkarren berri izatea eta jakintza nahiz esperientzia erkideak edukitzea.
- *Familiarteko diskurtso markoa*: parte-hartzaileen erlazio zehatzak eta espazio fisikoak zehaztutakoa.
- *Espezializatuak ez diren gaiak*: egunerokotasuna, adierazpenaren edukia edozein gizabanakoren esku dauden gaiak osatzen dute.

Elkarrizketaren egitura irekia da, denbora laburrekoa, bapatekoa da gai espezializaturik jorratzen ez duena, igarokorra da, ez da transzendentala, gai batetik bertzera pasatzen da inolako planik gabe.

Horrela, gazteen komunikazioaren helburua izaten da kontaktua mantentzea, komunikazio fatikoa indartzea,<sup>1</sup> eta elkarren arteko loturari eustea, garrantzitsuago da “egotea”, mezua igortzea baino, planifikatu gabe mintzo dira, eta askotan txandak gorde gabe. Helburua interpersonal da: komunikatzea komunikatzeagatik, eta komunikazio helburua sozializatzailea, eta tonua informala da elkarrizketa gidoirik gabe egiten da, irekia da eta hartzaileak txandakatzen dira aurretik inolako ordenik izan gabe.

Hainbat egilek gazte hizkeraren izaera berriztatzailea azpimarratzen dute; horrela gazte hizkeraren bidez, hizketa arduragabekoan erraz sartzen dira mailegu hauek. Bertze arrazoiak da *arauaren kontrakoak* izatea, ezarritakoari kontra egitea, gazteen berezko ezaugarria da hau. Baliteke, arauaren aurka egote horrek aldaketa berriak ekartzea hizkuntza estandarri.

Rodriguezek (2003) seinalatzen duenez, gazteek nahita bilatzen dute edozein hitz diskurtsoari doinu peioratiboa emateko. Gazteak, elebidunak izan ala ez, berezko errekurso estilistikoekin jabe dira, eta oso garrantzitsua suertatzen da ikustea nola molde horiek txertatzen diren eguneroko hizketan eta nola sortzen diren interferentziak bertze hizkuntzekin.

Arestian errandakoaz gain, lagunarteko hizkuntzari buruzko ondorengo ideiak azpimarratu behar direlakoan gaude (Briz 1996: 29-30):

- Ez da gizarte klase jakin baten kontua, baizik eta, hizkuntza baten hiztun guztien jardunen ezaugarria. Egia da behe- edo behe-erdiko maila sozio-kulturaleko hiztunek ongi menperatzen duten erregistro bakarra dela, baina ez da inola beraiei ez bertzerik dagokien erregistroa.
- Ez da uniforme, ez homogeneoa; izan ere, erabiltzaileen ezaugarri dialektalen eta soziolektalen arabera aldatzen da.
- Adierazpen sistema bat islatzen du eta, erregistro formalaren edo erabilera idatzia-aren sinplifikazioa baino gehiago, giza komunikazioaren molde pragmatikoaren jarraipen eta garapena dela ematen du.

---

<sup>1</sup> B. Malinowski antropologoari zor diogu esapide hau: komunikazio fatikoaren definitzioa, honean oinarritzen da hein batean gazteen komunikazioa: *a type of speech in which ties of union are created by a mere exchange of words* (Malinowski 1923: 303).

- Ahozkoa izateaz gain, testu idatzian islatu edo ager daiteke. Zenbait diskurtso-tan azaltzen da; hala ere, hizkuntz modalitate hau mintzairaren erabilerarik benetakoenean, elkarrizketan ageri da garbien. Horixe da, beraz, berau aztertzen hasteko tokirik egokiena.

### 3. Euskararen egoera azken urteotan

Lehenik eta behin azpimarratu behar euskaraz hitz egiten duen erkidego linguistikoak aldaketa asko izan dituela. Hainbat mendetan hizkuntza baztertu duen prozesua neurri handian gaingiduta, azken boladan euskararen egoera nabarmen hobetu da. Hiztunen kopurua gehitu da eta hizkuntzak eremu eta eginkizun berriak hartu ditu. Hori guztia euskara batua sortzearekin batera gertatu da. Eta honez gain, mendeetan zehar iraun duen bizimodua erabat aldatu da, gizartearekin batera; komunikabideei, garraioideei esker edozein alderditako euskara entzun dezakegu, eta horrek, dudarik gabe, euskara berdintzea eta gehiago batzea ekarri du, Zuazok ongi dioenez. (Zuazo 2008: 15)

Bertzaldetik, euskara batuaren eragina nabaria da, euskalkietan eragiten ari da gero eta gehiago; nolana dela ere, euskararen kasuan gertatzen ari dena Europan gertatu zen aspaldian, batez ere estandarizazioari dagokionez, Auerren arabera (1998: 1). Honenbertzez ‘dialect levelling’ edo konbergentzia garaian gaude euskarari; ‘dialektoen mailakatzeko’ honek adierazten du aldaera markatuak gutxitzen ari direla, edo bertze moduan erranda, geografikoki edo gizartean diren aldaera hedatuena nagusitzen direla, eta gainerakoak baztertzen.

Gure eremuan, Aurrekoetxeak (2006: 149) eta Ormaetxeak (2008) eginiko ikerketen arabera, berdintze nabaria gertatu da euskarari azken urteotan eta heldu-gazteen arteko desberdintasun nabarmenenak syntaxian eta morfologian aurkitu zituzten, eta maila txikiagoan lexikoan. Esnaolak (1999) ere antzeko ondorioak bildu zituen. Arratian eginiko azterketan, berriz, bateratze joera nagusia morfosyntaxian agertu da eta ez lexikoan. Euskara batu-euskalkiaren bateratze prozesuak lehenik lexikoan agertzen direla uste bada ere, ikertzaile horien kasuan ez da horrela gertatzen, lexikoa hirugarren postuan dago, syntaxiaren eta morfologiaren atzetik (Ormaetxea 2008: 261). Bertzaldetik, “euskara batuaren eraginari doakionez, helduengan hutsa den bitartean, gazteengan ia % 9ra iristen da”.

Bertze eremu batzuetara joanez, Oiartzunen, erraterako, lehenago ekialdeko ezaugarriak nagusitzen ziren adinean, orain, ordea, erdialdekoak hedatuz joan dira (Zuazo: 1997, 1998a). Bertzaldetik, eta eremu honetan berean, egun hiztun gazteen artean *zara* eta *gara* formak /a/ erroarekin orokortzen ari dira, *gera*, *zera*-ren orde. Azalpena hau da: /a/ duten forma hauek erabat zabaldu dira euskara batuan, aldi berean, GN iparraldekoarekin bat zetozelarik.

Honez gain, kontuan hartu behar da, euskararen egoera funtzionala erabat desorekatua denez —hau da, gutxitua ala gutxiengoarena—, alboko bi hizkuntza handiek itxuraldaketa anitz sortzen dituzte euskararen komunitate linguistikoaren barneko garapenean, garapen hori baldintzatuz. Kontua da gune euskaldun batzuetan, adibidez, Iruñean, euskara ia ez dela agertzen komunikazioaren funtsezko hainbat arlotan; izan ere, familiarrean eta kalean gaztelaniaren nagusitasuna ikaragarria da. Oro har, honek ekarri du hiztun erkidego honetan gaitasun pasiboak garatuago eduki eta

erregistro landu, formal eta azalpenezkoetan aurrera egin arren, maila informal, subjektibo eta lagunartekoei dagozkien adierazpen-moduetan atzera egin dela.

Hari honi jarraiki, erran behar dugu hizkuntzaren edozein behatzailerentzat nabaria dela gaur egungo gazte baten hizkera orain dela mende bat hitz egiten zen euskaratik oso urrun dagoela. Adierazteko modua ez ezik, mundu osoa ere aldatu da, nekazaritza zein landa arloari eta ekoizpen baliabide zehatz batzuei lotutako bizi-modutik urrundu baita. Gaur egun, euskara ikasketetako hizkuntza duten ikastegi, institutu edo ikastolekin bat etorrita agertu edo deskribatzen da, askotan ikasleen ama-hizkuntza ez delako.

Horrez gain, hiritarragoa den eta kultur oinarri berriak zein ekoizpen-sektore finakatuak dituen gizartean bizi gara. Gainera, industrializazioaren poderioz nekazaritza eta artzaintza lotutako hiztegi handia galdu da mailaka, eta ekoizpen-baliabideei (tresnak, lurraren banaketa, artisautza-jarduerak...) eta jarduera horien berezko ohi-tura eta errituei (jaiak, erromeriak eta abar) lotutako emari lexiko ugaria baztertu da. Arrazoi horiek direla eta, hiriko gaur egungo gazteek ez dute ezagutzen emari lexiko hori, ezta landa arloari eta berekin zekarren kulturari buruzko ezer ere. Erabiltzen duten lexikoa anitz urrutiratzen da aitzinean erabiltzen zenetik.

#### 4. Ezaugarri orokorrak

Hauek dira gazte euskaldunen estiloaren ahozketasunaren ezaugarri nagusietako batzuk; horietako anitz gaztelaniaren ezaugarriekin bat datoz, jakina, hizkuntza horrekin bizi baitira neurri handian. Kontuan hartu behar da guk eginiko ikerketaren corpusa atxikitzeke grabaketak hizkuntza arduragabekotik heldu direla. Zehatzago erranda, gazteek berek egin dituzte beren grabaketak lagunekin zeudenean giro erabat erlaxatuan, ikertzaileak ez du parte hartu datuen bilketan eta ez da “behatzailearen paradoxa” rik izan, eta ez da autozuzenketarik izan:

- *Es que* fokalizazioa eta ezkererako lokadura: *Es que nik ez dut oraindik ezer jan.*
- Subjektu ergatiboaren eta aditz iragankorren arteko komunztadurarik eza, plangintza ezagatik. Batzuetan horren arrazoa enuntziatuaren egiturazko plangintzaren akatsa da. *Bai, ni egin dut. // Udala egiten du... Ni ez daukat ezta hori. // Hori ni daukat disket batean. // Ni egin nituen.*
- Solaskideari seinaleak egitea, arreta deitzeko, ustekabea adierazteko, adostasuna agertzeko honako markatzaileak erabiliz: *ai, bai!, ya!, yasta!, bale!, bai?, benga!, tio!, txabal!*
- Diskurtso-partikulak: *pues, bueno, o sea, ez dakit zer, nik zer dakit?, yo qué sé:*  
— *Baina adibidez, nire lehengusinarekin lehengusinak jokatzeko Osasuna eta adibidez pues ezin da tio, yo qué sé...*
- Interjekzioak: *jo!, a!, tira!, aber!, bual!, tio!, txabal!, aupa!*
- Hitz neutralak diskurtso-balioarekin erabiltzea: *hombre!, benga!, mesedez!, faborez!*
- Atzean jarritako amaierako oharrak, onespena eskatzeko asmoz:
  - *Dago bastante galdua, ez?*
  - *Larunbatean atera behar gara Iruñatik, ez?*
  - *Omen daola bastante retrasau, ez?*



- Iraindu eta laidotzen duten hitzak: *putamadrekoa, putada, mala hostia*. —*Si eta putada da partidoak izango dira larunbatean, ez? ... atzetik eta botatzen goxokiak ahí ala! a mala hostia!*
- Gaztelaniaren eta euskararen arteko kode-txandaketa:
- Bakoitza yoaten da *bere royora*
  - *Yo le conté mi tío cómo* egin zuen hiztegi bat.
  - ...eta ailegatu zen *a un barrizal* eta ezin atera.
  - Zu zer moduz *por Francia?*
- Elipsiaren erabilera. Gazteek erabiltzeak ez du erran nahi haiek bakarrik darabiltenik, euskaldun zahar helduengan ere erabat ohikoa da. Batzuetan, subjektuarena izan daiteke edo bertze elementu batzuen:
- A: Eta hau norena da?
  - P: Oier [Oierrena].
- Gazte-hizkeraren berariazko elementu lexikoak. Anglizismoak, disfemismoak eta esamolde baldarrak, metaforizazioa: *Hori ezin da irakurri... da una mierda de carrera. Da una cerda! Dire unas cochinas hauek bie! ta deskojonatu ginen.*
- Enuntziatuen kateaketa, honako hauen bidezkoa: *eta, pues, o sea, ez dakit, ba, noseke* pasarte honetan ikusten den gisan:
- Zetaz, e.... eztaikit, esan giñun bai gan bar gara azkenian Les... o sea... Lesakara no se ke ta berak etzuen esan nola... O sea berak nai zuen gan oi Baigorrire.*
- Eta baita solasaldi honetan ere:
- A- (...) hortik ibiltzen dena... mutiko honen atzetik...
- B- O sea ez, ez! *Zarete* gezurti batzuk!
- A- Gezurriak gu? *Faborez!*
- C- *Barkatu!* o sea...
- A- *Gu, keba!*
- Azalpenezko makulu-hitzak, hala nola *o sea, eta, pues (pos), eske, ya*.
- Aditzak ezkerrean kokatzea: *sartzen zait la venada; nahi nuen erosi bi gominola; gaten dire superguti; iten zait super raro; zarete gezurti batzuk.. —Ni noa korrikan hogeian.*
- Partitiboarekiko komunztadurarik eza: *Ni(sic) ez dut ordanagailua. Ni(sic) ez daukat inprimagailua. Guri ez digu ematen denbora.*
- Singularren eta pluralaren, eta osagarriaren eta aditzaren arteko komunztadurarik eza: *Ez, ez ditugu behar.*
- *Da* aditz laguntzailea edo *dago* esaldiaren hasieran jartzea:
- *Dago* bastante galdua.
  - *Eske da una mierda de carrera.*
  - *Dago* hiru kilometrotara.
  - *Bai, da* hojaldre antzekoa.
  - *Dago* jendea gimnasioan?
  - *Ta, dago ya* bajakin?
  - *Omen daola* bastante retrasau, ez?

- Zenbait egitura sintaktikotan biraoak sartzeko prozedura sintaktikoa aipa dai-teke, nahiz eta egituretan zentzu iraingarririk ez izan: *ze hostias esan duzu? Non koño egon zara hainbertze denbora?*
- Ziurgabetasunaren adierazgailuak: *yo que sé, ez dakit zer, lo que sea, ¿no?, ez?, o algo así: E aizu! Bajera bat utziko diguzu festetarako, ezdakizer...?*
- Adierazgailu bereziak: *ahí, y eso, eta hori, sin más, sobrado...*
- *zen en plan de que amonak egiten zuen euskeraz ta berak erderaz, sobrao por-que...*
  - *pues horiek hartzen zaituzten han sin más, o sea, zu joaten zara eta denak psi-kologoak o sea da supertriste egitea 4 urtetako karrera, zenbat urte dira?*
- Deklinabide markarik ez erabiltzea erantzunetan:
- A: *Ta ze orduetan [sic] da konfirmaziona?*
  - B: *Zortzi*
  - ... *Bai, «Lagunak» [Lagunakekoak edo Lagunak taldekoak] dira pixka bat pi-jos...ez?*

Bukatzeko, honatx webugne batetik ateratako bertze adibide batzuk, bietan gazte erregistroen ezaugarri batzuk agerian gelditzen dira; kode txandaketa, hitz zakarrak, ezaugarri dialektal batzuk...

*“Aupa hi. Klaro zeok emen tongoa iten dala, hoy dudau re ez. Baino bueno, ba-dare talde batzuk ke se lo kurran ta ez daketela beste aukera handik propaganda iteko, es lo ke hay. Pero tongo hay fijo!”*

*“Aupa hi, lista hau la ostia da, euskaldu guztin jarraitzaile gehien dazketen tal-dek hauek baldin badie...esto es para jente ke kree en dios...” (www.matraka.info-2005/04/04)*

## 5. Ezaugarriak alor lexikoan

Jakina denez, zorrotzasuna eta umorea dira gazteen adierazpideen iturri oparoa. Aldi berean, hizkuntza abstraktua baztergarria suertatzen da. Horrela, helduen hizkuntza inpersonala, eta anonimoaren aurrean, bertze lexiko emari bat sortzen dute gazteek, aberatsa, bizia, findu gabekoa zuzena eta hipokresiarik gabekoa. Alde honunzko gazteek nagusiki gaztelaniazko jargoia dute iturri nagusizat.

Horrela ba, lexikoaren alorrean hiru fenomeno nagusi gertatzen dira gazteen artean: 1) erranahiaren aldaketa, 2) adierazlearen (significante) aldaketa eta 3) bertze hizkuntzetako maileguak.

- 1) Erranahiaren aldaketa. Kasu hauetan erranahia aldatzeak abstrakzioaren materializatzea inplikutzen du. Gehienetan gazteek erdarazko esapideak dituzte iturri nagusizat: *kokoa jan* ‘konbentzitu’, *muturra izan* ‘aurpegiari erreferentzia eginez, kopeta izan’, *kaña eman*, *rolloa sartu*, *belarria jan* dira adibide interesgarrienak; hauetan umorea eta ironia osoa agerian egoten dira (adib. *Adarrak jarri*).
- 2) Adierazlearen aldaketa. Gehienetan laburtzapenen bidez sortzen da eta hiru silabako hitzak nagusitzen dira, anitzetan *-ata*, *-eta*, *-aka* atzizkiak erabi-

liz: *drogata*, *paraka*, *bizaka* ‘txirrinda’, *motaka* ‘motorra’,<sup>2</sup> *masoka*, *bokata*. Gisa berean, lexikoko ijito-hizkeraren ezaugarriak onartzen dira: *bokata*, *porreta*, *txuleta*, *kamareta* (zerbitzaria ‘camarero’), *anfeta*, *amata* (ama). Gehienetan hauetako anitz delikuentziako girotik abiatzen dira. Bi silabakoak ere oso ohikoak dira: “Oso *diber* da; Oso *neura* dago; Hori arrunt *gili* da”. Ikasketekin erlazionaturiko lexiko multzoa ere era laburrean erabiltzen da: *ikas* (ikastola), *mate*, (matematika), *ingu* (ingurunea), *gazte* (gaztelania), *inge* (ingelesa), *zuzen* (zuzendaria), *insti* (instituto). Era laburrak toponimoetan eta bertzelako izenetan nagusitu dira: *Rotxa* (Errotxapea), *Txan* (Txantrea), *villa* (villavesa, Iruñeko autobusa, Villava herritik hartua). Bukatzeko, egungo hizkera arruntean siglak erabiltzea oso arrunta da, baita gazteen jargoian ere : *H.J.A.*, *D.B.H.*, *T.D.T.*, *H.A.*

Azkenik, izen propioen apokopea erabat ohikoa da. Honatz egungo neska-mutil gazteen izen berezien erabilpena: *Aitzi* < *Aitziber*, *Itzi* < *Itziar*, *Itzi* < *Itzine*, *Bero* < *Verónica*, *Ira* < *Irati*, *Bea* < *Beatriz*, *San* < *Santos*, *Txus* < *María Jesús*, *Orre* < *Orreaga*, *Mila* < *Milagros*, *Kris* < *Kristina*, *ikas* (ikastola).

Aditzen osuera aldetik, *-se* erdal atzizki erreflexiboarekin osaturikoak orokortu dira gaztelaniaz, eta ondorioz euskaraz ere bai: *moskeatu*, *apalankatu*, *enrollatu*, *katxondeatu*, *flipatu*. Ugari erabiltzen diren bertze atzizkiak hauek dira: *-ta*, *-tua-z* egindako partizipioak: *flipata*, *flipatua* (harrituta), *ligatua*, *enrollatua*. Gainera, erdal *-ón- ez* bukatutakoek euskaraz *-oi* egiten dute: *subidón*, *mogollón* (*subidoi*, *mogolloi*), *plantón* (*plantoia*), *enpolloi*, eta azkenik, *-ada* atzizkikoak arruntak dira: *pasada*, *hijaputada*, *putada*, *puyada*, *mobida*, *mugida*.

Bertzaldetik, gazteen ohiko hizkeran usu erabiltzen dira aurrizki batzuk: *Hiper-*: *hipermegaguai*. *In-*: atzizkiak balio superlatiboa du: *inpresentablea da*, *infumablea*. *Super-*: *superunkitua*, *superxapuz*, *superkutrea*, *superona*, *supergustora*. Gisa honetan, jatorrizko hitza neurri handian nabarmentzen da, kontuan hartu behar da exajerazioa dela nerabeen ezaugarri garrantzitsuenetarikoa bat.

- 3) Bertze hizkuntzetako maileguak. Kasu honetan nagusi dira gazteleratik eratorritakoak, eta horrek bereizten gaitu iparraldekoetatik; han bertze hainbertze suertatzen baita frantsesarekin. Hori dela eta, amaigabeak dira mugaz honunzko heldu nahiz gazteek gaztelaniatik hartutako hitzak. Lerro hauetan gazteenak diren batzuk aipatuko ditugu: *Nere aitei uzten diot “super wapo”*. —*Gure “koefiziente intelektual” sobera altua*. —*Oso “enrollatua” da* (jatorra, xaloa). —*“Mobida” izanen da arratsaldean* (saltsa, giroa). —*“Destrangis”ekarri behar dugu*. —*“Personaje” hori iruditzen zait... eta baita ingelesetik eratorritakoak ere: “On” egon/ “Out” egon*. —*On dago tope, topera*. [*Lanpetua dabil egun hauetan ikasten*]. *“Of the record” esan*. —*Hori da el “number one”*.

Jarraian, mailegatuta hartzen den hitz mordo horren adibide batzuk aipatuko ditugu: *txapa*, *mugida*, *tronko*, *peña*, *kolega*, *baska*, *martxoso*, *julai*, *makarra*, *ligatu*, *amuermau*, *mogolloi*, *mara*, *matxaka*, *muermo*, *karroza*, *ze fuerte!*, *moskeo*, *flipatu*, *tranki*, *esnifatu*, *kanuto*, *porro*, *kolokatu*, *pasata egon*, *kolgatuta egon*, *kilo* (milioi bat pezeta), *desfase*.

<sup>2</sup> Berezi nerabeen artean entzuten dira, hala nola *amata* (amatxo) ere.

Bertzaldetik, hiztun gazteek teknolektoekin duten trebekeria agerikoa da: —*Tà da dena si...barne araudia hartu behar duzu...*; —*Curriculum*a bete...; —*Ikastolatik ateratzen zarenean mugitzen zara ekis jende batekin* . —*Zero* motibatua nago . —*Asteburu honetan egon naiz desaktibatua*.

## 6. Gazte nafar euskaldunen bi ezaugarri deigarri: *zeba, zebada, eta beharra naiz*

### 6.1. *Behar izan aditza*

Arestian aipaturiko “mailakatzearekin” batera, alegia euskararen berdinketarekin, edo “levelling” deiturikoarekin, bertze fenomeno batzuk sortzen dira gazte talde euskaldunek erakusten dutenak: hiperdialektalismoen garapena da hauetakoa bat, eta le- rro hauetan bi adibide ekarriko ditugu, bata aditz morfologia arlokoa eta bertzea jos- kera mailakoa.

Nolanahi dela ere kontuan hartu behar dugu nola hedatzen diren hizkuntz alda- ketak. Izan ere, aldaketa linguistiko batzuk erabat burutu diren ala ez ikusteko hu- rrengo belaunaldia aztertu behar da. Izan ere askotan aldaketak oso txikiak izaten dira hasieran. Hori dela eta, ez da harritzekoa gazte batek ezaugarri linguistiko bat erakustea, eta ondoko bere lagun minak ezaugarri horixe bera ez izatea edo belau- naldi batean iragarri diren hainbat aldaketa linguistiko hurrengo belaunaldian ez be- tetzea (Trudgill 2002: 57).

Horrela ba, hainbat gazte talde euskaldunek, Baztandarren kasu, ezaugarri batzuk erakusten dituzte bereizgarri egiteko, hiztun erkidego gisa identifikatzeko. Horixe da hain zuzen ere *behar + izan* egiturarekin gertatzen dena. Guk ikusitakoaren arabera, poliki poliki, gazte hauen artean egitura hau hedatzen ari da: *beharra, barra + izan* (aditz iragangaitzekin).

Baztango gazteen artean, identitate markatzaile gisa funtzionatzen du aldaera honek. Horrela, baztandar gazteek “berezko” aldaera azpimarratzeko gogoia erakus- ten dute honen bidez, hiztunak erabiltzen duena berezko ezaugarria kontsideratzen baitu.

Gazte hauekin harremanetan ginenean klasean argiki ikusi dugu hori, nolabaiteko harrotasun ikurtzat zuten baztandar gazteek aldaera hau: *b(e)arra, barra* behin eta be- rriz azpimarratuz eta horrekin hitz jokoak eginez, “dibergentzia” erakutsiz.

Honen froga dira galdetegi batetik ateratako erantzunak, joeraren adierazgarri dira, dudarik gabe. Baztango amatxi bati eta haren bilobari —biak Amaiurkoak (Baz- tan)— eginiko galdera-erantzunak ditugu erakusgarri gisa. Antzekoak bildu ditugu bertze herri batean (Berroetan) ere. Ezkerraldekoak Baztango amatxirenak dira, eta eskuinaldekoak gaztearenak.

- “Tengo que ir a la calle”: *Gan biar dut karrikerat// Kanpora yuan barra naiz*
- “Tenemos que venir pronto”: *Torri biar dugu fitel// Abudo tor bar gara*
- “Tengo que irme a la calle”: *Gan biar dut karrikerat// Kanpora yuan barra naiz*
- “Tengo que lavarme la cara”: *Garbitu biar dut aurpegiel// Arpegia garbittu barra dut*
- “No te tienes que asustar”: *Eztuzu izitu biar// Etzara izitu bar*
- “Tienes que hacer la comida”. *In baizu bazkariel// In barra duzu bazkarie*

Aldaera berri honen aldeko bertze froga batzuk dira Salaburuk eta Lakarrek (2005: 141) diotena Baztango euskara aztertzerakoan; ezaugarri dialektalak deskribatzerakoan, *behar izan* aditzarekin bi aditz laguntzaileak erabiltzen direla diote, nahiz eta *dut* aldaera nagusi dela erran. Honenbertzez, aipaturiko hau da dialektoaren deskribapen tradizionala. Guk, ordea, hauxe ikusi dugu, *barra + naiz* (alegia, aditza iragankorra) egitura gero eta gehiago erabiltzen dela gazte baztandarren artean. Ezaugarri berbera ageri omen da ondoan dauden Bortziriko herrietan. Iñigo ikertzailea honetaz ohartu zen berriki:

Behar izan *aditzaren jokabidea ere aldatzen ari da*. Behar izan *aditz iragangaitz batekin doanean* (etorri, ibili...) *gure eskualdean orain artio* joan behar *dut edo* hurbildu behar *dut erran izan da*. *Gaurko gazteen eta haurren artean ohikoak dira* joan behar *naiz*, hurbildu behar *naiz*. (Iñigo: 2007)

Laburbilduz, ez dugu ahaztu behar dialektoak bi betekizun dituela; alde batetik, elkar ulertzearena, eta bertzetik, bereiztekoa, alegia, konbergentziarena eta dibergentziarena. Erabilera honek, Caminok dioen bezala (1997: 117), bertzeengandik bereizteko ahalmena ematen die, eta aldi berean, beren artean elkar ulertzeko. Eta gazte euskaldunek erakusten dituzte bi fenomeno hauek, konbergentzia fenomenoak eta dibergentziakoak ere, ezaugarri bereziak azpimarratuz bertzeengandik aldentzeko.

## 6.2. *Zeba eta zebada*

Baztan eta Bidasoako hainbat herritako gazteen hizkeran *ze ba* galdetzailearen erabilera berri bat, berrikuntza bat, ezagutu dugu eta horren erabilpena zehaztuko dugu hurrengo lerrootan.

Erran dezakegu hauxe dela jatorrizko erabilera, alegia, *zer ba?* galdetzaile moduan erabiltzea, *zergatik* edo *zer dela ta* galdetzaileen baliokide bezala. *Ze bada* galdetzailea *zergatik?*-en baliokidetzat hartu da. Jakin beharko genuke nolako hedapena zuen galdetzaile bezala Baztan inguru horretan. Gure ustez, ez du hedapen handirik izan orain arte, nik uste dut *zertaz?* edo *zergatik?* erabiliagoak izan direla; behintzat Salaburuk (2005) euskalkiaren deskribapenean ez du testigatzen, eta Mariano Izetaren hiztegian ere ez dator aldaera hau. Honako lokailu hauek, ordea, tokia dute deskribapenean: *zentaz*, *zeren* (porque) adierarekin.

Erabilera arautuan *ze ba?* galdetzailea izan beharko litzateke, bertzerik gabe, biluzik, erdaraz *¿pues?*, *¿qué, pues?*, *¿por qué, pues?* erranahiarekin. Baina egungo erabileran, kausazko esaldietan, erantzunetan erabiltzen da *ze ba*, *zeren*-en baliokide gisa. Hori dela eta, ondoren datorrena ezezaguna da eta berria izan daiteke, maiz arrazonamenduei hasiera emateko erabiltzen da, hurrengo adibidean bezelaxe:

A. *Barkatu.*

B. *Ze ba?*

A. *Zeba jo datzut nahigabe.*

Gauza bera gertatzen da gazte baztandarren elkarriketa hauetako pasarteetan:

— (...) *Bañon asteazkenian geldituko naiz seguraski Iruñen, atxaldian, zeba torri bar zait Itziar, gan barra dugulako eztakit norat.*

— *Zeba hori ezta hola iten.*

- *Zeba zen tipiko...gu ere ibiltzen ginenin hasi zen Patxi erderaz solasten...*
- *Gaupasak iten... ailetzeko zeba bertzela etzuten denborik.*
- *Ettxera joan da zeba amak deitu egin dio.*
- *Azterketa gainditu du, zeba aste guztia ikasten pasa du.*
- *Zeba badire hainbertze kotxe hemen?*
- *Zeba eztire hasten bertziakin... ya baduela...?*

Ikusitakoaren arabera, ondorio gisa, erran dezakegu zeba-k galde-hitzaren funtzioa egiten duela, zertaz, eta zergatik galdetzaileekin batera; esaldietan biluzik joan daiteke eta baita aditzarekin batera ere. Horrezaz gain, *bait-* eta *-lako(z)* aurrizkiak ordezkatu ditu kausazko zenbait esalditan; hitzun berak zeba eta *-lako* aldi berean erabiltzen dituen arren. Honenbertzez, galdetzailearen funtzioa egiten du zehar galderetan eta baita erantzunetan ere. Honezaz gain, erantzun mota berriak sortu dira: *zeba bai* eta *zeba ez*.

## 7. Kode aldaketa

Komunitatearen elebitasunaren ondorioetako bat kodeen aldaketa da, hau da, hitzun berak diskurtso berean bi hizkuntza txandaka erabiltzea dakarren fenomeno.

Code-Switching (CS) edo kode aldaketa da gazteek erabiltzen duten bertze errekurso bat; nahiz haiek ez diren bakarrak izan hori erabiltzen. Hasieran genioenez, gazteek elkarrizketan bapatekotasuna, naturaltasuna, eta espontaneitatea bilatzen dute. Bertzela erranez, gazteen diskurtsoaren ezaugarri batzuk hauek dira: adierazpen komunikatiboa, efektiboa, konbentzionalismotik at dagoena. Hori dela eta, interfezientziak, kalkoak eta txandaketa linguistikoak ugariak dira.

Hizkuntzen txandaketa edo kode aldaketa hitzun eta komunitate elebidunen artean oso hedatuta dagoen eta maiz agertzen den fenomeno da. Txandaketak hizkuntza ezberdinetako perpausen edo perpaus zatien alborakuntza dakar hitzun beraren diskurtsoan. Fenomeno horretan hizkuntzaren arau morfologikoez eta sintaktikoez hizkuntza horretako perpausa arautzen dute.

Gehienetan kode aldaketak ez du ospe on handirik eta oso baliabide 'estigmatizatu' izan da. Bertze hizkuntza batzuetan ere errekurso baztergarria da aniztetan. Fenomeno honek ikuspegi desberdinak biltzen baditu ere, gehienak negatiboak dira; hitzunek elebidun osatugabeak balira bezala ikusten dute beren burua. Horrela gertatzen da hitzun talde anitzekin, galego eta ingelesa mintzo direnekin egindako ikerketan horrela baieztatzen da (Cf. Pena 2004: 155):

As for code alternation, they think it demonstrates a lack of proficiency in the languages juxtaposed and think of it as highly negative.

Azken honetan euskara-erdara kode txandaketaren inguruko ikerketak egiten hasiak dira ikerlariok. Hitzun elebidun helduekin lan hauek nabarmen daitezke: lehenik Rotaetxe (1994) eta gero Etxebarria, M., (2004), Epelde, I. & Oyharçabal, B. (2009), Muñoa (1997), Muysken (2000), Eastman (1992), Gumperz, J. (1982), Poplack (1980), Ibarra (2010); haurrekin Ezeizabarrena (1997)ren lana dugu.

Euskararen eta gaztelaniaren arteko interferentzia ez da hizkuntzen arteko maileru iragankorren kontu hutsa, fenomeno sistematikoa baizik, elkarte elebidun gehie-

netan gertatu ohi den bezala. Argi dagoena da hizkuntza txandaketa sortzen dela nahiz eta hitzunik ahalmena duen elkarrizketa segitzeko.

Erran bezala, CS da gazteen erregistroaren prozedura, nahiz eta ez den bakarrik aldaera diastratiko honetakoa; jakin baitakigu euskaldun zahar adintsu anitzek baliabide hau erabili egin dutela eta orain ere erabiltzen dutela.

Honatz kode aldaketan parte hartzen duten faktore batzuk:

- a) Faktore sozial eta linguistikoak.
- b) Elkar eragin behar duten hizkuntzen ukipenaren intentsitatea.
- c) Ikasketa osotuaren presentzia edo ausentzia.
- d) Hitzun elebidunen jokaera.
- e) Hizkuntza sisteman noraino dauden integraturik hizkuntza ezaugarriak.
- f) Distantzia tipologikoa jatorrizko hizkuntzan eta hizkuntza hartzailean.

Auerrek proposatzen du CS dela testuinguruak baldintzaturiko seinale bat elkarrizketan, hainbat ezaugarri dituena. Azken garai honetako literaturan hori da irizpide onartuena (cf. Auer 1998). Azken batean, lengoia unitate diskretu gisa ikustea, ikuspegi ohikoa, sinpleegia dela erran dezakegu, mito bat, hain zuzen ere.

Kode txandaketa gertatzen den momentuan, hainbat faktorek baldintzatzen dute: faktore funtzional eta pragmatikoak (testuingurua, partehartzaileak, elkarrizketa gaiak). Kodeaz aldatzea zerbait arrunta da, elebidunen arteko elkartruke komunikatiboetan. Nahiz eta hizkuntz txandaketak ospe txarra duen, eta aldaera estigmatizatua izan, eskoletan zuzentzen dena, gazteen artean anitz erabiltzen da. Berez, hizketamodua da. Kontua da, gazteen artean kode txandaketa hau identitatearen markatzaile bihurtzen ari dela; eta inkontzienteki bada ere, pentsa dezakegu gazteek aldaera “hibrido” hori hautatzen dutela.

CS-a ez da arbitrarioa, ezta zentzu gabekoa ere; kode aldaketa fenomeno funtzional gisa kontsidera daiteke, hitzunik motibatuak baitaude diskurtsoan hainbat txandaketa egiteko. Gazteak ikusten du CS-a araua balitz bezala, egoeraren konplizitatea eta arduragabetasun falta dela eta, erregistro hori erabiltzea egokiago ikusten du. Izan ere, argi erran behar da CS-a ez dela bakarrik hitzunen ahalmen komunikatiboaren eza, bertzelako motibapenek mugitzen dute hitzuna kodeaz aldatzera.

Gaian adituak ez diren anitzen iduriz, hizkuntz txandaketa edo kode aldaketa, edo *code switchinga*, hizkuntzaren heriotz bidearen adierazgarria da; edota uste ohi da hizkuntz txandaketa sortzen dela bietako hizkuntza bat ez delako erabat ongi menperatzen.

Beti sinistu izan da kode aldaketa ohikoa zela erkidego elebidun batzuetan. Alegia, etorkinen artean, erraterako, New-Yorkeko Puerto Ricoko hitzunen artean, edota Utrecht-en dauden marokiarren artean. Baina, kode-aldaketa ez da sortzen erkidego horietan soilik, ez da heziketa gutxiko eta pobreen artean bertzerik sortzen. Argi erran behar da kode aldaketa ez dela isolaturiko fenomeno bat, baizik eta diskurtso elebidunean ohiko fenomeno, hainbat hitzun elebidunen artean gertatzen dena. Erkidego honetan, erraterako, kode aldaketa ohikoa da nerabeen artean, baina, egia erran gehiago edo gutiago orokorra izan da toki erabat euskaldunetan ere.

Erraterako, Belgikan hizkuntza ofizialak bi dira, frantsesa eta alemaniera, biak erabiltzen dira administrazioan, eskolan eta zerbitzu publikoetan. Hala ere, poliki-poliki alemaniera gero eta esparru gehiago irabazten ari da, bereziki Flandes hiria 1960-tik

aitzineria eskualde aberatsena bihurtu zenetik. Han ere kode aldaketa ohikoa da goi mailako helduen artean.

Jakina denez, lan biziki interesgarri eta espezializatuak egin dira honi buruz (ik. Alfonzetti 2003, Álvarez-Cáccamo 2003, Eastman 1992). Batzuek hizkuntzaren jabeakuntzan, haurren artean gertatzen den kode-aldaketa jorratuz (ik. Ezeizabarrena 2009), bertze batzuek helduen artean gertaturikoak.

Kodea aldatzen dute zenbait faktoreren arabera, adibidez, landutako gaia, edo kontu estilistikoak edo pragmatikoen arabera. Bistan denez, kanpoko faktoreak (-ingurunea, partaideak, hizketagaia, arau sozialak eta bakoitzak hartzen duen “rol”-a) eragile izaten dira, nahiz eta solaskideak adin berekoak izan eta hizkuntza jakin. Gure ustez, kode aldaketak, gazte elebidunen arteko “elkartasun” sentimenduak indartzera eramaten ditu. Hori dela eta, erran dezakegu kode aldaketa ez dela hondamendiaren seinalea, baizik eta errealtate anitza eta multidimentsionalaren adierazpena. Identitate eta nortasuna markatzeko modu bat dateke hau, bertze erkidego batzuetan ere suertatzen dena:

The adoption of CS may in itself be an “act of identity”, a fact which is clearly illustrated in the phenomenon known as “crossing” (Rampton: 1995). Rampton describes adolescents in Britain using features of Punjabi and Creole in order to create a trans-racial “common ground”. (Bullock & Toribio 2009: 106)

Kode aldaketak hainbat funtzio betetzen ditu, bertzeak bertze adierazkotasuna eta emotibitatea ematea elkarrizketari eta gazte hizketaren hainbat ezaugarri nabarmen-tzea, eta baita taldearen hainbat egoera kontestualizatu azpimarratzea eta konplizitate sortzea ere. Fenomeno hau helburu pragmatikotik urrutiago doa, eta gainera, identitate etnolinguistikoaren seinale bihurtzen da; fenomeno “ez markatu” bihurtuz.

### 7.1. Kode aldaketaren hainbat funtzio

Kode aldaketaren inguruan egin diren lanak saiatzen dira frogatzen txandaketa suertatzen denean, egoera beretsuek mugitzen dutela hiztuna CS egitera. “Conversational loci”-ren inguruan egin diren hainbat lanetan, ondorio beretsuetara heldu dira, bertzeak bertze hauek dira, era laburrean, CS egitera eramaten dituzten arrazoiak:

- diskurtso zuzenaren erreprodukzioa,
- topikalizazioa,
- topikoaren aldaketa,
- parentesia edo bigarren mailako iruzkinak,
- errepikapenak,
- ‘joku’ linguistikoak,
- aktibitatearen aldaketa,
- parte hartzailearen konstelazioa.

Euskaraz egindako ikerketetan (Cf. Muñoa 1997) CSaren helburua anitza dela azpimarratzen da: bertzeak bertze, egoera kontestualizatuak azpimarratzea, eta norbaiten hitzak hitzez-hitz errepikatzea. Batzuetan CS-k diskurtsoa egituratzeko balio du. Elebidun hauendako kode aldaketa da elkarrizketa antolatzeke errekurso bat, gai berriak sartzeko eta baita elkarrizketan txanda hartzeko edo bukatzeko. Finean, kode



aldaketak baditu xede desberdinak, hutsune lexikalak betetzetik, bertzelako funtzio konplexuagoak egitera.

Hurrengo lerrootan, laburki bada ere, gazteen mintzairan kode txandaketak betetzen dituen hainbat funtzio zerrendatuko ditugu:

a) *Funtzio adierazkorra*

Txandaketa mota hau agertzen da funtzio erretorikoa eta adierazkorra mantentzeko; gehienetan gazteek honakoak tartekatzen dituzte: deikiak, interjekzioak, esaldian betetzeko hutsuneak, horrela hiztuna elebidun gisa funtzionatzera eramaten dute. Batzuetan errepikapena islatzen da: atal honetako 3. adibidean bezala, lehenik euskaraz erraten da eta gero, antzeko moduan, erdaraz: —Ondo pasatzea *a tope!*

- Ta badakizu... *La vida es así!*
- Guztia, *a lo grande tío!*
- Ondo pasatzea *a tope!*
- Zozketatik, *ni hostias!*

b) *Joku linguistikoa egitea*

Emendailu hauen txertaketak, hiztunaren aldetik nolabaiteko kontzientzia maila inplikatzeko du; nolabait bigarren hizkuntzan txertatzen duelako zer bait. Funtzio hau agerian gelditzen da hitz jokoak egin nahi direnean edota zenbait hizkuntz trebetasunetarako.

- *La última cena*, esaten den bezala.
- *Jurando en hebreo*, esaten den bezala.
- *A la altura del betún*, esaten den bezala.

c) *Fraseologia*

Lenguai fraseologikoaren helburua da mezua modu laburrean kodifikatzea, kolpe batez esatea egituratuak dauden esaldiak; gisa honetan esfortzu gutiago kostatzen baita. Ondoko enuntziatuen kode aldaketak berrindartze gisa funtzionatzen du eta aurrean errandakoari indarra emateko era da.

Elebidunek diotenez, gisa honetan indar handiagoa ematen diote diskurtsoari.

- *Es que zaudete ematen más vueltas que pa qué.*
- Gehienez egon behar zara paron bi hiyaute, *no te hagas ilusiones.*

d) *Haserrea adieraztea*

Kode txandaketa anitzetan gertatzen da haserrea dagoenean. Txandaketaren helburua da emozioak kodetzea haserrea dagoen kasuetan, emozioak kodifikatzeko nahia erakusten da gisa honetan.

- ...eta neri... *me da una rabia, tío!*
- Baina neska hori *está mal del coco!*
- ...eta esan nion... *así de claro!*

e) *Iruzkina ironiazkoa edo isekaria egitea*

Xedea da adierazpide eginak tartekatzea, diskurtsoari ukitu ludiko eta dibertigarria emateko asmoz; horrela, elkarrizketatzailea inpresionatzea lortzen da adierazkortasuna eta indar diskurtsiboa ekarriz.

- Ez... ya ez, eske pasatu zuen hori, denbora bat baña... ya ez... *y menos mal!*
- Baina... daude lotan... *qué interesante!*

f) *Konnotazioa eta leunketa*

Atzizkitzea da prozedura morfologiko bat konnotazioa eta ñabardura azpimarrazteko, berezko balore semantikoetatik urrutiago doana. Kasu honetan txikigarriak edo hipokoristikoen erabilpenak balore afektiboa adierazten du.

- Bai, ikusten zaitut *todo morenita* etorri zarela.
- Eta gero...erosten zara (sic) *chorradita bat* edo beste *chorradita bat*.

g) *Diskurtso zuzenaren erreproduktzioa*

Gisa honetan, aitzinean ez dagoen baten hitzak ekartzen dira diskurtsoa modu zuzenean erreproduzitzen; horrela, nolabaiteko egiazkotasuna eta bizitasuna ematen zaiolarik elkarrizketari. Pasarte honetan neska bakar batek kontatzen du gertakizun bat, eta erdara-euskara txandakatzen du, elkarrizketatzaileak errandakoaren arabera.

Eta esaten du — “*Ay, eso no será vasco, verdad?*” — “*Pues sí, sí es vasco*” eta — “*ah!, ¿y de dónde eres, pues?*” — “*pues de Pamplona soy, de Pamplona*” — “*de Pamplona?*” — eta derrepente esan zion batek: — “*ay! pues no sabíamos que llegara tan lejos*” — “*pues sí, sí llega lejos*”.

## 8. Hizkuntzaren inguruko jarrearen inguruan

Atal honetan azaletik aztertu nahi ditugu erregistroaren gaur egungo bizitasuna, erregistroak sortzen dituen jarrerak, horiek oinarritzen dituzten iritziak eta komunitatearen ikuspuntutik daukan ospea edo ospe-galtzeari buruzko kontuak.

Ziurtasun linguistikoa eta ziurtasun linguistikorik eza hainbat modutan aztertu dira. Errate baterako, Labovek (1966) aspaldixkoan New York hirian sortutako joaerak aztergai izan zituen. Horren bidez badakigu askotan kontzientzia soziolinguistikoa dela “zuzenketa” irizpide horiek ematen dizkiona hiztunari eta forma zehatz bazuak espektroaren goi-soziolektoei lotzen dizkiena.

Horrela, gazte euskaldun anitzek uste dute euskara behar baino neurri txikiagoan erabiltzen dutela. Honez gain, adierazkortasun urria eta naturaltasunik eza dutela sinetsiak daude, zenbait gairi buruz komunikatzeko gaztelania erabiltzen baitute, komunikatu nahi dutena hobeki adierazten dutelako hizkuntza horretan. Hau da, hain zuzen, behin eta berriz, irakasleengandik eta abar entzun dutena, eta hori dela eta, beren hizketa moduz nahiko irizpide txarra dute.

Gazte hiztun anitz, kode aldaketa dela eta, nolabaiteko anbiguetatean murgiltzen dira, aldi aldi hizkuntza batean mintzatu behar dutela suposatzen da, eta, aldiz,

haiek bi hizkuntzak txandakatzen dituztenean, ahalmen faltarengatik egiten dela sinetsiak daude. Gazteen aburuz, solasean daudenean nolabaiteko nahasia dute eta ez dira euskara oso modu dotorean mintzatzten. Dudarik gabe, ikastetxeko presioa ez da nolana hikoia, betidanik jokaera hori zuzendu baita. Gazteek, esparru ez formaletan, bromak egiteko, “ligatzeko” etab. nolabaiteko gaitasun falta dutela uste dute; aitzitik, trebetasun formaletan, alegia, ikasketarekin loturiko gaitetan gaitasun nahiko dutela uste dute.

Rotaetxek (1999) ahozko mintzairan sortzen den euskara-erdara hizkuntza txandaketa aztertu zuen eta horrela zioen: *“Su valoración social suele ser baja, y a veces, estigmatizada (...) mis estudiantes de Sociolingüística, sin negar que utilizaran este procedimiento se extrañaron de que se le pudiera dar importancia”*.

Institutuko ikasleen artean bildutako bertze testigantza batzuen bidez, gazteek adierazten dute euskaraz maizago hitz egitea gustatuko litzaiekeela, baina ez zaiela “ateratzen”; pertsona gehienek bertze hizkuntza batean hitz egiten baitute. Institutuetako irakasleek egiten dituzten ahaleginak onartzen dituzte, baina ez omen dakite zergatik ez duten maizago hitz egiten euskaraz.

Batzuetan artifiziala edo ortopedikoa iruditzen zaie eta uste dute herrietako biztanleek beraiek baino euskara naturalagoa eta adierazkorragoa erabiltzen dutela.

Hurrengo iritziek sortzen dute jarrera negatibo hori:

Hizkuntzaz egiten duten erabilera urria. Inkestari erantzun dioten gazteek uste dute euskara behar baino neurri txikiagoan erabiltzen dutela. Adierazkortasun urria eta naturaltasunik eza sortzen da, zenbait gairi buruz komunikatzeko gaztelania erabiltzen dutelako, komunikatu nahi dutena hobeki adierazten dutelako hizkuntza horretan.

Arduradunei leporatzen diete euskarak gure komunitatean dituen erabilera txikia eta kalitate txarra; agintari politikoei, aldiz, hizkuntza ez sustatzea. Bertzaldetik, erabilerari buruzko arauak ezartzen dituen Euskaltzaindia akademiari, araudi berria sortzeko aukera ez ematea. Hori dela-eta, aurretik ikasi diren arauak ez dute balio gaur egungo hizkuntzan. Badirudi horrek ziurtasun linguistikorik eza ere sortzen duela. Irakasleek gazteen ekintzen gainean daukaten eraginak haien kontzientzia linguistikoari eragiten omen dio, ekintza horiek desegokitzat eta araudiaren kontrakotzat jotzen dituzte-eta.

Euskara ikastetxean ikasi duten eta bigarren hizkuntza gisa erabiltzen duten gazte euskaldunek adierazten dute askotan naturaltasuna falta zaiela hitz egiteko orduan eta beraiek ere konturatu egiten direla batzuetan diskurtsoa gaztelaniaz eraikitzen dutela. Horrez gain, txantxak egin edo haserretzeko orduan euskaraz adierazteko sentitzen duten ziurtasunik eza nabarmentzen dute, baita sentimenduak adierazteko ere. Hori gazteak neurri handienez kezkatzen dituzten gauzetako bat da. Hizkuntza tekniko edo informatikoa erabiltzeko ez dago arazorik: gai dira mota honetako hitzak esateko: *higadura, iragankorra, iragangaitza, erroketa, berreketa*. Baina hitz horiek gaztelaniaz esatea batzuetan kostatu egiten zaiela aitortzen dute. Kontua da esamoldeen irmotasuna edo bizitasuna azpimarratu nahi dutenean, gaztelaniara jotzen dutela sarritan, utzikieriatatik edo bertze modu batean esateko gai ez izategatik. Era berean, gaztelaniaren erabilera linguistikoak euskara igarotzen dira berehala.

Bukatzeko, euskaldunzaharren jokaera ez dute sobera maite; askotan haiekin mintzatzean konplexua sortzen zaie, eta lagundu beharrean, desanimatu egiten dituzte; gazteen mintzatzeko modua oso jatorra ez dela pentsatzerakoan. Joera hauxe bera gertatzen da Euskal Herriko bertze eremuetan ere, erraterako Deba arroan etab. (Cf: Lezeta & San Martin: 105) egindako bertze lanetan ikusten ahal den bezala.

En cuanto a la perspectiva de uso con los euskaldunzaharres, reconocen que a veces sienten complejo de hablar entre ellos, y que en lugar de ayudarles, les desaniman, al pensar que su manera de hablar no es la correcta. Esta tendencia se da también en otras zonas del País Vasco, como la zona de Deba.

## 9. Ondorioak

Lehenik eta behin, jargoiak edo gazteen erregistroak egoteari buruzko lehenengo ondorioa nabarmendu nahi dugu. Gure ustez, jargoiak egotea hizkuntza orokorra aberasteko arrazoa da, giza hizkuntzari esleitu ohi zaion sormena berresten duena.

Bertze aldetik, belaunaldi berrien euskara gero eta eklektikoagoa da, eta ahozko harremanetan sistematikoki nahasten dira euskara batua, erdarakadak, euskalkia edo modalitate propioa (irauten baldin badu) edota inoren modalitate dialektalak. Erran bezala, hibridazioa da nagusi egungo diskurtsoan, euskara batua, euskalkiak eta erdetatik datozen hitzak nahasten dira.

Hizkuntz aldaketa eta dialektoen nahasketa hiriko dialektoen ezaugarriak dira. Gazte euskaldunen diskurtsoa eboluzionatzen ari da, dialektoen nahasketa, uniformizazioa eta gaztelaniaren elementuen interferentzia oso gogorra ekarrita lagunarteko diskurtsora. Gero eta ezberdintasun gutxiago daude landako hiztunen eta hiriko hiztunen artean. Beraz, dialektoen nahasketaz gain, gazteen aldaeran baterako eboluzioa dago. Hiztegia eta erabilitako esamoldeak batu egin dira eta gazte-hizkerara hedatu dira, nahiz eta hasieran aberaskumeen hizkeran sortu diren esamoldeak izan. Hona hemen horietako batzuk: *super*, *guay*, *flipatu*, *aluzine*, *tope*, *kaña*.

Horrela, sortzez gazte baztandar euskaldun baten ahotan: *gaten dire superguti* edo *esango datzut* bezalakoak bildu ditugu. Alde batetik, baztaneraren *gaten*, *guti* eta *datzut* formak erabiltzen dituzte; bertzetik, *esango* forma ‘batuagoa edo erdialdekoagoa’ eta azkenik, *superguti*, gazte erregistroaren bereizgarria.

Dialektoen nahasketa horren adierazgarri dira *hobeto* edo *ondo* barra-barra erabiltzea Iruñeko gazteen ahotan eta Nafarroako ekialdeko herrietaraino heldu dira, baita zenbait atzizki ere, hala nola *-gura*, *-gure*: *logurea*, *negargurea*. Horren arrazoa soziolinguistikoa da, ez bairik gabe. Izan ere, kontu horretan zererran handia dauka sare sozialak: gazte gehienek hiriburuetan ikasten dute, herrietatik irteten dira eta, gazteagoak direnean, eskualdeko ikastetxeetan ikasten dute eta horietan nahasketa linguistikoa nabarmena da. Eta, horrez gain, badago Internet, telebista, musika, unibertsitate eta abarren eragina. Dialektoen eta euskara batuaren arteko nahasketa edo txandaketa gero eta agerikoagoa da. Mendebaldeko dialektoen ezaugarri dialektalak eremu osoan orokortzen ari dira. Hortaz, ondoriozta dezakegu gazteek euskara batua, inguruneko dialektoa, bertze dialekto batzuk eta bertze hizkuntza batzuetako esamoldeak bereizi gabe erabiltzen dituztela, hiztunen jatorri linguistikoaren arabera, nahasketaren proportzioa ezberdina bada ere.

**Bibliografia**

- Agueyssi, R. & Fishman, J., 1970, «Language Attitudes Studies. A Brief Survey of Methodological Approaches», *Anthropological Linguistics*, 12, 137-157.
- Alfonzetti, G., 2003, «The conversational dimension in code-switching between Italian and dialect and dialect in Sicily», in Auer (ed.), *Code-Switching in conversation. Language, interaction and identity*, London and New York, Routledge.
- Alvarez-Cáccamo, C., 2003, «From “switching code” to “code-switching”: Towards a reconceptualisation of communicative codes», in *Code-Switching in conversation. Language, interaction and identity*, London and New York, Routledge.
- Appel, R. eta Muysken, P., 1996, *Bilingüismo y contacto de lenguas*, Ariel Lingüística.
- Auer, J. C. P., 1984, *Bilingual Conversation*, Amsterdam-Philadelphia: John Benjamin Publishing Company.
- , 1998, «Dialect levelling and the standard Varieties in Europe», *FL XXXII/1-2*, 1-9.
- Aurrekoetxea, G., 2006, «Hizkuntza estandarren eta dialektoen arteko bateratze joerak», in *Studies in basque and historical linguistics in Memory of R. L. Trask*, Lakarra & Hualde (arg.), 133-161.
- Bañón, A.M., 1993, «Adolescencia, variación lingüística, competencia metacomunicativa y enseñanza de la lengua», *Estudios de lingüística de la Universidad de Alicante*, 9, 253-285.
- Beinhauer, W., 1964-1991, *El español coloquial*, Madrid, Gredos.
- Bentahila, A., 1983, «Motivations for code-switching among Arabic-French bilinguals in Morocco». *Language and Communication* 3, pp. 233-243.
- Bernstein, B., 1971, *Class, Codes and Control*, vol 1 London; Paladin.
- Blas Arroyo, J., 1993, *La interferencia lingüística en Valencia*, *Estudios Sociolingüísticos*, Unibersitat Jaume I.
- Bortoni-Ricardo, S., 1985, *The urbanization of rural dialect speakers*, Cambridge Studies in Linguistics, Cambridge University Press.
- Bott, E., 1971, *Family and social network*, Tavistock, London.
- Briz, A., 1996, *El español coloquial: situación y uso*, Madrid, Arco / Libros.
- , 2001, *El español coloquial en la conversación. Esbozo de parapragmática*, Ariel Lingüística.
- Briz, A. & Grupo Val. Es. Co., 2000, *¿Cómo se comenta un texto coloquial?*, Ariel Practicum.
- Brown, G., 1994, *Language and Understanding*. Oxford University Press, Oxford.
- Bullock, Bárbara & Toribio, Almeida (ed.), 2009, *Linguistic Code-Switching*, The Cambridge Handbook, Cambridge University Press.
- Camino, I., 1998, «Zer dago dialektologiaren gibelean?», in *Nafarroako hizkerak*, I. Camino (arg.), 11-145.
- Clyne, M.G., 1967, *Transference and Triggering*, Martinus Nijhoff, The Hague.
- Cortés, L., 1995, *El español coloquial, Actas del I Simposio sobre análisis del discurso oral*, Universidad de Almería, Servicio de Publicaciones.
- Dijk, T.V., 1992, *Text and Context: Explorations in the Semantics and Pragmatics of Discourse*. Longman. Londres.
- Eastman, C. M., 1992, *Codeswitching*, Multilingual Matters LTD, Clevedon, Philadelphia, Adelaide.
- Epelde, I. & Oyarçabal, B., 2009, «Code Switching en las variedades orientales del vasco», *IKER-UMR 5478 Basque Text and Language Study Center*, Baiona.
- Esnaola, I., 1997, «Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain zertan den ulertzeko zenbait argibide», *Soziolingüística bat* 24, 63-75.
- , 1999, *Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain*, Soziolingüística, Ikerkuntza Kuadernoak, Udako Euskal Unibertsitatea.
- Euskaltzaindia: [http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua\\_0113.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0113.pdf)
- Eusko Jaurlaritz, 2000, *Kontuan izan! Akatsak zuzentzen*, Eusko Jaurlaritz.

- , 2004, *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Vitoria-Gasteiz.
- Ezeizabarrena, M. J., 2009, «Development in early Basque-Spanish language mixing», to appear in J. Grinstead (ed.) (2009), *Hispanic Child Languages: Typical and Impaired Development*. Amsterdam: Benjamins.
- Garzia Garmendia, J., 2005, *Kalko okerrak*, Ikasmaterialetako hizkuntzaren egokitasun-irizpidiak finkatzeko Aholku Batzordea, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
- Giles, H., 1979, *Language and Ethnic Relations*. (arg.) Pergamon. Oxford.
- Gómez Molina, J. R., 1986, *Estudio sociolingüístico de la comunidad de habla de Sagunto*, Valencia, Institució Alfons El Magnànim.
- Hudson, R., 1981, *La sociolingüística*, Barcelona, Anagrama.
- Ibarra, O., 1997, «Euskararen eraginaren aztarnak Erroibarko gaurko hizketan», *Cuadernos de Eusko Ikaskuntza*, Ohienart 15, 61-122.
- , 2008, «Sobre estrategias discursivas del lenguaje de los jóvenes vascoparlantes: aspectos pragmáticos y discursivos (conectores y marcadores)», in *Gramatika jaietan, Patxi Goenagaren omenez, ASJU-ren gehigarriak*, L1, 395-411.
- , 2008, «Apuntes sobre interferencia castellano-vasca en el lenguaje juvenil actual: léxico, calcos y transferencia lingüística», in *Euskal-erromantze Linguistika II Jardunaldiak*, Bilbo.
- Íñigo, P., 2007, «Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan», *Euskera* 52, 291-318.
- Labov, W., 1966, *The social stratification of English in New York City*, Washington: CAL.
- Larringan, J., [http://www.euskara.euskadi.net/r52-20726/es/contenidos/informe\\_estudio/azter1\\_1\\_aholkubatzorde\\_05\\_05/eu\\_8513/adjuntos/euskararen\\_kalitatea\\_eu.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r52-20726/es/contenidos/informe_estudio/azter1_1_aholkubatzorde_05_05/eu_8513/adjuntos/euskararen_kalitatea_eu.pdf)
- Lezeta, M. E. San Martín, 1991, *Giro urbanoko gazteak eta Euskara*. Bilbao, BOAN, S.A.
- López Morales, H., 1994, *Sociolingüística*, Gredos.
- Milroy, L., 1997, *Observing & Analysing Natural Language*, Basil Blackwell.
- , 1985, *Language and social networks*, Oxford, Blackwell, 1987.
- & Muysken, P., 1995, *One speaker, two languages*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Montes Giraldo, J. J., *Dialectología general e hispanoamericana*, 3 edizioa, Bogotá, Instituto Caro y Cuervo.
- Moreno Fernández, F., 1998, *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje*, Ariel Lingüística, Barcelona.
- Muñoa, I., 1997, «Pragmatic functions of code-switching among basque-spanish bilinguals», *Actas Doi Simposio Internacional sobre o bilingüismo*, 528-541.
- Muysken, P., 2000, *Bilingual Speech, A Typology of Code-Mixing*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Myers-Scotton, C., 2000, *Contact Linguistics. Bilingual Encounters and Grammatical Outcomes*, Oxford: Oxford University Press.
- Ormaetxea, J. L., 2008, «Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa», *FLV* 108, 249-262.
- Payratos, L. L., 1985, *La interferència lingüística*, Curial edicions Catalanes.
- Pena Díez, C., 2004, «What do bilinguals think about their «Code-Switching»?», *RAEL: revista electrónica de lingüística aplicada*, 3, 146-157.
- Poplack, S., 1980, «Sometimes I start a sentence in Spanish and termino en español: towards a typology of code-switching», *Linguistics* 8, 1980, pp. 581-618.
- , 1983, *Lenguas en contacto*, in López Morales (koord.), *Introducción a la lingüística actual*, Madrid, Playor.
- Preston, D. R., 1989, *Perceptual Dialectology*, Dordrecht, Foris.
- Pujolar, J., 2001, *Gender, heteroglossia and power, A sociolinguistic Study of Youth Culture*, Mouton de Gruyter.

- Rampton, B., *Crossing: languages and ethnicity among adolescents*, Harlow, UK and New York; Longman.
- Rodríguez, Félix (arg.), 2002a, *Comunicación y cultura juvenil*, Ariel social, Barcelona.
- , 2002b, *El lenguaje de los jóvenes*, Ariel social, Barcelona.
- & Esnaola, I., 1996, «Idatzizko euskara batua eta ahozko euskararen arteko kontraesanak. Euskal herriaren nortasun kolektiboaren eraikuntzan (gazte-hizkeraren kasua)», *Tantak* 16, 67-78.
- & Esnaola, I. (arg.), *Euskara mintzatuaren erronkak*, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.
- Romaine, S., 1989, *Bilingualism*, Oxford, Blackwell.
- Rotaetxe, K., 1999, «Alternancia de código: uso y restricciones tipológicas», *FLV* 31, 59-72.
- San Martín, J., 2000, *Lenguaje y cultura marginal, El argot de la delincuencia*, Cuadernos de Filología Anejo XXV, Facultad de Filología Universitat.
- Salaburu, P., 2002, *Euskararen etxea*, Alberdania.
- & Lakar, M., 2005, *Baztango mintzoa: Gramatika eta hiztegia*. Iruñea, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- Silva-Corvalán, C., 1994, *Language contact and change. Spanish in Los Angeles*, Oxford, Clarendon Press.
- , 1988, *Sociolingüística. Teoría y análisis*, Ed. Alhambra Universidad.
- Slobin, D. I., 1997, «Mind, code, and text», in J. Bybee, I. Haiman & S. S. Thomson (eds.), *Essay on Language function and language type*. Dedicated to T. Giron (pp. 437-467), Amsterdam / Philadelphia, John Benjamin.
- Thomason, S., 2001, *Language contact*, Edinburgh University Press.
- Tobin, Y., 1990, *Semiotics and Linguistics*, Longman, Londres.
- Trudgill, P., 1974, *The Social Differentiation of English in Norwich*, London: Cambridge University Press.
- Vigara Tauste, A. M., 2002, «Estudio del español coloquial: razones para el optimismo», *Español actual: Revista de español vivo*, 77-78.
- Weinreich, U., 1953, *Languages in Contact. Findings and Problems*, Nueva York. Publications of the Linguistic Circle of New York. (1970) London, Oxford U. Press.
- Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordea-Consejo Asesor del Euskera del Gobierno.
- Zuazo, K., 1997, «Oiartzungo hizkeraren kokagunea», *Fontes Linguae Vasconum*, 397-425.
- , 1998a, «Euskalkiak, gaur», *Fontes Linguae Vasconum*, 191-233.
- , 1998b, «Nafarroako euskal hizkerak», in Iñaki Camino (arg.), *Nafarroako euskal dialektologiako jardunalkietako agiriak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 1-22.
- , 2000, *Euskararen sendabelarrak*, Irun, Alberdania.
- , 2004, *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.
- , 2008, *Euskalkiak euskararen dialektokak*, Elkar, Donostia.
- Zubiri, J. J., 2000, «Arano eta Goizuetako hizkera», in Koldo Zuazo (arg.), *Dialektologia Gaiak*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia. 85-120 Vasco: [http://www.euskara.euskadi.net/r59738/es/contenidos/informacion/7041/es/\\_2447/adjuntos/calidad\\_euskera\\_es](http://www.euskara.euskadi.net/r59738/es/contenidos/informacion/7041/es/_2447/adjuntos/calidad_euskera_es).  
[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1073656018](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1073656018)





# EKIALDEKO EUSKARAREN IRAGANAZ

Iñaki Camino

UPV/EHU

## Laburpena

Saio honetan ekialdeko euskararen iraganaz lan ildo bat abiarazi dugu: ikuspegi eta galdera zenbait dakartzagu Euskara Batu Zaharraren garaitik XVII. mendea bitarte Zuberoan eta Erronkarin gertatu ahal izan zenaz; Zuberoako lehen idazkiak XVII. mende-koak dira. Gure ustez Zuberoako eta Erronkariko euskal erkidegoak goiztar bereizi ziren gainerateko euskaldunengandik: Euskara Batu Zaharretik honat ibarrotan irauin duen arkaismoen sorta gotorrak bederen, hori adierazten digu.

Euskal Herriko ekialdeko 140 hizkuntza-ezaugarri aztertu ditugu eta tasunok erakutsi digute aspaldian Zuberoako eta Erronkariko mintzoak elkarrengana egun baino hurbilago zeudela; hau ez dugu, artean bezala, ezaugarri fonikoen azterketaren bidez bakarrik frogatu, izenaren eta aditzaren morfologiako atalak eta sintaxiko ezaugarriak ere aztertu eta alderatu ditugu.

Zuberoako eta Erronkariko mintzoetarik bakoitzaren lehen testuak idatzi zirenerako, beren izaera eta estatua aski gorpuzturik zeukaten mintzo hauek. Guk iraganari so egin diogunez, batera dituzten ezaugarriak begiratu diegu gehienbat; mintzo bakoitzaren berrikuntza berankorrei ez diegu horrenbesteko arretarik jarri. Ekialdeko ezaugarri batzuek denboraren buruan eremua galdu dutela erakusten du ikerlan honek, funtsean ekialdeko eskualdeko grabitazio-indar linguistikoa aldatuz joan dela.

## Abstract

*We have initiated a route of study on the past of the Basque oriental variety. It has been investigated on what could have happened from the common ancient Basque up to the 17th century in Zuberoa's valleys (Basque Country of France) and Erronkari (Navarre), since it is in the 17th century when the first Basque texts of Zuberoa appear. We believe that in the epoch immediately later to the ancient common Basque, speakers from Zuberoa and Erronkari were dismembered soon of other communities of Basque speech; it is what gives to understand the high number of archaisms supported in both valleys.*

*We have analyzed 140 linguistic oriental characteristics, which show that Zuberoa and Erronkari were in antiquity closer than at present. We have proved this not only as till now, by means of phonic characteristics, but also using numerous elements of verbal and nominal morphology, besides some syntactic aspects.*

*By when the first texts of Zuberoa and Erronkari appeared, these speeches had already their identity and their characteristics developed enough. We have concentrated on the past of these speeches and have analyzed the common characteristics of both valleys, not the differential last-minute innovations. We have showed that with the step of the centuries, diverse oriental characteristics have been losing area and that the linguistic gravitation of the oriental zone has changed.*

## 1. Sarbide

Orain artean Euskal Dialektologia historikoa aipatu denean Bizkaiko edo mendebaleko mintzoa izan da eztabaidagune, baina saio honetan ekialdeko euskararen iraganaz lan ildo bat abiarazi nahi dugu: ikuspegi eta galdera zenbait dakartzagu Euskara Batu Zaharraren garaitik XVII. mendea bitarte eskualdean gertatu ahal izan zenaz,<sup>1</sup> orduko berri argitzen laguntzen hasteko. Zuberoako berrikuntzen sorburu geografikoez ere oharño batzuk eskainiko ditugu. Gure ustez Zuberoako eta Erronkariko euskal erkidegoak goiztar berezi ziren gainerateko euskaldunengandik: Euskara Batu Zaharretik honat ibarrotan iraun duen arakismoen sorta gotorrak bederen, hori adierazten digu.

Ekialdeko euskara aztertzeko funtsean Zuberoako mintzoa baliatu dugu, baina Erronkarikoarekin sistematikoki alderaturik; ez ditugu eragin-eremutat jo litezkeen Zaraitzu eta Amikuzeko mintzoak ahanzi, ezta Baxenabarreko euskararen joerak ere, baina ez ditugu Zuberoa-Erronkarikoak bezain sakon aztertu. Ez diegu mende guztiei arreta maila bera ezarri; testu zaharrenei so egin diegu Zuberoan, XVI, XVII eta XVIII-koei; XIX-koei gutiago; Erronkariko idazkiak berankorrek dira: bada beharbada XVIII. mendekorik, baina nagusiki XIX-koak dira eta dauden apurrei so egin diegu, baina hizkuntza-ezaugarri batzuk aurkitzeko XX. mendeko ahozko etnotestuetara jozteaz beste biderik ez dugu izan.

Zuberoako eta Erronkariko mintzoetarik bakoitzaren lehen testuak idatzi zirenerako, beren izaera eta estatusa aski gorpuzturik zeukaten mintzo hauek. Guk iraganari so egin nahi diogunez, batera dituzten ezaugarriei begiratu diegu gehienbat; mintzo bakoitzaren berrikuntza berankorrei ez diegu horrenbesteko arretarik jarri, bereziki Erronkarikoei: anitz dira, alderdi fonikoan bereziki, eta itxura arras berezia ematen diote ibar horretako mintzoari. Lan honek ekialdeko iraganeko euskara du xedea, ez XX. mendeko Erronkariko edo XXI. gizardiko Xiberuko *üskaa*.<sup>2</sup>

Itxaron zitekeenez, ekialdeko ezaugarri batzuek eremua galdu dutela erakusten du ikerlan honek: denboraren buruan, euskal ekialde zabaltzat har dezakegun eskualde horren ezkerreko alderdia ez dela ekialdearen erdigunetik berriztatu, funtsean eskualdeko grabitazio-indar linguistikoa aldatuz joan dela.

<sup>1</sup> Saio hau FFI2008-01844 kodea duen *Origen y evolución de los dialectos vascos* (MEC) ikerketa egitasmoari dagokio eta baita UPV/EHU-ren *Lingüística teórica y diacrónica: gramática universal, lenguas indoeuropeas y lengua vasca* UFI 11/14-ri ere. Zinez eskertu nahi ditut lanaren lehen idatzaldiari oharrak egin dizkieten Julen Manterola, Céline Mounole eta Ekaitz Santazilia lankideak.

<sup>2</sup> Ondorioz, ez gara Erronkari ibarreko aldaeren batasunaz edo batasunik ezaz mintzatuko; ezaguna denez, Bidankozek Zaraitzu alderdira zuen joera; Erronkariko ohiko *egoatx* & *ugatx* Bidankozen *ugalte* zen, Urzainkiko *urandi* ahanzi gabe (Azkue 1931: 260). Erronkariko ahoskerako berrikuntzak ere ez ditugu aipatuko; esate batera, dardarkariak txistukari kutsua har zezakeen: *aurr(s)ák* 'haurrak' entzuten zuen Koldo Artolak Uztarrozen (2000: 493).

Gure datuek Zuberoa eta Erronkari ibarrak aspaldian egun baino franko baterago zebiltzala frogatzen dute, eta oraingoan ezaugarri fonikoak nola morfosintaxiko tasunak aurkezten ditugu.

## 2. Mintzoen batasunaz eta zatiketaz

2.1. Dialektoaz jardutean, hizkuntza baten zatiketa eskualdeetan gaindi nola gertatu den azter daiteke, hizkuntzaren bilakabide historikoak eskualde batzuetan eta besteetan nola gauzatu diren: dialektologialari anitzen eginkizuna, zatiketaren emaitza historikoa geografian gaindi nola gertatu den aztertzea da.

Hizkuntza-ezaugarri eta bilakabideek dinamika geografikoa inoiz aski bateratsu eramanik ere, hizkuntza-aldaketak, aldaketa ororen erritmoa, aldaketa horien norabidea, ezaugarri zahar eta berriak, hautuak, ez dira geografiako eskualde guztietan berdin-berdinak izaten; aldaketa eta erritmo desberdin horiek eskualdeetan gaindi eta denboran zehar batasunik ez dutenez, hizkuntzaren barreneko aldeak, desberdintasunak eta zatiketak sortzen dira; binperrez, gizarte batasun handiko eskualdeetan, orografia mesedegarria lagun, dialektoak sortzen dira.

Euskal testu zaharrentaririk honat dialektoak ageri dira euskaran, barne zatiketa ageri du gure hizkuntzak: zatiketa horren atal nagusiak euskalkiak ditugu. Baina ez da ikusten zatiketaren sakontasuna euskalkitik euskalkira horrenbestekoa denik, ezaugarri bateratzaile ugari ditu euskarak, hizkuntzaren bazter geografiko guztietan ageri direnak —bi saihetsetan ere bai—, eta alde horretatik, egun ezagutzen dugun euskararen baitan ez da sumatzen hizkuntza batetik beste bigarren bat ateratzeko moduko desberdintasunik izan denik; ezagutzen dugunaren arabera, euskararen barreneko zatiketa ez da horren handia izan.

Hizkuntzaren zatiketa geografikoa erabatekoa ez izateak iradokitzen du, hizkuntza-egoera batuagoa izan zen garaia ez dagokeela hain urrun, ez dela aski denbora iragan euskal zatiketa berebizikoa izan dadin: ez dugu euskararen hizkuntza haurriderik ezagutzen, euskara hizkuntza bakarra da, nahiz honek ez duen esan nahi inoiz euskararen seniderik izan ez denik; guk orain ez ezagutzeak ez du esan nahi izan ez duenik.

Euskal mintzoen arteko batasuna orain baino handiagoa zen garai hura Koldo Mitxelena Goi Erdi Aroan kokatu zuen orain duela 30 urte: hipotesiaren arabera, euskal jendeen historiarekin nola edo halako erlazioa duten arrazoi batzuegatik (1981: 309-313), v-vi. mendeetan zekusan errenteriarrak hizkuntza-batasun handiagoko sasoi edo egoera hura eta “*éuskaro común*” izendatu zuen orduan, egun *Euskara Batu Zaharra* esan ohi dena.

Aspaldiko garai hartaz eta orduko euskaraz diharduela, Zuberoako herri guztiek Nafarroan, Gipuzkoan edo Araban, herri, mendi edo etxe itxurapean izenkidea dutela diosku Txomin Peillenek. x-xii. mendeen bitartean ezarritako herri izen berezi batzuen antzekotasunean oinarriturik,<sup>3</sup> uste du Peillenek, “Zuberoa Alfontso Borrokariak eta nafar errege batzuek birrantolatua” izan zen garaian, “Mauleko gartzelua

<sup>3</sup> Cf. Ahetze, Algorri, Aloze, Altabe, Altazarai, Añarbe, Andoze, Aranburu, Aspilda, Basabürü, Doneztebe, Garindaine, Hegillor, Larraine, Iruri, Lakarri, Izarbe, Ligi, Liginaga, Mendibil, Mendikota, Muskildi, Ozagaine, Ozaze, Pagola, Santa Grazi, Sarra, Xarrikota, Sorueta, Ündüraine, Urdaitx, Zibiri, Zihiga (Ziga) eta abar.

eraiki zutenean, orduan, zubererak ez zue[la] naparrerarekin arte haundirik izango, izen horiek lekuko” (1992a: 249).

Arrazoi horiek bitarteko ala ez, ulergarri da mendeetan gibelka joanik Nafarroa Garaiko eta Zuberoako euskara orain diren baino berdina izatea, areago x-xii. mendeen bitarte hartan euskararen batasun garaia Mitxelenak proposatu zuen bezain hurbil baldin bazegoen, hau da, Mitxelenak postulatu zuen sasotik Peillenek aipatzen duenera bospasei mende baizik iragan ez baldin bazen.

2.2. Egungo ikuspegian, nortasun handieneko aldaki dialektalak, berezko ezaugarri gehien dituztenak, saihetsetakoak dira eta Euskal Herriko mendebalean eta ekialdean daude; ohiz hizkuntzetan dinamika eta nahasketarako aukera gehieneko eskualdeak erdigunekoak izaten dira, baina auzi mota hauek ez dira soilik geografikoki aztertu behar, orografikoki, politikoki, sozio-ekonomikoki eta kulturalki ere begiratu behar zaie hizkuntza baten barreneko eskualdeen arteko hartu-eman, nahasketa eta dinamikei.

Eremu batean geografia-hedadura handiko hizkuntza-ezaugarriak baldin badaude, pentsatu ohi da kronologiaren aldetik ezaugarri horiek badutela halako antzinasun bat, denbora iragan behar izan duela ezaugarri horiek beren hasierako sorburu geografikotik hedatu eta zabalera handia hartu arte, eta beraz, eskualde zabal horretan mintzatzen den dialektoa ez dela atzo goizekoa; hartara, pentsa liteke honelako zer-bait gertatu datekeela Euskal Herriko mendebalean, baina ezaugarri hain hedatu horien antzinasuna aztertzean, hizkuntza-ezaugarrien barne-azterketak ere zeresan handia ukan beharko luke.

Eskualdeak banatzen dituzten ezaugarri batzuk daude mendebalaren barrenean, baina badaude beste ezaugarri batzuk, bertako eskualdeak zatitzen ez dituztenak eta mendebal guztikoak direnak. Ulertzen da euskarak inoiz zatiketa garaian mendebaleko atala garatu zuela eta ondotik, mendebal horren barrenean hedadura gutiagoko beste berrikuntza batzuek beste zatiketa txikiago batzuk eragin zituztela; mendebal guztiko ezaugarri berri eta berezi haiek baino berriago diren beste ezaugarri batzuek batu dituzte gero mendebalaren barrenean eskualde txikiago horiek; era berean, eskualde hau edo hura ondoko beste batzuetarik zatitu eta berezi ere dute berrikuntza berriok. Hedadura handiko berrikuntza eskusibo batzuek eratu dukete garai batez euskararen mendebala eta eskualde zabal horren barrenean, geroagoko beste berrikuntza batzuek barne eskualdeak gauzatu edo eraiki dituzkete, berriagoak, eskusiboagoak, bereziagoak edo markatuagoak diren beste ezaugarri batzuek; euskalkiaren barreneko zatiketa berriago batzuek beste hizkuntza-eskualde txikiago batzuk eratu dituzkete.

Euskara Batu Zaharraren zatiketari, mendebaleko euskalkia jotzen du Koldo Zuazok besteetarik bereizi zen lehen taldetzat: besteengandik desberdinena dela irizten dio, hizkuntza-aldaketa gehien gauzatu duena; aldaketa ugari horiek, gainerateko dialektoetarik bereizten lehena izan zela adieraz lezakete beharbada; balizko azalpen bat ere ematen du: “Es posible que el alejamiento de Álava y Vizcaya del Reino de Navarra, y su acercamiento al Reino astur, en el siglo VIII, y, más tarde, al Reino de Castilla, tenga algo que ver con ese hecho” (2010: 192). Zuazoren ustez, Euskara Batu Zaharretik urruntzen kronologikoki lehenak mendebaleko euskaldunak izan ziren eta horren arrazoia ematean, eremu berean berrikuntza sorta handi bat gertatu izana aipatzen du, baina ez du gehiago adierazten.

2.3. Aldiz, Euskal Herriko ekialdea, orain ezagutzen duguna bederen, zatituago dago euskararen aldetik mendebala baino, batasunaren eta hedaduraren aldetik ez du horren eskualde zabala biltzen, zatiketa gehiago dago ekialdeko Euskal Herriko ibar eta eskualdeetako mintzoen artean, baina horrek ez du esan nahi bertan nortasun eta batasun handiko eskualderik batere ez dagoenik: gorde diren ezaugarri zahar ugariak nortasuna ematen diote Euskal Herriko ekialdeari eta bestalde, Zuberoa eta ondoko eskualdeetan badago ezaugarri berri eta berezien sail bat, hedadura jakin bat harra-patu duena, baina eremu dialektal hau ez da Euskal Herriko mendebalekoa bezain zabala. Ekialdearen barne zatiketaren berri eman liezaguke hurranen ezaugarri edo adibideak: \*-*ani* zaharretik datozen hitzetan ez dago batasunik ekialdeko ibarren artean: erronkariarrek *artzañ* egiten zuten, sudurkaritasuna gorderik, baina zaraitzuarrek *artzai*, Nafarroa Garaiko euskaldun gehienek bezala; aldiz, zuberotarrek *artzañ* egiten dute eta amikuztarrek *artzain* & *artzaña*; periferian, aetzen *artzei* eta baigorriarren *artzain* aldaerak ditugu; hondarreko erak baztandarren *artzain* & *artzañ* —baina Baztango Basaburuan *artzai*— dakarzkigu gogora. Aldiz, eta adibide huts gisa dakargu, euskaldun gehienek *-ain* egiten dugun hitz bukaeraren emaitzak batasun handiago du Bizkaian: *gan* 'gain', *ezpan* 'ezpain', *laban* 'labain', *orban* 'orbain', *zan* 'zain' daude historikoki mendebalean (*FHV*, 139); EAEL bilduman (1984-90) Araba eta Bizkaiko erantzun guztietan *espan* (13) & *ezpan* (2) datoz; jabetzen gara ez dela adibide sistematikoa, ez dira hitz batzuk baizik, baina erakusgarria da adibide hau.

Euskal Herriko ekialdeko eskualde honetako dialekto nagusia, eskualde berean berezko ezaugarri gehien biltzen duena, zuberera edo xiberutarra da, baina eskualde honetako euskal eren eragin-eremua zabalagoa da, Xiberutik ezker eta hegoaldera bai baitira hainbat ezaugarri Zuberoa guztian baliatzen direnak; goiti eta eskuin ez, eskualde horiek erromanikoak dira egun. Adieraztekoa da, bestalde, Xiberutik Bearnora bitartean, hegoaldean mendiek irispidea zailtzen dutela Santa Grazi, Hauze edo Montori-Berorizetik eta iparrerago ere, Barkoxeko aldetik gizarte-etena dakar basoak Josbaig inguru horretan.

Dialekto honen ezagutza kronologikoa ez da mendebaleko euskararena bezain sakona; xv. mendetik honatako testu zahar batzuk ditugu Euskal Herriko mendebalean, eta ez dira xvi eta xvii. mendeetako idazkiak falta; Euskal Herriko ekialdekoak baino anitzez ere ugariago dira. Aldiz, zuberera garbia dakarren lehen idazkia xvii. mendearen hondarreko herenekoa da.<sup>4</sup>

Erdi Aroko testurik ez dugu eta toponimo edo oikonimoetarik zer ikas daitekeen ikusi beharko da; lehen abialdi batean, J.-B. Orpustanek argitaratu dituen oikonimo zerrendetan begira dezakegu (1984, 1990), fonologiako ezaugarri batzuk Erdi Aroan nola ageri diren ikusteko; bokalismoan, eman dezagun. Baina oikonimo horietan ikusten dena ez da aski orduko alderdi fonikoaz ideia sakon bat hartzeko.

Ekialdeko hizkuntza-ezaugarriez dihardugunean, xvii-xviii-xix eta xx. mendeek dihardugu funtsean, Zuberoako idazlerik zaharrenaren lan nagusiena, Belapeirerena, ia xviii. mendekoa baita, 1696koa, ahantzi gabe badela 1676ko *Pronus singulis diebus...* lan hori ere. Horren aitzinetik ez dago gauza handirik: Oihenart eta Tartas

<sup>4</sup> Zubereraren idatzizko lehen lekukotasunaren idazlearen identitatearen gaia ez da guztiz garbi dagoen kontua; Pello Agirrek arrazoi gehiago dakuski 1676 inguruko *Pronus singulis diebus Dominicus clarè...* hori Belapeirerena dela defendatzeko, alderantzizko joera hartzeko baino (1998).

idazleak, baina haien idazkietan zuberera ageri bada ere —batzuetan gehiago eta besteetan gutiago—, ez ditugu zubereraren barrenean sartzen. Belapeireren aita zen Jakes Belakoa protestantearen emaitza urritik zerbait gordetzen dugu, atsotitz bakan batzuk baizik ez, ondu zituen gramatikak eta hiztegiak galdurik diraute (*TAV*, 183-187).

Ekialdeko euskararen ideia sozializatu orokorra edo mintzo horren berezitasunen oharrena ez dela berria erakusten digu Leizarragak 1571n bere lanaren bukaera aldera Zuberoako hitz batzuk sartu izanak: izan ere, *Testamentu berriaren fina*-ren ondotik (459), hitz zuberotar batzuen saila eman zuen Leizarragak: *Çuberoaco herrian usançatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac*; Zuberoako euskara berarentzat ere berezia zela erakutsi zigun Leizarragak, ordurako senti zen zuberotarren lexikoaren berezitasuna edo nortasuna; pentsa daiteke xvi. menderako Zuberoako mintzo bereziaren halako uste edo irudipen sendo bat bazela. Bestalde, ehun urteren buruan *Pronus singulis diebus...* idazki horretan zuberera aski gorpuzturik ageri da: xvi. menderako eta Zuberoako lehen euskal testuak agertzen direnerako, zuberera dialekto gisa gauzaturik zegoela ulertzen dugu.

Ez dirudi Belapeireren edo beste nornahiren Zuberoako lehen idazki horretan ageri den mintzamolde berezi hori, Ipar Euskal Herriko idazki zaharrenetako euskaratik mende eta laurdenen buruan sortutako aldaki berri zuberotar bat denik; Etxepareren edo Leizarragaren euskaratik abiaturik, 1545 edo 1571tik 1676 bitartean, ez dugu uste Belapeireren edo beste nornahiren testu horretako ezaugarri xiberutar bereziak sortu zirenik; lehenagokoa dateke ekialdeko ezaugarri sorta hori, beraren oinarrian ez dago Etxepareren edo Leizarragaren euskara moldea.

2.4. Aipatzen dihardugun delako “euskararen ekialde” hau ez da adigai kronologikoa, izatekotan geografikoa da eta beharbada, geografikoa baino gehiago hizkuntzazkoa, ezaugarri edo tasun jakin batzuek baitihardugu izen hau aipatzean. Adigai bat hizkuntzazkoa denean, espazio jakin batean kokatu nahi izaten dugu eta geografiarekin arazoak sortzen dira, ekialdetzat jotzen dugun eskualde hori ez baita homogeneoa; grabitazio-indar linguistiko sendoa egon da historikoki Euskal Herriko ekialdean, baina eskualde horietako hizkuntza-berrikuntzak, guztiak ez dira beti eskualde beretara hedatu, ez dute ekialde guztia bateratu. Ezaugarri berriek eta zaharrek hezur-mamitu duten euskararen ekialde horretan, honako hizkuntza-konbinazioak gertatu dira geografian gaindi (Camino 2011: 786-813):

- Zuberoa & Amikuze
- Zuberoa & Erronkari<sup>5</sup>
- Zuberoa & Erronkari & Zaraitzu<sup>6</sup>

<sup>5</sup> Erronkarin baliatzen diren hitz eta aldaera lexiko batzuk aurkez daitezke diogunaren lekuko, guztiek Zuberoan kidea baitute: *arremaiatz* ‘ekaina’, *ekuri* & *ekurik* ‘geldirik’ —Uztarrozen *ekuru* (Izagirre 1959: 298)—, *eli bat* ‘pare bat’, *neskanegun* ‘larunbata’, *oiltu* ‘igorri’, *pakatu* ‘ordaindu’, *setemera* ‘iraila’, *tustatu* ‘usteldu’. Besteok aldaerak dira: *anaxe* —Zuberoan *anaie*—, *ause* ‘hautsi’, *bederatzu*, *biramen* ‘biharamona’, *egor(tu)* ‘erratzaren bidez garbitu’, *egotxi* ‘egotzi’, *entelegatu*, *ganu* ‘gogoá’, *gazna* ‘gazta’, *krutxifikatruk*, *mitil* ‘mutila’, *ungurune*, *urrieta* ‘urri hilabetea’ & ‘udazkena’.

<sup>6</sup> Hona Mariano Saturnino Mendigatxa Ornat bidankoztarrak baliatu ele eta aldaerak, hiru ibarretakoak direnak: *arres* ‘ardía’, *bedatse* ‘udaberria’, *latsun* ‘karea, kisia’; aldaerak dira *boronte* ‘kopeta’, *boztario* ‘bozkarioa’, *ebili*, *ekusi* edo *ezne*. Aldiz, Erronkari eta Zaraitzukoak baizik ez dira *eraugi* & *eragu* ‘ekarri’, *urruakide* ‘jai eguneko bazkaltiarrek’ hitzak edo *erkin* ‘atera’, *obro* ‘gehiago’ eta *xardokitu* ‘mintzatu’ aldaerak.

Aldiz, Zuberoa & Amikuze & Erronkari & Zaraitzu konbinazio laukoitza ez dugu uste gertatzen denik, hau da, lau eskualde hauetan ageri diren —baina hemen-dik kanpo baliatzen ez diren— hizkuntza-ezaugarri berriak falta dira, konbinazio geografiko hori duen hizkuntza-ezaugarririk ez dugu ezagutzen. Ekialdean ez dago hedadura handiko dialekto bat: gune nagusi bat eta haren eragin eremuak daude. Eta lau ibar horietan baliatzen den hizkuntza ezaugarri baldin badago, lau ibar horietarik kanpo ere ageri den ezaugarria da. Nolanahi ere den, ezagun du arestian ezarri ditugun hizkuntza-ezugarrien konbinazio geografiko guztietan, tasunen gune-gunea Zuberoa dela beti.

Baina geografari bezala, kronologiari ere garrantzia eman behar diogu dialektologian; izan ere, egun Zuberoan kokaturik ikusten ditugun hainbat ezaugarri ez dakigu lehen ere bertan ote zeuden, hedadura handiagoa ote zuten, ala beste nonbait sorturik, denbora iraganez bezala Zuberoara heldu ote diren; ekialdeko ezaugarrien oraingo kokagunea gauza bat da, eta Ipar Euskal Herrian eta ekialdean garai batez hizkuntza eraginak nondik nora zihoazen jakitea beste gauza bat da.

Ekialdea nolaz gorpuztu den jakiteko, metodologikoki berrikuntzen konbinazioei eman behar diegu lehentasuna; ikusi behar dugu ezaugarri berri horiek zein ekialde mota sortu duten; bestalde, ekialde hori sortu duten ezaugarriak noizkoak diren ere jakin nahiko genuke: hedadura handiko berrikuntza zaharrak diren ala hedadura murriztagoa duten berrikuntza berriagoak ote diren, ala ez bat eta ez bestea diren.

Ordea, berrikuntzez gain, iraganeko eta iraganetik honatako errealitatea ezagutzeko, ezaugarri zaharrez informazio ahalik sakonena edukitzea interesatzen zaigu, analisi zuzenak eginen baditugu, bederen; izan ere, hizkuntzaren ibilbidea argitzen digute batzuek bezala besteek ere, hizkuntzan gertatzen diren jokabide aktiboak eta pasiboak erakusten dizkigute.

Aberats da Euskal Herriko ekialdea arkaismo eta hautu partekatuetan, ondare lexiko bat eta aldaera lexiko batzuk partekatzen ditu, baina Zuberoaz kanpo hedadura zabal, homogeen eta errepikatua harrapatzen duten berrikuntzak aurkitzea zailago da; usu berrikuntzak ibarren errealitateari egokitzen zaizkio ekialdean. Eskualdeotako duela hamar-hamabost mendetako euskara ezagutzen ez dugunez, egun bederen, Zaraitzu eta Amikuze ibarrak ekialdeko euskararen eragin-eremutat jotzen ditugu, ez dira ekialdeko euskararen gune-gunea; daturik ezak ez du bi ibar hauen iraganaz uste sendorik izateko aukerarik ematen.

Dialektologian garrantzia du ezaugarri berri eta zaharretarik atera dezakegun informazioari begiratzeko moldeak. Tullio Telmon-ek dioen legez, geolinguistika, izatekoz hermeneutikoa da (1998: 799). Bestetan ere aipatu dugu: berrikuntzez landa, arkaismoek ere argibide ederrik eman diezagukete ekialdeko euskal mintzoak aztertzean. 6. atalean ikusiko dugunez, Zuberoa alderdiko berrikuntza ugari aspaldikoak dira, testuak idatzi baino lehenagokoak, baina beste berrikuntza batzuen arrastoa testuetan jarrai daiteke; hondar testuetako hauexek dira euskararen lehen zatiketa zaharrez argibiderik ematen ez digutenak; auzi horretarako interesgarriago dira, inolaz ere, arkaismoak.

2.5. Euskal Herriko ekialdeko mintzoetan arkaismo anitz batera agertzeak zer adierazten duen galdegin beharko genioke guharen buruari; bestalde, arkaismo horiek guztiek ondoko eskualdeetan ea zenbat iraun zuten jakin nahiko genuke, iduri baitu Euskal Herriko beste alderdi batzuetarik iritsi diren berrikuntza batzuek orain

ekialdera bildurik bezala ageri diren ezaugarri zahar hauen hedadura murriztu dutela. Iduri luke Zuberoa ondoko Ipar Euskal Herriko eskualde batzuk erdialdeko euskal mintzoekin hartu-emanetan hasi zirela, esaterako Garazi ibarra; Beñat Etxepareren hizkuntza-ezaugarriek salatzen dute hori. Aldiz, Zuberoa-Erronkari alderdiko euskal erkidegoko hiztunak, pentsa liteke sozio-historikoki eta ekonomikoki gainerateko euskaldunengandik goiz bereizi zirela, edo aspaldixkotik bereizxe ibili zirela segurik.

Antzinako euskararen kutsua duten ezaugarri ugari ditu zubererak eta Erronkarin ere baliatu dira tasun hauetarik anitz, zeinetarik franko Euskal Herriko mendebalean berragertzen baitira; gainerateko euskalkietan garatuago dauden ezaugarri berriak Zuberoan falta baldin badira edo geroago iritsi badira, zuberotarrek Euskara Batu Zaharrekoak izan daitezkeen ezaugarri batzuei eutsi baldin badiete, Erronkariko kallesen mintzoarekin batera eutsi ere, uler liteke ekialdeko euskal saihets hau goiz gelditu zela bere baitara bildurik, eta Euskara Batu Zaharreko garaitik honat, Zuberoako eta Erronkariko erkidegoak, eta beharbada garai hartan zabalagoa izan zitekeen beste alderdi batek, dela mendebalerago edo dela ekialderago, beste grabitazio-ingar linguistiko bat eratu zutela, beren artekoa zena, gainerateko euskaldunekin hartu-eman sakinik eduki gabe, beste euskaldunek emeki-emeki gauzatzen zituzten berrikuntzen alderat soraio; honek guztiak ez du iradokitzen ekialdeko euskaldun beren baitara bildu hauek berrikuntzarik egiten ez zutenik. Berenak ziren berrikuntzak garatu zituzketen eskuinaldeko saihetseko euskaldun hauek, baina ez dakigu xuxen berrikuntza horiek noizkoak diren, beharbada ez dira horren berrikuntza zaharrak, batzuek ez dirudite hain zaharrak.

Grabitazio-ingar linguistiko berezi hori eratu zuten saihetseko euskaldun ekialde-tar hauek, egun beren mintzoan Euskara Batu Zaharraren garaioak diruditen ezaugarriak darabiltzatenek, goiz ekin zioten beren dinamika sozio-geografiko bereziari eta goiz bereizi ziren gainerateko euskaldunengandik: ez dituzte beste hauen berrikuntzak bildu, horregatik gorde dituzte hainbat arkaismo, ez dira beste berrikuntza horien helmenean egon. Uste dugu, ekialdeko euskara, ezaugarri zahar anitzi eutsi dien ekialdeko euskara, gerora berezko berrikuntza ugari garatu duen ekialdeko euskara, goiz bereizi zela gainerateko mintzoetarik, erdialderagoko euskal hiztunekin hartu-emanen egotetik goiz gelditu zirela ekialdeko euskaldunak.

Iraganean ekialdeko jendeen arteko hartu-emanak hertsia zirela adierazten ez gara lehenak: Koldo Mitxelenak berak 1961-62an baieztatzen zuenez, “el roncalés y el suletino fueron un dialecto único en tiempos no demasiado alejados” (1985: 457). Ordea, Azkue batek ez zekusan desberdintasun gutiago Zuberoatik Erronkarira, Gipuzkoatik Lapurdira dagoen baino (1931: 207). Badirudi, beraz, azken garaian Erronkari eta Zuberoa urrundu direla, baina iraganean baterago zebiltzala ez dago zalantzarik, hizkuntza-datuek dioskute hori. Bonapartek Erronkariko euskara zubererari atxiki zion, baina Azkuek euskalki beregaintzat zekusan; ondotik, Mitxelenak iradoki legez (1964a: 57), Zaraitzuko eta Erronkariko mintzoak batera kokatu ditu Zuazok (1998: 230), zubereratik bereiz “ekialdeko nafarrera” deitu euskalkia eraturik.

Xiberutarrek ezker Erronkarira joko zuten, Eraizeko bortuan gaindi Belaguarat, Izaba herrira hain zuzen; eskuin, berriz, Zaraitzura jo zezaketen, Orhi gainditurik Otsagabira jaisteko. Hiru ibarrok nagusiki artzain gizarteak izan dira aspalditik eta beren arteko hartu-emana menderen mende hertsia izan da.



2.6. Hizkuntza-datu absolutuek mintzo bat ezagutzen lagundu lezakete; badirudi xiv. mendean oraino gauzatu gabe dagoela Zuberoan *i-u* > *u-u* bilakabide edo asimilazioa, Amikuzen eta Erronkarin ere baliatzen dena; bestela esan, Zuberoa eta Erronkari erkidegoek bokal asimilazio hau elkarrekin gauzatu duten aldetik, xiv. mendetik honat zuberotar eta erronkariarrek hartu-emanen jarraitu dukete; Zuberoan bederen, xiv. mendetik honat gauzatu da (Peillen 1992a: 256), baina ez dugu Erronkariko orduko datuen berri; bietan gauzatu dela da dakiguna, hartu-emanaren lekuko.

Aldiz, beste bilakabide baten balizko datek ez dute interpretazio hau guztiz aldeztuen; xiv. menderako badirudi *u* > *ü* palatalizazioa Zuberoan gauzaturik zegoela (Peillen 1992a: 252). Probentzal-okzitanieran edo hizkuntza honen dialektoa den gaskoianean noiztik dagoen ez dago guztiz garbi.<sup>7</sup> Gaskoinaren barrenean *u* → *ü* bilakabidea berankorra izan zela dioten iritzia bildu zuen Lafonek (1962: 99-100), baina badirudi Erdi Arorako *ü* hori badela gaskoianean, betiere xiv. mendea baino lehen;<sup>8</sup> cf. Anglade (1921: 82-4), Cremonesi (1967: 38-9) eta Fernández González (1986: 133-141); Gerhard Rohlfs-ek (1977 [1935]: 434 §) eta Jules Ronjat-ek (1930: 72 §) zail dakusate aldaketaren garaia zehaztea; delako *u* → *ü* palatalizazio honek, Zuberoa, Amikuze eta Bardoze elkartu ditu, baina Erronkari-Zaraitzuetarik bereizi du Zuberoa.<sup>9</sup>

*i-u* > *u-u* bilakabidearen frogan oinarriturik xiv. mendetik honat mintzoaren aldetik Zuberoa eta Erronkari batera ibili direla susma badezakegu, nolaz ez dute erronkariarrek partekatu xiv. menderako Zuberoan ba omen dagoen *u* > *ü* palatalizazio hori?<sup>10</sup>

Uler daiteke ere, ez dela gauza beharra zuberotarrek bearnesei hartu zieketen *u*-ren palatalizazio hori geroago edo aldi beretsuan erronkariarrek zuberotarrei hartzea, hau da, kutsadura bat gertatu zela, baina ez bi baitezpada: erronkariarrek ez zutela zuberotarren *ü* berria hartzeko presiorik sentitu, ez alderdi fonikoan ezta gizartezkoan ere.

Datuen zati baten arabera, Zuberoak xiv. mendean Erronkariri begira jarraitzen zukeen, gerora gauzatu diren berrikuntzak partekatu baitituzte, baina Amikuzerekin ere egiten zituzten berrikuntzak xiberutarrek; ezaugarri sorta bat datatu beharko genuke, argi erakutsi lezana garai hartan Zuberoa Erronkari aldera ala Amikuze eta Ipar Euskal Herri aldera begira zegoen, eta honetan Zuberoako Basabürüa eta Pettarra eskualdeek jokabide desberdina ukan izana ere litekeena da.

Jakin nahiko genuke Zuberoako euskarak nora begiratzen zuen gehiago, eta hori berrikuntzen datazioaren bidez edo kronologia erlatiboaren bidez jakin daiteke, baina

<sup>7</sup> Gaskoin dialektoaren barreneko aldakia da euskaldun ipartarrek ondoan duten bearnesa.

<sup>8</sup> Zenbaitek hizkuntza zelten substratua dakusate probentzalaren bilakabidean eta beste batzuek uste dute Erdi Aroan gauzatu zela fonema hori bertan; batzuek frantsesak probentzaleetik hartu zuela diote eta beste batzuek, probentzalak frantsesetik hartu zuela; katalanak inoiz *ü* izan zuela eta gaztelaniaren eraginez galdu zuela ere idatzi da. Interesgarriak dira kronologia absolutuaren arazoak Fernandez Gonzalezek dakarren sintesia eta egiten duen kronologia erlatiboaren saioa (1986: 140-1).

<sup>9</sup> Ohargarri da Lapurdiko Aturrialdeko Bardozen gaskoinak indar handia izan duela eta euskaldun eta gaskoin elkarrekin bizi izan direla herri honetan.

<sup>10</sup> "Si el suletino encontró en *ü* (fonéticamente más bien [ö] actualmente) el punto de cristalización de un nuevo fonema mientras que el roncalés no pasó de las cinco vocales comunes o *volvió a ellas*, acaso no haya sido inoperante en esa divergencia la presencia del bearnés al Norte y la del aragonés-castellano al Sur" (Mitxelena 1954: 157). Ohar gaitezen «o volvió a ellas» horrek gure auzi honetarako duen garrantzi eta inplikazioaz.

xiv. mendeko datuen interpretazioa anbigua da. Halaz guztiz ere, ez da zertan pentsatu gauzak honela izan ez zirenik: egon zitekeen Zuberoa sasoin batez bi alderdietara begira eta ondotik, garai jakin batetik honata, Ipar Euskal Herrira gehiago begiratzen hasi eta Erronkari alderdira ordu arte bezainbat ez begiratzen hasi. Nolanahi ere den, datu absolutuen bidez ez dira hizkuntzako ilungune guztiak argitzen ez hutsune guztiak betetzen, ziur aski ezaugarri hauen datak ere ez direlako behar bezain zehatzak.

Morfologiako ezaugarri batzuetan, baina ez inola ere guztietan, eta bestalde, gaskoietik bildu berrikuntza batzuetan, Zuberoak lotura hertsiaigoa du Ipar Euskal Herriko ondoko mintzoekin, ondoan dituen Zaraitzu edo Erronkarikoekin baino, eta honetan beharbada denbora da eragile nagusia: uler dezakegu garai batez honat grabitazio indar linguistikoak aldatu zirela, Zuberoa eta Erronkari arteko hartu-emanak iraganean bezain sendoak ez zirela. Jakina denez, kronologia erlatiboak eraikitzeko alderdi morfologikoa konplexua eta iluna da, aiseago egiten dira kronologia erlatiboak fonologian.

Morfologian aldea dago Zuberoatik Erronkarira ezaugarri batzuetan; saioan zehar lerro-lerro dakartzagu etenak, baina hona hasteko aurkezpen llabur bat: *gañ* eta *barne* izenek ezkerrean hartzen duten kasu marka, erakusleen forma, instrumentaleko atzizkia, adlatiboko atzizkiaren forma fonikoa, soziatiboko atzizkia, konparazio iragankorreko partikularen forma, moduzko perpausetan eta aginte aditzen osagarrian partizipioa ala aditz izena erabiltzea, baldintza edo azalpen adierako *-z gañen* posizioa...; aditzetan, berriz, *niz*, *nintzan / naz*, *nintzen* aldea, aditz trinkoen Nor Nork saileko *-tza-* artizki plurala, iraganeko Nor Nori aditz eren egitura... Ezaugarri hauetan guztietan desberdin jokatzen dute Zuberoak eta Erronkarik; Mitxelenak zioen bezala inoiz bi mintzo hauek euskalki bat egin baldin bazuten, desberdintasunen sail hazixe honek azalpen bat beharko luke.

2.7. Zuberoatik ekialderago gertatzen zenaz ere jardun genezake. Euskararen ekialdeko egungo mugetarik harat, iraganean Huescako Pirinioetan mintzatu zatekeen euskararen gaiak ez gara hemen arduratuko, ez baitugu ezagutzen, ez dakigu mintzo hark nolako ezaugarriak zituen; nolanahi ere den, Juan Karlos Lopez-Mugaritzak Ansoko toponimiaz esanetara jo dezake orain irakurleak (2008, 2011). Ikertzaile honek Anso ibarreko toponimoak bildu eta aztertu ditu: Ansoko euskal toponimoen zerrendako izen gehienak XVI eta XVII. mendeetako dokumentuetan ageri dira; alderatze historikoak egin ahal izateko, guztiz garrantzizko gaia da denbora hizkuntzan. Aipatu Ansoko toponimootan ez da Erronkariko mintzoa hain ezagun bihurtu duten berrikuntza berexien moduko ezaugarriak sumatzen (2008: 346-8), baina ez dezagun ahantz toponimoek gordetzailerik izateko joera izan ohi dutela.

Bernardo Estornes Lasa zenak argudio extralinguistiko baten bidez zioskunez, Erronkariko euskarak zeukan bezalako nortasuna garatzeko, Erronkari ibarra ez da demografikoki aski ibar jendetsu edo aberatsa izan; uste zuenez, hizkuntza-ezaugarri horien konbinazioaren nortasuna Huescako euskal mintzoaren eta Erronkarikoaren artean garatu zatekeen.<sup>11</sup>

Pentsa genezake, bestaldera, Huesca alderdi horretan euskaraz egiten zen garaian —egia esan ez dakigu noiz itzali zen—, Erronkarin ez izatea oraino bertako mintzoa

<sup>11</sup> UEUk berari egin omenaldi batean 1997ko azaroaren 28an Donostiako Gros auzoko bere etxean esanak dira. Ondotik jabetu gara ideia hau lehenago albaindurik zeukala (1983: 217).

berexi bihurtu duten hainbat eta hainbat berrikuntza, ezaugarri erronkariar markatu horietarik hainbat eta hainbat oraino garatu gabeak izatea, Huescan euskara itzali ondoko berrikuntza berankorrakoak izatea kallesenak, baina gure saio honetan ez diogu guk ikerketa ildo horri helduko.

Erronkariko testurik zaharrenak XIX. mendekoak dira, ia ez dago deus XVIII-korik eta honela zail da mintzo honen iraganaz ezagutza sendoa izatea. Erronkari ibarreko Burgiko auzian *Jangueycoaz* aldaera ageri da 1569an, baina “-oi-” diptongo zaharra goa duen adibiderik ez da falta idazkian; Erronkariri dagokionez —Aezkoa ibarrean ere bai baitago ezaugarri hau— “oi-o” > “ei-o” disimilazioarekiko 1596 urtea *terminus ante quem* joko genuke. Bi hamarkadaren ondoren 15 gutun daude Mauleko Gabriel d’Etchart<sup>12</sup> eta Erronkariko Miguel Rosen artekoak, 1616-1617 bitartekoak; ordea, ez dakigu noiz izanen dugun euskal lerro horiek ezagutzeko aukera; gutunon zatitxo bat dakar Davantek (2009: 11).

2.8. Nolanahi ere den, guri orain ez zaigu horrenbeste interesatzen ekialdeko euskararen ideia modernoa, nahiago dugu garai batez gauzak nola ziren jakitea; egun ekialdeko euskararen eremutat ezagutzen dugun hori, zazpi-zortzi, hamabi edo hamalau mende lehenago hizkuntzaren aldetik nolakoa zen jakitea interesatzen zaigu eta horretarako ez dugu tresna berezirik, testuak berankorrak baitira; zernahi ere den, galderak egin ditzakegu ekialdeko euskararen iraganaz eta garaiez; egin beharreko galdera nagusiok ez leudeke honako hauetarik urrun:

- Euskara batu zaharretik honat eta egungo euskaratik harat jo nahi baldin badugu, zein da ekialdeko euskararen iragana?
- Egun ekialdeko euskaratzat edo Zuberoa alderdikotzat —nahiz Zuberoa-Erronkarikotzat— jotzen dugun euskal mintzamolde horrek zer nolako iragana du, zenbat mendetako?
- Zein froga ditugu egungo “ekialdeko euskara” horrek iraganean ere zinezko izaera, halako nortasuna eta nolabaiteko batasuna zituela adierazteko? Zuberoako testuak horren berankorrak izanik, nolaz dakigu ez garela hondarreko mendeetako errealitate dialektal eta kontzeptual bat iraganerat proiektatzen ari?
- Ekialdeko euskara zein multzotarik dator eta noiz gertatu zen zatiketa? Euskara Batu Zaharretik egungo ekialdeko euskara horretara bitartean, bi adabegi ote daude eta beraz beste multzo bat, geografia-eremu zabalagoa zuena eta ondotik zatiketa bidez ekialde hau eman duena, beste aldera, beste adar edo errealitate bat utzirik? Hau da, zuberera Euskara Batu Zaharretik zuzenean abiatu zen, ala bien bitarteko mintzo-egoera bat ere egon ote zen, hedadura handiagoko beste multzo bat, Euskara Batu Zaharra baino berriagoa eta ezagutzen dugun zuberera baino zaharragoa, zeinetarik ondotik zuberera zatitu baitzen?
- Hala balitz, noizkoa da zubererarena baino eremu handiagokoa litzatekeen ekialde zabalagoko euskara hori, euskara batuago zegoen garaitik honat Euskara Batu Zaharretik bereizi zena eta gainerateko euskaldunen talde nagusiagotik urrundu zena? Ez bedi uler honelako zerbait defendatzen ari garenik, besterik gabe galdezka ari gara.

<sup>12</sup> Oihenartek bezala, Zuberoa herrialdeari zegozkion auziak defendatu behar izan zituen Paueko Parlamentuan Etchart honek.

- Etxepare baten edo Leizarraga baten euskarak zein multzori jarraitzen zitzaizkion gehiago? Izan ere, Etxepareren euskaran eta bereziki Leizarragarenean, baziren orain ekialde geografikoari baizik ez dagozkion hizkuntza-ezaugarriak. Baina berrikuntzak ote dira horiek, ala arkaismoak?
- Zein dira aipatzen ditugun balizko bilakabide edo zatikatze horien garaiak, alderdi absolututik ezin adierazi bada ere, alderdi erlatibotik segurik?

### 3. Hiztunak eta herria protagonista

Euskal Herriko ekialdeko zuberotar, kalles eta zaraitzuar jende xeheen historia ezagutzea komeni zaigu ibar hauetan partekatzen diren horrenbeste ezaugarri zaharri interpretazio bat eman ahal izateko; inolaz ere, aukera zabala dago horretarako.

Jauntxo, agintari, idazkari eta gudarien harat-honatak 5.2. azpiatalerako utzirik, herri xehearen bizimoldeari hurbildurik, historian gaindi erkidego eta ibarren artean gertatu diren hartu-emanen berri dakargu orain. Euskal Herriko ekialdeko ekonomia mailako harreman-gune edo bizileku nagusietarik hedaturikako hizkuntza-ezaugarriek izan duten irispideak, hedadura-eremu edo eragin-eremu geografiko jakin bat eratu du; ekialde horretako jendeek historikoki gizarte-sare jakin batzuk eraiki dituzte, mendez mende gizarte-errutinizazio bat eratu edo josi dute.

Ekialde hori, bere baitara egun dagoen baino bilduago zegoen garai batean; ondoko ibarrak Zuberoari begira zeudela ematen du, baina egun ez da honela. Ekialdeko hizkuntza-eragin hori, Aturrialdeko herrietako mintzoan, Oztibarren, Garazin, Aezkoan, Baigorri edo Baztanen kausituko dugu inoizka, baina ezaugarri bakantean, ez inola ere, Erronkarin, Zaraitzun edo Amikuzen bezainbat.

Mauleko eta Atharratzeko lantegiak aipatzen dira euskal ekialde linguistikoko gizarte-erakargune indartsu gisa; Mendigatxa bidankoztarrak, esaterako, *badu ogei edo obro urte gente biardunen neskato guziuak faiten dra Frantziara negu guzuko espartinan trabajatra* ziotson Azkueri xx. mendearen hasieran, eta halaxe joaten zen ezkondu baino lehen Eugenia Baraze izabarra, Mitxelenari eta besteri ziotseenez: *Mauliónen bóst úrtez, espartiña(k) xóstan* (1953: 505). Zuberoan espartingintzan aritu ziren emazteki erronkariar anitzek maskaradetako dantzak ikasi bide zituzten.

Halaz guztiz ere, lanbide hori xix. mendeari dagokio, ez du aitzineko garaia azaltzen; gizarte-harremanen gaineko berriak eta lehenagoko bilguneak ere ezagutu behar ditugu ekialdeko euskararen hedadura eta eragin-eremuak ulertzeko eta interpretatzeko:<sup>13</sup>

- a) Badakigu xiv. mendetik honat Zuberoako behi saldoak Bordeleko landetara joan ohi zirela; landok Hendaia-raino iristen ziren; Aturri ibaian gaindi joaten ote ziren abereok, beharbada, edateko ura izateko? Aturri ibaiaren ertzeko herri euskaldunetako mintzoan Zuberoan ere badiren ezaugarri franko ageri dira. Erronkari eta Zaraitzuko behiak ere joaten ziren Bordeleko landetara.

<sup>13</sup> Lehen ere bagenuen ekialdeko ibar euskaldunen iraganeko hainbat berri, baina oraintsu argitaratu den Juan Karlos Lopez-Mugartzaren doktorego tesiak (2008), eskuleku ziur eta aberats gehiago eskaini dizkigu. Berebat, Jose Etxegoienek ikerketek (2009), Pirinioetako erkidegoen gaineko berri ezezagunak dakartzate.

- b) xvii. mendea arte, Erronkari-Zaraitzuetako ardi saldoetarik ekoizten zen ilea Donibane-Lohizunetik eta Baionatik itsasoratzen zen; bestalde, xx. mendearen hasiera arte, Uztarrozeko eta Izabako artilea Zuberoako Larüntzeraino eraman ohi zuten zamari-jendearen gainean; cf. Casas Torres & Abascal (1948: 21). Zuberotarrek artilea Oloroen saltzea ere gauza arrunta zen.
- c) Ezkontzak: erronkariarrak edo zaraitzuarrak zuberotarrekin ezkontzea gauza arrunta izan da historian zehar. Ezkondu gabeko gazteen arteko hautsi-mautsiak ere izan dira zuberotar eta erronkariarren arteko auzietan.
- d) Bilguneei dagokienez, Donapaleuko, Mauleko, Atharratzeko edo Otsagabiko merkatuak aipa daitezke, baina gehiago ere izan dira.<sup>14</sup>
- e) Erlijio mailako beilak: Zaraitzura, Otsagabiko Muskildara eta Espartzako San Tirsora jo ohi dute euskaldun ipartarrek.
- f) Erlijio mailako xvi. mendeko gatazken garaian, protestanteen jazarraldietarik Otsagira ihesi jo zuen Mauleko gazteluaren agintea zuen Lukuzeko Charles jaun katolikoak 1587an, harik eta 1593an Zuberoara itzuli zen arte; cf. Monteano ere (2010: 367).
- g) Pirinioez alde banatako ibarren arteko hartu-emanen ondorioz, izen berezi berak ageri dira bi alderdietan: Otsagin *Garax* etxe izena dugu eta Eaurtan *Lukux*; berebat, *Maule* Eaurtako toponimoa da. Ezterenzubiko Erdi Aroko hiru etxeetarik batek *Orbara* izena zuen (Etxegoien 2009).
- h) Goi mendietan alderdi bateko eta besteko artzainak udan elkarrekin egon dira usu: garaztarrak aetz eta zuberotarrekin, edo zuberotarrak zaraitzuar eta erronkariarrekin; bearnoarrak ere elkartu ditu bortuak udan zuberotar eta erronkariarrekin. Bazkaleku edo fazeria du Erronkarik Zuberoarekin; basabürütarrak Belagua alderdiko bazkaguneetan erronkariarrekin gizarte hartu-emana izan dute. Anso ibararekin ere fazeria du Erronkarik; Zaraitzuk Zuberoarekin Malgorra Txikina izeneko alderdian dauka eta Garazirekin Iratisoron; Aezkoa eta Erronkari ibarrekin ere baditu fazeriak Zaraitzuk. Aezkoak Zuberoarekin Zabaleta-Lizardoia edo *La Cuestión* oihanaren inguruan fazeria eduki zuen; cf. Etxegoien (2009: 140).
- i) Zuberotarren eta goi-nafarren arteko truke harremanak aspaldikoak dira: xiv. mendean, esaterako, zuberotarrek ez bide zuten nekazaritza handirik eta ondorioz, ardoa eta garia Nafarroa Garaitik ekarri behar zituzten, bertara trukean zerriak eta gazta eramanik. xvii. mendean Hegoaldean idiak eta zerriak saltzen zituzten eta Baionara ere saltzen zituzten urdeak.
- j) Nafarroako Erriberara uzta biltzera ere joan izan dira zuberotarrak eta baita artzain ere: erriberanesekin batean, zuberotarrak, zaraitzuarrak eta erronkariarrak elkartzen zituen artzaintzak; cf. Lopez Mugartza (2008: 113). Zuberotarrek Hegoaldera lurra lantzera jo izana ezaguna da.
- k) Santa Grazi herria bere gisa ibili zen, Zuberoako eta Nafarroako legeditik kanpo; salgaiak Atharratzeko eta Mauleko azoketara eramaten bazituzten ere, Izabakora ere usu jotzen zuten eta baita Erriberako bazkalekuetara ere.

<sup>14</sup> Uztarroztarrek Oloroe aipatzen dute atsoitz batean: *izan nintzen Oloronen olo-txerka mandoen, zazpi gonka ekarri nien, yi bikalako asto andien* (Azkue 1931: 315).

- l) Galerazpenen lekukotasunak: Espainiatik mugako herrietan erronkariarrei galerazi nahi zitzaizen etxean zuberotarrek har zitzaizen (1637) edota hauekin salerosgoan ari zitezen; 1595 eta 1628ko auziak ezagutzen ditugu erronkariarrek zuberotarrei garia saltzen zietelako. Espainiarrak ez ziren nafarrez fido “por la afición grande que tienen a las cosas de Francia”. Ondotik ere kontrabandoa gauza ezaguna izan da mugaz bi alderdietan.
- m) Salerosgo gehiago: xx. mende hasierako Otsagiko emaztekiek Zuberoako Larrainerat jotzen zuten artile saltzera eta Erronkarira sagar saltzera.

#### 4. Ekialdeko euskararen izaera zaharraz

Zuberoako euskara den bezalakoa izatea eragin duten ezaugarriak ugari eta biziki markatuak dira orain, baina ez da aztertu tasun horiek noiztik baliatzen diren Zuberoan. Ez dugu pentsatzen ahal ezaugarri guztiak garai berean gertatu berrikuntzak direnik edo guztiak garai bateko arkaismoak direnik; zubererazko lehen testua agertzerako euskalki hau garatuxe zegoela badiogu, nabarmena da testuek salatu behar ditugela noiztsukoak diren xvii. mendearen bukaeran oraino gauzatu gabe zeuden berrikuntza horiek, baina berrikuntza guztietan ez dugu argibide maila berbera, ez ditugu hizkuntzaren barrunbeak nahi bezala ezagutzen eta horregatik, ikerketa behar da:

- a) ezaugarri guztiak
- b) ekialdeko eskualde guztietan

eta

- c) ezagunak zaizkigun garai guztietan zehar aztertzeko.

Hona dakargun saioan Zuberoa inguruko ezaugarriak bildu eta sailkatu ditugu; aipatu dugu lehenago, mintzo honen ideia ahalik eta osoena edukitzeko ezaugarri zaharrek duten garrantzia zenbatekoa den. Ezaugarriak kronologiaren arabera dakartzagu, tasun guztien gainean nahiko gureken bezainbat zehaztasun eman ezin badugu ere.

Bestalde, corpora aurkeztea ere gauza beharra da eta horretarako Pello Agirrerren lana balia dezakegu; honela zerrendatu ditu berak idazki xiberutar zaharrak (2001: 659-660);<sup>15</sup> ulertzeko denez, Erronkariko testuei ere so egin die-

<sup>15</sup> Euskaltzaindiko Azkue bibliotekako Josune Olabarria zin-zinez eskertu nahi dut, Olaso Dorrearen Sorrerakundeko Lacomberen Ondareko hainbat idazki xiberutar eta baxenafartar zahar ikusteko eta lortzeko eman didan laguntza guztiagatik.

xvi. mendea: Leizarragaren hiztegia: *Çuberoaco Herrian vsañçatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançona itzuliac* eman behar izan zituen beskoiztarrak hango apez edo irakurleak gogoan (1571). xvii. mendea: Jakes Belakoaren atsotitzak / Oihenart: *Neurtitz hautako hitz bekanen adigarria* (1657) / *Oña hilceco bidia* liburuko hiru testu laburrak (lehen argitalpeneko 7, 183 eta 184. or.); Conget eta Jaurregiberri jaunek izenpetua (1657); Darhetzek Tartasi eskainitako bertsoak, eta Bonnecase Mauleko erretorearen izkributxo (1666); zail da Juan de Baguarie Camblonque eta Susmioko *erretoraren* euskara kartzeta / *Arima penitentaren occupatione devotaq* inprimatzeko egokia dela dioen oharra (21), 1668koa, Bonnecasek eta Fr. Nicephore izeneko kaputxino batek izenpetua / *Pronus singulis diebus...* (c. 1676) / Athanase Belapeireren *Catechima laburra* (1696). xviii. mendea: *Catechima Oloroeco...* Jacques de May-

gu.<sup>16</sup> Baxenabarreko corpora ere aurkeztu nahi dugu, saio honetan usu baliatu baitugu ondoko mintzoekin alderatzeko.<sup>17</sup>

#### 4.1. Ekialdeko arkaismoak

Iraganeko ezaugarriak gordetzen ditu Zuberoako euskarak; duen berezitasuna da eremu koherente batean gordetzen dituela, hau da, ibar oso batean eta erkidegoko partaide guztiak ezaugarri zahar horiek erabiltzen dituztelarik, irmoki, tradizioko euskarak Xiberuan jendearen ahoan dirauen heinean, bederen. Ezaugarri hauek Euskal Herrikoak izan ziren inoiz, baina egun ez dira Xiberuan baizik; Erronkarin ere baliatu dira, baina bi hamarkada badu mintzo hau itzali zela.

tierena (1706) / *Orhoitce eta cantica espiritualac Çubero herrico* (1734) / *Catechima Oloroeco...* (lehen edizioa, 1743 ingurukoa), François de Revolen aginduz inprimatua; guk 1746ko edizioa baliatu dugu / *Jean de Paris* pastoralara (ez dugu ezagutzen) / Martin Maisterren *Jesu-Kristen Imitacionia...* (1757) / *Igantç-taco Pronoua, eta bilen pronoua* (c. 1757); Pello Agirrek hartu-eman hertsia dakusa lan honen eta Maisterren *Imitacionia*-ren artean / Ressegueren *Sacramentu-Saintiaren aurhideoçouaco maniac eta chediac...* (1758) / Alexis Mercyren *Andere Dona Maria Scapularicouaren Confrariaco bulla, decreta, statutac eta maniac...* (1780). Pastoralak ere baliatu ditugu Zuberoako euskara zaharra aztertzeko. Ahoz irudikatzen idatzi ziren lanok eta idatzi ziren testuen ondoko kopiak ere hor barrena ibili dira, eskurik esku, etxez etxe, familiarik familia; kopia hauetan egitura edo aldaera zahar batzuk norbaitek ondoko forma berriago batzuen ordeztatu edo eguneratu ahal izan ditu; cf. adibidetzat honako aldaketak, Oihartzabalek aipatzen dituenak: *nourequi* → *enequi*, edo baita *ore* → *hire* ere (1991: 116). Argitaratu diren pastoralen edizio filologikoak irakurri ditugu guk, eta besterik ezean, horietan ageri dena da hona dakarguna; Gidor Bilbao, Ane Loidi eta Beñat Oihartzabal dira pastoralen argitaratzaileak; datuak ez errepikatzen ez dugu aldi oro pastoralaren argitaratzailearen izena emanen, aipuan pastoralaren izenaren laburdura eta orrialde zenbakia baizik ez ditugu emanen. Hona zein baliatu dugun lan honetan: *Antiokiako San Julian*, 1770koa (Loidi 2004); hemendik aitzin ASJ / *Charlemagne*, XVIII-XIXkoa (Oihartzabal 1991); hemendik aitzin Charl. / *Edipa*, 1793koa (Bilbao, 1996); hemendik aitzin *Edipa / Klobis*, xviii-xxkoa (Loidi 2009); hemendik aitzin *Klobis. xix. mendea: Santa Catherina* pastoralara, 1839koa (Loidi 1996); hemendik aitzin SC / *Kaniko eta Belcitina* komedia, 1848koa, Jakes Oihenartek idatzia (Aresti 1971); hemendik aitzin Kan & B / *Jesu-Kristen ebanjelio saintia Sen Mathiuren arauera*, E. Intxauserena, 1856, hemendik aitzin SM / *Dialogues basques souletins*, Intxauserena, 1857, hemendik aitzin Dial / *Jaundone Joubane apostoliaren apokalipsa*, Intxauserena, 1858, hemendik aitzin Apok.

<sup>16</sup> Bada *Doctrina uscaraz* izeneko idazki zahar bat, Ricardo Gomez argitaratzailearen ustez, idazlea Erronkarikoa, edo ziurrago dirudiena, Urzainkikoa izan zitekeena (1991). xix. mendean Pedro Prudenzi Uhalde Maioren San Mateoren ebanjelioa (J. Estornés Lasa, 1982a) eta dotrina (I. Camino & R. Gómez, 1992) aipa daitezke; Erronkarikoa da *Doctrina Christiaia* izeneko ere, argitaratzaileek xix.ean kokatzen dutena (Pagola, Iribar & Iribar, 1997) eta ibarreko dotrina zati gehiago ere argitaratu ditu hirukote honek (1997). xx. mendearen hasierakoak dira Mendigatxak Azkeri igorri gutunak (J. Estornés Lasa, 1984); mende honetako ahozko bildumetan, Mitxelena eta bestek 1953an Izaban eta Uztarroren bilduak nahiz Kandido Izagirrerena (1959, 1961) ditugu eta baita Jose Estornesek erronkariar zenbait itzularazi perpauak ere (1982b). Mendearen bukaerakoak dira Koldo Artolak Izaban eta Uztarroren bildu elkarrizketa eta adizkiak (1977, 1980, 1991, 2000). Garai horretantsu Bernardo Estornes Lasak Erronkariko eleen hiztegi bat eraiki zuen, gaztelania → euskara norabidean (1997). Lan hauek aipatzean lehen agerraldian baizik ez dira deiturak emanen, ondokoetan urtea agertuko da soilik.

<sup>17</sup> Funtsen 1651ko *Pregariac Bayonaco dioceçakotz* (Euskaltzaindia, 1991), aldaki hau Nafarroa Beherekoztat jo da, baina oinarria Lapurdiko idazki batean du. Bestalde, Garazi ibarreko Bazkazane herriko 1762ko predikuak (Orpustan 2005). Jutsin sortu Lopez apezaren 1782ko *Pratica*-ren itzulpena eta Lafneufville izeneko xviii. mendeko katixima —1786ko edizioa baliatu dugu—. Baita Bonapartek xix. mendean eragin itzulpenak ere (Pagola *et alii* 1999a eta b): Donamartiri eta Donapaleuko katiximak [Donamkat eta Donapkat] eta Cazenaveren *Jondoni Juane Apostoliain Apokalipsa* [Caz JJ], in Pagola *et alii* (1999a); Iribarnegararen San Mateoren ebanjelioa Baigorriko erara itzulia [Irib SM], in Pagola *et alii* (1999b).

Hasi baino lehen, arkaismo hitzaren adieraz oharño bat egin nahiko genuke: bertan ohikoa den ikuspegi sinkronikoak eraginik, gerta daiteke dialektologia egiten duen batek eta hizkuntzaren historiaren ikusmoldea duen beste batek *arkaismo* adigaiia berdin ez ulertzea. Helburu desberdinek eta bakoitzaren ohiturak eragiten dute ikuspegi bateraturik eza, arkaismoarena adiera graduala baita: zaharra dena izendatzeko baliatzen da, baina zehaztu behar da zerekiko den zaharra, horregatik, guk lan honetan arkaismoen sailean sartuko dugun ezaugarri bat baino gehiago, hizkuntzaren historia egiten dutenek beharbada ez dute arkaismotzat joko. Hona hizkuntzalarietan zer deitu izan den *arkaismo*:

- ezaugarri zahar eta sistematiko bat hizkuntza orokorrean eta dialekto gehienetan aspaldi eta guztiz galdurik dagoena, baina dialekto batean edo guti batzuetan bizirik dirauena, orain emankorra ez bada ere
- ezaugarri zahar bat hizkuntzako hainbat eta hainbat dialektotan bizirik dirauena, baina beste hainbat dialektotan berriztatu eta aldatu dena
- ezaugarri zahar asistematiko batzuk badira, aditz erak, hitzak, morfemak... han-hemenka mintzo batean edo bestean beregainki guztiz barreiatu daude eta oraino ere badirauteak
- lehenagoko ezaugarri zahar batzuk badira, aspaldikoak ez direnak, beste era batzuek ordezkatu berri dituztenak eta egungo mintzoan ia galdurik daude, baina eskualde hedatu bateko hitzun zaharrenek oraino ezagutzen edo baliatzen dituztenak.

Hiru lehen mota horiek baliagarri ditugu lan honetarako, baina laugarrena ez.

#### 4.1.1. Eskualdeko arkaismoak Zuberoa-Erronkarietan

4.1.1.1. *lt, lk, nt, nk* kontsonante taldeek Zuberoa-Erronkarietan ahostundu gabe iraun dute; Amikuzen “ozen + herskari ahostun” taldea dago. Baxenabarren eta Aturrialdean adizlagunetan baizik ez da herskari ahoskabea ageri, kontsonante talde hauen gainerateko ingurune gramatikaletan, ozenen aldeko neutralizazioa dago Baxenabarren.<sup>18</sup>

4.1.1.2. Euskara zaharrean bereizketa egiten zen *rtz* eta *rz* taldeen artean (*FHV*, 362).<sup>19</sup> Ekialdean *rz* eta *rs* taldeek afrikatu gabe diraute hitz batzuetan. Zuberoatarrek *rz* taldeari eutsi diote: *-tarzün* atzizkia ageri da Belapeireren lanean nahiz Oloroeko katiximan, eta horrela ahoskatzen da egun Zuberoan eta Amikuzeko ekialdean ere. Zuberoakoak dira *ürzo* eta *harzá(r)a* ‘berriz’; berebat, afrikatu gabe ahoskatzen dira bertan *hersi* ‘meharra, hertsia’, Belapeirek zerabilena eta *ürsán* ‘doministikua’; *érxe* ‘hestea’ ere ibiltzen da.<sup>20</sup> Arrastorik izatekoz, Baxenabarreko idazle batzuen *urzo* & *urtzo* eta *urso* & *urtso* aipa litezke, nahiz lapurtarrek eta Leizarragak berak *uso* darabilten.

<sup>18</sup> Amikuze, Oztibarre, Landibarre, Garazi, Irisarri-Izturitze alderdian eta Lapurdiko Aturrialdean *hantik*, *be(m=b)entik* adibideak ditugu, inoiz *nuntik*, *niuntik*, Beskoitzen *eunko*, *hanko*, Jutsin *hemenko*; bestealde, partizipioan Landibarren *huntia* & *hundia* dugu, Jutsin *lanthiak*, Beskoitzen *lanthu*.

<sup>19</sup> Mitxelena «*rz > rs > s*» bilakaeran proposatzen duen bitarteko *rs* urratsa Zuberoako Pagolan entzun dugu *-tarsün* & *-tarsun* atzizki aldaeran, baina *-tarzün* ere entzun dugu herri honetan.

<sup>20</sup> Ez da ukatzen *ertzo* & *ertxo* ‘croa’ adibideko afrikazioa duten adibideak ere badirela.



Erronkarin eta Zaraitzun ere *rz* zegoen zenbait hitzetan, afrikatu gabe: Uztarrozen *orzégun* eta *orziláre* esaten zen.<sup>21</sup> Herri izenetan ere gertatu da: *Górza* ahoskatu da Zaraitzun eta *Urzáinki* Erronkariko Uztarrozen. Erronkarin *marzuza* ‘masusta’ eta Zaraitzun *marzuza* & *marzoza* dira Zuberoan *masiisa* dena. Bestalde, Erronkarin *erze* ‘hestea’ dugu, Izaban *érxe* dena; berebat, *érsi* ‘prietu’ dakar Kandido Izagirrek (1959: 306). Entzun dugu guk “rx” taldea ekialdean: *horxet* (Armendaritze), *horxetan* (Amikuzeko Behauze), *horxe* (Amikuzeko Zohota), *marxua* ‘martxoa’ (Pagola) eta *horxe* (Sarrikotapea).<sup>22</sup>

4.1.1.3. Hitzen aldaeretan ezaugarri zaharrak ditugu Zuberoa-Erronkarietan: *bakhatü* ‘ordaindu’, Erronkarin *pakatu*, latineko *pacare*-tik; Zuberoakoak dira *zekürü* ‘mendea’, latineko *saeculum*-etik, *zeñhare* ‘seinalea’, eta *zelü* ‘zerua’ —\*\*geru ez baldin bada ere—. Erronkarin *burar* ‘bularra’ gorde da, Joseba A. Lakarrak *bur-bar* egitura-tik eratortzen duena.

#### 4.1.2. Zuberoa-Erronkariko arkaismoak, euskal bazter gehiagotan gordeak

Iraganeko ezaugarriak gorde ditu Zuberoako euskarak. Tasun hauek Euskal Herrikoak izan ziren inoiz eta han-hemenka diraute gorderik, kasu batzuetan aski barreiatu-rik, eremu zabalagoan edo koherenteagoan, erabilera irmoagoan edo ahulagoan; beste batzuetan erdi galbidean edo zokoraturik gelditu dira. Hona tasunon sorta nabarmen bat.

4.1.2.1. Bokal sudurkariak ditugu Zuberoan eta Erronkarin;<sup>23</sup> Amikuzen bakan batzuk entzuten dira; Zaraitzun, orde, ez. Garai bateko Euskal Herriko mendebalean ere ageri dira. Bokalok arkaismotzat jo ditugu, baina berez, garai batean bokal arteko *n*-ren galeraren ondorio berria izan ziren.

4.1.2.2. Ablatibo singularrean leku izen propioetarako *-(r)ik* eta arruntetarako *-ti(k)* bereiztea, Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun egiten da; Amikuze-Arberoan izen guztiak *-tik*-en bidez egiten dira.<sup>24</sup>

4.1.2.3. Inesibo zaharreko adibideak gorde dira ekialdean: Zuberoakoak dira *arratsen*, *barnen*, *etxen* edo *ga(i)ñen*. Erronkarin *arratsen*, *etsen* ditugu eta Arberoa-Amikuzen *etxen*; mendebalean ezagunak dira *atxurren*, *baten*, *biarren*, (*lau*) *biderren*, *itaurren*, *lapurren*, *lauoinen*, *nabasen* ‘goldatzen’ erakoak.<sup>25</sup>

4.1.2.4. Izenordain zehaztugabeetan *\*e-nor* zaharraren ordain zuzenak ditugu ekialdean; Zuberoan *ihür* eta *ihün* eta Erronkarin *eür* & *eur* aldaerak ibili dira.<sup>26</sup> Amikuzen Lapurdi-Baxenabarretako berrikuntza ageri da, *n-*, baina Xi-

<sup>21</sup> Bonapartek *berze* bildu zuen Beskoitzen eta Baigorriin; Bardozen *beze*.

<sup>22</sup> Baita «rx» ere: *horxet* (Armendaritze), *horxe* (Mehaine, Arüe, Pagola, Oihergi, Ündüreine), *horxtetaat* (Behauze), *hortxetan* (Martxueta), *hortxek* (Ündüreine), *hortxetan* (Urđiñarbe).

<sup>23</sup> Azkuek dakarrenez, Bidankozen hobeki gorde ziren Zuberoa ondoko Uztarrozen baino (1931: 212); Mitxelena dioenez, Uztarrozen Izaban baino hobeki (1953: 502).

<sup>24</sup> Hona Charl.-ko adibide bat: *Bayonna eta Donajouhaneriq behar tiçugu idoqui* (222); antzerki berekoa da honakoa ere: *etçheriq phartitu gabe haren sonian beitiçira dantiçatu* (377). Bizkaiko eredu zaharrean ere *-rik* aldaera dago eta adizlagun batzuetan badirau oraino ere. Berebat, pluraleko *-etarik* aldaera dugu Nafarroa Garaiko alderdi bazalean eta Ipar Euskal Herrian.

<sup>25</sup> Eneko Zuloaga ikertzaile basauriztarrak eman dizkigu datuok.

<sup>26</sup> Bidankozen *ñor* ageri da, baina badakigu herri honek hego-nafarrerara joera zuela.

berukoa bezalako bokala: *nihur* eta *nihor* ibiltzen dira. Baxenabarren eta Lapurdin *ne(h)or* darabilte. Gainerateko euskaldunen *iñor*, *iñon* erak hein batez egoera zaharraren jarraitzaile dira; ekialdearen ondoan *yor*, *yon* sailekoak ditugu Zaraitzun, Aezkoan eta hego-nafarreran.

4.1.2.5. Osagarri zuzena genitiboan ager daiteke Zuberoan, Baxenabarren eta Lapurdin; Hegoaldean ere ohikoa da Nafarroa Garaiko ekialdean. Hego Euskal Herriko idazki zaharretan ere halaxe zen: Kapanagak *arean etorricoda ilaen eta viçien juzgae-tara dakar* (1656: 6).<sup>27</sup>

4.1.2.6. Eskuinean darama osagarria *alde & alte* hitzak. Belapeirek *aldeskuñ* darabil eta Euskal Herriko mendebalean Martin Otxoa Kapanaga mañariarraren 1656ko *alde eskoatati* zaharra dauka.<sup>28</sup>

4.1.2.7. Modua adierazteko Baxenabar guztian aditzari *-(r)ik* lotzen zaio, baina *-ta* ere herrialde guztira hedatu da. Zuberoan, berriz, nagusi da *-(r)ik*; hona Oloroeko katiximako adibide sorta bat: *ezpeyta hari deus gorderic* (27); *belarra chahuric eta agueriric ukhen* (83). Erronkarin ere egoera bera da: *eroririk, isaririk, izaririk...*, baina aintzat har bedi sinkopa eta bokal asimilazioa: *argitruk, deitruk...* Bestaldera ez da ezezaguna, mendebaleko Kapanagaren *izorvarik* edo Mogelen *mutildurik* nahiz *ortozik* lekuko.

4.1.2.8. Aldaera zaharrak dira *eitzi* ‘utzi’ (Maister, Edipa) —Erronkarin *eitzi, eitzu, utzu* eta Zaraitzun *eutzi*—, Joseba A. Lakarrak *\*e-dutz-i* egituratik eratortzen duena, *haur*<sup>29</sup> & *kaur* ‘hau’, *heben* ‘hemen’ —Erronkarin *keben & kemen*<sup>30</sup>—, *(h)irur, laur*. Erronkarin *zinar* ‘zilarra’ gorde da.

4.1.2.9. Aditz nagusi batzuetan *e-* zaharra gorde da Zuberoan: *ebili, egorri, egüriki, ekusi*. Dena den, Zuberoako testuak ez dira homogeneousak; esate batera, Charl.-ek *ikhusi* dakar, baina ASJ-k *ekhousi*; Larrasketek bi aldaerak dakartza.<sup>31</sup> Arrastoak gelditu dira hor barrena: Etxepareren *ebili* eta *ekusi & ikusi*, Hegoaldeko XVI-XVII. mendeetako *ekusi* —Gipuzkoan are XVIIIan—, edo Orozkoko *ekusi & ekosi* lekuko.

4.1.2.10. Etxeparek eta Leizarragak egiten zuten bezala, aditz nagusian *-rr-i* bukaera duten partizipioek *-r-ten* zaharra egiten dute Zuberoan aditz izenean; Erronkarin *izarten* ‘ezartzen’ dakar Uhalde Maiok. Baxenabarreko Arberoan bezala, Amikuzen *-rtzen & -rten*, bi erak entzuten dira egun. Euskal Herriko mendebalean ere *-rten* entzuten da oraino.

<sup>27</sup> Osagarri zuzen hori extraposizioan egon daiteke Zuberoan, Baxenabarren edo Lapurdiko barnealdean; Baigorri, ordea, ez. Hona Zuberoako adibide pare bat: *emaitex populiary benedictioniaren* (1758: 12); *hounaq erhoriq igorteco berrien Espagnalat* (Charl., 228). Hegoaldean, Aezkoan eta Zaraitzun ezaguna da kokagune hori. Erronkarin Uztarrozeko adibidea dakar Artolak: *tío eta tia, xítan biz(r)én láguntra góre* (2000: 494).

<sup>28</sup> Hona Oloroeko katiximako adibide bat: *iarriric dago ayta pphotere oro dianaren aldescugnian* (1706: 9); Maisterrena da *althe gagnian içan nahi da amourioua* (150); Intxauspek ere berdin: *eta unguarian, eta aldebarnian betherik ziren begiz* (Apok, 28). Bidankozeko Uhalde Maioren dotrinakoa da *dagola ssaseriric Janguico Aita guciuen poderosuaren alte eskoian* (502).

<sup>29</sup> 1770eko ASJ pastorean *haur*-ek 8 agerraldi ditu eta *hau*, berriz, 37 aldiz ageri da.

<sup>30</sup> Baina Erronkari ibarreko Burgiko 1569ko auzian izenordain anaforikoa *k-* gabea da: *Janguycoaz eta Andre Dona Mariaz, eta aren semeaz* (Sarasola 1983: 106).

<sup>31</sup> Erronkarin ere era zaharrak ditugu: *ekusi, ebiltzen* Mendiatxarenak; Zaraitzun *ebli, egorri, ekusi* adibideak erabili dira, baina Euskal Herri gehienez bezala, ondoko Aezkoan *i-* duten berrikuntza orokorrak erabiltzen dira: *ibili, igorri, ikusi*. Amikuzen ez dago *e-* aurrizkiaz hasitako aditz nagusirik, *i-* dira horiek.

4.1.2.11. Aditz izena *-ite* egiten da Zuberoa, Erronkari, Baxenabarre, Lapurdi eta Bidasoaldean, baina Baztan, Aezkoa edo Zaraitzun ez; mendebalean ere ezaguna da, Orozkoko *emoiten* eta *urteiten* lekuko.

4.1.2.12. Hirugarren pertsona pluraleko Nork morfema *-e* egiten da Zuberoan;<sup>32</sup> *-e* & *-te*, bi erak entzuten dira Pagolan, Oihergin, Ainharben eta Sarrikotapean, baina Ündüreinen *-e* baizik ez dugu entzun. Mendebalean ere *-e* ibiltzen da, baina zaharra dirudien *-de* ere ageri zaigu saihets horretan.

4.1.2.13. Euskal Herriko mendebal-erdialdean aditz trinkoetako iraganean erroaren aitzinean *-e-* dago gehienbat, baina Lapurdi-Baxenabarretan *-a-*; Zuberoan ere *-a-* dago, baina ez guztiz.<sup>33</sup> Eskiulako 1758ko idazkian *gorderic cegoën* (47) dakusagu. Iduri luke zuberera zaharrea egoera zaharra ere islatzen zela.<sup>34</sup>

4.1.2.14. Perpaus nagusia hipotetikoa edo iraganekoa denean, *l-* aurrizkiarekiko adizkia duten menpeko perpausak ageri dira hala Zuberoan nola Erronkarin; ezaugarri hau honela zen xvi. mendeko euskal lurralde guztiko idazkietan, Etxepare, Lazarraga edo Leizarraga lekuko; hona Erronkariko xix. mendeko adibide bat, Uhalde Maiorena: *eta instante berian asi zen manifestatra bere diszípuluuer konbeni zela ura fan zedin Jerusalemenera, eta kan padezi lezan anitx Anzianuen, eskribaiñen, eta sazerdoten prinzipalenen partez, eta izan ledin ilik, eta erresuzita zedin irorgarnen egunian* (Estornés Lasa 1982a: 74). Ikus gaiaz Mounole (2011: 84, 203).

4.1.2.15. Erlatiboko perpausaren burua ezkerrean agertzea euskararen ezaugarri zaharra da. Beriain itzarbeibartarrak adibideak dakartza eta Euskal Herriko mendebalean ere bada adibide zenbait.<sup>35</sup>

4.1.2.16. Adiera kopulatiboa duen atzizki sozietiboa ageri da Zuberoan adibide honetan: *su icigari haren garra bethi haing bor[t]hiz da noun beitu chispilturen, arimareki corpitça* (1734: 102).<sup>36</sup>

<sup>32</sup> Erronkarin *u + -e > -ie > -ei* metatesia gertatu da: *dei* 'dute' dago Erronkarin eta *die* Zaraitzun; berebat, *balei* 'balute' Erronkarin vs. *balie* Zaraitzun.

<sup>33</sup> Belapeirek *çagoan* (II, 34) eta *çavilan* (II, 66) darabiltza; Oloroeko katiximak *beytçaudin* (1706: 32). Intxauspek *nindagon, zagon / nâraman, zâraman / nakian, zakian / nadûkan, zadûkan / narabilan, zârabilan* adizkiak dakartza (1858), baina halaz guztiz ere, *ne(n)bilan, zebilan* egiten da, *-e*-rekin.

<sup>34</sup> Leizarraga batek bietara zerabiltzan, aditza zein den: *nengoan, zegoen, zeuden & zauden* dakartza, baita *zetzan & zatzan* ere, edo *zegian, zegiten*, —datiboa duela *zegion, zegigun*—, *zerabiltzan, zeraun-san & zeraunson, zeraun-saten*, baina *zabilan, zabilizan, zadukan, zadukaten, zaramaten, nakusan, zakusan, zakusaten, nakian & niakian, zakian & zeakian, zanzuen, zanzuten*. Beharbada Garazin xvi. mendean berrikuntza baliatzen zatekeen, Etxeparek *zagoen* edo *zenakusan* dakartza. Erronkarin iraganeko adizkietan Mendigatxaren *nengolarik, zegon & zagon, zauden / zakion 'zekien' / zakan 'zeukan' / zamein 'zeramaten'* aipa daitezke, bi joerak ageri dira; Azkuek *nindagon, zagon, gindagon* eta *zauden* bildu zituen (1931: 231) eta zioenez, Bidankozen *zagon* erabiliago zen *zagon* baino (243). Ondotik Izaban *zâgola* bildu zen (Mitxelena *et alii* 1953: 509).

<sup>35</sup> Gure eskualdean, Zuberoa, Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoan ageri da; hona Zuberoako adibideak: *dohain natura gaintitcen dian bat* (1706: 58); Maisterrenak: *obraçale ecin ikhousten dena* (356); *desircunte gaiçkialat daramen orotariç* (149); *Arima Jincoua maite dian bateç, haren erecian, beste gaiçac oro mesperçhatcen dutu* (101); *guc egurukiçceco lehu duguneti* (1758: 15). Lapurdin ere bada. Beñat Oihartzabalek honakoa bildu du Uztaritzen 1987an: *etxe leiho gorria(k) tüin hura da*. Bestelako egiturak ere badira: *bere Aita espirituac manhatu deikeion eguin bidia* (1758: 4). Pedro Ignazio Barrutiarena da *desegingo ditu Xaun onen geraziak bekatu oraingano egiñiko gustiak* (Lakarra 1981: 149).

<sup>36</sup> Joseba A. Lakarra erakutsi bezala, Hegoalde guztikoa da ezaugarri hau eta berriki Ipar Euskal Herriko adibideen berri eman da: Hazparnen xviii. mende erditsuan (Padilla 2011: 76-7) eta «Urthubiako alhaba» baladan (Lakarra 2008).

#### 4.1.3. Zuberoa-Erronkarietan gorde diren ekialde zabaleko arkaismoak

Zuberoan edo ekialdean gorde diren arkaismo batzuk, ekialde zabalekotzat har dizakegu egun, Zuberoatik ezker Ipar Euskal Herriko eskualde batean baino gehiagotan ere erabiltzen direnez.

4.1.3.1. Erakusle pluralen hirugarren mailan (*h*)ek dago Ipar Euskal Herrian, Nafarroako Pirinioetan eta Baztan-Bidasoan; Aezkoan *gaek* dago.<sup>37</sup> Gai honetan Alfonso Irigoienek irizkide den Manterolaren arabera, *hek* erakusle hau bera da ergatibo pluraleko *-ek* atzizkia eman duen oinarria (2008: 13).

4.1.3.2. Izen sintagma mugatzaileak gabeek ekialdean dira gehien: atribuzio kontestuak, izen zenbakaitzak, osagarri zuzenak edo ugaritasuna adierazten duten “izan”-en perpausak dira artikulurik gabe ageri direnak eta ekialderat goazen ber, are eta gehiago.<sup>38</sup>

4.1.3.3. Erronkarin edo Zaraitzun bezala, polaritate negatiborik gabeko sintagma partitiboan erabil daitezke Zuberoan; hona adibidea: *resolucione honic ardura eguin eličaren sinbestian bicitcez eta hiltcez* (1706: 40). Baxenabarreko Arberoan ere bildu dugu era hau, Mehainen hain zuzen ere: *bada biziki geio gazte plantatzen denik laborantxetan ezinez eta hemen, launtza geixoo (b)autelakoan*.

4.1.3.4. Edute genitiboko atzizkiak adiera destinatiboa du euskara zaharrenean; egun ere hala da Baxenabarreko Arberoan, Amikuzen, Zuberoan, Erronkarin, Zaraitzun eta Aezkoan, bederen; Lapurdin fosilizaturik dago *kaka hire!* esaldia. Oloroeko katiximakoa da dakargun adibidea: *badela ppharadussu bat hounen, eta ifernu bat gais-toen* (1746: 19). Erronkarirako Uhalde Maio bidankoztarraren adibidea ezar daiteke: *eta ajustatan zelarik ekin zidarrezko deuri batian egun bapanaren* (SM, XX, 2).

4.1.3.5. Adberbio konposatuetan *nahi*-ren aitzinean doa kasu marka euskara zaharrenean; Leizarragak *libre da norequin nahi den ezconceco* dakar (300). Zuberoan *çoinçaz nahi* (Belapeire I, 61), *norc nahi beyta batheyatcen abal dia?* erakoak ditugu (1706: 81) eta baita *cernahi* (1780: 19), *çombatnahy* (Edipa, 304) edo *nolaconahi* (Intxauspe 1857: 108) aldaerak ere.<sup>39</sup>

4.1.3.6. Euskal Herriko erdigunean eta mendebalean ez bezala (cf. Santazilia 2007), aditzoin egitura zaharrei eutsi zaie ekialdean, eta ez ahaleko eta agintezko inguruneetan bakarrik; batzuetan denboraren ingurukoak dira, Zuberoako adibide hau bezala: *vezperetaric landa biharameneco ekhia sar artio den artian Gincoua othoïturen*

<sup>37</sup> Ibar honetako *gek* lehen mailako *gebek*-en laburdura da.

<sup>38</sup> Hona Zuberoako adibide batzuk, atribuzioan: *miracuillu eguïteco dohaigna beno handiago da* (1706: 41); *zamarien buriak ziren lehoun buriak bezalako* (Intxauspe, Apok, 54); *zien ártian handiën déna, izánen da...* (SM, XXIII, 11); izen zenbakaitz zehaztugabeak: *harc edukiren du Igante bartaco lekhu* (1758: 18); *Gascognaco gaintitiq berri gaisto badela ouste beitut ossoqui* (Charl., 209); beste hau osagarri zuzena da: *hil direner emeçu pphausu* (1758: 48). Zaraitzuko Otsagikoak, Zoilo Mosorenak dira *gure mandua zen anitz cultzilari gaxto* (45) eta *gaztaegileak nongo zren* (37); Erronkarin ere bai: *káur dun ón l éxil adi, alkebáge / ez aïela eror xárxa koriétra, suge bitágo* bildu zituen Izagirrek (1959: 291, 298, 307). Ikus honetaz Coyos 1999, Manterola 2006 eta 2008 edo Santazilia 2010.

<sup>39</sup> Baxenabarreko Arberoan *nuntiknahi* bildu dugu Mehainen; XVIII-XIX-ko katiximetan aldaketa sumatzen da Nafarroa Beherean; Laneufville (XVIII): *Nor nahic bathea dezakea?* (124). Donamartiriko katixima: *Nok nahi den batheya dezakea?* (264). Donapaleuko katixima: *Noknahic bathea dezakea behar ordian?* (237). Iribarnegaraireren San Mateoren ebanjelioa: *nor nahic galdein dezan* (32). Erronkariko Mendigatxa: *nontik naiden xin dein* (71); *zernaiden gaiza oil daztadan* (61).

*beitie* (1758: 6-7). Erronkarin Eugenia Baraze Algarra 84 urteko emazteki izabarrak, inkestetan erdaraz galdegin aditzak aditzoinaren bidez ematen zituen euskaraz (Mixelena *et alii* 1953: 503). Berebat, kontatera edo narrazio ingurunean, inoiz aditzoina baliatzen da ekialdean, partizipioaren atzizkirik gabe: Zaraitzun, Erronkarin, Zuberoan, Baxenabarre guztian, Lapurdiko barnealdean... baina Aezkoan ez.<sup>40</sup>

4.1.3.7. Aditz sailen era alokutiboan, hirugarren pertsona singular eta plurala adierazteko *d-* baliatzen da orainean ekialde zabalean, esaterako Baxenabarreko Arberoa eta Amikuzen; Bidarrain izan ezik, Baigorri *d-* ageri da. Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun ere honela da, baina Aezkoan ez.<sup>41</sup>

4.1.3.8. Ez dakigu xuxen aditz-atzizkirik gabeko perpaus erlatibo hutsa arkaismotzat har daitekeen; Zuberoa, Baxenabarre, Hazparne-Aturrialdean ibiltzen da, Lapurdi barnealdean gutiago. XVIII. mendeko era xiberutarrak dira *merechitu penac dutu* (1734: 76), *lantças ideki çauria* (1734: 103) eta *çoury eman hitça* (Edipa, 294). Arberoako Mehainen *hartu lekhurat* bildu dugu. Erronkarin ere badira adibideak.<sup>42</sup>

4.1.3.9. Ukapenean *-ela* egiten da perpaus kompletiboetan Zuberoan, Baxenabarren, Aturrialdean eta Lapurdi barnealdean. Hona Maisterren adibide bat: *etçunuke behar ouste ukhen, çu houra beno hobe cirela* (1757: 7). Aezkoako Orbaizetan bildu genuen beste hau: *eztu iduri erontsia inen duela*. Erronkarin ere berdin: *eztigu esprantzarik biltu biar digula, ez garirik, eta ez autzik* dakar Mendigatxak (86).

#### 4.1.4. Baxenabarre, Lapurdi eta Nafarroako berrikuntzak, Xiberu-Erronkarira heldu ez direnak

Ez dugu ukatuko euskal saihets honetara berrikuntzak iritsi direla. Halaz guztiz ere, badira Zuberoara eta Erronkarira heldu ez diren ezaugarri berriak. Hurra-nenak ekialdean berriztatu ez diren tasunak dira; saihetseko euskaldunek ez dituzte ibiltzen ondoko eskualdeetan garatu diren berrikuntzok, ez dira iritsi; jokabide honen saihetseko erkidegoen batasun eta kohesio maila erakusten digu; auzoek egin berrikuntzei entzungogor egin diete, ez dituzte berenganatu; berrikuntzaren aitzinean auzoen mintzora moldatu beharrean, beren ohiko aldaerak gorde eta baliatu dituzte.

<sup>40</sup> Hona Amikuzeko Arruetako bi adibide: *esküz bil eta esküz karga / hartan har eta geo orgetan ezar*, eta Zuberoako Urdiñarbeko bat: *gük [3]an gintiouk ogiakin delakoz, ogia ezpadie maite, bena ordin de[3]a zomatek etzieia maite, ordin ni kuntent nündia erdia üzten balima zien, komitatin sar eta han [3]aten nian.*

<sup>41</sup> Hona Intxauspek dakartzan adizki batzuk (1858): *dóak, doátzan, diágon, diáudek, dabilan, dárabilak, diók 'dio', dión 'dio', dioyé, dioñé, dioyát, dioñát, dióyagü, diónagü, dakiát, dakiñát, dakik 'daki', dakin 'daki', dakiágü, dakiñágü, dakié, dakiñé*. Nonbait, Zuberoan ez da guztizko batasunik izan: *citiçut* 'ditur' dakarte zuketan Oloroeko katiximak (1706: 25) eta Belapeirek (I, 35); *z-* duten aldaerak ageri dira Charl.-n: «jakin» aditzarekin *zakit 'zakiat'* eta Nor Nori Nork laguntzailean *zitiat 'ditiat'* (Oihartzabal 1991: 196). Egia esan, «jakin» aditzean *z-* agertzea ezaguna da Ipar Euskal Herrian. Lopezen 1782ko itzulpenean, *diakazie & diauzkazie* ditugu «eduki»-n, baina baita «jakin»-eko *ziakizut, ziakizu* edo *ziakizugu* ere. Zaraitzuko XIX. mendeko kristau ikasbideetakoak dira *diozu 'dago', diaudezu 'daude', diazu 'doá', diakizut, diakizu, diakizugu, diaukazut, diaukazu, diauzkazu* adizki zuketakoak. Erronkarikoak dira *diozu 'dago', daudezu 'daude', dakiguzu 'dakigu'*. Berriz ere, muga Aezkoan dago, ibar honetako euskararen *x-* ageri da hirugarren pertsonan: *xaek 'doá', xaxak 'doaz', xagon 'dago', xakin 'daki', xoukatat 'daukat'*.

<sup>42</sup> Uhalde Maiok dotrinan hau dakar: *leinago equin becatu mortale confesatiuetic zomait* (518).

4.1.4.1. Zuberoan ez bezala, Baxenabarren eta Lapurdiko eskualde batzuetan V-b-d-V > VhV gertatu da: *gihiletik* (Baigorri), *ihiltzian* (Donibane-Garazi), *ehatsi* (Oragarre), *zahal* (Beskoitze) / *zeharri* ‘zedarri’, *pohore* ‘podere’ (Beskoitze); *h* eman gabe bokalarteko kontsonante igurzkaria galtzea ere gertatzen da, hurranen bi adibideotan VgV: *gasnateia* (Bidarra), *ene ostuko* ‘ene gostuko’ (Heleta); honako galerak ez dira Zuberokoak, Larrasketen datuak lekuko: *adixkide*, *agéi* ‘ageri’, *ébats*, *ébil*, *egárrri*, *égin*, *égon*, *gibel*, *igáñ* ‘igan’, *igéi* ‘igeri’, *igorri*, *zábal*, *zedárrri*...

4.1.4.2. Aditz nagusia *n-z* bukatzen baldin bada, etorkizuneko aldaerak *emanen*, *izanen*, *iraunen* erakoak dira ekialdean; Nafarroa Garaian eta Baxenabarren —Arberoan eta Amikuzen, esaterako— lehenbiziko *-n-* hori galtzen da; Zuberoan oro har ez da galerarik gertatzen.<sup>43</sup>

4.1.4.3. Bi ibar hauetan ez dago *-ki* aditz atzizkirik, hanpatze, puntukari edo ohi-kotasun adieran.

4.1.4.4. Aditzaren modu ez errealetan *\*ezan*-en adizkietan ez da *-zki-* pluralgilea ibiltzen.<sup>44</sup>

4.1.4.5. Baxenabarre ondoko Zuberoa saihetseko herri zenbaitetan izan ezik, *n* pleonastiko analogikorik gabeak dira *\*edun*-en iraganeko Nor-Nork-eko “nik haiek” adizkiak.<sup>45</sup>

4.1.4.6. Ez da perpaus moduzko edo kontzesiboetan *-rikan* baliatzen.<sup>46</sup>

4.1.4.7. Denborazko perpausetan *-larik* ez da nagusi, *-nean* egiten dute xiberutarrek gehienik; erronkariarrek ere *-nian* egin dute, baina *-larik* ez da ezezaguna; Uhalde Maiok biak darabiltza.

4.1.4.8. Kausazkoetan Xiberu-Erronkarietan ez dago Lapurdi-Baxenabarretako *-lakoan* aldaera berriaren arrastorik.

4.1.4.9. Berebat, nafar-lapurteraz berriztatu diren aldaera batzuk baliatu beharrean, eredu zaharrari eutsi diote saihetsean: amizkuztar, erronkariar eta xiberutarrek (*h*)o(*g*)ei darabilte, baina Arberoan *hогоi*; Baxenabarreko *intzun* beharrean, *entzun*

<sup>43</sup> Dena den, Arbailan gerta daiteke galtzea, guhaurek Urdiñarben *-n-* gabeko aldaerak entzun ditugu: *edaen* ‘edanen’, *emaen* & *emanen*. Erronkarin, Azkueren bilduma barne, bokalarteko *n* horiek beti ageri dira: *emonen* dakarte idazki zahar batek (Gómez 1991: 387), Uhalde Maiok dotrina (523) eta ibarreko beste dotrina batzuek (1997: 175, 178); ahozko euskara bildu denean, emaitzak *n*-dunak izan dira: Mitxelena eta bestek *errànen* dakarte Izaban eta *emonen* Uztarrozen (1953: 515, 534).

<sup>44</sup> Baxenabarre, Lapurdi eta Nafarroa Garaiko eskualde batzuetan *dezazkiela* > *zkiela* ‘ditzala’, *ezazkik* > *zkik* ‘itzak’ erako aditzak ibiltzen dira; Zuberoan eta Amikuzen ez, baina Oztibarre ondoko Uhartehirin honelako adizkiak entzun ditugu hiketan. Erronkarin ere ez dago *zki* pluralgilerik: *tzan*, *tzala* ‘ditzan’, *ditzagun* & *tzagun* ‘ditzagun’, *ditzein* & *tzein* ‘ditzaten’; ordea, Zaraitzun bai: *zkizu*, *zkik*, *zkin*, *zkizie*; baita testuetan ere: *santificazquigula* (Mitxelena 1982: 25).

<sup>45</sup> Baxenabarren eta Lapurdiko Hazparnealde eta Aturrialdean *n* pleonastiko analogikoa ageri da iraganeko adizkietan osagarri zuzena plurala denean eta subjektua lehen pertsona singularra denean: *nintiin* ‘nituen’ (Banka, Baigorri), *nintien* (Garaziko Eiheralarre), *nitian* & *nintian* (Amikuzeko Behauze); *maite nintzin horiek* (Amikuzeko Arrueta). Hazparnealdean ere badira *nintiin* erakoak. Erronkariko Bidankozen *nition* dakar Bonapartek.

<sup>46</sup> Bada *-rikan* Aturrialde, Baigorri nahiz Garazin moduzkoetan eta Lapurdin ez da ezezaguna perpaus kontzesiboetan. Ordea, Zuberoa-Erronkarietan ez dago berrikuntza honen arrastorik. Patxi Altunak dio Axularren *-rik* eta *-tik* laburrak *-rikan* eta *-rikan* direla Etxeberri Sarakoarengan eta Axularren *gaberik*, berriz, *gabetarican* dela Etxeberrigan (1988: 245).

egiten da Zuberoa-Erronkarietan;<sup>47</sup> Baxenabarreko eta Amikuzeko *ereman* berriaren ordain, *eaman* & *iaman* dago Xiberuan eta Erronkarin *erman* & *eraman*; zuberotarren *årdü* edo erronkariarren *årdäu* beharrea, *ano* dago Baxenabarren;<sup>48</sup> *hamazortzi* da Zuberoan eta *hemezortzi* Baxenabarren;<sup>49</sup> berebat, Zuberotatik ezker hedadura handia duten *hak* 'hark' eta *borgo* 'horko' berrikuntzak falta dira Zuberoan eta Erronkarin; hondarreko ibar honetan *karek* eta *korko* ditugu.

#### 4.1.5. Jokaera desberdina arkaismoetan Zuberoan eta Erronkarin

Arkaismoei dagokienez jokaera desberdina dute ezaugarri batzuetan Zuberoako eta Erronkariko mintzoez. Aurkezten ditugun hamabietarik, lehen ezaugarria eskualdekoa da, ez du parekorik gainerateko euskalkietan; ondoko sei tasun zaharrak, Erronkarin eta Zuberoan jokaera desberdina dutenak, ekialde zabalekoak dira; aldiz, hondarreko bostak Euskal Herriko alderdi gehiagotan ageri dira. Halaz, aurkezten ditugun hamabi ezaugarri zahar hauetan Zuberoak eta Erronkarik zeinek bere bidea hartu dute.

4.1.5.1. Erronkarin aditzetan lehen pertsonaren *-da* morfema gertatu apokopeak ez du tinkadurarik eragin: *dud* 'dut', *tud* 'ditut', *daizud* 'dizut', *daizeid* 'dizuet', *daud* 'dior', *zaitad* 'zait', baina *-d* horren ordain *-r* ere bildu da Erronkariko Urzainkin eta Uztarrozen.<sup>50</sup> Zuberoan, Zaraitzun, Baxenabarren eta bestetan *-t* da bukaera hori; egia esan, Zuberoan *düdan* erakoak ibiltzen dira beti bokalarrean eta Erronkarin *dua*la 'dudala' dakar Uhalde Maiok (SM, XI, 10). Baxenabarren franko ibiltzen da *dua*la berrikuntza.

4.1.5.2. Ipar Euskal Herrian iraun du hasperenak gehien, baina bertako erdigunean egun indarra galduz doala dirudi. Eskuin, Amikuzen *h* gardenago ahoskatzen da edo gehiago entzuten da eta Zuberoan areago.<sup>51</sup>

4.1.5.3. Zuberoan —Belapeirek eta bestek *batzü* darabilte—, Baxenabarren, Aturrillean eta Lapurdi erdialdean *batzu* da zenbatzaile zehaztugabearen absolutiboa, *-k* gabe; Etxeparek eta Leizarragak ere *batzu* zerabilten, baina Axularrek eta Ziburuko Etxeberriek *batzuk*. Hona Oloroeko katiximako adibide bat: *Spiritu batçu çoignec eder-tarçun eta perfectione handibat beytie* (1706: 25). Erronkarin *banak* ibiltzen zen.<sup>52</sup>

<sup>47</sup> Amikuzen *entzun* & *intzun*, biak entzun ditugu; bestalde, Zuberoako mugako Olhaibiraino iritsi da *intzun* aldaera berria.

<sup>48</sup> Oloroeko katiximak *oguiaren eta mahatsanoaren uduri penen pian* dakar (1706: 96); Belapeirek ere *mahatsano* darabil (I, 69).

<sup>49</sup> Kasu honetan erronkariarrek *emezortzi* ibiltzen zuten. Bestalde, Salaberri Ibarrolakoak *hamazortzi* dakar Nafarroa Behereko hiztegian; guk Zuberoako Arüen eta Pagolan *emezortzi* bildu dugu, Amikuzeko Behauen eta Zuberoako Olhaibin *hemezortzi*, baina Pagola eta Oihergi herri xiberutarretan *hamazortzi*.

<sup>50</sup> Ez da *-d* falta Uztarrozen: Izagirrek *badakid* dakar (1959: 285). Azkuek Bidankozen eta Izaban *-d* entzun zuen (1931: 218).

<sup>51</sup> Egungo Armendaritzen eta Mehainen *h-z* ala gabe ahoska daiteke hitz bat; gauza jakina da ekialderago jorik *h* gehiago entzuten dela hiztunen ahoetan. Arberoako Mehainen bildu ditugu *nb*, *lb*, *rh* kontsonante taldeak, bikoteko fonema bakoitza bere silaban dagoelarik; trabariak ere hasperenduak dira Mehainen: *ph*, *th*, *kh*. Bestalde, gainerateko eskualdeetan *h* duten hitz batzuek Zuberoan falta dute: *aize*, *anagi*, *azi*, *erxe*, *ezür*, *osto*... Gauza jakina da Erronkari-Zaraitzuetan ez dela *h* gorde.

<sup>52</sup> Alta, Azkueren hiztegiak, Bernardo Estornesek eta OEH-k *batzuk* ere badakarte Erronkarin, baina adibide eta erreferentziarik ez; guk bederen, ez dugu adibiderik aurkitu.

4.1.5.4. Leku izen arruntetan adlatiboan *-la* gorde da *-ala(t)* erakoetan Zuberoan.<sup>53</sup> Honen ondoko Baxenabarren *-a-* gabeko *-la(t)* eraren adibideak entzuten dira. Ekialdean baino bakanago, Lapurdin eta Baxenabarren *-la(t)* aldaera ageri da *-a* fonemaz bukatzen diren hitzetan. Arberoan ez dugu *-ra(t)* baizik bildu, baina Amikuzen *-a-z* bukatuetan *-lat* dago eta hitz bukaeran beste bokalak direnean inoiz *-(a)lat*: *aizolat*, *jauregialat*. Zaraitzun bazen *-ala(t)*, baina Erronkariko emaitzetan *-ara(t)* baizik ez dago: *borontetic bioceara* (1997: 180).<sup>54</sup>

4.1.5.5. Ipar Euskal Herrian testu zaharretan “txistukaria + partizipioa” duten aditzek afrikazioa egin dezakete aditz izenean, *-tzen* edo *-tsen*: Etxepareren *hatse* ‘haste’ (6), *bocen* ‘pozten’ (188), Leizarragaren *ikutzeac* ‘ikuzteak’ (73v), *ikutzen* ‘ikuzten’ (108), *vitzen* (275v), Oihenarten *latzen* ‘lazten’ (334), *karatsen* (108), *pitzen* & *pitzera* (108) edo Tartasen *hotzen* (1975: 88), *pitzeko* (109) & *pitzian* (98), *bülützen* (123) adibideak dira lekuko; Belapeirek ere *pitzia* dakar (I, 38, 123). Egun ez da honelakorik Zuberoan.

4.1.5.6. Zuberoan “izan”-en iragangaitzekin *-te* morfemak adierazten du etorkizuna<sup>55</sup> eta aditz iragankorrekin *-ke* morfemak: *Jaun Directorrac duke lehen botça, eta bilduren dutu bestenac* (1780: 36). Bestalde, adiera modala du *-ke* morfemak Ipar Euskal Herrian, menturarena: Lapurdiko barnealdean edo Baxenabarren, Arberoan eta Amikuzen, esate batera, honela da. Zuberoan *-ke* atzizkiak eginkizun bat baino gehiago du: ahalean eta baldintzaren ondorioan ageri da; cf. Intxauspek (1858: 12-21).<sup>56</sup>

4.1.5.7. *ai-* erako botiboa XIX. mendean galdu zatekeen Zuberoan, baina Jeruntzen egungo mintzoan arrastoak gelditzen dira (Etxegorri 2003: 269-70). Chahok, Intxauspek eta Gèzek tasun honen berri eman zuten; erabili zuten idazleen artean, Leizarraga, Axular, Oihenart eta Pouvreau aipa daitezke, bereziki hondarreko autoreak. Oihartzabalek dioen legez (1997: 56), harrigarri da Belapeirek edo Tartasek erabili ez izana. Erronkarin ez da ezaugarri honen arrastorik ageri.

4.1.5.8. Erronkarin ez da afrikatu *ez + z-* sandhia: *ezen* dakar Uhalde Maiok (SM, VII, 25); afrikatua bildu zuen Mitxelenak Izaban 1953an: *etziá argitan bóza* (510), baina Izagirrek Uztarrozen igurzkaria: *ezein* ‘ez zuten’ (1959: 289) eta baita

<sup>53</sup> Peillenek dioenez (1992a: 250), adlatiboko atzizkien aldaeren erabileran adierak zeresana du Zuberoan: *-ala* baino generikoagoa da *-ra(t)*; hurbiltasuna edo zehaztasuna adierazten ditu *-ala-k*: *kanporat* (noranahi) vs. *kanpoala* (hona kanpora); *lanera* (noranahi) vs. *laniala* (lan berezi batera).

<sup>54</sup> Uztarrozeko Fidela Bernatek *Uruñara!*, *pues Uruñala* dakar (Artola 2000: 491), baina Erronkariko *-la-*ren adibide bakarra da hau, salbuespena, emazteki honek *Uruñara* ibiltzen zuen beti.

<sup>55</sup> Oloroeko katixima (1706): *escumucatu içatianian* (6). Eskiula (1780): *confrarian badate Jaun Directorraz besteric, çoin bethi Jaun Erretora beytate* (36); *Prioria hirour ourtheren date* (36); *jouanen dira haren ehortçetala bira bira, khorpiçaren bartçera içan diratian etçetic haren hobiala drano* (35). XIX. mendean etorkizuna adierazteko era zaharra eta *-ke-*duna batera dakartzta Intxauspek Zuberoan: *eta haren Jinko nizate, eta howa ene seme dateke* (Apok, 123); *béna phiztu nizatekiénian, lehentúwen nitzázié Galiléara* (SM, XXVI, 32).

<sup>56</sup> Bestalde, bada *-teke* bikoizketa ere, baina ez da aspaldikoa, berandu artekoak dira *-ke* gabeko adizkiak. Esate batera, ahalean *hel dáite* darabil Intxauspek 1858an (4); XX. mendeko Elixagaraik ere berdin: *ni ere ez nintezü iaitx* (118); Zuberoan egun *naiteke, daiteke...* entzun daitezke. Berebat, Baxenabarren ere *-ke* gabekoak izan dira ahaleko adizkiak aski berandu arte, XVIII. mendea bitarte. Uhalde Maiok bidankoztarrak *deiteque* dakar dotrian (514) eta Mendigatxak *naiteke, yaiteke, daiteke, gaizteke*; iraganean *zaiteken* ‘zitekeen’.



Mitxelenak eta bestek ere: *ezezein nai sinetsi* (1953: 526). OEH-ren arabera, Bizkaiko idazle moderno batzuek ere *ez z-* idatzi dute. Orobat, *ez + d-* ere hala-hala gelditzen da ibarrean: *ezdién págatèn* eta *ezdú izenik* bildu ziren Izaban (1953: 510, 520).<sup>57</sup>

4.1.5.9. Konparazio ingurunean genitiboa ageri da Erronkarin XIX. mendean; Bidadankozeko Uhalde Maiok dakar: *ez dela sortu bakotxik Juan Bautista beino andiago; aren beino andiago izanik ere, txikerrago dena zeurien reinuan* (SM, XI, 11); Lakarrak Bizkaiko XVI. mendeko *ator[r]en baxen vr[r]ago narrua* ezaguna gogorarazten digu (1986: 647).

4.1.5.10. Ablatibo morfeman *-ti* gorde da ekialdean, baina Xiberuko testu zaharretan *-tik* dute hala Jakes Belakoak nola haren seme Belapeirek; Oloroeko kati-ximan, ordea, bi aldaerak ageri dira eta aitortu behar da katixima hau Zuberoako erekiko leiala dela, egun zubereratzat jotzen dugun mintzo horrekiko koherentea; katixima hau Belapeireren garaikidea da. Egundar Zuberoan, Baxenabarren eta Makean bada *-ti* ere, nahiz Larresoro aldean *ez*; nolahi ere den, egundar Lapurdi-Baxenabarretan *-tik* da aldaera erabiliena.<sup>58</sup>

4.1.5.11. Euskal Herriko zenbait lekutan izenordain pertsonaletan *-zaz* dago instrumentalean, esaterako Gipuzkoan.<sup>59</sup> XVIII. mendeko Baxenabarren *-zaz* & *-taz* ageri dira idazkietan eta XIX. ean *-taz*, baina egitura Zuberoan gorde da ongien: pluralako izen arruntetan, erakusleetan nahiz izenordain pertsonal eta zehaztugabeakotan *-zaz* dago bertan.<sup>60</sup> Pirinioez bestalde gauzak bestela dira: Erronkari-Zaraitzuetan aipatu ingurune gramatikaletan *-taz* dago instrumentalean, egungo Baxenabarren eta Nafarroa Garaian legez: *gaicetaz* dakar Uhalde Maioren dotrinak (510).<sup>61</sup>

4.1.5.12. Atzizki lokatiboak inesiboaren arrastoa gorde du; Zuberoan *etxenko*, *goizanko* edo *ordüanko* ibiltzen dira eta Amikuzen *etxengo*; mendebaleko idazki zaharretan ere bada: *oñeztar barruangoac* dakar Mondragoeko erreketaren kantuak (TAV, 83). Erronkarin *ez* da honelako adibiderik ageri.<sup>62</sup>

<sup>57</sup> Azkuek dioenez, tinkatzea ere gerta zitekeen: *eztakizu* (1931: 254).

<sup>58</sup> Xiberuko egungo mintzoan, Madeleine Jauregiberrik *-ti* dakar, baina Peillenek Santa Grazin *-tik* bildu du. Gainerateko eskualdeetan ere ezaguna da *-ti* aldaera: Nafarroa Garaiko mendebal, erdigune eta ekialdean gorde da, baina *ez* dirudi Erronkarin ibiltzen zenik. Zaraitzun ere *-tik* egiten zen beti, baina EAEL-k *kändi* 'handik' adibidea dakar (II, 271. etnotestua). Aezkoan ere nagusi da *-tik*, baina *-ti* ere entzuten da inoizka.

<sup>59</sup> Bilintxen *izazu nitzaz kupira* ezagunak jarraipena zuen XX. mendeko donostiarren mintzoan: *nitzaz, gutzaz* esaten zen. Berebat, Baxenabarreko eta Lapurdiko erakusle edo izenordainetan ere —pertsonal nahiz zehaztugabeetan— halaxe da testu zaharretan, eta baita Beriain nafarraren lanean ere.

<sup>60</sup> Honek *ez* du esan nahi *-z* morfema hutsa Zuberoan baliatzen ez denik: *hunez, horrez, harez, horiez, boyez, hayez* ditugu XVIII eta XIX. mendeetako idazkietan, baina arestian aipatu legez, hauekin batean bizirik dirau Zuberoan izen arruntetan pluralako eta erakusle-izenordainetako *-zaz* aldaerak. Ordea, Belapeirek pluralean *-ez* darabil

<sup>61</sup> Borja Ariztimuño ikertzailearen arabera, *-za* litzateke instrumentalaren euskal atzizki zaharra; hartara, mugatu singularrean hitzek «erroa + *-a* + *-za*» egituran apokopea jasan dukete; erakusleetan, pertsona izenordainetan edo izenordain *ez* zehaztuetan pleonasmoa gertatu bide da: «*har* + *-za* + *-z*», «*gu* + *-za* + *-z*» edo «*zer* + *-za* + *-z*»; antzera gertatu da Xiberuko atzizki pluralean: *qhiristieçaz; estrançereçaz* (Charl., 309).

<sup>62</sup> Uhalde Maiok *egunko egumian* dakar (SM, XI, 23 eta XXVII, 8), baina berezkoa da *n* hori, *ez* da inesiboa.

## 5. Ekialdeko hizkuntza-berrikuntzen sorburuaz

### 5.1. Euskararen barreneko berrikuntzen sorburuaz

Dialektologia egitean hizkuntza-berrikuntzen sorburuaz eta norabideaz jardukitzea ez da hutsaren hurrengo gaia; honelakoetan ari denak bere burua beharturik dakusa inoiz balizko azalpenak postulatuzera. Hizkuntza-berrikuntzen sorburu geografikoen ezaugarrien artean, indar demografiko edo ekonomikoa eta inmaterialagoa dirudien erakarpen kulturala aipatu ohi dira tradizioko dialektologian.

1997an genioenez (289), aintzat hartzekoa da hizkuntza-aldaera batzuk hiztunak zein maiztasunez entzuten dituen. Erkidego murriztagoko kideak ukipen egoeran usuago entzuten du erkidego handiagoko kideen aldaera, alderantziz baino; esate batera, itxaron genezake Aezkoako jendeek baxenabartarren aldaerak maizago entzun izana alderantziz baino, bien arteko hartu-emanen Baigorri edo Garazin gertatu baita: azienda Iratiko bazkalekuetara eramateko ez bada, baxenabartarrek ez dute Aezkoara jo, baina badakigu aitezke lan bila Baxenabarrera usu jo dutela.

Garazin elkarren aitzinean gertatu diren hiztun garaztar eta aetzen portzentaia nabarmen desberdina izanik, eragin dialektalaren gairako ondorioak begien bistan daude: beren bizialdian usuago gertatu dira aetzak garaztarren aitzinean alderantziz baino. Aezkoako euskarak Baxenabarreko ezaugarri batzuk bildu ditu, berrikuntzak egin ditu handik eraman hizkuntza-gaiekin, baina garaztarrek Aezkoatik berrikuntzarik bildu duten ez dakigu, aztertu beharreko gaia da hau.

Koldo Zuazok ere honela ikusi du gaia: Euskal Herriko ekialdeko berrikuntzen sorburua Ipar Euskal Herrian kokatu du, eta ez Erronkari, Zaraitzu edo Aezkoan, “debido a su escaso potencial económico y demográfico” (2010: 186).

Ekialdeko berrikuntzen sorgunetzat Donibane-Garazi, Donapaleu, Maule eta Atharratze hiriguneak ere proposatu ditu berriki (ibid.). Beharbada Maule eta Atharratze merkatua egin den hiriak direlako aipatu ditu; merkatuguneek eragina dute hizkuntza-ezaugarrien hedaduran, salerosgoan gerta daitekeen mintzo desberdinen bateratze dinamikak aldaketak eta berrikuntzak eragin ditzakeelako, *levelling* delakoa, hizkuntzazko soiltzeak barne, esate batera, baina ez dago arrazoi handirik Mauleko edo Atharratzeko bereziak diren berrikuntzak Zuberoara edo ekialdera hedatu direla pentsatzeko: arrazoi sendoak beharko genituzke bi hirigune hauetako hiztunen berrikuntzak Zuberoara edo ingurumarira hedatu direla adierazteko, ekonomikoak eta demografikoak, adibidez. Zuberoako Maule eta Atharratzeri dagokienez ez ditugu gauzak garbi ikusten eta badira arrazoiak aurkako iritzia edukitzeko.

Zuberoa da Euskal Herrian artzain erkidego sendoaren adibide etnografiko garbiena: artzain kulturak eragin dituen erek batasuna ageri dute bertan; bestalde, artzainen udako bortuko olen legeriak erabateko zehaztasuna eta zorrotzasuna ditu Zuberoako herrietako kulturean, Euskal Herriko beste inolako eskualdetan ez bezalakoak. Zuberoako orain arteko gizartean, errota zenbait eta Larraineko XVIII-XIX-etako burdingintza aipa daitezke, eta baita eskulangileak ere, Zuberoa guztian bezala Maule ere izanen zirenak, baina hortik goiti, herri xehea ez dirudi Mauleko hotsei beha egon denik: ardiari begira egon da, belarraren eta bazkalekuen gibeletik ibili ohi den ardiari begira. Xarles Videgainek Euskal Herri Hizkeren Atlaseko 26. gaian Zuberoako Altzai, Altzürükü, Barkoxe, Domintxaine, Eskiula, Larraine, Montori, Pagola,

Santa Grazi, Sohüta, Urdiñarbe eta Ürrüstoin bildu dituen datuek ederki erakusten dute hau.

Artzain erkidegoa da Zuberoa eta horrek berezitasun batzuk ematen dizkio: Belapeirek bere itzulpena arrazoitzen duenean *gouré Laborari eta Cabaleçain gachoak* aipatzen ditu (II, 4). Izan ere, artzainen sindikatuko kideak dira, artzainak berak, Zuberoako ekonomiaren alderdi sendoena higiarazten dutenak; bazkalekuen kudeaketan herri handiago eta ttipiagoen arteko gatazkak sor balitezke ere, Zuberoako herri guztiak sindikatuko kide dira eta horrek batasuna eragiten du; lanbide nagusia artzaintza izateak ere zuberotarren batasuna dakar, halako talde bateko partaide izateko sena, eta hori hizkuntzan senti da; ibarra mendiek hertsirik dago hego eta erdiguneko mendebaletik, eta eskuin, Bearnora heltzeko mendiak ala basoa iragan behar dira; horrek halako bakartzea eragin die zuberotarrei hizkuntzaren aldetik garaztar-oztibartarrekiko, udan bortuan elkarren ondoan ibili badira ere. Euskaldunei begira, Zuberoako alderdi zelai bakarra ipar-mendebalean dago, baina badirudi iraganean Donapaleu eta Maule arteko irispidea ez zela hain ona.

Hirigunetik hartzen dituzte beharbada hizkuntza-berrikuntzak herri txikiagoetako hitzunek: erakunde agintariak gune horretara biltzen dira gehienetan, hirian aurki daiteke lanbidea, sosa, zerbitzua eta baita aisialdia edo kultura ere, baina baldintza hori ase beharko luke Maulek Zuberoako eragingune linguistiko nagusia izateko eta datu historikoek ez diote hori.

Industriako lantegiei XIX. mendearen bukaeran baizik ez zaie lotu Zuberoa, herrialdearentzat Maule ez da historikoki hain garrantzizkoa izan, Frantses Iraultzaren garaitik hiri hau kantonamendu baten buru izanik ere. Herrialde honek hirigune handi bat ukan ez badu, hau da, demografikoki Zuberoan Maule baino biztanleria handiagoko herriak izan baldin badira, hiri horrek rol hori jokatzeko duen ezaugarri bakarra geografikoa da, Zuberoako iparrean, Pettarrean erdigunean baitago, baina ez Zuberoaren erdigunean. Zuberoako tradizioko hiriburua Lextarre izan da eta zuberotarrek Maule ez zuten berena sentitzen; Frantses Iraultza aitzinexean, Maule Zuberoarentzat Turkia bezain arrotza zela idatzi zen.

Iraganean, hau da, Zuberoako euskalkia garatu den mendeetan, ez dirudi Maulek hiriburua rol nabarmenik jokatu duenik, aski hiri erdalduna izan da eta gainera, XIX. mende bukaera arte ez du industria sendorik ukan. Ez dirudi zuberotarrek antropologikoki Maule beren herrialdeko buru sentitu edo ikusi dutenik; Zuberoa kudeatzeko eta gobernatzeko zeuden agintari bearnoarren kokagunea izan da Maule historikoki eta etxe izenetan ere ezagun du hori; oikonimo euskaldunen portzentaia Maulen baino anitzez ere handiagoa da Zuberoako gainerateko herrietan.

Alta, hiri arrotza izanik ere, zubereraren eragina ukan duen bearnesaren sarbide izan dateke Maule: zubereraren eragina ukan duten berrikuntza batzuk, beste alderdi bearnoar batzuetarik legez, Mauletik ere etorri dira, baina ez Mauletik bakarrik: Zuberoak auzo herri bearnoar anitz du.<sup>63</sup>

Zuberoako gizartean Maulek eta Atharratzek ukan duten erakarpena ezagutzekotan, aski dugu XIX. mendearen hasieran herrialdeko demografia nolakoa zen eza-

<sup>63</sup> Petiri Prebende Salaberrikoa aurkeztu zigun Peillenek 1985ean: euskara, bearnesa, gaztelania eta frantsesa zekizkien 83 urteko gizon santagraztarra.

gutzea, 1820koa hain zuzen ere. Kantonamenduka gauzak neurtuz gero, Ipar Euskal Herriari begira izarturik, biztanle kopuruari doakionez, argi ageri da orain baino zama demografiko handiagoa zeukala Zuberoak orduan:

— Mauleko kantonamendua:	12.820 / Atharratzeko kantonamendua:	9.224
— Donapaleuko kantonam.:	14.812 / Garaziko kantonamendua:	9.879
— Iholdiko kantonamendua:	9.085 / Baigorriko kantonamendua:	11.605

Frantziako Pirinio Beheretako eskualdeak orotara ia 400.000 lagun zuen, 399.474 hain zuzen ere. Hauetarik 67.425 biztanle Mauleko arrondizamenduari zegozkion, ia Baionakoari bezainbat, 70.126 baitzituen honek; aldi hartan, Baxenabarreko ekialdea Mauleko arrondizamenduari atxikirik zegoen eta erakunde eta demografia alderdiko Zuberoaren eragina nabarmenagoa zen orduan Ipar Euskal Herriaren barrenean. Ondoko eskualdeetan, Oloroeko arrondizamenduak 71.042 biztanle zituen, Ortheze-koak 81.732 eta Pauekoak gehixeago, 109.149 hain zuzen ere.

1820ko artzain gizarte xiberutarrean, demografikoki ez Maule ez Atharratze zeuden buruan; lehen lau herri jendetsuenak artzain erkidegoak ziren: Barkoxe (1.921), Sohüta (1.494), Santa-Grazi (1.275) eta Montori (1.269); tradizioz Montorin bearnes hizkuntza indarrean izan da eta Zuberoako legeekiko ere herri berezia izan da Montori. Demografikoki Maule bosgarrena zen, 1.054 biztanle zituen, baina Urdiñarbe (1.010) eta Larraine (948) artzain herriak ere beraren mailan ziren ia. Ondotik Altzürükü (700) eta Muskildi (664) ageri dira. Jarraian, Mithikile (570) eta Mendikota (512) datoz; ondotik dugu Atharratze (491) ere, zeina gerora Sorholüze (399) herriarekin elkartu baitzen eta 890 bizizale ukaiteraino heldu. 1841ean Maule eta Lextarre (419) elkaturik, Zuberoako hiriburua 1.500 biztanle ukaiteraino heldu zen.

Dena den, ez daiteke uka, geografiako zentralitateaz landa, Maule (1.054) + Lextarre (419) + Sohüta (1.494) + Garindaine (352) guneak indar demografikoa zeukala Zuberoan, 3.319 lagun.

## 5.2. Zuberoa eta Bearno: hartu-emanak eta bearnesaren eragina

Zuberoako euskararen ezaugarriez eta berrikuntzez diharduten lanetan, gaskoin dialektoaren aldaki den bearnesak menderen mende xiberutarrean eduki duen eragina aipatzen da, alderdi fonikoan eta lexikoan bereziki; cf. Larrasket, Lafon, Peillen, Hualde edo Coyos ikertzaileen lana.

Gaskoinaren eragina Zuberoak Bearnorekin hartu-emana izan duelako gertatu da; auzoen artean ohi bezala, frankotan hartu-emana txarra izan da, Zuberoa jende gaskoinen agintepean egon baita luzaz; beste aldi batzuetan ez horren txarra, baina beti ere hartu-emana izan da. Bearnok Zuberoa bereganatzeko eta bertan agintzeko izan duen borondatea historia erakusten digu: Zuberoako bizkonterria desegin zutenean (xii. mendea), Frantziako koroara iragan aurretixe (xv. mendea) edo Frantses Iraultzaren ondotik (xviii. mendea), bearnorrek Zuberoan agindu dute; egun ere, Bearnori atxikirik darrai Zuberoak. Gaskoinen menpe egoteak eragin zuen xiv-xvii mendeen bitartean gaskoin *scripta* Zuberoan arras erabiliak izatea, baina jo dezagun orain Zuberoa herrialdeak Erdi Aroan izan bizikizunez zer-tobait aurkeztera.

Zuberoak Ûhaitzandi ibaiaren arroa hartzen du eta hiru zati biltzen ditu bere baitara:

- *Pettarra*: hiru *dégairie* zituena, Domintxaine, Arüe eta Larüntzekoak.
- *Arbaila*: Arbaila Handiko eta Arbaila Tipiko (Peyriede) *dégairie*-ak zituena.
- *Basabürüa*: Ibar Esküin eta Ibar Exkerreko *dégairie*-ak zituena.

Elizaz bereziki, Zuberoa *Iluro* edo Oloroe hiriaren menpeko herrialdea izan da. Merkatu-hiria zen Maulek, eta sei erret-hirik —Atharratzek, Barkoxek, Hauzek, Larrainek, Montorik eta Santa Grazik—, gainerateko herri zuberotarrek ez bezalako eskubideak eta nortasun juridiko berezia zituzten.

Erdi Aroan, botere agerpen oro garapen luze baten ondorioa da; Erdi Aro apalean Zuberoaren historiako gertakari garrantzizko eta guztiz aipagarria da herrialde hau XI. mendean bizkonterri izana; Zuberoako bizkonterriak historia baten indarra eta ibar baten nortasuna adierazten ditu (Goulard 1994: 171), nahiz, egia esan, aginte nagusia Gaskoiniako konteak zeukan; ingurune hartan 980. urtean Akizeko eta Oloroeko bizkonterriak sortu ziren, baina hauek ahultzearekin Zuberoakoa agertu zen testuetan (172). Ordea, Zuberoako bizkonterriak ez zuen luzaz iraun, XII. menderako kapitulazioa gertaturik zegoen. Bearnoarrek Gaskoiniako kontearengandik eta Akitaniako Guillaumerengandik Zuberoako ibarraren agintea lortu zuten; bearnoarrak Zuberoan kokatzeak alarma biztu zuen bertan eta ez zen gora-behera odoltsurik falta izan; esaterako, Bearnoko *centulle*-aren ahaide bat Amikuzen hil zuten (182); odol aferak goiti-beheiti, agintea ez zen Zuberoan gelditu, Nabarrenkozen eta Oloroen kokatu zen.

Bizkonterri gisa irauteko Elizaren laguntza behar zuen Zuberoak, baina ez zuen erdietsi: Raimond-Guillaume bizkonte zuberotarrak, deus gabe hegoalderat jo eta Iruñeko erregearekin batean Iberiar penintsularen errekonkistari ekin zion. 1160an Zuberoako bizkonte tituluak Iruñeko erregeari loturik jarraitzen zuen, baina edukiz hutsik zegoen (184).

Gaskoiniaren eta Nafarroa Garaiaren arteko lotura X. mendetik zetorren eta XIII. mendean Zuberoako jauntxo bizkonteen oinordekoek Nafarroa Garaia atxikirik jarraitzen zuten; nafarren ondoan jardun zuten gerlan eta antzeko ekintzetan (185). Nafarroako erregeak eskertzen zuen jauntxo zuberotarren bermea, eta zuberotarrek, bestalde, nafarren bermea bearnoarren kontraboteretzat zekusaten (186). Nafarroarekiko lotura izan zuen Zuberoako bizkonterri hark, ordea, Bearnoko Oloroeko apezpikutegia osatzen zuen. Lapurdiko eta Zuberoako bizkonteek XIV. mendea arte Nafarroako erregeekiko konplizitatea izan zuten, iparreean zeuzkaten duke gaskoinen aurka baliatzeko batez ere, baina Zuberoako jauntxoak Nafarroako erregearekin egonik ere, Zuberoa konte gaskoinaren menpeko eskualdea zen.

Ezaguna da iraganean Baionak, Lapurdik, Nafarroa Behereak eta Zuberoak Ingalaterrako erregeen kanpo politikaren ondorioak jasan zituztela; Akitania, Gaskoinia eta Zuberoa luzaz Ingalaterrako koroaren menpe egon ziren, hiru mendez; ezaguna denez, Frantziaren erdia Ingalaterraren menpe egon zen. Ingalaterraren eragina sailhesteko eta bearnoarren indarrari aurre egin nahirik, Nafarroari areago atxiki zitzaion Zuberoa, esaterako XII. mendearen bukaeran.

Ingalaterraren orbita politikoaren barrenean sarturikako Zuberoa hartan, hondarreko bizkontea Auger de Miramont izan zen; aurka agertu zitzaiolako, Akitaniako Duke eta Ingalaterrako Errege zenak Zuberoako bizkontea Nafarroa Garaira kanpo-

ratu zuen 1307an. Mauleko gazteluko kapitain-alkaideak Zuberoako bizkontearen agintea hartu zuen, Ingalaterrako erregearen izenean: erret-lur batzuen emaitzak eskuratzeaz landa, zuzenbidearen onurak eta zerga zenbait biltzen zituen; agintea edukitzeaz haratago, erakundeen babesle ziren gudarien gaineko agintea eta zuzenbideko gizonen mesedea ere erdietsi zituen. Frantziako erregeak 1449an konkistatu zuen arte, Ingalaterrari atxikirik iraun zuen Zuberoak.

Akitaniako duke ere baziren Ingalaterrako errege-erreginen aginteak begirunea eduki zuen Ipar Euskal Herriko erakundeekiko, baina aldi hori xv. mendearen erdialdean bukatu zen, Frantziako erregeak Gaskoinia konkistatu eta Ehun Urteetako Gudua bukatzean: ingelesak eta gaskoinek menperatzen zuten Zuberoa hura, frantsesen agintepean iragan zen, mende erdi batez bearnoarren eta hauen bizkontearen menpe egon ondotik. Hiru mendez ingelesak eta gaskoien menpe egonik, ondotik Zuberoa mende erdi batez bearnoarren eta hauen bizkontearen menpe gelditu zen, baina Frantziaren menpeko izatera iragan zen hondarrean. Karlos VII.a Frantziako erregearen teniente nagusi zen Bearnoko Gaston de Foix IV.ak Mauleko eta Gixuneko gazteluak hartu zituen 1449.ean eta 1450.ean, berriz, Lapurdi. Nafarroa Garaiko erregeak 6.000 gizonekin zuberotarrak laguntzera jo zuen, baina ezin izan zuen deus egin. Nafarroa Beherea salbu, xv. mendearen erdialdean Ipar Euskal Herria Frantziako Koroaren agintepean gelditu zen.

Ondotik xiberutarrek beren foru eta ohiturei atxikirik jarraitu nahi izan zuten; esate batera, xvii. mendean Paristik edo Versaillestik etortzen hasi zitzaizkien eskakizunei entzungogor egiten zieten; zuberotarrak zinez saiatu ziren zuzenbidea beren ohiko foruaren arabera gauzatu zedin eta ez aldian aldiko Pariseko agintarien borondatearen arabera. Frantses Iraultza baino lehen, Zuberoak halako autonomia maila bat gozatzen zuela esan daiteke, baina Iraultzaz geroztik Zuberoak bere izaera galdu zuen eta Frantzia guztia departamentuka eratu zen. Zuberotarrek nahiko zuketean administrazio-banaketa handiago batera sartuak izan gabe beren nortasunari eustea, baina Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeak Bearnori atxikiz eratu zen departamentua. Peillenen iritzia da xviii. mendetik honat zuberera gainerateko euskalkietarik urrundu dela, Frantses Iraultzak Zuberoari beste euskaldunekin zituen hartu-emanak murriztu zizkiolako, bearnoarrak beren betiko gutizia erdietsi zutelako, Zuberoa Bearnori atxikitzea (1992a: 266).

Iraultza bitartean Maule arrondizamendu buru izendatu zuten eta Baxenabar gehiena berari atxiki, biztanleetan Baxenabarre bikoitza izanik ere, baina 1926an ekonomia arrazoiengatik arrondizamenduaren buruzagitza kendu zioten Mauleri eta berriz ere, Zuberoa Oloroeko arrondizamenduari atxiki zioten.

Ondoko ataletan eginahala eginen dugu xix. mendeko berrikuntzak Zuberoan zein diren argitzeko eta zaharrago direnetarik bereizteko; ordea, ez da aise berrikuntza berriagoen kopuru handia aurkitzea, edo guk segurik testuetan ez dugu horrenbeste ediren.

## 6. Ekialdeko berrikuntzak

### 6.1. Zuberoa eta Erronkariko berrikuntzak

Arestian aipatu dugunez, bere baitara bildurik dagoen erkidego batek —gure kasuan Zuberoa ibarrak edo Erronkari ibarrak—, arkaismoei eustez gainera, bere-be-

reak diren berrikuntzak gara ditzake, ausarki gainera, ez baitu berrikuntza horien erabilzaile ez diren gainerateko euskaldunekin hartu-eman handirik, eta beraz, ez du berezko berrikuntza horiei galga komunikatiboa ezar liezaiekeen egoerarik bizi. Peter Trudgill-ek idatzi duenez (1995, 1997, 2004), erkidego txipi eta saihetsetakoek berrikuntza kopuru handiak sor ditzakete, eta oso izaera ñabar eta konplexukoak, helmen sakonekoak; nork uka lezake auzi honetan Erronkari ibarra adibide ezinago egokia dela? cf. 4.1.5.1.

Erkidegoetako hiztunen kopuruaren eta beren fonemen *inventarium*-aren arteko erlazioa badela defendatu ohi du Trudgillek eta fonologian adituak diren anitz iker-tzailek ikuspegi hau kritikatu dute; 2004 urteko *Linguistic Typology* aldizkariak gai honetaz dihardu eta Trudgill-en ikuspegiak bildu duten kritika zabala argi eta garbi ageri da bertan.

### 6.1.1. *Aspaldiko aboskera berri sistematikoak, testu zaharrenetako grafian islaturik*

6.1.1.1. Asimilazio ezaguna da *i-u > u-u = ü-ü*, Erronkari, Zuberoa eta Amikuzen baliatu dena;<sup>64</sup> muga Zaraitzük egiten du, ibar horretan *i-u* egiten zen. Hiru silabako hitzetan edo hitz luzeetan gertatzen eta ugaltzen bide da gehien ekialdeko *i-u > u-u = ü-ü* asimilazio hau.<sup>65</sup>

Peillenek dioenez, xiv. mendeko oikonimo idatzietan, *Ithurriague*, *Itturrialdea*, *Itchurie* edo *Iturraltea* aldaera gordetzailak ageri dira Zuberoan (1992a: 256), baina ez da atzendu behar toponimoek joera dutela gordetzaila izateko.

6.1.1.2. Hainbat inguruetan *au > ai* —inoiz *eu > ei*— palatalizazioa dago Zuberoan eta Erronkarin: *gaiza*, *gai*, *hait* ‘haut’..., baina *gaur*, *haur*, *hautse* ‘hautsi’, *aurthen* adibideek ageri dutenez, ez da *au* oro aldatu; *r*, *rr*, *s*, *ts* aitzinean eta *j* ondoan diptongoa ez da aldatu; ondotik *h* denean bietara gertatu da: cf. *auher* / *aiharri*.<sup>66</sup> Ez dakigu *au > ai* bilakabideak *u > ü* palatalizazioarekin lotura zuzenik eduki ote duen.

6.1.1.3. Hitz bukaeran *-ü* sudurkaria eman dute maileguetako *-(i)on(e)* bukaera zaharrak eta *-on* bukaera berriagoak Zuberoan: *arrathü*, *arrazü*, *sasü*; baita *kamiü* ‘kamioia’, *lehü* ‘lehoia’, *xabü* ‘xaboiia’ itxuraz berriagoak ere; 1734ko otoitzak *poçoüa* ‘pozoina’ dakar (43); hitzok hondarreko bokal sudurkarian azentua dute. Euskal hitze-

<sup>64</sup> Bestalde, litekeena da *u-i > u-u* ere gertatzea: *burdugna* dakar Maisterrek (1757: 32) eta *burriña* zegoen Erronkarin.

<sup>65</sup> Belapeirek *uguruki* dakar (I, 78). Zuberoako <ainguru> ‘aingerua’ eta Erronkariko *ainguru* aldaeran ere asimilazioa gauzatu da. Beharbada *üthürü* bezalakoetan asimilazio osoa gertatu da; Maisterrek 1757an dagoeneko <uthurru> (165) dakar, nahiz <uthurri> ere baduen (168). Eragin morfoloikoa ere aipa daiteke *üthürü* aldaera sor dadin, bestela, berranalisi morfoloikorik gabe ez legoke, esate batera, *khölpü* ‘kolpea’ aldaerarik Zuberoan, *eltzul-ü* ‘eultzia’ aldaerarik Erronkari-Zuberoan, *ataku* ‘atakea’ aldaerarik Lopezen 1782ko itzulpen lanean edo *axerü* ‘azeria’ bezalakorik Amikuzen. Egungo Zuberoan *arrabotü* dago, ezkerreagoko ibarretan *arrabote* dena; zaharragoak dirudite *sühü* —nahiz EAEL-k *sühi* baizik ez dakarren—, *ülü* ‘eulia’, *üzkü*, *zübü* aldaerek. Erronkarin *eguzku*, *uzku*, *zubu* ditugu, baina baita *zibi* ere; cf. 6.1.4.1.

<sup>66</sup> Bilakabidea lehen testuetarik ageri da, Jakes Belakoaren lanean: *laiydadi* ‘lauda hadi’ eta *lein* ‘lehuna’ ageri dira. Ondotik, *aizo*, *gaiza*, *laida[rü]* erakoak dakartzza Belapeirek. Aldaketa ez da mende-balerat hedatu; Amikuzen *aizo* aldaera erabiltzen da, baina ibar honetan ez dago *au > ai* aldaketaren adibide gehiago, hau baizik ez dago. Zaraitzun ere *au-ri* eutsi zaio.

tan ere bada bukaera hori: [khařú] ‘karroina’, [haskú] ‘azkona’; bestalde, Mitxelenak \*(h)iguni berreraikitzen duen ‘higuin’ hitza, *hügü* da Zuberoan, hondarreko bokala azentuduna eta sudurkaria duela; Jakes Belakoak eta Oloroeko katiximak <hugu> dakarte. Erronkarin guztiz berdin ez bazen ere, antzera gertatzen zen: *arrazóř*, *azkóř*, *karróř*, *morróř* ‘haurra’, *saróř* ‘sarobeá’. Berriz ere Zaraitzuk muga finkatzen du: *axkon*, *xabon* edo *sason* bezalako hitzetan *-n* zegoen.

### 6.1.2. Grafian islatu ez diren ahoskera berriak

Hitz arrunten forma huts flexiorik gabekoetan, hitzaren azkenaurreko silaban doa azentu nagusia Zuberoa-Erronkarietan; pluralean bi mintzoetan kolumnala da, azken silaban doa; Erronkarin mugatu singularrean ere kolumnala da: *mítala*, *sémeak*, *sémeari*..., baina Zuberoan silaba bat aitzinatzen da: *míthil* → *míthíla*; bestalde, *-a-z* bukatu hitzetan singularreko mugatua *-á* da bi ibarretan.

### 6.1.3. Morfologiako ezaugarri berriak, testu zaharretan islatuak

6.1.3.1. Belapeireren garaitik Zuberoako idazkietan ageri den *hurak*, hirugarren mailako erakusle plurala —*çoiŋ dira hon spiritual hourac?* (1706: 39)—, ahoz orain Zuberoan *huak* & *huk* ahoskatzen dena, Erronkarin eta Zaraitzun ere baliatu da, *ku-rak* & *urak* aldaerapean.<sup>67</sup>

6.1.3.2. Adlatiboak mugatzailea itsatsirik eraman dezake Zuberoa, Erronkari eta Zaraitzun: *adiniala beltuz gueroz dakar* Oloroeko katiximak (1706: 76) eta Uhalde Maiok *eltuz gero tenpluara* (SM, XXI, 23).

6.1.3.3. Ekialdeko euskararen izaera definitzen urrats bat egin du muga adlatiboaren atzizkiak ere: garai zahar nahiz berrietan Ipar Euskal Herrian aski hedaturik ageri zaigu *-rano* atzizkia, baina ekialdean era pleonastiko eta konplexuagoa dugu: *-ra* + *-da-* + *-rano* = *-la* + *-da-* + *-rano* egitura ere baliatu da bertan, sinkopa jasanik *-radrano* = *-ladrano* eran ere ageri dena.<sup>68</sup> Erronkarin ere baliatu ohi zen atzizkia: *-radraino* singularrean eta *-tradraino* pluralean;<sup>69</sup> Zuberoan ematen du pluraleko *-etaradarano* edo *-etaladarano* ez dela horrenbeste baliatu. Ez dirudi hain eredu berria, Leizarraga eta Oihenart beren garaian erabiltzaile zirenez; Leizarragak era honen adibide zenbait ibili izanak ez dakigu garai batean ezaugarri hau mendebalerago baliatzen zela adierazten ote duen; ez jakin.

Jarraian aspaldiko idazle eta idazki zaharren aurkezpena dakargu; bertan ageri denez, Leizarragaren salbuespenarekin, *-ra* + *-da-* + *-rano* edo *-la* + *-da-* + *-rano* egitu-

<sup>67</sup> Aezkoako xix. mendeko kristau ikasbide bat argitaratu zuenean, Bonapartek *urac* erakusle plurala ezarri zuen bertan (Camino & Gómez 1992: 572), baina era hori ez da Aezkoan inon ere ageri; zerrenda batean *gurak* ere idatzi zuen (1872: 24), baina *gaiek* & *aiek* eta *gaek* & *aek* dira Aezkoan idatzian edo ahoz baliatu direnak. Bonapartek mimesiz Erronkari eta Zaraitzuko aldaera mekanikoki Aezkoara ekarri zuen: berak asmatu zituen *urac* eta *gurak* testu haietan.

<sup>68</sup> Era honekin lotura dukete Oihenarten *geurzdara* ‘datorren urtera’ (2003: 88) eta Zuberoako *bihar dara gabe gaur* (Charl., 331) adibideek. Erlazioa luke *oraydranicq* ablatiboko *dara* > *dra* horrek ere (ASJ, 52), zeina Mercyk soilago *oraydanic* baitakar (1780: 6). Charl.-n *dejaradaniq* (191) dugu, non *deja* + *dananik* > *dejaradaniq* metatesia gertatu baita (Oihartzabal 1991: 191). Intxauspek *oraidána* dakar (SM, XXIV, 21); cf. de Rijk (1992).

<sup>69</sup> Izaban *Zánkozaradréino* dakar Izagirrek (1961: 401) eta Artolak *Izàbaradréino* (1977: 94).



raren erabiltzaileak ekialdeko idazleak dira beti; adibideak orripeko oharrean eman ditugu, Baxenabarreko datuak barne.<sup>70</sup> Davantek dioenez, *-drano* galbidean da Zuberoan (2010: 34); Intxauspek *bestialáno* erakoak dakartza XIX. mendean (SM, XXIV, 31); *hírou-r-guérren egunialano* (SM, XXVII, 64).

6.1.3.4. Izenordain pertsonal hanpatuak —inoiz genitiboan bihurkari ere badirenak— zatiketaren erakusgarri dira; bi sistema ageri dira nabarmen, Nafarroa Beherekoa eta Zuberoakoa batetik eta lapuritarra bestetik. Nafarroa Beherekoa gordetzaileagoa da Zuberoakoa baino: Etxepareren garaitik ezagun du aldaketarik ez dela gertatu eta XIX-XX. mendeetan ere egoera zaharrean iraun dute Baxenabarre gehieneko izenordainek.<sup>71</sup> Aldiz, *nihaur* eta *ihaur* formatan oinarriturik, *guhaur* → *gihaur*, *zuhaur* → *zihaur* analogia dago pluraletan Zuberoan. Belpairek pluralen aldaera analogikoak dakartza: *nihaur* / *guihaur*, *guihaur*, *guihaur-tan* / *zihaur* / *zihaur* / *zihaur*. XVIII-XIX-etako Zuberoako idazkietan ere *i* analogikoa dago pluralen.<sup>72</sup> Hona Erronkariko saila: *ñaur*, *ñaurek*, *ñauri* / *yaur*, *yaurek* / *giaur*, *giaurer* / *ziaur*, *ziaurek* / *xauriek*.

6.1.3.5. Iduri luke *haur* erakusleko *au* diptongoaren monoptongazioak eragin duela ekialdeko mintzoetan pertsona izenordain indartuen genitiboak ageri duen *o* bokala; Zuberera zaharrean *nure* & *nore* dakuskigu lehen pertsonan eta *ore* bigarrenan; *nure*-k agerpen maiztasun handiagoa du *nore* aldaerak baino.<sup>73</sup> Peillenek dio XVIII-an aldaera indartuen ordain *ene*, *hire* erak nagusitu zirela (1992a: 270); Intxauspek 1856an *beguira ézac óre buria* dakar (SM, XXVII, 40).

Erronkari berrikuntza honetan ez dirudi Zuberoatik saihestu zenik, XVIII-XIX. mendeetan honako saila baliatzen zen ibarrean: *nore* & *ñore* & *ñauren* / *yore* / *gore* / *zore*; Zaraitzun ere gauzak antzeratsu gertatu dira: *nore* & *naure* & *niaure* &

<sup>70</sup> Leizarraga: *orenatarano* (95), *leguerano* (273), *Moisesganano* (273) / *noizdrano* (78v), *oraindrano* (266v). 1651ko pregariak: *cerunaino* (sarrera). Oihenart: *gauberdirano* (136) / *oradrano* (313, 486). Tartas: *hobialadrano* (1987: 45), *egundraino* (95), *bihardraino* (95), *tiniradrano* (115), *gotelaradrano* (125). Olor kat (1706): *oraydrano* (2) eta *erreguetara drano* (1746: 78) nahiz *erditara drano* (1746: 108) pluralen, baina baita beste saileko *igantialano* (1746: 78) ere. Maister: *bihotziala drano* (54), *eguitiala drano* (287), *hagnbestera drano* (xv), *haustiala drano* (121). Ressegue (1758): *bestilano* (28); *dey itaçua eta gora jagoitico içatialano* (50). Bazkazane 1762: *cerunaino* (196). ASJ: *batailaladrano* (42), *hortaladrano* (63). Mercy (1780): *ezpeitutie hilen Benedictione ondouala drano* (21); *ičan diratian etchetik baren hobiala drano* (35). Lopez (1782): *pundurano* (27), *finerano* (63) / *noraderano* (160, 420). Laneufville: *undar extremi-tateraino* (155), *egundaigno* (155). SC: *udaladrano* (552), *gastelialadrano* (565). Donap kat: *tenoreano*, *bulharretaano*. Donam kat: *akhaantzaano*. Caz JJ: *batseano* (110). Irib SM: *Dabiteaano* (21), *korleraano* (76), *azkeneraano* (69), *akhaantzaano* (39).

<sup>71</sup> Etxepare batek, esaterako, *nihaur* (98) & *nihaurc* (84) / *ihaurc* (244) & *ihaurrec* (56) / *guhaurc* (38) / *çuhaur* (216), *çuhaurc* (204) *çuhaurrec* (238) era gordetzailak dakartza; ageri denez, aldaerok ergatiboan bederen bigarren mailako erakuslea erantsirik izan dezakete. XIX. mendean Baxenabarren, *guhauk* dakar Donapaleuko katiximak eta *guhaun buriak* Donamartirikoak; Baigorriko dotrinan *zuhauk* eta *zihauk* 'zeuk' dakartza Iribarnegaraiak.

<sup>72</sup> Beste sistema bat da Lapurdiko idazki zaharretan ibiltzen dena edo Leizarragak zerabilena; XVII, XVIII eta XIX. mendeetan, *neroni*, *nerori*, *neorri* / *geroni*, *gerorri* / *zerori*, *zeroni*, *zerorri* dira Lapurdiko absolutiboko aldaerak (Pikabea 1993). Leizarragarenak dira hurranen aldaerok: *neuror* & *neure* / *euror* & *euror* / *geuror* / *zeurok* 'zeuk'.

<sup>73</sup> Oihartzabalek Zuberoako *nure* azaltzeko *gure*-ren analogia aipatzen du (1991: 147), baina balizko analogia litekeen horrek ez du *ore* harapatu; euskaraz *o* > *u* aldaketa «on» ingurunean gertatzen da, ez «no» egoeran, baina *non* > *nun* batek *nor*, *noiz* edo *nola* kutsa litzake gero analogiaz; ez dakigu honek *nore* > *nure* kasuan eraginik izan duen.

*niauren / guaturen & guaren & geaturen & giauren & giaren & gauren & gere / zuauren & zuaren & xore / zeaturen.*<sup>74</sup>

6.1.3.6. Morfologia berriztatu du aditz laguntzaileetan morfema datiboa errepikatzeak; Zuberoan lehen pertsona singularrean gertatzen da;<sup>75</sup> Belapeirek ez dakar adibiderik —*oro eracax itçatatu* (I, 130), *chaba içadaçu* (137)—, baina XVIII. mende hasieran badira: *eracouxi deitadaçu* ‘didazu’ (1734: 52); *eman diztadatuçun erresolucio-niac* ‘dizkidazun’ —ez da ‘dizkidan’ zuketan— (1734: 13). Belapeirek baliatu ez izana ez da guztizko garantia XVIII. mendeko berrikuntzatzat jotzeko.<sup>76</sup> Maisterrek *deitadala* ‘didala’ (1757: 195), *citadaçu* ‘dit’ zuketan (173), *eçpadeitadaçu* ‘ez badi-dazu’ (365) dakartza. Eskiulako 1780ko idazkiak, berriz, *eman içan çaitadan pphote-riaren indarraz* (24). Charl.-koak dira *tradicen ari jnceintadala* (244) iragangaitza eta *Itçatadat* “itzatadak” edo ‘iezazkidak’ (314), huts grafikoarekin, agintezko iragankorra; nolana ere den, pleonasmorik gabekoak dira *hitz eman beteytaçu* (1706: 50), *pharca itçadaçu* (1734: 51) edo Eskiulako idazkiko *eguın eçadaçu gracia* (1780: 4) era soilagoak.

Era trinkoetan ez dakigu berrikuntza berankorragoa ote den. Maisterrek *emadaçu* dakar (1757: 184), baina Charl.-k *emadaciet* (324), morfema datiboa bukaeran duela; XIX. mendean ere *emadaciet* dakar SC-k (538), nahiz *emadacie* (538) soila ere baduen.

Adizki laguntzaileetan ere *-da-* + *-t* egitura pleonastikoa dago lehen pertsona datiboan eta ez dakigu xuxen noizkoa den: *haz içadaçu* dakar Eskiulako 1758ko idazkiak (47) eta *eguın eçadaçu gracia* 1780koak (iv), baina Charl.-k *eman eçadaçu* pleonastikoa dakar (170) eta XIX. mendean *pharca eçadaciet* SC-k (518). 1848an Amikuzeko Larribarren jokatu zen Kan & B.-n *eta erradazut zer gisaz zu ziren kolpatia* adibidea dator (1971: 83). Intxauspek ez du era hau usu baliatzen, baina *hil zitazut* dakar zuketan 1856an (SM, IX, 18), nahiz *déitazu* eta *déitazie* ere badituen (SM, XXV, 20, 35). Erronkari ibarreko Uhalde Maio bidankoztarrarenak dira *daztazeid* ‘iezadazue’ (SM XI, 8), *daiztazud* & *daztazud* ‘iezadazu’. Mendigatxak *zaitad* ‘zait’, *zitzaitadan* ‘zitzaidan’, *daitad* ‘dit’, *zaitadan* ‘zidan’ dakartza. Erronkarin lehen pertsona pluraleko morfemak ere bikoiztu dira: *zaikugu* ‘zaigu’, *zitzaikugula* ‘zitzaigula’, *daikugu* ‘digu’, *daikugei* ‘digate’, Bonaparteren garaian *daikugei* zena. Uhalde Maiok *dicugu* ‘digu’ dakar dotrinan (510). Bikoitza da pleonasma Amikuzen Nor Nori Nork-en: *zin + da + ta + zun*: bi “zuk” eta bi “eni” dakartza adizkiak.

<sup>74</sup> Aezkoan dago muga: bertan beste sistema bat dago, gauzak fonikoki hego-nafarreraren bezala dira, ez dago monoptongaziorik: *naure / gaure & gauren / zaure & xaure / zauren*; Euskal Herriko era orokorra da hego-nafarrerarena, gogoan izanik Aezkoan *eu > au* bilakabidea guztiz arrunta dela. Euskal Herri zabalean *neure, heure, zeure* aldaerak ditugu, itxuraz zaharrak direnak, eremu izugarria harrapatzen dutenez; mendebalean *neure, eure, zeure* ezagunak dira, erdialdean *nere, ere, zere* erara soildu direnak; Lapurdiko eta Baxenabarreko literaturan ere *neure & heure* daude lehen idazkietarik, Etxepare, Leizarraga, Materre, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Oihenart, Tartas, Lopez edo Bonaparteren Baxenabarreko XIX. mendeko katiximak lekuko. Dena den, ekialdeko antzera, *ore* ere badakar Tartasek: zuberotarra zen eta bazekien xiberutarren antzera idazten, baina Lapurdi aldera so idazteko ohitura ere bazeukan Tartasek; itxaron zitekeenez, Belapeirek ere *ore* dakar. Jakes Belakoak *ekar badeçac orequi, ukenen duc yaurequi* esaera dakar.

<sup>75</sup> Erronkarin Uhalde Maioren *zinaitadan* ‘zenidan’ aipa daiteke (SM, XXV, 20).

<sup>76</sup> Izan ere, idazle jantzia zen, klasikoak, eta izan zezakeen herriak zerabiltzan aldaera batzuk ez idazteko joera; Pello Agirre ikertzaileak ahoz esanik dakigu Belapeire idazle garbizalea zela.

Pleonasmoa duten eta ez duten aldaerak batera ageri baitira, beharbada ez da berrikuntza zaharra.

6.1.3.7. Hiketako iraganeko adizkiek *-n* falta dute Zuberoan eta Erronkarin; ez dugu Zuberoako testu zaharrenetan gertakari honen lekukotasunik aurkitu, baina eliz-liburuetan hiketarik ez agertzea ulertzekoa da. xx. mende bukaerako Sohütan, esaterako, *nündia* eta *nündiña* baliatzen dira maskulino eta femeninoan.<sup>77</sup> Uztarroen Koldo Artolak xx. mendearen bukaeran bi generoetarako *nundia* eta *gundia* bildu zituen lehen pertsona singular eta pluralean, *-n*-rik gabe.

#### 6.1.4. Ezaugarri berri ez hain sistematikoak

6.1.4.1. Zuberoan *-e* & *-i* > *-ü* berranalisisa gertatu da; fenomeno hitz batzuetara mugatzen da, ez du gramatikan guztizko hedadurarik erdietsi, ez zen bestela *-e* edo *-i*-z bukatutako hitzik geldituko ekialdean. Esate batera, *kolpe* hitzaren berranalisisa gertaturik, dagoeneko Belapeirek *kolpü* dakar, baina Oloroko 1706ko katiximan *barruky* (30) eta *esku-khaldi bat* (83) ditugu oraino; cf. 1839ko SC-ko *illinti caldu* (584), besteen ‘ukaldi’ dena; Belapeirek ere *barrüki* (I, 32) eta *eskü-khaldi* (I, 65) dakartza; esate batera, egungo Zuberoan *atherbü* baliatzen da.<sup>78</sup> Baliteke Erronkariko Mendigatxaren *axuru*, *eguzku*, *guzu*, *margu* ‘masusta’, *uzku* aldaerak berranalisi honen beraren emaitza izatea, baina adibide guztiotan asimilazioaren eragile izan litekeen *u* bat dago aitzinean.

6.1.4.2. Zenbait mailegu erromanikotan palatalizazioa gertatu da Zuberoan: gainerateko euskalkietako *tz* lepokariak *tx* sabaiaurrekoa eman du: *atxeidü* ‘altzairua’, *khüütse* ‘gurutzeta’, *zerbütxü* ‘zerbitzua’, *zethátxü* ‘bahe ez fina’; palatalizazio hauetarik batzuk, Erronkarin —*atxeiru* & *atxairu*, *krutxe*, *zerbutxu*, *zetatxe* & *zetaxe*— Zaraitzun edo Amikuzen ere ageri dira.<sup>79</sup>

6.1.4.3. Euskal Herriko ekialdean *r* → *ll* palatalizazio adierazgarria gertatu da, Zuberoako fonologian bereziki; semantikoa da eta ez da Zuberoako ohiko *il* → *ll* bilakabidearekin nahasi behar.<sup>80</sup>

6.1.4.4. Aditz guti batzuetan *-i* > *-e* gertatu da partizipio burutuan Zuberoan: *ähätze*, *hautse* aipa daitezke, eta baita Leizarragaren *ohortze* ere, Zuberoan *ehortze* &

<sup>77</sup> Halaz ere, Zuberoako herri batzuetan inoiz bada *-n* hori; esaterako, Muskildin *nündian* & *nündia* edo *güntian* & *güntia* baliatzen dira maskulinoan; aldiz, Garindainen *-n*-dunak ageri dira iraganeko hiketako adizkiak: *nündian* eta *güntian* (biak maskulinoak); cf. Irizar (2002). Guk bietarik entzun dizkiogu hiztun urdiñarbetar bati, adizki *-n*-dunak eta gabeak.

<sup>78</sup> Amikuzen *azerü* edo *barrükü* berrikuntzak baliatzen dira; ondoko Arberoa ibarreko Mehaine herrian ere *barruku* nahiz *argizaitu* ibiltzen dira; halaz guztiz ere, *azeri* esaten dute Mehainen, Erronkarin bezala; Zuberoan *axeri*. Berrikuntza hau ez da Arberoatik mendebalergo hedatzen eta ibar honetan ere adibidexka batzuek baizik ez dute jasan.

<sup>79</sup> Berebat, latinetikako *-antia* atzizkiak *-antxa* ekarri du; palatalizazio hau Baxenabarren edo Aturrialdean ere gertatu da. Zuberoan *espa(r)ántxa* dago eta Erronkarin *akabantxa*, baina Maister xiberutarrak *acabantiça* dakar (1757: 405), eta Eskiulako idazkiak *segurtançan* (1780: 23); ordea, 1758ko Eskiulako testuan *confidanchan* dago (6).

<sup>80</sup> Hona adibide ohikoak: *bello*, *ello*, *holli*, *hüllan* & *hüllen* ‘hurran’; ondoko ibarretan ere bada: Erronkarin *alliko* ‘harilkoa’ edo *bella* & *bellatu* ‘beraztu’ adibideak ditugu; Zaraitzuko Espartzan ere *belló* zegoen (Artola 2005: 230). Berriz ere Aezkoak muga egiten du: *alliko* ‘harilkoa’ salbu, edo *bero* → *beddo* *beddo*a hanpaduraz landa, ibar honetan ez da bilakabidea gertatzen.

*ehortzi* baita: bestalde, bada *txeste* ‘dastatu’, zeina ez baitator *-i*-tik; Larrasketek, bestalde, *koste* dakar, zeina Charl.-n *costaren* baita (Oihartzabal 1991: 264). Erronkarin *ätze*, *autse* eta *teste* zeuden, baina Zaraitzun ez zen honelakorik.<sup>81</sup>

6.1.4.5. Ekialdean ergatibo pluraleko *-de* morfema adizki iragangaitzetara hedatu da eta pleonasmok eragin ditu; esate batera, Zuberoan, *girade*, *zirade*, *ziradeie*, *dirade* berrikuntzak sortu dira eta testu zaharrenetan irakur daitezke. Erronkarin edo Zaraitzun ere berdin gertatu da.<sup>82</sup>

6.1.4.6. Galderazko *ot(h)e* partikula extraposizioan ageri da Zaraitzu-Erronkarietan eta Amikuzen; Zuberoan ere adibideak ageri dira, baina Intxauspe arte ez dugu egitura aurkitu. Baxenabarren, Arberoa ondoko Armendaritzen ere bada: *nola joan da othe?* galdera entzun dugu, baina *othe* aditz laguntzailearen aitzinean duten egiturak ere ibiltzen dira Armendaritzen.<sup>83</sup>

### 6.1.5. Zuberoa eta Erronkariko berrikuntza bateratu ekialde zabalekoak

6.1.5.1. Eskualdetik eskualdera gauzak guztiz berdinak ez badira ere, historikoki bilakabideak eskualde bakoitzean bere ñabardurak eduki baditzake ere, oro har esan daiteke egun Zuberoan eta Baxenabarren *-ua* > *-ia* eta *-ue* > *-ie* emaitzak dituztela, nahiz Arberoa batean, esaterako, *-ue* > *-ie* > *-ii* garapena dagoen. Bilakabide hauen ibilbideez ñabardura franko eman daiteke.<sup>84</sup> Erronkarin ere *-ia* bildu da Izaban, Urzainkin eta Uztarrozen, baina *-uia*-ren metatesiak *-iua* eragin du Bidankozen eta *-ioa* Garden.

6.1.5.2. Agintezko aditz perifrastikoen aldaera laburragoak ditugu Zuberoan, Baxenabarren eta Lapurdin; hona Zuberoako 1734ko otoitzekoak: *educac gogouan* (76), *ukhac ore faltez* (77). Maisterrenak dira beste hauek: *eçarçu* (1757: 89); *igorra çu celutic* (240). Saroihandik zioenez, mendialdeko Zuberoan *etxek ezazü* erakoak ibiltzen ziren (Oihartzabal 1991: 132). Erronkarin ere bada adibiderik: *orki* aditzean *orkak* ‘iguriki ezak’ egiten da (Azkue 1931: 238-9). Aezkoan ere bai: *ekartxu*, *emok*, *igorrán*... Beskoitzeko adibide femeninootan metatesia dagoela dirudi: *igorna*, *ekarna*, *erabilna* (Duhau 1993: 114). Céline Mounolek dioskunez, litekeena da adizki horietarik batzuk trinkoak izatea: *eçarçu* trinkoa izan daiteke, Lazarragaren *balezarzue* lekuko; bestalde, Mitxelenak *emok* < *\*emaok* agintezko trinko hirupertsonala berreraiki zuen.

<sup>81</sup> Aitor Aranek *autse* dakar lekuko espartzar batengandik, baina Zaraitzuko gainerateko datuetan ez da ageri, *autsi* da beti.

<sup>82</sup> Hona Xiberuko adibide batzuk: *hantiq guero Françian beiquirade sarturen* (Charl., 195); *ene semia etcirade orano maithaçale açcar* (Maister, 154); *eguien bargatic ebilten ciradeyelatic* (327); *çoiing goure bekhaticen causac edo instrumentac içan beytirade* (1706:108). Gertakari honek hedadura zabala du Euskal Herrian.

<sup>83</sup> *Zér da óthe handiágo...?* (Intxauspe, SM, XXIII, 19); baita bestelakoa ere: *nóur óthe dáte handiéna zeliétako erresoumán?* (SM, XVIII, 1); *ní othé niz, Jáuna?* (SM, XXVI, 22). Hona idazle berrietan; Altzürüküko Grégoire Eppherrek (1929-1974) bazerabilen: *Bazakiana ote de la Villebeliok ere bildü zütüala zazpi kantore horik?* (Davant 2009: 131); Johaño Eppherre (1931-2004) Altzain sortuak ere badakar bertso batean: *Egün hau berhezia zertako den othe?* (133).

<sup>84</sup> Zuberoan «u» + «e» loturak «ie» dakar Eskiulako 1758ko idazkian, baina harrigarriro, 1780koan «uye» ageri da: 1758koan *beitie* ‘baitute’ dago, baina 1780koan logika fonikoan aitzinetik legokeen *beytuye* ‘baitute’.

6.1.5.3. Aezkoan ez bezala, *-er* dago datibo pluralean Zaraitzu-Erronkari, Zuberoa, Baxenabarre eta Lapurdiko ekialdean; Etxeparek edo Leizarragak ere bazerabilten, baina beskoiztarrak beti ez.<sup>85</sup>

6.1.5.4. Zuberoan, Erronkarin, Zaraitzun, Baxenabarren eta Lapurdi barnealdean, *nor*-en itxurak *zein*, *zenbat* eta *zenbait* erei eragin die eta *zoin*, *zonbat*, *zonbait* berriak sortu dira, Zuberoan orain *zuin*, *zumat*, *zumait* esaten direnak. Ohi bezala muga Aezkoan dute: bertan *zein*, *zemat*, *zemeit* ibiltzen dira.

6.1.5.5. Mugatzailearen bidez ematen diren adizlagun errepikatu hanpatuak, Nafarroako ekialdean, Lapurdiko barnealdean, Baxenabarren eta Erronkarin ibiltzen dira: *xaï-xaïa* ‘garbi-garbia’ (61) edo *oso-oso* ‘erabat’ (86) dakartza Mendigatxak Bidankozen eta *mallo-malloa* ‘emaro-emaro’ bildu da Uztarrozen (Artola 2000: 509). Zuberoan bi adibide aurkitu ditugu, Oloroeko katiximan eta xx. mendeko Bildozeko etnotestu batean: *behar liçateke eme, emia hantic ppharti eraci erhiez honki gabe* (1706: 104); *indar berri batez lagüntüik, erne ernia lanilat badutza, bihotza laxü* (EDEL, 1990, 277. etnotestua).

6.1.5.6. Ez dirudi hain berrikuntza berria *-ko* morfemari *-z* atzizkia eranstea; mendebaleko *Refranes y Sentencias*-en behin ageri da; Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian guztiz arrunta da *-kotz* edo *-koz* entzutea. Baxenabarren eta Lapurdiko Aturrialdean nahiz barrenaldean, *-kotz* aldaera entzuten da, baina Hazparnealdean eta Bidarrain *-koz*. Zuberoan eta Erronkarin ere *-koz* dago.<sup>86</sup>

6.1.5.7. Zuberoan bezala, Nor eta Nor Nork sailetan *niz*, *hiz* / *nu*, *zitu*, *gitu* erako adizki monoptongatuak ditugu Baxenabarren; Heletan *niz* eta *naiz*, bi erak ibiltzen dira eta Lapurdin ere aldaera monoptongatuak eta *naiz* erakoak nahaska dabilta. Zaraitzun eta Aezkoan ere era laburrak daude; Errobarra ezker, berriz, *naiz*, *yaiz* / *zaitu* aldaerak agertuko zaizkigu. Erronkari ere berezia da, *naz* eta *yaz* aldaerak ibiltzen ziren ibar horretan, baina *nu* monoptongatua egiten zen; berebat, pluralean asimilazioa zegoen: *gutu*, *dutu*; bigarren pertsonan, berriz, sinkopa: *ztu*.

6.1.5.8. Aditzeko hautazko datiboa Lapurdi-Baxenabarretan ageri da; adierazi da berrikuntza Baxenabarretik Lapurdira hedatu zela (Pikabea 1993: 111); Xiberuan ere ibiltzen da, Aezkoan bezala.<sup>87</sup> Nafarrera zaharrean ere badira Beriain edo Elizalderen adibideak; cf. Mounole (2011: 263, 348).

6.1.5.9. Aditz trinkoen erabilera Lapurdi-Baxenabarre eta Zuberoan ahuldu eta bakandu dela testuek dioskute; esaterako, Belapeirek *Gincoari eztaxala* (II, 51), *baitaroagu* (I, 84), *oihoyez gautçu* (II, 64) edo *so çauscola* (II, 68) dakartza, Oloroeko katiximak *eztaguiala* eta *eguic* (6). Azkuek Erronkarin aditz trinko guti jokatzen zela ze-

<sup>85</sup> Ez dakigu *-er* hau singularreko datiboko *-ari*-ren analogiaz sortu ahal izan zen *-eri* aldaeraren apokopea ez ote den; gogoan izan behar da, gainera, Aturrialdean datibo plurala *-erri* egiten dela.

<sup>86</sup> Inoiz idazki zenbaitek *-kotz* dakar, baina *-koz* nagusi da Zuberoan; Oloroeko katiximan *hon cirelacoz eta bekhatia hasio duçulacoz* datoz (1706: 11); SC-n *hartacotz* dakusagu (556); egun mugako Zuberoan usu entzuten da aldaera afrikatua. Hona Bidankozeko Uhalde Maioren adibide bat: *ene diszipuluak zreilakoz* (SM, XXIV, 9).

<sup>87</sup> Hirugarren pertsonako datiboa da aditzean aiseen saihesten dena, baina Amikuzeko Oragarren bildu ditugun adizkietan singularreko eta pluraleko lehen pertsonan falta da datibo marka. Maister xiberutarrena da adibide hau: *bena hobeki cihauri so eguin eçaçu* (1757: 269). Erronkariko Uhalde Maioren dotrinakoa da hau: *parca dazquiguzu gore zorrac, guc guri zor deiner parcatan tigon & tugun bicala* (1992: 509); hiru aditzek har zezaketen datiboa, baina lehenak baizik ez du bildu.

ritzon (1931: 235): Uztarrozen *xoaten nintzen*, *xoaten yintzen* esaten ziren *nindoan*, *yindoan* beharren (244); berebat, Mendigatxa bidankoztarrak *xiten dela* eta *xiten denari* adiera puntukarian zerabiltzan. Adibide berritzaileak ez dira atzo goizekoak Zuberoan.<sup>88</sup> Peillenen arabera, Zuberoan XVIII. mendea arte iraun zuten *egon*, *eraman*, *erabil*, *ibili* eta *edun* aditzen aldaera trinkoek (1992a: 250), baina XIX. mendean ere idazkietan ditugu: *bagouatçaq* & *bagouçaq* (1839: 527), *nouaq* (1839: 583), *banabila* (1839: 519); Elixagarai ligiarrak *badu(a)k klinikala* darabil XX. mendean (Peillen 1986a: 153).<sup>89</sup>

6.1.5.10. Baxenabarren nahiz Hazparnealdean, egitura perifrastikoetan *ukhan* ibiltzen da aditz iragankorren gertakari bururatu adierazteko, baina Lapurdi erdialdean ez; Etxeparek, Etxauzek, Oihenartek edo Tartasek *uk(h)en* erabili zuten. Metatesiz Erronkarin *ekun* aldaera zegoen, Uhalde Maio lekuko: *Jesusek nai ekuntu zion izan batixatrak Juanenganik*. Zaraitzun eta Aezkoan ez da ibiltzen. Zuberoan *ükhen* aldaera ibiltzen da egiturotan: *Norc eguin ukhendu credoa?* (1706: 22), baina 1746ko Oloroeko katiximak *ukhan* dakar: *bi lengouïagiac enthelegatcen çutien persona sauantez vtçuleraci vkhan cian vscarala eta biarnesiala* (jv); Maisterrek eta hurranen idazkiek *ükhen* dakarte. Ingurune iragangaitzetan *izan* ibiltzen da: *G. Nola goure salvaçalia celietra igan içan da?* (1706: 34); *çoureganic sorthu içan da* (1734: 96); *Oliveroz eta Rolan Oriagan hil jçan ciren* (Charl., 362).

6.1.5.11. Ekialdeko baliabidea da zuketa alokutiboa, Baxenabarren, esaterako, ezezagun bati formalki egin dakiokena; Erronkarin, berriz, hurbiltasun egoeran egiten zen, edo adineko pertsona bati mintzatzean; Ipar Euskal Herrian ez bezala, beroriketa ere baliatzen zen Hegoaldean, Erronkarin, Zaraitzun edo Aezkoan, esate batera; Baxenabarreko Arberoa ibarreko Mehaine herrian, *zu* ta *xu* egiten da *to* eta *no* baino gehiago. Zuberoan ere, Erronkarin edo Zaraitzun legez, zuketa alokutiboa baliatzen da, baina Aezkoan ez.

6.1.5.12. Perpauis inbertsonaletan aditz nagusia *behar*-ekin eratzen bada, adizki laguntzailea iragankorra izan ohi da ekialde zabalean: Zuberoan, Baxenabarren, Aez-

<sup>88</sup> Charl.-k *orai niz orai alaguera icousten dut eneguitecouaq ounxã jouaiten direla* dakar (182). Berebat, perifrastikoak dira *giten nuçu* (1839: 521), *noun egoiten da?* (1839: 539) edo *houna beita* 'dator' (1793: 298) adibide puntukariak. Zuberoako adibide berria da *biharamenian apheza ilherritan gainti meza emaitera jauiten zelarik* 'zihoalarik' ere (Elixagarai, 73). Zuberoakoa da *horra zira* 'zatoz' aldaera, Lapurdin, Baxenabarren edo Aezkoan (*h)eldu zira* esaten dena. Charl.-n *Renauti lagun franco houna çayo helu* (206) ageri da; halako egiturak ote dira «horra zira» erakoen oinarria? Hurrengo erabilera arrunta da, 'nator' adieran: *Charlemaigna houna niz çoure desafiçera* (223). Bestalde, Nafarroa Garaian, Lapurdin eta Baxenabarren puntukaria bada ere, Zuberoan burutua da *helu çuira* aldaera (Oihartzabal 1991: 337) eta Erronkarin ere bai (Artola 2000: 507).

<sup>89</sup> Egoera zaharra gorde dute «jagin» aditzaren Zuberoako era ihartuek: egungo *dagün igantian* (Elixagarai, 114) testu zaharretan dakusagu: *daigun bataillan ero ughenen beitutugu* (Charl., 324); Erronkarin *daigun udan* dakar Mendigatxak (71) eta *degun bedätserarëino* Izabako kantu batek (Mitzelena et alii 1953: 512). Azkuek Zaraitzun *aurten aurrak andi*, *dagun urtean lanak egin* esaera bildu zuen (cf. *Euskalerriaren Yakintza* III, 1660. esaldia). Berriz ere, muga Aezkoan dago: bertan *eldu den urtean* esaten da. Arberoan ere puntukaria da *heldu den* 'datorren' adizkiaren adiera eta ohikotasuna adierazten du *johan* aditzak. Amikuzekoak dira *aigü*, *daigün urthian*, *dain astian* trinkoak eta baita *horra duzu* perifrastikoa ere. Ohart Nafarroa Behereko eta Lapurdiko *haugi* edo *daigün* aldaeren ordain, metatesiaren ondorioz *aigü* eta *daigün* ditugula ekialdean.

koa-Esteribar artean, esate batera.<sup>90</sup> Dena den, ez dugu ziurtatzen ahal adizkia iragan-korra izatea berrikuntza denik.

6.1.5.13. Zuberoan, Erronkarin, Zaraitzun eta Baxenabarren modu edo baldintza kutsua duten perpausak eratzten ditu *-en ber* egiturak. Hona Maisterren adibide bat: *çoure gracia eneki den ber* (1757: 312). Ohi bezala, Aezkoa muga da, bertan ez dago honelakorik.

6.1.5.14. Zuberoan, Erronkari-Zaraitzuetan, Baxenabarren eta Lapurdin (Itsasutik Luhusorainokoa) aditzari *-a* galdera morfema eransten zaio. Hegoaldean, berriz ere Aezkoak muga egiten du: bertan ez da morfema hau erabiltzen, ibar honetan doinuak adierazten du galdera.

6.1.5.15. Zehargalderetan *-en + -e(t)z* morfemak eransten zaizkio aditzari Euskal Herriko ekialdean. Zuberoan *-ez* da morfemaren itxura eta Erronkarin *-ez*  $\hat{e}$  *-etz*.<sup>91</sup>

## 6.2. Zuberoa eta Erronkari bereiz doazen ekialdeko berrikuntzak

### 6.2.1. *Aspaldiko ahoskera berri sistematikoak, testu zaharrenetako grafian islaturik*

Itxuraz gaskoinetik mailegaturik (Lafon 1962: 99 eta 1965: 908-9), euskal hitzetan *ü* fonema dago ingurune foniko jakin batzuetan Zuberoan, Amikuzen eta Bardozen. Ez dakigu *u* → *ü* eta *au* → *ai* zenbateraino dauden beren artean loturik. Miren Lourdes Oñederrak *ü*-ren sorrerarako diptongazioaren azalpena eman du: *u > uw > iw > ü* (2009). Peillenek dakarrenez (1992a: 252), lekukotasun idatzien arabera badirudi xiv. menderako Zuberoan *ü* palatalizatu hau bazela. Bilakabide hau ez da eskualde guztietan berdin gauzatu; cf. Mitxelena 1977 (51-3) eta Lafon 1962 eta 1965. Esate batera, Zuberoan *ük* sekuentzia egiten da, baina Amikuzen *uk* dago, ez da palatalizatzen.<sup>92</sup> Erronkari-Zaraitzuetan ez da palatalizazio hau gertatu.<sup>93</sup>

### 6.2.2. *Grafian islatu ez diren ahoskera berri eskualdekoak*<sup>94</sup>

6.2.2.1. Kontsonanteetan [3] ahoskera ozena dago Xiberuan *j*-rentzat, hitz hasieran honela ahoskatzen duten euskaldun bakarrak dira eskualdean; Amikuzen ez da

<sup>90</sup> Hona Edipa: *crima malerous horreq ebitatu behar diçu* (259); abeltzainak aberea jaistez diharduela, *aberiac jeixi behar du ahal den chabutarzunic handienareki* dakar Intxauspek (1857: 84); Duvoisinek ere iragankorra dakar: *abereac daitzi behar du*.

<sup>91</sup> Hona Maisterren adibide bat: *eçtuçula orano arrancuraric, eç debadioric saintien merechimentietçaç; eia bata bestia beno saintiago deneç, edo handiago celietaco erresoman* (1757: 321). Baxenabarren eta Lapurdiko Larresoro-Hazparne alderdian ere baliatzen da; Baigorriin *-etz* duten adibideak eta ez dutenak ibiltzen dira, baina Aezkoan ez da *-e(t)z* baliatzen.

<sup>92</sup> Peillenek dio xviii. mendeko idazleek *houts* idazten zutela egun *hüts* dena, eta beharbada *u > ü* aldaketa ez zela oraino osorik gauzatu (252). Mugimenduaren adibide gehiago ere badakar: Pettarrean *bokhata* dena Ibarreskuinean *bukhata* da eta aldiz, Ibarrezkerrean *bükhata*; ez dago *\*\*bikhata* erarik.

<sup>93</sup> Erronkarin *u > i* kasu batzuk daude, Mitxelenari iradokitzen diotenak beharbada inoiz *u*-ren egoera Zuberoa-Erronkarietan idurixka zela (1954: 130-1); bestalde, bere buruari galdegiten dio ea ez ote zen Erronkarin ere *u* → *ü* aldaketa abiatu eta gero bilakabideak gibelerat jo ez ote zuen *u* bakarrean gelditurik (157).

<sup>94</sup> Cf. Oihartzabal (1991: 120), pastoraletako txistukarien grafia kontuatarako.

sabaiaurreko ahostuna ebakitzen, Baxenabarreko ohiko [j] baizik. Zuberoakoa ez dirudi berrikuntza hain zaharra, baina testuetan oinarriturik zail da hots hau noizkoa den zehaztasunez jakitea; Belapeirek <i-> darabil, baina ez dakigu grafia horrek egungoa ez bezalako erabilera irudikatu nahi ote duen.<sup>95</sup>

6.2.2.2. Hitz bukaerako txistukari igurzkari lepokaria ozentzen da Zuberoan, hurrengo hitza bokalez hasten bada. Aski berria dirudi berrikuntza honek ere; euskaraz ez dago honelakorik beste inon, baina erromantzeetan fenomeno ezaguna da: gaskoinez, frantsesez edo katalanez ohikoa da.

### 6.2.3. Morfologiako ezaugarri berriak, testu zaharretan islatuak

Aditz nagusi mailegatuen partizipioan berrikuntza gertatu da Zuberoan: bearnesaren eraginez izan dela pentsatu da, baina euskarazko *-i* partizipio atzizkiaren balizko analogia ere gogoan izan liteke, egun *-i* emankor ez bada ere.<sup>96</sup> Belapeirek *estekatü* darabil, baina hamar urteren buruan berrikuntzaren adibide bat dakar Oloroeko katiximak: *Confiteorra akavi behar da* (1706: 92). Maisterrek ere *acabi* dakar (xijj); Charl.-k *hantiq ataquiren beituçu guero aisa Françia* (195) eta *utci minçacera Sebuton generala estequi gabe hola* (278) adibideak ditu, baina Intxauspek XIX.ean *estecatúric* baliatu zuen (SM, XIV, 3).<sup>97</sup>

### 6.2.4. Zuberoako ezaugarri berri ez hain sistematikoak

6.2.4.1. Larrasketek ahoskera jarrai eta lagunartekoan inoiz *bh*, *dh*, *gh* kontsonante taldeak entzun zituen Zuberoan (1934: 28), berrikuntza guztiz berria dirudiena; alta, J.-B. Coyosek *bh* baizik ez du entzuten egun, “bai” hitzean, hanpadura adierazgarriaren bidez ahoskatu denean (1999: 62).

6.2.4.2. Atzizkietan *-garren* > *-gerren* asimilazio gibeleratekoa aipa daiteke; 1706ko Oloroeko katiximak, 1734ko otoitzak eta 1780ko Eskiulako idazkiak *-garren* dakarte oraino, baina Bonnecase <Mauleoko> erretorak *zortzigarrenian* darabil 1666an eta *23.guerrenian* 1668an. Maisterrek ere *-gerren* egiten du sistematikoki 1757an. Egundako Zuberoan ibiltzen da era hau, baina Amikuzen ere ageri da *-gerren*, guk honako herrietan bildu dugu: Behauzen, Mithiriñan, Gamuen eta Zohotan.

6.2.4.3. Egoera zahar edo orokorrarekiko, Zuberoako atzizki batzuetan berrikuntzak gertatu dira edota atzizki berriak sortu dira; honela, ohiko *-ño* atzizki txi-

<sup>95</sup> Zuberoa ondoko euskal hiztunen arabera, hots ozen honek eta doinu prosodiko xiberutar bereziak nortasun eta berezitasun handia ematen diete xiberutarren mintzoari. Erronkarin, Zaraitzun eta Aezkoan, hitz hasieran txistukari sabaiaurreko ahoskabea egiten dute, eta hego-nafarreraz ere ezaguna zen *x-* hori, testuak lekuko.

<sup>96</sup> Oihenartek atzizkietan *aberatsi* partizipioa dakar.

<sup>97</sup> XIX.ekoa da *ehiz eskapiren* (Kan & B: 78); XX. mendekoak hauek: *akabi zioa* (Elixagarai, 81), *esprabi* ‘frogatu’ (161), *esteki nizie* (118), *nia erremarki* ‘ohartu ninduan’ (185), *desaloki* ‘dislokatu’ (185). Amikuzeko Bithiriñan *espa(a)kiik* ‘eskapaturik’ bildu dugu, Zuberoako Olhaibin *eskapi* eta Sarrikotapean *enplegi*.



kigarria beharrean —Amikuzen, Erronkarin, Zaraitzun, Baxenabarren, Lapurdiko Hazparnealde eta Aturrialdean azkar erabiltzen da, baina Lapurdi barreneko aldean gutiago—, Zuberoan *-ñi* azentuduna dago hainbat hitzetan; Amikuzen *amiñi* hitzean baizik ez da baliatzen, *aitañi* & *amañi* Bithiriñan eta Zohotan entzun ditugu; *-ot* atzizkia ere txikigarria dugu, Zuberoan *bañot* & *bañotek* gisakoetan ageri dena; Amikuzen ere baliatzen da *bañot*; bada, bestalde, *-xkót* atzizki txikigarri edo gaitzesgarria Zuberoan; hala *-ot* nola *-xkót*, bi atzizkiak bearnesetik sartu direla pentsatzen da. Ekintza-izenak sortzeko *-ka* atzizkia ibiltzen da Zuberoan: *aseka* ‘asealdia’, *komünianka* ‘jaunartzeko jaiá’, eta adizlagun gisa ere baliatzen da;<sup>98</sup> berebat, Ipar Euskal Herri orokorrean adjektiboak eratzeko baliatzen den *-os* atzizki mailegatuak *-us* aldaera du Zuberoan testu zaharretarik.

6.2.4.4. Belapeireren lanean eta 1706ko Oloroeko katiximan *horik* absolutiboa da eta *horiek* ergatiboa. Hirugarren mailako *hurak*-en antzera sortu dateke Zuberoako *hoiak* erakuslea ere (Oihartzabal 1991: 347). Ohiz absolutiboa da *hoiak*: *hoyak dutuciela jaunak polarda eta olascoua by plat hoyen artin ereryk beytira* (Charl., 354); ez dakigu Zuberoan XVIII. mendeko berrikuntza ote den, dakiguna da Leizarragak bazera-bilela *horiac*.<sup>99</sup>

6.2.4.5. Dirudienez, *batak*-ek edo pluralean jokaturik joan ohi den *bestiak* hitz auzoak eraginik, pluraleko izenordain zehaztugabeen *batzak* & *batziak* aldaera absolutiboak eta gainerateko kasuetakoak ageri dira Zuberoan; cf. *batzü* gordetzalea Zuberoan ere (4.1.5.3).<sup>100</sup>

6.2.4.6. Berebat, pluralean “batak eta bestiak” egitura dago Zuberoan; hona Edipa: *batac hil dira gossez eta martirisaturic, bestiac aldiz harçara uçuriac harturic* (283); ASJ: *batac edo bestiacq dira malerousky trompatcen* (56); Intxauspereña da hau: *inhurrien artian batac dira ar, bestiac eme* (1857: 30).

<sup>98</sup> Hona adibide batzuk: *andrekan, auzikan, hixtoriakan, jokükan, kartakan, latsakan, pelotakan, soldadokan...*

<sup>99</sup> Erakusle hau pluraleko lehen mailakoa, bigarrenkoa ala bietakoa den aztertzea sartu gabe, aski bedi adieraztea Zuberoako erakusleetan *-ak* bukaera dugula; esaterako, aditza pluraleko lehen pertsonakoa izanik, *anaye areba hoyak / nahi gutuçu qhirititu* dakar Charl.-ren bertsio batek (245); *hoyak* eta *gutuçü* erreferentziakide direla ulertu behar da. XVIII. mendekoak dira honako beste adibideok; Ressegue (1758): *ikhousiric statuts edo manu hoïac* (39); beste hauek 1780ko edizioari dagozkio: *oraico hoyac deusic baliotaco içan ditian* (8); *instrui deçan bere populia offritcen edo emayten derogun graciaz, hoyac esplica diuçaten* (17); *hoyac youanen dira hen visitacera* (42). Ez dirudi Baxenabarreko idazkietan aldaera hau ageri denik.

<sup>100</sup> Hona absolutiboko adibideak: Tartasek *batçiac gora, bertçiac behera ioaiten çirela* (1987: 47) zerabilen. Belapeirek *batciac... eta bestéc* darabil (I, 19). Maisterrek, berriz, *batçac eta bestiac* (1757: 48) dakar; ASJ (1770): *batciac benturaz barouric, bestiac arguia gabe jaikiric* (47). Hona gainerateko kasuetan ere: *ceren batceec, edo bestec desplacer equinen beiteye* (Maister, 82); *batçên... eta bestên* (50); *batçêtan... bestêtan* (50), *batçetrat, edo bestetrat* (321). Zuberoara hurbil diren idazki zaharretan ere aldaera hauek ageri dira. Lopez oztibartarrak 1782an itzuli *Pratica*-k ere *batzek* dakar ergatiboan: *batceec eta bestec... erakazten dicie* (47) & *batceec bestendaco esteçaciela erran* (436); ez dago «batzuek» *Pratica*-n, absolutiboan *batçu* darabil eta ergatiboan *batçuc* edo *batceec*; Laneufville izendatu dugun katiximan, berriz, *batziak* ageri da absolutiboan: *ez, batciac egon dira, erori dira berciac beren orguliaz* (28); *bi suertetaco dira, batciac spiritualac, eta berciac corporalac* (138); Erronkarin *banak* aldaera zegoen ‘batzuk’ adierazteko; Mendigatxak genitiboan *banen* zerabilen (1984: 70).

### 6.2.5. XVIII. mendeko berrikuntza bat

Egun Zuberoan singularraren analogiaz, \**ezan*-en pluraleko adizkietan *e-* dago subjuntibo eta agintezkoetan; esaterako, urdiñarbetar batengandik [3]an *etzak gaz-tañak* entzun dugu guk XXI. mendean.<sup>101</sup>

### 6.2.6. XIX. mendeko berrikuntza bat

Oro har, bokalarteko *r* galtzea XIX. mendearen erdialdetik honat gertatu da Zuberoan, guzti-guztiak galtzeraino gainera. Zuberoan baizik ez da hau honela, gainerateko euskalkietan bokalartean *r* galtzea joera da, baina ez da Zuberoan legez guztiz gauzatu.<sup>102</sup> Amikuzen *r* bokal artean galtzea joera da; Baxenabarren baino galera gogorragoa da Amikuzekoa, baina gertakariak ez du inola ere Zuberoan duen indarra.<sup>103</sup>

### 6.2.7. XX. mendea arte idazkietan ageri ez den ezaugarri bat

Egungo Zuberoan *-k* dakar *-xe* atzizkiak: *hortxek*, *hantxek* aldaerak baliatzen dira Basabürü eta Pettarrean, beharbada berranalisi zenbaitez sortuak; cf. *hantxeko* (Kan & B 1971: 74).<sup>104</sup>

### 6.2.8. Zuberoa eta Erronkari bereizi dituzten ekialde zabaleko berrikuntzak

6.2.8.1. Ondotik kontsonante sudurkaria duen *o* bokala hainbat hitzetan *u* bilakatu da euskal mintzoetan, baina Zuberoan du gertakari honek indarririk gehien; bilakabide hau ezezaguna da Erronkarin eta Zaraitzun; Hegoaldean Bidasoaldean aldaera batzuetan ageri da. Amikuzen ere ezezaguna da; esate batera, *-oin* > *-uin* & *-uñ* berrikuntza gertatu da.

Peillenek XVIII. mendean kokatzen du *o* > *u* bilakabidea Zuberoan guztiz nagusitu izana<sup>105</sup> (1992a: 253); dioenez, XVIII. mendeko astolasterretan *non*, *gizon* adibide *o*-dunak daude —gerora analogiaz goratuko diratekeen *noiz*, *nor* barne— eta XVII. ean ere *o* ageri da. Belapeirek *o*-dunak ditu, baina haren aita Jakes Belakoak su-

<sup>101</sup> XVIII. mendean *itz-* erakoak ditugu nagusi, baina XVIII.aren bukaeran pastoraletan berrikuntza ageri da; Intxauspek ere *itz-* eta *etz-* txandaketan dakartza XIX. ean; hona adibideak: Mercy (1780): *ditçan* (40); Charl.: *itçacie* (129), *itçaq* (215); Edipa (1793): *detzan* (297). Erronkarin *ditzan* (86) eta *ditzein* 'ditzaten' (86) dakartza Mendigatxak; agintezkoan *betza* 'bitza' darabil (80, 110). Litekeena da agintezko *betza* honetan Erronkarin dagoen berrikuntza beregaina izatea.

<sup>102</sup> Peillenek dio ezagutu dituela hitz guti batzuetan bokalarteko *r* ahoskatzen zuten hondarreko santa grazarrak.

<sup>103</sup> Oroit, bestalde, Baxenabarren bokalarteko *r* galdu anitzek *h* eman duela, non eta ez den *rh* > *h* soiltzea gertatu: Arberoan bildu ditugu *ahan* 'arana', *behexi* 'bereizi'; Baigorrikoa da *ihetsi* 'irentsi' eta Garaziko Ezterenzubikoa *zihikota* 'zirikota'. Lapurdin ere badira honelako adibideak Hazparne, Beskoitze, Bardoze edo Uztaritze alderdi horietan. Ez da ukatzen ahal Amikuzen ere badela bokal arteko *r* > *h*: *bihamunian* (Oragarre), *behotü* (Garrütze).

<sup>104</sup> Testuetan ez da ageri, beharbada berri-berria delako: *hanche* (Charl., 229, 257); *hortxe* (Kan & B, 83). Erronkarin, Zaraitzun, Amikuzen eta Baxenabarre gehiengan *-xet* egiten dute *holaxet*, *hementxet* & *heentxet*, *hortxet* erako adizlagun indartuetan: Baigorri salbuespena da, ez da *-xet* baliatzen eta Arberoan *-xet* & *-xe* egiten da. Honetan ere Aezkoa muga da, ez dago *-xet* ibar honetan, ezta bertatik mendebalera ere.

<sup>105</sup> Peillenek dioenez, okzitaniera idatzian Erdi Aroan /u/ fonema grafikoki <o> idazten zen (252), baina XVIII. mendeko Zuberoako euskal testu ugari frantses grafian emanak dira.

durkari ondoko *o* > *u* adibideak dakartza: *houna, ouhouñac* edo *nour* analogikoa; adibide gordetzailak dira J. Belakoaren *guiçon, ondoan* edo *nolaco*.<sup>106</sup> Analogia baldin bada *nuiç, nula, nur* eragin dituena,<sup>107</sup> indartsua izan da biziki: Larrasketek ez dakar *no-* hasierarik 1939ko hiztegian, guztiak *nu-* dira.

6.2.8.2. Txistukari ozenak ditugu Ipar Euskal Herriko ekialdean, bereziki bokalen artean, beharbada ondoko erromantze gaskoinak kutsaturik edo; mendebalerat ere entzuten dira hein batean: apikari igurzkarri ahostunak entzuten dira Arberoan eta Amikuzen. Zuberoa da txistukari hauetarik gehien dituen eta maiztasun gehienz darabiltzan eskualdea.<sup>108</sup> Erronkarin ez da honelako txistukari ozenik ibili; ondoko Zaraitzun bezala, euskal igurzkarri lepokariak gaztelaniazkoaren soinu bera izan zezakeen Erronkarin.

6.2.8.3. Nafarroa Garaiko eskualde gehienetan bezala, Lapurdin *rtz* kontsonante taldea egiten da eta Baxenabarreko ekialdeko alderdian *st* da talde horren ordaina. Zuberoan testuak berankorrek dira eta “*rtz*” taldeari dagokionez gauzak ez dira argi ageri.<sup>109</sup> Zaraitzu eta Erronkari gehienan *rz* dago, baina *st* da Zuberoa ondoko Izabako emaitza; izan ere, *buruzagi* hitzak Uztarrozen *bürzeği* eman zuen, baina Izaban *büstegi* eta *Urzainki* izena *Ustéinki* egiten zen Izaban, baina Uztarrozen *Urzáinki*.

6.2.8.4. Sozietatik morfema *-kila(n)* berrikuntza egiten da Zuberoan, Nafarroa Beherean —Arberoa barne— eta Lapurdin; eskualde guztietan ez du indar bera; cf. Iglesias (2005). Baigorri galduz doan aldaera da. Zuberoako idazkietan *-kila* eta *-kilan*, bi formak ditugu: Tartasek *-kila* zerabilen eta Intxauspek baditu *-kilan*-en adibideak. Piarres Lafitteren ustez higadura aditzek eragin dute adlatiboko *-la* morfema hori birdeklinazio honetan (1979: 142. atala).<sup>110</sup>

<sup>106</sup> Barkoxen lekukotasun zaharretako *Etxehon* forma *Etxabún* ahoskatzen da orain eta egungo *Ez-punda* XVIII. mendea arte *Ezponda* zen, Santa Grazin egun dirauen bezala (Peillen 1992a: 253). Astolas-terretan *zonbait & zumbait, zonbat* aldaerak ageri dira, baina egun, *zumat, zumait* ahoskatzen dira horiek Zuberoan (262).

<sup>107</sup> Ez dago hain garbi, izan ere, 1706ko Oloroeko katiximak *nourc* (85) eta *noula* (52) dakartza, baina *onciac* (62). Belapeirek ere *noula* dakar (I, 41).

<sup>108</sup> Igurzkarriak ugariago dira, baina bokalen artean txistukari ozen afrikatuak ere badira Zuberoan; lepokarietan [z]úrra, [z]apárta eta arra[z]ú aipa daitezke; ka[ž]i eta ko[ž]ía apikarietan; [ʒ]oratú eta [ʒ]ale sabaiaurrekoetan (Coyos 1999: 69). Afrikatu apikariak dira e[dž]amina ‘azterketa’ eta é[dž]énplú ‘adibide’ formak, eta afrikatu sabaiaurreko ahostunak [jádžá] ‘irainja, laranja’, [lädžéa] ‘lanjera, arriskua’ edo [éđžóyi] ‘enjogi, joera duena’ (63); hondarreko bostok maileguak dira. Ez dirudi berrikuntza hain zaharra, ondoko erromantze bearnesari egozten zaio txistukari ozenen sarbidea.

<sup>109</sup> XVI. mendearen bukaeran sortu Jakes Belakoaren atsotitzetarik bakar batean dator kontsonante talde hau eta *Garcia* izenarekin errikan, gainera: *Garcia, Garcia. Gaixto batac diaçaguc bercia*. Atsotitza izanik ez da ondorioak ateratzeko egokiena. Gabriel Etchart legezizonak erronkariarrei 1616-17 urteetan idatzi gutun batean *hainberzerequy* ageri da (Davant 2009: 11). Berebat, Zuberoako oikonomian badi-rudi egun *Etxebest* dena aspaldiago Erdi Aroan *Etxebertze* zela, erroldetan ageri denez; cf. J.-B. Orpustan (1994: 213). Orpustanek 1984an *Etxebertze* dakar Altzürükü, Barkoxe, Bildoze, Gotañe, Irabarne, Lakkari, Mendibil, Montori eta Sarrikotapean. Belapeire da hurranen lekukotasuna eta bertan *st* ageri da: *beste, bestañik & bestela, bost & bosna, ostegün, ostirale*. Ondoko testuetan ere *st* da Zuberoako emaitza; Oloroeko katiximak *hainbeste* (1746: v), *bestagnic* (49), *ostirale* (15) dakartza. Zuberotarrek hitz batzuetan *r* ondoko txistukaria afrikatu gabe gorde dute; cf. 4.1.1.2.

<sup>110</sup> Ipar Euskal Herrian eta ekialdean aldaera honek lehiakide du *-kin*. Baxenabarren eta Lapurdin *-kin* leku guztietan egiten da eta *-ki* aldaera zaharra arras guti ageri da, nahiz Larzabalen eta Lapurdiko Makean agertu den; Lapurdiko Larresoron, berriz, ez da *-ki* ageri. Alta, Zuberoan, Baxenabarreko ekialdean eta Euskal Herriko Hegoaldeko hainbat ibarretan bada *-ki*: Erronkarin, Zaraitzun, Aezkoan, Erroi-barren, Sakanan... Bidankozeko Uhalde Maiok dotrinan nagusiki *-kin* dakar, baina ez da *-ki* falta.

6.2.8.5. Egiletasuna adierazten du instrumentalak testu zaharretan; egun ere badirau ezaugarri honek, guk Baxenabarren Arberoako Mehainen bildu dugu eta Zuberoan ere entzun ohi da;<sup>111</sup> ez dakigu erromanikoaren eraginez sortutako berrikuntza ote den.

6.2.8.6. Zuberoan, Baxenabarren eta Lapurdiko barnealdean, ezkerrean datiboa edo adlatiboa daraman *buruz* posposizioak norabidea adierazten du. Martin Haasek gaskoinezko (*de*) *cap a* dakusa oinarrian (1994: 180). ОЕН-k XIX. mendean eta Ipar Euskal Herrian kokatzen du forma hau, baina Zuberoan XVIII. mendean ageri da *-lat būriüz* eran Oloroeko katiximan.<sup>112</sup>

6.2.8.7. Lapurdi-Baxenabarretan bezala, Zuberoan ere berriztatu da berrogeita hamarretik goitiko zenbakien sistema; dirudienez XVIII. mendean gertatu da. Belapeirek *hirouroguey* (I, 111) era zaharra dakar, baina mende bete geroago bi erak ageri dira Eskiulako eliz-idazkian: *hirour hoquey* (sic, 43) & *hirouretan hoguey* (1780: 8). Intxauspek ere 1858an *hirourhogeï eta sei* dakar (Apok, 78).<sup>113</sup>

6.2.8.8. Perpausko osagai bat hanpatu nahi denean aditzaren aitzinean koka daiteke euskaraz, baina Ipar Euskal Herri gehiena berezia da honetan: Zuberoa, Baxenabarre, Hazparnealde eta Lapurdi barnealdean “osagai hanpatua + aditz laguntzailea + aditz nagusia” hurrenkeran ibiltzen da.<sup>114</sup>

6.2.8.9. Aldaketa historikoaren eraginez, alineazio ergatiboa egon daiteke Baxenabarren; menpeko perpausko aditza iragangaitza baldin bada, Zuberoan alineazio ergatiboa gertatzen da, *nahi izan* aditzaren subjektua Nor kasuan ageri da.<sup>115</sup>

<sup>111</sup> Hona Oloroeko katiximaren lekukotasuna: *G. Cergatic establitu uquhan du goure salvaçaliac althareco Sacramentu Sainitia? I. Christiez adoratu içateco...* (1706: 98). Maisterrena da *çu cira eguiaçki niñçaç maithatia* (387). Erronkarin ez dakigu baliatzen ote zen; Mendigatxaren adibidean ablatiboa ageri da: *eta emaztetarik aborritruk; ezbaíttagiuei egiten berze gaizarik, ezik, aparioak drezaraz, puntiualki ordu xakinetako, eta, estorbu sukalte lanen antzatak* (76).

<sup>112</sup> *Sacramentu sainitia eguiten den Eliçaric huillanenaren aldialat buruz utçuliric bere othoitcia eguin* (1746: 1-2); Charl.-koa da beste hau: *hox emaçie bertan Bordeleri burus ataca abal diñçaçun Aygalon eta Ferragus* (212); hona Intxauspe: *lekhiac behar du izan ipharraren eta ekhitzalguiaren artialat buruz* (1857: 82). Mailegu berankorra izanik, uler liteke Erronkarira heldu ez izana; Erronkarin ez da norabide adieran ageri, baina Azkuek dakarrenez, denbora adieraz dezake: *gaiari buruz* bildu zuen Uztarrozen hiztegi-rako eta *gabari buruz* Zaraitzun; Zuberoakotzat dakar *gaiari būriüz*.

<sup>113</sup> Erronkarin zenbatzeko sistema zaharrak iraun zuen: *irorogeï* (SM, XIII, 23); Nafarroa Garaiko joera berria biltzea aiseago zuen Zaraitzun, bi erak zeuden, aldaera berri inesibodunak eta lege zaharrekoak. 1984ko EAEL-n Erronkariko Uztarrozen sistema zaharra ageri da, baina Zuberoako Altzai, Bildoze-Onizepea, Domintxaine, Eskiula, Etxarri, Larraine eta Santa Grazin berria bildu zen, ez da zahararen arrastorik ageri. Itxaron zitekeenez, Aezkoan aldaera berri inesibodunak ibiltzen dira.

<sup>114</sup> Hona Zuberoako adibideak: *Jaunac du irabaizten* (1734: 85); *cer placer dirot ukhen* (84); *ceren beitic egurukiten* (73); *eta hec die borogatcen, cer eguiaren eçpiritiac erraiten deyen* (1757: 148); hurranen adibideak desirazkoak dira: *dugun laida Misterio handia* (1734: 94); *deçaçun eçar* (Edipa, 264); *dugun eman behala* (SC, 599). Erronkarin, Zaraitzun eta Aezkoan ez da ibiltzen. 1857ko Lesakako prediku batean adibideak ditugu; Anastasio Etxeberri apez elizondoa du egile, aita aetzaren semea: *Yru ejemplo famosuaç ttut causitzen Escritura Sagradan* (Satrustegi 1987: 257); *eta verze guziyeç ziren itto ubeldecu uretan* (257); *guziyeç zuten pasatu Ysaso gorriya* (258).

<sup>115</sup> XVII. mendean: *hala nahi içan celacoz* (Belapeire II, 34); XVII. mendean: *Cer erran nahida hitz hau sinbestendut?* (1706: 23); *bici nahi niz harentaco* (1734: 92); *eniz nahi cier estecatü* (50); *ehiz nahi çuhurtu* (78); hurrengoak bestelakoak da, menpeko perpauscan ere «nahi» baitago, «nahi» da perpaus osagarriko aditza: *ene Gincó bouna, nahi diçut çuc nahi duçuna, ceren nahi beitçu nahi duçun beçala, eta nahi duçun beçanbat* (1734: 34). XIX.-koa da beste hau: *çouaste nahi cidien lecquialat* (SC, 589); Izturitzen

6.2.8.10. Baxenabarren eta Zuberoan lehen pertsonan “izan” aditzak *nintzan* du iraganean, baina *zen* hirugarrenean; Baigorriin, berriz, *nintzan* & *nintzen*, lehian daude. Lapurdi barrenean *nintzen* baizik ez dago. Zaraitzun ere *nintzan* & *zen* egiten zen, baina Erronkarin *nintzen* & *zen*.

### 6.3. Zalantzak inguraturikako ezaugarriak

6.3.1. Garazi ibarreko Etxepareren lanean *egiara* ‘egia + -a’ (1980: 188) adibidea dugu eta Oihenarten 166. atsotitzean *oinzolará* ‘oinzola + -a’ (2003: 130). Zaraitzun 1610erako *peco landara* ‘beheko landa’ edo ‘La landa baja’ dugu Otsagabian (Salaberri Zaratiegi 1996: 224-5); ondoko gizaldietan ere *-a + a > -ara* egin dute absolutibo mugatu singularrean zaraitzuarrek. Erronkarin ez dirudi honelakorik egin denik. Pentsa liteke ea hauek Ipar Euskal Herrian inoiz hedatuago egon zen joera baten arrastoak ote diren: Azkuek Lapurdiko Aturrialdeko Mugerren *arrebara* eta *elizara* adibideak bildu zituen, baina Ipar Euskal Herriko idazkietan segurik ez da kasik adibide gehiago ageri. Oikonimo zaharren azterketan Zuberoako Erdi Aroko pare bat adibide dakarkigu J.-B. Orpustanek: <Carricara> Altzürükün (1994: 202) eta <Sorcerara> Urđinarben (205), 1479 urtekoa; aldaera hau *Sortera* izen ezagunari dagokiola dirudi. Ricardo Ciervidek “Item Lostau de Jaureguisalhara Ez Botoy de/ Berraute nihil debet Regy et Ez Miey foec” dakar (1994: 136).<sup>116</sup>

Ekialdeko Euskal Herriko aldaketa baten hondarkiak ote dira Lapurdiko Aturrialdeko, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Zaraitzuko adibideok? Honelako berrikuntza batek, zaharra izanik ere, adibide gehiago utzi beharko zituzkeen euskal idazkietan, baina ale bakan baizik ez dago. Dakigunez, Zuberoan eta Erronkarin *-a + a* loturak *á* emaitza utzi du eta halaxe ahoskatzen da egun ere.

6.3.2. Aditz nagusi eta laguntzailearen artean *ere* partikula kokatzen bada, adierazi nahi den errealitate bat hanpa daiteke; Oloroeko katiximakoa da adibide hau: *ordinariosqui ihour bicitcen den beçala hiltcen ere da* (1706: 45). Baxenabarreko Izturitzekoa da beste hau: *hartzen e dik denbora*.<sup>117</sup>

6.3.3. Elipsia gertaturik edo, perpaus konpletibo batzuen sarreran *baieziz* ibiltzen da Zuberoan, *baizik eta* Baxenabarren —Lapurdiko Makea eta Uztaritze barne— eta *baezik eta* Aezkoan; Armendaritzen ere *ba(e)zik eta* bildu dugu. Ez dakigu Zuberoan noiztik baliatzen den egitura hau, baina idazki zaharretan guk bederen ez dugu aurkitu; dakargun adibidea berria da: *emazte batek pleinta ekharri zia baieziz gizun batek kotapian eskia iragan z(i)ola* (Elixagarai, 166). Erronkariko idazkietan ez dugu ezaugarri hau atzeman.

EHHA-k *juan nabi bazen* dakar; egun Arberoan *nabi + \*edun* ibiltzen da. Céline Mounolek alineazio erगतiboaren Leizarraga eta Oihenarten adibideak dakartza eta gertakari honen egitura eta bilakabidea diakronikoki kokatzen ditu (2010).

<sup>116</sup> Zuberoako errolda honen lehen idazkia 1377koa edo da, baina guri 1690eko kopiaren berri eman digute. Adibide hau zinez *-ara* horietarik bada, fenomenoaren lekukotasun zahar bat gehiago da. Adibidean adlatiboa edo beste zerbait ote den ez dago argi.

<sup>117</sup> Hegoaldean Aezkoan ibiltzen da: *badaki ta elekatzen ere du* (Abaurregaina); egiazki, Eguesibarko Joakin Lizarragak ere bazerabilen da Zugarramurdiko idazki batzuetan ere ageri da; Erronkarin ez dakigu baliatzen ote zen, ez zaigu testuetan agertu.

## 7. Ekialdeko hautuak<sup>118</sup>

### 7.1. Zuberoako hautu Erronkarirekin partekatua

7.1.1. Bizkai-Gipuzkoetan bezala, hitz zahar nahiz mailegu zenbaitetan, Erronkarin eta Zuberoan ohikoa da balio txikigarririk gabeko *tx-* hitz hasieran: *txákiür, txár, txérkha, txípi, txó(r)i, txórta, txortéla, txüüt* xiberutarrenak dira (Mitzelena 1954). Honelakoetan Baxenabarren eta Lapurdin *x-* ibiltzen da. Halaz ere, Zuberoakoa da *x-* ere: *xahal, xamar, xathar, xehe, xilo, xokho, xuri, xüti, xüxen* (Larrasket, 1939).

7.1.2. Gainerateko eskualdeetan ez bezala, Zuberoan *arratsan, gaian, goizan* erako inesiboak ditugu, lotura bokalik gabeak; Erronkarin ere *goxan* dakar Uhalde Maiok (SM, XXI, 18); ez dakigu ekialdean arrunta den instrumentalaren erabilera mugatuak honetan eragin ote duen. Oihartzabalek bereizketa semantikoa dakusa: *goizan* 'goiz honetan' litzateke eta *goizian* generikoagoa (1991: 177).<sup>119</sup>

7.1.3. Adizki datibodunetan *-z-* morfemak —*-tz-* alomorfoa du— adierazten du plurala Zuberoan.<sup>120</sup>

7.1.4. Aditz nagusiak *-n* edo *-l* bukaera badu, etorkizuna *-en* morfemak adierazten du Baxenabarre-Lapurdietan nahiz ekialde guztian, Nafarroa Garaiko alderdi zabal bat eta Zuberoa barne; honelakoetan *-go* ageri denean, *gogo* partikularen laburdura gertatu dela ulertu behar da eta nahia adierazten du. Ordea, Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun, *-i* edo *-tu-z* bukatu partizipioek ere *-(r)en* morfema hartzen dute etorkizuna adierazteko, baina Amikuzen ez.<sup>121</sup>

<sup>118</sup> Hautuak usu ia-ia berrikuntzak ere izaten dira; beti ez da garbi izaten ezaugarri bat garai zaharreko hautua den, hizkuntza horretan ondotik berriztatu den atala den edo zer den zehazki; guk saio honetan hautuen sailean dakartzagun ezaugarri batzuk berrikuntzat har litzake norbaitek, jabetzen gara auziaz; bestela esan, ez dugu uste guk hona haututzat aurkezten ditugun ezaugarri guztiak, Euskara Batu Zaharraren garaian hizkuntzak eskaintzen zituen hautuak direnik, hizkuntzak han edo hemen gerorat egin dituen hautu edo berrikuntzak izan daitezke, baina ez da aise batzuen eta besteen arteko muga finkatzea.

<sup>119</sup> Julen Manterolak berrikuntzat jo zituen *goizan* erako aldaerak (2006: 668) eta orain ahoz dioskunez, aldaera zaharrak izatea ere baliteke. Manterolaren orduko logika zuzena izan daiteke, baina arazo bat dakusagu baliatu zituen idazleetan: Tartas eta Oihenarten *-ean*-en lekukotza dakar bermetzat, baina bi idazle horiek Zuberoaz kanpoko erak ibiltzeko joera zuten; Oihenarten ondoko belaualdikoa zen Belapeirek *goičan* eta *gayan* dakartza; Oihenarten garaikide Jakes Belakoa (1586-1667) idazleak ez darabil atsotizetan honelakorik, baina horiek idazteaz behartu balitz, beharbada *goizan* erakoak baliatuko zituzkeen; ez jakin, Jakes Belakoaren atsotizetan hein batez ere sumatzen baita Zuberoaz kanpoko aldaeren agerpena. Orduko idazkietan 1706ko Oloroeko katixima da egun Zuberoakotzat jotzen dugun ezaugarrien konbinazioarekin koherenteena.

<sup>120</sup> Hona adibideak: *Gincoari nola eman behar çaitço eskerrac?* (Belapeire I, 134); *cofesorac eman deyczun avis honac* (1706: 92); *behar diren gayçac galthatcen deyczogularic* (1706: 53). Erronkarin ere bada *-z-* pluralgile hori; Nor Nori: *zaiku* → *zaizkugu*; Nor Nori Nork: *daitad* → *daiztaad*; *zaitan* → *zaiztan*; *daikugu* → *daizkugu*; *daizu* → *daitzu*. Numeroa adizkiari txertatzea euskaraz berankorra denez, dialektoen garaiko hautu ez zaharra lirudike honek; cf. Martínez Areta (2009).

<sup>121</sup> Oro har, Baxenabarren ez da ohikoa *-iren* & *-turen* bukaera etorkizuna adierazteko, baina idazki berrietan salbuespen zenbait agertu da: Alduden, Baigorri eta Beskoitzen; berebat, Hazparden, *joon* 'jo-ren' bildu da. Ezaugarri hau iraganean hedatuago zegoela adierazten digute Hazparneko XVIII. mendeko «Kadet eta Bettirriño» testuak edo Leizarragaren obrak. Ziburuko Etxeberriek ere baliatzen zuten: *iraunguiren, ahantçiren / aguerturen, arguituren* (1981: 288); ez dakigu orduko Lapurdiko itsasertzeko ahozko mintzoa zenbateraino ordezkatzen ote duen. Davantek dienez (2010: 36), egun *-ko* da Zuberoan etorkizuneko aditzak sortzeko baliabide nagusia, ez da gehiago *-(r)en*.

7.1.5. Lapurdi-Baxenabarretako testuetan *ezen ez* dago konparazio perpauseko bigarren atalean, eta Jakes Belako eta Oihenart idazleek ere baliatu zuten. Alta, Arberoa-Amikuzetan *ezin ez* partikula bildu dugu. Zuberoan aspalditik *ezi ez* dago.<sup>122</sup> Bestalde, ezaguna da *ezi* partikulak Zuberoan azalpena dakarrela.

7.1.6. Denboraren une jakin batera edo leku batera heldu dela adierazteko, aditz partizipioari edo adlatiboko morfemari *bait & baiko(z)* posposizioa txertatzen zaie Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun.<sup>123</sup>

7.1.7. Perpaus kontzesiboetan *nahibada* partikula ibili da Zuberoan, egun galbidean dela badirudi ere; Erronkarin *naibeda* zerabilen Mendigatxa bidankoztarrak; Azkuek ere bildu zuen (1931: 292).<sup>124</sup>

## 7.2. Ekialde zabaleko hautuak, Zuberoak eta Erronkarik partekatutak

7.2.1. Zenbatzaile eta determinatzaile *ez* zehaztua den *bat* lekuzko kasuetan *ez* da berdin jokatzeko Euskal Herri guztian; inesiboan, esaterako, *baten* ageri da mendebalean, zeina erdialdean *batean* baita, absolutibo mugatuan jokaturik; Ipar Euskal Herriko ekialdean eta erdigunean, Uztaritzerraino, *batetan*, *batetatik*, *batetara(t)*... izan da ohitura, nahiz egun Lapurdin eta Baxenabarren *batean*, *batetik* aldaerak nagusitu diren; Etxepareren olerkietan, Leizarragaren lanean edo egungo Zuberoan *-ta*-dunak ageri dira.<sup>125</sup>

7.2.2. Norabidea adierazteko *-rat* ibiltzen da ekialde zabalean, eskualde guztietan atzizkia osagai berei atxikitzen *ez* bazaie ere.<sup>126</sup>

<sup>122</sup> Hona Oloroeko katixima: *leben hilen niçala eciez çouri oguen eguinen* (1706: 3); *eztela botere gloriousagoric, saintiagoric, consolagarriagoric eta ber themporan onsa eguiteco difcilagoric eciez eta haur gazter Christi eguinbiden eracastia* (1746: v); hona Charl.-ko adibide bat: *estit enthelegatcen haboroceiez eta grequez* (381). Erronkariko Uztarrozen ere *ezi* bildu zen 1953an: *zarrago ezi ni; ardaui kori obe tzu ezi bestia* (Mitxelena *et alii* 1953: 529), baina XIX. mendeko Bidankozen ezik: *faluten dela zeuria ta lurra lein ezik bara dein kunplitu bage perfektoki Legian kontenitan den guziua* (SM, V, 18); Mendigatxak ere honelakoak dakartza. Hona Intxauspek berdintasuna nola konparatzen duen: *hain icigarri edireiten dut har baten jincollotzia, zouña hil baten arraphiztia* (1857: 8).

<sup>123</sup> Zuberoako idazki zaharretan *ez* dugu adibiderik aurkitu eta Etxahunenak dakartzaguz: *mündü huntaiik bestia baiko, han denak gina bardintzen* (Haritzelhar 1970: 234); *Otsogorin bebera ardiek, lasterka, zalhe igaran zien Gaztanbid'uhaitza; Besarkagiala baikoz baraxtü ürhatsa* (348). Erronkariko Bidankozekoa da Uhalde Maioren hau: *xatxiz baikoz Jesus menditik* (57).

<sup>124</sup> Hona Zuberoako adibideak: *ceren eta, nabi bada Jesus-Christen merechimentiez baicy ezten thour sartcen abal Celietan; Gincouac nahi beitu halere bat bederac eguin deçan ahala oro bere aldeti* (1758: 4). Charl.-tik beste hauek: *guerla bates jcousten duçu çounbat milla hiltcen den baquia eguin eçaçu nahibada bouraq costaren diren* (263-4); *nahibada alhaba çian Didieren emastia maite ughen leçan ghiristi leguia* (368); *eztiat dudatçen haren lagunçia nahibada ene aitaq galdu dian biçia* (291). Hona Mendigatxa erronkariarra: *orai xa eztaud isartan obro, naibeda eztakiola balio bakotxa re* (Estornés Lasa 1984: 66).

<sup>125</sup> Baxenabarren XIX. mendean *-ta*-duten eta *ez* duten aldaerak ditugu idazkietan, baina XVIII. mendea bitarteko testuetan *batetan*, *batetara* erakoak nagusi dira. XX. mendean bi erak baliatu dira Baxenabarren ahozko mintzoan, baina egun *-ta*-gabekoak nagusi dira. Erronkarin, berriz, *batian* aldaera dakar Uhalde Maiok ebanjelioan nahiz kristau ikasbidean eta baita Mendigatxak ere: *leku busti batian* (73). Ordea, Uztarrozeko Fidela Bernatek badarabil: *eta bär degunä entrégatü, papér batetän, éne länä güzia* (Artola 1991: 263); *öllu ziä... kárta batetän* (270).

<sup>126</sup> Alderdi batzuetan izenei txertatzen zaie eta beste batzuetan adizlagun batzuei baizik *ez*. Nolanahi ere den, Iruñerriko eskuin Nafarroa Garaia, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa dira baliabide honen kokagunea. *Beti ez dago argi -rat* beste lekuetako «norantz»-en adiera bereko forma ote den edo *-ra*-ren adierari

7.2.3. Iragatea edo ibilera adierazteko *-n gaindi* posposizioa baliatzen da Ipar Euskal Herriko eta ondoko ibar batzuetan. Aspaldiko era da, Leizarragak ere badarabil *-n gaindi*, baina ez dugu Zuberoako testurik zaharrenetan aurkitu.<sup>127</sup>

7.2.4. Bizidunen kasuetan “beitha” posposizioa ibiltzen da Zuberoan, baina ekialde zabalekoa da: *sar cite cihaur beithan* (Maister, 54); Erronkariko Bidankozekoa da hau: *eta eiz ztei erraitiaz xen baitan* (SM, III, 9). Baxenabarreko Armendaritzekoa da hurranen adibide hau: *ene baitan ukhan dut gogoan, pentsaketan*; iduri luke norberaren barrenekotasunaren ingurunean ageri dela.<sup>128</sup>

7.2.5. Belapeirek eta Maisterrek adiera destinatiboan edute genitibo hutsa darabilte gehienik, baina *-tako* ere ibiltzen dute.<sup>129</sup>

7.2.6. Zuberoan prolatiboan *-tako* nagusi da: Maisterrek *har deçaçun çoure cerbutcharitaco* (168) dakar, baina *erho baten hartu* Belapeirek (II, 48). Bestalde, *-tzat* ere bada Zuberoan: *lurrian bere haz aitatçat Gincó Jaunaz berhecia* (1734: 98).<sup>130</sup>

beste ñabardura bat eransten ote dion; osagarrian aldaera hau daraman aditz bakoitzaren arabera aztertu behar da; cf. Oihartzabal (1991: 401-2); Oloroeko katiximako adibide honetan argi ageri da *-ra* eta *-rat*-en arteko desberdintasun handirik eza: *jaitsi ifermitara, heren egunian hiletaric pphiztu. Celietrat igan, iarric dago ayta pphotere oro dianaren aldescugnian* (1706: 9). Erronkarin ere ezaguna da aldaera hau. Uhalde Maiok honela dakar: *zauden ere kan urrinariat anitx emazte, segitu baizren Jesusi* (XXVII, 55). Izagirrek ere Erronkarin norabideaz galdezka ziharduela inkestan bildu zuen: *etserát eta mendiarát* (1961: 392).

<sup>127</sup> Badira *orotan gainti* erakoak XVII. mendearen bukaeran eta XVIII. ean Zuberoan, eta *orotan gaintic* ere bada (1734: 98), baina iragate adierarik gabeak dira; baita beste eratakoak ere, *mükürri gaintika* dakar Maisterrek: *houn themporalen mucurri gaintica ukheitia* (61), eta baita *burutila gaintica* ere (226). Iragate adieran dakar *-i ganti* 1793ko Edipa-k: *bide crudel bathy ganty ihessy igorry cian* (295). Intxauspek honela egiten du: *igáran zén Jesús óguí elgué bat gáinti nescanegún bátez* (SM, XII, 1). Baxenabarreko Araberoan *hor gaindi* bildu dugu; Erronkarin (*-n*) *gainti(k)* zegoen: *axuriak kiñoetan gaintik* (Azkue 1931: 288) eta *karrika gaintik guatza* (296); Zaraitzun *-ra gaindi* bildu da.

<sup>128</sup> Dena dela, baliatzen dira *-ta-* edo *-ga-* ere Zuberoan bizidunen lekuzko kasuetan; hona Oloroeko katiximan: *O Jesus, Maria Virginia beythan bici cirena ciauri eta bici cite nitan* (1746: 5); baita *-ga-* morfema ere: *ceren eta bere içaytia bere beytharic beytu, eta ezpeyta ihourganic ere giten* (26). Deus gabe inesiboan ere joka liteke: *dohatsu hilak, Jaunian hiltzen direnak* (Intxauspek, Apok, 83); izen propioan ere *-ta-* ager daiteke: *ba-zoüan houñez houren-gáñen, Jesússetara héltzeko* (SM, XIV, 29). Erronkariko Uhalde Maiok *zomat naturaleza, entendimentu eta voluntate drade Jangoicuatán?* dakar (505); Mendigatxak otoitz bateko adibidea darabil: *buelta betza gutra, orren miserikordiazko begi koriek* (110); baita beste hau ere: *nago ustetan alaba eta nitarik erkiten eztiona, eztiola erkinen ñortarik iri kontan* (71).

<sup>129</sup> Oro har, «ene» edo «amaren» era zaharrekoa ez denean, «enetako» edo «amarentako» erakoa da Zuberoako destinatiboa idazkietan: hala da Oloroeko katiximan, Maisterren, Eskiula 1758 edo 1780-n, eta baita SC eta Charl. pastoraletan ere. Jeruntzeko egungo euskararen ere *-rentako* da atzizkia (Etxegorri 2003). Inoiz *-tzat* ageri da Zuberoan: 1734ko otoitzean *haing corpitz saintu batentçat Celias ordenantia* (103) dago eta Eskiulako 1780ko testuan ere bada: *jakinic erayki duyela... confraria-bat... guiçon eta emazte fidelen-çat* (5); *Eskiulaco biciçalec bethi jarraikitcen edo continuatcen dielaric, Virginia Saintaren-çat dien devotione berhecian* (11). Beste era ere badarabil idazkiak: *caritate bedatiena eta tendrena guiçonentaco ukben duçuna* (22). Charl.-n ere bada *-tzat*: *hain beste gracia enecat* (159); Intxauspek ere badarabil: *gucientzat houn diren lanac* (1857: 66). Baxenabarren testu berrienetan *-tako* ageri da, baina Etxeparek, nagusi den *-tako*-rekin batean baditu *-tzat*-en adibideak ere; Lapurdin ere ez dago gutzizko batasunik: Maisterrek eta Axularrek *-tzat* dute, baina Leizarragak *-tzat* eta *-tako*. Oro har, *-tzat* mendeberago ageri da gehien, Lapurdi alderdi horretan.

<sup>130</sup> Baxenabarren prolatiborako *-tako* aldaera ageri da, batez ere testu berrienetan; *-tzat*, berriz, testu zaharrenetan eta Baigorri dago, baina ez da esaten ahal Nafarroa Beherean testu zaharrenetan *-tako* ez dagoenik; Lapurdiko testu zaharrek ere *-tzat* dakarte. Bardozen ez dago *-tzat* baizik eta Lapurdiko barnealdean *-tzat* *ç*-*tako* ditugu egun. Erronkarin *-tako* ageri da: *kemen gastatan digu argitako* (73); *eta permentina biltan da, erremediatako* (73), Mendigatxaren adibideak.



7.2.7. Denbora-hitzen erabilera batzuetan instrumentala mugaturik agertzea, Baxenabarren, Bardozen nahiz Lapurdi barnealdean gertatzen da eta Hegoaldean Aezkoan ere bai; Zuberoan ere ohiko jokaera da.<sup>131</sup>

7.2.8. Adlatiboa dakar *eitzi*-k Zuberoan eta Erronkarin, *utzi*-k Baxenabarre-Lapurdin legez; hona Oloroeko katiximako adibide bat: *ez kitçaçula aytz (sic) tentacio-netan erortera* (1706: 52).<sup>132</sup>

7.2.9. Zuberoan, Erronkarin eta Baxenabarreko erdialde nahiz iparrean *-tze* atzizkia ibiltzen da zuhaitza adierazteko, baina Nafarroa Behereko hego eta erdialdean *-ondo*. Bestalde, Erronkarin legez, *-kal* atzizkia ibiltzen da Zuberoan: *bakhoitçkal* (Maister, 46); *mementocal* (48); *haur consultaturic date despendiocal* (1780: 39). Egieltasuna adierazten du *-zale* atzizkiak ekialde zabalean: *lousençaçaliari* (sic) 'lausengatzaileari' (Maister, 221); *iracourçaliari* (1758: 3); Aezkoan, esaterako, *launtzale* 'laguntzaile', *edanzale* 'edale' ibiltzen dira.

7.2.10. Ahala adierazteko *\*ezan* eta *\*iron* erroak ageri dira Baxenabarren nahiz Lapurdin, baina gero eta defektiboagoa da *\*iron*; Zuberoan *\*iron*-en aldaerak anitz ibiltzen dira ahalean, baina *\*ezan* ere baliatzen da; cf. Intxauspe 1858.<sup>133</sup>

7.2.11. Denboraren aldiberekotasuna adierazten du datiboak ekialdean; *Celucosu haren aguertziari bihotçac piztu çaitcen* (Belapeire, II, 72). Nafar-lapurteran (Lafitte 1979: 473. atala), Erronkarin, Aezkoan edo Beriainen lanean ere badira era honetako adibideak. Egiatzki, berrikuntza izateko itxura ere badu.

7.2.12. Lapurdiko barnealde eta ekialdean, Baxenabarren eta Zuberoan determinatzaile ere bada *zerbeit & zerbait & zeit*.<sup>134</sup>

7.2.13. Korrelazioa egiteko, 'galdetzailea + *ere* + *bait*' ibiltzen da: Oloroeko katiximakoa da adibidea: *ené gincoa sinhesten diçut ikhouston nay-çula, adoratcen*

<sup>131</sup> Hona adibideok lekuko: *gaiaz ez egunaz* (1734: 3); Intxausperena da *gáyazco laúr-guerren belláldian* (SM, XIV, 25). Erronkarin ere *égunaz* eta *gayaz* arruntak dira; esaera, berri: *gáyaz eta égunaz* (J. Estornés Lasa 1982b: 469-470). Baxenabarreko erabilerak dira *eunaz* (Orzaize), *itxasorat giilaz* (Izturitze), *gauaz* (Izturitze, Arnegi, Gamarte, Larzabale, Jutsi, Garruze, Arboti, Bardoze), *gauaz eta egunaz* (Ezterenzubi), *behar zen otsailaz* (Gamarte), *egünaz* (Arboti). Lapurdiko barnealdean ere honela da (Epelde 2003: 108). Aezkoakoak dira *eunas* eta *gabaz* adibideak; *giilaz* eta *otsailaz* adibideengatik ez balitz, iduri luke ez dela jokaera emankorra.

<sup>132</sup> Ez da aditz bakarra, badira adlatiboa eskatzen duten gehiago ere: *jatera eman* dakar Oloroeko katiximak: *gosse direner jatera emaytia* (1746: 24). Eskiulako 1780ko idazkiak *ausatu* dakar, Charl.-n ere hala dena, gainerateko mintzoetako *ausartu*: *ausatcen nuçu çouri eskentçera, ene bihotz mila bekhaturz eta mila passione ordre gabez theiüturic eta agitaturic denaren* (23). Berebat *manatu*-k ere bai: *manhatcen gutu... beguiratçera* (1706: 77). Erronkarin *manátu diégu xitra* (J. Estornés Lasa 1982b: 467).

<sup>133</sup> Leizarragaren lanean eta Hazparneko testu zahar batean (Padilla 2011) *\*ezan* baliatuagoa da *\*iron* baino. Egun, esate batera, Arberoako Mehainen biak ibiltzen dira; Armendaritzen *\*iron* hike-tan baliatzen da egun; beste eretan *\*ezan* eta *abal edun* berria ibiltzen dira Armendaritzen. Erronkarin *\*ezan* xedezkoetan ibiltzen da eta ahalekoetan *\*iron* nagusi da, baina bada ahaleko *\*ezan*-en erabilera bakanik: *nazake* 'nezake' Mendigatxarena (71); *gitzake*, *gitzakek*, *gitzakezu*, *gitzakezei* Bonapartek bil-duak.

<sup>134</sup> Arberoako Mehainekoa da *zerbeit atherbexka* izen sintagma; Amikuzeko Oragarrekoa *zeit urre-ria aundi galdu*. Zuberoako adibidetzat Oloroeko katixima dakargu: *vduritu çaicu hon içanen cela Catbechima hontan cerbait khambiamenturen eguitia* (1746: vij). Erronkarin ez dakigu honelako izen sintagmarik ba ote den, idazkietan, bederen, ez dugu aurkitu. José Estornés Lasak Uztarrozeko Balbina Ederrari 1968an itzularazi perpauz batean ageri da, ordea: 'te daré alguna cosa' zen itzulgaia eta emazte-kiak *émonen diar zérbait gáiza* erantzun zuen (1982b: 478).

*eta maithatcen çutut ene bihotz oroz: cerere eguitera beynoa eskentcen deyçut* (1706: 8-9).<sup>135</sup>

7.2.14. Kausazko perpausetan *zeren & zen (eta)* egitura, Zaraitzun, Erronkarin, Zuberoan, Baxenabarren eta Lapurdi barrenekaldean nahiz Aturrialdean ibiltzen da. Hona Oloroeko katiximako adibide bat: *ceren eta bethy iragnen dian bicicia beita goure azken urhenburia* (1746: 46).

7.2.15. Galde-perpauetan elkar baztertzen duten aukerak elkartzen direnean, *ala* da ekialde zabaleko juntagailu hautakaria, baina Euskal Herriko erdigunean *edo* baliatzen da honetarako.<sup>136</sup>

### 7.3. Datu gutiko ezaugarriak

7.3.1. Polaritate negatiborik gabeko inguruneetan *ihur* ageri da Zuberoan beste lekuetako *norbait* izenordain zehaztugabearen ordain.<sup>137</sup>

7.3.2. Iraupenaren denbora-tarte osoa adierazten duen *-no* atzizkia, Zuberoan, Baxenabar guztian —Baigorri barne— eta Lapurdiko Aturrialdean ibiltzen da, eta Hego Euskal Herrian ere ageri da.<sup>138</sup>

7.3.3. Zuberoan *-z gañen* posposizioa baldintza edo azalpen adieran baliatzen da, “*-z gero*” erak duen adiera berean.<sup>139</sup>

<sup>135</sup> Maisterrena da beste hau: *nourc ere eguiaçco gloria eternala desiratcen beitu* (1757: 103). Peillenek Santa Grazin *bená nork ere erran beitu elbe hura, nitzaz orbitüren duk* bildu du (1985: 24). Baxenabar guztian eta Aturrialdean ere ibiltzen da eta Larresoron ale batzuk bildu ditu Irantzu Epeldek (2003: 199); *guk non e Arberoako Mehainen eta Amikuzeko Labetzen bildu dugu*. Iduri luke Erronkarin antzeko zerbait dagoela: *Doctrina Christiaia* idazkian bi adibide ditugu: *norc ere nai dion zombait Juanguieico falso adora dezan / norc ere nai dion eradugu dezan Juanguieico Geina zombait gaizatzen testigotaco* (1997: 159).

<sup>136</sup> Zuberoan, Baxenabarren eta Lapurdi barrenekaldean ongi bereizten dira *edo* eta *ala* juntagailu hautakariak. Iraganeko testu zaharretan, Etxepare, Leizarraga, Materre, Axular edo Oihenart dira bereizketaren lekuko; hona Belapeire zuberotarraren adibide bat: *Ostian içateco, Iesus-Christ elkhiten deya celutic, ala ordu berian han ere dago?* (I, 72). Erronkarin eta Zaraitzun ere bereizten dira *edo* eta *ala*; Aezkoan egun ez dira bereizten, baina XIX. mendeko idazkietan bai: *Fede divinoa, da engañosoa ala ez?* dakar Orbaizetan 1796an sortu Javier Loperena Iturralde Garraldan apez egon zenak.

<sup>137</sup> Hona Oloroeko katixima: *G. Cer eguin behar du apphezcupiaren aincinian denian ihour confirmatu içateço? I. Belharico behar du ihourc egon modestki, eta bihotzian resolucione azcar bat hartu Chyristi honança bicitez eta hiltceç* (1706: 84). *G. Noiz eguiten da presumptionezco bekhatia? I. Noiz eta ihourc Gincoaren hontarçunian edo bere indar propietan sobera fidatuz gueronat uzten beytu penitencia eguitia eta Gincoaganat uçulticia* (1746: 20). Honelako perpausetan *nehor* darabilte Oihenartek, Tartasek edo Lopezen 1782ko itzulpenak. Mendebalerago bestelakoak dira gauzak, Baigorriko XIX. mendeko ebanjelioa lekuko: *ordian Yesusek erran zeen bere dizipulier: nobait yarraiki nahi balin bazaut, ukho ein dezala bere buriai* (53); *eta noait mintzatzen bada Gizonain Semian contra, barkhatia izain zako* (43). Erronkarin ez dugu hauen pareko perpausik ediren.

<sup>138</sup> Hurranen adibidea Oloroeko katiximakoa da: *hitzz derçit bici niçano çoure honki eguiñez nahi niçala bihotzetic orhit içan* (1706: 105). Zaraitzuko idazki zahar batean ere bada: *guizona mundu contan dagoño dela caminante bat* (Satrustegi 1992: 464). Gipuzkoako Oiartzunen ere bildu da atzizki honen aztarna (Fraile & Fraile 1996: 137). Erronkariko adibiderik ez dugu aurkitu, honela dakar bertako elizidazki zahar batek: *mundu contan gauden vitartio* (1997: 152, 156).

<sup>139</sup> Maisterrek *-n gañen* dakar: *çu cirenen gagen su bethi phiçturic dagouen bat* (397); *hourac oro çucen handireki hartce dutianen gagen* (401); hona SC-n: *emaiten deicuçunaz gañenian joutiteco counçita phaca içaguçu bertan thempora igarana* (589). Guk Sarrikotapean [3]in *tzienez gañen* bildu dugu eta Madeleine Jauregiberriek *zū haiñ azkar zirenaz gañen* dakar (de'Rijk 1999: 161). Halaz ere, euskal eremu

7.3.4. Perpaus konparatiboetan, *zenbatenaz bait... ha(i)nbatenaz* egitura arrunta da Ipar Euskal Herrian; idazle erabiltzaileetan, Etxeberri Ziburukoa, Pouvreau, Tartas, Larregi, Mihura, Arbelbide... ditugu.<sup>140</sup>

#### 7.4. Zuberoako hautuak Erronkarirekin partekatu gabeak

7.4.1. Airtzinean inesiboa dutela jokatzeko dira *gañen* eta *barnen* posposizioak Zuberoan. Oloroeko katiximakoak da *tahailla eskietan gaignen etchekiten dugula* (1706: 103); 1734ko otoitzekoa, berriz, *khurutche batetan gaignen hil içan beita* (20).<sup>141</sup> Eskiulako idazkian dugu bestea: *çortzi-egunetan barnen, aïtcineco cargudunec, emanen dutie berrier, hartien eta igorrien kontiac* (1758: 29). Charl.-k dakartza *denbora aphuretaren barnen jçanen jz galduriq* (279) eta *bestela Bordelen barnen bertan ait erhaiten ore lagun hobenequi espaiçait aguertçen* (213) adibideak.<sup>142</sup> Ematen du gerora genitiborat jo duela.<sup>143</sup>

7.4.2. Euskal Herriko mendebalean legez —cf. *jakon* erako adizki *-za-* gabeak—, Nor Nori-ren iraganeko sailean Zuberoan ez da “izan”-en *-za-* erroa ageri: *zeitän, zeion, zeikün, zeizün* dira adizkiak. Aldiz, Zaraitzun eta Erronkarin gauzak ez dira

---

zabaletan ohikoa den *-z geroz(tik)* ere ibiltzen da: *esposatu behar dia, ohoria evaxi derionaz gueroz?* (Belapeire, I, 98); *goure bruçagüia eta goure Jauna denaz guerotic* (1706: 28); *cer çagutce eguinen deychüt ene Jaun orotaco - hobena, ez tudanaz gueroztic deusere, eta nihaur ezdeusbat niçanian* (105); Eskiulako idazkietan: *eztenaz gueroz nekez baïci idokitcen ahal cerbaït hountarçun* (1758: 14); *esplicatu behar dutienaz gueroz, hayen societate edo lagoungoua saintian recebi-erazteco devocionia diener* (1780: 43). Belapeirek ez darabil «-z geroz» era baizik. Erronkarin ez dakigu «z- gañen» ba ote zegoen.

<sup>140</sup> Aezkoan ere entzuten da egitura hau; Orbarakoa da hurrengoa: *zenbatenas atra dezan eta geao gastatzen da*. Hona Tartasek nola zerabilen: *zonbatenaz baititüzte maite mündüko honak eta plazerak, hanbatenaz da haien regreta eta desplazera handi* (1975: 125-6). Eskiulako beste hau ere aipa dezakegu: *bartan confidança harturic çombat ere handi beita goure iniquitaten nombria hambatenaz handiago duçu Jauna çoure justiciaren pietatia* (1780: 3-4). Erronkarin ez dakigu ezaugarri hau ba ote zen, idazkietan ez dugu adibiderik eriden; Azkuek dakarren atsotitza ez da sail honetakoa: *noiz ta izan dein igaita gorago, xaxteari arten du golpea andiogo* (1931: 278).

<sup>141</sup> Adiera instrumentalean ere baliatzen da, «zertaz mintzatu» esanahian eta adiera honetan ere iduri du posposizioaren ezkerreko osagaia inesibo izatetik genitibo izatera iragan dela: *Gingoari eguiten den promessa bat hari laket eta agradable çayon gayça çonbaytetan gaignen* (1706: 64); baina *caritatiaren gaignen* dator Zuberoako 1734ko otoitz baten izenburuan (64).

<sup>142</sup> *üngürü* ere inesiboan joka daiteke, Eskiulako idazkia lekuko: *Processione baten eguitia ourtheco bilabete bakhoitçaren laurden İgantian hilherrian unguuru* (1758: 10-1); *Processione ondouan, çoin eguinen baïta Eliçan barnen edo hilherrian unguuru, iracourtu içanen dira Manu hoyac* (25). Halaz guztiz ere, Intxauspek genitiboa dakar: *eta ozadar bat bazen jargiaren unguurian* (Apok, IV, 3); beharbada absolutiboan dagoen *üngürü* da inesiboa hartzen duena, ala Eskiula alderdiko berezitasuna da *üngürü*-k inesiboa hartzea? Ez dugu datu gehiago ezagutzen.

<sup>143</sup> Honela dio Intxauspek: *lurraren gañen aurkhitzen dena deitzen da gatz harria* (1857: 112); *berroquei egunen barnen* (5). Baina Intxausperena da *ezari zian bere esku eskuña nitan gañen* (Apok, 8), inesiboa duena eta halakoak dirudite *itcháson gañen* eta *houren gañen* adibideek ere (SM, XIV, 26 eta 29). Madeleine Jauregiberrik *etxe barnen* (158) eta *mandoren gainian* (161) dakartza xx. mendean. Erronkarin genitiboa dakar Uhalde Maiok: *mendi baten gainian* (SM, V, 14), *arri konen gainian* (SM, XXI, 44), baina dotrinan instrumentala ere badarabil; hain zuzen ere, honelakoa da Erronkariko idazki zahar bateko adibidea: *Jangueyco Jeinna gaiza guciez gaynetic oneresi eta estima dezagula* (Gómez 1991: 386); Erronkariko beste dotrina zati batzuetan ere ageri da: *gaiza guciez gaynetic* (1997: 173).

honela: *zizayon* 'zitzaion' bildu zuen Zaraitzuko Jaurrietan Bonapartek eta *zitzaun* Erronkarin, bi ibarrotan *-za-* erroa dago eta Baxenabarren ere bai.<sup>144</sup>

7.4.3. Konparazio perpausetan *bezainbeste* & *bezanbat* ditugu Zuberoa-Amikuzen; alta, Baxenabarren eta Aezkoan, *bezanbat* baizik ez; Zaraitzun *bezainbat* & *beza-mat*; Erronkarin *bikainbat* & *bekeinbat*.<sup>145</sup>

## 7.5. Ekialde zabaleko hautuak, Zuberoak eta Erronkarik partekatu gabekak

7.5.1. Ordinaletan, *-garren* & *-gerren* atzizki ezagunaz landa, *-den* ere ibiltzen da Zuberoan: *hilabeteco laurden igante oroz* (1758: 18); *hirour hoguey eta hamabiden ourthian* (1780: 10); *setemeren laurdenian* (9); pastoral batean *bidena* ageri da (Oihartzabal 1991: 397); Etxahunek *ene biden ourthian banoundouen chuti* dakar (Hartxelhar 1970: 174) eta baita, *hama hirour dena, hogueita sei denian...* ere (193-4).<sup>146</sup>

7.5.2. Aditz trinkoetan *-tza-* pluralgilea ageri da Zuberoan Nor Nork sailean: *bada-kitzat* 'bazakizkiat' (Elixagarai, 33), *bazakitza* 'bazakizkian' (106).<sup>147</sup> Erronkarin *z* dirudi dela pluralgilea: *dazkien*, *dazkiolarik*, *dazkiularik*, *dazkanak*, *baitazkazu*, *dazkazei...*

7.5.3. Baldintza hipotetikoaren protasian, hedadura handiko "-tuko balitz" eraren ordain, Lapurdin eta Baxenabarren "-t(z)en balitz" egitura baliatzen da; ezaugarri hau Hegoaldean ere ageri da, Bertizaranako, Baztango, Erroibarko eta Eguesibarko idazkietan. Zuberoan ere badakarte testu zaharrek aukera hau: *Ostia Sainitia aho garayan locen baliz, cer eguin behar liçate?* (1706: 103); *eta helcen baliz Officier hetaric çombaitec... luien bardin Votz...* (1758: 28).<sup>148</sup> Egitura honen garapen diakronikoz ikus Mounole (2011: 115-7 eta 234-8).

<sup>144</sup> Baxenabarrerri dagokionez, Oztibarren, Garazin, Iholdi-Armendaritze alderdian edo Donamartirin, bada *-za-*, eta Amikuzen ere bai: ibar honetan XIX eta XX. mendeetako datuetan *-za-* erroa ageri da, baina erro hori gabeko adizkiak dirudi nagusi direla egun: *zatan* 'zitzaidan', *zakon* 'zitzaion', *zaukûn* 'zitzaigun'...

<sup>145</sup> Belapeirek ez darabil *bezanbat* baizik. Hona Zuberoako adibide zaharrak: *eguiten abal dugun beçainbeste, artçain guehienac gutaric egurukiten dian beçala* (1746: v). 1734ko otoitzekoa da hau: *nahi duçun beçanbat* (34). Maisterrena da beste hau: *placer dianian, placer dian beçambat eta placer dianari, uduri çayon beçambat, eta eç haboro* (1757: 159), baina beste era ere badarabil Maisterrek: *creatures amourio theyac beçagn beste, deusec ere eçtu guiconaren bibotça maculatcen, eta nabasten* (93). Eraikuntzan kutsu iduria du Maisterren beste adibide honek ere: *hagnbeste federeki, esparantchareki, eta garbitarçunek: çougnen beste-reki çoure ama ecinago saintac, Maria birgina loriousac errecebitu, eta desiratu beittuntian* (1757: 399).

<sup>146</sup> EAEL-n *birden* bildu da Lapurdiko Beskoitzen (1984) eta Mugerren era bada *birden*; Gohietzek *birdena* dakar; Euskal Herrian baditu kideak (Mitxelena 1978: 226-7): Añibarrok edo Barrutiak bazera-biltzen, guztiz esanahi berean ez izanik ere.

<sup>147</sup> Garai bateko Nafarroa Beherean nola Lapurdin, Nor Nork, Nor Nori Nork eta Nor Nori sail-etako pluralgile izan da *-tza-* morfema, Etxepare, Leizarraga, Oihenart, Tartas, Axular, Argaiñarat edo Hiribarren idazleen lanetan, esaterako; Nor sailari ere badagokio aditz trinkoetan *tza* morfema pluralgilea, baina erabilera honek geografia-hedadura handiagoa du Euskal Herrian.

<sup>148</sup> Aezkoan eta Zaraitzun bezala, badirudi Erronkarin sistema zaharra, \**ezan* eta \**edin* oinarriak erabili direla baldintza hipotetikoaren protasian eta «t(z)en balitz» erakorik ez dela izan; Erronkarin iraganeko tempusean baliatzen ziren *banintz*, *bayintz*, *balitz*, *bagina*, *bazina*, *bazinei*, *balira* (Uztarroze); cf. Azkue (1931: 242). Mendigatxak *el baginte xuntatra biak* (90) dakar eta Azkuek *ant baiendi* bildu zuen (1931: 287); Izaban 1953an *ekus baléza, anitz pollit* bildu zen (Mitxelena *et alii* 1953: 508) eta 1975ean *xarrak oro il balite* (Artola 1977: 90). Erronkariko «t(z)en balitz»-en adibide bakarra kantu batekoa da, baina ez da fidagarria, besteren artean, kantuko *Dxinkoa* aldaera zuberotarrei ikasia dela dirudielako: *zinez dur xi-nesten, begiez ikusten banu bikala* (bis) *Mariaren Semëa, Betlenen sortüa Dxinkoa dela* (Azkue 1931: 324).

7.5.4. Moduzko perpausetan instrumentaleko morfema Zuberoan aditz izenari atxikitzen zaio, ez aditz partizipioari eta halaxe da Amikuzen ere, baina iraganean hedadura handiagoa zuen honek Ipar Euskal Herrian; lapurtera klasikoan aditz izen mugatuari lotzen zitzaion. Arberoan bildu ditugun adibideetan partizipioa aurkitu dugu; Erronkarin ere partizipioari lotzen zaio.<sup>149</sup> Bestalde, aditz izenari atxiki instrumentaleko morfema ibiltzen da Zuberoan aginte aditzen perpaus osagarrian ere.<sup>150</sup>

## 8. Datuen azterketa

8.1. Euskal Herriko ekialdean ageri den ezaugarri zaharren kopuru handiak iradokitzen du eskualde hau goiztar saihestu zela gainerateko euskaldunen erkidegoetarik; euskal ekialdeak bere bide berezia egin zuen, haren ezkerrean sortuz joan ziren berrikuntza ugari entzungogor eginez.

Bestalde, ekialdeko arkaismo ugari hedadura handia harrapatzen dute Ipar Euskal Herrian eta Hegoaldean Pirinioen alderdian, baina arkaismook Zuberoara edo Zuberoa-Erronkarira guztiok batera biltzen dira eta hori gertaera garrantzizkoa da, inolaz ere; gure interpretazioan, Euskara Batu Zaharretik honat, Zuberoa-Erronkariak laster gelditu ziren beren dinamika berezian, ezaugarri batzuetan geldirik, beste euskaldunen multzoek franko berrikuntza egiten zituzten bitartean, beste multzo guztiak batera —edo bestela zatika nahiz multzo berezien gisa— berriztatzen zuten bitartean.

Zertan esanik ez, elkarren ondoan eta besteatarik hein batez bakaturik egonik, denboran gaindi Zuberoak eta Erronkarik berrikuntza franko partekatu dituzte eta horietarik batzuk ekialde zabalagoan ageri dira, usu Zaraitzun eta inoiz Amikuzen ere. Gure ustez, Zuberoa eta Erronkariren elkarrekilako garai haren ondotik, berrikuntza gehiago ere sortu dira ekialdean, baina batzuk Zuberoakoak baizik ez dira izan eta beste batzuk Erronkarikoak baizik ez. Ibar bakarreko berrikuntza berezi eta markatu horiezaz gain, izan da beste berrikuntza eta hautu sail bat Zuberoak Ipar Euskal Herriarekin batean egin duena eta beste berrikuntza eta hautu sail bat, Erronkarik Zaraitzu eta Nafarroa Garaiarekin batean egin duena.

Nolanahi ere den, aurkez ditzagun orain Zuberoako eta Erronkariko arkaismoak, ibar bakoitzean, bi ibarrotan eta ondoko eskualdeetan ere ageri diren batzuk atzendu gabe; irakur bedi goitik behera:

<sup>149</sup> Hona Oloroeko katiximako adibide bat: *goure visitetan vkbanen dugula consolacione ezitia, ikhous-tez gazteria Christi legueco mysterioüz instruitia* (1746: viij). Ez dakigu xuxen nola interpretatu behar dugun Oloroeko 1706ko katiximako bitasun hau: *Ifernuco pphenen gogoan eçartez; bekhatiaren itchous-sitarçunaz, Jesu-Christen passioniaz orbitcez, gincoaren Majestate saintiaren mesppheretchatu ukhenez, bena particularki haren ontarçun ecinago handiari oguen eguinez* (89). Agertu zaigun honelako adibide bakarra da hau. Bestalde, ohargarri da Belapeirek adibide batean mugaturik dakartzala: *erraitiaz... eraistiaz... igaraitiaz* (I, 44). Erronkariko Bidankozekoa da hau: *xatxiz baikoz Jesus menditik, fan zitzaun xarrekitez gente multitud andi bat* (SM, VIII, 1); ibar honetan partizipioa erabiltzen zela dirudi.

<sup>150</sup> Hona adibideak: *manhaitcen dugu jaun Erretora iracourtez* (1758: 35). Intxauspek ere berdin dakar: *bére ainguriér mânu eman dizu zoure beguiráttez* (SM, IV, 6); *gogo-emazie zien obra hounén éz eguitez guizounén aitzinían* (SM, VI, 1). Erronkarin mugatzailea darama egiturak, baina ez da egitura egokiena edo gardenena, menpeko perpausoko kasu instrumentala «guardatu» aditzak eskatua izan baitaiteke: *guarda ztei onki egitiaz xen obra onak gizonen antzinian* (SM, VI, 1).

Zuberoa & Erronkariko arkaismo fonikoak	Zuberoa & Erronkariko arkaismo morfologikoak	Zuberoa, Erronkari & ondoko eskualdeetako arkaismo morfologikoak	Zuberoa, Zaraitzu & Baxenabarreko arkaismo morfologian
<i>lk, lt, nk, nt</i>	<i>-(r)ik</i> ablatiboa	inesibo zaharra	<i>-la</i> adlatiboa
<i>rz, rs</i>	<i>alte &amp; alde</i> + osagarria eskuin	destinatibo balioa duen edute genitiboa	
Erronkarin badiren eta Zuberoan ez diren arkaismo fonikoak	<i>e-</i> aditz aurrizkia	<i>-rten</i> aditz bukaera	Zuberoan badiren eta Erronkarin ez diren izen morfologiako arkaismoak
lehen pertsonaren atzizkia adizkian	<i>-d</i> mugatzaile gabeko izen edo izen sintagmen erabilera maiztasunik handiena	palatalizatu gabeko morfema adizki alokutiboetan	instrumentaleko <i>-zaz</i> atzizkia
$ez + zV \rightarrow ezV$	aditzoinaren erabilera arras zabala		ablatiboko <i>-ti</i> aldaera
	<i>l</i> aditz morfema		

Euskal Herrian hedadura handiagoa duten beste arkaismo batzuk ere baliatzen dira bi ibarrotan nahiz ekialde zabalagoan:

Arkaismoak izen morfologian	Arkaismoak aditz morfologian	Arkaismoak sintaxian
<i>e-nor</i> egituraren aldaerak	<i>-(r)ik</i> modu atzizkia	erlatibo buruezkerrak
osagarri zuzena genitiboan agertzea	<i>-ite</i> aditz izena	atzizkirik gabeko erlatibo hutsa, baldin arkaismoa bada
hirugarren mailako <i>hek</i> erakuslea	trinkoen iraganeko <i>-e-</i> morfema	
<i>nork nahi</i> erako izenordain zehaztugabeak	hirugarren pertsona pluraleko <i>-e</i> Nork morfema	

Arestiko bi tauletako lau tasunen ordain, Ipar Euskal Herri gehienara lau berrikuntza hedatu dira: *nehor* erako izenordainak eta hirugarren pertsona pluraleko *-te* Nork morfema, Zuberoan falta direnak; aldiz, ablatiboko *-tik* nagusi da Lapurdi-Baxenabarretan, baina Zuberoan *-ti*-rekin lehia du; trinkoen iraganeko *-a* morfema ere nagusi da Lapurdi-Baxenabarretan, baina Zuberoan *-e*-ren arrastoak daude.

8.2. Hainbat berrikuntza fonikotan, anitz morfematan, egitura sintaktikoetan eta aldaera lexiko ugartan sakoneko berdintasuna dute Zuberoak eta Erronkarik, baina ez

da harritzeko gauza; intuitiboki, elkarren ondoko ibarrek hizkuntza-berdintasun maila handia izatea itxaron zitekeena da. Ordea, hain intuitiboa ez dena Zaraitzu eta Erronkari arteko hizkuntza-aldea da: Nafarroako erdigunetikako berrikuntzekiko Zaraitzu iragazkorrago izatean bilatu beharko dugu arrazoia, eta saihesturik eta bakarturik zegoen Erronkarin hainbat eta hainbat berrikuntza beregain gertatu izanean ere bai, ziur aski.

Aldaeretan, esaterako, Zaraitzuko *edoki & eduki*, Erronkarin *ekun* da eta *ükhen* Zuberoan; Zaraitzuko *gorputz*, Erronkari eta Zuberoan *k(h)orputz* da eta Zaraitzuko *anitz*, Zuberoan eta Erronkarin *(h)anitz* egiten da, baina fonikoki bada aldea Zuberoako eta Erronkariko *inventarium*-ean. Ibarrotako atal lexikoa eta aldaera lexikoak ez ditugu ikerlan honetan aztertu, baina Zuberoako eta Ipar Euskal Herriko alderdi lexikoa eta aldaera lexikoak alderatu genituen 2009ko eta 2011ko artikuluko banatan.

Ematen du Zuberoa eta Erronkari aspaldi zaharrean baterago zebiltzala azken garaian baino eta denborarekin, xiberutarrek Ipar Euskal Herriari gehiago begiratu diotela eta erronkariarrek Hegoaldeari: hasperena, kontsonante hasperenduak, [ʒ-] aldaera, *ü* fonema edo txistukari ozenak ditugu Zuberoan; Erronkarin [j-] txistukari sabaiaurrekoa eta [x] igurzukari belarra berriak dira eta baita hainbat bilakabide berezi ere, esaterako *oi - o > ei - o* aldaketa, xvi. mendearen bukaeran dagoeneko ageri dena; Aezkoan ere bada disimilazio hau, baina Zaraitzu ibarrean ez.

Saio honetako azterketaren arabera, Zuberoak eta Erronkarik 28 arkaismo partekatzen dituzte eta honezaz landa, 9 ezaugarritan Ipar Euskal Herriatik edo beren ezkerretik etorri zaizkien berrikuntzekiko iragazkaitzak izan dira; 9 tasun hauetarik, ezkerretikako berrikuntzak onetsi gabe, bi ibarretan berdinak diren 8 ezaugarri partekaturik eutsi diete. Berrikuntza partekatuak ere ugari dituzte bi ibarrek: beren eskualde horretako 17, eta hedadura handiagoa duten ekialde zabaleko beste 15: orotara 32 berrikuntza partekatzen dituzte Erronkarik eta Zuberoak. Hautu anitz ere batera dituzte, orotara 22, eskualdeko 7 eta ekialde zabalagoko 15. Emaitza hauek guztiak sintetizatzen baditugu, ikerlan honetan aztertu ditugun 140 ezaugarrietarik 91 tasunetan bi ibarrok batera ibili direla ageri da: %65 egiten du horrek, bi heren hain zuzen ere.

8.3. Eskain diezaiegun soaldi bat orain Zuberoa eta Erronkari bereizten dituzten ezaugarriei:

---

arkaismoen alderdi fonikoan 4 tasunetan Zuberoa eta Erronkari bereiz doaz; 2tan Erronkari bera gelditu da, bere gisa, Zuberoa edo Zaraitzuren kidetasunik gabe; beste 2etan Zuberoa Ipar Euskal Herriarekin batean doa

---

arkaismoen alderdi morfologikoan, berriz, 7 tasun desberdinetarik 6tan Zuberoak Ipar Euskal Herriari loturik gorde du, eta tasun 1ean Erronkarik berak bakarrik gorde du

---

berrikuntza desberdinen alderdi fonikoan Zuberoak beregaintasun nabarmena du: 9tik 6 tasunetan berak berriztatu du eta beste 3tan Ipar Euskal Herriaren ekialdearekin batean

---

berrikuntza desberdinen alderdi morfosintaktikoan oreka dago: 6 ezaugarritan Zuberoa eta Ipar Euskal Herria berriztaile dira, 3tan Zuberoa eta Ipar Euskal Herriko ekialdea eta 6tan Zuberoak bere gisa berriztatu du

---

Hautu desberdinen alderdi morfosintaktikoan ere oreka ageri da: 4 ezaugarritan Zuberoa eta Ipar Euskal Herria batera doaz, baina beste 4tan, Zuberoak bere gisako hautua egiten du, besteetarik bereiz

---

Honelako zenbaketa batek zer balio duen galde lezake norbaitek zuzen guztiz, ezaugarri guztiak ea maila berean ote dauden, ikerlana haustura definitzaile baten edo guti batzuen azterketa xehean ez ote litzatekeen oinarritu behar, alderdi fonikoak eta morfologikoak pizu bera ote duten, kronologia erlatiboak eraikitzekeo gune nagusia alderdi fonikoa ez ote den...; euskalkien historiaren ikerketa bere bidean aitzinatuxeago egon dadinean aukera hobea izanen dugu era honetako auziez jarduteko; bego oraingoz honela eta itzul gaitezen datuetara:

Zuberoa eta Erronkari bereiz dabiltzan ezaugarrien azterketatik, Zuberoari dago-kionez oreka handiko datuak ateratzen dira: 18 tasunetan Zuberoa Ipar Euskal Herriarekin batean doa, 7tan Ipar Euskal Herriko ekialdearekin, 17 ezaugarritan Zuberoak bere gisa jokatu du, ondoko eskualde edo ibarretako erabilera aintzat hartu gabe eta bestalde, 3 ezaugarritan Erronkari ibarra da bere gisa jokatu duena.

Zuberoako berrikuntzetan berezko diren 12 daude, baina horietarik 4tan bearnesaren eragina sumatu da; Ipar Euskal Herriarekin batean ere berriztatu du Zuberoak, beste 13 ezaugarritan, eta horietarik 3 bearnesaren bidez gertatu dira. Hartara, xiberutarrek darabiltzaten 25 ezaugarri berritarik 7tan bearnesa eragile izan dateke.

Erronkariko datuen gure azterketa ez da Zuberoakoena bezain sakona: xvii. mendetik honat Zuberoako euskal idazkiak daude, baina Erronkarikorik ez eta horregatik, saio hau Zuberoako ezaugarrietarik abiatuak idatzi dugu; hartara, Erronkari ibarreko hainbat berrikuntza, bertakoak baizik ez direnak eta mintzo honi nortasun eta berezitasun gaitza ematen diotenak, ez ditugu azterketara sartu; jokaera eztabaidagarria da hau, baina saio honetarako orrialde-muga bat ezarri ziguten eta horregatik, berriak eta hondarreko mendeetakoak diruditen Erronkariko hainbat ezaugarri ez ditugu aurkeztu; dena den, horregatik ez dugu Erronkari eta Zuberoako mintzoa era bateratuan aztertzekeo aukera galdu: Erronkariko berezko ezaugarri berrienei ez diegu arreta handiegirik ezarri, baina zaharrei bai, batez ere Zuberoakoekin bat datozenei.

Erakutsi denez, Erronkarik eta Zuberoak hizkuntza-batasun nabarmena dute, baina badira Zuberoako euskararen bi berezitasun zinez nabarmendu beharrak: lehena, bere gisa jokatzeko duen gaitasuna eta ohitura. Erronkariko euskaratik bereiz doan 17 kasutan ezaugarri xiberutar esklusiboez mintza gaitzke. Bigarrenik, eta dituen berezitasunak dituela, Zuberoa Ipar Euskal Herriari atxikia dela aitortu behar da: Erronkariko euskaratik bereiz jokatzen duen 6 ezaugarritan Ipar Euskal Herriko ekialdearekin doa Zuberoa, baina beste 19 tasunetan Ipar Euskal Herri guztiarekin edo zati handi batekin; bere ezaugarri bereziak ugari izanik ere, Xiberua ez dago gainerateko Ipar Euskal Herritik bereiz eta aske.

8.4. Arestian aipatu ditugun ezaugarri guztiak ikuspegi geografikotik aztertu ditugu, ezaugarriek maparen gainean harrapatzen duten kokagunea izan da gure jardunaren oinarria, baina honezaz landa, ekialdeko Euskal Herriko ezaugarrien alderdi kronologikoaz ere zerbait esatea komeni da.

Ezaugarri batzuen kronologia absolutuaren ezagutza beste ezaugarri batzuen kronologia erlatiboarekin konbinatzeko eginahala komeni da. Diakronia lantzeko alderdi fonikoa da egokiena, kronologia erlatiboak egiteko aukera ematen du, alderdi morfotaktikoak baino egokiera hobea, betiere. Hurranen lerrootan, gure ikerlanean az-



tertu diren ezaugarri ugari horien artetik, denborari buruz argia zeinek eskain dezakeen adieraztera joko dugu.

Egiazki, zail da argudiabide zirkularretan erortzeko arriskua saihestea: izan ere, joera izan dezakegu pentsatzeko Erronkari eta Zuberoa bateratzen dituzten hizkuntza-ezaugarriak zaharrak direla eta bi ibarrok bereiz ageri diren hizkuntza-tasunak, horiek berriago direla. Ordea, behin honela hasiz gero lanak ondorio automatiko eta mekanikoak eman litzake: honela jokaturik, beste azterketarik gabe, partekatzen dituztenak ezaugarri zahartzat har genitzake eta desberdinak dituztenak berritzat, ezaugarrien barne azterketa diakronikorik eta inolako nabardurarik gabe. Esate batera, adizkian lehen pertsona datiboaren morfema errepikatzen duten eta ez duten adizkiak batera agertzeak (cf. 6.1.3.6.) adieraz lezake berrikuntza ez dela zaharra, baina ezaugarri berri hau Zuberoan nahiz Erronkarin ageri da; kallesek, gainera, lehen pertsona pluralean ere pleonasmoa egiten dute.

Fonikoki nabarmena da garai batetik honat Erronkariko euskarak bere gisa jokatu duela eta ondoko Zuberoan edo Zaraitzun gauzatu ez diren franko berrikuntza egin dituela: esate batera, bokal eta diptongoetan bilakabide gaitzak jasan ditu eta oso itxura berezia eman diote mintzo honi, arras berezia edo bestelakoa bihurtu dute Erronkariko *uskara*; aldaketa kontsonantiko batzuk ere arras berexiak ditu, gainerateko euskalkiek falta dituztenak.

Nolanahi ere den, bokaletako berrikuntza batzuk Zaraitzurekin partekatu ditu: hasperenik ezak eragin bokal laburpenak eta sinkopa, esate batera. Sintaxian eta fonologian eragin erromaniko nabarmena jasan du Erronkariko mintzoak eta Euskal Herriko erdiguneko erekiko izan duen hartu-eman ez da hertsia izan: saihetsean egonik, bere gisa jokatu du usu, baina ezaugarri morfologiko batzuetan nabarmena da Erronkarik Nafarroa Garaiko euskararen eragina jasan duela: morfologiako tasun horietan Zuberoakotik bereiz jokatu du, Nafarroa Garaiari so.

Ezaugarrien garaiak jarduteko argi baino itzalgune gehiago dugu: Nor Nori aditz saileko *-za-* gabeko Zuberoako adizkiak zaharrak izan daitezke; *ü* fonema berria, anitzen ustez bearnesaren eraginez sortu dena, XIV. mendeko lekukotasunetan kokatu du Peillenek; berrikuntza gehiago ere bearnesetik etorritzat jotzen dira eta hein batez berritzat hartu beharko genituzke: *ʒ*-hots sabaiaurreko ozena, katea fonikoan ozentzen den hitz bukaerako txistukari igurzkarri lepokaria, hitz barreneko txistukari ozenak, *-la(t) büriüz* posposizioa, Lapurdi-Baxenabarretan ere baliatzen dena —Erronkarin norabide geografikoaren adieran falta zen, baina, Azkueren arabera, ibiltzen zen denboraren norabidea adierazteko—, *akabi* edo *esteki* erako aditz nagusiak; tasunok ez lukete biziki berrikuntza zaharrak izan behar.

Zenbakien sistema berriztatu izana ere ez dirudi biziki zaharra, sistema zaharreko aldaerek duela guti arte iraun dute Zuberoan; *on* > *un*, berriz, XVIII.ean nagusitu zela dio Peillenek, baina 1586an sortu Jakes Belakoaren datuetan badago. XVII. mendea da *-gerren* aldaeraren *terminus ante quem*, baina ez dakigu noiz berriztatu zen, daki-guna da *-garren-ek* ere luzaz iraun duela; XVIII. gizaldia arte ez dago *ditzan* > *detzan* analogiarik eta XIX.ekoa da *r*-ren guztizko galera; ez dirudite batere zaharrak *bh*, *dh*, *gh* hotsek, Zuberoaz kanpo euskaraz ez dira beste inon egiten; *-xek* indartu hori idazkietan ez da XX. mendea arte ageri.

Beste hainbat ezaugarri ezagutza bakan dugu: berria dirudi *bezainbat* hedatua-goa ordezkatu ez duen konparazioko *bezainbeste* partikulak, izan ere, Zuberoan bi

erak ibiltzen dira oraino eta Belapeirek ez dakar *bezainbeste*; Nor Nork aditzen sailleko *-tza-* morfema pluralgilea ere, dialektoak sorturik zeuden edo sortzen ari ziren garaikoa litzateke, euskaraz numeroa aski berankorra bada, bederen; ez dirudite zaharrrak *nahi-k* eragin alineazio berriak eta *-ten balitz* & *-ten balü* erako baldintzek: euskal aditzaren sistema aldatzen aritu den garai hurbil bati dagozkiola dirudi. Ez dakigu *den* ordinala noizkoa izan daitekeen ere.

Hurranen ezaugarri morfologikoen sorrera garaiaz neke da argitasun zehatzik eskaini ahal izatea:

- beharbada *hurak* berri analogikoaren analogiaz sortu zen *hoiak* erakuslea XVIII. mendekoa izan daiteke, baina oroit bedi Leizarragak bazerabilela; *batzak* & *batzia*k, *batak* eta *bestiak* izenordainek ere ez dute itxura arras zaharrik
- *-kila(n)* morfemak ere ez luke zaharra behar, ez dirudi *-ki* lehiakiadeari nagusitzeko aizinarik edo astirik izan duenik
- konpletiboetako *baieziz* partikulak ere berria dirudi, elipsi baten bitartez adiera aldaketa jasan balu bezala

Ezaugarri gehiago ditugu ñabardura diakronikoen eske:

- hitzak sortzen dituen Zuberoako *-ka* atzizkia
- *-z gañen*, *-tan gañen* eta *-tan barnen* posposizioak
- polaritate negatiborik gabe *ihur* darabilen egitura
- ekintzailea kasu instrumentalean agertzea
- adizlagun hanpatu errepikatu mugatuak
- “izan”-eko *nintzan* ‘nintzen’ adizki aldaera
- *zonbatenaz... hanbatenaz* egitura
- *nik düit erran* erako hurrenkera hanpatua
- perpaus modaletan eta agindu aditzen osagarrian *-tez* agertzea.

Arestiko horiek guztiak, Zuberoan badiren baina Erronkarin falta diren ezaugarriak dira eta egiazki ez dirudi hain zaharrak direnik. Besterik da, ordea, bi ibarrek partekatzen dituzten ezaugarriak oro zaharrak direla ziurtatu edo frogatu ahal izatea.

8.5. Eginkizun dagoen beste azterketa bat, eskualde zabaleko eta murriztagoetako ezaugarrien alderdi kronologikoa alderatzea da, hau da, aztertzea ea Zuberoa-Erronkarietan ibiltzen diren ezaugarri berriak zaharrago ala berriago ote diren ekialde zabalagoan ibiltzen diren ezaugarri berriak baino;<sup>151</sup> esan ohi da hedadura zabalagoak berrikuntza zaharragoak izan daitezkeela, baina eskualde baten kohesioa eta batasuna sakona denean edo erkidegoa bakarturik dagoenean, ez daiteke xuxen jakin bertako berrikuntzak —eskualdera mugatu direnak eta hedadura handirik erdietsi ez dutenak—, zenbateraino diren zaharrak ala berriak, arras zaharrak ere izan litezke; honelako kasuetan, alderdi diakronikoak ez du lotura ezaugarrien geografia hedadurarekin bakarrik, baita gizarte ezaugarriekin ere, eskualdeko hiztunen arteko batasun eta kohesio mailarekin, beren bakartasun mailarekin; izan ere, endemismo maila handiko eskualdeetan berrikuntza zaharrek eta ezaugarri zahar gordeek luzaz iraun dezakete aldatu gabe.

<sup>151</sup> Hautuekin ere berdin egin liteke, baina hartara, hautu horiek berrikuntzak direla aitortzen ari-tuko ginatke implizituki.

Saio gisa, beraz, alderatzeari ekinen diogu, ea argitasun zerbait ateratzen ahal dugun:

ekialde zabaleko berrikuntzak	ekialde zabaleko hautuak	ekialdeko berrikuntza eskusibo sistematikoak	ekialdeko hautu eskusiboak
<i>-ua &gt; -ia</i> hiatusa	<i>batetan, batetarik</i> era mugagabea	<i>i-u &gt; u-u</i> asimilazioa	<i>tx-</i> fonema ez beti adierazgarria <sup>152</sup>
agintezko aditz trinko laburrak	<i>-rat</i> norabide adlatiboak	<i>au &gt; ai</i> palatalizazioa diptongoan	lotura bokalik gabeko <i>gaian, goizan</i> adibideak
<i>-er</i> datibo plurala	<i>-n gaindi</i> posposizioa	<i>-ü</i> sudurkaria	<i>-z-</i> pluralgilea adizkiak datiboak daramanean
<i>zoin, zombait, zombat</i> izenordain analogikoak	<i>baithan</i> bizidunen inesiboak	azentuera	aditzaren etorkizuna <i>-iren &amp; -turen</i>
adizlagun hanpatu errepikatu mugatuak	<i>-(r)en(t/d)ako</i> destinatiboak	<i>hurak</i> 3. mailako erakuslea	<i>ezi</i> konparazio perpausuan
<i>-ko + -(t)z</i> atzizkia	<i>-tako</i> prolatiboak	<i>-ala &amp; -ara</i> adlatibo mugatua	<i>bait &amp; baikoz</i> denborazkoak
<i>niz, hiz, nu, gitu</i> adizki monoptongatuak	instrumentala mugaturik jokatzea	<i>-ra da rano</i> muga adlatiboak	<i>nahibada</i> kontzesiboak
hautazko datibo morfema	<i>utzi, manatu...</i> + adlatibo atzizkia	<i>gihaur, zihaur</i> izenordain analogikoak	
aditz trinkoak bakandu izana	<i>-tze, -kal, -zale</i> atzizkiak	<i>nore, ore</i> genitibo monoptongatuak	
<i>ukhan</i> aspektu marka	<i>*ezan, *iron</i> oinarriak	<i>-da- + -ta- &amp; -da- + -t</i> lehen pertsona datibo errepikatua	
zuketa alokutiboak	datiboak denbora adieraztea	iraganeko hiketako <i>-n &gt; -∅</i>	
perpaus inbertsonaletan <i>behar</i> + aditz iragankorra	<i>zerbait</i> determinatzaile zehaztugabea	<b>ekialdeko berrikuntza eskusibo ez sistematikoak</b>	
<i>-en ber</i> baldintzazkoa	korrelazioan <i>zer ere bait</i> erlatiboak	<i>-e, -i &gt; -ü</i> berranalisia	
galderazko <i>-a</i> morfema	kausazko <i>zeren</i>	<i>atxeidü, zethatxü</i> erako palatalizazioa	
zehargalderan <i>-en + -ez</i>	<i>ala</i> elkar baztertzaila	<i>r → ll</i> palatalizazio adierazgarria	
		aditz nagusietan <i>-i &gt; -e</i>	
		<i>-de</i> morfema plurala aditz iragangaitzetan <sup>153</sup>	
		<i>othe</i> partikularen extraposizioa	

<sup>152</sup> Berez ez da eskusiboa, Zaraitzun, Aezkoan eta Hego Euskal Herriko eskualde anitzetan ibiltzen da, baina Ipar Euskal Herrian Zuberoan baizik ez.

<sup>153</sup> Ipar Euskal Herriarekiko da eskusiboa, bestela ez.

Alderaketak ez digu argitasun handirik eskaini, edo gu, bederen, ez gara argi handirik ateratzeko gai izan; nolana ere den, ezaugarri morfologikoen arteko kronologia erlatiboak egitea zail da.

Ekialde zabaleko berrikuntzetan, badakigu *-ua* > *-ia* edo *-ue-* > *-ie-* palatalizazioa hondarreko mendeetakoa dela: *beytuye* ‘baitute’ Oloroeko 1706ko katiximan eta Eskiulako 1780ko idazkian dator; aditz trinkoen bakantzea XVIII. mendetik honat indartu dela dakigu; zuketa alokutiboaren garaia ere ez dugu ezagutzen: Garazi ibarretako bederen, 1545 urtea *terminus ante quem* da, ordurako guztiz gauzaturik zegoen. Ekialde zabaleko hautuez esan liteke datiboak denbora adieraztea berria izan litekeela, baina ezin ziurtasunez jakin.

Berrikuntza eskusibo sistematikoei dagokienez, badakigu Zuberoan *i-u* > *u-u* asimilazioa XIV. mendetik honat gertatu dela, toponimo eta oikonimoak gordetzailerak ziria sartu ez badigu bederen. Lehen pertsonako datibo errepikatuak ere ez dirudi hain zaharra, hondarreko hiru mendeetan aldaera errepikatuak nahiz bikoiztu gabekak batera ibili dira. Hitz bukaerako *-e*, *-i* > *-ü* berranalisiak hondarreko mendeetan ugalduta adibideak, baina Belapeireren garaian ere bazen etsenplurik.

## 9. Ondorioak

9.1. Ez dakigu xuxen zer gertatu den Euskara Batu Zaharraren garaitik honat: historiaren aldetik garai ilunak dira, argi handirik gabekoak. Lekukotasunak hasi orduko, XI. mendean Zuberoako Bizkonterria ageri da, iraupen laburrekoa izan zena. Erakunde nagusiak sortu ziren garaia lehenagokoa dugu: Iruñeko eta ondoko Nafarroako Erreina IX. mendean kokatu behar ditugu, XVI.a arte. Lekukotasunak dioskutenenez, jauntxoaren artean halako hartu-emanak zegoen Nafarroaren eta Zuberoaren artean, XII, XIII, XIV. mendeetan bederen. Bestalde, herriak hartu-emanak zeukan mugaz bi alderdietan, eta zuberotar, erronkariar eta zaraitzuar elkarren ondoan ageri zaizkigu usu, hala Ipar Euskal Herriko nola Hego Euskal Herriko larreetan, Bordeleko landak deituetan, Iratin, Belaguan edo Nafarroako Erriberan. Iduri luke ekialdeko orduko artzain euskaldun xume haien zatia Iruñea edo Lapurdiko itsasaldea urrun zeudela; hizkuntzak, bederen, ezagun du hori, eta nabarmen gainera.

9.2. Hizkuntzaz denaz bezainbatean, ezaugarri zahar anitzek bereizten dute Zuberoa ondoko mintzoetarik edo bertan luzazago iraun dute. Tasun zahar anitzetan Erronkari ere kide du Zuberoak.

Orduko Zuberoa-Erronkarietako balizko mintzo hura, orain zahartzailerak dena, Euskara Batu Zaharretik zuzenean abiatu eta bereizi ote zen, ondoko Ipar Euskal Herriko mintzo orokorretik goiztar bereizirik, ala bitarteko beste mintzo-egoera bat ere egon ote zen, hizkuntza-ezaugarri batzuen konbinazio jakin batek ekialdeko geografia zabala eratu zuena, Euskara Batu Zaharraren geroztikakoa, Ipar Euskal Herrian oraingoa baino ekialde zabala eratu zuena eta Zuberoa-Erronkari alderdiko orduko euskara ere bere barrenera bildu zuena? Zein batasun maila eduki zuen balizko multzo hark eta nolako hedadura iritsi ote zuen? Zuberoa eta Erronkari ondoko ibarretan dirauten zenbait arkaismo gorderen arrastoei, Leizarragaren zenbait ezaugarriak barne, eremu hura iradokitzen ote digute? Zein rol du honetan guztian Huesca edo Bearno alderdiko orduko euskarak? Honelako galderak genituen saio honen hasierako orrialdeetan.

Egungo zubererak eta Erronkariko mintzoak Ipar Euskal Herriarekin partekatzen dituen hedadura handiko berrikuntzak zaharrak direla —teorian hedadura handiko ezaugarriak hedadura tikiagokoak baino zaharrago izan baitaitezke— eta Zuberoa-Erronkarik partekatzen dituzten berrikuntza eskusiboak denboran hedadura handiagoko horien ondokoak direla bageneki, goiko galderari baiezko erantzuna eman geniezaioke, baina gaude ez dezakegula honelako erantzun biribilik eman; 8.5. azpiatanean egin den alderaketak ez du argirik ekarri.

Ez dakigu Zuberoa-Erronkariko mintzo berezia Euskara Batu Zaharretik zuzenean eta lehen garaian bereizi ote zen, ala Ipar Euskal Herriko ekialde zabaleko multzo handixko bat egon ote zen, Euskara Batu Zaharretik bereizi zena, eta ondortik Zuberoa-Erronkarietako ezaugarri berezi lokalagoak gauzatu eta bi ibar hauek ekialde zabalagoako multzo horretarik bereizi ote ziren. Dakiguna da, arkaismoen maila gotorrena ekialde murriztean gordetzen dela, Zuberoa-Erronkarietan, eta bi ibar hauek berrikuntza eskusibo partekatua ageri dituztela, testuak abiatu baino lehenagoko berrikuntzak.

Ekialdeko ezaugarri zahar hauetarik batzuek hedadura zabalagoa zuten iraganean eta Ipar Euskal Herrian barreiatuago zeuden orain baino, baina ez dugu uste arkaismo ipartar horiek aukera ematen digutenik, lehen garaian Ipar Euskal Herrian hedadura zabalagoa zeukan ekialdeko multzo handiago bat Euskara Batu Zaharretik zatitu edo bereizi zela postulatzeko: hau da, multzo bat, zeinetarik geroago Erdi Aro apalagoan Zuberoak eta Erronkarik aldaki berezi bat osatu baitzuten; gauzak honela izan zirela —ala ez zirela— frogatzea zail da.

Hipotesi horren arabera, orain Zuberoa-Erronkarietako eskusiboak diren arkaismoek Ipar Euskal Herriko eskualde zabalago batean ere luzaz iraun zutela frogatu beharko litzateke, aldatu edo berriztatu gabe iraun zutela, baina honelakorik frogatzea ez da aise; bestalde, Zuberoa-Erronkarik gainerateko Ipar Euskal Herrian eza gutzen ez diren berrikuntza sorta handixko bat garatu eta partekatu izanak ere ez du hipotesi hori aldeztu, baina ez du guztiz deuseztu ere, Zuberoa-Erronkarietako berrikuntza partekatu eskusiboak berriak izan bailitezke. Gaia ez dago batere argi, baina gure datuek, erabili dugun ereduak eta ikerlanari eman diogun norabideak ez digute arestikoa bezalako hipotesi bat ontzeko aukera handirik ematen; analisisia Zuberoa eta Ipar Euskal Herria lotzen eta bereizten dituzten ezaugarri zahar eta berrien arabera eginez gero, beharbada bestelako ondorioak atera litezke; ez jakin. Guk ez dugu honelako daturik sumatu eta ez gara ikuspegi horren gibeletik abiatu, baina ez genuke aukera zientifiko hau ukatu nahi ere.

9.3. Euskal herrialdeen lotura hertsia goko garai haietan, euskarak egun baino batuago iraun beharko zukeen, baina xvi. menderako Zuberoako mintzajak halako nortasuna eta berezitasuna ditu: gainerateko mintzoetarik bereizten duten hainbat berrikuntza garatu ditu. Zuberoako euskararen berezitasun hori, Euskal Herriko ekialdeko mintzo markatu hau litzateke Leizarragak xvi. mendean hain berezia zekusana, bere itzulpen kalbinistan zuberotarrentzat balio zezaketen aldaera lexiko batzuk txertatzerainoko berezia.

Nortasun berezi hau Zuberoako euskarak noiz garatu zuen zail da jakitea, hau da, Euskara Batu Zaharra izan zen garaitik honat noiztsu hasi zen gauzatzen, baina beharbada ez dagokio hain aldi zaharrari, beharbada uste dugun baino berriagoak

dira Zuberoa alderdiko hainbat eta hainbat berrikuntza, baina inolaz ere, ez da aise noizkoak diren xuxen jakitea.

Zuberoako berrikuntzez jardutean okzitaniera edo probentzalaren eta zehazki gasoinaren aldakia den bearnesaren eragina aipatu behar da: ahoskeran eta lexikoan bereziki, izenaren eta aditzaren morfologian aurrizki edo atzizki zenbait ahanzi gabe; ez dirudi atzo goizeko eragina, gainera, baina ez da zertan pentsatu bearnesetik zubero-tarrek bildu berrikuntza guztiak garai berekoak edo zahar-zaharrak direnik.

Beste hainbat berrikuntza euskararen barrenetik eratu ditu Zuberoako euskarak eta ez dagozkio ibar honi baizik, eksklusiboak dira. Bestalde, franko berrikuntza Ipar Euskal Herriko gainerateko euskaldunekin batean gauzatu dituzte xiberutarrek, hon-darreko mendeetan hartu-eman honek ez duke etenik izan.

9.4. Berrikuntza sorta bat erronkariarekin batean egin du Zuberoak (cf. 6.1). Erronkariarekin partekatzen dituzten arkaismoez gain, xiberutarrek eta kallesek berrikuntzak garatu dituzte elkarrekin eta zinez aipagarri dira; anitzek berrikuntza zahar-rak dirudite, baina ez dugu uste guzti-guztiak zaharrak direnik. Bestalde, bi ibarrek partekatzen dituzten hautuak ditugu, hein batez berrikuntza izatetik urrun ez dauden hautuak. Itxuraz, gainera, Erronkari eta Zuberoa bereizten dituzten hizkuntza-ezaugarrietarik anitz berriskoak dira, bi ibarron arteko lotura —iraganean hertsia zena— laxatzen hasi zen garaiok.

9.5. Guk datuak honela interpretatu ditugu, baina gure ikuspegi eta argudiabi-dean zirkulartasunerako halako joera edo kutsu zerbait ikus lezake norbaitek; bali-teke. Huts hori saihesteko eta gaiok argitzen hasteko, hizkuntzaren historiatic etor litezkeen kronologia erlatiboak edo euskal morfologia historikoaren nolana-hiko emaitzak onuragarri liriateke. Berebat, ulertzeko denez, dialektoen iraganaz dihardu-ten lan gehiago ere beharko liriateke.<sup>154</sup>

## Bibliografia<sup>155</sup>

- Agirre, P., 2001, «*Catechima laburra*, zubereraren ezaugarri fonologikoen lekukoa», *ASJU* 35/2, 653-787.
- Altona, P., 1988, «Axularren eta Sarako Etxeberriren hizkera», in *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskara Biltzarra*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 233-250.
- Anglade, J., 1921, *Grammaire de l'Ancien Provençal*, Klincksieck, Paris.
- Azkue, R. M., 1931, «Particularidades del dialecto roncalés», *Euskera* 12, 207-406.
- Babel, M., A. Garrett, M. J. Houser & M. Toosarvandani, 2009, «Descent and diffusion in language diversification: a study of Western Numic dialectology», University of California, Berkeley, internet.
- Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 2008, «Nafarroa Behereko euskara zaharra», *ASJU* 42/1, 101-169.
- , 2009, «Mugako hiztun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan», *FLV* 111, 153-218.

<sup>154</sup> Dialektologia historikoaren bidea hautaturik, Urtzi Reguerok oraintsu interpretazio saio arras in-terresgarria osatu du Euskal Herriko mendebaleko hizkuntza-zatiketa (2011).

<sup>155</sup> Corpora argitaratzen duten lanak & M. Toosarvandani, 2009, «Descent and diffusion in language diversification: a study of Western Numic dialectology», University of California, Berkeley, internet.

- , 2011, «Pirinioak, ekialdea eta euskal mintzoak», in A. Sagarna, J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak. Lehena eta oraina*. Iker 26, Euskaltzaindia, Bilbo, 773-822.
- Casas Torres, J. M. & A. Abascal, 1948, *Mercados geográficos y ferias de Navarra*, Nafarroako Gobernua & CSIC, Zaragoza.
- Coyos, J.-B., 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles. Une approche de l'ergativité*, L'Harmattan, Paris & Montréal.
- , 2011, «Zubereraren eta biarneraren arteko harremanez: lexiko mailegatua eta ahoskatzea-Lehen balantzeta», in A. Sagarna, J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak. Lehena eta oraina*. Iker 26, Euskaltzaindia, Bilbo, 919-949.
- Cremonesi, C., 1967, *Nozioni di grammatica storica provenzale*, Istituto Editoriale Cisalpino, Varese & Milano.
- Duhau, H., 1993, *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*, Alinea, Donibane-Lohizune.
- Elordieta, G., 2011, «Euskal azentuaren bilakaera: hipotesiak eta proposamenak», in A. Sagarna, J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak. Lehena eta oraina*. Iker 26, Euskaltzaindia, Bilbo, 989-1014.
- Epelde, I., 2003, *Larresoroko euskara*, UPV/EHUko doktoretza tesi argitaragabea.
- Estornés Lasa, B., 1983, «El dialecto roncalés en la muga de Aragón y Bearne», in *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker 2, Euskaltzaindia, Bilbo, 215-229.
- Etxeogoin, J., 2009, *Privilegios y fueros del valle y universidad de Aezkoa en el reyno de Navarra. 1169-1229-1782-2009*, Irati Bortuak Elkarte & Aezkoa Kultur Elkarte.
- Etzegorri, Ph., 2003, «Jeruntzeko üskara. Ekialdeko euskara», *FLV* 93, 247-286.
- Fernández González, J. R., 1986, *Gramática histórica provenzal*, Universidad de Oviedo.
- Fraile, I. & A. Fraile, 1996, *Oiartzungo hizkera*, Oiartzungo Udala.
- Garrett, A., 1999, «A new model of Indo-European subgrouping and dispersal», internet.
- , 2004, «Convergence in the formation of Indo-European subgroups: phylogeny and chronology», internet.
- Goulard, R., 1994, «Le Vicomté de Soule», in P. Bidart (bil.), *Le Pays de Soule*, Izpegi, Baigorri, 171-191.
- Haase, M., 1994, «Amikuzera», in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua, ASJU-ren gehigarriak* 28, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 173-187.
- Hourmat, P., 1994, «Mauléon et la Soule dans la première moitié du XIX<sup>e</sup> siècle», in P. Bidart (biltz.), *Le Pays de Soule*, Izpegi, Baigorri, 275-318.
- Iglesias, A., 2005, «Soziatiboa Bourciez-en testuetan», *Lapurdum* 10, 65-94.
- Intxauspe, E., 1979 [1858], *Le verbe basque*, Hordago, Donostia.
- Irizar, P., 2002, *Morfología del verbo auxiliar suletino*, UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- Lafitte, P., 1979 [1944], *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, Elkar, Donostia.
- Lafon, R., 1962, «Sur la voyelle ü en basque», *BSL* 57, 83-102.
- , 1965, «Contact de langues et apparition d'une nouvelle voyelle: u et ü en basque», in *Actes du X<sup>me</sup> Congrès International de Linguistique et philologie romanes (Strasbourg, 1962)*, Klincksieck, Paris, 901-909.
- Lakarra, J. A., 1986, «Bizkaiera Zaharra gainerako euskalkien artean», *ASJU* 20/3, 639-681.
- , 2008, «Vida con/y libertad: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de «Urthubiako Alhaba», *ASJU* 42/1, 83-100.
- , 2011, «Aitzineuskararen berreraiketaz: egindakoaz eta eginkizunez», in A. Sagarna, J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), *XVI. Biltzarra. Pirinioetako hizkuntzak. Lehena eta oraina*. Iker 26, Euskaltzaindia, Bilbo, 617-694.
- Larrasket, J., 1934, *Le Basque Souletin Nord-Oriental*, Maisonneuve, Paris.
- Lopez-Mugartza, J. K., 2008, *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.

- , 2011, «Aragoiera eta euskara Ansoko Toponimian eta Onomastikan Erronkariko adibideen argitan», in A. Sagarna, J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak. Lehen eta oraina*. Iker 26, Euskaltzaindia, Bilbo, 1195-1220.
- Manterola, J., 2006, «-a euskal artikulu definituaren gainean zenbait ohar», *ASJU* 40, 1-2, 651-676.
- , 2008, «Is Basque an agglutinative language? A proposal for the diachrony of nominal morphology», artxiker, 00350108.
- , 2009, «-a morfemaren erabilera (eza) ekialdeko euskaretan», artxiker, 003528004.
- Martínez, J. M., 2004, «El acento proto-vasco», *ASJU* 38/1, 135-206.
- , 2009, «The category of number in Basque I eta II», *FLV* 110, 63-98 eta 111, 249-280.
- Mitxelena, K., 1954, «La posición fonética del dialecto vasco del Roncal», *Via Domitia* 1, 123-157. Ikus orain *SHLV*, 273-297.
- , 1964a, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, Donostia. Ikus orain *SHLV*, 1-73.
- , 1977, *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- , 1978, «Miscelánea filológica vasca (I)», *FLV* 29, 205-228. Ikus orain *LH*, 363-385.
- , 1981, «Lengua común y dialectos vascos», *ASJU* 15, 289-313. Ikus orain *LH*, 35-55.
- , 1985, *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madril.
- Monteano, P. J., 2010, *La guerra de Navarra (1512-1529). Crónica de la conquista española*, Pamiela, Iruñea.
- Mounole, C., 2010, «Alineazio aldaketak euskararen diakronian», in B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*, *ASJU*-ren gehigarriak 52, UPV/EHU, Bilbo, 151-169.
- , 2011, *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*, UPV/EHUko doktoretza tesia, Vitoria-Gasteiz, 486 or.
- Oihartzabal, B., 1997, «Hiru aditz aurrizki zahar 16. mendeko testuetan», *Lapurdum* 2, 45-62.
- Oñederra, L., 2009, «Diacronía y explicación fonética», in F. Sánchez Miret (arg.), *Romanística sin complejos. Homenaje a Carmen Pensado*, Peter Lang, Berna, 47-67.
- Peillen, Tx., 1979, «Expression de la connotation ironique au niveau phonologique dans le basque de la Haute Soule», *FLV* 32, 237-241.
- , 1981, «Zuberoako Gobernu hizkuntza eta gure herri hortako euskalkiaren erdal maileguak», in *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*. Iker 1, Euskaltzaindia, Bilbo, 405-411.
- , 1984, «Zuberoako euskalkiaren, Basaburuko motaz, ohar batzu», *Euskera* 29/1, 249-254.
- , 1986b, «El castellano y lo español en la provincia de Sola o Zuberoa», *FLV* 47, 99-114.
- , 1992a, «Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk», in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*. Iker 7, Euskaltzaindia, Bilbo, 247-272.
- , 1992b, «Aintzinako zubereraren aztarna batzu», *FLV* 59, 97-117.
- , 1994, «Les langues de la Soule», in P. Bidart (biltz.), *Le Pays de Soule*, Izpegi, Baigorri, 259-274.
- , 1998, *Les Emprunts de la Langue Basque à l'occitan de Gascogne*, Uned, Madril.
- Pikabea, J., 1993, *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*, UPV/EHU & Kultura fundazioa, Donostia.
- Reguero, U., 2011, «Continuum-ak eta etenak euskararen dialektoetan», eskuizkribua.
- de Rijk, R., 1992, «“Nunc” vasconice», *ASJU* 26/3, 695-724.
- Rohlf, G., 1977 [1935], *Le gascon. Études de philologie pyrénéenne*, Max Niemeyer Verlag, Tübingen.
- Ronjat, J., 1930, *Grammaire istorique des parlers provençaux modernes*, tome I, Société des langues romanes, Montpellier.
- Salaberri Zaratiegi, P., 1996, «Toponimia eta dialektologiaren arteko harremanen inguruan: Artaxonako jabego genitiboaz eta besteaz», *FLV* 72, 223-234.
- Santazilia, E., 2007, «Lazarragaren perfektibo zaharrari lehen hurbilketa», artxiker, 00179192.



- , 2010, «Un retrato del artículo vasco en el año 1895, mediante el programa VDM», in G. Aurrekoetxea eta J. L. Ormaetxea (arg.), *Tools for linguistic variation*, UPV/EHU & ASJU, Bilbo, 175-205.
- Telmon, T., 1998, «Tavola rotonda», in G. Ruffino (arg.), *Atti del XXI Congresso Internazionale di Linguistica e Filologia Romanza*, Max Niemeyer Verlag, Tübingen, 765-806.
- Trudgill, P., 1995, «Dialect typology: isolation, social network and phonological structure», in G. R. Guy, C. Feagin, D. Schiffrin & J. Baugh (arg.), *Towards a social science of language. Papers in honor of William Labov*, volume I, Variation and change in language and society, Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 3-21.
- , 1997, «Typology and sociolinguistics: linguistic structure, social structure and explanatory comparative dialectology», *Folia Linguistica* 31/3-4, 349-360.
- , 2004, «Linguistic and social typology: the Austronesian migrations and phoneme inventories», *Linguistic Typology* 8/3, 305-320.
- Urgell, B., 2006, «Para la historia del sustantivo verbal en vasco», *ASJU* 40/1-2, 921-948.
- Zuazo, K., 1998, «Euskalkiak, gaur», *FLV* 78, 191-233.
- , 2010, *El euskera y sus dialectos*, Alberdania, Irun.

## Corpusa

- Agirre, P., 1998, «Pronus singulis diebus Dominicis clarè & distinctè immediatè post Evangelium populo legendus...», *ASJU* 37/1, 1-46.
- Arana, A., *Zaraitzuko hiztegia*, Nafarroako Gobernua & Hiria, Iruñea & Alegia.
- Artola, K., 1977, «Erronkariko uskararen azken hatsak... eino're!», *FLV* 25, 75-107.
- , 1980, «Erronkariko «uskar»ren azken hatsak... oraino're!», *FLV* 34, 49-85.
- , 1991, 2000, «Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra» (I) eta (II), *FLV* 58, 247-281. *FLV* 85, 487-512.
- , 2005, «Zaraitzua aztertzeko ekarpen berriak (9 - Espartza: ahozko testuak)», *FLV* 99, 213-264.
- Belapeire, A., 1696, *Catechima laburra, eta Jesus-Christ goure Ginco Jaunaren eçagutcia, salvatu içateco...*, Jérôme Dupoux, Paue. Ikus 1983ko Jean-Louis Davanten edizioa ere, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Bilbao, G., 1996, «Jean Mekol Garindañekoaren *Edipa* pastoralara (1793)», *ASJU* 30/1, 239-332.
- Bonaparte, L. L., 1872, *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal*, Londres.
- Camino, I. & Gómez, R., 1992, «Bonaparteren argitaratzeko irizpideez: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinak (I)», *ASJU* 26/2, 453-581.
- Ciervide, R., 1994, *Le censier gothique de Soule*, Izpegi, Baigorri.
- Davant, J.-L., 2009, *Zuberoako literaturaz. Antologia laburra*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2010, «Jesü Kristen imitazioea», in *Jesü Kristen imitazioea*, Martin Maisterren liburua-  
ren argitalpenaren aitzinsolasa, Euskaltzaindia, Bilbo, 9-37.
- Estornés Lasa, B., 1997, *Diccionario español - uskara roncalés*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Estornés Lasa, J., 1982a, «*Jesu-Kristo gore jeinaren Ebanjelio Saintiua* Pedro Prudenziio Hualde Mayo. Oraiko ortografiaz eta anotazione batzuk», *FLV* 39, 43-103.
- , 1982b, «Erronkari'ko uskaraz elestak», *FLV* 40, 461-484.
- , 1984, «Mendigatxak'k Azkue'ri kartak 1902-1916 eta Erronkari'ko uskaratik utzulpen ta goarpenak», *FLV* 43, 55-127.
- Etxeberri, J., 1981 [1669], *Manual devotioezcoa*, P. Altunaren edizioa, Mensajero, Bilbo.
- Ettxepare, B., 1980 [1545], *Linguae vasconum primitiae*, P. Altunaren edizioa, Mensajero, Bilbo.

- Gómez, R., 1991, «Erronkarierazko dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa», in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJU-ren gehigarriak 14, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 375-426.
- Haritzelhar, J., 1970, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Eichahun*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Intxauspe, E., 1991 [1856], *Jesus-Kristen Ebanjelio saintia Sen Mathiuren arauéra*, in Louis Lucien Bonaparte, *Opera omnia vasconice II*, Euskaltzaindia, Bilbo, 161-270.
- Izagirre, K., 1959, «Erronkariko euskal-ondakin batzuk», *BAP* 15, 279-314.
- , 1961, «Erronkariko euskal-ondakin batzuk (I)», *BAP* 17, 391-407.
- Lakarra, J. A., 1981, «Barrutiaren edizio kritiko baterako», *ASJU* 15, 121-156.
- , 1997, *Refranes y sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Larrasket, J., 1939, *Le basque de la Basse-Soule Orientale*, Klincksieck, Paris.
- Leizarraga, I., 1979 [1571], *Iesus Christ gure Iavnaren Testamentu Berria, Kalendrerá eta ABC, edo Christinoen Instructioneá*, Hordago, Donostia.
- Loidi, A., 1996, «Santa Catherina pastoralaren XIX. mendeko bi eskuizkribu», *ASJU* 30/2, 497-603.
- , 2004, «Antiokiako San Julianen pastorala (1770)», *ASJU* 38/1, 1-133.
- , 2009, «Klotildaren miraria *Klobis* pastoralean», *ASJU* 43, 1-2, 597-613.
- Mitxelena, K., 1964b, *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madril.
- , 1982, «Un catecismo salacenco», *FLV* 39, 21-42.
- *et alii*, 1953, «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés», *BAP* 9, 499-536.
- Oihartzabal, B., 1991, *La pastoral souletine. Édition critique de Charlemagne*, ASJU-ren gehigarriak 16, Donostia.
- Oihenart, A., 2003, *Euskal atsoitzak eta neurutzak*, Iker 15, P. Altuna eta J. A. Mujikaren edizioa, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Oihenarte, Jakes, 1971 [1848], *Kaniko eta Belxitina*, Gabriel Arestik moldaturik, Kriselu, Donostia.
- Orpustan, J. B., 1984, «Les maisons médiévales du Pays Basque de France», *BMB* 105, 121-176.
- , 1990, «Le cour de Licharre en 1337-1338», *BMB* 130, 225-240.
- , 1994, «Les noms des maisons dans la toponymie médiévale», in P. Bidart (biltz.), *Le Pays de Soule*, Izpegi, Baigorri, 193-218.
- , 2005, «Sermons basques du XVIII siècle en Pays de Cize. Euskal-pheredikuak Garazin XVIII-garren mendean (Archives de la maison Iriberría de Bascassan)», *Lapurdum* 10, 169-232.
- Padilla, M., 2011, *Kadet eta Bettiriño edo Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera*, edizio kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Pagola, R. M., I. Iribar & J. J. Iribar, 1997, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Erronkariara*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- , — & —, 1999a, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko Behe-nafarrera I & II*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- , — & —, 1999b, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Mendebaldeko Behe-nafarrera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Peillen, Tx., 1983, «Bela-ko zaldunaren zuberotar hiztegia, XVIII. mendean», *FLV* 41-42, 127-146.
- , 1985, *Animismua Zuberoan*, Haranburu editorea, Donostia.
- , 1986a, *Allande Elixagarai ligiarraren ixtoriak*, Haranburu editorea, Donostia.
- , 1991, «Andoze ibarreko leku izen nagusiak eta xeheak», *FLV* 57, 89-105.
- Pregariac Bayonaco diocezacotz*, 1991 [1651], *Ioannes d'Olce Bayonaco Iaun Aphezpicuaren manamenduz ordenatuac eta imprimiraciac*, in L.-L. Bonaparte, *Opera omnia vasconice III*: 191-215, Euskaltzaindia, Bilbo.

- de'Rijk, R., 1999, «Zuberoa Garaiko mintzaeraren eredu bat», *FLV* 80, 155-163.
- Sarasola, I., 1983, «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU* 17, 69-212.
- Satrustegi, J. M., 1987, *Euskal testu zaharrak I*, Euskaltzaindia, Iruñea.
- , 1992, «Zaraitzuko euskararen lekukoak», in *Luis Villasanteri omenaldia*, Iker 6, Euskaltzaindia, Bilbo, 459-472.
- Tartas, I., 1975 [1666], *Ontsa hiltzeko bidea*, A. Eguzkitzaren edizioa, Jakin, Arantzazu-Oñati.
- , 1987 [1666], *Ontsa hilceco bidia-ren bi leben kapituluak*, P. Altunaren edizioa, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.



# GOGOETAK EUSKAL DIALEKTOLOGIA DIAKRONIKOAZ: EUSKARA BATU ZAHARRA BERRERAIKI BEHARRAZ ETA HAREN BANAKETAREN IKERKETAZ

Joseba A. Lakarra

UPV/EHU

## Laburpena<sup>1</sup>

*Euskararen dialektologia historikoaren inguruko lanetan mugarri dugu Mitxelena-  
ren 1981eko «Lengua común y dialectos vascos». Geroztik dialekto moderno-  
en abiapuntua ez K. aurreko aitzineuskara, baizik eta K. ondoko V-VI. mende-  
tan garatutako hizkuntza batasuna genuke eta batasun horrek Barbero eta  
Vigil-ek deskribatutako eszenario historikoan luke oinarri.*

*Gure lanak bi helburu nagusi ditu: batetik Euskara Batu Zaharra linguistikoki  
definitu beharra erakustea, Mitxelena ez baitzuen egiteko hori bete. Gainetik,  
egiteko hori enparatuko tradizio linguistikoko garatuetan bezala burutu behar  
genukeela aldarrikatzea, hots, aurretiko aitzinhizkuntza estandarri buruz  
(aitzineuskara modernoari buruz) izandako berrikuntzak erabiliaz; horretarako  
aztertu dira, abiapuntu bezala, bi dozena berrikuntza fonologiko eta morfologiko.*

*Bigarren helburua hizkuntza batasun horren haustura ez behingoan (8, 12 edo  
6 dialekto garaikideren bidez) baizik eta —nonahi bezala— etengabeko zatikatzearen  
bidez, adarkatze bitarraren ondorio gisa azaldu behar dela aldarrikatu nahi izan dugu.*

---

<sup>1</sup> EJ-ren “Lingüística histórica e historia de la lengua vasca” [GIC07/89-IT-473-07 eta GIC.IT486-10] ikerketa talde kontsolidatuaren, MICIN-eko “Monumenta Linguae Vasconum (III-IV)” [= FFI2008-04516 eta FF 2012-37696] ikerketa egitasmoen eta UPV/EHU-ko UFI 11/14aren barnean kokatzen da honako lan hau. Eskerrik beroenak eman behar dizkiet argitaratzaileei, ez soilik 2011ko uztaileko hitzaldirako egindako gomitegatik baina, batez ere, testu hau jasotzeko orduan izandako eroapenagatik ere.

Lan honetako zenbait ideia eta pasarte azken bospasei urteotako lizentziatura, master eta doktorego eskoletan erabili izan dut eta baita hitzaldiren batzuetan ere (Iruñea 2008 = Lakarra 2011b, Baiona 2008 = Urgell & Lakarra 2008, Donostia 2010 = Lakarra & Mounole 2010), liburu honi dagokion Donostiako 2011ko uztailakoa baino lehen. Entzuleria guztiei eskertu nahi dizkiet beren harrera eta iruzkinak; are gehiago dut eskertzekorik era askotako laguntzagatik Celine Mounoleri. Dialektologiaz, filologiaz eta diakroniaz hainbat elkarriketako solaskide izan ditut urteetan Iñaki Camino eta Blanca Urgell: Blanca eta bion 2008ko hitzaldiko hainbat ideia errepikatzen eta zabaltzen dira hemen, atal gehienak eraldatuak eta hedatuak izan arren, erantsi ditudan gai berriez landa. Ez ditut ahaztu nahi Juanjo Larrea historialariarekin 80ko hamarkadaren amaieratik aurrera EBZ-aren alderdi historikoez noizean behin eta aukerarik bitxienetan izandako elkarriketak —ikus orain 150. oharra— eta biziki estimatzen diet Adur Larreari zenbait figura prestatu izana eta Ander Egurtzegiri laburpenarekin emandako laguntza; baita Borja Ariztimuño, Ricardo Gómez eta Urtzi Reguerori ere ia azken orduko zuzenketa eta oharrenagatik. Bi euskaltzain osori (Patxi Salaberri Zaratigiri eta Mikel Zalbideri), eskerrik beroenak nire idazkera traketsa asko hobetu duten astinaldi eta garbiketa hain zehatzengatik eta baita hainbat ohar interesgarriagatik ere. Esan gabe doa lagun eta adiskide hauek ez dutela erantzukizunik segidan eriden ahal diren era guztietako ahulezia eta akatsetan.

*Azkenik, erakutsi nahi izan dugu euskal dialektologia diakronikoa ere, ez egoera modernoan betidanikotzat ukronikoki ulertuaz, baizik eta hizkuntzak berezko duen aldakortasuna oinarritzat hartuaz aztertu behar dela, beste zeinahi ikerketa historiko eta filologiko legez.*

## Abstract

*The work on the historical dialectology of the Basque language finds its milestone in Mitxelena's «Lengua común y dialectos vascos» from 1981. Ever since, we don't consider Proto-Basque the starting point of the modern dialects but the common language (= Old Common Basque) developed in the 5th-6th centuries AD instead. This linguistic unity would be grounded on the scenario described by Barbero and Vigil.*

*Our work has two primary aims: first, we want to show the need of defining Old Common Basque linguistically, given that Mitxelena didn't fulfill this task, as well as showing the need of doing this in the wake of other developed linguistic traditions, i.e., making use of the innovations developed from the previous stage of the language, namely (Modern) Proto-Basque. To this end, two dozens of phonological and morphological innovations have been studied to get started.*

*Second, we want to state that the fragmentation of the aforementioned unity was not produced all of a sudden (by means of 8, 12 or 6 contemporary dialects), but by means of endless fragmentations due to binary branching—as elsewhere—.*

*Eventually, we want to show the need of grounding the research not in understanding the modern picture as an everlasting uchronian setting, but in the variability inherent to any language, even within Basque diachronic dialectology itself.*

## 1. Sarrera

Peut-être apparaîtra-t-il ainsi que la fixation d'une chronologie devra être la préoccupation dominante des comparatistes (Benveniste 1935: 1-2).

L'arbre généalogique n'a d'autre statut que de métaphore... L'arbre généalogique est un artefact et un modèle, susceptible d'altérations éventuelles requises par des données nouvelles (Watkins 1997 apud Bowerman & Koch 2004: 8, 6. oh.).

One aspect that can never be reconstructed by the comparative method is the internal diversity within Proto-Mongolic. Like all real languages, and like all protolanguages, Proto-Mongolic was certainly no uniform linguistic entity. It must have had some areal and social variation, part of which may survive in the synchronic material of the Modern Mongolic languages. Also, due to the distorting effect of the comparative method, it may well have had more grammatical and lexical idiosyncrasies and irregularities than can be reconstructed on the basis of the synchronic material. However, for methodological reasons we have no alternative to defining Proto-Mongolic as a maximally uniform and regular idiom, from which the actual synchronic diversity within Mongolic can be derived (Janhunen 2003b: 2).

El hecho de que los dialectos del quechua denuncien una fisonomía común transparente es el testimonio más patente de que la desmembración de la lengua madre que los “prohijo” ocurrió en tiempos relativamente no muy lejanos (Cerrón-Palmino 1987: 81).

Badira 30 urte dagoneko Mitxelenaen “Lengua común y dialectos vascos” argitaratu zenetik —ustekabeen eta miraz (aulkian ezin kabituz) entzuteko aukera izan genuen zenbaitek, irakurtzekoa baino lehen—, eta aitortu behar dut aipagarri egiten zaidala hainbat lagun soilik orain-bereon hastea artikulu horrek hizkuntzaren periodizaziorako edo dialektalizazio prozesurako duen erabateko garrantziaz ohartzen; nolahi ere den, UPV/EHU-ko Euskal Filologia Lizentziaturako “Euskararen Historia” ikasgaiaren azken 25 urteotan edo, irakurgai beharrezkoetarik izan da eta horrek, astiroegi bada ere, noizbait etekinen bat izan behar. Labur esanda, Mitxelenaen lan horrezaz geroz euskal dialekto modernoak (zeinahi ere diren) ez dira aitzineuskararen (AE) dialekto, ezta euskal tribu zaharrei legezkiekeenak ere, hori baino zortzi edo hamar bat mende geroagoko Euskara Batu Zahar (EBZ) batenak baizik, *izatekotan ere*; alabaina, ezta horrenak ez horretatikoak ere, hots, ez guztiak ezta gehienak, ikusiko dugunez. Izan ere, AE ez da EBZa, ez kronologian ez izaeran: bata berreraikitzerakoan euskararen egoerarik zaharrena bilatzen dugu; bestea egitekoan, ordea, lehen banaketa dialektalaren aurreko garairik modernoena, bakarrik. Zehaztu beharrik bada, noski, baina 8-10 mendeko etena eta —ikusiko dugunez— oraindik miatu gabe diren bilakabide nabarmenak ditugu tartean, fonologian, gramatikan zein lexikoan.

AE-ren berreraiketan eta euskararen historiaurrearen azterketan saio dialektologikoez erakutsi duten pisua urria izan da, ia hutsaren hurrengoa. Gertakari hau ez zaio zor soilik esparru bakoitzaren (edo bion) garapen eskasari: bada arrazoi objektiborik edo berezkorik dialektologiatik datu, oinarri edo bide gutxi eskuratu baitugu iragan urrunik argitzeko. Adibide nabarmenena Mitxelenaen Aro aldaketa inguruko berreraiketarako dialekto modernoetatik ateratako informazioaren ekarpen edo ekarpen-faltan izan genezake: ez da Bonaparteren euskalki guztien lekukotasunaren beharrik eta, areago dena, horietako bakar batekin emaitza bertsuak atera bide zitezkeen. Mitxelenaen AE (gure AEM[odernoak]) ia soilik fonetikoa da eta morfologian ikerketa askozaz atzeratuagoa doa, baina harentzat ere antzeko zerbait susma litekeela deritzot.

Dialekto modernoaren sailkapena AE-ren berreraiketa (1957/1961) baino 90-100 urte lehenago eginga (1863ko karta famatuetan) aurkitzen dugu, hizkuntzalaritza erromaniko, germaniko edo indoeuroparrean dakusagunaren alderantziz; sailkapen horri, gainera, balio pankronikoa aitortu izan zaio, euskararen kasuan euskalkiak aldatuko ez balira bezala, ez beren ezaugarriei, ez horien geografiari dagokienez; are gutxiago, jakina, dialekto kopurua garai batetik bestera. AE-ren berreraiketarako eta hizkuntzaren historiaurrearen ezagutzarako jokabide honek dakarrena begi-bistan dugu: dialekto moderno hutsetarik abiatuaz, historiaurreari buruz edo AE-ren inguruan ateratako edozein ondorio kutsaturik eta oinarri ahulen gainean altxatua da.

1950 aldera Mitxelenaek berpiztu eta azken hamarkadetan (*OEH* lekuko nagusi, jakina) garatu ikerketa filologikoez (*RS*, Landuccio, Lazarraga)<sup>2</sup> asko aldatu zuten euskal hizkera modernoaren iragan hurbilaz —gure testurik zaharrenak ere ez dira za-

<sup>2</sup> Pena da Fidel Altunak GZ-eko testu-bilduma oraindik ez argitaratua, Lakarra (1985) eta Patxi Altunaren (1992) lanek ezin baitute hori ordezkatu. Urtzi Reguerok ere badu lan argitaragabe bat GZeko aditzaz baina testuak eskuratzeko ekarriko luke hainbat onura. Egunotan ari da Koldo Ulibarri amaitzen B hegomendebaleko XVIII. mendearen akabuko sermoi bilduma bat —arestiko *Viva Jesus* eta 1619ko poema aberats eta kilikagariaren ondotik— eta aurki izango ahal dira, orobat, ikertzaileen eskura 1616-1617ko Z-Err-ko gutunak.

harregiak— artean genuen ikuspegia. Berrikiago, erro teoriak eta tipologia holistikoak AEM osatu beharra ekarri dute (morfologian bereziki) eta baita Mitxelena 1950-60etako eraikuntzaren irakurketa dinamikoak egiteko premia ere, dagoeneko AEZ-az eta AEM-az ikertzeraz eta AEM ondoko garaiez mintzatzeraz bultzatuaz. Garai ezberdin horietako hizkuntza ez zen ez bera, ezta bakarra ere, jakina, eta uste izatekoa da hizkuntzaren kronologiaz arduratzen direnentzat ez ezik haren geografiaz zaletuentzat ere jalgiko dela gogoeta axolazkorik.

Dakikezuenaz, ni ez naiz dialektologoa: aspaldi egin nituen inkesta urriak ere ez ziren —zuzenean eta agerian bederen— hizkerak aztertzeako asmoz eginak eta ez dut eztabaidatu honako edo harako herri edo bailaratako euskara euskalki honetako edo hartako den edo behar lukeen. Ez dut izan horretarako gaitasun ez asmorik eta gaur ere ez dut holakorik. Izatekotan, aldakortasun historikoaz (eta, beraz, testualaz eta geografikoaz) interesaturiko ikertzailea naiz, filologo legez, lehenik, eta diakronista gisa, gero. Halere, alor batean eta bestean aurkitu dut arrazoirik —hobeto esan, arrazoi horiek egin dute topo nirekin—, pentsatzeko Euskal Herrian ere dialekto kontuak ez direla soilik dialektologoenak eta on litzatekeela enparatuok ere horietaz arduratzea, zaletasunak, ustezko jabetzak eta ohiturak alde batera utziaz. Uste dut, gainera, gehiegikeria handirik gabe —are Postek (prestatzen) edozein deskribapenentarako diakroniak duen ezinbestekotasunaz arestian egin aldarrikapena baino lehen—, dialektoak hizkuntzaren bilakabide etengabearen emaitzetarik baitira, “dialektologia diakronikoa” esapidea (ia) pleonastikoa dela eta dialektologiazko ikerketak —anekdota eta azalkerietarik urrunduz azalpenak bilatzen baditugu, bederen—, diakroniaren barne-barnean direla,<sup>3</sup> ez gutziz urruti, hortaz, ni bezalakoan ohiko lanbide eta langaietarik.

Nolanahi ere, ondoko orriotan ez da zer itxaron alor txikiago edo handiagoaren arazoentzako behin betiko konponketarik; soluzio gutxi dakart, bada, galdera eta ikerketa galde ugari. Izatekotan ere, nire ustez arazoak non izan diren eta oraindik non diren markatu nahi nuke, arazoak identifikatu egin beharko baititugu konponketetara eta are konponbide hutsetara iritsiko bagara. Aitzinekoekin amaitzeko, esan dezadan hemen azaleratuko ditudan gaiak ez direla euskal dialektologiak —ezta euskal dialektologia diakronikoaren esparru itxuraz txikiagoak ere— dituen arazo gutziak eta, esan gabe doa, beste irakurtzaile batzuek (ofizioko dialektologoen, esaterako) beste asko eta bestelakoak aipatu gogo bide lituzketela. Hala biz; ez diet nik horrelakorik ukatuko ez oztoporik jarriko, baina, nik neuk argitaratzaileek eman didaten eskuaz baliatuaz, euskal dialektologia diakronikoak —edo euskararen gramatika historikoak dialektoez diharduelarik— bere lana egokiro betetzeko oinarritzko begitantzen zitzaizkidan zenbait arazo ukitu nahi izan ditut, bestek —gogoko izanez gero— noizbait nik baino urrutiago sakonago eta are jatorrago joko duen esperantzarekin.

Hara ondoren lanaren egitura:

§2.ean Mitxelena (1981a)-eko EBZ-ri [*euskaroa* deitzen du berak] buruzko teoriaren oinarriak azaltzen dira: honelako eraikuntza zergatik suposatu beharra den,

<sup>3</sup> Lan honetako hainbat puntutarako argigarri da Camino (2008); egilearen ohiko zehaztasun eta egokitasunarekin “dialektologiaren alderdi kronologikoaz han eta hemen agertu diren iritzien aurkezpen ahalik eta objektiboena ere ekarri nahi izan dugu orriotara” (209) esaten zaigu bertan. Orobat, haren azken irteerako lanetan, bereziki (Camino 2012)-n edo bertan (Camino 2013-n), bildu datu eta argudioen laguntzarekin —nik hemen ez ditut horietarik gutxi batzuk baino erabiliko—, Ekialdeko Euskara izan zela gainerakoetarik lehenik berezia askozaz garbiago iruditzen zait (cf. §5).



noiztsu kokatzen den eta zein gizarte edo historia eredu baliatu zen Mitxelena hizkuntzen historian berez gertatu ohi ez den bateraketa zuritzeko.

§3.ean aitzinhizkuntzen hausturez eta dialekto eraketaz zenbait gogoeta egin nahi izan dut, EBZ eta AE-ren arteko erlazioari horietako zenbait egokitu aurretik: §3.1.ean hizkuntza tradizio aurreratuenetan aurkitzen ditugun banaketa bitar etengabeen eta euskalaritzan kausitu banaketa moduaren (hots, modu bakar, betiereko eta betirakoaren) artean diren diferentzia nagusiak; §3.2.ean aitzinhizkuntzaren aldakortasun eta dialektalizazioaz gramatika konparatu garatuenetan izan diren hurbilketa garrantzitsuenak aurkeztu ditut; §3.3.ean Koldo Zuazoren 1998ko sailkapenean erabilitako irizpideez ohar batzuk egiten dira hurbilketa horrek dialektologia diakronikoarekiko dituen ezberdintasunak erakutsi asmoz; §3.4.ean Garrettek IE mendebaleko dialekto eraketaz egin gogoetak laburtu ditut (difusioa, dialektologia eta nazionalismoaren arteko lotura...), etorkizuneko aztergai gisa; baliteke hemen bertan ere horien izpiren bat ikustea.

§4.ean (eta halaber §5.ean) EBZaren eraketaz hainbat ohar enpiriko eta metodologiko biltzen dira: §4.1.ean Mitxelenaren EBZ-aren kritikaren ondoren —ez baitzuen eraikuntza berriaren ezinutzizko justifikazio linguistikorik aurkeztu—, ondokoetan behar hori betetzeko EBZ-ak AEM-arekiko izan zitzakeen berrikuntza zenbait dakartzagu, EBZ dialekto historikoen hurbileneko jatorri bilakatzen dutenak: §4.2.ean hitz hasierako herskariak, §4.3.ean diptongoak, §4.4. eta §4.5.ean AEM ondoko hainbat berrikuntza fonologiko eta morfologiko; §4.6.ean aditz laguntzaileak eta, atala itxiaz, erro monosilabikoa soilik AEZ-ean izan ote den eta EBZ-aren analisiak eta dialektalizazio eredu berriak azterketa horretan duten eragina eztabaidatzen da laburki (§4.7.).

§5.ean ohiko euskalkiak zatiketa bitarrera eramateak lituzkeen beste zenbait ondorio eta arazo aurkezten dugu, tartean EBZ-ren haustura ondoko lehen adarrez (§5.2.) hainbat gogoeta edota Err-ren berrikuntza larri askoren modernotasunaz datu berri ugari; atal honen izaera egokiro uler dadin, esan dezadan §5.1.en egindako zuhaitzak oro adibide metodologiko gisa egindako saio hutsak direla. §5.3.en adarkatze bitarra, isoglosa zaharrak eta aitzin-aberriaren azterketa lotzen saiatu gara, horretarako beste hizkuntza familietako paraleloak gogoratuaz (uralikoa bereziki, baina baita noiz edo noiz tania ere). Itxaron dezagun beharrezko diren ikerketa ugarien aitzinamenduak aurki zilegi egitea proposamen sendoagorik eta zehatzagorik aurkeztea.

§6.ean behin-behineko zenbait egiteko eta ondorio orokor aipatzen dira eta §7.ean erabilitako bibliografia. Amaitu baino lehen, lau Eranskin datoz (§§8.1-8.4.): §8.1.ean euskal dialektologia diakronikoaz 1981 arte izandako zenbait hurbilketa ezagun laburtzen dugu lehendabizi (Bonaparte, Lacombe, Uhlenbeck eta 1961-1964ko Mitxelena bera); ondoren (§8.2.) euskal dialektologia pankronikoak eta filologia ukronikoak dialektalizazioaren ikerketan izandako eragin gaiztoaren adibide bat eman dugu (Urkixo [eta Guerra!] *RS*-eko hizkeraren jatorriaz mintzo); eta (§8.3.) euskararen inguruan hain ugari izan diren hala-holako erkaketetan unean-uneko berreraiketarik hoberena (Mitxelenaren 1957-1961koa) erabili beharrean zeinahi hizkera edo dialekto moderno erabiltzeak —gehi ageri-ageriko arbitrariotasun puntutxoak, jakina— ekarri dituen desbideraketa eta xeblekerien adibide bat: Federiko Krutwigen quantxe-bizkaieraren “berreraiketa”; azkenik (§8.4.), etorkizunean landu beharreko alderdi batez (metodo kuantitatiboez) hitz bat erantsi da.

## 2. Mitxelena EBZ-az

Beharbada diakronia-gai guztiek gure artean duten atzerapenagatik eta baita euskararen aldagaiztasunaren mito hedatuagatik (cf., esaterako, Gorrochategui 2011), askoz gehiago dakigu —ustez bederen— euskalki modernoez, horien jatorriaz eta euskara zaharragoak horietara iristeko izandako bilakabideaz baino. Areago dena, teoriarik ez bada praktikan, oso zabaldua da direlako euskalkiok oso zaharrak eta betidanikoak bailiran jardutea, euskarak bai baina (haren zati diren) haiek —dela osagaiei, dela mugei dagokienez—, aldaketarik jasango ez balu bezala.<sup>4</sup>

Alabaina, ezagun denez, hizkuntzalaritzan *hizkuntza*, *dialekto* eta *isoglosa* berbak hartzen baditugu, soilik lehena eta azkena izan litezke absolutuak edo oinarrikoak, ez *dialekto*, hori beti izango baita beste zerbaiten (hizkuntza baten) menpeko eta beste zerbaiten (isoglosa bat edo batzuen) zordun, zerbait horren gainean eraikia baita, eta harako edo honako hizkuntzalariren irizpideen arabera eraikia, gainera:

En efecto, la existencia de los dialectos no implica la existencia de límites dialectales, así como negar estos límites no implica afirmar la no existencia de los dialectos. Los dialectos no existen *antes*, sino *después* de la comprobación de las áreas en las que se registran los fenómenos concretos del hablar; no son *cosas* sino *abstracciones*, sistemas de isoglosas que se establecen por encima de la multiformidad del habla. Y entre los dialectos puede haber, naturalmente, interferencias y características comunes; es decir, que ciertas isoglosas abarcan más de un dialecto: todo depende de las isoglosas que, por convención, se adopten como límites dialectales (Coseriu 1957: 137).<sup>5</sup>

Hemendik ateratzen da beren definizioan erabiltzen ditugun ezaugarrien arabera —eta ezaugarri horiei eman pisu eta garrantziaren arabera, jakina—, dialekto gehiago edo gutxiago eta muga hauekin edo besteekin aurkituko ditugula, eta are isoglosa berberak erabiliaz ere dialekto kopurua eta dialektoen mugak alda litezkeela eta aldatu ere egin ohi direla, sinkronian nahiz diakronian.<sup>6</sup>

Euskalaritzan, diakronisten artean bederen, aspalditik zabaldua da euskalkien arteko bereizkuntzak (Bonapartek bere mapetan islatuak, kasurako) txikiak direla oso eta, beraz, haien jatorriak ezin duela oso zaharra izan, beren baitan gordetzen duten informazioak ez baikaitu urrutiegi eramaten. Adibidez, *i-* / *u-* edo *-er-* / *-ar-* dira bokalismoan diferentzia dialektal zaharrenetarikoa (cf. Mitxelena 1981a), baina Erdiarora arte ez dugu horrelakorik aurkitzen —egia da aurreko lekukotasun ia bakarrak Akitanian ditugula— eta gainera sistema zahar oso ezberdina berreraikitzeko

<sup>4</sup> Ikus Lakarra (1986a)-n eta hemen §8.2ko Eranskinean Urkixoren hurbilketa *RS*-ren jatorria aztertzerakoan; leinuez eta euskalkiez Caro Barojak edo Irigarayk zituzten iritziak toki askotan aipatu eta bildu izan dira (Mitxelena edo Zuazoren lanetan, demagun) eta ez dut ikusi hemen errepikatu beharrik, dagoeneko ez ikerketari baizik eta honen historiografiari baitagozkio. Bestalde, Caminok (2008: 243) dioen legez, lehengo eta oraingo dialekto sailkapenetan ez da soilik euskara aldatu: hori adina aldatu dira irizpideak ere; bidenabar, hizkuntzalaritza IE-ean ditxo zabaldua da azken bi mendeotan gehien aldatu den hizkuntza (“eraberritu” dena esan behar usu) aitzin-IE dela.

<sup>5</sup> Testuko aipamena eta Coseriuren laneko beste hainbat pasarteren isla eta haren gogoetekiko kide-tasuna nabarmena da Mitxelenaren argudiaketan (1981a: 293-295). Mitxelena (1976)-n ere badira zenbait ohar dialekto banaketa aztertzeko metodologiaz; baita hemen §§3-4-5.etan ere, sistematikotasunik bilatu ez dugun arren.

<sup>6</sup> Ikus §3.4-n Garretten oharra dialekto sorreraz eta Lakarra (1986b) B eta gainerakoen arteko us-terko diferentziez.

aukerarik ez digute eskaintzen: *i-* / *u-* txandaketek ez dute bost bokal ezagunetako euskalkiek gorde ez duten ezeren lekukotasun erantsirik (§4.3); *e > a* bilakatzea dardarkari baten aurrean hain da arrunta hainbat hizkuntzatan eta hizkuntzon garai ezberdinetan —baita euskal hizkeretan ere—, non ezin balio lezakeen zatiketa dialektalari sakontasun diakroniko apartekorik aitortzeko.<sup>7</sup> Antzeko zerbait gertatzen da XVIII. mendera arte lekukotzen ez den *gintzazan*-ekin (*- ginean, zinean, zirean*), *dauz*-ekin (*- dituz, zituzan*) eta besterekin.<sup>8</sup>

Ezaugarri nagusienetan —deklinabidean,<sup>9</sup> erakusle-artikuluetan,<sup>10</sup> izen-ordainetan,<sup>11</sup> aditzean,<sup>12</sup> hitz eraketan,<sup>13</sup> hiztegian<sup>14</sup> eta fonologian<sup>15</sup>— Mitxelena (1981a: 301-304) —historikoki bata bestearengandik etengabe urruntzen kausitu arren—, beren artean hurbil dakuski dialektokoak eta, beraz, hurbil behar luke izan haien guztien iturburuak. Gainera, AE-tik ez datozen zenbait berrikuntza —ozenen bilakabideak bokalar-tean, herskariena hasieran eta bokal nahiz kontsonanteena lehen osagaiaren akabuan (fonologiari dagokionez), gehi artikulua-ren sorrera eta plural berria, morfologian— dialekto guztietan berdin edo berdintsu jazo dira (Mitxelena 1981a: 304-307).

<sup>7</sup> OEH-n *igarri*-ren aldeko ahalegin nabarmenak egiten direla badirudi ere, garbi da *igerri* aldaera zaharragoa dela: hori dioskute B-ko lekukotasun gehienek ere (Garibai eta gainerakoetarik hasiaz), etimologiaz landa. *X-berri* genuen bai hor, bai *aztertu*-n eta *ikertu*-n eta baita *igerri*-ren jatorri bera duen (< \**edun-berri*) *ulertu*-n ere; ikus Lakarra (2010b). Antzeko zerbait gertatzen da B-n *-bel*-en eratorrie-kin: *ubel, gibel, sabel*... baina *baltz* dugu forma aske bakarra.

<sup>8</sup> Mitxelena dioskunez, “De acuerdo con las convenciones universalmente aceptadas en lingüística histórica y en la comparación en concreto, no se pueden tomar en consideración para establecer relaciones interdialectales antiguos hechos cuyo carácter moderno queda de manifiesto al consultar los textos” (cf. hemen §3.3 nahiz §6 irekitzen duen aipua); hor bertan gogoratzen denez, iraganeko *z-* gorde egin dute (ez erantsi) B zaharreko *zeustan, zidim* eta antzekoek gehi Eibar-Bermeo bitartean oraintsuago gordeek eta, horrenbestez, gainerako euskalkietako kideek; honek ez du esan nahi, noski, ez 3.ekoak ez gainerako pertsona-komunztadurak “betidanikoak” direnik (cf. Trask 1977, Gomez 1994, Gomez & Sainz 1995).

<sup>9</sup> Deklinabidea edo dena delakoa, berbera da nonahi; *-rean*-en kideak mende-baletik kanpo ere badi-rla eta *-gaz* (< *-ga* + *-z* orokorrak) soziationaren aldean *-kin* ere agertzen dela diosku (1981a: 301).

<sup>10</sup> B-k ez du bereizten abs./gainerakoak 3. gradu-koan (*hura* : *har-*); aldiz, lehen mendeetan hiru erakusleak artikulatu gisa erabiltzerakoan, bat datoz guztiak (cf. Manterola 2006, 2009).

<sup>11</sup> *Neurk, zeurk*, etab. B-tik kanpo ere lekukotzen dira —batez ere orain Lazarragaren testuan (ikus Bilbao *et al.* 2010)— eta *-r-* gora behera (cf. B *nok, ak*, etab.), forma hauek berdintsu eratuak dira nonahi (1981a: 302); bidenabar, *neroni, neronek*, eta gainerakoek \**neur* eskatzen dute (Peñafloridak oraindik *neurk* darabil) eta *nihaur, zubaaurk* eta enparatuek forma berreginak edo analogikoak dirudite.

<sup>12</sup> “En el verbo no se acabaría de contar coincidencias y, cuanto más antiguos los textos, mayor sería el número de aquellas” (Mitxelena 1981a: 302-303). Horien artean denbora eta moduen sistema, forma trinko eta perifrastikoen distribuzioa, laguntzaileak, alokutiboak, *-tel-ke* atzizkiak eta *-i-* datiboko laguntzaileak aipatzen ditu; azken honen jatorriaz ikus Lakarra (2008a) eta behe-rago (§4.6) *egin/\*ezan/\*iro-z*.

<sup>13</sup> Jokabide nagusi zaharrak berberak dira, batez ere Euskal Herri osoko toponimian ageri diren *-aga, -eta, -zu* atzizkiak berariaz aipatzen dituelarik (1981a: 303; cf. Mitxelena 1971). (*h*)*eta-z* ikus Manterola (2006) eta Lakarra (2012c) eta (prest.-4, prest.-5) *-aga-z*; bidenabar, “Si consideramos la compacta distribución de los topónimos en *-aga* (...) no se puede menos de sospechar que la abundancia y la compacidad apuntan más bien a fechas relativamente recientes” eransten du berrikuntza komunez aritzean (Mitxelena 1981a: 305).

<sup>14</sup> Bere balioa urria izanagatik, hemen *a contrario* baino ez dihardu eta B eta G-ren arteko ezberdintasunak G eta ekialdekoen artekoak baino handiago ez direla defendatzen du (304).

<sup>15</sup> *I-* : *u-* txandaketa “iluna” izan bide liteke, izatekotan, B eta gainerakoeren arteko diferentzia zahar bakarra Mitxelena-ren ustez eta ez *berri > barri* edo *beltz > baltz* “arruntak” (304); ikus 7. oh. eta §4.3.

Honenbestez, AE-k —are AE-rik modernoenak, erromatarrek EH-ra iritsi aurrekoak— ez digu euskalki historikoen jatorritzat balio; izan ere, euskalariak (Vogt eta Mitxelena inork baino lehen) uste dute euskara modernoa AE-tik zuzen hel baledi —hizkuntzek berezko duten berezko aldakortasun hutsean murgildurik, alegia—, egun ez litzatekeela hizkuntza bakarra izango eta bai hizkeren arteko ulergarritasuna askozaz zailagoa eta ezberdintasunak ere arrunt larriagoak:

L'unité primitive des parlers basques ne fait aucun doute. La structure phonétique et morphologique est sensiblement la même partout, et derrière la masse énorme d'emprunts, surtout romans, on entrevoit un vocabulaire basque assez homogène. Le basque commun —l'origine commune des parlers actuels— ne doit pas être très différent de ce que ces parlers sont de nos jours (Vogt, *apud* Mitxelena 1981a: 297).

Argudioa guztiz estandarra dugu eta nonahi ditugu horren paraleloak; hara, esaterako, lan honen hasierako Cerrón-Palominoren aipua kitxuaren inguruan<sup>16</sup> edo Janhunenen ondokoa aitzin-mongolieraz:

Compared with many other Eurasian protolanguages, Proto-Mongolic is nevertheless relatively easily accessible due to the fact that the genetic relations between the Mongolic languages are even synchronically fairly transparent and, consequently, chronologically shallow (2003b: 1).<sup>17</sup>

<sup>16</sup> Orrialde horretatik bertatik atera gabe, bada gauza jakingarri haboro euskal dialektologiaren ikuspuntutik:

En el caso del quechua, el lingüista histórico se encuentra en una situación relativamente poco complicada. En efecto, en líneas generales, nadie duda en este campo sobre el parentesco entre tal o cual variedad quechua: las semejanzas formales y semánticas saltan de inmediato a la vista (...) Lo dicho en relación al carácter transparente de la identidad formal-semántica de los dialectos quechuas es cierto para los especialistas y quizás también para los pocos aficionados de buen tacto lingüístico (después de todo, el parentesco entre el sánscrito y las lenguas clásicas fue descubierto por un célebre aficionado). No ocurre lo propio, sin embargo, entre el común de la gente.

70. oharrean egile berarengandik aipatua ere ez bide zaio inori ezezagun egingo Euskal Herrian.

<sup>17</sup> Beharbada, hobeko zuen “Common Mongolic” erabili izan balu eta ez “P.M.,” baina deitura horrek “can also comprise Post-Proto-Mongolic features shared by the Mongolic languages on an areal bases” (2003b: 3) dioenez, “C.M.” hau gure “euskara komunarekin” erka genezake, hots, AE-tik edo EBZ-tik jarauntsiez gainera, beranduago modu ezberdinen bitartez —berrikuntza paraleloak ere gehi bide dakizkieke Janhunenek aipatu arealei— lortutako ezaugarrien bilduma.

“Proto-Mongolic” delakoaren garapen, kronologia eta hausturaz zera diosku Janhunenek:

Prior the time of Chinggis Khan, the speech of the ancient Mongols may be assumed to have been a conglomeration of geographically dispersed tribal idioms, including those of Naiman, the Kereit, the Mongols proper, and others. These tribal idioms seem to have been mutually intelligible, and they may therefore be classified as dialects of Late-Pre-Proto-Mongolic. However, in the absence of factual information we will never know what the actual degree of diversity was. In any case, with the victory of Chinggis Khan, intensive linguistics unification took place, and, as a result, the primary dialects were lost in favour of a more homogeneous Proto-Mongolic language. The latter, in turn, yielded a number of Post-Proto-Mongolic secondary dialects, to which the Modern Mongolic languages can be traced (2003b: 2-3).

The absolute dating of Proto-Mongolic depends on when, exactly, the linguistic unity of its speakers ended. For historical reasons it is commonly assumed that this happened only af-

Gogoeta hauek eraman zuten Mitxelena (1981a) guk “Euskara Batu Zaharra” deituko duguna proposatzera, hizkuntzaren garai berezi eta ezinutzikotzat, K. ondoko v-vi. mendeetan:

Si postulo, pues, un éuskaro, (trato de evitar confusiones molestas con protovasco<sup>18</sup> o con vasco antiguo, que podrían tener distinta definición) como base hasta cierto punto unitaria de las variedades vascas históricas que nos es dado conocer a lo largo de la historia, lo hago sólo en el supuesto de que se trataba de una *koiné*, de una lengua común que aproximó y unió una dispersión y una diversidad que habían sido mucho mayores. Luego, ¿cómo no?, esta lengua común se diferenció en variedades cada vez más divergentes, que no llegaron a constituirse en lenguas diferenciadas porque, por la continuación del contacto material entre las varias zonas dialectales, y los fenómenos de convergencia que se siguen inevitablemente de él, lo impidieron. ¿Hasta qué punto intervienen también en esto la exigüidad de espacio y de número de hablantes? (Mitxelena 1981a: 307-308).<sup>19</sup>

Labur esateko, bai AE —edo AAEEak oro, hauek ere bat baino gehiago baitira— eta bai EBZa hizkuntzaren garai ezberdinei dagozkie<sup>20</sup> eta, biak ere soilik berreraiketa bitartez eskura litezkeen arren, beren artean alde kronologiko eta metodologiko handia da: bata, AE, berariaz berreraiki litekeen garairik zaharrena dugu, eskura diren lekukotasun eta lanabesek baimentzen diguten (ahalik) urrunena; bestea, EBZ, aldiz, dialektalizazio historikoaren aitzinxeiko aldia dugu edo horrela nahi genuke, alegia, dialekto historikoak azaltzeko aukeratzen dugun lehen isoglosa sortu zenekoa, ez bost edo hamar mende lehenagokoa, AE bezala.

Mitxelena (1981a)-tik aurrerako ikerketa eredu honetan euskalki modernoak —zein ere diren— ez datoz zuzenean AE-ren zatiketarik (K. aurreko azken mendeetan) baizik eta *izatekotan* EBZ-ren zatiketarik, ia mila bat urte geroago.<sup>21</sup> Tarte

---

ter the geographical dispersal of the ancient Mongols under Chinggis Khan and his heirs, in any case not earlier than the thirteenth century. This means that the present-day differences between the Mongolic languages are likely to be the result of less than 800 years of divergent evolution (2003b: 1).

Janhunenek hor bertan segidan dioenez, hizkuntza familia honek hain denbora laburrean izan duen aldaketaren azterketarako laborategi-balioa du; are gehiago esango nuke, gure kasuan EBZ-ren eraketa eta hausturarentzat... gure artean Chinggis Khan-en parekorik izan ez bide den arren.

<sup>18</sup> Zorigaitzez, bere artikulutik atera gabe —eta are orrialde horretatik bertatik!— eriden ditzakegu nahasketa horiek: “Creo que, de acuerdo con lo que llevo expuesto, es razonable suponer que en algún momento, aún por fechar ni siquiera aproximadamente, existió algo que con todo derecho podemos llamar protovasco (...) la fuente unitaria dentro de lo posible de los dialectos vascos históricos” (307). Hara beste hau 10 orrialde gorago, testuan egin berri dugun Vogten aipuaren segidan: “O, en otras palabras, por resumir en vista de lo que sigue, a juicio de Vogt los dialectos vascos aún en nuestros días están poco diferenciados, y la coincidencia en las estructuras subyacentes (fonología, morfología, vocabulario) se debe a que proceden en común de un protovasco cuyas características más importantes casi podemos tocar con los dedos”. Ikus beherago (§4.3) diptongoei buruzko atalean.

<sup>19</sup> Azken honetaz ikus liteke *Linguistic Typology*-ko hondar urteotako Trudgill-en artikuluko baten iruruan sortutako eztabaida; badirudi iritzi nagusia kontrakoa dela (cf. Camino 2012: §6.1).

<sup>20</sup> Ikus §3.2 Petit (2007) Meid-en ideiez.

<sup>21</sup> Gero (§§3.1, 5.1-5.2) ikusiko dugun behin eta berriz gauzatutako banaketa bitarraren eta askotariko baina behin betiko bakarraren arteko eztabaidarako, interesgarri bezain argia da hurrengo pasartea: “Se puede intentar algo para fechar, en el sentido de fechar documentalmente, los dialectos vascos históricos? Como término *ante quem*, se puede asegurar con confianza que un fonema /h/, la aspiración, ya

horretan gauzatu bide zen batasun prozesua, lehenagoko bereizkuntzak ematuaz eta berrikuntza komun garrantzitsuak jasoaz. Hizkuntzek berezko dute etengabeko barne-bereizkuntza eta zatikatzea, ez bateratzea —pidginen eta kreoleen lehen garaiak direlarik salbuespen ezagun bakar— eta antzeko gertakariak ezagutzen diren hizkuntza eta garai guztietan bezala, sistemaz kanpoko indar edo gertakarien eragin zuzenen bidez baino ezin azal liteke EBZA:

Si tuvo que existir una especie de lengua común como raíz de los dialectos conocidos y si esa lengua común no está demasiado lejos de nosotros<sup>22</sup> (...) habrá que preguntarse entonces cómo llegó a constituirse. En efecto, tal hecho no pudo darse por sí mismo, ya que las lenguas no se unifican *motu proprio*, sino que son unificadas por alguien o por algo, por hombres que operan dentro de ciertas condiciones históricas (Mitzelena 1981a: 309).<sup>23</sup>

Paleolitikoa eta are neo-eneolitikoa ere [Boch-Gimpera eta Pericot-en izenak bera-riaz aipatzen ditu] zaharregizat joaz, Mitxelenak Erromatar Inperioaren erorikoaren ondotiko baldintzak ikusi zituen egokien hizkuntza bateratze horren oinarri estralinguistikoak erideteko; zehatzago,

(...) es seguro que la romanización lingüística (la latinización) en zonas éuskaras de lengua tuvo que suponer, como ya con anterioridad la indoeuropeización prelatina, una reducción drástica del area de habla vasca que, como foco de atracción de gentes inadaptadas, tuvo que recibir sobre todo en épocas de violencia y de inseguridad población de zonas separadas del núcleo central, con el inevitable *brassage* de hablantes de dialectos y de variedades muy diversas. Aquí se alude a un proceso que pudo durar hasta mediados del siglo II de nuestra era, en la cronología más corta, y bastante más, según las estimaciones más probables. Lo que se quiere subrayar es que, con intermitencias y remisiones, el sentido general de la evolución tuvo que ser el mismo: reducción del territorio y, por ello mismo, alguna concentración de la población cuya procedencia, y esto es lo más importante, no podía menos de ser diversa (Mitzelena 1981a: 311).<sup>24</sup>

---

no existe hacia el siglo X en la Navarra alta, al menos en las zonas de donde procede la documentación” (Mitzelena 1981a: 308). Gerorago zera diosku, “la isoglosa [*i- / u-* txandaketaz ari da], indicio de diversidad dialectal, ya estaba establecida por el año 1000. Lo estaba posiblemente antes, pero esto no es un hecho, sino una mera conjetura” (Mitzelena 1981a: 309).

<sup>22</sup> Cf. “El postular un vasco común relativamente próximo en el tiempo parece punto menos que necesario en el orden de la realidad y no meramente como una exigencia teórica de los métodos de reconstrucción comparativa” (Mitzelena 1981a: 310).

<sup>23</sup> Cf. “Having discussed ways in which a language may split into two, we can now consider the opposite question. Suppose that we have two languages in contact, in an equilibrium situation for a considerable time, influencing each other and borrowing back and forth. Could they conceivably merge? The answer to this question is basically ‘no’. (Under (5) in §2.1.1. I mentioned that mergers only take place when there is deliberate language engineering, which is not reported for Australia” (Dixon 2002: 41-42).

Ez dut hemen beta ez aukerarik Dixonek biologiari hizkuntzalaritzara eraman (cf. Dixon 1997, 2002) “equilibrated punctuation” delakoaz aritzeko (bada oihartzunen bat Reguero 2012-n); ikus, halere, Bower & Koch (2004), Evans (2005), Campbell (2000) eta Watkins (2001) kontrako analisi eta iritzi jakingarri batzuetarako.

<sup>24</sup> Hizkuntza bateratu horretatik kanpo gelditzen dira izendatuki (1981a: 311) Corominasen ustez (1960) Pallars eta Ribagorzan X-XI. mendera arte iraun zuen hizkera misto euskara-erromanikoa eta gu-

Barbero eta Vigil-en (1965) eredu historikoan oinarriturik —“El caos que se produjo en la Península a raíz de las invasiones bárbaras facilitó e hizo que se consolidara la independencia de los cántabros y de los vascones”, zioten—, Mitxelena uste zuen v. eta vi. mendeetan kanpoko aginteekiko loturak are laxoagoak bilakatu zirela eta barneko indar eta antolamendua sendoago, ondorioz, hizkuntzarekiko,

Lo que tuvo que crecer es el intercambio, la tendencia a una mayor unidad y centralización, con consecuencias inevitables, inmediatas o mediatas, sobre la lengua, desfavorables a la fragmentación y al aislamiento dialectal y favorables al establecimiento de formas comunes de la lengua, capaces de saltar por encima de las barreras comarcales y regionales (Mitxelena 1981a: 313).<sup>25</sup>

EBZ-ren ondorio diakroniko nagusietarik genuke *dialekto* = *leinu*<sup>26</sup> berdintasunaren ahulezia nabarmentzea: badira zenbait muga bat datozenak edo hurbil bederen Aro hasierako leinuenak eta 1863ko mapetakoak erkatuaz, Irun-Hondarribietako bardulo eta baskoiena gehi Deba eta Urola ibaien banalerroan barduluek eta karistioek omen zutena eta Bonapartek G eta GN gehi B eta G modernoan artean eza-riak batez ere. Alabaina, horietatik urrun joan gabe, badira arazo latzak ere: zer izan du ikustekorik politikoki Oñatik Bizkaiarekin han, ustez, Jaurerriko euskara hartzeko? Bestalde, Nafarroa Garaian bizkaieraz landako euskalki guztiak mintzatuko lirake, <sup>27</sup> ez soilik Hegoaldeko eta Iparraldeko GNak.

Badirudi holako azalpenak soilik euskalkien eta horien ezaugarri eta mugen betierekotasuna aldarrikatuz justifika litezkeela. Nola azal, bestela, azken mendeetako berrikuntzen arabera eraturako dialektoek —ikus §5.2 G eta Err-z, esaterako—, Bonaparteren euskalkien mugekin bat egitea? Eta nola horiek 1500 urte lehenago edo desagertutako leinuen hizkeren mugekin? Bide bakarra ikusten dut horretarako: euskara delako milurte eta erdi honetan ez asko eta ez gutxi ez aldatzea. Beharbada norbaitek noizbait esan ahalko digu, halaber, zein ezaugarri linguistiko ote zen —bat, gutxienez— duela bi mila urte eta orain bereon barduluen eta karistioen hizkerak bereizten zituen eta dituen?<sup>28</sup> Orobat, zeinek banatzen

---

netik urruti ziren enparatukoak. Josu Zugasti ari da orain horren inguruan lanean bere master tesirako; artean, cf. Salaberri (2011).

<sup>25</sup> Azken ahapaldiak ere —erretorika punttua alde batera utzirik— zatikatze bakar eta adarkatze askotarikoaren alde egiten duela dirudi:

(...) no parece aventurado pensar que fue Vizcaya la región vasca que tuvo y retuvo una personalidad más acusada, y que fue más refractaria a influencias llegadas desde Pamplona u otros centros situados fuera de su territorio. En esto, sumado al carácter lateral, se podría encontrar una explicación de esa acusada personalidad del dialecto vizcaíno que todos, y yo el primero, le reconocemos, siempre que no se trate de convertir autonomías en independencias (Mitxelena 1981a: 313).

Honen oihartzuna edo Zuazorengan (2010: 163, 192); ikus 139. oharra.

<sup>26</sup> Hitz hau erosotasunez edo ohitura (txar) hutsagatik darabilt; hertsi-hertsian, nekez onartuko lukete honelakorik historiagileek Antzinateko autoreek inguruetako jendeak sailkatzeko eman etnonimoez.

<sup>27</sup> Nafarroa “euskal animatzar” hartzeaz landa edo, ez zaio, dakidala, etekin linguistiko zehatzik atera kontu honi; ikus §5.3ko oharra.


<sup>28</sup> Iglesiasek (2009) muga dialektalak, —batez ere “iparraldeko lau dialekto historikoenak” (2009: 20-21)— substratuaren bitartez azaldu nahi ditu. Hipotesi hori, izan, ez da ezinezkoa balizko munduren batean, baina zaila da gure kasuan kontuan hartzea lan osoan zehar (1) ez delarik hizkuntza ezauga-

ote zituen orduan eta orain BN ekialdekoa eta mendebalekoa edo L eta GN, demagun?

### 3. Aitzin-hizkuntzen hausturez

#### 3.1. Banaketa bitarrak eta besteak

Blažek-ek (2007) bildu eta erkatu zituen II. Mundu Gerraz geroztiko IE hizkuntzen sailkapen garrantzitsuenak;<sup>29</sup> labur esateko, ez da hor aurkitzen Bonaparteren nahiz Zuazoren zortzi edo sei adarreko (nahiz Mitxelenaren hamabiko) eta adabegi bakarreko zuhaitzik:



1. Figura. IE-ren zuhaitza (Ringe 2006: 5)

rri edo hizkuntza bilakabide bakar bat ere aztertzen, eta (2) Koldo Zuazoren lanak eztabaidatzen direlako edo (?), haren ondorio nagusiaren —“euskalkiak Erdiarokoak dira”— oinarrian den Koldo Mitxelenaren analisi eta ondorioak berariaz saihesten eta ezkututzen baitira. Bide batez, jakinik XIX. mendearen bigarren zatian Bonapartek —eta gai hori ukitu duten guztiek egungo egunera arte— BN bitan banatzeko izan zituen zalantzak, ez dakit Iglesiassek jarraitzaile samaldarik izan lezakeen (hizkuntzalarien artean beren) ondokoa eranstean duenean ia bi mila urte lehenagoko egoeraz:

L'idée selon laquelle l'existence même des quatre dialectes historiques du Pays Basque continental ainsi que la présence de leur prolongement naturel au-delà des Pyrénées (“sous-dialectes” baztanais, aezcoan, salazarais et roncalais) résulteraient d'un phénomène de substrat, c'est-à-dire que ces dialectes reflèteraient l'existence des quatre tribus tarbelliennes de l'époque romaine dont l'existence serait attestée par l'expression *Tarbelli quatuorsignani*, aurait au moins le mérite d'apporter un début d'explication à un fractionnement dialectal à bien des égards énigmatique ou, pour le moins, d'explication malaisée (2009: 20).

Azalpena (*explication*) zerena, ordea, azalgai (linguistikoa) bakar bat ere aipatzen nahiz ukitzen ez duenean? Urrutitxo dago Andersen-ek ezarri eta edozeinek onartuko lukeen hatsarritik:


A scholar who posits a substratum to explain observed features in a given language can fairly be asked to demonstrate that the given substratum language was spoken and did possess whatever features are alleged to have entered the supposed matrix language (2003: 9).

Aurreko oharrek balio dute Banús y Aguirre (1990) jaunaren “euskara karistioa” eta “euskara barduloaren” iraupenarekiko ustekizunen aurka ere.


<sup>29</sup> Egia esan, antzeko emaitzak lortuko bide genituzke Ringeren lan ezagunetan edo McMahon & McMahon-en (2005) eskuliburu argian. Bidenabar, bada hor (7. eta 8. ataletan) glotokronologiari etekin interesgarririk ateratzeko eta lexikoaz kanpoko datuekin zuhaitzak egiten hasteko saiorik; ikus §8.4.



Antzera austronesiera,<sup>30</sup> kartveliera edo bantu familiaren zuhaitzekin ere:




2. Figura. Austronesieraren zuhaitza (Lynch, Ross & Crowley 2002: 4)




3. Figura. Kartvelieraren zuhaitza (Mitzelena 1964: 64)

<sup>30</sup> Austronesieran adarkatze bikoitzarekin arazoak (oraingoz, bederen) Taiwango hizkuntza ezezagunagoekin dituzte, baina badirudi epe motxean eta ikerketa aitzinatu ahala horiek ere modu estandarrean antolatuko direla, zuhaitzak oraindik zenbait maila gorago eginaz. Bitxi gerta dakiok norbaiti irla horretako hizkuntzak milatik gora diren Pazifiko eta Indikoko, Filipinetatik Hawaira eta Ginea Berritik Madagaskarrera bitarteko guztiak baino gorago izatea familiaren zuhaitzaren hierarkian eta, hainbatenaz, garrantzitsuago aitzin-austronesieraren berreraiketan; ik. Blusten hainbat lan, Clark (1987) eta Lynch, Ross & Crowley (2002) beste askoren artean; Ross (2009) izan liteke eguneratuena.


Bidenabar, ikerketa tradizio austronesiarra ez da axolarik gabekoa euskalarietzat dialektologia diakronikoa gogoko izan dezaketen neurrian: familia horren azterketarako ezinbesteko den *Oceanic Linguistics* aldizkariaren edozein aletan aztertzen dira horko maila ezberdinetako aitzin-hizkuntzak, honako edo harako dialekto edo hizkuntzaren kokagunea multzo labur edo zabalagoren batean, honako edo harako berrikuntzen edo arkaismoen natura edo pisua sailkapenen bat aldezteko edo aldatzeko... Egia esan, alderdi hauetan zerbait apalxeago lirudiketen arren, bada *Journal of African Languages and Linguistics* eta *International Journal of American Linguistics*-en ere gainerako kontinente horietako hizkuntza eta familiarik abiatu uriko lan interesgarri eta are eredugarririk.



4. Figura. 75 hizkuntza banturen sailkapena (Holden 2002: 796, *apud* Marten 2006: 48)




5. Figura. Iranieraren zuhaitza (*apud* Blažek 2007: 86)




6. Figura. Grekeraren zuhaitza (*apud* Blažek 2007: 88)

Hots, zenbat dialekto hainbat eten dira enborrarekiko, eta etenok inoiz ere ez dira altuera berean jazoak: beste hitzez esateko, IE hizkuntzalaritzan (eta austronesieran, semitikoan,antuan, uralikoan...) <sup>31</sup> adarkatze bikoitza aurkitzen dugu, <sup>32</sup> ez *n*-koitza, dela zortzikoitza, seikoitza edo hamabikoitza. Hemendik jarraitzen da dialektoek zeinek bere data dutela eta bik —are gutxiago gehiagok edo guztiek— ez dutela hala-beharrez ere data bera, edozein izanik delako bikote hori.


Bonaparteren (1863), Mitxelena (1961/1964) eta Zuazoren (1998)-ko sailkapenatarik atera litezkeen zuhaitzak gainerako hizkuntza familia ongi aztertutakoekin erka genitza, diferentziak lehen begi-kolpean ikusiko genituzke:



7.a. Figura. Bonaparte (1863)



7.b. Figura. Mitxelena (1961, 1964)



7.c. Figura. Zuazo (1998)

IE-n (eta bere azpi-familieta), uralikoan,antuan, austronesieran nahiz kartvelieran adarkatzea etengabea da (ez behin betikoa) eta bitarra, euskararen bakar eta zortzikoitz, hamabikoitz edo seikoitzaren aurrean. Hots, idealki bederen, ezaugarri

<sup>31</sup> Azken honetaz ikus §5.3.ko Juha Janhunen aipuko eskema argia.

<sup>32</sup> Cf. "hizkuntzalaritza historikoan hizkuntzaren banaketa dialektotan postulatu denean, banaketa kronologikoak era bitarrean eratzten baitira, esan nahi baita dialektoak ez direla denak garai berean leherkari nuklear baten edo Big Bang-aren antzera paraleloki sortzen, su artifizialeko sonbrilen tankean, sintaxiko arbolen zatiketa bitarren moduan baizik: dena den, honelako aferei Euskal Dialektologia diakronikoa aitzinatua egotean ekin beharko zaie, gai hauetaz ikerketa espezifikoak etor daitezenean" (Camino 2008: 221). Hala biz, jakina.

garrantzitsu baten aurrean —edo, gutxiagotan, ezaugarri multzo bakar baten aitzinean—<sup>33</sup> bi taldetan bereizi ohi dira direlako hizkera guztiak: A hizkuntza edo hizkera, delako *a* aldaketa hori jaso edo jasan dutenak eta B hizkuntza edo hizkera, *a* ez dutenak. Ezaugarri hori(ek) berrikuntza(k) d(ir)elarik, esan ohi da hori(ek) d(ir)ela bide “A hizkuntza / hizkera berezi egin da B aitzinhizkuntza edo familiatik”.

Euskararen kasuan (gainerakoetan gertatzen denaren aurka), badirudi adarkatze horietako kideak behingoz definituak gelditu zirela 1863an —geroztik ez da funtsean gauza handirik aldatu—, modernoki dituzten ezaugarri eta mugetan oinarriturik, eta ez dela ageri prozesua bera, egoera moderno horretara iristeko jazo diren bilakabideen bitartez. Halaber, —eta honek duen larritasuna begibistakoa da hizkuntza historialariarentzat— IE, austronesio, uraliko, kartveliko nahiz gainerakoetan ikusi ohi dugunaren aurka, euskalkiek adin bera lukete, guztien gailurrean jarritako EBZren amaierakoa (VIII-IX?, XI-XII?),<sup>34</sup> noski.<sup>35</sup>

Nabarmena da honelako hurbilketa baten desegokitasuna, isoglosek ez soilik hedadura baizik datak ere ezberdinak baitituzte, halabeharrez eta ezin, inola ere data eta hedadura bera izan B-ren, G-ren, GN-ren... definizioetan sartzen diren (sar ditzakegun) guztiak. Hizkuntzaren sistematik atera eta hizkuntzaren geografia moldatzen duten eszenario historiko, ekonomiko edo kulturaletara bagoaz ere, zaila da onartzen EBZ-tik momentu berean 8-12-6... dialekto sortzea, gainerako familietan —askoz ere lurralde zabalagoetan, bidenabar— une jakin batean bi baino egiten ez direnean (cf. Garrett §3.4an). Hori bai, euskararena baino historia ezagunagoko familia horietan beste-bi-eta-beste-bi... amairik gabe jarraituaz doaz zatiketak, —hizkuntzalariak banaketa horietarik gutxi batzuei kasu egin nahi edo ahal izan arren—, euskalariak behinolako bakar harekin aserik edo gelditzen direlarik.<sup>36</sup>

Orain arte esandakora bagoaz, bi dialektok (ezta bi euskalki ere), halabeharrez ere ezin du data bera izan, askozaz zailago euskalki guztiak, edozein dela ere hartzen dugun sailkapena; zehazki, soilik adabegi beretik atera eta eskaileraren maila berean

<sup>33</sup> Interesgarriak dira Caminoren “koherentzia geolinguistikoari” buruzko oharra (2008: 238 eta 2012: *passim*). Bestalde, gogora Campbellen iruzkinak (1998: 166-176) berrikuntzen pisu ezberdinaz —berrikuntza paralelo edo askeen ezdeustasunaz, esaterako— eta baita zehazki sailkapenak duen berberrikuntzaren menpekotasunaz; ikus, orobat, Crowley (1996: 164-168).

<sup>34</sup> Bi data hauek nik esplizitatuak dira; bata Mitxelenak eskatuari legokioke, “lehen lekukotasunak baino lehen” (cf. §1); Zuazok euskalkiak “Erdiarokoak” direla, errepikatu du hainbat tokitan (2007)-ko hitzaldiaz geroz. Orain (ikus §5) Araba eta Bizkaia gainerako lurraldeetarik lehen urrundutat ditu baina ez du zehaztasun linguistikorik aurkezten horren froga gisa.

<sup>35</sup> Arazo larria da hau hizkuntza historialariarentzat baina ez honentzat soilik, baizik eta baita dialektologo eta soziolinguistentzat ere, dialekto eraketak gizarte egituraren nolanhiko aldaketa edo berrikuntzaren zerikusia duen neurrian.

<sup>36</sup> Banaketa bitarra ez da dialekto zatikatze hutsari (eta bakarrik horri) dagokion ikuspegi partikularren bat, edozeinek ikus lezakeen bezala, binarismoarekin lotura zuzena baitu, haren aplikazio huts (baina ez simplea!) delarik, azken batean. Gogora Caminoren ahapaldia 32. oharrean. Arrazoen osoa du, noski, Heggarty-k (2005: 45 eta *passim*) dioelarik gure helburua ez dela zuhaitzak marraztea edo adarkatze bitar ederrenak eraikitzea, eta horrenbestez «no es la simplicidad analítica, sino la fidelidad a la historia real, nuestra meta en la lingüística» ondorio gisa dakarrenean. Alabaina, hortik ez da jarraitzen zuhaitzak eta adarkatze bitarrak berez txarrak direnik edota ikerketa diakronikoetako tradizio aurreratuenetan horiek utzi eta «continuum dialektalak» hobestera doazenean ere; baliteke, bestalde, hau askoz nabarmenago agertzea —Heggartyk berak aitortu bezala— lexikoaren azterketatik fonetikarenera igarotzean. Ikus Post-en bi aipuak (146. oharrean eta 10. Figuraren iruzkinean) zuhaitzen natura eta ulerpen egokiaz.

diren bik lukete data bera, data hori bata eta bestea sortzen dituen aldaketarena baita.<sup>37</sup> Euskalaritzan erabili ohi diren dialekto sailkapen horietarik kanpora utzi ohi da, ordea, diakronia, gainerako familietan adarkatze bikoitzaren bitartez dialektologiak eta diakroniak beren lanaren egiteko nagusitzat hartu dutelarik ezaugarrien garapenaren azterketa, aldaketan hurrenkera eta banaketa dialektalak lotuaz. Aitzitik, gure artean izan ez den jokamolde horrek ekarri ohi ditu aurrerapenak, bai datazio absolutuetan, bai (bereziki) erlatiboetan eta baita hizkuntza aldaketaren eta gizarte aldaketaren arteko erlazioaren ikerketan ere (cf. Childs 2010, esaterako), honen hizkuntzazko oinarrirei dagokienez, behintzat.<sup>38</sup>

Goian IE, austronesiera, uraliko, kartveliera eta enparatuekin ikusiak euskal dialektologiaren usadio zabalduenetarik aski urruti dirudi; haatik, iruditzen zait ez ginatekeela galduan aterako diakronistak tradizio garatuagoetako ohiturak hemen ere zabal balitez: gure iraganari buruzko ustekizun eta lilura zenbait ezabatzeaz landa, historiaurrearen berreraiketarako lanabes finduagoak erdietsiko bide genituzke, batez ere Meilletek (eta Mitxelenak) hainbatetan eskatzen zuten *philologie de précision* harekin elkarlanean arituaz (ikus Lakarra 1997a, 1997b).<sup>39</sup>

### 3.2. Aitzin-hizkuntzaren aldakortasunaz eta dialektalizazioaz

“Archaïsme et innovation dans les langues indo-européennes” deritzon artikulu biki-kainean, Daniel Petit-ek (2007) hizkuntza indoeuroparren ikerketan arkaismoen eta berrikuntzen azterketaz izan diren hiru hurbilketa nagusi ditu aipagai: a) genealogikoa, “Schleicher-Leskien” deritzona, b) geografikoa, eta c) kronologikoa, “Meid-ena”. Ustez bigarrena ezagunago delarik, gainerako biak nahi nituzke aurkeztu laburki, ez baitut uste euskalaritzan arrunt ezagun eta erabiliak diren, jakinaren gainean eta beren-beregi, bederen.<sup>40</sup>

Lehendabiziko hurbilketa, usukoa eta hedatuena oraindik ere diakronisten artean, hitz gutxitan zirriborra liteke, nahiz gero bere aplikazioak arazo franko dituela ezagun

<sup>37</sup> Beraz, eta badaezpada, zuhaitzetan adar ezberdinetan maila hierarkiko berean direnek ere ez dute adin bera eta inoiz gerta liteke maila hierarkiko oso ezberdineko atal diferenteetakoak kronologikoki hurbilago izatea zein bere adarretakoetarik baino.

<sup>38</sup> Zuhaitzek (bitarrak izan nahiz ez izan) ezin dituzte bildu bateratze fenomenoak (Mitxelena 1976-z landa, cf., esaterako, Dimmendaal 2011: 69-70); horrek ez du ukatzen beren egokitasuna eta are lehentasuna eredu gisa (cf., hor bertan, 276-280 orr.). Hemen 109. oh. eta §5.3-ren hasieran.

<sup>39</sup> “Dialektologo hutsak” berek ikusiko dute zer egin nahi duten, jakina. Alabaina, gainerako tradizio garatuetaoak hemen zergatik balio ez duen justifikatzea euri dagokie eta ez alderantziz.

Bestalde, Meilletengan ez zen filologiaren eta berreraiketaren arteko kontrakotasunik eta konparaketaren esparrua ez zen historiaurrea soilera mugatzen eta bai edozein hizkuntza egoeratan hedatzen, historia—lekukotasunez hornitutako hizkuntza garaia, alegia—, barne sartzen delarik. Hortaz, pasarte famatuan ez dio euskarak ez duela historiarik *soilik* zerekin erka ez duelako eta horrelakorik aurkitu bitartean. Hobe esan, hori “lehen lekukotasunetatik xx. mendera aldaketa esanguratsurik” ez dela euskaraz izan esan ondoren ateratzen du ondorio gisa. “Protasi” hori (egiazko den nahiz ez den) ahaztuak dakar, ene ustez, Meilleten ideiak konparaketaz eta berreraiketaz zuzen ez ulertu izana gure artean (cf. Chambon 2007). Bide nabar, egile honek erakusten duenez, erromanistika ez da eredugarri gertatzen euskal gramatika historiakoarentzat, baina liburu horretan bertan bada hainbat eredu erabilgarri IE familatik landa ere.

<sup>40</sup> Caminoren dialektologiaren alderdi kronologikoari buruzko lanean (2008: 214hh) bada Leskien aipurik eta baita berrikuntzen nagusigoari buruzko hainbat ohar zuhur ere; gogora lan honen 3. oharrean bildutako haren asmoak.

izan Leskienek berak XIX. mendearen akaburantz aldarrikapena egin zuenetik: hizkuntza ahaidetuak edo dialektoak taldeka ez dira komunean dutenagatik hartzen —usuenik, aitzin-hizkuntzatik datorrenagatik, alegia— baizik eta batzuk (baina ez enparatuek) jatorriko egoeraz geroztik hartu dituzten ezaugarriengatik. Hortaz, berrikuntzak izango dira ikergai nagusi, hautapenen eta arkaismoen kaltetan. Alabaina, aski goiz —Meilletek 1908rako, argiro egiten ditu bereizkuntza horiek— ikasiko dute ikertzaileek berrikuntza guztiak ez dutela pisu bera: berrikuntza bera bi dialektotan izatetik ez da beti jarraitu ahal noizbait izan dela *X* aitzinhizkuntza, zeinetarik bi dialekto horiek atera diren eta ez gainerako guztiak. Horrela litzateke soilik berrikuntza komuna dela erabakitzen balitz, baina sarritan gertatzen da garapen paraleloak, askeak, izatea bai bata bestetik hurbil, bai urruti, diren dialekto zein hizkuntza ahaideen artean.<sup>41</sup>

Are gehiago, Meilletek hiru murriztapen eransten dizkio Leskien hatsarriari: “*contrainte d’antiquité*”, “*contrainte de singularité*”, “*contrainte de proximité*”. Horien artean lehena bide da garrantzitsuena: sailkapeneterako, aitzinhizkuntzak dira kontuan hartzen direnak eta ez duela lau milurteko historikoki lekukotutako hizkuntzak eta dialektoak; indoiranioa, demagun, ez da berreraikitzen hindi modernoa eta kurduera erkatuaz, ezta duela hiru bat mila urtetako sanskritoa eta avestikoa alderatuaz ere, aitzin-indioa eta aitzin-iranioaren gainean baizik. Euskararen kasuan, ikustekoa litzateke zer AE modu berreraikiko genukeen, demagun, XXI. mendeko Altzürükü eta Arratzuko euskara soiletan oinarriturik, eta ez (gutxienez) B zaharrean eta Z zaharrean edo, hobeki, aitzin-B-n eta aitzin-Z-n.

Bakantasunaren irizpideak, gainera, behar du frogatu delako ezaugarri komunak ez direla arruntegiak eta, horrenbestez, ezin direla halabehar hutsez azaldu;<sup>42</sup> azkenik, beharrezkoa da hurbiltasuna momentu egokian izatea, berrikuntzak dialektoen edo hizkuntzen artean garapen paralelotzat, asketzat, hartu ez daitezten.<sup>43</sup>

Geroztik, beste muga eta oztupo asko jarri izan zaizkio Leskien hatsarriari:

1. Berrikuntza positiboan, negatiboan (= galeren) eta eraldaketen artean, lehen sailekoek eta azkenekoek dute pisua, baina ez bigarrenek, horrelakoetan halabehararen (→ garapen askearen) aukera % 50ekoa baita. Adibidez, GN-k /h/a x. menderako galtzea berrikuntza dugu, bai, baina horregatik ez digu asko balio dialekto hori gainerakoetarik bereizteko; gorde edo galdu, aukerak % 50ean baitziren; are, gutxiago, *h*-gabeko aldameneko erromantzearen eraginez izan bada galera,<sup>44</sup> Mitxelenak iradoki bezala.

<sup>41</sup> Hau ehunka urteko diferentziak dituzten familia bereko hizkuntzetan gerta liteke, “deribaz” ere inoiz hitz egin izan delarik honelako kasuetan; cf. LaPolla (1992, 1994) tibeto-burma familiako zenbait kasuz eta Fortescue (2006) Ameriketako hizkuntza batez (wakashan).

<sup>42</sup> Meilletentzat —arrazoi osoz— erkaketan beti halabeharra zen arrisku eta are etsai nagusi (cf. 1925, *passim* eta beste hainbat lan); hortik lat. *duo*: arm. *erku* ezagunak bezalako kognatu antzik gabezi emandako garrantzi erabatekoa, begi-kolpe hutsez ustez nornahik antzeman litzakeenen gainetik; hau da De Lamberterie-k (1998) “la loi Meillet” deitu duena. Hots, Mitxelenak usu errepikatu bezala, *homologiak* dira axolazko diakronian, ez *analogiak*.

<sup>43</sup> Meilletek, bestalde, berrikuntza / arkaismo erabakitzeko garatu eta famatu zuen erregularitasun / irregularitasun irizpidea ere; euskarazko adibide batzuetarako ikus Mitxelena (1963) eta (1964).

<sup>44</sup> Cf. “[In evaluating features] they may represent an innovation diffused into both languages from a source external to both; this situation is also not of any use in establishing a subgroup” (Bowern & Koch 2004: 10).

2. Ezaugarrien naturari dagokiona: lexikoak ez du asko balio dialektoak bereizteko, oso aldakorra eta mailegaeraza baita. Bestalde, definizioz, hitz bat aitzinhizkuntzan *ez* dela izan frogatzea ia ezinezko da eta, beraz, baita segurtasunik izatea ere hori geroztiko berrikuntza dela esateko.
3. Lekukotasunen natura: oso garai diferenteetako lekukotasunak dira hizkuntzetan eta hizkuntza familietan eta, beraz, horien balioa ere ezberdina da aitzinhizkuntzaren eredu gisa. Adibidez, guztiz nahasgarri litzateke K. aurreko II. milurteko anatolikoaren edo grekeraren berrikuntzak eta soilik K. ondoko xv-xvi. mende lituanieraren edo albanieraren lekukotasunetakoak erkatzea:

Pour évaluer correctement les innovations de chaque groupe linguistique, il faudrait pouvoir fixer l'image des langues indo-européennes à une époque identique pour toutes les langues, idéalement à l'époque de leur différenciation initiale, mais notre documentation ne nous permet pas de le faire avec précision (Petit 2007: 25).

Gure kasuan lekukotasunak oso asimetrikoak dira, dakigunez: xvi. mendean baditugu B-n, A-n, L-n eta BN-n, xvii.ean (hasieran) GN-an eta (amaieran) Z-an, xviii.ean G-n (luzera batekoak, bederen) eta xix-aren bigarren zatian Err-en. Gainetik, xvi. mendearen akabuko RS-en euskara beren ohiko datak baino mende bat edo mende eta erdi lehenagoko bide da, orobat Bela, Zalgize edo Oihenarten erretra bildumetakoak.<sup>45</sup> Beraz, B-ko eremu bateko (mendebalde muturreko) euskarak 500 urtetik gorako historia du, zerbait gutxiago Z-ek, G-ko eremu askotakoak 200-300 ingurukoa eta Err-koek 150ekoa. Honi gehitu behar zaio barneko eten zenbait: BN-ekialdekoa 1545ean lekukotzen da, bai, baina gero bi mende eta erdian (Lopezganaino) ia berriro ageri gabe; aurki, antzeko zerbait esan ahalko da Err-ri buruz, 1616ko gutunak erabilgarri bilakatzean (ikus Bilbao *et al.*, prestatzen).<sup>46</sup> Gertakari hauek ez ote dute izango edo izan beharko, bederen, inongo eraginik —alde batera zein bestera— euskal dialektologia diakronikoan? (cf. Camino 2012: 5).<sup>47</sup>

4. Hurbiltasuna: bi hizkuntza edo dialekto aitzinhizkuntza partikular beretik badatoz, noizbait bata bestearen aldamenen zeuden. Hori frogatu ezin bada, berrikuntza paraleloak bide dira.<sup>48</sup>

<sup>45</sup> Bada honen erakusgarriak Céline Mounoleren 2011ko tesian lekukotasun horietako aditzaren azterketan; cf. Lakarra (1996c), (1997a) eta Lakarra & Mounole (2012).

<sup>46</sup> Ez naiz ahanzten Garibairen eta Isastiren bildumez (ikus Lakarra 1996c) baina horietan —Garibairenetan, bereziki— arkaismo gutxiago aurkitu uste dut. “Bretañaiko Kantorea” bere egituragatik ez eze bere hizkuntzagatik *ere* (egitura eta metrika-eza landa) nabarmena iruditu zait beti (cf. Lakarra, Urgell & Biguri 1983: I, 31), ezin izan litekeela xv. mendearen akabuan sortu eta mende bat geroago paperean jasoa.

<sup>47</sup> Cf. Schmidt (1992) aurkikuntza berrien eraginaz aitzin-IE-ren eta horren barneko azpifamilien berreraiketan. Gure kasuan zaila da ikusten zein aurkikuntzak eragin duen AE-ren berreraiketan aspaldiko Luchaireren akitaniera eta Erdiaroko lekukotasunenaz geroz: RS-ren aurkikuntza xix. mendearen akabuan, Landucciaren hiztegiarenak xx.aren erdialdean eta Lazarragaren eskuizkribuarenak xxi.aren hasieran izan dute aparteko eraginik Mendebaleko euskara zaharraren eta, beharbada, EBZ-ren berreraiketan.

<sup>48</sup> Irizpide hau, bidenabar, ez dakit zergatik ezin aplikatu dakiekeen urruneko mailegutza edo “antzekotasun indeterminatuen” azterketei. Ikus, adibidez argi baterako, Trask (1996) aipatu hawaierazko eta greziera zaharreko formen antzekotasunak; de Hozek (2005, 2009, 2010-11, 2011) arrazoi badu iberierak ama-hizkuntza bezala betetako lurraldeaz (Alacant eta Valentziaren zati bat, ez gehiago) antzeko zerbait esan ahal da euskarazko eta iberierazko paralelismoez ere; ikus Lakarra (2010a) eta abian diren (2012d-e).



5. Datu atomistak: usu, ezaugarri solteetan bat etortzea lehenetsi ohi da, sistema osoaren erkaketa gaineratuz. Zer zentzu luke, esaterako, *beste* dutelako biek, Z eta B bateratzeak? Hasteko, ez dira bakarrak (hor dira Err zati bat, A eta G, gehi Luzaide bederen) —gaineratik, Z-k badu enparaturik— eta, batez ere, beren fonologia eta morfologia, geografiaren logika jarraikiz, enparaturiko edozein dialektorenak baino urrutiago dira —arkaismoak baztertu ditugunean, bederen— eta inori ez zaio bururatu, dakidanez, noizbait B eta Z mugaide izan direnik. Zer pisu du, beraz, aipatu anekdota horrek?<sup>49</sup>
6. Ez dira ezberdintasun eta dibergentziak kontuan hartzen berdintasun eta konbergentzia hutsak baizik.
7. Berrikuntza hutsetan oinarritua da sailkapena; alabaina, Watkinsek erakutsi zuen lan klasiko batean inoiz arkaismo zenbait gordetzeak dialekto edo hizkuntza batzuek gainerakoan aurrean duten nortasuna erakutsi lezakeela: “If two languages agree in maintaining the productivity of a given structural feature, rather than replacing it by something else, we may well have in this retention a primary dialectal datum” (*apud* Petit 2007: 27). Egia da Watkinsek hatsarri honek bere indarra kasu mugatuetan gordetzen duela, funtsean dialekto gehienek berrikuntza negatibo bat egin dutenean eta gutxi batzuek hori gorde; arkaismo garrantzitsua litzateke gutxi horiek lotzeko. Horrela dirudi, esaterako, euskaraz /l/ eta /n/ ondoko ahoskabea ahoskuntza: nafarreraz hasi eta mendebalerantz, berrikuntza hori gauzatu da ohiko ikuspegiarekin, ez aldiz, zubereraz eta erronkarieraz; gorde omen duten arkaismo honek gainerakoan aurrean nolabaiteko —oso aspaldiko— batasun bat erakutsiko luke (cf., ordea, §5.2 Mitxelenak aurkeztu zuen azalpen alternatiboaren garapenerako; orain Z eta Err berritzaileak izanik beren arteko lotura are sendoagoa da).

Meidek “denbora-espaziokoa” deitu ereduaren bitartez aurreko hurbilketen zenbait akats saihestu nahi izan zuen,<sup>50</sup> aitzinhizkuntzak (berarentzat IE) benetako hizkuntza gisa ikertuaz. Hots, metodo konparatuak, halabeharrez, aitzinhizkuntzei ematen dien itxura bakar eta bateratuari aitzina, Meidek aitzinhizkuntza horren heterogeneotasuna nahi du plazaratu hasieratik bertatik. Izan ere, premia hori aspaldidanik ezaguna den arren konparatisten artean, ez da behar bezala gauzatu ikertzailen lanean eta Meidek, urrats bat aitzina emanaz, praktikara eraman nahi izan ditu gogoeta edo analisi teoriko horiek. Aitzin-IEak, edozein hizkuntza naturalek legez, hiru eratako ezaugarri linguistikoak izan bide zituen: 1) norma linguistikoari dagozkionak, 2) arkaismoak eta 3) berrikuntzak. Meiden ustez, hizkuntza historikoen arteko ezberdintasun nagusiak hiru sail horietako ezaugarriek hizkuntza jakin batean izan duten konbinaketan bilakabideei zorko litzazkioke: batek (H<sub>1</sub>) arkaismoak eta normari dagozkionak galdu eta berrikuntzak garatu ditu; besteak (H<sub>2</sub>) bai normare-

<sup>49</sup> Bidenabar, esan dezadan *beste* B eta Err-Z-n ageri delarik eta *ber(t)ze* erdi aldean “muturretako irizpidearen” euskarazko salbuespenik ezagunenetakoa dugula, ez baita ikusten nolatan lehena izan litekeen bigarrena baino zaharrago. Alabaina, ez bide da horrelakorik: \**ber-tz-te* batetik abiatuaz eta tarteko \**berzte*-tik bi emaitza ezberdin onartuaz (\**berste* / *berze*, cf. *guzti* > *guzi*); ez da, beraz ez euskal fonetikan ez neolinguisten irizpide horren aurkako ezer.

<sup>50</sup> Espainian inoiz antzeko ideiak —baina ez horren landuak, dakidanez—, aurkeztu izan ditu Adrados-ek, eta are aldarrikatu ere du bere lehentasuna Meidekiko (ik. 1987: 37, 398, etab.).

nak eta bai berrikuntzak gorde, arkaismoak galduaz; hirugarrenak ( $H_3$ ) arkaismoak eta norma galdu eta berrikuntzak gorde eta garatu eta azken batek ( $H_4$ ) bai arkaismoak, normak zein berrikuntzak gorde.<sup>51</sup>

Adibide ulerterraz baterako, har dezagun *nork*-aditz irrealak laguntzaileen banaketa historikoa, batetik, eta B, L eta Z dialektoak —zaharrak eta modernoak, hauen lekukotasunetan aukera baita, zorionez— bestetik; xehetasun gehiago hurrengo baterako utzia, ondoko taula ateratzen zaigu:

	BZ	BM	LZ	LM	ZZ	ZM
(1) <i>*ero</i>	-	-	+	-	+	+
(2) <i>*ezan</i>	+	-	+	+	+	+
(3) <i>egin</i>	+	+	-	-	-	-

Dialekto horietan gertatu ezaugarri konbinazioak ondokoak liriateke:

BZ	BM	LZ	LM	ZZ	ZM
2/3	3	1/2	2	1/2	1/2

Hots, Meiden irakurketa diakronikoa honelatsu bide litzateke: BZ-ak EBZ-ren norma eta berrikuntza hartu du eta BM berrikuntza hutsarekin gelditu da, norma galduaz; LZ-k EBZ-ren arkaismo zein norma hartu du, baina LM-k arkaismoa utzi du, norma hutsa gordeaz; ZZ-k eta ZM-k, azkenik, gorde egin dituzte EBZ-tik hartutako arkaismo eta norma.<sup>52</sup>

Aurrekoa osatuaz, Meidek hurbilketari kronologia eransten dio: hizkuntzen ezberdintasunaren arrazoi nagusietako bat horietako bakoitza aitzinhizkuntzatik momentu ezberdinetan banatzea da; izan ere, Meidentzat banaketa guztiak bitarrak dira eta, horrenbestez, hizkuntza bakoitza IE-tik berezi denean honek eraketa ezberdina luke (hots, norma, arkaismo eta berrikuntza konbinazio ezberdinak) une bakoitzean. Esaterako, A bereiztean aitzinhizkuntzan joera berritzailea zen *x*, beranduago aitzinhizkuntzatik B urruntzean, *x* norma bilakatua zen; C-k bereiztean berarekin eraman zuen *y* arkaismoa D enparatuatarik urrundu zenean ez zuen dagoeneko holakorik aitzinhizkuntzak eta, beraz, ezin hark jaso; E-n normatzat hartu zen *w* geroztik banatutako F-n arkaismo gisa jasoko da... Horrenbestez, delako fenomeno bat hizkuntza bakoitzak zein une eta egoeratan hartu duen ikertu beharra dago eta horrela hizkuntza familiaren hierarkia eta kronologia lortu.

Berriro ere *nork*-aditzetako laguntzaile irrealen adibidera jo bageneza eta haren irakurketa diakronikoa egin, ondoko hurrenkera diakronikoa aterako litzaziguke:

<sup>51</sup> Petitek markatu legez, bi eratakoak falta dira Meiden sailkapenean:  $H_5$ , arkaismoak baino gorde ez dituen eta  $H_6$ , arkaismoak eta berrikuntzak baino gorde ez dituen, norma galduaz; izan ere, egiantza gutxieneko konbinaketak dira eurok.

<sup>52</sup> Ikus §4.6ko zenbait ahapalditan antzeko analisi bat datiboko laguntzaileez. Badaezpada ere, ezaugarri hauei buruz baino ez naiz ari eta ez delako dialekto horien “izaeraz”, ez baitakit hori zer den, zehatz aztertu eta pisatu ezaugarri banakaren joerez landa. Kasu hau hartu badut —testuan beheraxeago ikus litekeenez— “hauu” erlatiboki anekdotikoak “berrikuntza” esanguratsu eta emankorren kate bilaka ditza-kegulako izan da, Meiden ereduarekin besterekin baino hobeto, beharbada.

1. *\*elon* [> *\*iro*] aditzaren gramatikalizazioa laguntzaile moduan (orokorra),
2. *ra-* aurrizkiaren [< *\*elo(n)*] gramatikalizazioa (orokorra),
3. *\*ezan* aditzaren gramatikalizazioa laguntzaile moduan (orokorra),
4. *\*ero(n)* laguntzailearen galera (Mendebaleko eta Erdialdeko euskararen berrikuntza),
5. *egin* aditzaren gramatikalizazioa laguntzaile gisa (Mendebaleko euskararen berrikuntza),
6. *\*ezan* laguntzailearen galera (B-ko eta A-G-ko hizkera batzuen berrikuntza).<sup>53</sup>

Ikertzaileek Meiden ereduak abantaila handia zuela ikusi dute, IE-ri bere barne-tiko heterogeneotasuna aitortzen baitzaio (norma, arkaismo eta joera berritzaileekin) eta usuenik, berreraiketan ahantzi egin ohi den sakontasun kronologikoa ere analisia-ren muin-muinean kokatzen baitu.

### 3.3. Zuazoren sailkapena eta dialektologia diakronikoa

1998ko euskalki sailkapenean jarraitu nahi zituen irizpideak hasiera-hasieratik garbitu zituen Koldo Zuazok, benetan eskertzekoa dena alde guztietarik:<sup>54</sup> berak “berrikuntzak (edo berrikuntza izan daitezkeenak)” berezi eta “alde batera” utzi zituen arkaismoak (1998: 192).<sup>55</sup> Bestalde, erabilitako ezaugarri kopurua (108), Bonaparterena (74, Zuazoren kontuen arabera) baino % 50 zabalagoa eta askozak koherentea-go dugu, Printzeak denetariko ezaugarriak (arkaismo, berrikuntza, hautapen) hartu baitzituen bere mapen oinarri.

Zuazoren hainbat ondorio, dela euskalki kopuruaz —sei, bost dagoeneko, azken hiztun zaraitzuarrak desagertu ondoren—, dela euskalkien egitura orokorraz —Mendebalde [B + A + Goierri] – Erdialde – Ekialde [Z + Err + Zar]— eta, orobat, beste hainbat puntuz (eremu bakoitzaren ezaugarri definitzaileez, guztia-aren buru), hain ezagun dira euskal gauzetan zaletuen artean non ez den hemen errepikatzeko premia gorririk.

Esan beharrekoak ahal bezain labur eta garbi esateko, bi gauza ditut Zuazoren saio horretaz (eta horri lotutako ondoko urteetakoez) adierazteko: bata, lan erral-

<sup>53</sup> Badirudi zenbait hautu berrikuntza bilakatzea egingarri dela, historia ezaguneko hizkuntzetan usu gertatu bezala (cf. Camino 2008: 228): “Eginkizun dagoen beste azterketa bat, ekialde zabaleko eta murrizagoetako ezaugarrien alderdi kronologikoa alderatzea da, hau da, aztertzea ea Zuberoa-Erronkarietan ibiltzen diren ezaugarri berriak zaharrago ala berriago ote diren ekialde zabalagoan ibiltzen diren ezaugarri berriak baino”. Eta oharrean erantsirik, “Hautuekin ere berdin egin liteke, baina hartara, hautu horiek berrikuntzak direla aitortzen arikuko ginatke inplizituki” (Camino 2012: §8.5). Cf. aurreko oharra.

<sup>54</sup> Bonaparterekin alderatuaz, esaterako; Mitxelena eta bestek usu markatu bezala, Printzearen irizpideak han-hor-hemen bildu beharra dago (cf. Elordui 1994).

Mitxelena berari dagokionez (cf. *FHV, Sobre el pasado*), aski diferentea da bere irizpideen aldetiko berrikuntzei dagokionez —Aez, Zar eta Arabako euskara gehitzen ditu, Azkuek dagoeneko gehitu Err-en gainetik— eta enparatuez; hauetan Bonaparteren zordun izanik, printzeaz esandakoa aplikatu bide dakioko hari ere.

<sup>55</sup> Cf. “This notion of subgroup relies on genetic relatedness and common innovation; however, there are subgrouping models which are defined not by innovation but by the common presence or absence of certain features. Such a model —Bonaparterena, demagun— is *phenetic*, that is, it relies on common features but not common inheritance. Crucially, cladistic linguistic classification relies on reconstruction and the relative chronology of those reconstructed changes, whereas phenetic classification simply relies on relative difference or similarity” (Bowern & Koch 2004: 3).

doi, eredugarri eta baliagarria dela guztiontzat hainbat aldetatik eta, bestea, ez naizela ados oinarrietan, hots, irizpideetan. Nago —baina hau argi eta erabaki bezate dialektologo eta hizkuntzalari sinkronikoek— ezin deskriba litekeela egokiro hizkuntza/dialekto baten egoera sinkronikoa berrikuntza hutsen bidez, hautapenak eta arkaismoak alde batera utziaz, delako hizkera hori zenbait ezaugarri hautaturen gehiketa bailitzan hartuaz eta ez sistema oso bat. Are gehiago, sinkronian bertan ere, edozein elementuk ez du berdin balio, ezta berrikuntzen artean ere, are berrikuntza bereizleen *Sancta Sanctorum*-az mintzo; gutxiago diakronian, jakina, aurreko ataletan ikusi dugunez. Watkinsek aspaldi (1966) esana utzi zuen horrelako ikuspegi bat zaharkitua —estrukturalismo aurrekoa— dela.<sup>56</sup> Baina hasieran bertan esan dudanez, ni ez naiz dialektologoa edota ez bederen dialektologo sinkronikoa; beude, beraz, arrazoketa hauek horretan aditu direnentzat.

Nire ezadostasunak pisuren bat badu, nagusia —eta ez neure burutazio hutsen bati zor zaiona, dagoeneko ikusia daramagunetik datorkeena baizik— alderdi diakronikoan datza: zalantzarik gabe, gauzak ez dira horrela egiten hizkuntzalaritza molde honetan, eta ezin uka dialektalizazioa —“euskalkien jatorria” zein beste edozerena— alor horren arduen artean sartzen dela. Hemen, hasteko, sailkapenak bitarrak izan ohi dira (ahal delarik, bederen), binarismoa baita oinarri hizkuntzalaritzan, nonahi eta zernahitan. Baina —eta hau gure artean izango da berri, izatekotan, ez ofizioko diakronisten artean— berrikuntza guztiek ez dute pisu bera, horiek oro *gehietan* arkaismoek eta hautapenek baino pisu gehiago izan arren. Hots, berrikuntza zaharrenek dute pisu larriena; azken buruan delako berrikuntza zahar batek du pisu guztia, *hori* izan baita *X*-dialekto edo *X*-hizkuntza *-X*-etik bereizi duena  $b_2$ ,  $b_3$ ,... eta  $b_n$ -k eten hori are ebaki nabarmenago bilakatu baino lehen (cf. Bowern & Koch 2004, §5.2ean).<sup>57</sup>

Isoglosa bakoitzak bere geografia eta historia propioa baditu, nekez etorriko dira bi bat, eta are gutxiago dozena bat edo hamar dozena: hizkuntzalariek edo filologoak erabaki (eta azaldu) beharra du ezinbestean zeri lotzen zaion eta zergatik, baina hau edozein historialariren jardunaren betidaniko patu latza baino ez da.

Aurrekoak aipatu ondoren, ezin amai nitzake gogoeta hauek gogoratu gabe arkaismo komunek —are dialekto bakar baten arkaismoek ere— izan dezaketen garrantzia dialekto edo hizkera jakin baten nortasuna sendotzeko orduan; alabaina, ohar bedi garrantzi hori *postfactum* dela, ez dialekto-sortzaile lanetan, izan ere lanbide horretan ez baita berrikuntzak —berrikuntza zaharrenak, berriro ere diot— ordezka litzakeen ezer.<sup>58</sup>

<sup>56</sup> Hitzuntentzat ere gauzak horrelatsu bide dira: gure *aittite* Gregoriorientzat “Meatarrak” (= Mendatakoen erara euskaraz mintzo zirenak) *astua* esaten zutenak ziren eta Mungia aldekoak *arean bere* ziotenak; Arrazutik begiratura —han *astoa* esaten da eta aspaldian ez da *arean* (*bere*)-rik— batean berrikuntza jakin bat —ez guzti-guztiak eta maila berean— baina bestean arkaismo bat ziren ezaugarri bereizleak.

<sup>57</sup> Honak ez du kentzen delako ezaugarri hori gero galtzea, aldatzea edo beste dialekto batzuetara hedatzea eta dialekto bat bere izaera berezia eman dion ezaugarriaz gabetzea eta desagertzea ere. Hau guztia ez da harrigarri dialektoak (hizkuntzak bezala) betidanikoak eta betirakoak ez direla onartzen dugunontzat. Ikus §5.3-ko oharra zuhaitzetako marra bertikalen eta gainerakoen arteko errotiko ezberdintsunaz.

<sup>58</sup> Cf. “Lo que precede tendría mayor valor si, cosa que no ha ocurrido en realidad, la evolución de los dialectos vascos hubiera tenido lugar en espacios inconexos, después de su separación geográfica (...) Pero, tal como se han dado las cosas entre nosotros, las coincidencias, y esto es algo más que mera sospecha, están lejos de proceder todas de una herencia común. Bien al contrario, sabemos o creemos saber por indicios internos o externos a la lengua, que en buena parte son la consecuencia de *innovaciones compartidas por todos los dialectos*, vizcaíno incluido” (Mitzelena 1981a: 304-5).

### 3.4. Garrett dialekto eraketaz

Dialektoen arteko bereizkuntza garbiak izateko horiek erabiltzen dituzten jendeen arteko eten espazial nabarmenak dira beharrezko, noski; ez dirudi, ordea, horrelakorik izan denik, salbuespenak salbuespen, euskaldun taldeen artean.<sup>59</sup> Harrigarri ere bada, horrenbestez, difusio fenomenoaz eta euskalkien arteko mailegutza prozesuez eskura dugun baino berri eta xehetasun gehiago ez izana.<sup>60</sup>

Andrew Garrettek (1999) hego-mendebaleko indoeuropar hizkuntzak aztertzean ohar gogoangarriak egin dizkio IE familiaren banaketa irudikatzen duen zuhaitzari eta hark familia horren inguruan egindako gogoetak —*mutatis mutandis*— baliagarriak izan litezke gurean ere.

Lehenik eta behin, Garrettek zera galdetzen dio bere buruari, zenbait sailkapenetan zergatik diren hainbat adar primario: Garrettek markatzen duenez —Traskek (1996: 369) bere eskuliburuan legez, bidenabar—, ez da sinesteko inongo gertakari historiko soilek —ezta inongo aldaketa linguistikok ere, gehi genezake— delako hizkuntza egoera batu bat dozena bat edo dozena eta erdi hizkuntzatan (edo 6, 8, 12 euskalkitan) behingoz zatitzea.

Bestalde, grekera, zeltikoa eta italikoa oinarri hartuaz, Garrettek erakutsi du inoiz argudia litekeela aitzinhizkuntza batetik datozkeen hizkuntzek (edo dialekto batetiko

---

Petitek dioskunez dialektoak sortu ziren momentuan behar genituzke erkatu, hau gehienetan ezi-nezko edo oso zail gertatu arren:

Pour évaluer correctement les innovations de chaque groupe linguistique, il faudrait pouvoir fixer l'image des langues indo-européennes à une époque identique pour toutes les langues, idéalement à l'époque de leur différenciation initiale, mais notre documentation ne nous permet pas de le faire avec précision. (2007: 25)

Hurbilketa hau Caminok (2008: 223) “aktualista” deitutakoen erabat kontrakoa da, noski. Interesgarria da Heggartyren ondoko gogoeta soilik dialektologia modernotik —edo batez ere hortik— abiatutako diakroniaz:

Siempre que el análisis se enfoque únicamente en variedades supérstites de una familia lingüística se corre el riesgo de falsear la realidad histórica de la misma. Europa ha vivido en los últimos siglos un proceso similar de extinción de variedades intermedias, aunque en este caso principalmente por un proceso de estandarización en torno a una variedad de mayor prestigio social. Si comparamos únicamente las lenguas estándar que a este proceso supervivieron, nos quedamos con árboles engañosamente sencillos, compuestos de lenguas netamente distintas, para familias como la romance, la germánica y la eslava. Más bien, en cada caso la verdadera historia fue una de muy lenta y duradera fragmentación en inmensos continuos dialectales desde sus inicios hasta la muy tardía aparición de los estados nacionales (2005: 50).

*Mutatis mutandis*, Lakarra (1986b)-n erakusten da euskaraz izandako antzeko fenomenoa literatur hizkerekin eta hortik sortu den zenbait dialektoren arteko (B eta G-ren, bereziki) urruntasunaren lilura.

<sup>59</sup> Beti ere Ameriketako eta lehenago Sibiliako edo beste EH-tik kanpoko taldeen kasuak alde batera utziaz; orobat Corominasen (1960; ikus orain Salaberri 2011) toponimia azterketen bidez ezagutzen ditugun Erdiaroko Pirineotako euskaldun multzoak.

<sup>60</sup> Ez dut horien artean kokatzen Azkuek eta bestek aipatu izan dituzten aditz-laguntzaileen “salerosketak” (cf. §4.6). Hemen ere gogotan izatekoak lirateke mailegutza hierarkiak eta badirudi lekukotasun idatziak hor ez balira ere, marka gramatikalak mailegatu orduko aurretiaz lexikoan eta bestelakoetan zor handiak beharko litzuketela egin beren artean euskalkiek. Alabaina, izan, bada horrelakoen arrastoren bat edo beste: esaterako, zuberera zaharrean *eitzi* lekutzen da (Bela, Zalgize) —B-ko *itxi* < *etxi* < \**eitzi*-ren pareko— baina *ützi* dugu soilik beranduago. Z-ren lege fonetikoek lehendabizikoa dutenez jatorizat han, ez bigarrena, *ützi* beranduago beste euskalkiren batetik hartutakotzat jo behar genuke.

hizkerrek) ez dituztela betetzen ezaugarri definitzaileak; hots, aitzinhizkuntzaren berrikuntza bereizleak ez direla agertzen haren ondoko hizkeretan, behar lukeen bezala. Gainetik, egile honen ustez, delako dialekto greko, italiko edo zeltiko batek hasieran ez zuen gero grekeratzat, italikotzat edo zeltikotzat sailkatuko zen enparatuko edozeinek in beste taldeko zeinahirekin baino lotura gehiago:

What is crucial in this model is that at some early date — say, at the beginning of the second millennium BCE — the dialects that were to become Celtic, or Italic, or Greek, shared no properties that distinguished them uniquely from the other dialects. The point is not simply that innovations could spread from one Indo-European branch to another: this is well known. The point is that while there was linguistic differentiation, the differentiation *among* dialects that were to become Celtic, for example, was no more or less than between *any* pair of dialects. At this time, there was no such thing as Celtic or Italic or Greek (Garrett 1999: 6).

Haren ustez, zeltikoa, grekoa eta italikoa *gero* osatu dira eta ez du, bada, inongo zentzurik galdetzeak IE batasunetik zein bide eta noiz egin duten inoiz izan ez diren (edota etorkian izan ez diren) herri zeltiko, greziar edo italikoek:

I am not rejecting the Stammbaum model in favor of the wave model, and I am not saying that Proto-Indo-European was a dialect continuum, or that Indo-European is the result of convergence, or anything along those lines. What I am saying is this: there is no clear evidence for a historical — that is to say, in the technical sense of the term, a genetic — Celtic or Italic or Greek subgroup of Indo-European. These do not correspond to nodes of an Indo-European Stammbaum. On the contrary, sometime in the third or second millennium BCE, the Indo-European dialects of western and southern Europe formed a continuum. (...) But there is no reason to assume that the ancestors of the later Celtic or Italic languages, or of the Greek dialects, shared any exclusive set of innovations defining them as distinct subgroups of Indo-European (Garrett 1999: 6-7).

Indoeuropar familiak omen lituzkeen dozenatik gora adarrak (baina cf. §3.1) “is nothing more than a historical mirage”, bada, eta hori azaltzeko lehen aipatu batearzte eta hedadura berankorrez landa, hara Garrettek adarkatze anitz eta bakarraren gehi dialekto historikoen betierekotasunaren ziotzat dakarkiguna:

It is a truism that the discovery of Indo-European and the foundation of the academic field of linguistics were substantially fuelled by nationalism. I suggest that the nationalist ideologies lurking behind our field refract the same sociological forces that shaped its object of study. Our conception of Indo-European emerged from the analysis of national literatures and cultural traditions, and the canonical branches of the family emerged through the creation of national identities. On the view of Indo-European dialectology I have sketched, the existence of Greek is a by-product of the formation of what we may call Greek national identity. Through a series of mutual linguistic influences, this facilitated the dialectological coalescence of the set of Indo-European dialects we now call Greek. The ironic point, if I am right, is that the supraregionalizing force underlying the study of Indo-European is at the same time responsible for obscuring the true nature of its family tree (Garrett 1999: 7).<sup>61</sup>

<sup>61</sup> Ez da ahaztekoa ondokoa ere: “This approach to the Indo-European dialectology should not change the practice of historical reconstruction and analysis, but it does have several virtues apart from any purely evidentiary justification” (ibidem). Zeltikoari buruz —beste askoren artean—, ikus Sims-Williams (1998a) eta baita haren (1998b) eta (2012)-ko hainbat ohar interesgarri.

Ikerketa monografiko eta patxadazkorik merezi lukete Garretten iradokizunok euskal dialektologia sinkronikoan eta diakronikoan izan ahal duten paralelismoez eta azaldu ahalko lituzketen hainbat fenomeno bitxi “gure-gureez”. Ikustekoa litzateke, demagun, zerk bultzatuko gintuzkeen Goierriko euskara edo Urolakoa XIII. mendean gipuzkeratzen hartzera, Hernani eta ekialdeagokoarekin, eta ez Hegomendebaldekotzat edo Araba-iparraldekotzat, Araia eta Oñati aldekoarekin, hurrenez hurren; ba ote gipuzkerarik XVIII. mendera arte? Lapurterak ba ote du (eta noizdanik edo noiz arte?) hizkuntzazko nortasunik (cf. §5.1-n amaierako oharrak)?<sup>62</sup>... Halaber, XIX. mendearen erdi alderantz egiten den Espainiako lurralde (“provincia”) antolaketak ez ote du zerikusirik Bonaparteren sailkapenarekin, dialekto izenatarik abiatuaz?<sup>63</sup>

Geroago Sabino Aranek sei nazio euskotarrak, zein bere hizkuntzarekin (= “euskalkiarekin”) aldarrikatzen ditu, bai iraganeko eta baita etorkizuneko Euzkadirentzat:

Lo que procede, en mi opinión, es componer dentro de cada región euskariana que haya sido antes estado autónomo y se halle en la posibilidad de volver a serlo algún día, un dialecto general, formado con los elementos menos alejados de las formas orgánicas, esparcidas aquí y allá, en los diferentes subdialectos (...) y que ese dialecto así elaborado no sea patrimonio exclusivo de la literatura y la clase elevada de la sociedad, sino *habla que abatiendo y matando las formas usuales desechadas, llegase a generalizarse en el país y a ser común de doctos e ignorantes* (...) De esta suerte tendríamos un solo Euskera Guipuzkoano, un solo Euskera Nabarro, un solo Euskera Bizkaino, etc., viniendo a realizarse en la esfera lingüística la fórmula que en política tiene tantos y tan decididos partidarios, la variedad en la unidad, que correspondería exactamente a la que hubiese de regir en este último orden (*Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*, 822).

Hurrengo orrialdean antzera:

Lo razonable es, pues, que dentro del Euskera se construyan, por de pronto, tantos dialectos como regiones hay dentro de Euskaria que han sido políticamente distintas en la historia, y que cada uno de esos dialectos se forme con los elementos gramaticales y lexicológicos más puros que hoy se encuentren esparcidos en los diferentes subdialectos y variedades de la respectiva región (*Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*, 823).

Lehen aipuan etzanak neureak dira; esan behar ote dut hitz horiek gutxitan ikusi ditudala iruzkinduak —inoiz bai?—, euskalarien artean ere, aranazale zein aranafoboez landa.

Beude hauek guztiok hurrengo baterako egitekotzat; hori bai, *entia non sunt procrastinanda praeter necessitatem*. Bati gogoak ematen dio galdetzeko ea nondik eta nolatan izan duten desagertu eta ia 2000 urtetara horrelako indarrik euskal (?) leinu zaharrek —edota inoiz autonomo izan ez diren eskualde euskotarrek— XIX-XX. mendeetako dialektoak sortzeko (cf. 28 oh.).

<sup>62</sup> Zuazok (1998) ere ez du ia kausitzen lapurteraren ezaugarri propioirik (hots, berrikuntzarik haren irizpideetan); alabaina, hau ez da aski BN-ren barruan sartzeko, beste nonbait markatu bezala, ezaugarri (= berrikuntza bereizle) aski baitu BN-k L-tik bereizteko; ikus orain Camino (2013). Gaietik, eta diodan bidenabar, “trantsizio hizkera” edo “continuumak” ez dira ezeren azalpen (diakroniko, bederen), historia ezezagun edo aztertugabe baten ondorio baizik (cf. Reguero argitaragabea-2).

<sup>63</sup> Cf. “...L. L. Bonaparte con su apriorismo de dar denominaciones derivadas de divisiones administrativas modernas a las antiquísimas hablas vascuences...” (Banús y Aguirre 1990: 331).

#### 4. Gogoetak EBZ-aren eraketaz, egituraz eta hausturaz

##### 4.1. Zenbat aitzinhizkuntza? Euskara Batu Zaharraren beharraz<sup>64</sup>

Ikusi dugunez, Mitxelenak eta haren ondotik euskalari gehienok bi aldarrikapen egin ditugu EBZ-ren inguruan:

1. euskalkiak ez datozela aitzineuskaratik (Aro aurreko azken mendeetarik), bai-zik eta Aroko v-vi. mendeko aitzinhizkuntza baten zatiketarik eta
2. bigarren aitzinhizkuntza hau lehenagoko euskal hizkera ezberdin eta sakabatuagoen bateraketa prozesuaren ondorioz sortu zela eta, horrenbestez, sistemaz kanpoko indar bateratzaile horiek gizarte egoera apropos baten ondorio direla.

Dakidalarik, orain arteko ikerketak ez du (2)-ren alderdi linguistikoaren aldeko frogarik erakutsi —beharbada bilatu ere ez dituelako egin edo, bilatu baditu, trebe izan ez delako... lekukotasunek ere asko laguntzen ez dutelako...—, eta Mitxelenak ere ez zituen eman, beharrezko ere iruditzen ez bide zitzaizkioke:

*Puesto que el postular un vasco común relativamente próximo en el tiempo parece punto menos que necesario en el orden de la realidad y no meramente como una exigencia teórica de los métodos de la reconstrucción comparativa, tenemos que pensar en las causas que llevaron a ella: no se olvide que una lengua común supone el sacrificio por extinción de los dialectos a favor de alguno de ellos. Como, por otra parte, la unificación lingüística suele ser resultado (y factor) de cohesión social, cabe muy bien pensar que un proceso de concentración sociopolítico precedió y acompañó a la nivelación dialectal (1983: 310; [etzana neurea: JAL]).*<sup>65</sup>

Hots, 301-306 orrialdeetan Mitxelenak euskalki historikoez komunean dituzten funtsezko eta hizkuntzaren alderdi orotako hainbat ezaugarri (deklinabidea, erakusleak, izenordainak, aditza, hitz eraketa morfologian, ozenen tratamendua fonologian...) erakutsi zituen eta, horrenbestez, Vogtekin, euskalkiak jatorri berekoak zirela eta horien iturburua lehen lekukotasunetarik hurbil datekeela ondorioztatu, bestela beren arteko hurbiltasun hori ezinezko baitzatekeen. Alabaina, horrekin hiztunarentzat edo zalearentzat aski bada ere, hizkuntza berreraikitzailearentzat ez dugu inola ere aitzinhizkuntza berri baten, EBZ-ren, behararen frogarik. Egia da —58. oharren hasieran bildu legez— berdintasun larri ugari, ez hasierakoak baizik eta geroztikoak direla Mitxelenak dioskunez; hortik, AE-tik datorrena eta EBZ-tikoa bereizi beharra markatua uztea. Haatik, galbahe-lan hori ia urratu ere gabe dagoela esango nuke eta hori burutu gabe eta EBZ-ren ezaugarri nagusien irudi zehatzagoa eta, horren bitartez, bere kronologiaren gutxieneko ideia bat izan gabe, nago, Mitxelenaren aipuko gainerako ondorioak —EBZ sortzeko beharrezko zen gizarte egoera eta egiturari buruzkoak—, ez hondatu edo zalantzan jarri, baina bai gerorako utzi beharrekoak direla.

<sup>64</sup> AEZ eta AEM berezi beharraz eta Mitxelenarena baino berreraiketa sakonago baten beharraz ikus nire 1995az geroztiko hainbat lan, bereziki (2011a) eta (2012c) eta hor aipatu bibliografia.

<sup>65</sup> Erka bedi “no se olvide...” hori Aranaren aurreko aipuan, letra etzanez emandakoarekin; seguruenik Mitxelenak ez bide zuen hau idazterakoan Aranarena, ez begien aurrean ez burutan izan. Hots, Arana ere gai zen ulertzeko hizkuntza batasunak ez zirela berez, bilakabide naturalez, lortzen.



Goiko §2-n aipatu bateraketa linguistikoaren alderdi estralinguistikoaz historialariek beharko dute hitz egin eta orain arte badirudi haiek ez direla hizkuntzalariok Mitxelena-ren hipotesiaren barnean beharko genukeen eszenarioaren alde sutzuki agertu; zehatzago, hark hizkuntzaren bateraketaren oinarritzat hartu zuen Barbero eta Vigil-en (1965) ereduari ahuldade eta desegokitasun ugari aurkitu izan zaizkio eta ez da aspaldion ikerketa historikoaren “uhin nagusian” (ikus, besteak beste, Azkarate 2002, 2004 eta 2011).

Baliteke, nork jakin?, historialariek eredu historiografiko hori noizbait berreskuratzea eta baita, agian, hizkuntzalariok antzeko eszenarioaren bat aurkitzen laguntzea beste garairen baterako zein horrexetarako.<sup>66</sup> Izan ere, diakronista legez gauza seguru bakarra zera da: bateraketa nabarmenik gertatu bada hizkuntzaren historian, hori ezin azal litekeela hizkuntzaren sistemaren bilakabide huts eta arruntez, eta sistemaz kanpoko indarren laguntza beharko zela —nahitanahiez— horrelako ezer gerta zedin eta baita guk horrelako bilakabiderik antzeman genezan ere.<sup>67</sup>

Jazoera edo gertakari pozzgarrien edo hizkuntzalaritzaz atetiko oparien zain egon beharrean, iruditzen zait Mitxelena-ren —eta gutariko gehienon— hurbilketa lehena zatiari lotzea komeni dela. Hots, AEM eta euskalkien arteko hizkuntza egoera bat onartzen dugu (*euskaroa*,<sup>68</sup> EBZa) baina ez dugu horren beharra egokiro (“teknikoki”) zuritu. Egia da uste zabaldua dela<sup>69</sup> azken bi mila urteotan euskal hizkerak bereizi eta bereizi izan balira ez genituzkeela 8, 12 edo 6 dialekto eta nolabaiteko ulerpen zailtasunak alfabetatu gabeko hiztunen artean,<sup>70</sup> baizik eta ez jakin zenbat hizkuntza ezberdin eta baita (ia) erabateko ezinulertua euskal hizkera ororen artean ere.

Kontua da honako hau ustea dela, uste sendo eta arrazoizkoa, noski, datorrena-rengandik datorrela, baina uste hutsa edo oinarritugabeko iritzia; uste izatetik jakitera pasatzea onuragarri litzaiguke, beraz. Izan gogoan, gainera, —glotokronologia-

<sup>66</sup> [Ikus orain 150. oharra]. Jakina, EBZ zenbat eta berankorrago izan, guretzat hobe —euskalkien ezberdintasun txikiagoak itxaron beharko—; aldiz, zenbat eta gorago jarri eraikuntza hori, historialarien aldetiko oztopo gutxiago baina guretzat “okerrago” hizkuntzaren bilakabidearen emaitzen aldetik. Bestalde, haiengandik “ihes egiteko” ez du merezi K. aurreko garaietara hainbat hurbiltzea non EBZa AEM-rekin berdinduko litzatekeen, batez ere §4 honetan eta ondoko ataletan bildu EBZ-ren berrikuntzak bezalakoak kontuan izanik.

<sup>67</sup> Ez dakit (inguruotako) hainbat historialarik puntu hau ulertzen duten edota ulertu nahi ere duten, ustez euskotar nazionalisten burutazioen bat edo dela. Alabaina, hurbilketa hau da estandarra hemendik landa, dela *koine* zaharrarekin, swahiliarekin, aitzin-mongolierarekin (ikus 17. oh.) edo enparatuekin: gogora harako Meilleten 1925eko “langue commune suppose civilisation commune”.

<sup>68</sup> Hitz hau aski nahasgarri gerta liteke; gogora bedi Martinetek (1950) eta bestek horrela deitu ziotela erromatarrek EH-ra iristean aurkitu zutenari, hots, orain eta hemen behar genukeena baino 7-8 mende lehenagokoari.

<sup>69</sup> Vogtek (1955) ez dio ezer honetaz; haren asmo bakarra zera zen, euskara eta hizkuntza kaukasiarrek erkatzerakoan euskal hizkeren batasuna eta hurbiltasuna markatzea, beste parteko —kartvelieraz landako— sailkapen anabasaran eta berreraiketaren atzerapenaren aurrean.

<sup>70</sup> Hara Cerrón-Palominok Hego Ameriketako gertakariez dioskuna:

La impresión general que se obtiene es que, en verdad, el problema de la inteligibilidad es ante todo sociocultural antes que lingüístico a secas. La falta de contacto entre los hablantes de los distintos grupos dialectales y la intrusión del castellano como lengua mediadora (obviando todo esfuerzo por entender y hacerse entender a través del dialecto del otro) determinan que las barreras idiomáticas, no tan infranqueables como se suponía, se magnifiquen. De superarse tales dificultades, bien podría darse el caso de que los hablantes quechuas pudieran comunicarse en forma bi-aural, es decir, manejando cada uno su propia variedad (Cerrón-Palomino 1987: 229).

rekiko eztabaidetan aski garbi gelditu zen hau (cf. Lakarra 1997b, etab.)— aldaketen erritmoa ez dela bakarra ez hizkuntzen artean, ez hizkuntza jakin baten iraupen bereko bi garairen artean, ez hizkuntza beraren garai bereko alderdi diferenteen (fonologiaren eta morfologiaren, lexikoaren bi eremu diferenteren...) artean ere; ez da, beraz, segurtasunik esan ahal izateko mende batean zein hamar milurtekotan zenbat aldatu *behar* den hizkuntza bat eta, konkretuki, euskara “aski” edo “gutxiegi” aldatu den AEZ-tik, edo AEM-tik, zein 1643tik hona.<sup>71</sup>

Are gehiago, susma genezake —baina hau ere susmoa baino ez da— aldaketa kanti-tatea, hainbatetik hainbatean, ez dela ezinbestez berbera izango hizkera bakoitza irla batean garatzen delarik, polinesieraz edo, oro har, austronesieraz bezala, irla propiorik izan gabe ere lurralde zabaletan eta eten garbiarekin mintzo ziren hizkuntza IE zaharretan, edo azken bi mila urteetako euskaretan, hedadura geografikoari, hizkeren arteko kontaktu etengabeari eta, beharbada, bestelako hainbat zertzeladari so, aski egoera diferentean baita gure hizkuntzaren kasua gainerako horietarik, eurek ere berdin-berdinak ez izan arren. Hots, ingurune historiko egokiaz arduratzeaz landa eta hori baino lehen, diakronistak bere esparru propioan —hizkuntzaren bilakabideari dagokionean, alegia— badu zer argudia eta zer azal EBZ-aren azterketa historialarien eskuetan utzi baino lehen.

Ni ondokoan hurbilketa estandarren lehen zatari —euskalkiak ez datozela aitzineuskaratik (hau da, ez AEZ-tik ez AEM-tik) baizik eta geroztiko beste aitzinhizkuntza baten zatiketarik— lotuko natzaio, bada; izan ere, hori da soilik hizkuntzariarik ikertu eta erabaki lezaketen bakarra eta iruditzen zait ez dela arrazoirik egin gabe uzteko, guk egiten ez badugu bestek ez baitu egingo seguruenik, eta egin baleza ere, baliteke gure helburu eta metodo estandarren arabera ez egitea. Are gehiago, guztiz premiazkoa dugu horretara jartzea eta erakustea euskalkiak ezin deriba litezkeela AE-tik zuzenean eta, horrenbestez, agerian uztea EBZ edo honen antzeko egiturak beharrezkoak direla hizkuntzaren bilakabidea zehatzago azal dezagun eta lan honen hasierako Benvenisteren kronologiaren aldeko aldarria gure egiteko nagusi eta hatsarri berebiziko bilaka dadin.

Euskararen bilakabidea aztertzeke AEM-rekin ez dela aski frogatzeko eta EBZ beharrezkotzat agertzeko ongi etor dakiguke beste tradizio batzutan “tarteko aitzinhizkuntzak” bermatu (edo deuseztatu) asmoz garatutako irizpideei so egitea. Haue-tan —bi kasu klasikotarako italo-zeltikoa eta balto-eslabiera (ikus Petit 2004) mia ditzakegu, baina bibliografian badira nahi adina—, tarteko aitzinhizkuntzaren beharra onartzeko ondoko dialekto edo hizkuntzen berrikuntza komun zaharrak —bigarren aitzinhizkuntzaren zatiketa aurrekoak zehazki, eta ez geroztiko berrikuntza paraleloak— dira giltzarri: aitzin-italo-zeltikoarentzat ez da horrelakorik aurkitu gehienen ustez, aitzinhizkuntza horrek, funtsean, ez baititu mendebaleko IE-ak ez dituen eta bi azpimultzoentzat balioko luketen ezaugarriak azaltzen eraikuntza hori gabe baino hobeki; aitzin-balto-eslabierak, aldiz, bai aitzin-IE-tik, bai gainerako azpifamilieta-rik bereizteko berrikuntza bereizleak ditu eta bertatik —ez IE-tik zuzenean— erator litezke hizkuntza baltikoak eta eslabikoak. Hots, aitzin-balto-eslabierak bere burua (haren beharra) zuritu du, baina ez aitzin-italo-zeltikoak.

<sup>71</sup> Termino absolutuetan, jakina, erlatiboetan bai: XIX. mendeko B aldatuegi zen XVI.eko G izateko, XVI.eko L gutxiegi XX.eko Z izateko... eta Veleiak idazkiak (III-VI... [XXI]) askotxo eta gutixko —biak batera— edozertarako.

Segidan EBZ-k oraindik peitu duen justifikazio linguistikoaren oinarriak ezartzen saiatuko gara, euskalariak euskararen historiaurrea berreraikitzeke beharrezko duen eraikuntza ezberdin eta beregaina dela frogatuaz.

#### 4.2. Hitz hasierako herskariez

Nekez onar liteke, —Traskek (1998) ausarki aldarrikatzen zuenaren kontra—, euskal fonologia goitik behera inguruko hizkuntzen eraginez aldatu zela, morfosintaxian, aldiz, horrelako eraginak hizkuntzaren eredu jatorrari zirkinik ere egiten ez ziolarik eta, funtsean, euskara modernoa —eredu morfosintaktikoari dagokionez— AE-ren (AEM-ren) hurbileko dela, fonologia eta lexikoa erdarek suntsitzen eta zili-purdikatzen zuten bitartean. Komeniko da, lan gehiena AEM-z eta euskararen historiaurreaz alderdi honetan egin bada ere,<sup>72</sup> berriro bihurtzea noizbait AEM-ren egitura fonologikoaren, horren jatorriaren eta horrek pairatu aldaketan azterketara.

Esaterako, bortitz/ahul oposaketa ahostun/ahoskabe bilakatzea inguruko hizkuntzen eragin larriaren bitartez azaldu behar dela defendatzen duen ideia —ez sistema barneko arrazoi zehatzengatik— Martinetengandik dator. Gero eta harrigarriago egiten zait ustekizun hori, batez ere datorren ikertzailearengandik etorririk. Ez dirudi herskarietan bortitz/ahul sistema karratutik ahoskabe/ahostun sistema karratu berrira berehalakoan igaro zenik, tarteko zenbait bilakabideren eta hainbat urteren buruan baizik. Hor tartean dugu —EBZ-ean bai eta baita lehenago ere seguruenik— Gavelek eta gero Mitxelenak azaldu duten triangelua, ahostun soilarekin hitz hasieran eta ahostun/ahoskabearekin barnean. Bestalde, ez dirudi hirugarren sistema moderno honetako ahoskabez hasitako morfemen —AEM-ko herskari bortitzen eta Erdi Aroko ahoskabeen arteko— jarraipenik denik, herskari ahulen edo ahostunen artean gertatzen denaren aurka. Egia da lexiko zaharrean badirela *koipe* edo *kalte* bezalakoak baina gutxienak dira, bortitz zaharrak erortzen<sup>73</sup> edo, hobe, hasperen bilakatuaz herskari sistematik ateratzen zirelarik eta ez dute ezer frogatzen ahoskabe modernoa, barnekoaren asimilaziotik eta gainerako zenbait bilakabidetik baitator, usuenik bestetan fonosinbolismoetarik edo mailegu berri gordinetarik legez.<sup>74</sup>

Bilakabide zabal eta luze honetan ez dakust zer laguntza eman dezaketen edo zer bortxa egin hizkuntza erromantzeek; gehienez ere, momentu batetik aurrera —hainbat mende igaro ondoren— lehen ahulen (= ahostunen) bitartez euskal lexikoian bil-

<sup>72</sup> Nolanahi ere, inoiz ere ez da ezer agortzen ikerketan; ikus, kasurako, §5.2ean FHV-n Mitxelenak plazaratu *l-n* ondoko herskari bilakabidearentzako azalpen alternatiboak; berebiziko interesa izan arren bibliografian ez dut horretaz ezer aurkitu. Mitxelenak (1976) dioenez, dialektologian fonologiari lehen-tasuna eman ohi zaion arren, ez dirudi euskal dialektologia diakronikoa partikularzki garatua denik.

<sup>73</sup> Cf. §5.2; gero eta froga gutxiago dugu Nafarroako zenbait hizkeratako hitz hasierako belarek (*kaur*, *kori*, *geben*...) AE-ko ezer gordetzen dutela pentsatzeko eta horren bilakabide estandar direla iparraldeko *h-* eta hego-mendebaleko *ø-*. Kasu egiten bazaie aldaera horien kokaguneari izen sintagman eta hainbat atzizkik hartutako herskariei, gehiketa berankor horien azalpenak aski erraxa dirudi.

<sup>74</sup> Lehen aukera (*kalte*, *koipe* < *galte*, \**goipe*) bantuan gertatzen denaren ia aurkakoa dugu, bidena-bar: “Another well-known dissimilatory process is Dahl’s Law, whereby a voiceless stop becomes voiced if the consonant in the next syllable is also voiceless. This account for the initial voiced reflexes in Nyamwezi F22 roots such as *-dakún-* ‘chew’ (\**takun*) [...] is also responsible for the /t/ or /k/ of prefixes to become voiced (and sometimes continuant)” (Nurse & Philipson 2003: 56).

tzen ziren maileguetarik batzuk (ahoskabez hasiak) jatorrizko ahoskabe hasperengabea gordetzera jo zuten.<sup>75</sup>

Aldaketa hauek sortzen duten sistema hain da ezberdina inguruko hizkuntzetarik eta hain da markatua hitz hasiera (hots-sail bakarra, eta bera ahostuna!) non ez den harritzekoa handik gutxira hor soinu eta fonema ahoskabe berriak sortzea, garai modernoetako ahostun/ahoskabe sistemaren oinarriak ezarriaz:<sup>76</sup> *p-, t-, k- / b-, d-, g- : -p-, -t-, -k- / -b-, -d-, -g-*. Ohar bedi, halere, ez dela kanpoko hizkuntzen eragin larri (?) soila aldaketa honen errudun: badira *koipe*, *kalte* bezalakoak jatorrizko lexikoan eta mailegu ugariez landa, badira 2. osagai eraldatu eta autonomo bilakatuak (*toki*, *kide*, etab.) eta badira fonosinbolismo franko ere ahoskabeak etxekotzen lagundu ahal zutenak puntu horretan (*pidai*a bezalako arrazoi argirik gabeko berantiarrez landara).<sup>77</sup> Ez ahaztu, halaber, 400 edo 600 urte lehenago maileguetako ahoskabeek ez zutela inolako arazorik *en masse* euskarazko ahuletara joateko eta, beraz, historikoki ahostun agertzeko: aldaketaren arrazoi nagusiak hizkuntzaren barnekoak izan bide ziren, ez kanpokoak, hemen —inguruko hizkuntzetan, alegia— sistemak [+/-ahostun] jarraitu baitzuen lehen eta gero, menderen mendetan.

*p-, t-, k-*z hasitako hitzen azterketak (Lakarra prest.-3) erakusten digu hots horiek ez direla, soilik, mailegu modernoetan gertatzen; are gehiago: gutxienak dira bakarrik horrelako aldaerak dituzten maileguak eta asko *bakel/pake* bezalakoak, non lehenago ahostuna asimilazioz ahoskabe egin den, oro har, EBZ-aren zatiketaz geroztik. Berriena dira, seguruenik Erdi Arotik aurrera zabalduak, azkenik, soilik aldaera ahoskabea dutenak. Halaber, bertakotze-bide ezberdin hauei fonosinbolismoa gehitu behar zaie; izan ere, T- erro erduei so eginaz, fonosinbolismo eta onomatopeien artean nagusi ditugu ahoskabez hasiak:

TVRV (4) *burra, gale, gili, giri, guru, kara, kili, kirri, kuru, kurri, pirra, pirri, tala-tala, tana, tirri-tirri, tita, tarra* (12/17),

TVSV (4) *putxe, putxi* (2/2),

<sup>75</sup> Martinetek (1950) eta Mitxelenak (1957a, *FHV*) karratua dute aldarrikatzen AEM-ko herskarietan baina ez du horrelakorik egiten bigarrenak txistukari eta ozenetan. Herskariet dagokienez, beraz, bere erroboia ez da zaharrena, karratuaren beranduagoko aldaketa baizik. Batetik bestera iristeko zenbait gauza gertatu behar dira, gauza larriak guretzat, eta ulerterrazak Martineten sistemaren barnean... ez bera eta ez beste oharren, dirudienez: hain gogoko zuen (ik. Martinet 1955) hiperkarakterizazio batez, bortitzak bortitzago eta ahulak ahulago egingo ziren hitz hasieran. Bortitzasuna hor hasperenaren bitartez gauzatzen zelarik, are hasperendunago egin bide ziren, hainbat non herskarietasuna bera galduko zuten. Besterik gabe, bilakabide honekin berarekin, ez dugu engoitik bi herskari sail kokagune horretan, bakarra baizik (ez zen neurtalaziorik *bortitz/ahul > ahostun*, baizik eta bortitzaren homologoa (hasperena) herskariaren azpisistematik kanpora gelditu zen). Bestalde, ahultasuna hasperen faltaz gauzatzen zelarik, ahulek izan zezaketen hasperen urria galduaz ahostun bilakatzen ziren, lehenago karratuan angelu edo erroboaren ezkerreko parteak bailiran.

<sup>76</sup> Testuan bi ahapaldi gorago esan dugun legez, gogora bedi ahoskabe modernoak (gehienak bederen, cf. Gavel 1920 eta *FHV*) ez datozela AE-ko bortitzetarik, bortitz horiek desagertu eta hasperena eta/edo zero bilakatu baitziren.

<sup>77</sup> Hau Mitxelenak inoiz markatu zuen (/m/-z eta ezpainkarietaz hitz-egiterakoan, demagun) baina gaia ez da aski ikertu. Nabarmena da bere eskasiak ematen ziela, hain zuzen, aparteko balioa; ugaltzera-koan kontsonante horiek "normaldu" egin dira, garai modernoetan gainerakoetarik ezin bereiz litezkeelarik. Fenomeno bertsua da bizkaieraz sabaikariekin jazotakoa: palatalizazio automatikoa, hor inon baino gehiago hedatu delarik, Azkueren "palatalizazio semantikoak" historikoki bere lehenago indar gutzia galdu du. Ondorioz, ez da sabaikariaren eta ozen, txistukari zein herskariaren artean lehenagoko (eta oraindik hainbat euskalkitako) ezberdintasunik (ikus Oñederra 1990).

TVTV (4) babi, babo, baka, bebe, bibi, bobo, buba, butu, dapa, dithi, goga, kada, kaka, kika, koko, kubi, kuku, papa, pipi, pupu, patta, pito, popa, pupa, pupu, purra, tada, tago, taka-taka, tapa-tapa, tata, tato, tipi, toto, tupa, tutu (25/36)<sup>78</sup>

Modu sistematiko batean ikertzea merezi lukeen fenomeno orokorrako baten zati baino ez da, beraz, herskari ahoskabeen hitz hasierako hedadura; hizkuntzaren eransletasunerako deribaz ari naiz, alegia (cf. Lakarra 2006a, 2009d); turkieraz, japonieraz edo dravidieraz bezala, ahostun/ahoskabe oposaketa berantiarra da, hizkuntzok eredu aldaketa horretan aurreratuak zirenekoa.

Orobat, badirudi bide beretik azaldu behar dela kontsonante inbentarioan izandako gehiketa esanguratsua: teleguz eta beste hizkuntza dravida modernoetan hiru bat dozena kontsonante aurkitzen dugu (cf. Rao 1992), urruti aitzindravidaz ziren hamaseietarik. Euskara modernoan gehiketa ez da hainbestekoa izan, baina AE modernoko hamaseietarik —5 herskari, 4 txistukari, 6 ozen eta /h/ (cf. Mitxelena 1957)— bi dozenatara edo iritsi da hainbat hizkeratan: lapurteraz, esaterako, /p/, /t/, /k/, /b/, /d/, /g/, /h/, /l/, /l'/, /n/, /n'/, /r/, /R/, /m/, /f/, /s/, /s'/, /c/, /c'/, /ʃ/, /č/, /ʒ/, /č'/, /d'/, /j/.<sup>79</sup> Aldaketa honetan —herts-i-hertsian ez baita soilik gehiketa (gogora herskari eta ozen bortitzak)— partez baino ez da “errudun” inguruko hizkuntzen eragina; beste zati handi batean sabaikariak sistema orokorrean normaltzeari zor zaio eta ezin utzi aipatzeke sabaikaritzeaz landako fonosinbolismoa: lehen gogoratu /p/, [t-], [k-] eta baita /f/<sup>80</sup> eta /m/ ere, noski.<sup>81</sup> Labur: badirudi EBZ-k AEM-k ez bezalako kontsonante kopurua eta inbentario horren antolamendu ezberdinak zituela tartean gertatu berrikuntza ugariaren eraginez.

### 4.3. Diptongoak

Los diptongos que son comunes a todas las variedades conocidas de la lengua y que se pueden postular como mínimo para el protovasco son *au*, *eu*, *ai*, *ei*, *oi* (FHV 87).

Begi-bistakoa da “(vasco) común = protovasco” berdinketa okerra;<sup>82</sup> egun, ordea, §2.ean iruzkindu Mitxelenaren 1981eko lanari eskerrak, hain zuzen, beharko genuke

<sup>78</sup> Datu hauek Lakarra (2008b)-tik hartuak dira; “(4)” horrek fonosinbolismo-onomatopeien sailleko kideak adierazten ditu; “(x/y)”-k sail horretako kopurua zati bost sailletakoa.

<sup>79</sup> Eta hori frantsesetik azken denboretan hartutako txistukari ahostunetara, gainera. Bi kendu behar txistukarrietan B-z eta G-ren zati on batean, baita pare bat sabaikari ere (/t'/, /d'); hauetan, aldiz, /x/ bertakotua da. Z-z bada txistukari ahostun pareta (maileguetan funtsean, jakina) eta bi dardarkariak neutraldu egin dira... Xehetasunak xehetasun, nabarmena da gehiketa eta baita gutxiena mailegatu. Gehiketa hori are nabarmenago genuke 11 kontsonantetako sistematik (ozen eta txistukari erdiekin) abiatuz, AEZerako Lakarra (2011b)-n proposatu bezala.

<sup>80</sup> Honetaz gero 99. oharra; orain Mitxelenaren 1957ko argudioetarik bat —[f]-ari dagokiona— ezingo litzateke erabili fortis/lenis oposaketaren alde ezta (cf. §4.4) EBZ-ean ere.

<sup>81</sup> Lan horretan bokal sudurkariaren garapena (berantiarra) ere ematen nuen deriba eta sistema fonologikoaren aldaketaren arteko erlazioa erakutsiaz, Doneganen austroasiatikoaren inguruko lana (1993, orobat Donegan & Stampe 1983, 2004) eta Houis (1970)-en eta beste zenbait afrikanistarenei jarraikiz. Holmer (1970)-k ikuspuntu holistikotik hainbat alderdi interesgarri dituen arren, ez du ezer esatekorik bokalismoaz.

<sup>82</sup> Ikusi dugunez (18. oh.), horrelako gehiengo bada Mitxelena (1981a)-n bertan, nahiz ideia horren aurkako pasarteak izan eta lan horrek berreraiketa eredu berri bat hasi. Iruditzen zait komenigarri ez ere premiazko ere litzatekeela FHV-n edo fonologia diakronikoan AE / EBZ sistematikoki bereiziko litzukeen monografia bat.

esan diptongo horiek, *beharbada*, *izatekotan ere*, EBZ-koak izan litezkeela, baina ez 1.000 bat urte lehenagoko AEM-koak.<sup>83</sup> *FHV*-n esaten zaigunez, euskalki askotan —are, G-k bezala, lekukotasun zaharregirik ez dutenetan— askozaz diptongo gehiago dute egun lehendabiziko lekukotasunetan baino, duela hiru mende nahiz bost izan, eta joera nagusia hori bide zen segurki historiaurrean, kontrakzio edo mo-  
noptongazioa baino arrunt ugariago.<sup>84</sup>

Mitxelenak berak erakusten du /h/ gorde duten euskalkietan gainerakoetan baino askozaz diptongo eta hiato gutxiago dela (*abuntz* - *a.untz* - *awntz*) lehen bi silabetan.<sup>85</sup> Ezaguna denez, bazen /h/ XIII-XIV. mendera arte Errioxa-Araba eta Bizkai-Gipuzkoetan, —Nafarroa Garaian (hego-ekialdean bereziki) x. menderako galdua zen arren— eta, hortaz, are gaur /h/ ez duten euskalkietan ere *-h-* horien erorketaren azken emaitza dira; orobat, hainbat diptongok —eta beste hainbat VgV segidak— 600-800 urte edo gehixeago ditu, inola ere ez 1000, eta are gutxiago 2000 edo gehiago.<sup>86</sup>

Diptongoen (ez soilik haien kontrakzioen) berankortasunaren adibideak ugari dira: *hibai* (< \**hur-ban-i*) lortzeko \**-r* > *-h* gehi \**h...h... > ∅ ... h...* lortu behar da, \**-n* > *-h-* ondoren eta \**h<sub>3</sub> > h<sub>1</sub>* baino lehen eta V.V > D gero. *Jausi* aurretik *d<sub>1</sub>* (aurrizkikoa) > ∅, *d<sub>2</sub>* (errokoa) > ∅ eta \**e(C)V* > *jV*.<sup>87</sup> *Hogei*-ko diptongoaren aurretik \**b* > ∅ jazo zen aurrekoez gainera eta soilik gero \**h<sub>3</sub> > h<sub>1</sub>*; *orein*-en (< \**keroin* < lat. *ceruu* + *-oin*) *C* > ∅, *-b* > ∅, *-u* > ∅, *-n* > ∅ eta *e - oi > o - ei*; *laur* eta *gau*-k *-b* eta *-d* galdu dituzte, hurrenez hurren, *sei*-k *-n* > *-h* > ∅, *goi*-n \**-n* > *-n* eta \**-n* > ∅ (2. hau *ediro*, *eramo* eta bestetan legez)...<sup>88</sup> Badira, halaber, *-i* berankorrak, euskaraz gehituak maileguetan (*haiotz* < gask. *houdje* ‘C. *houdjade*, mais moins usité; désigne aussi le hoyau, la pioche’ [Simin Palay], *oihu* < gask. *hou!* *Hou!* ‘Interj., cri comme oh! holà! Pour hêler ou chasser’ [ibid]), zein jatrorrizkoetan (*sabets* > *saihets*); badira, orobat, metatesiz sortutako diptongoak ere (*hausnar* < *hasnaur* < \**hats-labur*, *zauri* < \**zaugi* < \**za(n)gwui(ne)* [-*g* > *-r*, cf. *sorotsi*, *larunbat* < \**so* + *egotzi*, \**lagunen -bate*], etab).<sup>89</sup>

<sup>83</sup> Ez naiz hemen diptongo sudurkariet arituko; ikus hurrengo atalaren akabuan Igartua (2008a) eta Chambon & Greub (2002)-ren konbinazioa.

<sup>84</sup> Badira honelakoak ere, noski (ikus *FHV*-ren 4. atalaren bigarren argitalpena), baina urriagoak, berankorragoak eta mugatuagoak (forma gramatikalizatueta, lehen silaban, txistukarietarik gertu, sa-  
baikari aurrean B-z...): *degu* (< *deugu* < \**dadugu*), *liteke* < *leiteke* (< \**ledi-*), *nere* < *neure* (< \**nihauere*), *deraku* < *derauku* (< \**deradu-*), *zitu* < *seitu*, *haritz* < *hareitz*, *gexo*, *zeñ*, *oñ*, etab.

<sup>85</sup> Mitxelenak hitz akabuko diptongo asko —are Iparraldean— 3. silabak izandako /h/-aren gale-  
raren ondorioztat zituen: *hodei* < \**odehi*; hortaz, *-h-* horiek *-n* > *-h* > *h*-tik badatoz, ezin dira AE izan, baina bai EBZ beharbada.

<sup>86</sup> Cf. Lakarra (2010a) “iberiar maileguetako” [*sei*, *hogeiz*] diptongoez.

<sup>87</sup> Mitxelenak behin baino sarriago aipatu zuen aditz-erroetako diptongoak kontrakzioetarik etor-  
zitezkeela eta (*FHV* 90, 2. oh.) baita horietako *jau-* / *ja-* txandaketa ez zela beharbada soilik fonetikoa. Orain badakigu aditz enborretan erroaren ezkerretara zen hainbat aurrizki fosildu eta aldatu zela eta —zerrenda hutsak egin eta kaukasiar lagun laguntzaren zain egon gabe, Lafon (1943, 1950) bezala— horren berreraiketa emankorra dela oso morfologia zaharraren ezagutzarako; ikus Lakarra (2006c), (2011a) eta (prest.-1), esaterako.

<sup>88</sup> Hiru ohar gorago aipatu ditugu aditz jokatueta *-g* > ∅ (*legi* > *lei*, *dagi* > *dai*, etab.) edo *-d* > ∅ (*dau*, *daitake*, etab.), gainerako kontrakzioetako diptongoak —hauetakoak legez— hiato aski modernoe-  
tarik datoz.

<sup>89</sup> Ikus Lakarra (2008d), (2009c). (2010a), (prest.-3) eta (prest.-4); baita Reguero (2010) ere.

Diptongoen zahartasunaren aurkako arrazoiak ugari diren arren, baliteke diptogodun hitz guzti-guztien AE-rako etimologia zehatz eta ziurrak izan bitartean “ortodoxoenek” (ala alferrenek?) horiei eustea; nolahi ere, azterketa aurrera doan heinean urrituaz doaz eta gutxi batzurekin gelditu gara, zenbait monosilaborekin funtsean.<sup>90</sup> Egia esan, ez genuen besterik itxaron ahal erro zahartzat CVC proposatu genuenetik (Lakarra 1995).

Bokalismoan garrantzi handiena eman izan zaie hitz hasierako *i-* / *u-* oposizioei; lehen lekukotasunetarako dagoeneko hor baititugu. Mitxelena ez zen, ordea, aitzin-fonema berri bat proposatzera iritsi<sup>91</sup> —mekanikoki arituaz legokiokkeen legez—, eta nahiago izan zuen kasuan kasuko azalpenak eman aztertutako eskutadan. Azken urteotan hitz hasierako beste *i-* / *u-* ezberdintasun zenbait azaltzerakoan, ediren dugu hor ez AE-ko seigarren bokalik edo berreraiketa estandarri erantsi beharreko unitaririk, baizik eta lehendik ezagun genuen \**eu* diptongoaren kasu haboro direla gehienetan:<sup>92</sup>

*urten* : *irten* : *erten* < \**eurten*...  
*ule* : *il(h)e* : *elle* < \**eule* < ...  
*untxaur* : *intsaur* : *eltzaur* < \**eu-* < \**beuntze-hur*

Alabaina, \**eu* diptongo horiek guztiak ez dira AE, ezta zahar ere: \**eurten* < \**e-* *orten* < *egorten*, \**eule* < \**e.ole* < \**hê.ôle* < \**êhôle* < \**enon-le* (cf. *ilhe*), etab.; baliteke EBZ izatea, ordea; hortaz, \*-*n-* > -*h-* eta \**h*<sub>2</sub> > *h*<sub>1</sub> EBZ hautsi baino lehenagoko ziratekeen.

#### 4.4. AEM ondoko zenbait aldaketa fonetiko

Diptongo historiko gehienak, AEM-az geroztiko eta euskalki guztien jatorriko izanik, AEM eta EBZ-ren arteko ezberdintasunen lekuko dira. Ez ditugu, ordea, *FHV* eta (Mitxelena 1981a) aurreko oinarritzko berreraiketaren —alegia, berreraiketa fonetikoaren— berrikuspen larri edo arina eskatzen duten argudio bakarrak.

Hots-aldaketa asko jazo bide ziren AE eta EBZ bitartean:

1. \**b-* > *ø-* : \**borgeni* > \**ohgehi* > ... *hoge*; \**bortzegun* > *ortzegun*
2. *k-* > *ø-* : \**kaninu* > \**âbihû* > ... *hagin*;<sup>93</sup>
3. *p-*, *t-*, *k-* > *b-*, *d-*, *g-* : *pace* > *bake*, *colus* > *gorotz*

<sup>90</sup> Hauen artean ere ez asko: *goiz* eta *igo*-ren arteko agerikoa da aspalditik, *haitz* \**anetz*/*anitz*-etik eratorri zuen Mitxelenak (1950b) eta *haur*, *laur* edo *gau*-k ez dutela betidanik diptongo hori izan defendatu dut (cf. \**han-bur*, \**labur*, *caedo*) eta *zail* < \**zal-i* dela (cf. *azal*). Hor da *gaitz* eta besteren bat oraindik, baina hondar hutsak dira.

<sup>91</sup> Txillardegi bai, ordea:

(...) *i/u* alternantzia ikusita (...) kakoa antzinako /i/ hau ote zen bururatu zitzaion askori; eta neroni ere bai (“Hizkuntza eta Pentsakera” liburuan, esate baterako; guztiz okerbide-tik, gaur ikusten dudanez) (*Euskal fonologia*, Donostia 1980, 36. or.).

Ez dut astirik “asko” horiek nor diren bilatzeko; nago ofizioko hizkuntzalaririk ez dela horietan.

<sup>92</sup> *Utzi/litxi*-rako *eu* > *u* / *ei* (cf. Z zah.) eta *eitz* > *etx* > *itx*; hori guztia baino lehen -*d*<sub>2</sub>- > -*ø-* (kontuan izan *d*<sub>2</sub> > *ø* *d*<sub>1</sub> > *ø* baino berriago dela: cf. *edan*...)

<sup>93</sup> Honetan den *VøV* > *VgV*, testuan esan bezala, EBZ ondokoa da nabarmenki.

Gorago (§4.3-ren amaieran) ikusi dugun  $*e(C)u- / *e(C)o- > u-$  —baina orain...  $> i-$ , txandaketarik gabe—, bada beste zenbait hitzetan ere: *unhain*, *ulhain*  $< *enonani$   $< *edanoni$   $< *e-da-don-i$ ; *urgatzi*  $< *eurgatzi$   $< *e.oragatzi$   $< *e-da-ra-gotz-i$ ; *ugatz*  $< *e-o-atz$   $< *edo(n)-hatz$ , etab. Hortaz, euskalki guztietan (eta, beraz, EBZ-ean) genukeen *u-* horretara iristeko ondoko aldaketa hauek jazo ziren guxtienez:

1.  $a - o > o - a$  metatesia
2.  $-d_1-$  (aurrizkiarena)  $> \emptyset$
3.  $*eV- > jV-$
4.  $e.o > ew$
5.  $ew > u$
6.  $V_nV > \hat{V}h\hat{V}$
7.  $-V > V_n$

Gero, *u-/i-* txandaketetara iristeko dialektalki horiek eta besteren batzuk ere jazo bide ziren. Ez naiz segur, aldiz,  $*h_3 > h_1$  EBZ aurretik, bitartean edo gero gertatu den; izan ere, Err-n *ârea*, *âîtz*, *âr* eta *êzur* genituen, sudurkariarekin lehen silaban; Mitxelenak *\*areha*,<sup>94</sup> *\*anetz*/*\*anitz* eta *\*enazur* proposatuaz azaltzen ditu. Horrela, Err-k sudurkaritasuna luke *h*-dun euskalkiek /h/ duten silaba horietan. Alabaina, enparatuetan *heuskara*, *hogeï*, *hodeï*, *heuragi*, *hautatu*, *hogen*, *hagin*, *hibai*, *herio* eta beste dute,  $*h_2 > h_1-$  eta  $*h_3 > h_1-$  rekin eta Err-k, aldiz, ez du *\*\*êuskara*, *\*\*ôgeï*... horien orde. Ôstera, Err-k badu *zûr* baina gainerakoetako *zur*-ek (*-r* ahularekin, gainera) ez du laguntzen *\*zunur* berreraikitzea eta bai pentsarazten digu zabaldu egin direla sudurkaritasun bokalikoak etimologikoki ez dagokien silabetan; nolana ere, *\*eu* ( $< *eCo$ ) EBZ bada,  $*h_3 > *h_1-$  ek lehenagokoa izan behar du.

*Ibar* hartzen badugu, lehen lekukotasunetarik beti *h-* gabe dugu (*idor* bezala); *hibai*-k, aldiz, *h-* du hainbat hizkeratan. Guztietan *hur-* izanik,<sup>95</sup> *hVr*  $> *hVh-$  (cf. *\*hohalano*  $> ohalano$ , baina *\*hohzar*  $> *ohzar > ozar$ ) ez da arazorik *ibar* eta *idor*-en  $*h-$   $> \emptyset$  horientzat —*\*h...h > \emptyset...h*—;<sup>96</sup> aldiz, *hibai*-ren *h-* beste nonbaitetik atera beharra dago, ez hor bertan sortua. Beraz, *ibar* eta *idor* orokorretara iristeko, ondoko erregelak gertatu bide ziren: 1)  $*-r > -h$ , 2)  $*-huh > -uh$ , 3)  $*uh > *ih-$  eta 4)  $h > \emptyset / \_ C$ ; horiez gainera, baita lehendik ezagutzen ditugun  $*-n > -h-$  [nahiz  $*-r > -h$ , cf. Lakarra 2013d] eta  $*h_3 > h_1$  *\*ibahi*-tik *hibai*-ra.<sup>97</sup>

<sup>94</sup> Horrela lehenik (1951b) eta gero *harea* (cf. *Z hariña*) proposatu zuen —baita *\*azebari*  $> hazeari$  ere— ‘50etako lanen batean, gero atzera egin arren, ustez  $*h_3$  hori, inoiz izatekotan, aspaldi galduko zela (1950b: 201); ez zait erabateko argudioa iruditzen, bai dozena eta erdi  $*h_3 > h_1$  aski garbi direlako eta baita berak *FHV*-en ere  $*h_3 > \emptyset$  suposatu beharra baitu bigarren silabako diptongoak azaltzeko are /h/ gorde duten tokietan.

Bidenabar, *âr*  $< *ââr$   $< *âbâr$   $< *anar$   $< *(n)a-nar$ , cf. *ahal*, *ihin-tz*, *ohol*, etab.; beraz, ez soilik *rhinoglottophilia* baizik eta *glottorhinophilia* ere euskaraz inoiz jazo izan dela pentsa bide genezake; fenomeno hauetaz ikus Iván Igartuaren (2008a) bikaina eta (2008b)-ko eranskina.

<sup>95</sup> Lakarra (2009c)-n erakutsi dut bai honetan eta baita gainerako *h*-dun monosilaboetan, fonema hori etimologikoa dela (eta ez dela soilik *Z*), Mitxelenak, kontrakoa uste zuelarik hor hedatu egin zela ondorioztatu zuen —baita *Vih* testuinguruetan ere, baina cf. goraxeago aipatu nire lana—; horregatik *onherran* eta *onhetsi*-n *-h-* ez etimologikoa, baizik eta “konposiziokoa” dela proposatzea (cf. *FHV* §9.7); honetaz Lakarra (prest.-4, -5, -6)-n aritu gogo dut.

<sup>96</sup> Hau “erro/silaba barneko Grassmann” genuke eta seguruenik hortik kanpora ematen dena (*ilberri*  $< *hil-berri$ , *ilbotz*  $< *hil-hotz$ ) baino zaharrago.

<sup>97</sup> Julen Manterolari eskerrak, *Ibahi*-k ez du orain izartxorik behar (CSM, 1128).



Esana dut  $*h_3 > h_1$  EBZ-koa izan litekeela, baina ez, aldiz,  $V\emptyset V > VgV$ , bere baitan *negu*, *bigun*, *legun*, *agate*, *hagin* eta beste hainbat maileguz landa, Baztan eta beste hainbat tokitako *-h-* > *-\emptyset-* ondoko *begar*, *bigar*, *zagar*, *ago*, etab. harrapatzen baititu, soilik /h/ gorde ez duten euskalkietan eta fonema hori galdu ondoren, jakina;<sup>98</sup> Iñaki Caminok gogoratzen dizkidan Zar-ko  $VV > VgV$  diptongo-hausleak (*begi* < *behi*, *logi* < *lohi*, *egun* < *ehun*, etab.) are geroagokoak dira, noski, lehen lekukotasunak (*eguzten* ‘utzi’) 1727ko dotrinan edo direlarik.

Hualdek (1997a) erakutsi bezala  $*wh/\beta h$ -tik badatoz [f]ak *afari* eta *ifar*-ek badute EBZ-ren kronologiarako interesik: *afari*  $*gau$ -*hari*-tik datorrela jakinik —cf. *askari* < *arrats-hari*, *jan-hari*, *ba(ra)zkari* < *bara-tz(e)-hari*—, eta Z-n *aihari* dugula (Err. *aigari*), bistan da  $*aw > ai$   $*wh > f$  baino lehen egin dela (cf. §5.2).<sup>99</sup>

$*hVR-$  >  $VRh-$  da, seguruenik, *h*-aren metatesi ugarien artean azkena: horrek azal lezake hainbat mailegu gaskoi bere baitan hartzea: *elhe*, *olha*, *olho*, *enhe*, *onbest*, *unhatu*, *unhil*, *arhin*, *orhoit* (< *orheit*), etab.<sup>100</sup> Orobat, hor dira *onherran*, *onhetsi* eta *onheritzi*<sup>101</sup> ere eta ezin nahas ditzakegu horiekin *ilhargi*, *ilhun*... ezta, noski, *ilherrri*, *ilhotz*... Grassmannen legearen alderdi modernoaren —hots, bisilaboaren artekoa, ez  $*hVh > \emptyset Vh$ — pekoak. Baina  $VRh-$  egiturakoen artean intersegarrienak —kronologia erlatiboari dagokionez— *erho* edo *anhoa* bezalakoak begitantzten zaizkit: bi kasuetan  $*h_3$  izan bide zuten ( $*e$ -*ra*-*non* >  $*eraho(n)$ , *anona* >  $*aNoha$ ) baina hortik ez ziren zuzenean *erhan/erho* eta *anhoa* atera ahal: cf.  $*baleha > **balhea/balea$ ,  $*areha > **arheal/harea$ , etab.<sup>102</sup> Hots, lehenik  $*hero$  (cf. *haragi* <  $*hero$ -*gi*),  $*hanoa$  bilakatu ziren, gero beste askorekin  $*hVR-$  >  $VRh$ -gerta zedin. Erregela hau, beraz, /h/-ren metatesirik modernoena dugu eta seguruenik EBZ baino beranduagoakoa.

$*Ardano$  bide da  $FHV$  baino lehen berreraikitako euskal hitz zaharren artean eza-gun eta famatuenetarik eta bere segurtasunaz zalantza gutxien sortzen dutenatarikoa. Dialekto historikoetan diren alomorfoen gainean (*ardo*, *ardao*, *ardâo*, *arno*, *ardan-*)

<sup>98</sup> Hots, soilik xiv. mendeaz geroz B, A eta G-n; Nafarroan x.erako galdua dela dirudi baina lehen hor ere hots hori bazela lekukotzen dute Lergako Era hasierako UMMESAHAH eta ABISUNHARI izenek.

<sup>99</sup> *Ifar if-ra*  $*ewh-$  batetik iritsi bide zen:  $*edona(n)-(b)ar > *ewha(b)ar > *iwhar > ifâr$ ; zerikusi gutxi du, beraz, *ibar* nahiz *ipar*-ekin edo, nolana ere, ezin horietarik atera, Mitxelenak uste zuenaren aurka. Erregelei dagokienez, oraingoan soilik  $*b-$  >  $\emptyset$  erantsi diegu gorago aipatu AE ondokoei; zahar antza du (cf.  $*bor$ -*gen-i* > *hoge*,  $*(b)its-(b)aso > itsaso$ , etab.) eta EBZ aurrekoa edo are lehenagokoa izan liteke.

<sup>100</sup> Ikus Lakarra (2013d); horiezaz landa *h*-dun maileguen artean hainbat dira gaskoitik hartuak: *herabe*, *hami*, *hein*, *hobi*, *hodi*, etab; bestalde, *eme*-k galdu egin du gaskoieraz (zenbait dialektotan bederen) zuen *h*-hori.

<sup>101</sup> Ez da hauetan, beraz, inongo “*h* morfologiko” edo “konposiziokorik”; Mitxelenak horrelako azalpenik proposatzen badu *hon*-en hasperena, eta gainerako monosilaboena, etimologikotzat ez zuelako izan zen (cf. 95. oh.). Egia da *Larrederra* solteren bat azalpenik gabe gelditzen zaigula [grafia hutsa ez bada, zerगतिक ez *Larra*-?], baina hobe azalpen falta eta ez nabarmenki okerra den bat horrelakotzat ematea; *janhari* eta *gauberdi*-rena ere “konposizioko *h*-tzat” azaldu arren ez da horrelakoren beharrik etimologikoak izaki. *Deihadar*, azkenik, ez dator  $*dei + h + adar$ -etik  $FHV$ -en esandakoaren aurka, testuen kronologiak eta semantikak besterik baitioskute (cf. Lakarra 2009c eta prest.-5).

<sup>102</sup> Dakidala,  $*leohe > lehoe > lehoi$  eta *lehoari* (< *legionariu*; Irigoyen *apud* Gorrochategui 2002: 118) dira  $*h_3 > h_2$  bakarrak, biak mailegutan; seguruenik euskal hitz zaharrek bete zutelako oraindik kokagune hori kontsonanteren batekin, aditz erroaren  $C_1$ -ekin, esaterako. Hala balitz, aldaketa zahar xamarra litzatekeela dirudi.

eraikia denez —eta ez balizko akitanierazko lekukotasunen baten edo historikoki lekukotu gabeko alomorforen baten gainean—,<sup>103</sup> pentsa genezake orain *\*ardano* hori, ez Mitxelenaen AEM-ari, baizik eta zazpi edo hamar bat mende berriago den EBZ-ari dagokiola. Bestalde, latinetik gure Aroan hartutako *arena* (*\*areha* baten bitartez) *harea* modernora iritsi bada eta *\*elino* eta *\*edoni*-tik —*\*eliho* eta *\*edohi* bitarte— *herio* eta *hedoi/hodei*-ra (cf. Lakarra 2008d), orduan batek galde lezake zergatik ez dugun *\*\*hard(a)o*-rik.

Hots, *-n*- AE-n eta *-h*- EBZ-en bide genuen erregela bezala, *gero* zenbait kasutan *\*h<sub>3</sub> > h<sub>1</sub>* (baita *\*h<sub>2</sub> > h<sub>1</sub>* ere: cf. *heuskara* < *\*enuskara*, *hezur* < *\*enazur*, etab.), edo (gehienetan) *\*h<sub>3</sub> > ø*: cf. *balea*, *koroa*, etab.<sup>104</sup> Baina *\*\*hard(a)o*-rik ez delarik, —nahiz eta *\*h<sub>3</sub>*-k nora jo izan (V): cf. aipatu *harea*-z edo *herio*-z (< *\*e-lin-o*) gainera, *hoge* < *\*oogehi* < *\*oohgehi* < *\*borgeni*...—, beharko dugu pentsatu ezintasun horrek adierazten digula bokalarrean *\*-n-* > *-h-* 2. nahiz 3. silaban gertatzen zela, baina ez hortik aurrera (cf. *herio* < *\*elino* 3.ean, baina *jario* < *\*e-da-lin-o* 4.ean). Hortaz, *\*ardano*-k hiru silabako dirudien arren, noizbait gehiago izan bide ditu eta, horrenbestez *-n-* > *-h-* gertatu edo ez, horren aztarnarik ez da iritsi lehen silabara. Analisi fonologikoak dioskuna, /h/-aren distribuzio modernoak edo horren faltak, analisi morfologikoak berresten digu:

<u><i>*Arrani</i></u>	:	<u><i>*ardano</i></u>
<i>*e-da-ra-don-i</i>		x

non x = *\*e-da-ra-dan-o*, eta *\*n* hori 5. silabaren buruan den, ez hirugarrenean. Noski, *\*edara*- > *ar-* (eta, beraz, *\*ardano*) ez dakigu noiztsu gertatu zen, baina *-n-* > *-h-* baino lehen jazo balitz, *\*h-* behar genukeen historikoki, *\*h<sub>3</sub> > \*h<sub>1</sub>* ezagunaren bitartez; kontrakzioaren ondoren ere soilik *\*h<sub>4</sub>* genuke, ordea. Baliteke, beraz, kontrakzio hori *h*-aren metatesia baino beranduago gertatzea eta<sup>105</sup> *\*ardano* bera, —guztion ustearen aurka—, ez AEZ-ko, ez eta AEM-ko nahiz EBZ-ko, edo enparatuko ez izatea.

Galdera nagusia, jakina, *\*-n-* > *-h-* (eta  $\hat{V}h\hat{V}$ ) noiz jazo den litzateke; Múgicak (1996: 231) “claramente postdocumental” dio,<sup>106</sup> nahiz eta gero zalantzak ageri

<sup>103</sup> Cf. akit. SENI : *\*seni* (baina akit. LOHI) eta AE *\*e-da-ra-doni* : eusk. hist. *arrain*, hurrenez hurren. *Lohi* horrek *\*-r-* > *-h-* hasia zela —baina ez burutua (cf. SENI)— bide diosku. Ez da ahaztekoa (Gorrochategui 2009: 548) G. Nietok Iruña-Veleian aurkitu PROTIDI-SEHI (ala -SENI?) hori, are gehiago azkenik -h-berretsiko balitz, jakina, baina baita bestela ere, euskal onomastika zaharraz mintzatzerakoan Bidenabar, OSSO-k erakusten du akitaniera baino lehen gertatu direla (1) *\*-r* > *-h*, (2) *\*hVh* > *øVh* eta (3) *\*hC* > *øC*. Fenomeno horiek guztiak dira *ets*e, *ogi*, *esku*, *ezker* eta beste hainbatetan; ikus Lakarra (2013: eranskina).

<sup>104</sup> Bada *khoroa*, etab., baita *bulhar*, *belhar*, etab. ere, baina hauek ez dira etimologikoak eta itxura guztien arabera, berankorrenak ditugu; cf. Lakarra (prest.-4, prest.-5).

<sup>105</sup> Orobat, gorago erakutsi dugun legez, *\*hur*-etik datozelarik bai *ibar-idor*, bai *hibai-hidoi*, beharko dugu onartu *\*-r* > *-h* konposizioan eta silaba bereko *\*hVh* > *\*øVh* *\*h<sub>3</sub> > h<sub>1</sub>* baino lehen jazo zirela. Ezagun denez, *hVh* heterosilabikoak (eta heteromorfemikoak, cf. Igartua 2001) ugari dira Erdiaroan.

<sup>106</sup> Testuan esandakoaz landa, bada hemen aipatu baino ezingo ez dudan arazo bat uste honezaz, Mitxelena EBZ-ri eman kronologia, alegia: *babe*, *ebo*, *sehi* eta beste hainbat *h-* (< *\*-n-*) EBZko direlarik, da-goeneko v-vi. mendeetarako horrela bide genituen. Bestalde, nago bortitzak ez “Adan eta Ebaganikoak” baizik eta kontsonante talde batetik sortutzat hartuaz Mitxelena berak aukera bezala gogoan hartu zuen legez (cf. 1957: §16) asko errazten dela ulertzea zergatik hain berandu ditugun < nn >-ak, are *-n*-ak galdu ondoren ere, alegia.

-ain eta -gue amaierekin.<sup>107</sup> Alabaina, nago, bere alde —gehienez ere— erdarazko grafia duela, hau hutsa ez bada ere. Hasteko, esan behar da Mitxelenarentzat (ikus hemen §§2 eta 4.1) lehen lekukotasunetarako lehendabiziko dialekto bereizkuntzak garatuak zirela, baina *-n-* > *-h-* bilakabidea /h/ (dela AE-koa, dela *\*-r* > *-h*, demagun) gordetzen zuten dialekto guztietarako suposatzen da, are hasperena lehen lekukotasunetarako galdua zuen nafarrerarentzat edo horren zati batentzat. Bestalde, onartzen badugu *-i/-u<sub>2</sub>* >  $\emptyset$  (gainerako konposizio eta eratorpeneko erregela fonetikoak legez) Mitxelenarekin euskalki guztietakoak eta EBZ-koak direla (ez ondoko berrikuntza paraleloak), orduan *artzain*-era iristeko behar diren hiru errege-lak —sudurkaritasunaren metatesiarekikoak alde batera utziaz— ondoko ordenan behar ditugu ezarri:

1. *\*-n-* > *-h-*;
2. *\*h<sub>4</sub>* >  $\emptyset$ ;
3. *\*-i<sub>2</sub>* >  $\emptyset$  /\_#

Kontrara egingo bagenu (1. *\*-i<sub>2</sub>* >  $\emptyset$  /\_#, 2. *\*-n-* > *-h-*) hirugarrena, *\*h<sub>4</sub>* >  $\emptyset$ , ezingo litzateke garatu eta —gorago *\*\*hardao*-rekin legez—, ez dut ikusten zein litzatekeen arrazoa *\*\*hartzai(n)*, *\*\*harrain*, etab. ez izateko (cf. Lakarra inpr.-1), *harea* edo *herio* bezala, *\*h<sub>3</sub>* > *h<sub>1</sub>* erregelarekin (Lakarra 2008d).

Bada argudio erantsi bat, batzuentzat ahulagoa, beharbada, beste hizkuntza baten fonologiatik egindako jauzia baita eta ez euskaran bertan zuzenean oinarritua;<sup>108</sup> izan ere, Chambon-ek eta Greub-ek aitzingaskoiera datatzerakoan, ondoko berrikuntzak erabili zituzten:

<sup>107</sup> Bestalde, gogora bedi Strakaren artikulua famatu baten hasiera:

1.<sup>o</sup> Il est en général difficile d'établir les dates, même approximatives, des modifications phonétiques. On sait que la graphie des textes retarde toujours sur la prononciation et que par suite des influences traditionnelles et littéraires, elle correspond à un état phonétique plus archaïque que celui de l'époque dont ces textes proviennent (Straka 1951-54: 247; behe-raxeago antzera gramatikoen eta maileguen lekukotasunez).

Hurrengo orrialdean “les meilleurs ouvrages de phonétique historique du français et des langues romanes sont-ils loin d'être d'accord sur l'âge des changements phonétiques, même les plus importants” diosku; guretzat hori, esan gabe doa, aski kontsolagarria zen... urte haietako egoerarekin erkatuaz. Jakin-garria da, noski, artikuluaen amaiera ere:

Ces faits, que nous comptons compléter par d'autres recherches sur la chronologie relative des changements phonétiques dans les langues romanes, prouvent qu'au II<sup>e</sup> et, à plus forte raison, au III<sup>e</sup> siècle, il n'y avait plus d'unité linguistique romane, malgré une certaine unité de civilisation et malgré la continuation des contacts politiques et économiques entre les diverses régions de l'Empire (...) On peut par conséquent difficilement admettre l'existence d'une période romane commune et unique dans l'histoire des langues néolatines; il semble plutôt qu'après la période latine ont immédiatement commencé les périodes roumaine, française, provençale, etc. (Straka 1951-54: 307).

Ikus orain Chambon (1996-97) Strakaren lanez; Guiter (1989) dugu horiek euskararen hots-aldaketei egokitzeko lehen saioa. Ikus §5.3ren akaburantz.

<sup>108</sup> 103. oharrean markatu bezala (cf. Ariztimuño 2011), LOHI bada akitanieraz (nahiz eta SENI —gogora, orobat, hor aipatu Iruña-Veleiako (benetako) -SENI/-SEHI ere—; bi aukera ditugu horren aurrean: onartzea *-n-* > *-h-* hasia zela (baina ez hedatua) III. menderako edo ondorioztatzea delako izen horrek ez duela ikustekorik euskarazko *lohi* < *\*don-i* ezagunarekin; bigarrena ez da erraza onartzen hitz horren egiturari kasu egina, ez baitirudi inguruko hizkuntza enparatutan antzekorik aurki litekeenik.

- |                   |                              |
|-------------------|------------------------------|
| 1. F > h,         | 5. MB, ND > m, n / V-V,      |
| 2. N > ø / V-V,   | 6. Ø > a / #—R,              |
| 3. LL > r / V-V,  | 7. “Fusion de B et de W”     |
| 4. LL > r* / V—#, | (Chambon & Greub 2002: 473). |

Guztien konbinazioak aitzingaskoiera dagoeneko 511. urterako bazela (okerrean ere, 600.era) —eta, horrenbestez, ez zela oraindik eratu gabeko proventzeraren dialekto bat, baizik eta latinetik zuzenean garatutako hizkuntza— ondorioztazera daramatzate:

En résumé, le gascon n’a pu se détacher d’un ensemble linguistique qui n’existait pas — ou, si l’on préfère, qui n’existait pas encore — au moment où il était lui-même constitué. Il ne peut par conséquent être considéré comme un dialecte ou une variété d’occitan au sens génétique de ces terms (“forme idiomatique évoluée de”). Du point de vue génétique, le (proto)gascon est à définir comme une langue romane autonome. On pourrait dire, en s’inspirant de la formule de Tagliavini (1969, 423), que *cette langue s’est coordonnée ensuite, sociolinguistiquement et, dans une certaine mesure, linguistiquement, au provençal* (Chambon & Greub 2002: 492).<sup>109</sup>

Chambonek eta Greubek ez zuten hitz bat ere esan beren lanean Luchairez geroztik aldarrikatu izan den Antzinateko euskarak gaskoieran izandako ustezko eraginaz, hots, lehenak bigarrenean izandako substratu estatusaz. Delako substratu izaera hori ondoko ezaugarrietan oinarrituko litzateke Luchairengandik datorren tradizioarentzat:

1. Ausencia de /v/;
2. Repugnancia por /f/ [eusk. /b/, gask. /h/];
3. Ausencia de *r*- inicial;
4. Mutación de *-l*- en *-r*- (gask. *-ll* > *-r*-, *-l* > *-l*-);
5. Supresión de *-n*- entre vocales (Gorrochategui 1984: 75-76).

“Como consecuencia del paralelismo en el tratamiento de estos cinco cambios fonéticos, concluía Luchaire admitiendo el influjo éuscaro de la configuración del gascón” zioen Gorrochateguik (1984: 76) eta gaskoieraren eta euskararen arteko antzekotasunen azalpen hau onartzen badugu —Rohlfsek (1977: 157) bere kontrakotasuna adierazten du *-n*-aren galeraz, baina ez gainerakoez—, begi-bistakoa dirudi substratu hizkuntzan aldaketa komun horiek hizkuntza hartzailean baino lehenago gertatuko zirela.

Chambonek eta Greubek (2002: 477) gaskoieraren *-n*- > *-ø*- bilakabidean kome-nigarritzat dute lau garai ezberdin ezartzea: “(i) nasalisation régressive partielle de la voyelle précédant /n/; (ii) nasalisation complète, vélarisation de /n/, changement de la coupe syllabique; (iii) passage de [ŋ] à une constrictive, puis amuïssement; (iv) enfin, dans la plupart des parlars, dénasalisation de la voyelle” (2002: 477). Lehen bi zatiak 511. urterako amaitutzat jotzen dituzte eta, beraz, hala bide zen substratuko hizkuntzan ere.<sup>110</sup>

<sup>109</sup> Etzanak neureak dira. Itzuliko naiz geroago (§5.3-ren hasierako figuraren iruzkinean; cf. lehenago 37-38. oharrak) aipu honetara, gaskoieraren sailkapen moderno “anti-genetikoa” euskal hizkeraren batekin ere —Gipuzkoako eta Arabako “B-rekin”, esaterako— gertatzen dela argudia baitaiteke.

<sup>110</sup> Euskararen aldetik Igartuak (2008a: 185-187) *-n*- > *-h*- aldaketa fonologikotzat du: hasieran [n] hasperendua edo [h] sudurkaritua /n/ fonemaren alofonoak zirelarik, gero /h/-renak izatera igaroko ziren. Ikus §5.2 *l* eta *n* ondoko ahostuntzeaz eta gaskoierak eman lekukotasunaz (Rohlf’s).

#### 4.5. AEM-z ondoko aldaketa morfologikoak

AEM-ren morfologiaz hain gutxi dakigu non nekez esan litekeen segurtasunez ezaugarri hau edo hori dagoeneko bertan zen edota geroztik sortu den: halere, daki-gun urriaren barruan dira artikulurik ez zela eta, beraz, ezta deklinabide mugatu singular ez pluralik,<sup>111</sup> aditzean ez zela iraganeko perifrasisirik (*etorri nintzen, galdu nuen*, etab.) baina bai aditz enborra eta laguntzaile (historikoki) irrealia biltzen dituen (*etor zedin, gal nezan*, etab.)<sup>112</sup> eta beste zenbait orokortasun, —bereziki morfologia zaharrena ezker zela aditzean eta ez eskubi—, edota afizazioa urriago zela historikoki eza-gutzen duguna baino, demagun (cf. Lakarra 2006a).

Merezi du, haatik, dozena bat ezaugarri EBZ baino lehen edo geroztik garatuak diren edota noizbait horrelakorik erabakitzeke izan ditzakegun argudiabideak zerrendatzea:

- |  |   |
|--|---|
| a) <i>*IVC</i> > <i>-la</i>  | k) <i>-tze</i> aditz izena                |
| b) <i>-n</i> > $\emptyset$   | l) <i>-eta</i> aditz izena                |
| c) <i>-o</i> > <i>-a</i> / — # eta <i>-V</i> > $\emptyset$ 3. sil. | m) <i>-tzai</i> artizkia aditz izenean    |
| d) <i>egin</i> ALag.   | n) <i>-kidi</i> aditzean                  |
| e) <i>*ezan</i> ALag.  | o) <i>-it-</i> pluralean                  |
| f) <i>*ero(n)</i> ALag.  | p) <i>-z</i> pluralean                    |
| g) <i>*nin</i> > <i>-i</i> aditz enborrean                         | q) komuntzadura falta                     |
| h) <i>*nin</i> > <i>-i</i> IS-ko dat.                              | r) <i>-ga</i> + <i>-z</i> > <i>-gaz</i>   |
| i) <i>*nin</i> > ALag ( <i>dio...</i> )                            | s) <i>-re</i> + <i>-an</i> > <i>-rean</i> |
| j) <i>-te</i> aditz izena  |   |

Hots, dozena bat (a, b, e, f, g, h, i, j, k, m, n, o) seguruenik EBZ-erako gertatuak<sup>113</sup> edota lehen euskalki banaketa baino lehenagokoak —baita, beharbada, beste bat (c) ere— eta soilik sei (d, l, p, q, r, s)— geroztikoak. Banaketa geografikoa da, gehienbat, zahar eta berri bereizteko irizpide nagusi: aipatu berrienek aukera gutxi dute EBZ izateko (askoz gutxiago AEM-ko) nahiz Mendebaleko Euskara Zaharreko (MEZ) ere.<sup>114</sup>

Berrikuntza gehienak gramatikalizazio prozesu orokorretan material komunarekin aurrera egingako urratsak ditugu:

- p) *-z* Nor-Pl. (orokorra) → *-z* pl. pleonastikoa *\*edun*-ekin & Obj.pl. (B-A),  
 r) *-ga* ‘bizidun lokatibo’ / *-z* ‘instrumentala’ (orokorrak) → *-gaz* ‘soziatibo’ (B-A),  
 s) *-re* ‘genit. zah.’ / *-an* ‘inesiboa’ (orokorrak) → *-rean* ‘ablatibo zah.’ (B-A-G?), etab.

Har dezagun oraintsu arte aztertu ez den aditz izenetako aurrizki multzoa (*\*e-da-ra-*). Hizkuntza bantuetan gertatu bezala, euskaraz ere hainbat aldaera sortu dira, horietatik zenbait fonetika lege arruntez azalgaitz bilakatzen direnak (cf. Good 2005,

<sup>111</sup> Honetaz ikus Mitxelena (1970), Azkarate & Altuna (2001) eta, batez ere, Manterola (2008).

<sup>112</sup> Ikus Mounole (2007) eta orain (2011a).

<sup>113</sup> Ez dut arrazoirik ikusten (f)-(g)-(h)-(i)-(j) AEM eta EBZ tartekotzat hartzeko eta ez lehenagokotzat; horrenbestez, ez ligukete EBZ-ren beharra erakusten lagunduko.

<sup>114</sup> Hau da usukoena, jakina, eta ez da harrigarriega *egin* —aditz nagusi gisa— orokorra izatea Zua-zok (2010: 149) markatu legez. *Diratan* hapaxa (*RS*) eta holakoren bat kenduta ba ote orokorra ez den aditz errorik? Bestalde, ba ote aditz laguntzaile izan aurretik nagusi izan ez denik? Cf. Lakarra (2012c) eta (prest.-7).

Lakarra inpr.-1): \**jara-CVC* [AURR-ERRO] litzateke itxarongo genukeena baina gutxienak dira horrelakoak (*jaraunsi* eta *jaramon*<sup>115</sup> soilik?) eta asko *arCVC* (*ardan-*, *arran-*), *inarCVC* (*inardun*, *inarrosi*), *jarCVC* (*jardun*, *jarrugi*) eta are *urCaC* (*urgatzzi*) ere, aldaketak hor amaitzen ez direlarik: cf. *eroan/eraman*, *jo(h)an*-en kausatiboa (h.d., < \**e-da-ra-non*).

Abian den lan horretako behin-behineko datuak laburtuaz (cf. lehenago 2011a), dozena t'erdia bat enbor zahar eriden ditugu oraingoz —hainbat berkategorizatu eta izen bilakatu direlarik— eta horietarik dozena bat dira orokorrak eta dozenerdi B-koak soilik:

*arbin*, \**ardan*, \**arran/arro*, *arrats*, *eroan/eraman*, *ihardetsi/inardetsi/ jardetsi*, *inardun/jardun*, *inarrosi*, *inaurri*, *jaramon*, *jaraunsi*, *jarrain*, *jarrekin*, *jarrugi*, *jasarri*, *jo-r-ratu*, *urgatzi*, *urrhan*

Ez dut ezagutzen ale bat ere soilik bestelako euskalki bakar batean ageri denik eta bistakoa iruditzen zait aurrizki kate hori ezin izan litekeela eraketa modernoegia. Nola azal datuok? Beharbada kategoria hori —gutxienez ikonizitate arrastorik gabeko amalgama itxura horretan— guk uste baino berankorragoa da (EBZ akabukoa, demagun) eta B-k bestek ez bezala gehiago gorde eta zabaldu du geroztik fosildurik aurkitzen duguna? Nolanahi ere, honelako arkaismoen aurrean ere “soilik berrikuntzak” esanaz jarraituko dugu ala, Watkinsek nahi bezala (§3.2), arkaismo esanguratsuak erantsiko ditugu ezaugarri garrantzitsuen zerrendara, berrikuntza zaharrenekin batera?<sup>116</sup>

#### 4.6. Aditz Laguntzaileak

Dakigunez, iragankor *irrealisetako egin* laguntzailea erabili izan da bibliografian bizkaiera gainerako dialektoetarik —zehatzago G-tik— bereizteko. Ahalegin horrek arazo saihestezinak ditu, bi aldetarik bederen: 1) *egin*-ez landa \**ezan* ere lekukotzen da B zaharrean, *fase sparita* gisa bada ere eta, 2) *egin* ez da soilik B-n lekukotzen: lehen testuetarik —eta galtzeko itxurarik gabe— ageri da G-n, noski. Horiezaz landa, Bonapartek (nahiz Lacombe eta Uhlenbeckek) kontuan izan ez zuten Araban

<sup>115</sup> Badakit Mitxelenaren analisisa “*jara + emon*” dela, baina bai hori eta baita \**jar + edun* > *jardun*, \**jar + eduki* > *jarduki* edo \**jar + egin* (nahiz \**jara + egin* > *jaregin* OEH-n s.u. datorren legez) ezinezkoak dira eta aurrizki zaharrak ez ikustetik —ikus nahi ez izatetik—, datoz. Bidebatez, segurua ote *jaraman/ jalaman*-ek ez duela *jaramon*-ekin zerikusirik?

<sup>116</sup> Beste aukera bat, agian, zera litzateke: gogotan izanik B-ko sei horietarik hiru (*arbin*, *jaraunsi*, *jarrekin* RS-koak direla eta testu horren arkaismo-gradu berezia dialekto horren barnean, arkaismo horiek ez B-renak baizik eta aurreko adabegiren batenak (MEZ-koak edota tartekoren batenak) direla pentsatzea, oraindik B eratu baino lehenagokoak, alegia. Aukera hau ongi lotuko litzateke K. Zuazok inoiz agertu duen ustearekin (2010: 182), hots, dialekto horren eraketan Bilbok —eta horko inguruetakoa bide zen RS-ren zati nagusia; cf. Lakarra (1996b)— eragin txikia izan duela ekialderagoko hiriekin (Gernika edo Durangorekin) alderatuaz.

Bidenabar, garbitu nahi nuke horren beharrik ez bada ere, nire lan horretan —eta RS-en jatorriari buruzko edozein ikerketatan— lehen egitekoa ez zela Bilbokoa zela frogatzea, emandako ustezko gainerako aukerak (Orozko, kasurako) deuseztatzea baino; horretarako aski zen (eta da, oker ez banago) RS-en, partez bederen, *-n* > *-∅* lekukotua dagoela erakustea, hegomendebalean ez bezala. Egiteko horretan, gainera, ez dakit zergatik balio zezaketen gehiago berrikuntzek bestelako edozein ezaugarri baino.

ere ageri zaigu, B zaharreko distribuzio morfosintaktiko oso hurbilekoarekin (cf. Lakarra 1985, 1986b eta Mounole 2007, Mitxelena 1964 garatuaz).

\**Ezan* noizbait orokorra izan da, baina, aldiz,<sup>117</sup> ez dirudi *egin* Mendebaleko Euskara Zaharretik (MEZ) landa laguntzaile gisa gramatikalizatu ere denik. Beraz, kronologiaren aldetik *egin*/\**ezan* ez da “hautapen ezberdin” bat izan B-n eta G-n, hurrenez hurren, egungo eta lehenagoko datuek besterik baitioskute; hautapen hori duela mende asko B, A eta G-ren arbasoak (= aitzin-MEZ-ek) egin berrikuntza baitzen, \**ezan*-ez gainera *egin* hartzean.<sup>118</sup>

Orobat, G zaharreko eta A-ko testuak oraintsu arte ez ezagutuak —eta ahozko zein idatzizko lekukotasunei kasu egiteko gogo faltak—<sup>119</sup> ekarri zuen EBZ-aren egitura eta dialektalizazioa aztertzeke garrantzitsu izan litezkeen beste zenbait aditz laguntzaile kontuan hartu ez izana: Larramendik Hiztegian eta *Corografía*-n markatu zuenez, XVIII. mendearen erdi aldera oraindik bizirik ziren Urola aldean —eta baita Goierri eta Beterriaren ere— *diraus*-/*ziraus*- formak datiboarekiko laguntzailearen pluralean.<sup>120</sup> Otxoa Arinek *diraucun* ‘dizkigun’, *diraucun* ‘zizkigun’, *dirautza* ‘dizkio’ ditu eta Larramendik Azkoitiko 1737ko Sermoian *ciauzcan* ‘zizkion’, *diauzcu* ‘dizkigu’, *diauztan* ‘dizkidan’, *diauzten* ‘dizkidaten’, *ciozcala* bakar baten aldean —Otxoak ere badu beste bat— (cf. Lakarra 1985: 236-237, Altuna 1992).<sup>121</sup>

2004an, Lazarragaren eskuizkribua aurkezterakoan, Jean Haritxelharrek “guk [ekialdeko] bezala”<sup>122</sup> A-ko lekukotasun zahar-berriak \**eradun* zerabilela kausitu zuen, —eta ez soilik pluralean, giputz zaharrek legez—: *eragocico* deraustae / *damaoc servietea* [95v], *oy aserratu* deraustaçu / *ceurorrec ala gunaric* [01] (Lakarra 2004: xiii).<sup>123</sup>

<sup>117</sup> Eta —§3.2en dagoeneko ikusi bezala— baita \**iron* ere; gogora bedi *-na*- kausatibo orokorraz landa, *oro* mendebal muturrean bizirik zela oraindik lehen lekukotasunetan (cf. *RS*) eta baita ezagun dira *-ro* atzizkiaren zenbait agerraldi (*luzaro*, *urtero*, *egunero*, *hilero*, *astero*, *astiro*, *geldiro*) egungo egunean ere. G-n (eta are A-n, cf. Landucci) zein GN-n lehen testuetarako B-n baino ugariagoa da atzizki hori (cf. de Rijk 1995). Bestalde, mendebalean bada oraindik aditzaren alomorfo zaharretik (< \**edon*) ateratako *-to* atzizkia ere; gramatikalizazio kate honetaz, cf. Lakarra (2012c) eta (prest.-7). Ikus §5.2 ere.

<sup>118</sup> Ikus §3.2 *egin*/\**ezan*/*iron* “hautapenaren” irakurketa diakroniko berri baterako, berrikuntza kate gisa ulerturik; orobat 169. oh. eta testua.

<sup>119</sup> Ez dute beren interesa galdu Mitxelenaren hitzek Landucciren ezagutzaz eta erabileraz (erabilera faltaz) Larramendi ondoko euskalaritzan (Mitxelena 1958); berak, nolana ere, hegoaldekoa euskalki berezitzat jo zuen *FHV*-n edo *Sobre el pasado*-n, beti ere funtsean Landucciren lekukotasunaz baliaturik. Cf. §4.6-ren amaiera.

<sup>120</sup> Oregik (1972: 359) “hona hemen erabat sortaldera begira jartzen gaituzten zenbait flesio” dio hauei buruz, “orain artekoetan [*deban*, *debe* eta gisa hortakoez ari da] aditza bizkaieraruntz lerratzen bazan ere” esan ondoren.

<sup>121</sup> Adibidez, G-ko gainerako testu zahar guztietan (“Misererea”, Lasarteko bertsoak (*TAV*), Irazusta (eta Oikiako dotrinan); ez da horrelakorik, noski, Zegamako dotrinan [cf. Ondarra (arg.), *ASJU* 1984] eta azpieuskalki horretako XVIIIko testuren batean komunztadura faltaz.

<sup>122</sup> *Ia*; merezi luke *derauste*, etab. *-s-* gabeko Etxepare, Leizarraga eta ondokoekin konparatzea; zail bide zuten eremu bateko eta besteok elkar “imitatzen”, noski, eta xehetasunak xehetasun (ikus aurreko oharra) arkaismo franko erabilia dugu aditz-joko hau A-n (cf. Mounole 2011b). B delarik horren arrastorik ez duen bakarra, haren berrikuntza negatibotzat jo beharko.

<sup>123</sup> Borja Ariztimuñori zor diot *diozka*-ren arrarotasunaz (eta jatorriaz) ohartzea; hark esandakoari, *diuzka* < *diauzka* < *dirauzka* katebegiak gehituz gero, egungo egunean ere —itxura- eta funtzio-aldaturik, hori bai— \**eradun*-en formaren aztarnak G-n bizirik direla frogatzen digu. *Diozka*-ri buruzkoak, *dizku*, *dizt* eta “barneko *-z* plurala” duten guztietzat baliagarri bide dira; ez dirudi B-ko *-za* barneratu denik edo G mendebaleko *-z-* atera B eta A-n.

Kasu honetan badirudi sinpleegia dela, inoiz egin izan den bezala (cf. Mitxelena-ren iruzkina Lekuonaren *Gero*-aren edizioaz), “*eutsi* = B, *-i* = G eta *eradun* = Ekialdea” aurkeztea, hautu-katea bailitzan. Ez da inola ere parekotasunik izan lehenaren eta enparatuen artean: *eradun/-tsi* eta *-i-* historikoki ia orokorrak izan ditugu —B da soilik hortik kanpora gelditzen dena—<sup>124</sup> eta *eutsi* ez da B-tik eta A-tik atera.

	BZ	BM	A	GZ	GL	LZ	LM	ZZ	ZM
<i>*Eradun</i>	–	–	+	+	–	+	+	+	+
<i>-i-</i>	(+)	–	+	+	+	+	+	+	+
<i>eutsi</i>	+	+	+	–	–	–	–	–	–

Erregelaren ordena bilatzen badugu, honelako zerbait genuke Nafarroarako eta Iparalderako:

1. *eradun*-en gramatikalizazioa,
2. *-i*-ren gramatikalizazioa.

Gainerako euskalkientzat berrikuntza gehiago metatu behar ditugu:

3. *eutsi*-ren gramatikalizazioa B-n eta A-n,
4. *eradun*-en galera singularrean G-n eta B-n,
5. *eradun*-en galera pluralean B-n,
6. *-i*-ren galera pluralean B-n,
7. *-i*-ren galera singularrean B-n.

Ikusten denez, B-k ez du hautapen soila egin, ikuspegi sinpleegi eta “aktualista” batek adieraziko lukeen bezala; B-k berrikuntza berrikuntzaren gainean bildu du (zazpi), horietarik bi komunak EH osoarekin (1, 2), beste bat komuna A-rekin (3), oraindik beste horrelako bat G-rekin (4) eta hiru azkenak eksklusiboak (5, 6, 7).

Z-k, L-k eta BN/GN-k aski dute lehen bi berrikuntzekin: hots, ez dute horrelakorik EBZ-z geroztik (agian ezta AEM-tik), G-k (4) eransten die horiei —ez dirudi zaharregi oraindik ere pluralean *\*eradun* baita—; A-k, azkenik, (3) gehitu du (B-rekin) baina ez du (4) —G-k eta B-k komunean dutena—, ezta (5), (6) eta (7), B-ren eksklusiboak. A-k ez bata eta ez bestea eta polimorfismoarekin jarraitu zuen bietan. G-k ez zuen *eutsi* berrikuntza hartu —edo historiaurrean galdu zuen— eta singularrean *-i(n)* *\*eradun*-i erabat gailendu arren, pluralean oraindik haren aztarnaren bat gelditu da.

Gehienbat ohikotasuna adierazteko B-n (1800 arte bederen) usuko ditugun *joan/eroan* laguntzaileak (cf. Lakarra 1986b eta Mounole 2011a), aurkitzen dira gutxi edo asko XVI. mendeko Etxepare eta Leizarragarengan ere eta baita, geroago lekukotu

<sup>124</sup> Lakarra (1986b)-n erakutsi bezala, *di*-ren bi adibide (*dio* eta *dyc*) ageri dira B-z, “Milia Lasturkoen Eresian” lehen —baina ba ote zentzurik “G-ko B” sailkapenarekin jarraitzeak are xv edo xvi. mendeetarako?— eta *RS*-ko kasu solte batean bestea. Ez da aski lasaitasun osoz esateko oraindik garai horretan erro honen lekukotasunak erabat orokorrak zirela.



arren horiek bezain hizkera zaharra edo zaharragoa duten Zalgize, Bela eta Oihenarten errefrau bildumetan ere. Perifrasi hauek, bada, ez ziren B-renak soilik, baizik eta (gutxienez) EBZarenak ere,<sup>125</sup> eta ez da harritzeko berrikitan Lazarragaren koadernoan aurkitu eta aztertzean bertan ere lekukotasunak agertzea (cf. Lakarra 2004, Lakarra & Mounole 2010 eta Mounole 2011b).

Bidenabar, Lazarragaren testuak eman izan du beste laguntzaile ezezagun parearen berri ere:

#### JAGIN

- eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguitemco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean (AL: 1152v)
- Jaun Cerucoac / çuri bidaldu *jaguinic*; / adietaco / badeçu miramenturic, / ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric. (A28: 166)
- Aren aoti berba oa / neguianean aditu, / reberencia *jaguitemco* / belaucoc neben incadu. (B14: 15)
- Apea nindin çaldirean / guchi bat apartaduric; / berba neguion lurrerean, / neurau nengoan lecrean / reberencia *jaguinic* (B18: 70)
- Beti nabil casoau dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo *jaguitemco* sendoro. (B18: 115)
- Orain dama bat servietan dot, / lindea parebagea; / oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / eguin deustan mesedeac, / servidu *jaguin* artean, / cegaiti nei trasasadu / amorearen leguea. (A24: 136)
- cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidoreric; / oy alcançadu daiqueano / ez artu *jaguin* celoric; (A 14: 102)
- guztiay berba *jaguinic* (B29: 50)
- modu onetan / oyta berba *jaguinic* (B29: 79-80)

#### JAKIN

- Donzellea, cegati çaoz / enegaz enojaduric, / çurequin ene aitasuna / horrela anci *jaquinic*? (AL: 1142v)
- Sirena bere ainbeste dabil, / besteoc leguez galduric, / Doristeori on derechala, / Silvero anci *jaquinic*. (AL: 1145v)
- Acorda çatez ceyn on derechudan, eta bay nola çabilcen enganaduric, igui çabena-ren <1152v> acean, ene amorioau ancitu *jaquinic*. (AL: 1152v)
- Esperancea galdu *jaquinic* / bici çan, aseguin bague; / joan gura dau lecreanic / canpura bici içaaten. (AL: 1145v)
- Tortolachoa ebiltan da / bacoçhic maiaz ilean, / bere laguna galdu *jaquinda*, / tristeric soledadean (A16: 75); (cf. Esperanceau *galdu jat*, / guztiz ez arren, parte bat; / neure laztanaen amorearren / eguin gura dot negar bat. (1143v)
- Donzella batec joci ceban / Iruneco calean, / niri ondo costa *jaquin* / Guipuscoaco lurrean (B32 : 23)
- Jaun Cerucoay emaiten jagot / oy asco gueraciariç, / deseo neben ocasio bat / cehren nagoan *jaquinic*. (A23 : 4)
- Oyta capa bat emunagaiti / ez nax gueratu piloxic; / inori emun bajagot bere, / ez nago damu *jaquinic*. (A23 : 60)

<sup>125</sup> Halaz guztiz, ANag + PART dutelarik (inoiz ANag + *te?*) *etor nendin, ekar nezan* eta horiek baino berriago bide dira.

Itxura guztien arabera, orain arte beste inon lekukotu gabeko formak ditugu: sistema zaharrerako [1. \**e-CVC* / 2. \**e-ra-CVC* / 3. \**e-da-CVC* / 4. \**e-da-ra-CVC*] hirugarren saileko aditzen aztarna gogoangarriak, nahiz eta ez, agian, eredu edo balio zaharrenekoak, *-da-* horrek, ez esanahi espaziala edo aspektuala, baizik eta datibokoa hartzen baitu.<sup>126</sup>

Are euskalki sailkapena berrikuntza-txapelketa gisa uler dezatenentzat ere, baliteke ezaugarri hau esanguratsu bilakatzea A euskalkitzat hartzeko orduan; izan ere, A-k “besteren” (B, G, inoiz GN-ren) ezaugarrien konbinazio berezi hutsa dela dirudi inoiz, ezaugarri propio gabekoa: oraingoan, ordea, ezaugarri honek lehenik ere eza-gutu behar zitzaion “orijinaltasun” eta autonomia are markagarriago bihurtzen du (cf. 119. oh.).

#### 4.7. Erroaren forma kanonikoa, EBZ eta dialekto haustura

2000tik aurrera edo, erro eredu nagusien azterketa formalari lotu natzaio, hein batean Uhlenbeckek aldarrikatu baina garatu gabe utzitako etimologia ez-atomista lantzeko asmotan.<sup>127</sup> Horretarako (diptongodunak alde batera utzirik)<sup>128</sup> Azkue-ren hiztegian lekukotutako edozein eredutako kideak bost multzotan banatu nituen —1) maileguak, 2) aldaera modernoak, 3) eratorri-konposatuak, 4) onomatopeia-fonosinbolismoak eta 5) etimologiagabeak—, eta bi iragazki nagusi ezarri nizkien (fonotaktikoa eta geografikoa)<sup>129</sup> egindako sailkapenen ondotik “5” sailean gorde-

<sup>126</sup> Cf. \**da(r)* ‘sit’-en gramatikalizazioaz Lakarra (2008a) gehi han aipatu Newman (2002), Aikhenvald (2006) eta gainerako bibliografia. Nolanahi ere, aditz horren gramatikalizazioan (bigarren maila batean) datiboa ere arrunta da —eta Lazarragari dagokionez aurkitzen dugun bakarra—, mendebaleko ohiko *jator-*, *jabil-* eta besteren aldean, artean lekukotu gabeko *jafindazu* batzuk ere barne:

- Donzellea, piadadez ar naçaçu, / barriz gura deusut erregutu, / catea gueiagogaz ez ni lotu, / neure bioçu libre *jafindaçu* (1185v)
- Nungo çarean esadaçu, / bada al didin gaucea; / ceure beguioc irecaçu; / descubriduric *jafindaçu* / apelliduaç nonbrea. (1182r)

Inoiz pentsatu izan dudanaren aurka, aldiz, \**da* eta *ra-* (batez ere \**la-*) oso hurbil izan arren, inola ere ezin izan litezke gramatikalizazio kate berekoak, adlatibo/inperfektiboak ‘sit’-etik sortu ohi baitira, baina kausatiboak eta konpletiboak ‘take’-tik; ikus Lakarra (2012c), (prest.-7) eta hemen 117. oharra.

<sup>127</sup> Cf. “Pour le moment, il m’est indifférent de savoir si tel élément lexical —mot ou racine— possède ou non une parenté caucasienne plausible. Si pareil élément lexical correspond à un type ancien, il devra passer pour pyrénéen occidental ancien, sauf la possibilité qu’un élément non originellement pyrénéen occidental ancien d’importation ultérieure —mot ou racine— se soit rallié secondairement à un type pyrénéen occidental ancien. Mais cette question est sans importance pour mes investigations, puisque *je recherche non pas des étymologies, mais des types*. Des éléments d’origine étrangère secondairement assimilés à d’anciens types indigènes contribuent, eux aussi à affirmer l’existence de types anciens” (Uhlenbeck 1942: 567); etzanak neureak dira [J.A.L.].

<sup>128</sup> Hori bi arrazoigatik: bata, operatiboa, kalkuluak asko zailtzen zirelako haiek kontuan harturik eta, bestea, uste osoa nuelako diptongodunak berrikuntzak zirela, dela mailegu, konposizio-eratorpen edo kontsonante-erorketaren baten ondoko. Geroztiko berreraiketa eta etimologia lanek erabat berretsi dituzte hipotesi eta jokabide hauek (cf. Lakarra 2010a eta hemen §4.3).

<sup>129</sup> Cf. “The first type [of criterion that can be used in order to establish the Proto-Mongolic origin of any given feature] may be identified as distributional, and it is based on the linguistic fact that Proto-Mongolic features tend to have a wide distribution in the modern languages. In particular, any feature

tzen ziren hondarrei. Hondar hauek, noiz astiro eta banaka, noiz supituan eta mul-tzoka, aurreko lau sailalara joan izan dira ezinbestean ikerketa aitzinatu ahala. Az-ken sail horren barruan diren garrantzitsuenak bi iragazkiak gainditutakoak ditugu, jakina, horiek baitira hizkuntza egoera zaharrago baten jarraipen izateko aukera du-ten bakarrak.

Gure ikerketetan iragazki fonotaktiko eta geografikoak gainditzen zituztenak AE-rako hautagaitzat genituen, batetik AEM-rako berreraiketa estandarreko baldin-tza fonetikoak baitziren iragazki fonologiko moduan generabiltzanak eta, bestetik, Meilletek eta gainerakoek familia indoeuroparrean eta gero beste ikertzaile askok enparatuko familietan egin legetxez, zenbait distribuzio baldintza beteaz aitzinhiz-kuntzatik etor zitezkeela segurtatu nahi baikenuen modu aske batez, argudio erantsi gisa.

Alabaina, iragazki geografikoak baditu zenbait oinarri —bat batez ere— bere hel-buruetarako, ez soilik malgugeri eta eskuzabalegi, baizik eta are ezgai bilakatzen du-tenak. Malgutasun eta eskuzabaltasun handiegiak aitortuak nituen eta berariaz eza-gutuak: funtsean, delako hitz bati errazegi aitortzen zitzaion dialekto oso baten baliokidetza —nahiz eta soilik horko herrixka bakar batean ezaguna izan— eta, gai-nera, Frantziako eta Espainiako dialekto mugakide bikoteak (G eta L, GN eta BN, GN eta Z) onartzen ziren, nahiz eta Iparrean zein Hegoan bata bestearen aldean zire-nak (B eta G, G eta GN, L eta BN, BN eta Z) exkaxtat eman irizpide geografikoen arabera forma jakin bat zahartzat hartzeko.

Ordea, uste dugu xehetasun hauek iragazkiaren aplikazioari zor zaizkiola eta gainditzeko modukoak direla, hala nahi edo behar izanik hertsiago jokatuaz: hots, aipatu muga politikoaren efektuak beranduagokoak direlarik —ik. §5.2ko oharra Err-ren berrikuntzez—, horiek kontuan hartu ez eta bikote onargarriak zeharo gu-txituaz,<sup>130</sup> edota dialekto osoaren hedadura emateko orduan herri edo hizkera gehia-gotara igoaz gutxieneko langa, edota bi bideok batera hartuaz. Iragazkiaren ezar-penean aldaketa horrek lukeen berehalako ondorioa bistakoa iruditzen zait: asko murriztuko lirakeke “orokortzat” jo beharreko hitzak, baina ez modu berean orain arte aztertutako erro-eredu guztietan (cf. Lakarra 2008b, prest.-2). Zehatzago, zirkin handirik ez bide lukete CVC monosilaboen datuek pairatuko, horko kide gehienak “orokor” baitira, —ez juxtu-juxtuan bi euskalkitako, beste hainbat auzo galdutan le-kukotzearren, baizik eta lurralde orotako ia hizkera orotan direlako; bisilaboetan, aldiz, pentsatzekoa da behearakada aipagarriak izango lirakekeela, eta lehen ere hain apalak eta % 0,00tik hain hurbil izanik, orain ia erabat ezabatuko edo guztiz bazter-garri bilakatuko.

CVC monosilaboen erabateko nagusigo hau are nabarmenagoa genuke, gainera, gogoan izanik azterketa-lanean soilik forma historikoki autonomoak erabili direla, ez berreraikiak. Beraz, esan nahi da *\*bel*, *\*bil*, *\*dan*, *\*thor* eta beste hainbat dozena ez di-

is attested in, or perhaps restricted to, two or more peripheral Mongolic branches, such as Moghol, Dagur, or the Gansu-Qinghai complex, is likely to represent common Proto-Mongolic heritage. However, it should be kept in mind that the absence of a feature from the peripheral languages does by no means rule out the possibility of its Proto-Mongolic origin” (Janhunen 2003b: 3).

<sup>130</sup> Are gehiago, bikoteak izan beharrean, hirukoteak ere eska litezke baina ohiko euskalkiekin ho-rrrela ez da modurik delako hiru horiek mugakide izan ez daitezen. Zalantzarik gabe, euskalkien adarka-tze egoki batek (cf. §§5.1-5.3) zeresanik izan lezake azterbide honetan.

rela hor kontuan hartu —nahiz noizbait erro emankor izan direla guztiok sinetsirik izan—; horrelako gutxi da, aldiz (ezer bai?), bisilaboetan.

Bada, haatik, beste oinarritzko arazo bat iragazki geografikoarekin: zein garaitako euskara eskura genezakeen horren arabera, alegia. Izan ere, CVC hasiera batean AEZ-rentzat —hots, AEM baino zenbait mende edo milurteko lehenagoko egoera batentzat—<sup>131</sup> proposatu nuen (Lakarra 1995) eta Igartuak (2001/2002) eta Martinez Aretak (2008) bisilabismoa eta polisilabismoa aldarrikatu dituzte gerroztik AEM-rako eta ondoko garaietarako. Alabaina, euskalki historikoen gainean berreraikitako hizkuntza egoera, *izatekotan ere*, soilik horien jatorrian litzatekeen EBZ izan liteke, ez AEM eta are gutxiago AEZ. Hortaz, Mitxelenaren EBZ K. ondoko v-vi. mendeetarako bada, iragazki geografikoa gaintitzen duten monosilaboak EBZ-koak direla ondoriozta dezakegu —askozaz zaharragoak nahi bada, baina baita oraindik ordukoak ere— eta iragazki hori gaintitzen ez duten bisilaboak (gehienak, askorekin) EBZ ondokoak direla genioke (ez lehenagokoak), eta ikusi egin behar zenbat geroagoko.


Azken isats hau beharrezkoa da orain: aitzinhizkuntzen eta, oro har, hizkuntza egoera batuen haustura bitarrak badira dialektologia diakroniko hedatuenean darabiltzatenak eta guk euskarari —EBZ-ri, zehatzago— ezarri nahi dizkiogunak, pentsatu beharko dugu euskalki historikoen artean gehienez ere bakar bat litzatekeela EBZ-tik zuzenean sortua, ez bi edo hiru eta, batez ere, ez dela inoiz izan euskalki historiko guztiak bere baitan biltzen zituen hizkuntza egoerarik XIX edo XX. mendera arte, bederen: hots, bakoitzak bere data eta hedadura (aldakorra) du eta baita arkaismo / berrikuntza / hautapen proportzio ezberdinak ere (cf. §3.2-n Meiden analisia dialektalizazioaz) eta, horrenbestez, ez dagokie guztiei pisu bera aitzinhizkuntza —kasu honetan EBZ— berreraikitzeke orduan, esteman betetzen duten adabegiaren araberakoa baizik.

## 5. Adarkatze bitarrerantz


### 5.1. Euskalki modernoak eta adarkatze bitarrak

Euskararen egoera modernoak deskribatzeko Bonaparteren, Mitxelenaren eta Zuaoren sailkapenek sinkroniaren baten isla gisa izan dezaketen egokitasuna zalantzan jarri gabe, ikus dezagun zein litzatekeen euskalkien enbor diakronikoa, adarkatze bitarrak sistematikoki ezarriaz gainerako tradizioetan legez; ondoko zuhaitzak haien laguntzaz egin nahi ditudan zenbait gogoetaren oinarri “pedagogiko” gisa doaz (ez inolako dialekto sailkapen berri legez):


<sup>131</sup> Lakarra (2011a)-n gogoratu dudanez, Trasken horri dagokionez “If there ever was such a stage, it must have been long, long before the Pre-Basque of some 2.000 years ago reconstructed by Michelena” dio (Trask 1997: 178-179), baina zehaztasun gehiagorik gabe, zorigaitzez. Bestalde, gogora §2-n eta *passim* markatu AEM berrikusi beharra EBZ berreraiketa maila aske gisa aitortu ondoren.




8. Figura (I)



8. Figura (II)



8. Figura (III)



8. Figura (IV)

Esan gabe doa, kontaezinak direla egin litezkeen zuhaitzak  $-n$  adabegirekin  $n \times (n - 1) \times (n - 2) \times (n - 3) \dots \times 1$  edo?—, bai dialekto kopuruari, bai adabegienari, bai adarren maileri dagokienez; aukeraren maukera murriztuaz doa zehaztasun diakronikoak (eta geografikoak, jakina) gehitzean. Hemen soilik lehen hurbilketa baterako edota hurbilketa estandarren aldaketak lekarzkeen ondorio zenbaiten behin-behineko aurkezpenerako egin dira dagoeneko lanaren hasieratik bertatik esan dugun legez.

Funtsean Bonaparteren dialektoak dira, Z-tik Err askaturik eta A gehituaz.<sup>132</sup> Zuhaitz bitarretan ezinbestekoa delako, dialekto baten pisua berreraiketan haren kopapenaren arabera erabakitzen da; ez da, beraz, berbera adabegi bakarreko Bonaparteren (% 12,5na), Mitxelenaren (% 8,33na) edo Zuazorenetan (% 16,66na) bezala:

DIAL.	LEHEN ZUHAITZA	BIGARREN ZUHAITZA	HIRUGARREN ZUHAITZA	LAUGARREN ZUHAITZA
A	12,5	6,25	25	12,5
B	12,5	6,25	25	12,5
G	25	12,5	6,25	6,25
L	12,5	12,5	6,25	6,25
IGN	3,125	3,125	3,125	3,125
HGN	3,125	3,125	3,125	3,125
MBN	3,125	3,125	3,125	3,125
EkBN	3,125	3,125	3,125	3,125
Z	12,5	25	12,5	25
Err	12,5	25	12,5	25

9. Figura

<sup>132</sup> Aezkerak eta zaraitzuerak Frantzia eta Espainia arteko muga indartu zenean hartu zuten MBN eta EkBN-rekiko autonomia (cf. Lafon 1955, Mitxelena 1964, Zuazo 1998) eta horregatik etorkizuneko proposamen zehatzago eta osoago baterako utzi ditugu (ikus, haatik, atal honetako azken bi zuhaitzak). Badi-rudi, aldiz, Azkue ondoko dialektologo guztiek uste dutela Err eta Z-ren arteko etena larriagoa eta zaharra-goa dela horien artean Ipar/Hego aurkitzen duguna baino; alabaina, ikus beherago testuan 1616-1617ko erronkarierazko gutunen lekukotasuna dialekto horren funtsezko ezaugarri zenbaitez.

Iruzkina goitik behera hasiaz, MEZ da adar gorena 1. eta 3. zuhaitzetan<sup>133</sup> eta EkEZ (Z gehi Err) 2.ean eta laugarrenean. Hala ere, aski ezberdinak dira (1) eta (3), nahiz (2) eta (4), eta horko adabegi bakoitzaren pisua ere horrelatsu dugu berreraiketaren: (1)-en B-k % 12,5ekoa luke, baina halako bi (% 25) (3)-n. EkEZ berreraiketaren gidari nagusia litzateke (2)-n eta (4)-n baina ez (1) eta (3)-n; gainera, G-k % 25 (1)-en, erdia (2)-n eta laurdena (3)-n eta (4)-n. Azkenik, Bonaparteren lau euskalki nafarrek ez dute inongo alderik, oso beheko adarretan baitira kokaturik eta txikiak L-k ere: % 12,5 (1, 2) - % 6,25 (3, 4).

## 5.2. Lehen adarkatzeaz eta ondokoren batzuez

Ba ote arrazoirik baten edo besteren alde? Ez zait bururatzen B-ren edo (Er)MEZ-ren zein berrikuntza bereizle erabil litekeen horien lehentasunaren alde eta Zuazok (1998) bere mendebalaren<sup>134</sup> ezaugarrien aurkezpenean emandako 20en artean hainbat modernoak dira —cf. “(2) txistukari sail bien neutralizazioa”— edo, zehaztasun gehiagoren faltan, itxura hori dute: “(1) *-ea > -a* bilakatzeko joera”, “(7) Erakusleak izenaren ezkerretara eta eskuinetara erabiltzeko joera”.

Z-ren edo EkEZ-ren alde seigarren bokala (/ü/) erabiliko bagenu Err-ekin zailtasun larriak bide genituzke adar berean kokatzeko.<sup>135</sup> Badira, ostera, hainbat ezaugarri (monoptongazioak, *u > i* bilakaerak, bi hots horien arteko asimilazio kateak...) goiko MEZ-ekoak baino zaharrago diruditenak.

Ezaugarri bereizleen artean dira markagarririo /l/ eta /n/ ondoko leherkarietako fenomenoak: Err *altare*, Z *alþá(r)e* : orok. *aldare* (B *altara*), Err-Z *boront(h)ate* : orok. *borondate*, Err-Z *alt(h)e* : orok. *alde*, etab. Ohiko azalpenak Z-k eta Err-k egoera zaharra gorde dutela —baita gainerako euskalkietako *hilko*, *Jainko* eta horrelako gutxi batzuk ere— eta enparatuek berritu dutela diosku; horrenbestez, balirudike, arkaismoa izanik, ezaugarri hau ezingo genukeela Z eta Err-en nortasunaren alde erabili. Alabaina hau ez da honela (cf. §3.2, 7) eta berdintsu litzaziguke noski —bi multzo soilekin arituz— ErMEZ osoa EkEZ-etik berezi den ala, kontrara, hau ErMEZ-etik.

Aitzitik, bada aspalditik datuok azaltzeko beste modurik ere:

Hay dos maneras de interpretar estos hechos [l, n/ ondoko ahostuntzea, alegia]. La más natural parece pensar que en vascuence se ha llegado a neutralizar la oposición sorda / sonora detrás de nasal y l sonorizando en esa posición las oclusivas sordas con posterioridad a la introducción de los primeros préstamos latinos: ronc. y sul. serían por tanto dialectos arcaizantes que han conservado mejor el antiguo estado de cosas. *Pero acaso se pueda suponer también que se trataba de un tipo de lengua en que la oposición quedaba suspendida en esos contextos, en los cuales las oclu-*

<sup>133</sup> Zuhaitzen arteko diferentzia nagusia honetan datza: Erdialdeko Euskara nondik ateratzen den, Mendebaldekotik (2, 4) ala Ekialdekotik (1, 3); hots, hurrenez hurren, EkEZ ala MEZ bereizi den lehenago EBZ-tik. Ikus 152. oharreko 2. ahapaldia.

<sup>134</sup> “Bizkaian, Gipuzkoako Deba arroan eta Arabako eremu euskaldunean egiten den hizkera” (1998: 203).

<sup>135</sup> Bidenabar, noizkoa da /u/ > /ü/ frantsesez eta gaskoieraz? Peillenek (1992: 252) xiv. menderako zubereraz emana zela diosku; baina noizdanik ote?

*sivas se pronunciaban uniformemente sonoras (o lenes). En este supuesto, las nuevas formaciones y los préstamos que presentaban grupos formados por nasal o l + oclusiva se seguirían acomodando por bastante tiempo al tipo normal, siendo el roncalés y el suletino los dialectos que primero abandonaron esta práctica.* Esto quiere decir, naturalmente, que *alte* y *galte* p.ej. eran palabras complejas que habría que analizar *al-te* y *gal-te* del mismo modo que según toda probabilidad *igante* era *igan-te* (FHV 355; etzanak neureak [JAL]).<sup>136</sup>

Marka bedi —dakidala, Mitxelenak ez bestek geroztik bigarren aukera garatu ez arren— Err eta Z berritzaile egiten dituen hurbilketa hau koherenteagoa dela AE-rako proposatu fortis / lenis oposaketarekin eta baita Trasken (1995)-eko legearekin: atzizkiren batean ahoskabe / ahostun txandakatzea ageri denean, ahostuna da alomorfo zaharra (*de/te, di/ti, gi/ki, do/to*, etab.);<sup>137</sup> horrezaz landa, badirudi kokagune berean (/l, n/ ondoren, baina ez /r/ ondoren) txistukariak EH osoan berandu arte frikari (= lenis AE-n) ahoskatu izanak ere gorago eman Mitxelenaren bigarren azalpenaren alde egiten duela.

Ezinutzizkoa da, orobat, Rohlfesen analisia (1977: §§445-446 eta 448-451) gaskoieran eta aragoieran herskariak izandako bilakabideaz: bokalartean ahoskabeak ahostun bilakatzen ez diren lurralde bertsuak, *p, t, k > b, d, g* aurkitzen dugu *l, r* eta sudurkari ondoren, hitz-akabuez landa:

Sur les versant français cette prononciation est presque générale dans les trois vallées de Barétous, d’Aspe et d’Ossau. Il y a encore quelques rares exemples (*aude, croumba*) dans les villages situés entre Oloron et Tarbes (v. Saroihandy, p. 20). Au nord de Pau ce fait semble aujourd’hui inconnu. En Espagne l’aire embrassant ce phénomène est beaucoup moins étendue (§450)

Hori aski ez balitz, *ld, ng, mb > lt, nc* eta *mp* bilakatzen diren lurraldea ere oso zabal dugu: Lavedan, Bigorra eta Aure ibarrak Pirinioetan, iparrean Akize arte (eta inoiz harago) eta Landak ia osorik Golkoan. Bilakabide hauek hiperzuzenketa gisa azaltzen direlarik, Rohlfesen ondorioak garbiak dira, lehenago Saroihandyk bezala ahostuntzea “influence de l’ancien substrat indigène” gisa berariaz aldarrikatuz.

Baliteke, beraz, Err eta Z berritzaileak nahiz arkaistak izan —eta badirudi lehenaren aldeko aukerak sendoak direla—, *l-n* ondoko herskari ahoskabeen tratamenduan diren ezberdintasunak aski zahar eta garrantzitsu izatea EkEZ ErMEZ-etik bereizteko; gainera, horren kronologiaren arabera, EkEZ adabegia litzateke zaharrena, gero horren barnean aski goiz bereizi zirelarik Z eta Err.

Izan ere, honelatsu dugu sailkapen kladistikoaren jokamodua:

Cladistic subgrouping thus relies on relative chronology to determine what changes are diagnostic for subgrouping and what changes are the result of convergence or parallel/independent development (...) Theoretically, a single change is

<sup>136</sup> Ondoren, Err eta Z inguruko erromantzeek herskariok ahostun bilakatzek dakarren azaldu gabeko arazoa aipatzen du; ez dakit arazo hori ez litzatekeen arinagoa berrikuntza Err eta Z-rena dela pentsatuz, ez alderantziz: izan ere, horrela ulertuz eremu berritzailea erdian (Err, Z) eta arkaistak bazterretan (ekialdeko erromantzeak, erdi-mendebaleko euskara) genituzke.

<sup>137</sup> Cf. Lakarra (2012c) eta (prest.-7) hatsarri honi gramatikalizazioaren azterketan ateratako zenbait etekinatarako.



enough to divide speech communities in this model, and to produce a split in a family tree (Boweren & Koch 2004: 4; cf. 57. oh. eta testua).

Bowernek eta Koček berehalakoan aitortu bezala, praktikan ezaugarri bat ez da aski izan ohi, noski, eta pisatu beharra izaten da delako berrikuntza bat nahikoa garrantzitsu izan den edo ez sailkapenerako. Hizkuntzalariak hautatu beharra du usu:

Which of the changes should count for subgrouping? Strictly, it should be the first change, for that is the change which produced a split in the subgroups. The second change would then have to be classed as convergence, parallel development or borrowing. In such cases, we can treat chronology strictly (i.e. the first change serves to mark the split and subsequent changes are treated as inter-language diffusion or convergent development) or we can ignore the change for the purposes of subgrouping and treat the change as tantamount to reflecting a dialectal issogloss in the reconstructed parent language. The family tree model is, after all, a convenient summary of major splits and relationships and not an exhaustive representation of every change in a language's history (Boweren & Koch 2004: 4).<sup>138</sup>

EkEZ adabegi nagusiaren aldeko beste ezaugarriren bat ere bada: *au* > *ai*, *alegia* eta baita *eu* > *ei* ere, nahiz eta hau bistako arrazoiengatik (cf. *FHV* §4.7a) urriago izan. Kronologiari dagokionez aldaketa ez da berrienerarik, §4.4-n esan bezala, soilik hori gertatu ondoren jazo baita *l\*/wh/* > */f/*: *gauza*, *gau*, *afari* > Z-Err *gaiza*, *gai*, *aihari* (< \**gau-hari*); cf. *janhari*, *barazkari* < *baratze* + *hari*, *askari* (< \**arrats* + *hari*), etab.<sup>139</sup>

Gure hautu honekin —EBZ > ErMEZ + EkEZ, edo (gero ikusiko dugun aukera bat aitzinatuz) X > EBZ [> MEZ + ErEZ] + EkEZ— bat dator Iñaki Caminok az-

<sup>138</sup> Ez nuke ahaztu nahi hautuez, batez ere —historia ezagutuahala— horiek kronologia eta geografia ezberdineko berrikuntza multzo bilakatzeko gai garen neurrian; ikus §§3.2 eta 4.6 zenbait aditz laguntzailearen era horretako analisietarako.

<sup>139</sup> Beste baterako uzten ditut itxuraz berankorrago diren *i-u* > *u-u* eta *-i*, *-e*, *-u* nahasketak. Testuko ondorioan urrutu gelditzen naiz Zuazorenentarik, ezinbestean irizpideak ere urrutu baitira:

El momento álgido de la fragmentación dialectal se encuentra, tal vez, entre los siglos XI y XII, al producirse la fractura del Reinado de Navarra. Parece ser, sin embargo, que el área occidental se había distanciado del resto de las regiones vascas en una época anterior, quizás hacia el siglo VIII (2010: 163).

He de decir, en segundo lugar, que el dialecto occidental es con mucho el más divergente, el que mayor número de cambios lingüísticos ha producido. Eso parece indicar que fue, tal vez, el primero en desgajarse del resto de los dialectos. Es posible que el alejamiento de Alava y Vizcaya del Reino de Navarra, y su acercamiento al Reino astur, en el siglo VIII, y, más tarde, al Reino de Castilla, tenga algo que ver con ese hecho (2010: 192).

Ez dut ikusten zein den baieztapen horien frogabide linguistikoa, ez baita aldaketa ez ezaugarri zahar historiaurreko bakar bat ere ikertzen horretarako eta egoera modernoari buruz izan ditzakegun usteek (are egoera horren neurketa zehatzek ere) ez digute esku handirik ematen garai zaharragoen berri izateko; aldaketak dira berreraiketaren oinarrian, ez “fotografia” estatikoak; ikus 8. oh. eta hango erreferentziak eta baita Post-engandik hartutako §5.3-ko aipua zuhaitzaren egitekoaz.

Halaber, §2 atalean Mitxelaren EBZ-ri buruz esan bezala, historialarien argudioak gure egin aurteik, komeniko litzateke dagokigun lana egitea, hots, ezaugarri eta baldintza linguistikoen azterketa agortzea, ondorio linguistikoa ateratzeko asmorik bada, bederen. Honek ez du kentzen, jakina, historialariek dioskutena oso interesgarri izatea (are beharrezko) baina hizkuntzaren bilakabidearen azterketa-rako eraginkor izan litezkeen terminoetan eta momentuan. Bestela arazoa (niretzat, funtsean, euskararen sistema ezberdinen bilakaeraren kronologiarena) sasi-azaldu egiten da, estali edo saihestu, planteatzen hasi baino lehen; cf. Sims-Williams (2012) beste askoren artean.

ken urteotan burutu duen ekialdeko hizkeren inguruko ikerketa sakon eta mamitsuua:<sup>140</sup>

Jakin nahiko genuke Zuberoako euskarak nora begiratzen zuen gehiago, eta hori berrikuntzen datazioaren bidez edo kronologia erlatiboaren bidez jakin daiteke, baina xiv. mendeko datuen interpretazioa anbigua da. Halaz guztiz ere, ez da zertan pentsatu gauzak honela izan ez zirenik: egon zitekeen Zuberoa sasoin batez bi alderdietara begira eta ondotik, garai jakin batetik honata, Ipar Euskal Herrira gehiago begiratzen hasi eta Erronkari alderdira ordu arte bezainbat ez begiratzen hasi. Nolanahi ere den, datu absolutuen bidez ez dira hizkuntzako ilungune guztiak argitzen ez hutsune guztiak betetzen, ziur aski ezaugarri hauen datak ere ez direlako behar bezain zehatzak (Camino 2012: §2.6).

Z-k eta Err-ek arkaismoak gorde,<sup>141</sup> berrikuntza propioak garatu eta inorenak errefusatu dituzte beren historian zehar, gainerako euskaldunekin hartu-eman handirik ez zuten seinale (2012: §6.1). Azkuerekin Z eta Err arteko desberdintasuna L eta G-rena bezainbatekoa zela pentsatu arren, Caminorentzat Err izan da Z-ren bidelagun:

Gure interpretazioan, Euskara Batu Zaharretik honat, Zuberoa-Erronkariak laster gelditu ziren beren dinamika berezian, ezaugarri batzuetan geldirik, beste euskaldunen multzoek franko berrikuntza egiten zituzten bitartean, beste multzo guztiak batera —edo bestela zatika nahiz multzo berezien gisa— berriztatzen zuten bitartean. (...) denboran gaindi Zuberoak eta Erronkarik berrikuntza franko partekatu dituzte eta horietarik batzuk ekialde zabalagoan ageri dira, usu Zaraitzun eta inoiz Amikuzen ere (Camino 2012: §8.1).<sup>142</sup>

Horrenbestez, “Erronkarik eta Zuberoak hizkuntza batasun nabarmena dute” (Camino 2012: §8.3) eta —logikoa den bezala xvi. mendez gozotiko historia bu-

<sup>140</sup> Dagoeneko hainbatetan erakutsi dudan legez, irizkide naiz honetan ere Iñakiren oinarritzko bi irizpideekin: “Egungo ikuspegian, nortasun handieneko aldaki dialektalak, berezko ezaugarri gehien dituztenak, saihestekoak dira eta Euskal Herriko mendebalean eta ekialdean daude” (§2.2) eta “berrikuntzez gain, iraganeko eta iraganetik honatako errealitatea ezagutzeko, ezaugarri zaharrez informazio ahalik sakonena edukitzea interesatzen zaigu, analisi zuzenak eginen baditugu, bederen; izan ere, hizkuntzaren ibilbidea argitzen digute batzuek bezala besteek ere, hizkuntzan gertatzen diren jokabide aktiboak eta pasiboak erakusten dizkigute” (§2.4).

<sup>141</sup> Cf. “Euskal Herriko ekialdeko mintzoetan arkaismo anitz batera agertzeak zer adierazten duen galdegin beharko genioke guhauen buruari; bestalde, arkaismo horiek guztiak ondoko eskualdeetan ea zenbat iraun zuten jakin nahiko genuke, iduri baitu Euskal Herriko beste alderdi batzuetarik iritsi diren berrikuntza batzuek orain ekialdera bildurik bezala ageri diren ezaugarri zahar hauen hedadura murriztu dutela. Iduri luke Zuberoa ondoko Ipar Euskal Herriko eskualde batzuk erdialdeko euskal mintzoekin hartu-emanetan hasi zirela, esaterako Garazi ibarra; Beñat Etxepareren hizkuntza-ezaugarriek salatzen dute hori. Aldiz, Zuberoa-Erronkari alderdiko euskal erkidegoko hiztunak, pentsa liteke sozio-historikoki eta ekonomikoki gainerateko euskaldunengandik goiz bereizi zirela, edo aspaldixkotik bereizxe ibili zirela segurik” (Camino 2012: §2.5).

<sup>142</sup> Cf. “Zaraitzu eta Amikuze ibarrak ekialdeko euskararen eragin-eremutat jotzen ditugu, ez dira ekialdeko euskararen gune-gunea; daturik ezak ez du bi ibar hauen iraganaz uste sendorik izateko aukerarik ematen” (Camino 2012: §2.4). Patxi Salaberri Zaratiegik diostanez, zaraitzuarrak ere jaisten ziren Bardeara eta batzuetan baita hor bizitzen gelditu ere eta, beraz, “segurua da hauek behintzat harremanak izan dituztela, franko eta jarraituak, gainerako euskaldunekin xix. mende arte”.

ruan—, “gure datuek Zuberoa eta Erronkari ibarrak aspaldian egun baino franko baterago zebiltzala frogatzen dute” (Camino 2012: §1). Izan ere, batasun horren jaiotza ezin izan liteke “1545tik 1676 bitarte[koa]” eta “lehenagokoa dateke ekialdeko ezaugarri sorta hori, beraren oinarrian ez dago Etxepareren edo Leizarragaren euskara moldea” (Camino 2012: §2.3).

Gure ustez Zuberoako eta Erronkariko euskal erkidegoak goiztar bereizi ziren gainerateko euskaldunengandik: Euskara Batu Zaharretik honat ibarrotan iraun duen arkaismoen sorta gotorrak bederen, hori adierazten digu (Camino 2012: §1).

Hizkuntzaz denaz bezainbatean, ezaugarri zahar anitzek bereizten dute Zuberoa ondoko mintzoetarik edo bertan luzazago iraun dute. Tasun zahar anitzetan Erronkari ere kide du Zuberoak (Camino 2012: §9.2).

Caminok markatu Z eta Err arteko hurbiltasun diakronikoa beste alderdi batetik ere indartu genezake: hartzen baditugu Miguel Ros erronkariarrak Gabriel Etxart zuberotarrari 1616-1617 bitartean bidalitako gutunak (cf. Bilbao *et al.* prestatzen), Bonapartez geroz dialekto horretan hain berezkotzat jotzen ditugun—eta euskaldun gehienei hain harrigarri egiten zaizkien— ezaugarriak ez dira ageri:

*emayten vaytizu* (12a), *errionec* (12a), *gutun auor* (12a), *erriorren eta onen ar-tean* (12a), *gauza huec* (12a), *erriortaco* (12a), *ertinen dira* (12a), *vista buetan* (12a), *artaco* (12a), *ertinen gara ara* (12a), *Aor viz al den secretena* (12a), *guc ala eguin* (12a), *eta onequi* (12a), *Jayncoa dela çurequy* (12a), *yl onena* (10), *scribazten didaçu* (10), *gure erriari leytu dut* (10), *artaco* (10), *aren revocazeco* (10), *Françiaco consejuara* (10), *molde ontan* (10), *erri ontaco genteac* (10), *erri onetan* (10), *ezta deus ola caso onzaz tratacen* (10), *nola vaita aor eguia* (10), *eta aor ezta ongui* (10), *eta ala* (10), *eci guc ala* (10), *ecin çufri dirola* (10), *cuec içanen ciradey* (10), *eguin cirela* (10), *içan ezpaciren* (10), *ceren ura ezpaita* (10), *gauza aconteçiçen direnez* (10), *eta ala huec guciach* (10), *aremedia dirozquey* (10), *ainverce gastu* (10), *arroitu vagueric* (10), *du-ten* (subj.) *vaqu[e]ja* (10), *ala nay nuque* (10), *erri onec ere ala nay* (10), *aynbat arraçoçy* (10), *respuesta aor eguiten diçut* (10), *mensajero onequi* (10), *gutun aor* (10), *aor da* (10), *gauça huec* (10), *yl onen* (11), *ari referizen naiz* (11), *ala dago* (11), *ala eztuçue cumplitu* (11), *çer erriortaco diren* (11), *nongo diren* (11), *hayen medioz çiren* (11), *aynberce dirade* (11), *eta onequi* (11), *emendi amar legoan* (13), *yl onen* (13), *Iruñian* (13), *governaceco erri onen* (13), *artan yquissiren çinuela* (13), *vazaquiela arch cer potere* (13), *errionech eztu* (13), *eztirade* (13), *erriontacoach erriortan* (13), *emen eguinten* (13), *aor vear duçu* (13), *onzaz abissazen zaitut* (13), *aor eguiten* (13), *artaco* (13), *errionec* (14/16), *alaco comisioneric* (14/16), *verce gutun etan* (14/16), *arrazon aor* (14/16), *ayn entelegaturic* (14/16), *erriortan* (14/16), *gauza huec dirade* (14/16), *ala errionec eztu nay* (14/16), *eguiteco ayn andiric* (14/16), *ala nay* (14/16), *ala eguin* (14/16), *ala erraten diçut* (14/16), *errionec* (14/16), *comisioneric gauça guengatic* (14/16), *erriontacoerr* (14/16), *errionec eguinic* (14/16), *erriortan* (14/16), *erriontaquez* (14/16), *erriortara* (14/16), *consellu andiara* (14/16), *çunenara* (14/16), *aor da molde ona* (14/16), *erriontacorric* (14/16), *guiren preso* (14/16), *erriortan* (14/16), *gauça galanta da aor* (14/16), *aor ez-tute* (14/16), *garen* (14/16), *dugun* (14/16), *ala vere esera* (14/16), *erran digot* (14/16), *emengoez* (14/16), *onequy* (14/16), *erri ony* (14/16), *emereçu* (15a.1r), *errionen* (15a.1r), *eta ala* (15a.1r), *ayetan* (15a.1r), *agot oñaren* (15a.1r), *ygorri derautaçu* (15a.1r), *mensajero onequi* (15a.1r), *ala nic otoy eguiten*

*diçüt* (15a.1r), *eraman dutena* (15a.1r), *aren criadoac* (15a.1r), *erran çigon* (15a.1r), *emendic jiten* (15a.1r), *hec dute* (15a.1r), *al fin urac diride* (15a.1r), *seyheun* (15a.1r)

Lekukotasun berri honek erronkarieraren bilakabideaz dakarkigunean bada, jakina, zer zehaztu, baina ez da zalantzarik erakusleetao belarearekikoak —dozenaka  $\emptyset$ -ren aldean den bakarrak (14/16) *g*- du [eta Sarasola (1983: 105-106)-ko 1569ko auzi bateko bakarrak  $\emptyset$ -: *eta aren semeaz*]— (ik. 73. oh.), aditzetako bokal erorketak eta kontsonante talde aipagarrien (/zr/, /dr/, /gr/) sorrera, edo aditz laguntzaile zenbaiten eraldaketaren datak berrikusi beharko ditugula (cf. Lafon 1955, Mitxelena 1953, 1954b, 1964, etab.). Hori, Err iparraldeko euskalkitik (ez mendebaleko eta hegoaldeko euskaratik) argiro bereizten duten ezaugarri dagokienez: datiboko komunztadura hautazkoa edo *-ara* destinatiboan edo zenbait subjuntibo sintetiko hor dira, aldiz, berrikuntza komun nahiz arkaismo, Err Z-rekin eta gainerakoekin lotuaz.

Izan, baliteke EBZ eta EkEZ-en artean tarteko hizkuntza egoera bat edo gehiago izatea Caminok galdetzen duen bezala, horrela pixkanaka EkEZ, hasierako kideak galduaz, historikoki aurkitzen dugun egoerara iritsi bitartean:

Ez dakigu Zuberoa-Erronkariko mintzo berezia Euskara Batu Zaharretik zuzenean eta lehen garaian bereizi ote zen, ala Ipar Euskal Herriko ekialde zabaleko multzo handixko bat egon ote zen, Euskara Batu Zaharretik bereizi zena, eta ondotik Zuberoa-Erronkarietako ezaugarri berezi lokalagoak gauzatu eta bi ibar hauek ekialde zabalagoko multzo horretatik bereizi ote ziren. Dakiguna da, arkaismoen maila gotorrena ekialde murriztean gordetzen dela, Zuberoa-Erronkarietan, eta bi ibar hauek berrikuntza eksklusibo partekatuak ageri dituztela, testuak abiatu baino lehenagoko berrikuntzak (Camino 2012: §9.2).

Aukera teoriko horrek –EBZ edo tarteko hizkuntza-egoeren aniztasunak— bezelaki diakronikorako eraginikortasun handirik ez du: hori da hipotesi nulua edozein hizkuntzatan eta are edozein hizkuntza egoeratan —alegia, hizkerak etengabe banatzea, gu ohartu zein ez ohartu— eta, beraz, froga positiboagorik ez den bitartean (eta Caminok ez omen du horrelakorik aurkitzen [2012: §9.2]) hobe dugu gainerako aukerak astiro miatu. Gainera, ondoko zuhaitzetan bezala, ipar-hego doazen isoglosa eta dialektoetan oinarritzen badugu azalpen diakronikoa —Z-Err edo B mendebal-A mendebal bezala— EkEZ eta EBZ-ren artekoa ezingo litzateke “iparraldekoa” izan, jakina, mendebaleragoko horrelako lurralderen bateko (edo batzuetako) hizkera geruza erantsia(k) baizik, hots, BN-GNekialde edo hori eta L-GNmendebal baizik.

MEZ-en berrikuntza zahar ezagun bi bururatzen zaizkit, *-a* + *-a* > *-ea*<sup>143</sup> eta *egin* laguntzailea (bigarren hau ez hain aspaldikoa, segurki). Biek hartzen dituzte oso-osorik B eta A eta baita G-ren zatirik handiena ere. *Egin*/\**ezan*/\**iron* hautapen gisa aurkeztu ohi da baina (cf. §3.2) horien distribuzio orokorra kontuan izanik, “hautapen”

<sup>143</sup> Honek hitz bukaeran —eta hor da askorekin agerraldi kopuru nagusia (cf. *ári* < *aari* - *alabea* < *alaba* + *-a*— artikuluaen sorreraz geroztikoa izan behar du, ix. mendetik aurrerakoa edo (cf. Lapesa 1961, Azkarate & Altuna 2001, Manterola 2006, besteren artean).

\**au* > *au* jazoten da B-ren \**edun* aditzean, gainerako guztietako (A barne) \**au* > \**eu* (> *eh/ü*)-ren aurka; baina hori arkaismoa dugu —arkaismo erlatiboa, noski, \**d*<sub>2</sub>- >  $\emptyset$  pairatu baitu— eta gainerakoak berrikuntza erraxak, poligenetikoak, beharbada. Ez dira ezezagun \**eu* > *au* zenbait ere (Nafarroako hainbat tokitan, demagun) baina franko berankorrago dirudite.

hori berankorra da edo, zehatzago, ez da hor hautapenik, hainbat berrikuntza bata bestearen ondotik baizik eta are ahulago bide genuke datiboko laguntzaileen historia (cf. §4.6).<sup>144</sup> Halere, hiru esparru hauek MEZ-etik ateratakotzat jotzea hobetsiko nuke eta ez soilik lehendabiziko biak, G Erdialderako geldituaz, §5.1eko (3). eta (4). figuretan bezala. Izan ere, ez da aztertu G noizdanik onartu beharko genukeen euskalkizat baina berankorrenetarik izan dela iruditzen zait Zuazok (1998: 217) harenztat ematen dituen ezaugarri definitzailetarik atera gabe:

- |   |   |
|---|---|
| 1. <i>-a</i> berezkoen egonkortasun eza;            | 5. <i>f &gt; p</i> bilakaera;                       |
| 2. * <i>edun</i> -en orainaldiko <i>-e</i> - erroa; | 6. <i>nor/zein &gt; zein</i> ;                      |
| 3. <i>izan</i> -en orainaldiko <i>-e</i> - erroa;   | 7. <i>nijoa</i> tankerako <i>joan</i> -en adizkiak; |
| 4. <i>d &gt; r</i> bilakaera [bokal artean];        | 8. <i>al</i> galdera partikula                      |

(2), (3), (4) eta (5), bederen, Arabako euskararekin batera ditu G-k eta (8) ez da agertzen XVIII. mendearen azken bigarren hamarkada arte (Ubillos arte, alegia, cf. Mitxelena 1981b: 671); (1) ere soilik XVIII-XIX.etan areagotu bide da, Hegoaldeko gainerako hizkeretarik bereizgarri edo markagarri bilakatzeko punturaino... Aldiz, A-k B-rekin batera dituen berrikuntzak askozaz zaharragoak dira (ikus beherago testuan); baita hirurek batera dituzten *-a + -a > -ea* edo *egin* laguntzailea ere.

L-ren kokaguneaz zeresan handirik ez dut: horren berrikuntza bereizleak gutxi eta berankorrek dira Zuazoren analisisian (1998); alabaina, ez da ezaugarri anitzen beharrik dialekto bi bereizteko. Zuazok (1998), ordea, Bonaparteren BN biak eta L eremu bakartzat ditu baina harritzen nau L = BN berdinketa horrek, aspaldidanik ezagunak baitira, gutxienez, bigarrenaren berrikuntzak —monoptongazioak (*nauzu > nuzu*, *gaitu > gitu*...), *gira*, *zira izan*-en, *-a*- lehenaldian (*zagon*...) *-e*- orainaldian (*derama*...), *-er* datibo pluralean...—, gorago aipatu \**iron* laguntzailearen erabileraz landa... hauetariko asko Z eta Err-rekin batera. Bereizkuntza horiek guztiak berrikuntza edo hautapen aski zaharrak dira,<sup>145</sup> historiaurrekoak, asko...; nago, BN eta L-ren artean bereizkuntzarako arrazoi diakroniko gehiago badela, behintzat G eta ingurukoenean baino. “Navarro-labourdin litteraire” delakoaren eragina ezaguna da, noski, baina hori hizkuntza idatziaren fenomeno dugu, ahozkoan hutsaren hurrengoa dena eta azken garaiotan bateratze prozesu batean sartuak edo balira ere, erlazio genetikoak, goitik behera datozen adarrak eta hauen hierarkiak ez dira difusioaren marra horizontalekin nahasi behar.

Bigarren edo hirugarren mailako adarkatzea genuke ERME (= G + L) eta ez dakit zein berrikuntza komun bereizle zahar genituzkeen horrelako adabegi baten alde, hots, bi horiek eta ez bestek dituztenak. Eta iruzkina bera edo bertsua bide litzateke G eta NE kide hurbiltzat hartu eta L bi horien beheragoko adarren batetik ateria baillitza ulertuaz. Hortaz, ez dakit argudio argirik den G-ren “erdialdetakosunaren” alde. Orobat, ikuskizun da EREZ-ak zer aurkez lezakeen EkEZ-tik bereizteko, hertsihertsian bere ezaugarri bereizle soilak (MEZ-ekin bat ez datozenak) erabiliaz.

<sup>144</sup> Bada beste arrazoi bat ere MEZ adabegiaren lehentasunaren alde mintzo dena, itxuraz: Objektuko Komuntzadura Falta, alegia, B, A eta G-n gertatzen baita, A-n enparatuetan baino hedatuago, hori bai; cf. Lakarra (1986b), (2004). Baliteke, ordea, berrikuntza paraleloen aurrean izatea.

<sup>145</sup> Ohar bedi *zaitu*-tik Err eta Zar-en *ztu*-ra iritsi behar dugula eta *zütü*-ra Z-n, testuan aipatu *i-u > u-u > ü-ü* bilakabidearen bitartez.

Azkenik, nahiz ez den orain gara genezakeen gaia, begi-bistakoa dugu dialektok sortu eta desagertu egiten direla eta pentsatzekoa da, beraz, hori bera gertatu dela behin eta berriro euskalkiekin ere, are EBZ-z gerotik (eta egunotako euskara batuak lekarkeena baino lehen): ikus §3.4ko Garretten gogoetak indoeuropearen dialektuez eta 109. oharra eta dagokion testukoak gaskoiaz eta euskararen mendebaleko hizkeraz. Labur esatearren, Arabako euskara G eta are B baino zaharrago bide da eta kronologia diferentzia honek baduke zerikusirik inoiz sinkronia modernoetarik abiatu aipatu den A-ren ezaugarri bereizleen eskasiarekin edota “trantsizio hizkera” gisa ikusi izanarekin. “Trantsizio h.”, bidenabar, ez dirudi inola ere deitura edo sailkapen diakroniko egokia izan litekeenik. Baina beude gogoeta hauek guztiak hurrengo baterako.<sup>146</sup>

### 5.3. Adarkatze bitarra, isoglosa zaharrak eta aitzin-aberriaz

Azken mendeotan Frantzia aldeko eta Espainia aldeko hizkerak banatuaz joan dira guztien ustez, baina muga politiko horren eragina berankorra da —oso berankorra gure kronologia partikularrean. Mitxelenak 1964an eman zuen taula ezaguna begiratzen badugu (SHLV 15-19), oso nabarmena da isoglosa zaharrak ipar-hego doazela —Err-Z *u-u* (< *i-u*)<sup>147</sup> : Zar *i-u*, Err-Z *ai* (< *au*) : Zar *au*—, horrela lurraldeak beren mendebalera eta ekialdera banatuaz. Isoglosa berriagoak —Err-Zar bokal erorketak : Z bokalak gorde, Err-Zar *h > ø* : Z *h*—, aldiz, mendebal-ekialdera doaz, Frantzia eta Espainiaren arteko mugarekin bat eginaz, gutxi gorabehera eta, ondorioz, iparraldera eta hegoaldera sortzen dira hizkuntza eremu ezberdinak. Ikerketa zehatzagoak beharrezko izan arren, azken hizkuntza banaketa hauek XVI. mendeaz gerotikoak behar dute funtsean, orduan gogortzen baita muga hori eta, alderantziz, gertakari hori baino lehenagokoak lehendabizikoak.<sup>148</sup>

<sup>146</sup> Hurrengorako gelditzen dira, orobat, A-ren “trantsizio hizkerarena” ez eze baita, demagun, Caminoren lanetan, ezinbestean, Z-rekin batean usu agertu Amikuzekoarena eta enparatuena ere. Alabaina, testuan beherago (10. Figuraren ondoan eta §6.ren hasieran) txertatu egilearen gogoetekin batera hausnartzeko eman nahi nuke Posten ondoko hau, iruditzen baitzait badukeela interesik gerorutzen dugun horretaz (eta eskuartearen darabilgunaz):


(...) the data ultimately show that Galo is indeed a Western Tani language as Sun had proposed, in the sense that it shares the *primary phonological innovations which exceptionally define a particular ancestral language* Proto-Western-Tani in opposition to Eastern Tani. It thus necessarily descends genetically from this language rather than from any other (Post 2012: 88; etzanak neuk jarriak [JAL]).

Nago irizpideak berberak liratekeela berrikuntzak morfologikoak izanik ere, demagun testuan behin baino gehiagotan aipatu *egin* laguntzailea beren gramatikan duten euskalkiak gainerakoen aurrean talde berean sailkatzerakoan.

<sup>147</sup> Caminok (2012: §2.6) eta lehenago Peillenek oraindik xiv. mendean gauzatu gabe zela diote. P. Salaberrik diostanez, oraindik ere *Iturribeltza* dago Bidankozen (ez \*\*U-) eta haraneko beste herri pare batean ere horrela, “behar bada *uturri*-rekin txandaketan”.

<sup>148</sup> Horrela, bereziki, FHV 160-161ean eta aipatzen diren testuinguru ezberdin askotako bokal erorketak: Zar-Err *tenbraltenpra*, *kandra*, *-tra*, *-trikl-truk*, *gra*, *zra*, *zren*, *dra*, *nablalñabla*, *erden*, *ztu*, *ztiel ztei*... §5.2ean ikus litekeenez, ez dugu horien arrastorik aurkitu 1616-1617ko gutun erronkariarretan, XIX eta XX. mendeetako lekukotasun eta deskribaketetan orokorrak izan arren.

Hortaz, isoglosa zaharrak iparraldetik hegoaldera —edo ipar-mendebaletik hego-ekialdera— etorri badira eta dialekto zaharrenen egituraketa bilatu nahi bagenu, nago “B”, “G”, “L”, “GN”, “BN” eta “Z” bezalako deiturak (geografia politikoari lotuak, ez geografia linguistikoari) burutik kendu —ikus §3.4 akabuko gogoetak— eta beste honakoak edo antzekoak landu beharko genituzkeela: MEZ (= Mendebaleko Euskara Zaharra), EkEZ (= Ekialdeko Euskara Zaharra) edo MEMu (= Mendebalde Muturrekoa), ErEkEZ (Erdi-Ekialdeko Euskara Zaharra)... Irizpide horrekin —eta banaketa bitarra gordeaz— honako zuhaitza izan liteke Erdiaroaren akaburantz edo:



10. Figura. EBZ-ren lehen banaketak

Zuhaitza argitzeko (gogora 38. oharrean eta bestetan esanak), marka dezagun parentesi artean doazenak Bonaparte edo geroagoko dialektologian ohiko diren izenak ditugula Erdialde eta Ekialdean eta beheraka nahiz horizontalean doazen marra hautsiek soilik Erdiaroaz geroztik eraturako dialektok adierazten dituztela. Geziek azken adabegitik banatu ondoren dialektoren batek pairatu edo eragin duen hurbilketarentzat dira (ikus 37-38. eta 109. oh.): horrela L-k BN-mendebalekotik jasoa (?), edota Z-tik Zaraitzu eta Amikuzera legokeena dialektologiek dioskutenez (Camino 2012: §1). Mendebalari dagokionez, ezberdina da De-Ga eta MeMu (= B)-ren artekoa: honako honetan ez da hurbilketa edo bata-bestearen arteko eraginik deskribatu, dakidanez, eta gezi horrek adierazten duena da ohituraz dialekto berekotzat jo ohi direla modernoki, nahiz eta sortzez eta historiaurre luze batean horrelakorik ez ageri eta genetikoki bi adar ezberdinetakoak izan.

Marra bertikalen eta gainerakoen artean den errotiko ezberdintasunaz eta diakronistak alderdi honetan dituen helburuez nik egin nezakeen baino argiago hitz egin du berrikitan Mark Postek:

Our account here thus implies a view of the venerable family tree model not a picture of what languages *are*, but rather as a rough approximation of where they have

*come from.* It is important that family trees are read and understood in this way, in linguistics just as in the other biological sciences. In the same way that a bat can come to in many ways more closely resemble a bird than its rodent ancestor, and just as a dolphin can come to appear more like a fish than a hoofed terrestrial herbivore, human language from distinct genetic stocks can converge via contact and mutual influence to the point of even becoming mutually intelligible, without the facts regarding their origins being thrown into doubt. (2012: 88; hemen, bestetan legez, ez da muntako ezberdinatsunik “hizkuntza” eta “dialektoren” artean).

Zuhaitzaren 14 adarrak begiraten baditugu beren osotasunean, dentsitate geografikoa buruan dugularik, aski garbi dirudi gehienak Nafarroan kokatzen direla (14tik 9; cf. 27. oh.) eta, areago dena, Err, ErdNaf (= L gehi IGN) eta HeMuNa (Hegoalde Muturreko nafarrera) alde batera utziaz ere, bost (Iruñerrikoa, Aezkera, Zaraitzuera eta bi Nafarroa Beherekoak eta sei Err-ekin) Iruñetik Iparraldera lirajteke. Ez da antzekorik —lurralde horiek txikiagoak direla kontuan harturik ere— Jaurerrian, Probintzian edo Araban: hots, hauetan banaketa dialektala aise arinagoa dela dirudi, Ekialdeko Nafarroan, Iruñetik ipar, Aturriraino bitartean denaren aldean.

Hara zer dioskun Campbellek honelako distribuzioei buruz dialektologoen esperientzia bilduaz:

In this model [“Linguistic migration theory”] we attempt to determine the minimum number of moves which would be required to reverse these migrations or spreads to bring the languages back to the location from which their later distribution can be accounted for with the fewest moves. *In this way, by combining the location of maximum diversity and the minimum moves to get languages back to the location of the greatest diversity of their nearest relatives, we hypothesise the location of the homeland* (Campbell 1998: 352; etzana geurea da [JAL]).

Antzeko metodoak darabiltzate Jaggard-ek afroasiatikoarekin eta kutxitikoarekin edo Schuh-ek hausarekin:

The most likely ancestral homeland for Proto-Afroasiatic and its speakers is the (south)eastern Sahara/northern Ethiopia or the contiguous Horn of Africa—this is the centre of diversity where we encounter the most dense concentration of divergent but related AA languages (Jaggard 2011: 6).

Regarding the evolution of the Chadic family itself, one generally accepted scenario is that after Proto-Afroasiatic split up, the ancestral core of Chadic subsequently spread westwards across the Sahara into the Lake Chad basin (Jaggard 2011: 7).

There are two basic (conflicting) theories regarding the source and direction of this Hausa expansion. Sutton (1979) has proposed (...). Schuh (1982: 22ff.), however, suggests the expansion was in the opposite direction, i.e., from the (north)west, the area of greatest dialectal diversity, to the (south)east (Jaggard 2011: 8).

baita Cerrón-Palominok [< Parker eta Torero] kitxuarekin ere:

De los siete dialectos seleccionados —erkaketaz aitzinkitxua berreraikitze—, seis son peruanos, y el restante ecuatoriano. La razón del predominio peruano, lejos de responder a prejuicios etnocentristas, obedece más bien a un hecho innegable: es precisa-



mente en el territorio peruano donde se dan las más intrincadas diversificaciones del quechua (Cerrón-Palomino 1987: 101).<sup>149</sup>

Hor, Iruñearen iparraldera, genuke, bada, EBZ-ren eraikuntza-gunea eta bere he-daduraren abiapuntua? Baliteke;<sup>150</sup> alabaina, lan honetan zehar hainbat aldiz errepikatu dugun legez, hizkeren arteko axolazko banaketak zaharrenak direlarik, ez genituzke seguruenik zuhaitzean mailarik apalena duten modernoek hartu behar analisiaren oinarritzat, justu alderantziz baizik:<sup>151</sup> goiko adarretan baitira lehen etenak, gainerako guztiak baino askoz lehengokoak: zuhaitzaren gailurrera jo beharra dago, bada, EBZ-ren aitzin-aberriaren bila.

Hara iruzkin erantsirik gabe —egilea aski garbi mintzo baita— Juha Janhunenen ondorioak uralikoaren aitzin-aberriaz:

Pre-Uralic → Para-Uralic  
 Uralic → Samoyedic  
 Finno-Ugric → Mansic  
 Finno-Khantic → Khantic  
 Finno-Permic → Permic  
 Finno-Volgaic → Mariic  
 Finno-Saamic → Saamic  
 Finno-Mordvinic → Mordvinic  
 Finnic & Para-Finnic

The organisation of the Uralic family tree: the binary alternative (Janhunen 2009: 65)

The most uncontroversial information on the pre-historical location and movements of Uralic on the map is, however, provided by the internal taxonomy of the language family. *The very fact that the branchings of Uralic seem to become chronologically shallower the farther west we proceed suggests that the main direction of expansion*

<sup>149</sup> Bideñabar, prozedura hau ez dakit ongi egokitzen zaion Cerrón-Palominok berak zenbait al-diz aipaturako gertakariari: “Como se adelantó en el capítulo II, la distribución actual de los dialectos quechuas no corresponde a la que encontraron los españoles en 1532” (1987: 323); cf. §8.2.

<sup>150</sup> Alabaina, «at one time linguists used to argue that the original locus of a mother language could be deduced from the location of its daughter languages, but this was shown to be fallacious» (Sims-Williams 2012: 2; ikus Mallory 1997 eta Nichols 1997 ere).

Lan hau ia amaiturik nuelarik, —edota, noizbait behar eta, aldi baterako amaitutzat emanik—, Juanjo Larrea adiskidearen bitartez jakin izan dudanez, aski bateragarri gertatzen da gure EBZ-ren banaketa eredu hau Mikel Pozok laster burutu behar duen ikerketa batekin; zehatzago, azterketa historikoak aldeztuko luke v. mendean Iruñea eta Pirineoen artean eraketa soziopolitiko berezi bat, hurrengo belaunaldietan mendebalderantz hedatuko litzatekeena —eta gero Iruñeko erreinuarekin lotura zuzena dukeena—. Geroak esan beza... Kitzigarri litzatekeelarik horrelako paralelismo historiko aske bat, badu zeinek bere esparruan egitekorik hizkuntzalaritza diakronikoaren eraikuntza hau frogatutzat eman aurretik.

<sup>151</sup> Jakina, oraingoz gure zuhaitza ez da marrazki hutsa baizik eta horko adabegiak eta aitzin-hizkerak gutxienekoak dira; baziren seguruenik gehiago: cf. Caminok (2012: §9.2 eta hemen §5.2) horretaz agertu zalantzak eta plazaratu galderak; kontua da arrastorik utzi duten edo horiek aurkitzeko gai izango garen.

EBZ-rekin aurreko atal batean (§§4.1-4.7) egiten saiatu naizen legez, ondoko eta tarteko adabegi guztiak beharko genituzke linguistikoki (cf. Petit 2007) —diakronikoki, zehatzago— oinarritu eta zedarritzatu beren kronologia erlatiboak eta, beraz, beren toki eta pisua zuhaitzean islatu ere. Mira egitekoa litzateke nire zuhaitz horretako xehetasun arin eta larri asko aldatu beharrik ez izatea; alabaina, itxaron dezagun zeri kontra egin nahi izan duenari baliagarri gertatzea, bederen.

*has been systematically from east to west.*<sup>152</sup> In other words, the Uralic language family seems to have been formed as a more or less binarily organised hierarchical chain, in which a new branch has always been formed on the western side of the previous ancestral branch. *By the classic principle of linguistic geography this also has to mean that the deepest boundary within the language family must correspond to the original location of the first break-up, that is, the linguistic homeland. This criterion places the break-up of Proto-Uralic in the region which historically forms the boundary between Samoyedic and its immediate Finno-Ugric neighbours (Khantic and Mansic).* The region in question is the borderline between the Ob and Yenisei drainage areas in Siberia, and until the contrary is shown, it qualifies as the most likely candidate for the Uralic homeland (Janhunen 2009: 71; etzanak neureak dira [JAL]).<sup>153</sup>

Geure ardietara etorriaz, horko samoyedoaren eta fino-ugriorearen arteko etena hemen EkeZ (Zuberoa eta Erronkari) eta EkBN (BN Ekialdekoa eta Zaraitzukoa)-ren artekoa litzateke eta hortxe behar genuke kokatu —oraingoz zehaztu ezin genezakeen garaian— EBZ-ren aitzin-aberria.

Goazen orain Guterren (1989: 800) kronologia saiora, datez azken gogoeta egiteko:

200	300	400	1000	1100	1200
<i>p- &gt; b-</i>		<i>n &gt; ø</i>	<i>nt &gt; nd</i>	<i>l &gt; r</i>	<i>ll &gt; l</i>
<i>t- &gt; d-</i>	<i>mp &gt; mb</i>	<i>nd &gt; n</i>		<i>nm &gt; n</i>	
<i>k- &gt; g-</i>					
	<i>mb &gt; m</i>				

<sup>152</sup> Geure kasuari dagokionez, halaber, interesgarria deritzot honako honi ere: “In any case, an unbiased look at the Uralic comparative corpus would seem to reveal a rather systematically westward-branching family-tree, with the division between Samoyedic and Finno-Ugric lying at the foot” (Janhunen 2009: 64-65).


Gure goiko zuhaitzetan ere (ikus §5.1eko figurak) adarreztatzeak mendebaleranzko mugimendua izan zela irudikatuko lukete 2.ak eta 4.ak, baina ekialderanzkoa 1.ak eta 3.ak (bidenabar, ba ote honen alde hizkuntzaz landako argudiorik?). “Euskalduntze berantiarraren” teoria funtsik gabea (funts linguistikorik gabea, alegia, *pace* Abaitua & Unzueta 2011) ez balitz, ez genuke esan beharrik EBZ-ren hedadurak ez dakarrela laguntzarik ezinbestean horrelako ezeri: hots, hizkera komun bat uneren batean zabaltzeak ez dakar inolaz ere lehenago lurralde horietan hizkuntza beraren dialekto zaharragoak ez izana: soilik koinearen hedaduraz geroz mintzatu ote zen grekera hizkera hori erabili zen toki guztietan? (cf. Adrados 1999). Eta mongoliera batua (cf. Janhunen 2003b) soilik lehen mongoliar hizkerarik egiten ez zen lurraldeetan zabaldu ote zen? Banús y Aguirrek ere (1990: 331), uste du vi. mendeko “inbasioan” baskoiek Iparraldean eta Gaskonian *beste euskara baten* gainetik inposatu zutela berena, ez erdaldunen artean.

Espazioan eta denboran hurbilagoko kontuetara etorriaz: zenbait dialektologok —gazteen euskara aztertuz bereziki—, aipatu du arestian euskara batuak lekuan lekuko hizkerak aldatu edo are ordezkatu dituela azken urteotan edo ordezkatzeko bidean dela. Bistakoa da fenomeno horrek aurrera egiten badu —ezinbestean— hizkera eta dialekto berriak sortuko direla, dela A-n, dela B-n, dela G-n... nahiz Iparraldean; alabaina, oraingoa ez bide du inork usteko Euskara Batu Modernoaren hedadura soilik erdal lurraldeetan gertatu denik edo bakarrik erdararen kaltetan izan dela.

Badira beste hainbat galdera ere “euskalduntze berantiarraren” ingurumariaz, eragileaz esaterako: bere administrazioan inoiz euskararik erabili ez zuen zein erakunde izan ote zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa (Nafarroaz ez hitz egitearren) euskaldundu zituena?

<sup>153</sup> Cf. “The deepest dividing line within the family is traditionally assumed to exist between Finno-Ugric in the west and Samoyedic in the east. For various reasons, subsequent (Post-Proto-Uralic) diversification has been more profound, or it is better preserved, within the Finno-Ugric branch, which is today represented by as many as seven major sub-branches, including (from west to east): Saamic, Finnic, Mariic, Permian, Mansic (incl. Hungarian), and Khantic (Janhunen 2009: 57).

Hor ikus litekeenez, “ $n > \emptyset$ ” iv. mendearen erdi aldera eta ahostuntze zenbait ( $mp > mb$  eta  $nt > nd$ ) 300. urtearen inguruan eta iv. mendearen bigarren zatian ditugu kokatuak, hurrenez hurren. Guitarren kronologia horretan gainerako ahostuntzeen — $lp > lb$ ,  $lt > ld$ ,  $lk > lg$  eta  $nk > ng$ — zehaztasunak falta dira baina iruditzen zait horiek berankorragoak izango balira ere, data hauek oso goiztiarrak dira Mitxelenaren EBZ-ren kronologietarako. Alegia, hark EBZ v-vi. mendeetan eratu eta 1000. urtea baino lehen hautsitzat<sup>154</sup> zuen eta ahostuntzeak 300-400. urteetan ematen badira, beharko genuke pentsatu aldaketa horren bitartez EkEZ (geroko Err eta Z) gainerakoetarik banatua zela —edota, aldaketa nola ulertzen den (§5.2.), Erdialdeko eta Mendebal aldeko euskara urrundu zela EkEZ-etik— Mitxelenak EBZ-ri eman eraketa garaia baino bi mende lehenago edo eta, batez ere, hark buruan zuen EBZ-ren etenaren data baino 400-500 bat urte lehenago. Ondorioz, EBZ estandarren EkEZ adarrak beste nonbait, gorago, behar luke bere sorburua:



11. Figura. X-etik EBZ-ra

Zuhaitz honetan EBZ-ren aitzin-aberria Lizarra-Ergoiena-Goizueta-Hondarribia lerroaren bi aldeetara bide zen, inolaz ere Iruñaren mendebalera, argiro eta aurreko eszenarioan baino arrunt beranduago; EBZ berri honen egitura eta kronologia linguistikoa gehi eszenario historikoa etorkizunerako ikergai dira; orobat “EBZ-at” (= EkEZ) eta “X”-enak.<sup>155</sup>

<sup>154</sup> Hiru ohar gorago gaztigatua buruan, proposamen berriak are berankorrago (eta txikiago) egingo luke EBZ eta are larriago litzateke Err-Z eta gainerakoen arteko etena.

<sup>155</sup> Dela Err-Z EBZ barruan izan, dela kanpoan, genetikoki diferentzia sakonena biltzen dituen ez da B eta gainerako euskalkiak bereiz litzakeen muga, Err-Z eta gainerakoen artean, lehenik, eta horren ondoren testuan aipatu Lizarra-Hondarribia bitartean dena baino. Gero gauzak nola iritsi diren kontrako irudia ematera hitzun askoren eta zenbait dialektologoren begietan ikertu behar den eraldaketa baten historia da, ez betidaniko eta betirako banaketa eta sailkapena, alegia. Gogora aurreko atalean aipatu gaskoiaren sailkapenaren ingurukoak, besteak beste.

## 6. Ondorio eta egiteko batzuk

I believe that if we want to make progress with ancient linguistic geography we have to do two things. The first is to work backwards in time from the know to the unknown, not trying to go too far too fast. The second is to use ancient linguistic data, and not use modern languages or genetics or archaeological ‘cultures’ as surrogates for it (Sims-Williams 2012: 14; cf. Sheh 2011: 2 mandarinaz).<sup>156</sup>

[...] it is worth reminding ourselves from time to time, that the goal of taxonomy in biological sciences — of which, I repeat, linguistics is one — is *not* classification. Rather, the goal of taxonomy is in fact *explanation*. And that has been the goal of this paper (Post 2012: 88).

Uno de los vicios mentales más arraigados entre quienes se enfrentan con nuestro pasado es el concepto de la inmutabilidad de las cosas, el pensar que ha sido siempre igual y que no han cambiado con el correr de los tiempos (Banús y Aguirre 1990: 347).

6.1. Lan honetan euskararen historiaurrearen berreraiketarako ezinutzizko alderdi pareta arakatu nahi izan dut: bata diakronistak azken bi mila edo bi mila eta bostehun urtetan bere lanerako ezinbesteko dituen aitzinhizkuntzen kopuru minimoa eta edozein hizkuntzak, edozein garaitan, berezko duen aldaketari lotutako dialekto zatikatzaren oinarri dagokiena, bestea. Dialektologoa ez naizelarik, ez dut izan hemen ezer hasi-eta-buka aurkezteko asmo ez gaitasunik; bai, ordea, nire ustez hizkuntzaren (historiaurreko) bilakabidearen ikerketarekiko hurbilketa dialektologia diakronikoaren esparru honetan, ahal zen neurrian Euskal Herritik kanpora ohiko diren estandarretara egokitzeko gogorik. Izan ere, ezinbestekoa iruditzen zitzaidan lehenago beste zenbait saiotan konparazioa, filologia, forma kanonikoa, etimologia formal, tipologia holistikoa, gramatikalizazioa... egiten saiatu ondoren (ikus orain Lakarra 2012c).

6.2. Diakroniaz arduratzen diren dialektozaleentzat zein dialektologiaz arduratu diakronistentzat, Euskara Batu Zaharra berrikusi beharretik datorke, seguruenik, lan honetako gogoeta eta helburu nagusia eta baita etorkizunerako munta handieneko egitekoa ere: Mitxelenak v-vi. mendeetan kokatu zuen asmazio edo asmakuntza (ez asmakeria) horrek (ikus §2) hizkuntzaren sistemaren barnean lan erantsi larriak zituen beharrezko, —oraindik ere badu hainbat peitu— sistematik kanpora, nola, noiz, non, zein gizarte modutan... sortu zen, zenbat iraun zuen eta noiztsu hautsitzat eman genezakeen aztertzen hasi aurretik. EBZa berreraikitze eta horren dialektohausturak ikertzeko, ezinbestean kendu beharko ditugu gogotik orain arteko 6, 8 edo 12 adarrak eta baita ohiko banaketetako adabegi bakarreko zuhaitzak ere:<sup>157</sup> kontuak

<sup>156</sup> Bidenabar, ez da ahaztekoa hurrengo orrialdeko ohar batean dakarrena:

This problem [the problem of coincidental homophony] is often underestimated. For example, Vennemann 1998 claims to find place names containing Basque *bide* ‘road’ all over Europe, for example, *Bitburg* and *Betzdorf* in Germany and *Bedford* and *Bideford* in England. As he says, there are roads at these places. But is that not true of most places? *Bidar* in India and *Bida* in Nigeria are also on roads, but who would claim that Basque was spoken in India and Africa? (Sims-Williams 2012: 15, 106. oh.).

<sup>157</sup> Dagoeneko berandutxo da baina komeni bide da Mitxelenarekin (1963) gogoratzea zuhaitza erlazio diakroniko eta hierarkiko batzuek irudikatze modu huts bat dela eta dogma estetiko batera iritsi beharrik ez den arren (cf. §8.4 eta §5.3ko Posten aipua), berritzaile zenbaitek uste baino aukera gehiago

kontu, ez dirudi onar litekeenik hor zehar horrelako banaketa eta bilakabidea pairatu dituen hizkuntza edo hizkuntza familia bakarra euskara izatea, dirudien legez (ikus §3); are onartezinago, noski, —horren ondorio— bizkaiera eta mendebaleko BN, zuberera eta gipuzkera... adin bereko dialekto bailiran jardutea, beste inongo hizkuntzatak parekorik gabe.

Mitxelaren 1981eko hizkuntza komuna eta euskal dialektoei buruzko lan bikainak euskalkiek ezaugarri asko komunean izan arren, ezaugarri hauek oro ez datozen beren jatorritik garbi utzi zuen; alabaina, ez zen, ene ustez, egokiro frogatu eta oinarri sendo eta tinkoetan finkatu ohiko prozedurez AEM eta EBZ-ren arteko naturazko ezberdintasuna eta bigarrenaren beharra euskararen historiaurrearen azterketarako. Horregatik nahi izan dut erakutsi dialektoek hainbat berrikuntza fonologiko eta morfologiko komun garrantzitsu dituztela AEM ondokoak eta, oro har, euskalkietarik abiatutako azterketatik ez gaila AEM-ra zuzen-zuzenean iritsi ahal, baizik eta, —gehienez ere—, gugandik askozaz hurbilago bide zen EBZ-ren batera. Horrenbestez, EBZ-ren beharra AEM-z geroz euskalki guztietan diren edo izan diren berrikuntza zaharrenen bitartez finka genezake, beste edozein hizkuntzaren bilakabidearen azterketan proposatu zedinahi tarteko aitzinhizkuntzarekin egin legetzez.

6.3. Egiteko horretarako AEM eta EBZ bitartean edo hau hausti baino lehen pairatu ondoko aldaketak bederen kontuan hartzekoak iruditzen zaizkigu (ikus §4):

## FONOLOGIA

- |   |   |
|---|---|
| 1. T- > D- (hasierako hersk. ahostuntzea);            | 9. $*d_1 > \emptyset / V\_V$ ;                |
| 2. $*-n- > -b-$ ;                                     | 10. $a - o > o - a$ metatesia aditzean;       |
| 3. $\hat{V}$ ;  | 11. $-n > -r / \_ \#$                         |
| 4. Diptongoak;  | 12. $*b-$ , $*k- > \emptyset$ ;               |
| 5. $*-n- > -n$ ;                                      | 13. $-l > -r$ ;                               |
| 6. $*-r > -b$ ;                                       | 14. $-i/-u > \emptyset / \_ \#$ ;             |
| 7. $*bVh > \emptyset Vh$ ; (eta $*hC > \emptyset C$ ) | 15. $-V_3 > \emptyset / \_ \#$ <sup>158</sup> |
| 8. $*e- > j / \_ V$ ;                                 |   |

## MORFOLOGIA

- |                                      |                                   |
|--------------------------------------|-----------------------------------|
| 1. $*IVC > -la$                      | 6. $-z(a)$ pluralean              |
| 2. $-n > -\emptyset$ ( $jo$ , $lo$ ) | 7. $-aga$ IS-ren pluralean        |
| 3. $-o/-e > -a / \_ \#$              | 8. $-tzai$ artizkia aditz izenean |
| 4. $-tze$ aditz izena                | 9. $-kidi$ aditzean               |
| 5. $*ezan$ ALag.                     | 10. $-eta$ IS-ren pluralean       |

Euskararen historiaurrean EBZ hori —AEM eta dialektoen arteko hizkuntza goera—, hots, izan bide ziren askoren artean, lehen adarkatzea pairatu aurreko azken-azkena, beharrezkotzat onartzen dugunetik, eraikuntza hori definitu beharra datorkigu ezinbestean. Behar hau ez da eskuarteko saio honetan asetu, noski (eta hortik

gordetzen bide dituela tradizio diakroniko guztietan erabilia denean, are matematiketik hurbilen direnetan (ikus McMahon & McMahon 2005-eko adibide ugariak, esaterako). Ikus, orobat, Mitxelena (1976) eta 164. oharreko Stiles (2013)-ko aipua.

<sup>158</sup> Seguruenaik  $VDV > V\emptyset V$  (ahostunen galera), geroago jazo zen, erroan bederen (aurrizkian lehenago,  $e \rightarrow j / \_ V$ -aurretik); are geroago hiaotak hausten dituen eta horri emandako erantzuna dirudien  $V.V > V\emptyset V$ .

EBZ-ren data proposamen zehatzik ere ez luzatua), nahiz premia eta hori berdintzeko keinu edo bideren bat iradoki den (§5). Orobat, EBZ-ren kokaguneaz hizkuntzalari-tza diakronikoaren hatsarreez baliatuaz gutxieneko proposamena egin dugu: Nafarroan, Iruñetik ipar-ekialdera eszenario batean, Nafarroan baina Iruñetik mendebalerantz, bestean; ikusiko ondoko azterketek —hizkuntzalari eta filologoek lehenik eta gizarte eraketa eta populazio mugimenduei buruzko historialarientz gero— iradokizun hauek sendotzen ala deuseztatzen eta hobeez ordezkatzeko dituzten.

6.4. Alabaina, EBZ onartzeak badakar haboro: Erro Teoriak Mitxelenaren AE-ren berreraiketa osatzera eta “gorantz” berrikustera eraman gaituen bezala (ik. Lakarra 1995hh) —AEM eta AEZ bereziaz, duela 2000 edo 2500 urte baino lehenagoko hizkuntza egoera eskuratzeko asmoz—, orain “beherantz” ere hizkuntzaren historiaurrean (protohistorian, zehatzago) berreraiketa berriztatu beharra datorkigu. Hots, diptongoen atalarekin (§4.3), ozenen bokalarteko lenizioarekin edo hasperenaren bilakabidearekin (§4.4), nahiz /l, n/ ondoko leherkariaren ahostuntzearekin (§5.2) argiro bermatzen den legez, berreraiketaren oinarri den *FHV*-n zenbait atal garrantzitsuk izan lezake behar hori eta, ez jakin, milurteko osoak ez bada ere, inoiz zenbait mende bederen aldatzea egokituko ote zaigun; orobat, hainbat aldaketa morfologikoren bilakabidea (§4.5), aditz laguntzaileena (§4.6) eta morfemen forma kanonikoaren kronologia (§4.7) lotuak agertzen dira hurbiletik edo urrutiagotik EBZ-arekin.

Komeni da EBZ-ren izenaz edo izanaz —dela Err eta Z beren baitan hartzen dituen hurbilketa, dela kanpoan uzten dituen hobetsi (cf. §5.3)— ohar bat eranstea: Mitxelenaren *éuscaro* berbataiatuan “B” (= ‘batu’) delakoak hizkuntzak egoera horretara iristeko egindako bidea adierazten zuen; hots, beren artean lehen ezberdinago ziren eta v-vi. mendeetan bateratuak izan ziren hizkerak (ikus §2). Guk nahiago dugu gaia edo deizioa beste alderdi batetik hartu (ikus §4.1); izan ere, edozein hizkuntza edo hizkuntza familiatan legez, “EBZ” dialekto historikoen iturburuari edo horietara garamatzen lehen eszizioaren aurreko egoerari deritzogu, edozein ere dela hizkuntzak horra iristeko ibili duen bidea. “Zelta batu (zaharr)a” edo “Germaniko batu (zaharr)a” onartzeak ez dakar berarekin familia horietan inoiz batasun linguistikorik edo bestelakorik bilatzen zuen prozesurik onartzea (ezta kontrakoa ere, jakina); ulertzeko modu arruntena soil-soilik hizkuntza edo dialekto historikoen sorburutzat dugun egoera linguistikoaren izendapen hutsa genuke.<sup>159</sup> Hori bera da nik “EBZ” horrekin lortu nahi dudana, ez gehiago eta ez gutxiago.<sup>160</sup>

Litekeena da oso, AEM-ren eta EBZ-ren artean batasun prozesu bat izatea eta are —ezinbestean— prozesu linguistiko honen atzean beste batasun politiko bat (edo gehiago) izatea, z(ir)ela Mitxelenak proposatu datetan eta aipatu oinarrien gainean eraikia(k), z(ir)ela bestelakoetan.<sup>161</sup> Nik, ordea, hizkuntzalari bezala, gogoeta-

<sup>159</sup> Cf. Shen (2011) mandarinaren jatorriaz: orain duela 1000 bat urte sortu zela dirudi, lehen uste baino 300 lehenago; bestalde “now the speculations of the origin of the Mandarin can be firmly proved with linguistic evidence” (Shen 2011: 25).

<sup>160</sup> Ez dakit honekin lotzen den edo ez U. Regueroren “naturala izan daiteke” —EBZ-ren sorreraz, “aurreko dialektoen konbergentzia eta bateratze prozesu baten ondorio” dela markatu ondoren— in Reguero (2012: aurkezpena).

<sup>161</sup> Gorago (150. oharrean) aipatu eta abian diren ikerketa historikoei delako batasun-eszenario hori Mitxelenarena —hots, Barbero eta Vigil-en eredu historiografikoan oinarritua, eta hauek Caro Barojarenean, jakina— v-vi. mendea baino mende bat beranduago edo ezarriko omen lukete. Hobeto

gai horien aurretik, euskararen historiaurrearen berreraiketan 1981az geroztik ez aitzinhizkuntza bakarrarekin (AE), baina birekin (AE eta EBZ) —edota are hirurekin (AEZ, AEM eta EBZ)—<sup>162</sup> aritu behar dugula markatzea eta behar horren froga linguistikoak aurkeztea lehenesten dut (cf. §§4.2-4.7); nago, gainera, eraikuntza horien zergatiak eta nolakoak hizkuntzaren beraren aldetik ongi finkatu eta zehaztu ondoren aztertu ahalko direla etekin handiagoz —historialari eta gainerakoen laguntzaz, jakina—, sistemaz landako arrazoiak eta xehetasunak, norik bere lana eginez eta idiak orgaren aitzinean jartzeko arrisku gutxiagorekin, alegia.

6.5. Hurbilketa akroniko, ukroniko edo pankronikoak saihestu beharra bide da, bat aipatzekotan, gure saio honen ondorio nagusietarik (ikus, orobat, Eranskinak). Horrekin batera hizkuntzalaritza diakronikoak nonahi darabiltzan irizpide eta jokamoldeei (cf. §§3.1-3.2, 3.4 eta 5.1-5.3) lotu beharra, azalpen sakonagoak erdiesteko bide bakarra baitugu: berrikuntzak bai baina zaharrenak, arkaismo esanguratsuenak (apalagoak iruditu arren) ez baztertu —ezta hautuak ere, noski—,<sup>163</sup> hizkuntza aldaketek ezaugarri bat duenaren eta ez duenaren artean banaketa bitarrak sortzen dituztela, etab.

Horrezaz gain eta orenen buru, gogoan hartuaz kronologia gure egiteko nagusi dela, ez interes urriko zertzelada baztergarri, inoiz hainbat dialektologoren jardunean dirudien bezala. Benvenistek konparatzailearentzat aldarrikatu zuen gisan, kronologia erlatiboa da oinarri eta helburu hizkuntza historialariarentzat (cf. Lakarra 2012a: §7.2), baina baita dialektologoarentzat ere, eta kronologiari eman beharreko lehenetsun honek ikerketa lan luze, zail eta neketsua eskatuko bide du, era guztietako langileentzat, hizkuntzalari (fonologo, morfologo, sintaxilari nahiz lexicografo) zein filologo izan: engoitik, dialektologia historikoan ez dugu aski data

---

esan, hori litzateke Nafarroa Ipar-Ekialdean sortuko litzatekeen eraikuntza historiko berriaren kronologia, baina (pentsatzekoa da) horren isla hizkuntzan geroagokoa datekeenez, EBZ-ren kronologia eta, hortaz, dialektotzatiketarena aski atzeratu beharko bide genuke.

Batera zein bestera, hizkuntzalariok ezin saihestu genezake geure egitekoa euskararen historiaurrearen kronologian; hasikin polit bat da Reguero (2010)-en eta lehenago Lakarra (2008d)-ren akabuan. Hara Itier-ek Haggerty (2005)-i egindako iruzkinaren amaiera; nago guretzat ere euskalari moduan baden bertan zer ikasirik:

Dicho en términos generales, lo que se llama «separación» de dos dialectos a partir de un tronco común es un largo proceso entre la primera innovación no común y la última innovación común. Este proceso puede verse frenado y alargado por el contacto entre dos dialectos o entre estos y una variedad vehicular procedente de la misma familia. Por lo tanto, la cuantificación de las semejanzas y diferencias entre dialectos de una misma lengua es un indicio pero no una prueba de la cronología relativa de la fragmentación de esa lengua. El método cuantitativo probablemente no pueda reemplazar el método comparativo y la historia en la reconstrucción del desarrollo histórico de las lenguas. Tal vez la relativa lentitud de los avances realizados en este campo no se deba tanto a «los límites inherentes a lo que con confianza pueden decirnos las técnicas actualmente disponibles para la lingüística histórico-comparativa» como simplemente a la falta de aplicación en gran escala de estas técnicas (2005: 69-70).

<sup>162</sup> Azken zuhaitza onartzen badugu baita laurekin ere, *X* hori ez baita ez (Mitxelena)ren EBZ eta ezta AEM; honetatik bereizten dituen zenbait berrikuntza (1. \**r* > *-h*, 2. *bVh* > *oVh*, 3. \**bC* > *oC*) markatu ditut gorago. Hipotesi honetan [-fortis] > [+fortis] / l,n \_\_ bilakabideak bereziko luke EBZ-tik.

<sup>163</sup> Hautuek, berrikuntza kate bilakaturik, berebiziko interesa dute kronologiaren azterketan (ikus §§3.2 eta 4.6), bai Meiden dialektoen hurbilketarako (ibid) eta baita Iñaki Caminok (2012: §2.6) bilatu dialektoen “begiradaren” ikerketarako ere.

bakar batekin, orain arte legez, —hots, AE edo EBZ-ren haustura behin eta betikoari dagokion eta horregatik beragatik ezertarako ez denarekin—, baizik eta EBZ ondoren egoera modernora iristeko beharrezko diren haustura ororen datak eta zertzeladak ditugu premiazko (baturenak ere bai, jakina), dialekto (eta are isoglosa) baikoitzak bere data eta adin ezberdina baitu, gustuko izan edo ez, ezagutu edo ez.<sup>164</sup>

Hemen aldarrikatzen den dialektologia diakronikoa lanbide nekosoa dateke, baita ilunagoa eta ikusgarritasun txikiagokoa ere, behar bada; alabaina, hurbilketa hau aberasgarriago bide da —diakronista baten ikuspegitik, bederen— dialektologiak hizkuntzaren bilakabidea *ere* kontuan hartu beharrean, hizkuntzaren bilakabide hori hartu beharra baitu, osorik hartu ere, bere egitekotzat eta are bere egiteko nagusizat. Prest ote dira horrenbestetarako gure dialektologo suharrak?

## 7. Bibliografia

- Abaitua, J. & Unzueta, M., 2011, «Ponderación bibliográfica en historiografía lingüística. El caso de la “vasconización tardía”», *Oihenart* 26, 5-26.
- Adelaar, W., 2005, «Comentarios [a Heggarty (2005)]», *Revista Andina* 40, 58-60.
- Adrados, F. R., 1987, *Nuevos estudios de lingüística indoeuropea*, CSIC Madril.
- , 1999, *Historia de la lengua griega. De los orígenes a nuestros días*. Gredos: Madril.
- Albo, X., 2005, «Comentarios [a Heggarty (2005)]», *Revista Andina* 40, 60-63.
- Altuna, P., 1992, «Ochoa de Arin-en *Doctrina Christiana*-ren (1713) hizkeraren laburpena», *Euskera* 37, 573-589.
- Andersen, H., 2003, «Introduction», in H. Andersen (arg.), *Language contacts in Prehistory. Studies in stratigraphy*. John Benjamins. Amsterdam-Philadelphia: 1-10.
- Antonsen, E. H., 1965, «On defining stages in Prehistoric Germanic», *Language* 41, 19-36.
- Arbelaiz, J. J., 1978, *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*. Tolosa, Kardaberatz.
- Arejita, A., A. Elejabeitia, C. Isasi & J. Otaegi (arg.), 2002, *Bilboren 700. Urteurrena. Hizkuntza gunea. Sinposioa*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Ariztimuño, B., 2011, *Antzinateko euskal idazkunak eta aitzineuskararen berreraiketa: corpusa, analisia eta ondorioak*. UPV/EHU-ko Master tesia.
- , 2013a, «Finite verbal morphology», in Martínez Areta (arg.), 359-427.
- , 2013b, «Euskal aditz jokatuaren osakeraz eta jatorriaz zenbait ohar», in Gómez *et al.* (arg.).

<sup>164</sup> §5.ean badira lehen adarkatzeaz (EkEZ eta gainerakoak) ondoko beste batzuen (MEZ, G, EREZ) inguruko ohar zenbait; esan gabe doa oraingoz ez direla susmo edo hipotesi hutsak baizik eta ondoko ikerketa diakronikoek baieztatu edo ezetzatu beharko dituztela.

PS. Lan honen azken probetan iritsi zait Stiles (2013). Bertan, Mendebaleko Germanikoaren inguruan hainbat gogoeta metodologiko interesgarri aurkitu ahal dira batasunen hausturen arrazoiez, aitzinhizkuntzen ustezko bariazio faltaz, adarkatze bikoitzez, lehen adarkatzeaz eta ondorengoz, isoglosen lehentasunaz, tarteko aitzinhizkuntzez, kronologiaren garrantziaz, sailkapenerako argudio linguistikoen nagusigoaz, dialekto zahar eta modernoek, etab. Askok litzateke handik hona ekar litekeena baina bego oraingoz aipagarri deritzodan bere ondorioetako azken ahapaldiarekin:

The situation is thus more complex than is usually thought. This is not a negative thing, however, for such a state of affairs is what would be expected on general grounds. Rather than messing up a neat account, it adds details to our reconstructed language states. In short, we can decorate our family tree more richly (33).

Oso interesgarria Wilson (2012) ere, berrikuntza komunak erabiliaz Ekialdeko Polinesiarren jatorria Iparraldean berreraikiaz, ohiko —baina hizkuntzazko argudio ahulagoko— azalpenaren aurka.



- Artiagoitia, X., P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), 2002, *Erramu Boneta: Festschrift for R. P. G. de Rijk*, ASJU-ren Gehigarriak XLIV, Bilbo.
- & J. A. Lakarra (arg.), 2008, *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagari Omenaldia*. ASJU-ren Gehigarriak LI, Bilbo.
- Azkarate, A., 2002, «La arqueología y los intereses historiográficos. De los postulados vasco-cantabristas a las necrópolis tardoantiguas de influencia nordpirenaica», in *VII Centenario de la Fundación de Bilbao. Actas del Congreso Bilbao 700*. (= *Bidebarrieta (Revista de Humanidades y Ciencias Sociales de Bilbao)*, XII 27-60).
- , 2004, «Los Pirineos Occidentales durante el periodo franco-visigótico», *Historia de Euskal Herria. Historia General de los Vascos*. Lur, Bilbo: II, 88-114.
- , 2011, «Repensando los márgenes circumpirenaico-occidentales durante los siglos VI y VII d.C.» en *711 Arqueología e Historia entre dos mundos* (= *Zona Arqueológica* nº 15), Alcalá de Henares, 241-256.
- Azkarate, M. & P. Altuna, 2001, *Euskal morfologiaren historia*, Elkarlanean, Donostia-San Sebastián.
- Azkue, R. M.<sup>a</sup>, 1905-06, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo [Berrarg. eranskin batekin, 1969], LGEV.
- Azurmendi, J. F., 2012, *PNV-ETA, crónica oculta (1960-1979)*. Tarttalo: Donostia-San Sebastián.
- Bakró-Nagy, M. Sz., 1992, *Proto-Phonotactics. Phonotactic investigation of the PU and PFU consonant system*. Studia Uralica 5, Harrassowitz Verlag.
- Baldi, Ph. (arg.), 1990, *Patterns of change, change of patterns. Linguistic change and reconstruction methodology*. Mouton de Gruyter, Berlin-NY.
- Banús y Aguirre, J. L., 1990, «En Guipúzcoa y en Vizcaya. La supervivencia de los vascuences várdulo y caristio», *BAP* 46, 323-358.
- Barbero, A. & Vigil, M., 1965, «Sobre los orígenes sociales de la Reconquista: cántabros y vascones desde fines del Imperio Romano hasta la invasión musulmana». Berrarg. beren *Sobre los orígenes sociales de la Reconquista*-n. Ariel: Barzelona 1974.
- Benveniste, E., 1935, *Origines de la formation des noms en indo-européen*. Paris: Maisonneuve.
- Bilbao, G., R. Gómez, J. A. Lakarra, J. Manterola, C. Mounole & B. Urgell, 2010, *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa* [on-line]. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. <http://lazarraga.com>.
- , —, —, —, — & —, prestatzen, «Gabriel Echart zuberotarraren eta Miguel Ros erronkariarraren arteko gutuneria (1615-1617)». UPV/EHU.
- Blasco, E. et al. (arg.), 2013, *Iberia e Sardegna. Legami linguistici, archeologici e genetici dal Mesolitico all'Età del Bronzo*. Le Monnier Università, Firenze.
- Blažek, J., 2007, «From August Schleicher to Sergei Starostin: On the development of the tree-diagram models of the Indo-European languages», *Journal of Indo-European Studies* 35, 82-110.
- Blench, R. & M. Spriggs (arg.), 1997, *Archaeology and language: I. Theoretical and methodological orientations*. Routledge: London & New York.
- Bonaparte, L.-L., 1991, *Opera Omnia Vasconice*. J. A. Aranaren (arg.), Euskaltzaindia, Bilbo, 4 lib.
- Bowern, C. & H. Koch (arg.), 2004, *Australian languages. Classification and the Comparative Method*. John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia.
- & —, 2004, «Introduction: Subgrouping methodology in historical linguistics», in Bowern & Koch (arg.), 1-15.
- Camino, I., 1999-2000-2001, «Goñerriko hizkera (I-II-III)», *ASJU* 33, 5-78; 34, 137-196; 35, 445-509.
- , 2003, «Hego Nafarreraren egituraz», *FLV* 35, 427-468.
- , 2004a, «Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian», *Euskera* 49, 67-102.
- , 2004b, «Nafarroa Behereko euskara», *FLV* 36, 445-486.
- , 2008a, «Dialektologiaren alderdi kronologikoaz», *FLV* 40, 209-247.

- , 2008b, «Nafarroa Behereko euskara zaharra», *ASJU* 42, 101-169.
- , 2009, «Mugako hiztun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan», *FLV* 41, 153-218.
- , 2011, «Pirinioak, ekialdea eta euskal mintzoak», in Sagarna, Lakarra & Salaberri (arg.), 773-822.
- , 2012, «Ekialdeko euskararen iraganaz». Liburu honetan.
- , 2013, «Euskalkien historiak: Lapurdi eta Nafarroa Garaia». In Gómez et al. (arg.), 77-139.
- Campbell, L., 1998, *Historical linguistics. An introduction*. Edinburgh U.P.
- , 2000, «Time perspective in linguistics», in C. Renfrew, A. McMahon & L. Trask (arg.), *Time depth in historical linguistics*. 2 lib., The McDonald Institute for Archaeological Research. Cambridge: I, 3-31.
- , 2008, «What can we learn about the earliest human language by comparing languages known today?», in *Origins and evolution of language: approaches, models, paradigms*, ed. by B. Laks with S. Clezou, J.-P. Demoulé & P. Encrevé. London: 79-111.
- , 2011, «La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?», in Lakarra, Gorrochategui & Urgell (arg.), 23-40.
- Caro Baroja, J., 1945, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, U. de Salamanca, Salamanca. Berrarg. faksim. Txertoa, Donostia-San Sebastián, 1990.
- , 1958-59, «Los estudios geográfico-históricos sobre el País Vasco y la dialectología», *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* 4, 425-440.
- Cerrón-Palmino, R., 1987, *Lingüística quechua*. Centro de Estudios Andinos «Bartolomé de Las Casas», Cuzco.
- , 2005, «Comentarios [a Heggarty (2005)]», *Revista Andina* 40, 63-67.
- Chambon, J.-P., 1996-97, «Aspects de l'oeuvre linguistique de Georges Straka: Chronologie relative et histoire des faits phoniques», *Orbis* 39, 97-126.
- , 2007, «Remarques sur la grammaire comparée-reconstruction en linguistique romane (situation, perspectives)», in Lemarechal & François (arg.), 57-72.
- & Greub, Y., 2002, «Note sur l'âge du (proto)gascon», *Revue de Linguistique Romane* 66, 473-495.
- Childs, G. T., 2010, «The Mandé and Atlantic groups of Niger-Congo: Prolonged contact with asymmetrical consequences», *Journal of Language Contact - THEMA* 3, 15-46.
- Clark, R., 1987, «Austronesian languages», in B. Comrie, *The major languages of East and South-East Asia*. Routledge, London: 171 eta hh.
- Coromines, J., 1960, «La toponymie hispanique préromane et la survivance du basque jusqu'au bas moyen âge», in *VI Congrès International de Sciences Onomastiques*, 1, 105-146, München.
- , 1972, *Tópica Hespérica. Estudios sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia romances*, Gredos, Madril.
- & Pascual, J. A., 1980-91, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril, Gredos.
- Coseriu, E., 1957, «La geografía lingüística», in *id, El hombre y su lenguaje*. Gredos: Madril, 103-158. or.
- Crowley, T., 1996, *An introduction to historical linguistics*, 2. arg., Oxford U.P.
- Dimmendaal, G. J., 2011, *Historical linguistics and the comparative study of African languages*. John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia.
- Dixon, R. M., 1997, *The rise and fall of languages*. Cambridge U.P.
- , 2002, *Australian languages*. «Cambridge language surveys», Cambridge.
- Donegan, P., 1993, «Rhythm and vocalic drift in Munda and Mon-Khmer», *Linguistics in the Tibeto-Burman Area* 16, 1-43.
- & D. Stampe, 2004, «Rhythm and the synthetic drift of Munda», *The Yearbook of South Asian Languages and Linguistics 2004*, de Gruyter (Berlin-NY), 3-36.
- Durie, M. & Ross, M., 1996, arg., *The comparative method revisited. Regularity and irregularity in language change*. Oxford, Oxford U.P.
- Egurtzegi, A., 2013a, «Phonetics and Phonology», in Martínez Areta (arg.), 119-172.

- , 2013b, «Diferentes tipos de aspiración en vasco (con análisis espectrales del dialecto suletino actual)», In Blasco et al. (arg.), 151-169.
- & G. Elordieta, 2013, «Euskal azentuaren historiaz», in Gómez et al. (arg.), 165-188.
- Elordieta, G., 2011a, «Euskal azentuaren bilakaera: hipotesi eta proposamenak», in Sagarna, Lakarra & Salaberri (arg.), 989-1014.
- , 2011b, «Euskal azentu eta intonazioari buruzko ikerketa: *status quaestionis*», in Lakarra, Gorrochategui & Urgell (arg.), 389-429.
- Elordui, A., 1994, «Bonapartek osaturiko bizkaieraren sailkapenak: iturriak eta irizpideak», in Gómez & Lakarra (arg.), 433-463.
- Ernout, A. & Meillet, A., 1979, *Dictionnaire étymologique de la langue latine*. 4. arg., Paris, Klincksieck.
- Etchebarne, M., 2006a, «Dialectes basques: homogénéité ou dispersion». *Artxiker*.
- , 2006b, «L'emprunt lexicale d'origine latino-romane en basque: une approche lexico-statistique». *Artxiker*.
- Etxaide, J., 1984, «-(e)za aditzerroa datiboko aditz-jokoetan autoreetan zehar», *Euskera* 29, 601-730.
- Evans, N., 2005, «Australian languages reconsidered: A review of Dixon (2002)», *Oceanic Linguistics* 44, 242-286.
- Fernández, B. & I. Laka (arg.), 2006, *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. UPV/EHU, Bilbo.
- Forster, P. & C. Renfrew (arg.), 2006, *Phylogenetic methods and the prehistory of languages*. McDonald Institute, Cambridge University.
- Fortescue, M., 2006, «Drift and the grammaticalization divide between Northern and Southern Wakashan», *International Journal of American Linguistics* 72, 295-324.
- Fox, A., 1995, *Linguistic reconstruction. An introduction to theory and method*. Oxford U.P.
- Garrett, A., 1999, «A new model of Indo-European subgrouping and dispersal», in St. S. Chang, L. Liaw & J. Ruppenhofer (arg.), *Proceedings of the Twenty-Fifth Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society (February 12-15)*. Berkeley Linguistics Society, Berkeley: 146-156.
- , 2006, «Convergence in the formation of Indo-European subgroups: phylogeny and chronology», in Forster & Renfrew (arg.), 139-151.
- , M. Babel, M. Houser & M. Toosarvandani, argitaratzeko, «Descent and diffusion: A study of Western Numic dialectology», *International Journal of American Linguistics*. Berkeleyko Unibertsitateko eskuizkribua.
- Gavel, H., 1920, *Éléments de phonétique basque* (= *RIEB* 12), Paris.
- Gómez, R., 1994, «Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra», in J.-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres*. Izpegi, Baigorri: 93-114.
- , J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), 2013, *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra (Gasteiz 2012/XI/8-11)*. Inprimategian.
- & J. A. Lakarra (arg.), 1994, *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia 1991)*, *ASJU-ren Gehigarriak* 28, Donostia-San Sebastián.
- & K. Sainz, 1995, «On the origin of the finite forms of the Basque verb», in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 235-274.
- Gorrochategui, J., 1984, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*, Bilbo, UPV/EHU.
- , 1987, «Vasco-céltica», *ASJU* 21, 951-959.
- , 2001, «Planteamientos de la lingüística histórica en la datación del euskara», *XV Congreso de Estudios Vascos*, Donostia-San Sebastián: 103-114.
- , 2002, «El área de Bilbao en la antigüedad», in Arejita et al. (arg.), 103-120.
- , 2009, «Vasco antiguo: algunas cuestiones de geografía e historia lingüísticas», *Palaeohispanica* 9, 539-555.
- , 2011, «Las armas de la filología: la cuestión del vasco antiguo y los hallazgos de Iruña-Veleia», in Lakarra, Gorrochategui & Urgell (arg.), 41-70.

- , 2012, «Euskaratiko osagaiak gazteleraren lexikoan», in Igartua (arg.), 103-150.
- , I. Igartua & J. A. Lakarra (zuz.), 2013, *Euskararen historia*. Eusko Jaurlaritz: Vitoria-Gasteiz, inprimategian.
- & J. A. Lakarra, 1996, «Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco», in F. Villar & J. D. Encarnação (arg.), *La Hispania prerromana. VI Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica*. U. de Salamanca & U. de Coimbra. Salamanca: 101-145.
- & —, 2001, «Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco», in F. Villar & M.<sup>a</sup> P. Fernández Álvarez (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*. Universidad, Salamanca: 407-438.
- Guitier, H., 1989, «Elementos de cronología fonética del vascuence», *ASJU* 23, 797-800.
- Haas, M., 1969, *The prehistory of languages*. Mouton.
- Heggarty, P., 2005, «Enigmas en el origen de las lenguas andinas: aplicando nuevas técnicas a las incógnitas por resolver», *Revista Andina* 40, 9-57 [+ «Respuesta», *ibid.*, 70-80].
- , 2006, «Interdisciplinary Indiscipline? Can phylogenetic methods meaningfully be applied to language data – and to dating language?». In Forster & Renfrew (arg.), 183-194.
- & D. Beresford-Jones (arg.), 2012, *Archaeology and language in the Andes. A cross-disciplinary exploration of prehistory*. British Academy-Oxford U.P.: New York.
- Holmer, N., 1970, «A historic-comparative analysis of the structure of the Basque language», *FLV* 2, 5-47.
- Houis, M., 1970, «Reflexion sur une double correlation typologique», *Journal of West African Languages* 7, 59-68.
- De Hoz, J., 2005, «Epigrafías y lenguas en contacto en la Hispania antigua», *Palaeohispanica* 5, 57-98.
- , 2009, «El problema de los límites de la lengua ibérica como lengua vernácula», *Palaeohispanica* 9, 413-433.
- , 2010-11, *Historia lingüística de la Península Ibérica en la Antigüedad. I. Preliminares y mundo meridional prerromano. II. El mundo ibérico prerromano y la indoeuropeización*. CSIC, Manuales y Anejos de *Emerita*: Madril (2 lib. 4tik orain arte).
- , 2011, «Las funciones de la lengua ibérica como lengua vehicular», in C. Ruiz Darasse eta E. R. Luján (arg.). *Contacts linguistiques dans l'Occident méditerranéen antique*. Collection de la Casa Velázquez 126, Madril: 27-64.
- Hualde, J. I., 1993, «On the historical origin of Basque accentuation», *Diachronica* 10: 1, 13-50.
- , 1997a, «Aitzineuskararen leherkariak», *ASJU* 31: 2, 411-424.
- , 1997b, *Euskararen azentuenerak*. *ASJU*-ren Gehigarriak 42, Bilbo-Donostia-San Sebastián.
- , 2006, «Laringalak eta euskal azentuaren bilakaera», in Fernández & Laka (arg.), 497-511.
- , 2009, «Acentuación y cronología relativa en la lengua vasca», *Oihenart* 23, 199-217.
- , J. A. Lakarra & L. Trask (arg.), 1995, *Towards a history of Basque language*. John Benjamins: Amsterdam & Philadelphia.
- Igartua, I., 2002, «Euskararen hasperena ikuspegi tipologiko eta diakronikotik», in Artiagoitia, Goenaga & Lakarra (arg.), 366-389.
- , 2006, «Del origen de la aspiración como elemento morfológico en vasco», in Lakarra & Hualde (arg.), 519-530.
- , 2008a, «La aspiración de origen nasal en la evolución fonológica del euskera: un caso de rhinoglottophilia», *ASJU* 42, 171-189.
- , 2008b, «Algún paralelo tipológico más para la *h* vasca de origen nasal», *ASJU* 42, 353-357.
- , 2011, «Historia abreviada de la aspiración en las lenguas circumpirenaicas», in Sagarna, Lakarra & Salaberri (arg.), 895-918.
- , 2012 (arg.), *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*. Eusko Jaurlaritz: Vitoria-Gasteiz.
- Iglesias, H., 2000, «Le suffixe *-aga* 'lieu de'», *ASJU* 34, 337-342.
- , 2009, «Sur l'origine présumée du fractionnement dialectal de la langue basque». *Artxike-rtetik jaitzia*.

- Iriondo, M., 2002, «*Euskal Zibilizazioaren Hipotesia*, giza populazioen genetikaren alorretik aztertuta», *Ekaia* 16, 27-49.
- Itier, C., 2005, «Comentarios [a Heggarty (2005)]», *Revista Andina* 40, 67-70.
- Jaggard, Ph., 2011, «The role of comparative/historical linguistics in reconstructing the past: what borrowed and inherited words tell us about the early history of Hausa». SOAS-eko eskuizkribua.
- Janhunen, I., 2003a (arg.), *The Mongolic languages*. Routledge language family series. London & NY.
- , 2003b, «Proto-Mongolic», in Janhunen (arg.), 1-29.
- , 2007, «The primary laryngeal in Uralic and beyond», in *Sámit, sánit, sátnehámit. Riepmočála Pekka Sammallahtii miessemánu 21. beaivve 2007. Suomalais-Ugrilaisen Seuran Toimituksia = Mémoires de la Société Finno-Ougrienne* 253. Helsinki: 203-227.
- , 2008, «Some Old World experience of linguistic dating», in J. Bengtson (arg.), *In hot pursuit of language in prehistory*. John Benjamins, Amsterdam / Philadelphia: 223-239.
- , 2009, «Proto-Uralic: what, where, and when?», in *The Quasiquicentennial of the Finno-Ugrian Society. Suomalais-Ugrilaisen Seuran Toimituksia = Mémoires de la Société Finno-Ougrienne* 258. Helsinki: 57-78.
- Kintana, J., 1998, «Euskal arkadia aurreindoeuroparrak direla eta», *Egunkaria* (1998/XI/17).
- Koch, H., 2004, «A methodological history of Australian linguistic classification», in Bownern & Koch (arg.), 17-60.
- Krutwig, F., 1978, *Garaldea. Sobre el origen de los vascos*. Txertoa: Donostia-San Sebastián.
- Lacombe, G., 1924, «La langue basque», in A. Meillet & J. Vendries (arg.), *Les langues du monde*, Paris: 319-326.
- Lafon, R., 1943, *Le système du verbe basque au XVIème siècle*. 2. arg. Elkar, Donostia-San Sebastián, 1980.
- , 1955, «Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques», in Lafon 1999: 707-726.
- , 1999, *Vasconiana*, Iker 11, Euskaltzaindia. Bilbo.
- Lakarra, J. A., 1985, «Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko Sermoia (1737)», *ASJU* 19, 235-281.
- , 1986a, «xvi. mendeko bizkaierazko errefracuez: I. Garibairen bildumak», *ASJU* 20, 31-66.
- , 1986b, «Bizkaiera zaharra euskalkien artean», *ASJU* 20, 639-682.
- , 1995, «Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque», in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 189-206.
- , 1996a, *Refranes y Sentencias: ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia-Bizkaiko Diputazioa.
- , 1996b, «Sobre el europeo antiguo y la reconstrucción del protovasco», *ASJU* 30, 1-70. Zuzendurik eta emendaturik (2013a)-n.
- , 1996c, «Refranos vascos antiguos anteriores a Oihenart», in G. Aulestia (arg.), *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, Institución Sancho el Sabio, Vitoria-Gasteiz: 141-175.
- , 1997a, «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri», *ASJU* 31, 447-536.
- , 1997b, «Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz: konparaketa eta barneberreraiketa», *ASJU* 31, 537-616.
- , 1998, «Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa», *Uztaro* 25, 47-110.
- , 1999, «Ná-De-Ná», *Uztaro* 31, 15-84.
- , 2002, «*Refranes y Sentencias*: arazoak eta lekukotasunak bizkaiera zaharraren azterkerarako», in Arejita *et alii* (arg.), 17-77.
- , 2004, «Juan Perez Lazarragakoaren eskuizkribua (xvi. mendea). Lehen hurbilketa», in Gipuzkoako Foru Aldundia, *Lazarragakoaren eskuizkribua*, Edilán-Ars Libris, Madril.
- , 2005, «Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco», *Palaeohispanica* 5, 407-470.

- , 2006a, «Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica», *Oihenart* 21, 229-322.
- , 2006b, «*Jaun* eta *jabe*, *jai*o eta *herio*, *jin* eta *joan*... etimologiaz eta aditz zaharraz», in Fernández & Laka (arg.), 575-611.
- , 2006c, «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco», in Lakarra & Hualde (arg.), 561-621.
- , 2008a, «Aitzineuskararen gramatikarantz malkar eta osinetan zehar», in Artiagoitia & Lakarra (arg.), 451-490.
- , 2008b, «Forma canónica, etimología y reconstrucción en el campo vasco», *ASJU* 37 [2003 baina 2008an argitaratua], 261-391.
- , 2008c, «*Vida conly libertad*: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de «Urthubiako Alhaba», *ASJU* 42, 83-100.
- , 2008d, « $*h_3 > h_p$ ,  $*h_2 > h_1$  eta horiei datzekien zenbait fenomenoz». IKER-CNRS-ek (abenduak 12-13) antolatutako biltzarreko komunikazioa. [= *Lapurdum* 13 (2009), 247-272; 2013ko otsailan argitaratua].
- , 2009a, «Temas para un prólogo: forma canónica, tipología holística diacrónica y reconstrucción del protovasco», *Oihenart* 23, 277-347.
- , 2009b, «Forma canónica y cambios en la forma canónica en la prehistoria de la lengua vasca». *X. Congreso de Lenguas y Culturas Paleohispánicas, Palaeohispanica* 9, 557-609.
- , 2009c, «Adabakiak /h/-aren balio etimologikoak», *ASJU* 43/1-2, 565-596.
- , 2009d, «Aitzineuskara berreraikiaz: Zergatik ezker», *Euskera* 54, 17-98.
- , 2010a, «Haches, diptongos y otros detalles de alguna importancia: notas sobre numerales (proto)vascos y comparación vasco-ibérica (con un apéndice sobre *hiri* y otro sobre *bat-bi*)», *Veleia* 27, 191-238.
- , 2010b, «*Refranes y Sentencias*-en lexikoaz ohar dozena», in S. Gómez Seibane & J. L. Ramírez Luengo (arg.), *Maestra en mucho. Estudios filológicos en homenaje a Carmen Isasi Martínez*, 159-179. Voces del Sur, Buenos Aires.
- , 2011a, «Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio», *FLV* 113, 5-114.
- , 2011b, «Aitzineuskararen berreraiketaz: egindakoaz eta eginkizunez», in Sagarna, Lakarra & Salaberri (arg.), 617-694.
- , 2011c, «Teoría de la raíz monosilábica y reconstrucción del protovasco: algunos aspectos y consecuencias», in Lakarra, Gorrochategui & Urgell (arg.), 651-699.
- , 2012a, «Mailegaketa eta berreraiketa euskararen historiaurrearen ikerketan», in Igartua (arg.), 17-74.
- , 2012b, «Euskararen historiaurrea», in Gorrochategui, Igartua & Lakarra (arg.).
- , 2012c, «Aitzineuskararen berreraiketa sakonagorantz: forma kanonikoa, tipologia holistikoa, diakronikoa, kronologia eta gramatikalizazioa». Argitaratzeko in Gómez et al. (arg.), 279-328.
- , 2012d, «Gramática histórica vasca y vascoiberismo», in *XI Congreso de Lenguas y Culturas Paleohispánicas (Valencia, 24-27 oct. 2012)*. Inprimategian *Palaeohispanica* 13.ean.
- , 2013a, «On Ancient European and the Reconstruction of Proto-Basque», in J. Üdolph (arg.), *Europa Vasconica-Europa Semitica? Kritische Beiträge zur Frage nach dem baskischen und semitischen Substrat in Europa*. «Beiträge zur Lexikographie und Namenforschung» 6, Baar-Verlag, Hanburgo: 65-150.
- , 2013b, «Monosyllabic root theory and the reconstruction of Proto-Basque: some aspects and consequences», in Martínez Areta (arg.), 173-221.
- , 2013c, «Protovasco: comparación y reconstrucción... ¿para qué y cómo? (Por una vascológica autocentrada, no ensimismada)». In E. Blasco et al. (arg.), 125-150.
- , 2013d, «Hiru hasperen gehi *bi*», in R. Gómez & M. J. Ezeizabarrena (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*. Bilbo, UPV/EHU-ren Argitalpen Zerbitzua.

- , inpr.-1, «Para la reconstrucción del verbo vasco: Nuevas irregularidades radicales y antiguas extensiones a la izquierda». Inprimategian *ASJU*-rako.
- , inpr.-2, «Más sobre dentales iniciales». Inprimategian *ASJU*-rako.
- , prest.-1, «850 etimologías y subiendo. Materiales para un diccionario etimológico vasco». UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- , prest.-2, «Monosilaboak eta bisilaboak denboran eta espazioan». UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- , prest.-3, «Para la prehistoria del consonantismo protovasco». UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- , prest.-4, «Haches etimológicas vascas: el testimonio gascón». UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- , prest.-5, «Hatxe morfologikoez». UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- , J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), 2011, *2nd Conference of the Luis Michelena Chair / Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra / II. Congreso de la Cátedra Luis Michelena*. UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- & J. I. Hualde (arg.), 2006, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask* (= *ASJU* XL, 1-2), UPV/EHU, Bilbo.
- & C. Mounole, 2010, «Lazarragaren hizkeraz». UPV/EHU-ko Udako Ikastaroetako hitzaldia. UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- & —, 2013, «Euskara arkaikoa (1400-1600)», in Gorrochategui, Igartua & Lakarra (arg.).
- , B. Urgell & K. Biguri, 1983, *Euskal baladak: I. Azterketa; II. Antologia*. Donostia-San Sebastián, 2 lib.
- De Lamberterie, Ch., 1998, «Sur la “loi de Meillet”», *Comptes rendus des séances de l'Académie des Inscriptions et Belles-Lettres* 142, 881-905.
- Lapesa, R., 1961, «Del demostrativo al artículo». Berrarg. in id., *Estudios de morfosintaxis histórica del español*, R. Cano eta M. Echenique (arg.), Gredos: Madril 2000: 360-387.
- LaPolla, R., 1992, «On the dating and nature of verb agreement in Tibeto-Burman», *Bulletin of the School of Oriental and Asian Studies* 55, 298-315.
- , 1994, «Parallel grammaticalizations in Tibeto-Burman languages: evidence of Sapir's drift», *Linguistics in the Tibeto-Burman Area* 17, 61-80.
- , 2000, «Subgrouping in Tibeto-Burman: Can an individual-identifying standard be developed? How do we factor in the history of migrations and language contact?». Hong Kong Universityko eskuizkribua.
- Lemaréchal, A., 2007, «Grammaire comparée des langues austronésiennes: que faut-il penser du “grand tournant” de l'Après-Guerre? Bilan, nouvelles hypothèses et programmes», in Lemaréchal & François (arg.), 145-203.
- & J. François (arg.), 2007, *Tradition et rupture dans les grammaires comparées de différentes familles de langues*. Mémoires de la Société de Linguistique de Paris. NS XV.
- López, S., N. Izagirre, S. Alonso, 2013, «Euskaldunen jatorria eta berezitasun genetikoa eztabaidan», in Gómez et al., 347-356.
- Lynch, J., Ross, M. & T. Crowley, 2002, *The Oceanic Languages*. Curzon: Surrey.
- Mallory, J. P., 1997, «The homelands of the Indo-Europeans», in Blench & Spriggs (arg.), 93-121.
- Manterola, J., 2006, «-a euskal artikulu definituaren gainean zenbait ohar», in Lakarra & Hualde (arg.), 651-676.
- , 2008, «Is Basque an agglutinative language?». Santa Barbarako Unibertsitateko hitzaldia.
- , 2009, «Euskal artikuluak euskalki eta autoreetan», *Oihenart* 24, 237-256.
- , prestatzen, *Determinazioaren gramatikalizazioa euskaraz*. UPV/EHUko doktorego Tesia.
- Marten, L., 2006, «Bantu classification, Bantu trees and phylogenetic methods», in Forster & Renfrew (arg.), 43-55.
- Martinet, A., 1950, «De la sonorisation des occlusives initiales en basque», *Word* 6, 224-233.
- , 1955, «La reconstruction structurale: les occlusives du basque», in *Économie des changements phonétiques. Traité de phonologie diachronique*. Francke, Berne: 370-388. Gazt. itzul. Madril, 1974.

- Martinez Areta, M., 2006, *El consonantismo protovasco*. Doktorego tesia, UPV/EHU.
- , 2008, «Hitz-konposakera euskaraz eta aitzineuskaraz», *ASJU* 37, 1-84.
- (arg.), 2013, *Basque and Proto-Basque. Language-internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*. Peter Lang, Frankfurt.
- McMahon, A. & R. McMahon, 2005, *Language classification by numbers*. Oxford U. P.
- & —, 2006, «Why linguists don't do dates: evidence from Indo-European and Australian languages», in Forster & Renfrew (arg.), 153-160.
- Meillet, A., 1967 [1908], *The Indo-European dialects*. University of Alabama Press. Frantsezko originala, *Les dialectes indoeuropéennes*.
- , 1925, *La méthode comparative en linguistique historique*, Paris. Berrarg. 1970. (= *Metodo konparatzailea hizkuntzalaritza historikoan* ('Koldo Mitxelena' Katedraren Argitalpenak 2), UPV/EHU, Bilbo 2001. Ma<sup>a</sup> Jose Kerejeta eta Blanca Urgellen itzulpena.
- Mitxelena, K., 1950a, «De etimología vasca». Berrarg. *SHLV*, 439-444.
- , 1950b, «De fonética vasca: la aspiración intervocálica». Berrarg., *SHLV*, 190-202.
- , 1951a, «La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet». Berrarg., *SHLV*, 203-211.
- , 1951b, «De fonética vasca. La distribución de las oclusivas aspiradas y no aspiradas». Berrarg., *SHLV*, 212-219.
- , 1953 (J. J. Beloqui, J. Elosegui eta P. Sansinenea de Elósegui-ren laguntzarekin), «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés». Berrarg., *SHLVI*, 246-272.
- , 1954a, «De onomastica aquitana», Berrarg., *LH*, 409-445.
- , 1954b, «La posición fonética del dialecto vasco del Roncal». Berrarg., *SHLVI*, 273-297.
- , 1957, «Las antiguas consonantes vascas». Berrarg., *SHLV*, 166-189.
- , 1958, «Introducción [a Landucci (1562)]». Berrarg. *SHLV*, II, 762-782.
- , 1960, «Guipuzcoano y vasco». Berrarg., *SHLV*, I, 320-322.
- , 1961/1977, *Fonética histórica vasca*, 2. arg. zuzendu eta emendatua, *ASJU*-ren Gehigarriak 4, Donostia-San Sebastián.
- , 1963, *Lenguas y protolenguas*. Berrarg., *ASJU*-ren Gehigarriak 20, Donostia-San Sebastián 1990.
- , 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Berrarg., *SHLV*, 1-73.
- , 1970a, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Bilbo.
- , 1970b, «Nombre y verbo en la etimología vasca». Berrarg., *PT*, 283-309.
- , 1971, «Toponimia, léxico y gramática». Berrarg., *PT*, 141-167.
- , 1974, «El elemento latino-románico en la lengua vasca». Berrarg., *PT*, 195-219.
- , 1976, «La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas». Berrarg., *LH*, 73-85.
- , 1977, «Notas sobre compuestos verbales vascos». Berrarg., *PT*, 311-335.
- , 1978-79, «Miscelánea filológica vasca». Berrarg., *PT*, 363-463 (+ 485-492).
- , 1981a, «Lengua común y dialectos vascos». Berrarg., *PT*, 35-55.
- , 1981b, «Galdegai eta mintzagaia euskaraz». Berrarg., *SHLV*, 656-673.
- , 1985, *Lengua e Historia*, [LH], Paraninfo, Madril.
- , 1987, *Palabras y Textos*, [PT], J. Gorrochategui (arg.), UPV/EHU, Bilbo.
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca*, J. A. Lakarra (arg.), *ASJU*-ren Gehigarriak 10, Donostia-San Sebastián, 2 lib.
- , 2011, *Luis Michelena. Obras Completas*, J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *ASJU*-ren Gehigarriak, 15 liburuki, Bilbo-Donostia.
- & I. Sarasola, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia - Diccionario general vasco*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mounole, C., 2006, «Quelques remarques à propos de l'histoire des périphrases basques», in Lakarra & Hualde (arg.), 723-738.
- , 2007, «Perifrasi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantitiboa eta proposamen berria», *ASJU* 41, 67-138.



- , 2008, «Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena: inperfektibozko perifrasiaren sorreraz», in Artiagoitia & Lakarra (arg.), 585-604.
- , 2009, «Aditzaren mailegaketa euskararen diakronian: prozesu morfologiko eta sintaktikoak», *Oihenart* 23, 415-436.
- , 2010, «Alineazio aldaketak euskararen diakronian», in B. Fernández, P. Albizu, R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*, ASJU-ren Gehigarriak LII, 151-170.
- , 2011a, *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*. UPV/EHU eta Bordele IIIko tesia.
- , 2011b, «xvi. mendeko euskal aditza: Lazarraga eta gaineratekoak parez pare», in Lakarra, Gorrochategui & Urgell (arg.), 127-148.
- Múgica, M., 1996, «Notas de fonética histórica y toponimia: I. Sobre cronología de los cambios fonéticos», *ASJU* 30, 219-238.
- , 2000, «Notas de fonética histórica y toponimia: II. Finales en *-iano*, *\*(i)one*, *-ina*», *ASJU* 34, 397-412.
- Newmann, J., 2002 (arg.), *The linguistics of sitting, standing and lying*. John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Nichols, J., 1997, «The epicentre of the Indo-European linguistic spread», in Blench & Spriggs (arg.), 122-148.
- Nurse, D. & Philippson, G. (arg.), 2003, *The Bantu languages*. Routledge, London & NY.
- Oñederra, M. L., 1990, *Euskal palatalizazioa*. Bilbo, UPV/ EHU.
- , 2009, «Ohar batzuk bokal batez: zubereraren [y]», in Lakarra & Hualde (arg.), 663-678.
- Oregi, J., 1972, «Otxoa Arinen *Doctrina* (1713)», *FLV* 4, 353-369.
- , 1974, «Euskal-aditza zenbait gogoeta», *FLV* 17, 265-283.
- Peillen, Tx., 1992, «Zubereraren bilakaeraz: ohar batzuk», in *Nazioarteko Dialektologia Biltzarrak*. *Agiriak*, Iker 7, Euskaltzaindia. Bilbo: 247-272.
- Petit, D., 2004, «Les langues baltiques et la question balto-slave», *Histoire-Épistémologie-Langage* 26/2, 7-41.
- , 2007, «Archaïsme et innovation dans les langues indo-européennes», in Lemarechal & François (arg.), 13-55.
- Post, M., 2011, «Rethinking Sino-Tibetan phylogeny from the perspective of North East Indian languages». Paper from the 16th Himalayan Languages Symposium 2-5 September 2010 School of Oriental and African Studies, London. Bernako unibertsitateko eskuizkribua.
- , 2013, «The Siyom River Valley: An essay on intra-subgroup convergence in Tibeto-Burman». Bernako unibertsitateko eskuizkribua.
- , prestatzen, «Diachrony is indispensable: Making sense of the grammar of Galo». Bernako unibertsitateko eskuizkribua.
- Rao, J. P., 1992, «Status of aspirated sounds and direction of evolution in the reconstructions of Telugu sound system», *International Journal of Dravidian Linguistics* 22, 60-67.
- Reguero, U., 2010, «Euskararen kronologia erlatiboa finkatzeko lehen hurbilketa». UPV/EHU-ko lan argitaragabea.
- , 2012, *Erdi Aroko euskara: dialektalizazioaren hastapenerantz*. UPV/EHU-ko Master tesia.
- , argitaragabea-1, «Euskalkiak eta historia: euskalkien historiako oinarriak finkatzeko hurbilketa». UPV/EHU-ko lan argitaragabea.
- , argitaragabea-2, «*Continuum*-ak eta etenak euskararen dialektoetan». UPV/EHU-ko lan argitaragabea.
- de Rijk, R. P. G., 1981, «Euskal morfologiaren zenbait gorabehera», in ZZEE, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 83-101. Berrarg., 1998, 211-224.
- , 1992, «Nunc Vasconice», *ASJU* 26:3. 695-724. Berrarg., in 1998, 347-376.
- , 1995, «Basque manner adverbs and their genesis», *ASJU* 29:1.53-82. Berrarg., in 1998, 391-419.
- , 1998, *De lingua uasconum. Selected writings*. ASJU-ren Gehigarriak, Donostia-San Sebastián.

- Rohlf, G., 1977, *Le gascon. Études de philologie pyreneenne*. Max Niemeyer: Tubinga, 3. arg. emendatua.
- Ross, M., 2009, «Primary subgroups of Austronesian: a consideration of some hypotheses». Australian National Universityko eskuizkribua.
- Sagarna, A., J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), 2011, *Pirinioetako hizkuntzak. Lehena eta oraina*. Iker 26, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Salaberri, P., 2011, «Pirinioetako euskal toponimoak: direnak eta diratekeenak», in Sagarna, Lakarra & Salaberri (arg.), 1019-1047.
- Sarasola, I., 1983, «Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos», *ASJU* 27, 69-212.
- , 1997, «Euskal hitz altxorraz», *ASJU* 31, 617-642.
- Schmidt, K. H., 1992, «Contributions from new data to the reconstruction of the proto-language», in E. C. Polomé & Winter, W. (arg.), *Reconstructing languages and cultures*. Mouton de Gruyter, Berlin & New York: 35-62.
- Shen, Zh., 2011, «The origin of Mandarin», *Journal of Chinese Linguistics* 39, 1-31.
- Sims-Williams, P., 1998a, «Celtomania and Celtoscepticism», *Cambrian Medieval Celtic Studies* 36, 1-35.
- , 1998b, «Genetics, linguistics and prehistory: thinking big and thinking straight», *Antiquity* 72, 505-527.
- , 2012, «Bronze- and Iron-age Celtic-speakers what don't we know, what can't we know, and what could we know? Language, genetics and archaeology in the twenty-first century», *The Antiquaries Journal* 92, 1-23.
- Stiles, P. V., 2013, «The Pan-West Germanic isoglosses and the sub-relationships of West Germanic to other branches», *NOWELE* 66: 1, 5-38.
- Straka, G., 1951-54, «Observations sur la chronologie et les dates de quelques modifications phonétiques en roman et en français pré-littéraires», *Revue des Langues Romanes* 71, 247-307.
- , 1956, «La dislocation linguistique de la Romania et la formation des langues romanes à la lumière de la chronologie relative des changements phonétiques», *Revue de Linguistique Romane* 20, 249-267.
- Suarez, J. A., 1995, *Las lenguas indígenas mesoamericanas*. Instituto Nacional Indigenista, México D.F. Ingeleselehena, Cambridge U.P. 1983.
- Tovar, A., 1959, «El vizcaíno entre los dialectos vascos», in *El euskera y sus parientes*. Mintoauro, Madril: 146-177.
- *et al.*, 1961, «El método léxico-estadístico y su aplicación a las relaciones del vascuence», *BAP* 17, 249-281.
- Trask, L. R., 1977, «Historical syntax and Basque verbal morphology: Two hypotheses», in Douglass *et al.* (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*. Reno, 203-217.
- , 1985, «On the reconstruction of Pre-Basque Phonology», in J. L. Melena (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septvagenario Oblatae*. Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU, 2 lib., II, 885-891.
- , 1995, «On the history of the non-finite verb forms in Basque», in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 207-234.
- , 1996, *Historical linguistics*. Arnold, London.
- , 1997, *The history of Basque*. Londres, Routledge.
- , 1998, «The typological position of Basque: then and now», *Language Sciences* 20, 313-324.
- , 2000, «Some issues in relative chronology», in C. Renfrew, A. McMahon & L. Trask (arg.), *Time depth in historical linguistics*. 2 lib. The McDonald Institute for Archaeological Research, Cambridge: 45-58.
- Uhlenbeck, C. C., 1942, «Les couches anciennes du vocabulaire basque», *Eusko-Jakintza* 1 [1947], 543-581. Nederlanderazko orijinalaren itzulpena (G. Lacombe).
- , 1947, «La langue basque et la linguistique générale», *Lingua* 1, 59-76.

- Ulibarri, K., 2010, «*Viva Jesus* dotrina: edizioa eta azterketa», *ASJU* 44: 2, 41-154.
- , 2011, «1619. urtean Sebillan argitaraturiko bertsoak: *Canción en lengua vascongada o vizcayna que contiene la sustancia deste sermón*», *ASJU* 45, 361-385.
- , 2013, «External history. Sources for historical research», in Martínez Areta (arg.), 89-117.
- Urgell, B., 2006, «Para la historia del sustantivo verbal en vasco», in Lakarra & Hualde (arg.), 921-948.
- & J. A. Lakarra, 2008, «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz». Baionako CNRS-ren Biltzarreko (XII/12-13) hitzaldia. UPV/EHU-ko eskuizkribua.
- Urquijo, J. de, 1908-1909, «Los refranes vascos de Sauguis», *RIEV* 2, 677-724; 3, 144-157.
- , 1924, «Guerra, J.C.: *Viejos textos del idioma*», *RIEV* 15, 379-380.
- Vogt, H., 1940, «La parenté des langues caucasiques». Berrarg. in Vogt 1988, 152-167.
- , 1955, «Le basque et les langues caucasiques». Berrarg. in Vogt 1988, 317-343.
- , 1988, *Linguistique caucasienne et arménienne*. «Studia Caucasologica II», E. Hovdhaugen eta F. Thordarson (arg.), Norwegian U. P., The Institute for Comparative Research in Human Culture, Oslo.
- Voyles, J. B., 1971, «The problem of West Germanic», *Folia Linguística* 5, 117-150.
- Watkins, C., 1966, «Italo-Celtic revisited», in H. Birnbaum & J. Puhvel (arg.), *Ancient Indo-European dialects*. Berkeley, U. of California P.: 29-50.
- , 1990, «Etymologies, equations, and comparanda: types and values, and criteria for judgment», in Baldi (arg.), 289-304.
- , 2001, «An Indo-European linguistic area and its characteristics: Ancient Anatolia. Areal diffusion as a challenge to the Comparative Method?», in A. Y. Aikhenvald & R. M. W. Dixon (arg.), *Areal diffusion and genetic inheritance. Problems in Comparative Linguistics*. Oxford U. P.: 44-63.
- Wichmann, S., 2010, «Internal language classification», in J. Lurughi & V. Bubenik (arg.), *The continuum companion to historical linguistics*, London & New York: 70-86.
- Wilson, W. H., 2012, «Whence the East Polynesians? Further linguistic evidence for a norther outlier source», *Oceanic Linguistics* 51, 289-359.
- Zuazo, K., 1989a, «Arabako euskara», *ASJU* 23, 3-48.
- , 1989b, «Zubereraren sailkapenerako», *ASJU* 23, 609-651.
- , 1994a, «Burundako hizkera», in Gómez & Lakarra (arg.), 297-364.
- , 1994b, «Bonapartez geroztiko euskal dialektologia», in Gómez & Lakarra (arg.), 13-43.
- , 1998a, «Arabako euskara», in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), *Arabako euskararen lekukoak, ikerketak eta testuak. El euskera alavés, estudios y textos*. Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco, Vitoria-Gasteiz: 125-189.
- , 1998b, «Euskalkiak gaur», *FLV* 30, 191-233.
- , 1998c, «Nafarroako euskal hizkerak», in Camino (arg.), 1-21.
- , 1999a, *Arabarrak euskararen herrian*. Arabera, Gure Liburuak, Vitoria-Gasteiz.
- , 1999b, «Arabako euskararen kokagunea», *FLV* 31, 165-184.
- , 2003, *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Elkar, Donostia-San Sebastián.
- , 2006, «Deba ibarreko euskara zaharra», *ASJU* 40, 1005-1029.
- , 2007, «Euskalkien jatorriaz eta bilakabideaz», *Berria* (9, XII) eta «Análisis sobre el origen de los dialectos del euskara. Los “euskalkis” actuales tienen su origen en la Edad Media», *Gara* (2007/XII/9).
- , 2010, *El euskera y sus dialectos*. Alberdania: Irun.
- , 2012, *Arabako euskara*. Elkar.
- Zuloaga, E., 2010, «Nerbioi ibarreko euskara XVIII eta XIX. mendeetan: (I) Bizente Sarriaren bizkaierazko sermoiak», *ASJU* 44: 2, 393-435.
- , 2011, «Nerbioi ibarreko euskara XVIII eta XIX. mendeetan: II. Juan Ignazio Astigarragaren sermoi-bilduma», *ASJU* 54: 1, 235-276.
- , 2013, «Bizkaiko jauntxoan inguruko herri-literaturaz: Plentziako 1603ko hiru esaera zahar eta *Refranes y Sentencias*-en jatorria, eta proposamen bat Arrasateko Erreketaren Kantuez», *ASJU* (argitaratzeaz).

## 8. Eranskina

### 8.1. Euskal dialektologia diakronikoa 1981 arte

Dakigunez, Luis Luciano Bonapartek zortzitan banatu zituen *azkenik* euskal hizkerak; *azkenik*, zeren zazpitan —BN bakarrarekin— edo bederatzitan —bi bizkaierarekin— egitea ere otu baizitzaion uneren batez (cf. Elordui 1994). Berrogei urte beranduago, Azkuek bere Hiztegian “Espainiako Zuberera” euskalki asketzat eman zuen (→ erronkaria) eta ia beste 60 beranduago Mitxelena aezkera eta zaraitzua ere berezi zituen bi BN-etarik, bere egiteko nagusi zen fonetikazko helburuetarako; gaintik, Bonapartek ezagutu ez zuen eta —noizbait ezagutu arren— Urkixok eta Azkuek aztertu eta erabili ez zuten Landucciren (1562) hiztegiaren bitartez euskalki berri bat (= Hegoaldekoa, Arabera) erantsi zuen zerrendara (cf. Mitxelena 1958, 1961/1977 eta 1964). Azkenik, Koldo Zuazok (1998) seitan bildu zituen xx. mende amaierako hizkerak (ikus §3.3).<sup>165</sup>

Laburbeharrez edo gehiagoren beharrik ez zelako,<sup>166</sup> —ondoko lerroak dira euskara osoaren dozerdi orrialdetako aurkezpen laburrean egokitzen dizkion guztiak—, Lacombe (1924) edozeinen esperientziako kontu gisa zekarren hizkera moderno sailkapen bitarra (bizkaiera eta gainerako guztiak, alegia):

Il suffirait peut-être de distinguer deux grands groupes dialectaux: le biscayen (que l'on pourrait appeler aussi basque occidental) d'un côté, et de l'autre côté tous les autres dialectes (guipuzcoan, dialectes de la Haute et de la Basse-Navarre, labourdin, souletin) [...] On pourrait appeler ce groupe, par opposition au premier, centro-oriental. Nous justifierons cette classification par la considération suivante: on passe par gradations insensibles d'un parler à l'autre parmi ceux qui constituent ce groupe, tandis que le saut est brusque lorsqu'on passe du guipuzcoan au biscayen. Ce dernier dialecte se distingue en effet, dans toute une partie de son verbe, par l'emploi d'auxiliaires qui lui sont propres, il offre des particularités qui n'appartiennent qu'à lui dans maints détails de la grammaire en plus grand nombre que les autres dialectes, et en fin son vocabulaire tranche aussi assez souvent sur celui de ces congénères (Lacombe 1924: 260).

Uhlenbeckek, are urrutiago joaz, bitasun sinkroniko horri erabateko sakontasun diakronikoa eman zion:

Si nous faisons attention aux particularités individualisantes du biscayen par rapport aux autres dialectes basques, nous avons plutôt l'impression qu'il nous faut partir de deux dialectes pyrénéens occidentaux anciens qui, pendant une certaine période, n'étaient pas immédiatement voisins, mais qui, entrés plus tard en contact immédiat, se sont rapprochés de plus en plus. De l'un serait donc issu le biscayen; du second, tous les autres dialectes en territoire espagnol et français. Le rapprochement entre le biscayen et le guipuzcoan, en d'autres mots l'effacement graduel des limites indubita-

<sup>165</sup> Izatez, Bonapartekin berarekin hasi ziren bestelako sailkapenak: Printzeak zioenez, hirutan bana zitezkeen euskal dialektoak (Mendebala + Erdialdea + Ekialdea) eta, menturaz, bitan: Mendebala / Erdi-Ekialdea.

<sup>166</sup> Lafonek eta Allieresek (cf. Lakarra 1986b), ordea, ez zuten kontua bistakotzat eta ondorio horien froga eske ziren; alabaina, Lacombe ez zion gai honi azalpen eta argudio gehiago erantsi. Izan ere, artikulu honetako pasartetxo horren ospe (ez-bilatua) gora-behera, egilea ez zen dialektologia eta bere ikerketa jarduneari alor horretarik urruti ibili zen gehienbat.

blement nettes autrefois, est un procès en cours depuis longtemps et qui se poursuit toujours (1947: 544).

*Sobre el pasado de la lengua vasca*-n (1964) bai batari eta bai besteari erantzun zien Mitxelena.<sup>167</sup> Izan ere, Lacomberen arrazoiak ahulak ziren: hiztunen esperientzian oinarritzen bagara, —hala diosku euskalari gailenak—, ez da jauzi txikiagoa giputz-nafar batentzat (berarentzat, esaterako) zubererarekin edo erronkarieraren azken hatsekin topo egitean. Bestalde, argudio lexikoak ez dira, gehienbat, munta handikoak izan ohi: honako honetan ere ez da frogatu —eta ez da frogakizun erraxa— bizkaierak enparatuek baino mailegatu gabeko lexiko propio gehiago duenik;<sup>168</sup> gainera, hainbat hitz bide dira —oraingo giputzek ulertu ez arren— duela mende batzuk beren lurraldean ere (ez soilik Iparraldean) erabiltzen zirenak. Azkenik, *egin* aditz laguntzailea lehen testuetarik ageri da, B-n ez ezik baita A-n eta G-n ere; areago dena, hiruretan (baita B-n ere) bada oraindik XVI eta XVII. mendeetan noizbait orokorra izan den \**ezan*; ikus §4.6.<sup>169</sup>

Uhlenbecken azalpenak are funts exkasagoak ditu: B eta G hizkuntza ezberdinetiko hizkerak omen dira eta sortzeko ezberdintasun hori gorde omen dukete, ematu omen den arren azken mendeetan. Alabaina, B eta gainerakoek fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoaren ardatzetan bat egiten dute eta batasun hori berdintasun erabateko bilakatzen da gorantz egin ahala; bestalde, lehen lekukotasunetarik hona diferentziak entengabe ugaldiaz eta handituz joan dira, ez ematuaz, holandarrak zioen bezala.<sup>170</sup>

Bistakoa da B eta G-ren arteko etena, neurri handi batean, bataren eta bestearen ezberdintasunei haize emateak eta berdintasun eta antzekotasunak euskalkien “eredu kanonikotik” ezabatzeak dakarrela; alabaina, ezberdintasun horiek usuenik oso berankorrek eta soilik herrixkaren batzuetan erabiliak dira (ez lurralde osoan ez gehiengan). Gainetik, hogeigarren mendearen bigarren zatian Landucciren hiztegiaren argitalpenarekin —eta hogeitabatgarrenean Lazarragaren eskuizkribuarenarekin— ohartu gara XIX. mendeko egoera islatzeko asmoz egindako Bonaparteren kartetan ezin ikus litekeenarekin: hots, Bizkaiko eta Gipuzkoako hizkerez kanpo, —eta garai historiko luzean, ez

<sup>167</sup> Aurreko urteetan ere badira egile beraren ohar politak, esaterako Lekuonak Axularren edizioari jarritako hitzaurreko hizkuntzazko bitxikeriei buruz (“Guipuzcoano y vasco” deitzen da hori, bidebatez). Uhlenbecki Tovarrek ere (1959) erantzun zion, zehaztasun filologiko handiz izan ez arren.

<sup>168</sup> Interesgarria zen, hasikin gisa, Etchebarne (2006); alabaina, ez dirudi bilakabide diakronikoen azterketa finkatzeko haren metodoak baliabide sendorik duenik (cf. §8.4).

<sup>169</sup> *Egin*-en gramatikalizazioaren zenbait alderdi ikertzeko abiapuntu gisa, Lakarra (2012c)-n Arrasarteko Erreketaren testua eta RS-ena erkatu ditut, biak B ipar-mendebalekoak izanik. Diren *ezan* eta *egin* laguntzaileen formak ikusmiratu ditut eta baita aditz enbor eta partizipioak perifrasi irrealetan: AErr-ek %100 du bietan eta RS-ek, aldiz, %50 (*lo egin* eta gainerako aditz arinak kendu ondoren) eta 2/3 edo, hurrenez hurren. Nabarmena da AErr-aren lehentasuna (1448ko gertakarietarik oso hurbilekoa bide da), —X-ekin Y koordinazio zaharra edo TOGEN-en bat ere badu— nahiz RS-ren hizkera argitalpen data baino hainbat hamarkada —beharbada, mende oso bat— zaharrago den, ezagun denez (ikus Lakarra 1996). Orain Zuloagak (2013) 1603ko armari bat argitaratu du, RS-eko bi errefrau ezagun eta Darmstadtetako alean ez gainerakoetan (Oihenartena, Larramendirena) agertzen ez zen enparatuko bat erantsiaz.

<sup>170</sup> Ikus Lakarra (1986b) eta (1996a)-ko taula, zeinetan BZ, GZ, B eta G erkatzen diren; bistan da horko ezaugarri gehienak arkaismoak direla baina horrek ez du kentzen beren balioa B eta G urrunduaz joan direla erakusteko. Orduan hori aski eta sobera zen orain besterik iruditu arren.

soilik urruneko historiaurrean—, bazela Araban euskara aski beregaina, dela fonetikan, dela morfologian, dela lexikoan; gogora dagoeneko Larramendiren lekukotasuna.

Arabako euskara honek —eta horren buztana dugu hein handi batean gorago aipatu Oñati aldean eta “G-ko bizkaieran” (!)—, ezaugarri propioez landa, inguruko dialektoekin komunean zituen ezaugarrien bitartez, berebiziko zubi-lana egiten zuen B, G eta are GN-rekin ere. Ez da zeresanik dialektoak talde estanko gisa hartzen dituen eta Arabako euskara kontuan ez duen analisiak<sup>171</sup> are urrutiago ikusten dituela B eta G, batez ere erkaketan ez benetan lekukotuak baizik eta “hiperbizkaiera” eta “erdi-gipuzkera”, hanpatuak eta zikiratuak, erabiltzen baditu; cf. Lakarra (1986b), (2004) eta Lakarra & Mounole (2010).

Dela leinuen jarraipen gisa, dela AE-aren zatiketaren emaitza legez, dialektoen historia eta dialektalizazio prozesua bera XIX. edo XX. mendeetako euskalkietatik abiatu ohi da, nahiz eta ikerketaren helburu edo ondorio mota honi buruzko adierazpen garbiak exkaxak diren, izan. Alabaina, egoera modernotik abiatutako hurbillketa oker honek lor lezakeen bakarra egungo egoera modu tautologiko batean aldarrikatzea baino ez da eta ezin ordezka litzake ez aldaketaren teoriak dakiguna, ezta besterik ere. XIX. edo XX. mendeetako mapak —egoki hautatutako isoglosen gainean eraikiak badira, noski— ezin dute une jakin bateko fotografia baino eman ahal, gehienez ere. Ez dugu inongo segurantzarik uste izateko 100, 300, 500 edo gehiago urtez fotografia hori baliagarri izan litekeenik eta usu bai alderantzizko froga argiak.

## 8.2. Dialektologia diakronikoaz eta filologia ukronikoaz

1897an *Euskalzale*-ko irakurleentzat argitaratu zuenean, *Refranes y Sentencias*-en Orozkoko hizkeraren oihartzunak entzun uste zituen Azkuek.<sup>172</sup> Zenbait urte beranduago, Garaibairen erretrauen edizioaren hitzaurreako Julio Urkixo ere arduratu zen *RS*-en jatorriez.<sup>173</sup> Bere burua ez zuen inoiz hizkuntzalaritzat hartu<sup>174</sup> eta aurreko ikertzaileek (Van Eysek, Vinsonen, Azkuek) ziotena bildu eta konbinatu zuen, B eta G artekotzat zuelarik *RS*:

Ahora bien: dada esta mezcla de ambos dialectos [B eta G-rena, alegia] en el texto en cuestión y teniendo en cuenta que aun cuando el pueblo en que nació Garibay forma parte de Guipúzcoa pertenece por su habla al dialecto vizcaíno, ¿sería temerario suponer que los *Refranes y Sentencias* estuvieran redactados en su mayoría en el vascuence que se hablaba en Mondragón en el siglo 16? Suposición es ésta que a mi entender no debe ser echada en olvido (...) Nadie está quizás en mejor situación para

<sup>171</sup> Akats hau dagoeneko Mitxelena (1981a)-en markatua zen; beti iruditu zait aipagarri ez eze harrigarri —diakronisten artean bederen—, *FHV* eta *Sobre el pasado*-ko dialekto sailkapen argi eta garbia (“hegoaldekoarekin” edo “araberarekin”, alegia) sailkapen estandartzat ez erabiltzea. Ez da zeresanik, euskalaritzatzen bi lan nagusien oinarrietan da sailkapen hau, ez ondoko xeberren baten bapateko burutazioen artean.

<sup>172</sup> Alabaina, haren Hiztegia (1905-6) hartu eta *RS*-ko hitzei jatorriak bilatzerakoan ez da horrelakorik ateratzen: ikus Lakarra (1996a) eta (2002)-ko emaitzak.

<sup>173</sup> Berdintsu Mitxelenak 1960ko bere sarrera-hitzaldian baina soilik Larramendiren Hiztegitik jasotako *ukuzka* bitxia daraman erretrauz (*RS* 560 *Seyacaz echun dina ucuzca jaigui d[ó]a*; ikus haren (1970a).

<sup>174</sup> Mitxelenak “filologotzat” dio nonbait, baina zerbait izatekotan hori zela gehituaz.

averiguar lo que en ella pueda haber de cierto que el genealogista mondragonés y colaborador de esta revista sr. de Guerra (Urkixo 1908: 603 [apud Lakarra 1996a: 10]).

*RIEV*-eko hurrengo alean zetorkion zalu Guerra jaunaren ihardespena:

Considero muy plausibles las suposiciones de V. al atribuir a Garibay la colección de *Refranes y Sentencias* (...) He formado el juicio de que fueron en su mayor parte recogidos en Oñate, Mondragón, Aramayona, Ochandiano y sus comarcas limítrofes de Arratia y Villareal, sobre todo en estas dos últimas. El lenguaje no difiere en su general sabor, del que oigo todos los días en mi bufete a los caseros de las comarcas apuntadas (Urkixo 1909: 144-145 [apud Lakarra 1996a: 10-11]).

Ez da esan beharrik, Guerraren belarria ez zela zoliegia hizkera zahar nahiz berrien berezitasunak antzemateko orduan;<sup>175</sup> nolana ere den otorrino kontu hori, corpus zaharra pixka bat ezagut dezanarentzat, testu bikote gutxi da beren artean hain urruti nola diren *RS* eta Garibairenak. Grafian nabarmenak dira *G*-ren < ^ > eta < sh > eta *RS*-en < hu-, hi- >, aditz morfologian *G*-ren *dabeleben* eta *RS*-en *daudeleuden*, lehenaren lehenaldietako *-n* erabat iraunkorra eta bigarreneko erorkor xamarra (baina ez erabatekoa) eta horrezaz gainera *RS*-en lexikoko dozenaka hapaxak, *G*-ren ia hutsaren hurrenaren parekoen aurrean (ikus, zabalago, Lakarra 1986a: *passim* eta 1996a: 17-26).

Urkixoren jokabidean aurkitzen duguna ez da Menéndez Pidalek Bonaparterengan salatutakoaz oso bestelakorik: euskalkiak talde estankoak izateaz gainera, betidanikoak eta betirakoak edo ziren, eta xx. mendearen hasieran xvi. akabuan bezalatsukoak (ik. 149. oh. kitxueraz).<sup>176</sup>

### 8.3. Dialektoak eta konparaketa

Euskalaritzan, zehatzago, hizkuntzaren ahaideak bilatzeko saioetan, gutxienak dira kognado zehatz eta sistematikoak biltzera iristen direnak. Kognado horien kalitatea arrazoi asko dela bide —analisi-zatiketa okerrak, itzulpen okerragoak, maileguak jatorrizkoak direlakoan...—, ez da batere egokia izan eta ez dute gutxieneko iragazkirik ere gainditzen Traskek (1997: azken atala) ederki erakutsi bezala. Aipatu “eraketa” horien artean usu gertatzen da, *AE*-ren berreraiketa erabili beharrean —edo euskarazko lekukotasunik zaharrenak bederen—, han-hemengo (dialekto eta hizkera

<sup>175</sup> Egia esan, geroago Urkixo (1924) ere ongi ohartu zen Guerraren ezagutza filologiko exkaxaz har *Cantares Antiguos*-en iruzkina egiterakoan.

<sup>176</sup> Ez gara hemen aitzindarien eman konfidantzaren oinarriez arituko; halere, ezin isilik utzi B bilduma eta gainerako Garibairen zuzeneko lekukotasunak *RS*-ko hizkerarekin ez erkatua. Bestalde, bitxi da ikustea Lafon (1943) Bonaparte bera baino bonapartistago dela testu zaharren (Leizarraga, Garibai) euskalkiak esleitzean.

Hainbat urte geroago (1984) Ibon Sarasolak “EH-tik kanpoko euskara batua”-ren ekoizpentzat aurkeztzen zuen Iturberen 1659ko poesia; kontrakoa —hots, Arabako euskaran zela— defendatu nuen Lakarra (1986b)-n eta beste zenbait lanetan. Badirudi orain (cf. Zuazo 2007) bestek ere antzeko iritzia duela. Atera berri du Koldo Ulibarrik Sebillan (1619) argitaraturiko poema bat zeinetan ematen den antzeko “hizkuntza nahasketak” B, G eta GN-ko zenbait ezaugarriekin: Iturberen edo Lazarragaren testuaren edo beste arabar lekukotasunen ezaugarri markagarria da hau eta gogoratzen digu euskalki batek ez duela nahita nahiezko hainbat ezaugarri bereizle euskalki izaera aitortzeko: ezaugarri ezagunen konbinazio ezberdina aski da (cf. Camino 2008a). Azkenik, ezaugarri guztiak ez dute balio bera eta Portalek, demagun, badu baten bat (Aldaik *FLV* 2012 ikusi ez arren) testu hori GZeko izatea ezinezko egiten duena.

ezberdinetako) forma moderno eta zahartasun aukerarik gabeak plazaratzea, unean-uneke usteko kognadotik hurbil-antxean agertzeko (cf. Mitxelena 1950a Boudaz, nahiz Lakarra 1997b Schumacher eta Seto-z).

AE-ren ezinutzizko laguntza gabe egindako saioen artean ez da ahazteko inolaz ere Federico Krutwig jaunak<sup>177</sup> 1978an argitaratutako *Garaldea*-ren bigarren zatiko zortzigarren atalean egindako euskara-guantxe erkaketa.<sup>178</sup> Beharbada, saio honek gaintzen ditu aurreko eta ondoko gisa berekoen marka guztiak eta hemen txokotxo bat ematea merezi du, ez soilik konparaketan egindako xeblekeriengatik, baizik eta euskalkiez zabaldu ustekizun zenbaiten aparteko adierazle den aldetik (*Gu* = guantxera, *E* = euskara):

143. or.	Gu.	<i>-kebe</i>	:	E.	<i>-gabe</i>
	Gu.	<i>aalmene</i>	:	E.	<i>ahalmen(a)</i>
	Gu.	<i>hau</i>	:	E.	<i>hal</i> [al]
144. or.	Gu.	<i>gama, gama</i>	:	E.	<i>hamai! hamai!</i>

<sup>177</sup> *Jauna*-rena ezin zaio ukatu, noski, baina bai gainerakoak, nik dakidala ez baitzen ezertan doktore (eta lizentziadun?) izatera iritsi —are gutxiago hizkuntzalaritza historiko eta konparatuan— bere idazmolde hanpatu xamarrak gora-behera:

Por otra parte, bien es sabido que lo que se llama en la investigación un “Fachmann”, es decir, un erudito en la materia, no tienen mayormente más cerebro imaginativo y creador que un simple “robot”... y no hacen todos ellos otra cosa que seguir las líneas de fuerza que les imponen otros hombres. Si de los periodistas se puede decir que son “hombres que hablan de todo y no saben nada de nada”, de un Fachmann se puede decir que “es un hombre que habla de una sola materia, que conoce una sola materia y que supone que todo el mundo es la materia que él en su limitación conoce”. Si los unos pueden ser peligrosos por su chabacanería, los otros son redutables por su arrogancia (1978: 81).

Badira gehiago ere eta betekada on bat nahi duenak jo lezake haren *Vasconia Computer Shock 2000*-ra.

Dagoeneko Krutwigi buruz bada bere garaikideen zenbait juzku, hizkuntzalaritzaz landako egilearen bestelako alor kuttunez, haren ikuspegi zabalago osoagoa emanaz, jakina: «*Vasconia* es el libro de un dilatante con un tupé extraordinario: el necesario para no sólo hablar de lo que no sabe, sino decidir sobre cuestiones complejas que dividirán a los entendidos *in saecula saeculorum*» (J. Ugarte, *apud* Azurmendi 2012: 48). Hortxe bertan eta Ugartek berak, «¿es que las piruetas de Krutwig merecen comentario? (...) ¿Cómo se pueden decir las mamarrachadas de Marc Legasse, comparando [a Krutwig] con [J.] Paul Sartre a quien ha demostrado tener como único bagaje cultural los tomitos de *Que sais-je?* y un estilo desordenado hasta la anarquía? “Amasijo dialéctico” debía haber titulado Federico su libro, pues de la dialéctica marxista no muestra tener ni idea. No hablemos de economía del País, ya que ni siquiera ha sabido copiar estadísticas que están al alcance de su mano».

<sup>178</sup> Ez dut hemen tokirik aipatzeko Krutwigek egiten duen testu kanariarren erabilera; nahi duenak jo lezake Wölfel-en *Monumenta Linguae Canariae*-ren berrargitalpena (gaztelaniaz itzulirik, Tenerife 1996, bi lib.). Jakingarriak, ikusgarriak eta harrigarriak dira *Garaldea*-ren bigarren parteko “los textos caledonios” eta “otros estudios garaldetanos” edo lehenbizikoko “la población megalítica y la división de las lenguas románicas”, baina gainerako atalak oro ere ahaztezinak dira, bereziki “el cientifismo” (§7; zientzia proletarioaz eta antzeko kutixiez hornitua eta “egokitua”). Bitxia da euskararen jatorriekiko edo konparazioarekiko Krutwig jaunaren “ideiak” erabiltzerakoan zein gutxi aipatzen diren —ofizioek erabili ohi duten bibliografia estandarraz landa (hor, zorigaitzez, ez da Krutwig inoiz ageri)— aldameneko ataletako “lore” hain adierazgarriak, nahiz eta jende mota horrek “interdisziplinarietatea” eta antzekoak ahotan darabiltzan txitean-pitean. Ikus Lakarra (1999) eta lan honi *Uztaro*-n Martínez Lizarduikok amandako “erantzuna”, batere kiroltasunik gabekoa, bidenabar (cf. Iriondo 2002).



145. or.	Gu.	<i>baka guare</i>	:	E.	<i>buka(tu) gura</i>
146. or.	Gu.	<i>ze bukar guaiok</i>	:	E.	<i>ze eho zak</i>
149. or.	Gu.	<i>abett</i>	:	E.	<i>eban</i> (naf. <i>zaben</i> )
	Gu.	<i>aben</i>	:	E.	<i>hemen, heben</i>
151. or.	Gu.	<i>asten</i>	:	E.	<i>haitzen</i>
155. or.	Gu.	<i>etxe</i>	:	E.	<i>etxe</i>
	Gu.	<i>fai</i>	:	E.	<i>jai</i>
	Gu.	<i>fanda</i>	:	E.	<i>fanda, joanda</i>

...<sup>179</sup>

Maltzurregi bide dateke aipatzea zeinen gutxi aldatu diren morfemak, esanahiak eta funtzioak aitzinhizkuntzatik euskara modernora eta baita horien distribuzioa egungo euskaratik hainbat mende lehenagokora, hau baita Krutwigen “euskarazkoek” egindako bidea eta ez kontrakoa: mailegu bikoteak (*bukatu, gura*), berrikuntza fonetiko (*etxe, fan, jai*), morfologiko (*-en* genit. plurala, artikulua, *-gabe* ez *-bage*) eta sintaktikoak (*al* galdetzailea, partiz. + *eta* ‘burutua’); eta zer esan inoiz euskaraz izan ez diren formak (*hamai, ze eho zak ez \*eho ze zak* edo *\*ze zak eho*)... Krutwigen saioak ezer adieraztekotan haren proposamena aldaketa-lege sendoen gainean baino lillura hutsetan oinarritua dela adieraziko luke eta, batez ere, elite askatzaileentzat ez dela hizkuntzalaritza konparatu aspergarriaren oinarritzko legeak bete beharrik.

Alabaina, Krutwigen euskara-guantxearen erkaketaren erpina aitzin-euskara-guantxearen berreraiketean dakusagu, zehatzago aitzin-euskara-guantxearen aditzaren ondoko paradigman eta haren iruzkinean:

A partir de estos esquemas [bizkaierazko *izan-en nor-nori*] resultaría la confección del esquema gwanche (sic):

natgwai		k,n	o	zu	e
hatgwai	t		o	gu	e
gwai	t	k,n	o	gu	zu
gatgwai		k,n	o	zu	e
zatgwai	t		o	gu	e
gwai	t	k,n	o	gu	zu

Por otras formas verbales, como *tamaraz* (ellos vienen), plural de *tamara* = él viene, parece que las formas canarias se asemejan más a las vizcaínas, por lo que en vez de poner el pluralizador delante del dativo, se debería colocarlo detrás (1978: 158-159).

Baliteke zeresanik izatea euskararen aldetik —nik zerbait begira nezakeen alde bakarretik, alegia—, eta zehatzago AE eta goragoko suposatzen duen aditz-sistemari dagokionez, baina bego hori hurrengo baterako.<sup>180</sup> Gaurkoan besterik da lehenesteko: Krutwigek aitzin-euskara-guantxeari datarik jartzen ez diolarik ezin sar naiteke zehatza-

<sup>179</sup> Gutxienekoa bide da aspalditik —baita *Garaldea* baino 30 bat urte lehenago ere— guantxea bereberearen dialektotzat hartu izana; cf. J. Hayward, “Afroasiatic” in B. Heine eta D. Nurse (arg.), *African Languages. An introduction*. C.U.P. 2000: 77.

<sup>180</sup> Cf. Trask (1977: Krutwigek ez du hori aipatzen, ezta besterik ere, egia esan), Gómez & Sainz (1995) eta Lakarra (prest.-1).

sun handitan; ez dakit, bada, euskaldunak —barka, bizkaitarrak— Kanarietara K. aurreko I. ala V. milurtekoan joan ziren, baldin eta hangoak Bizkaiko Golkora —Mutrikuren mendebalera zehatzago— garai bertsuan etorri ez baziren, jakina. Nolanahi ere, argi dago Krutwig jaunaren teoria eusko-guantea onartzeko, XIX. mendeko Bonaparteren euskalkien betierekotasuna behar dugula onartu lehenik;<sup>181</sup> bizkaiera, bada, ez Erdiaro goiztiar edo berantiarreko sorkuntza, ezta Antzinateko karistioen hizkera, baizik eta are lehenagokoa genuke, ez jakin Santimamiñe ala Isturizko garai loriotsuetatikoa.

Bitxi da, zinez, Krutwig eta bere segiziokoak politikoki hainbat gorrotatu Sabino Aranak bizkaierari eta gainerako dialektoei emandako antzinasun berarekin edo bertsuarekin ikustea “berreraiketa” jardunean.<sup>182</sup>

#### 8.4. Hitz bat metodo kuantitatiboez

Ironiaz beterik, Juha Janhunenek (2008) glotokronologiak “soilik” bere helburuak nahasi zituela diosku, hots, hizkuntzen arteko denbora distantzia neurtzen saiatu beharrean, horien arteko lotura genetikoak frogatzen aritu dela edo, hobe, frogatutzat ematen.<sup>183</sup> Alabaina (cf. Heggarty 2005, 2006, McMahon & McMahon 2005, 2006) glotokronologiak —are bertsiorik sofistikatuenean ere—, ez zuen balio ezer datatzeko eta ez da aurkitu (ez aurkitzeko esperantzarik ere) hizkuntza ezberdinetan eta bakoitzaren garai ezberdinetan gertatutako aldaketa konstanterik, C<sup>14</sup> berria bailitzan. Horrezaz landa, “oinarizko lexikoa”-k ere arazo gaindiezinak dituela dirudi, nahiz eta sei hamarkadatan askok, askotara, asko landu arren, eta glotokronologia —gehi hurbileko konparaketa masiboak, hilik dautza hamarkadaren hamarkadetan ofizioko hizkuntzalarien artean, bederen.<sup>184</sup>

Alorraren historiak gehiegi jakin beharrik ez da glotokronologiak eta konparaketa masiboaren hondamenak (cf. Lakarra 1997b, 1999) nolako atzerakada, oztopo eta aurreiritziak ekarri zizkieten hizkuntzalaritza diakronikoan metodo kuantitatiboei (cf. Heggarty 2005: 75). Alabaina, ez da zer pentsatu metodo kuantitatiboak eta formalizazioa *berez* txarrak direnik; baliteke horien bidez ohartzea “begi hutsez” —metodo konparatuaren erabilera soilaz, hobe— ikus edo antzeman ezin ditugunez.<sup>185</sup>

<sup>181</sup> Edo Lacombe eta Uhlenbecken “Bizkaiera/Gainerakoak” euskalkien banaketa.

<sup>182</sup> Nire (1999)-ko lanaz gainera, genetikaren ikuspuntutik guanteen eta euskaldunen (euskotarren?) ustezko erlazioez Krutwigek eta Martinez Lizarduikok bildutako txapelkeriez ikus Iriondo (2002). Esaterako, “*Euskal Zibilizazioa*, bai populazio-genetikan, bai beste arlo batzuetan (arkeologian edo hizkuntzalaritzan kasu), egun gaintitu diren ondorio zientifiko zaharkituak berreskuratzean oinarritzen delarik, garrantzi zientifikorik ez duen hipotesia da” (lanaren lehen orriko laburpenaren amaiera), edo “[Moral eta lankideek] zeharo frogatzen dute, kanariarren eta euskaldunen artean ez dagoela antzekotasunik, areago, kanariarrek antzekotasun gehiago dituztela espainol edo portugaldarrekin euskaldunekin baino. Hortaz, Martinez Lizarduikoari ozenki samar gogoratu behar diogu, zientzian ez dela zilegi gezurak esatea” (Iriondo 2002: 35). Ikus halaber Lopez, Izagirre & Alonso (2013).

Irakurgai interesgarria da, orobat, Jurgi Kintanarena (1998).

<sup>183</sup> Cf. «este método [glotokronología eta lexiko-estatística] se basa fundamentalmente en la noción de cognación y, por lo tanto, sólo tiene sentido aplicarlo a lenguas entre las cuales ya sabemos que existe una relación genealógica comprobada» (Heggarty 2005: 17); ez da hori, noski, Tovar *et al.* (1961)-en eta beste antzeko ia guztietan aurkitzen duguna.

<sup>184</sup> «Método que nosotros seguimos considerando «muerto y enterrado» (y que en eterna paz descansa!)» (Heggarty 2005: 71); gogora Dixonek 1997an esanak (apud Lakarra 1997b, 1999).

<sup>185</sup> Traskek zioenez (1996: 370) «computer programming may well be a necessary skill for the next generation of historical linguistics».

Halere, aldekoek eurek aitortu legez (cf. Heggarty 2006: 193-4), nabarmena da metodo filogenetikoen ezarpena hizkuntzaren historiaren azterketan zeinen arazotsu den eta ongi jakin beharra dago zeintzuk diren helburuak eta zeintzuk mugak eta lurak ez badira errepikatuko lehenagoko akatsak:

En conclusion, la glottochronologie nous paraît être une technique mal fondée, fause et même théoriquement absurde. Et de par sa facilité même —et superficialité— elle nous paraît représenter un danger pour la linguistique contemporaine. Un danger encore plus grave que ne l'est la glottochronologie en elle-même: c'est celui qu'implique la quantification de ce qui n'est pas quantifiable, la prétention de remplacer la méthode comparative et l'histoire par les mathématiques et le calcul. On a souvent l'impression qu'en employant des symboles et des chiffres, l'on est exact et cohérent. Mais l'exactitude réside en réalité dans la pensée et dans sa correspondance aux faits, et non pas dans les symboles et les chiffres, qui sont de simples instruments, parfois commodes, pour l'expression de la pensée. Si la pensée est fautive ou absurde, les symboles et les chiffres ne nous permettent pas de la rendre exacte et cohérente en elle-même: ils nous permettent seulement d'être d'une fausseté et d'une absurdité mathématiquement parfaites (Coseriu 1972 [1965]: 452, *apud* Larra 1997b).

Heggartyk eta McMahondarrek uste dute glotokronologiaren akats larrienak ezabaturik,<sup>186</sup> —ohiko metodo historiko konparatuaren oinarriak eta hatsarriak gordeaz—, dialektologiak lexiko-estatistika berriak eta lexikoaz landako (batez ere fonetikan oinarritutako) konparaketa kuantitatiboek ikertzailea asko lagundu lezaketela bere lanean; hala biz, noski.

<sup>186</sup> Ez diote ezer, ordea, kognadoen ezagutzaz; pentsatzekoa da, nolani ere, honelakoak askoz arazo apalagoak liratekeela hizkuntza ezagun baten hizkera ezagunekin eta aldaketa ezagunekin aritzean; ikus testuan 4. figura (bantuaz), 5.a (iranieraz) eta 6.a (grekeraz).



## EGILEAK

CAMINO, Iñaki  
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila  
Letren Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Unibertsitateko Ibilbidea, 5  
01006 Vitoria-Gasteiz  
inyaki.camino@ehu.es

LAKARRA, Joseba  
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila  
Letren Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Unibertsitateko Ibilbidea, 5  
01006 Vitoria-Gasteiz  
joseba.lakarra@ehu.es

EPELDE, Irantzu  
IKER (UMR-5478)  
Paul Bert plaza, 15  
Gaztelu Berria  
64100 Baiona  
irantzuepelde@euskaltel.net

OYHARÇABAL, Beñat  
IKER (UMR-5478)  
Paul Bert plaza, 15  
Gaztelu Berria  
64100 Baiona  
b.oyharcabal@wanadoo.fr

FERNÁNDEZ, Beatriz  
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila  
Letren Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Unibertsitateko Ibilbidea, 5  
01006 Vitoria-Gasteiz  
beatriz.fernandez@ehu.es

SALABERRIA, Jasone  
IKER (UMR-5478)  
Paul Bert plaza, 15  
Gaztelu Berria  
64100 Baiona  
j.salaberria@wanadoo.fr

IBARRA, Orreaga  
Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saila  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa  
Arrosadia campusa – Magnolioen eraikina  
31006 Iruñea  
orreaga@unavarra.es

